


W. SHAKESPEARE

1

EUSKERAZ



KARDABERAZ



KOMEDIAK-d

LARROKOETXEA'TAR B.



EUSKERAZTZALLEA

Arratia'n Zeanuri'n, Undurraga Goiko "ALTXAGUTXI" etxean yaio zan LARRAKOETXEA AGIRREZABALA'tar Bedita Yon, 1.894'g. urtean; Laterandar Araudun Lekaide izateko asmoz, Napparroa'ko Alsasua'ra doa 1.907'g. urtean, an Latera-ta ikasteko; an urte bi eginda, Oñati'ra, aztertu ta iru ziñak egiteko; mezararako ikasketak Oñati'n eginda, Gasteiz' en abadetu zan 1.917'g. urtean. Arrazkero Oñati'ko lekaretxean irakasle; geroago (ta

orretarako Iruña'ko Irakasle-Irakastegian azterketak yasan eta Irakasle-Agiria lorturik) Oñati'ko Udal-Irakastegi'ko Zuzendari ta Rodrigo Mercado de Zuazola izeneko Iraskuntzako Gau-Irakastegiko Irakasle, 1.936'g. urterarte; urrengo urtean Ingelanda'ra eta an urtebete ta zerbait geiago eginda, Uruguay'ra ta Argentina'ra, an Salta'ko "Colegio Belgrano" dalako irakastegian 1.970'g. urterarte irakasle izateko. Amerikari agur egin eta 1.972'g. urtean atzera ona etorri zan eta emen dogu.

Bere idazlanak: "Granja Modelo Fraisoro"n irakasle izandako García Peña'ren "PATOLOGIA VEGETAL" liburu mardula euskeraztu 1.930 urtean edo or orren baten, Azkue'tar Dunixi'k eskatuta; Eleiz-itzaldi-mordoa; Jauregi'tar Gabirel' en PISIA ta KIMIA'ko euskerea orraztu; EUSKALEKANDU-Laukiak buru-izenez 1.935'g. urtean Bilbao'ko egunkari baten lau idazlan labur agertu ziran eta euretatik batek yaso eban urte atako KIRIKIÑO saria; garai orretantsu bidali eban bere lan bat Iruña'ko nor-geiagoketa batera ta an be lenengo saria lortu ta yaso; orraitiño be euskal idazle bikain onen idazlanik andien eta nekatsuena emen doatsuna da, irakurle, Shakespeare mundu osoan ezagun baño ezagunago danaren 37 antzerkiak euskeraratzea izan da. Lan au, egiteko au zelan burutu dauen gure idazle onak zeuk ebatzi. Antzerkiotatik iru EUZKO-GOGO'A'n argitaratu ziran ainbat urte dirala; beste bat euskeraztzalleen Paris'ko norgeiagoketa batera bidali eban eta an lenengo saria yaso eban; sari ori yaso ebana BINIXA'KO SALEROSLEA deretxona izan zan. Mirande Aipharsorho'tar Yon zana izan zan maiko beste batzuen artean, eta ak Ibinagabeitia'tar Andima zanari idatzi eutsanez, ain bikain eginda ei egoan euskeraratze-lana-ta, lenengo saria berari emon-bearrean aurkitu ei ziran maikoak. Gure euskerea betiko galtzeko zori larrian ikusirik, bizirik iraunazoteko asmoz egin ei dau lan goragarri au, ez beste asmoz. Lortuko al dau bere guraria gure idazleak.

KARDABERAZ BILDUMA - 7

KOMEDIAK - A



W. SHAKESPEARE'REN
ANTZERKI
GUZTI-GUZTIAK - 37
EUSKERAZ



LARRAKOETXEA'tar BEDITA Y.'ek
euskerazturik



I ATALA

ZORTZI KOMEDI

NON ZER

Orrialde

ITZ-AURRE	7
EKATXA	13
BERONA'KO GIZAZINDO BI	47
WINDSOR'KO GOGALDI ONEKO EMAZTEAK	83
NEURRIRI NEURRI	129
OKERREKO USTEETATIKO BARRE-ANTZERKIA	173
UTSAGAITIK OTSAK OTS	201
GALDURIK MAITAKETA-NEKEAK	241
UDERDIKO GAU-AMES	287
IZTEGI-ERASKINA	319

ITZ - AURRE

Naiz-ta itzulpen ederrok, iñok txalo joka aurkeztu bearrik ez izan, itzaurre labur bat eskatu daustien ezkerok, pozik dagidanik ezin neike ukatu. Ta gaiak berak naroa oar, buruzbide ta gogaketa batzuk zertzen. Teatru-idazlea —William Shakespeare— ta itzultzailea —Aita Bedita Larrakoe-txea-irabiatu bear ditugu emen.

William Shakespeare (1564-1616)

Ona gizaseme sendal, errime bat. Bere egunetako zalaparta artean be teatru lanari ekiñik, XVI'garren azken aldiko ta XVII'garren asierako engelandar andikiak eta erri zea, bere erti-lan gain-gaiñeko ta ezin-obeagoz alaitu ta eskolatu ebazana. Gogapen eder ta sentimentu samurrez gaiñezka daukaguz bere lan ugariak. Gogozko munduak ditun egite ta zergaitien barren-guna agiri-agirian jarten dauskuz, iñok ez bezela, samur ta gogor. Gauza ezkutuen eta giza-arimaren ikuskizun zabalak.

Stratford-on-Avon dogu Shakespeare'n sorteria. Etzan aberatsa jaiotzez. Esku-zorro egille izan zan bere aita; baita uri artako alkate be zati baten. Baiña zoriak ez eutsen askorik lagundu, ta semeak be amabi urteko zane-tik aitaren ondoan lan egin bear. Alan be, Isabel erregiñaren omenez eratu ebezan jai batzuetatik, William gazteak ba-eban barruan kezka bat, teatru zaletasuna. Eta 1592'rantz London'era aldatu yakun. Emen gorriak ikusi zitun lenengotan, bere XXIX'garren amalaukotik dakigunez: zeruari dei egin eutsen garratz, baiña alperrik. Antzerki-girotan indartu ta zaildu aurre-tik, poematxo bitxi batzuk osotu ebazan: **Venus and Adonis** (1593), **Lucrece** (1594), ta abar.

Baiña era berean, teatru-talde bateko egiñik, antzokirako idazten asi zan, bere barru-leiari askatasuna emonik. Eta laster, amar bat urteren buruan, jenteak maiteen eben antzerki-idazle biurtu yakun. Eguzki barri bat sortu zan, odeiak oro uxatuz eta biotz guztiak gar-erazoz: errege-erre-giña ta enparauak, lilluraturik, bere antzerkiak ikusten joazan aldraka. Ederrez ta egiaz orrelaxe dardarazi eban London alde guztia, ogei urtez beintzat. Eta gero gerokoak, aren izena gaur be zabal ta nasai dabilkigu-na da-ta.

Shakespeare dogu, izan be, antzerki-gille garaienatarikoa; gerkarrak baiño be oldozkunez sakonago, ta nor-izakeraz ugari ta lits eder geiagokoa; Goethe ta Schiller be, ba-leiteke lirikuagoak izatea, baiña ez sakonago.

Biziaren ispillu izan bear dau antzerkiak, onari bere soiñekoa jazten dau- tsona ta txarrari dagokion itxura ezarri; gizaldiari egi-egiaz berea dauen arpegia estalgetzen dakiana; antzerkiak, zuzen jokatzekotan, bere elburu gurenari dagokionez, giza-bizia antzeztu bear dau bere artu-emon garaie- tan; labur: munduaren edestia antzeratu bear dau, aren eduz jardunik. Eta lurbirako literaturan ezta oraindiño agertu Shakespeare'k baizen bizi, zain- tsu ta azkor, zintzo ta berezko, munduan izan diran gizaseme gurenak margoztu ta antzeztu dauazan teatru-idazlerik.

Augaitik edo, Goethe'k idatzi eban: "Zerutiko jeinu batenak dirudie Shakespeare'n lanak, gizasemeok alik eta samurren alkar ezagutu-azteko goitik jatsitako batenak nunbait. Ez dira poemak. Alabearraren liburu aundi idiği baten aurrean gagozala dirudi; liburu ortan, barriz, bizi naspilleneko aize zakarrak arnas dagi, ta ara-ona darabil errebeska dardaratuz. Birlortu- rik naukie aren kemenak eta samurtasunak, aren oldarrak eta bigunak". Miresgarria bai aren lana! Baiña ez dakigu zein dan beiñago, aren adimen indarra ala gogakizunen sakona; aurrera dakarskuzan antzez-lagunen —dra- matis personae— ari ta odola, ala izadiak berak sortu-azoak dirudien seta ta izantza berezkoak. Edotariko zugatz indartsuz emokor dan basartea iru- ditzen yaku aren antzerki-lana.

Are geiago: Shakespeare'n notin guztiak maixuki mugatu ta bizi-bizi antzera egiñak dagoz. Ez dozuz itxura soillak aren iduriak: bakotzak bere bizia dau. Buru bakotzak argi agertzen dau nor dan, egiaz ta biziaz be- terik dagozalako. Bere asmamenak aragitu dauazan notiñak (pertsanak), izadiak berak leku ta garai bakotxean egin daroanez, kementsu ta eder jazten ditu: zer bakotzak bere lekua artzen dau ingurukoakaz nastu eziñeko era zoragarrian. Eta guzti au, errekan beera datorren uraren antzera, ez idazlea ez ikuslea, igartzeka.

Eta izkera? Guri, arin, barria dau, gatz-ozpiñez pikortua. Berezko ja- rio onen ostean, or datorkigu bere antze (arte) taiuketa gorengoena be. Antzerkiak eder, oso ta taiuz egiten ez dau oraindik iñok erre Shakespeare'n maillarik. Onen lan bakotxa lan bete-osoa dogu; nortzu bakotzak lan guz- tia artzen dau, bakotzak bakarka be matasa osoaren ariá, naiz-ta naspil- dua, era ta modu erabatekoan azkeneraiño eroanik.

Shakespeare'n lanak guztira, 148 bat amalauko ta beste poema batzuk kendu ezkeru, 38 bat komeri, drama ta trajeri dira. Komeriak: "Uderdiko gau-ames", "Windsor'ko gogaldi oneko Emazteak", "Binixa'ko Saleroslea", "Berona'ko gizazindo bi", "Alperriko maitaketa-nekeak", eta abar. Dramak: "Jon bakalduna", "II Errikarta", "IV Endika", ta abar, Engelandá'ko erre- geen kondaira aztertuz, amar antzerkiriáño. Trajeriak: "Erromi ta Yuletxu", "Macbeth", "Otel", "Lear errege", "Hamlet", eta abar. Gaiak, egia esan, giza-edestiko orrietan dabe oiñarri, baiña Shakespeare'k bizitza barrizko eztitan ipiñi zitun, bere nortasun bereziaren zildai ezin-nastua euretan jo- sita itxirik.

Aren askotariko teatru aberatsak, indar berebizikoa dau. Giza-ba rrua lau ertzetatik ezagun eban; indar ikaragarria eukan aren asmamenak ar- gidu, jite ta eredu barriak sortzeko. Aren antzez-notiñak, orrez gaiñera, gi-

za-itzak eta escerak ain ederto bait dabez mamintzen, ikur ta goiburu egiñik geratu yakuz: Hamlet'ek, adibidez, duda-muda esan nai dau; Macbeth'ek, gora-naia; Otel'ek, espa ta txutsua; Erromi ta Yuletxu'k, maitasuna; Shyloch'ek, zikoizkeria, ta abar.

Itzultzailea

Nor al dogu lan ain ederron euskeratzailea? Aita Bedita Larrakoetxea: Zeanuri'ko seme, ta laterandar lekaide. Beronen barri eske, Oñati'ra idatzi neutson oraintsu. Ta bere umetako ta gaztetako goraberak onela edesten daustaz erantzunean: "1894 gn. urteko bagilaren 24 gnean ekarri ninduen mundu onetara nire guraso Pantzeska Andoni Larrakoetxea Gallaga ta Yosebe Agirrezabala Eitezarraga'k Zeanuri'ko Undurraga edo Urandurraga auzoan, Altzagutxi etxe bakarrean, an yaiোক gara zaspi neba-arrebok. Undurra'ko irakastegian egin nebazan lenengo mallako ikasketak; Napparroa'ko Alsasua'ra yocan nintzan 1907 gn. urtean Laterandar Araudun Lekaide izateko asmoz, aldi atan an guretariko lekaideak lekaidetzarako lenengo ikasketak egiteko etxerik ba-eben-eta, an urte bi eginda Oñati'ra, gure lekaidetzarako soñekoa yantzi ta azterpen-urtea an igaroteko; 1917 gn. urteko lotazilaren 21 gnean Gazteiz'en mezadundu.

"Urrengo urtean Gazteiz'era, an gudaritzea egin eta Zenbakizti-ikasketak sakontzeko; an egon nintzan bitartean ango zuon lekaretxean egon nintzan egotez eta an ezautu nebazan zueotariko asko ta bai zuon bizikereaz yabetu be; gexo-urte izan zan urte a ta, orregaitik eta ni neu be sendoegi ez nebilelako zuon "gaiztokia"-ren barri be ikasi neban, egun batzuetarako ara sartu ninduen okelea yan al izateko-ta. Urte berean irakastaro barria asi-aurretik barriro be Oñati'ko gure etxera, an Zenbakiztia, Latera ta beste gai batzuk gure gazteci irakasteko. Eladeraz be irakasten neuntsen, izkuntza ori neure kitetik ikasita".

Ondoren, urteetan irakasle egozan Marista lekaideak, alde egin eben Oñati'tik, eta laterandarrak artu eben egitekoaren egitekoa, Oñati'ko Udalak eskatuta. Legezko eskubideak bear ziran lenengo maillako irakaskintzarako, eta Aita Bedita'k, lenengo berak bakarrik ortarako ikasketak etxean ikasi ta gero, urte bian Iruña'ra joan zan, an azterketak jasan eta irakasle-agiria aterateko. Bear zan agiria atera ebanean, Oñati'ko Udalak udal irakastegiko zuzendari autu eban; era berean izan zan "Fundación Rodrigo Mercado Zuazola" gau-eskolako maixu. Beraz, irakaskintzan buru-belarri sartuta ibilli yakun gaztetako urterik ederrenetan.

Alan be, euskaldun zintzuok geure izate barruan eroan oi dogun eraspen biziari eutsi-eziñik, amasei urteko zala, erriak bere-bere dituan doaik eta geure-geure dogun izkuntzaren ederraz konturatzan asirik, euskeraganako su beroa aunditzen joakon. Euskerazko lantxoak be osotzen zitun, bein Donostia'ko "Euskal Esnalea"-ra, bein Bilbao'ko egunkariren batera bialdurik. 1926 gn. urteko lotazilaren 5'am itzaldi bat irakurri eban Donostia'n, au da, "Gorbaie'ko gaztagintzea", gero "Euskal Esnalea"-ren **Itzaldia**

(1928) eritxonean argitara emona. Norbaitek eskatuta, "Granja Modelo de Fraisoro"-ko inkineru izandako García Peña'ren "Patología Vegetal" idaztia euskeraz jarri eban. Itzulpen au galdu egin yakon, antza, azkenengo gerratean.

"Euskaltzaleak" eritxon bazkunak, 1929'an, **Kirikiño Saria** sortu eban. Oneik izan ziran zazpi urtean saria jaso ebenak: Orixe, "Iruleak" (1929); Jon Gurutz Eguzkitza, "Emakume euskotarrak" (1930); Tomas Agirre, "Amaitza nekeen semea dek ogia" (1931); J. M. Lizardi, "Etxe barne bizia" (1932); Musika'tar Tene, "Euskotar umeen alde" (1933); Julene Azpeitia, "Euli baten edestia" (1934), eta 1935'garrenean Aita B. Larrakoetxea'k irabazi eban Kirikiño Saria: lau lan argitaratu zitun **Euzkadi'n** jarraian eta euretatik batek eroan eban saria. Beste bein Iruña'n eratu zan sariketa bat, baiña nartarrentzat; A. Bedita'k be bialdu eban lantxo bat, eta nartar zan ala ez itandu eutsonean zera erantzun eutsen: etzala Naparroa'n jaioa, baiña bere amaren aldetik napar-jatorrizko zala, ta beste barik saria eskuratu eban.

Zoritzarreko gudea zala-ta, 1937'an, Bilbao'tik Ingelanda'ra joan yakun ume-talde bat eta oneikaz batera, eleiz-agintariak bialduta, 16 abade, umeen gogo-arduradun izateko; oneitatik bat Aita Bedita izan zan. Urte betean lez Isle of Wight'en egon zan ume orreikaz, eta ia beste urte betean Southamptonen. Gero, 1939 gn.urteko iraillan, Ingelanda'tik Ameriketarako bidea artu eban, bere nagusien eskabidez; lenengo amazortzi illabeteak Uruguai'ko Melo urian igaro zitum, belguntza lanetan; 1941'an, ostera, Argentina'ko Salta urian daukagu Laterandarrak an daukien irakastetxean. Ementxe erakutsi eban lenengoz, gero bertako parrokian gogo-lanetan jardunik; ondoren urte askoz euren Belgrano Irakastegiko maixu izan yakun. Zer irakasten eban? Ingelanderá, Zenbakiztia, Pisia ta abar.

1954'an biurtu zan, lenengoz, Ameritatik ona. Pozez gaiñezka, jakiña; gure euskerá, orraitíño, kinka ta larritasunik gorrienean egoala ikusiaz, erabagi sendoa artu eban bere alde al ebantxoá egiteko. Orrela sortu yakon, gexoaldi batean batez be, Shakespeare euskeratzeko asmoá. Utsaren urrengokoa, bear bada? Lan ikaragarria zan, eta gogo biurria bear ortarako; baiña ba-eban olako zerbait Aita Larrakoetxea'k, eta edozein izutze-koa zan arazo eskerga orren aurrean etzan bape kikildu zeanuristar azkar au. Onela diraut bera idazkian: "Asmo ori, asmo utsean gelditzea, bete egin neban: ekin eta ekin, Shakespeare'ren antzerki guzti-guztiak gure euskerara aldatu arte. Orain astea ba'litz, ez neunkake orretarako adorerik, baña orduan; orain baño gazteago nintzan eta adoretu nintzan; lenen antzerki gitxi batzuk euskeraratzeko asmoz, gerora guzti-guztiak euskeraratu bear nebazala, ta aor asmoá osoan beterik".

Asi ta iru bat lan biurtu ebazanean, nor geiagoketa bat iragarri eban Paris'en, atzerrietako izkuntzetatik euskeraz jarritako lanen artean. Aita Larrakoetxea'k Shakespeare'ren **Binixa'ko Saleroslea** The Merchant of Venice bialdu eban, euskeraz jarrita. Uste eban ez ebala saririk jasoko, mugaz bestaldekoentzat izango zalakoan; baiña berak eroan eban lenengo saria. Ondoren Zaitegi'tar Yokin'ekin izan eban artu-emoná, eta onek argitaratu

eutsozan batzuk bere "Euzko-Gogoa"-n, baita ainbat aldiz zirikatu be itzulpen-lan orretan jarraitu egian.

Shakespeare euskeratzea ingelanderatik zuzen egiña da. "Azkenengo geienak —diñost berak— euskeraratzeko, gaztelarazkorik be izan dot aurrean; baiña beti be ingelanderazkoa aurrean dodala, ondo gaztelaturik dagonez ikusteko". Gaztelarrak, egin-egiñean be, ainbat itzul-inguru dagiez guk errez ta lau esan oi doguzan gauzak gerkeratik eta sajon-izkuntzetatik, batez be. Nik neure buruan ikusia dot: Bergili'ren Enearena euskeraz jarterakoan, naiz-ta gaztelar itzulpena begi aurrean euki, errez, egoki ta gogozkoago yatan Bergili'k idatzi ebanetik, ots, latiñetik zuzen euskeraratzea.

Askoren maratilla ta urtebide, lan gogorren bat egiterakoan batez be, auxe izan oi da: "Ez dot astirik". Aita Larrakoetxea'k, ostera, lanez gaiñezka egiñik ibilli arren, ere ta astia izan oi ebazan oindiño munduko antzerki-idazlerik onenaren lanak euskeraz ipinteko. Txalogarri dogu, egiaz, burutu dauan bearragaitik, euskerari egin dautson mesedeagaitik eta guri emon dauskun jarraibide aintzagarriagaitik. "Nire irakasletzari ordurik ostu bagarik egin dot nire lana, tarteka-marteka. Barrien barri egin bear ba'neu, txukunago ta ederrago letorke, bai orixel Baña noz amaitzeko?" Lan bati orrazketa gelegi egitea, gaiñera, ezta askotan egoki.

Zer euskeraratu dauskun

Esan dogunez, 38 bat antzerki osotu euskuzan Shakespeare'k. Eta oneik danok dituzu Aita Bedita'k euskeraz ipiñitakoak. Bein banan, urterik urte ez da errez aren lan guztiak jartea, aro ezbardiñetan idatzi ebazan eta. Beioa emen, alan be, gain-begitu bat egiñik lez, guztien euskerazko izen-zerrenda, bakotxa zein arotan gutxi-gorabera idatzia dan esanik:

1) **Ekatxa** (The Tempest, 1608-1612); 2) **Berona'ko Gizazindo bi** (Two Gentlemen of Verona, 1594-1595); 3) **Windsor'ko gogaldi oneko Emazteak** (The Merry Wives of Windsor, 1598-1600); 4) **Amabigarren gaba, naiz Zeuk zergura** (Twelfth Night, 1600-1601); 5) **Neurriri neurri** (Measure for measure, 1604-1605); 6) **Utsagaitik Otsak Ots** (Much ado about nothing, 1598-1600); 7) **Uderdiko gau-ames** (Midsummer Night's Dream, 1595-1596); 8) **Alperriko maitaketa-nekeak** (Love's Labours lost, 1599-1600); 9) **Binixa'ko Saleroslea** (The Merchant of Venice, 1597); 10) **Zeuk zelan nai** (As You Like it, 1598-1600); 11) **Ondo dator azken onik dauen oro** (All's well that ends well, 1602-1603); 12) **Basatia ezita** (The Taming of the Shrew, 1593-1594); 13) **Negu-ipuña** (The Winter's Tale, 1608-1612); 14) **Okerreko usteetatiko Barre-antzerkia** (The Comedy of Errors, 1594-1596); 15) **Yon Bakalduna** (King John, 1596-1597); 16) **II Errikarta Bakaldunaren bizitza ta eriotza** (Richard II, 1595-1596); 17) **IV Endika Bakaldunaren lenengo atala** (Henry IV, 1598); 18) **IV Endika Bakaldunaren bigarren atala** (Henry IV, 1598); 19) **V Endika bakalduna** (Henry V, 1599); 20) **VI Endika bakalduna** (lenengo zatia); 21) **VI Endika bakalduna** (bigarren zatia); 22) **VI Endika bakalduna** (irugarren zatia); 23) **III Errikarta**

bakaldunaren bizitza-eriotzak (Richard III, 1592-1598); 24) **VIII Endika Bakalduna** (King Henry VIII, 1613); 15) **Toril eta Kerside** (Troilus and Cresida, 1601-1602); 26) **Atenaiko Timon** (Timon of Athens, 1607-1608); 27) **Koriolan** (Coriolanus, 1607-1608); 28) **Yuli Kaisar** (Julius Caesar, 1599-1600); 29) **Andoni ta Kelopatore** (Anthony and Cleopatra, 1599-1601); 30) **Kinbelin** (Cymbeline, 1608-1612); 31) **Tita Andornika** (Titus Andronicus, 1593-1594); 32) **Perikel, Tiroko Errege** (Pericles, 1609-1612); 33) **Lear Errege** (King Lear, 1605-1606); 34) **Erromi ta Yuletxu** (Romeo and Juliet, 1594-1595); 35) **Macbeth** (Macbeth, 1603-1604); 36) **Hamlet, Danemarkaiko Erregeseme** (Hamlet, Prince of Denmark, 1600-1601); 37) **Otel, Binixaiko Mairua** (Othello, the Moor of Venice, 1602-1603).

Oneik eta beste bi edo iru geiago dira Shakespeare'ren antzerki-lan osoak. Gogaiz ta idurikizunez beteak; izkeraz, barriz, eder-sen dizdiratsuz landuak. Antzerkirik geienak bertotan dagoz, bertso errez, labur ta ariñez egiñak. Neurria, etena ta azkena txit arduraz zaintzen ditu. Millaka esatera jator erriaren agotik jasoak darabilz, eta idurikizun biurri-biurriak. Baita badau beste doai bat be: Shakespeare'k gaurkotasunez, edo obeto, betikotasunez, jazten ditu bere lanak. Zelan? Illun ez yaku egundo be agiri. Eta Eukeni D'Orsek onela: "Shakespeare'n alaitasuna, izadiak berak dauana dozu... Zer deutso sortutakoa kaden, illun naiz izugarri izan? Pozik dago sortzaillea. Abesari diardutso. Eta aren kantuz kutsuturik, gu be kanta-kantari gabiltz. Doai au ertilari batek be ez dau izan Shakespeare'k baizen gailen".

Eta lan bete auxe da, irakurle, A. Larrakoetxea'k euskeraz jarria. Ondo etoririk sustuena damotso gure literaturak. Bearrezkoa zan, eta, ona gaur guztiok opa genduana egi biribil biurtuta. Ez ete pozgarri ta illarrainbide? Euskeratzailleak, nok jakin?, zenbat oztopo eratsi, zenbat andarri irauli ta zenbat lo-aldi galdu ete dauz lan aundi au amaira erotateko! Baiña ba-dira oraindik gurean be, nekeak neke, egiteko gaitzak aurrera aterateko lain diranak. Orreitakoa dogu Aita Larrakoetxea. Itzulpen onek, ziur asko, guk asmau ezin bestean aberastuko dau euskal elertiaren zelaia. Atsegingarri da, izan be, Shakespeare euskeraz irakurtea; ta gaurtik orrela egin daikegu.

Ezagan dogu lendik be A. Bedita. Ondotxo dakiz euskerearen barrenkorapilloak, Shakespeare'n izkerak bereak ditun legez. Izango ebazan ez-pairik bage bere buruko miñak aren biurrikeriak euskeraz emoteko; baiña bere trebetasunari esker, aurrez-aurre izan dabezana eragozpen guztiak azpiraturik, biurkera oso-oso egin dausku. Euskera ederrez datorkiguz antzerki danak. Iztegi ugaria, esatera apaiñak, euskerak bere-berea dauan joserak.

Akatsik izatekotan, norbaitzuek auxe egotzi leikeoe: lar lekukoa dala, ots, Arrati'ko izkeran egiña dala, euskalki guztietako itzik eta eserarik asko dakazan arren. Baiña txokokoegi izate ortatik errez atera daikegu ez dala alde aundirik, berbaeran diñot, Euskalerriko bazter batetik bestera. Erabat esateko: Shakespeare'k, nireztat, merezi dauan itzultzaillea izan dau.

ΕΚΑΤΧΑ

(THE TEMPEST)

E K A T X A

(THE TEMPEST)

NOTIN ANTZEZTUAK

ALBONTSA, Napoli'ko Errege.
SEBASTEN, aurrekoaren anai.
POSPER, Milano'ko Duke, eskubidez.
ANDONI, aurrekoaren anai, lapurretaz Milano'ko Duke.
PERDINANDA, Napoli'ko erregearen seme.
GONTZAL, Napoli'ko onulari zar-zindo.
ADIRAN } Andiki bi.
PPANTZESKA }
KALIBAN, Yopu basati-itsusi.
TIRINKUL, barre-eragile.
ESTEPAN, ardandegizai mozkorti.
Ontziburu, Ontziyagola, ta Ontzi-mutilak.
MIRANDE, POSPER'en alaba.
ARIEL, eguratsoko Iratxo.
IRITZ, }
KERETZ, } Iratxoak.
YUNE, }
Ur-neskak, }
Igitariak. }

POSPER'en onseintzako beste iratxo batzuk.

AGELERKU.—Itsasoa, bertan ontzi bategaz; geroago, bertan Iñor bizi ezlan Izaro bat.

I EKITALDI

I AGERLEKU: Itsasontzian itsasoan.—Ekatx, Ostots eta Oñastuakaz.

ONTZIBURUA ta ONTZIYAGOLEA aurrera

ONTZIB.—Ontziyagola...

ONTZIY.—Emen nozu, ugazaba: gogatsu ete zagoz?

ONTZIB.—Gogotsu: ontzi-mutilai itz-egin: arin eldu lanari, ostantxean guztiok ondora gozak-eta; maneau, mutilak, maneau. (Alde dagi).

ONTZI-MUTILAK aurrera

ONTZIY.—Eup, ene biotzekook; gogatsu, gogatsu, maiteok: arin-be-arin batu ta lotu gorenge axe-oiala; ontziburuaren txistuari yaramon.—Lekurik asko dogunazkero, putzegik orain, axe orrek, iztenak egin arte!

ALBONTSA, SEBASTEN, ANDONI, PERDINANDA, GONTZAL, eta beste batzuk aurrera

ALB.—Arduraz ibili, ontziyagola on. Nondik da ontziburua? Gizonki yokatu egizue.

ONTZIY.—Bean egon zuok, arren-bai-arren.

AND.—Nondik da ontziburua, ontziyagola?

ONTZIY.—Eztozu entzun, ala? Alperrik gal-tzen dauskuzue gure nekea; ontzi-txokietan egon zuok; lagun zatxakoze zuok ekatxari.

GONTZ.—Tiruk, ba, adiskide, epe artu egik.

ONTZIY.—Itsasoak artu dagianean artuko dot, alde emendik! Zer dautse orroegileoi erregeren izenagaitik? Ontzi-txokira ixilik; zereginik ez emon guri.

GONTZ.—Ondo dago; orraitño be, gogotan izan nor dozun ontzian.

ONTZIY.—Ez neure burua baño maiteago dotanik. Iñori onuak emoten ez zara zu txarra; len-izakiok ixildu al ba'zenduz, eta une onetantze bakea egin, lokarri bat be-rra be ez geunke ukutuko guk oindik ara; lan-eragin zure aginpide orreri. Ezin ba' dozu, ostera, eskarrak emon orain arte bizi izan zarealako ta gertau zadiz ordu

onetako zori txarrerako, olangorik yazote-kotan.—Gogotsu, maiteok.—Alde gure bi-detik, arranoak! (Alde dagi).

GONTZ.—Argia dok lagun onek dakaskun po-za! Urpera yoatekoren antzik orrek daue-nik ez dot uste; urkamendirakoren antz-an-tzeko da orren soña. Zori on, aurrera ekiok, ori eskegi dagigun! Orrentzako dan so-keagaz egizu gure ontzi-sokea, gurea ez da gauz ezer onerako-ta! Inok eskegitoko yaiorik ez ba'da ori, errukarri gara gu. (Alde dagie).

OSTERA be ONTZIYAGOLEA aurrera.

ONTZIY.—Eratsi ontzi-abe nagusia; arin; be-rago, berago; ontzi-abe nagusiari lotu axe-oiata, (Gedarrak barruan) Denganiñoaren gedarra! Axearenak baño be zoliegio dira gedarrok, edo gure bealekua...

SEBASTEN, ANDONI ta GONTZAL aurrera ostera be.

Ostera be? Zer egiteko zarie zuok emen? Bertan-bera itxi to ito egingo gara, ala? Bai ete dozue ondora yoateko gogorik?

SEB.—Ustelduko al yak ezterri ori! Txakur ausikari, añenti ta erukirik bagako orre-ri!

AND.—Eskegi i, txakur txatxar, eskegi i! bardaskakume, zaratatsu, lotsabako ori, itoteko ik baño bildur gitxiago yoagu guk.

GONTZ.—Egingo neuke ezetz ito ori ontzia intxaurr- mokola baño sendoago izan ez-arren, eta etentzaka darion neskea baño eriotsuago izan-arren be.

ONTZIY.—Axetaratsu yarri ontzia, exetara-tsu; axe-oiak bigaz doala; uginen zearre-tara barriro, uginen zearretara.

ITSAS-MUTILAK aurrera, busti- bustirik

ITS.—M.—Dana dago galdurik! Arrenetara, arrenetara! dana dago galdurik! (alde da-gie).

ONTZIY.—Ostera! otzik euki bearr ete doguz gure agoak?

GONTZ.—Arrenai daragoioe errege ta arre-gegaik! Lagun gakiez an, areina lango-xe da gure zoria-ta.

SEB.—Epea galdurik nago ni.

AND.—Mozkortiak ostu dauskuez gure bi-ziak, ziri ederra sarturik.—Matrallazur-an di zital ori... itoten al engo luze, amar iz-koren sastamar ori!

GONTZ.—Eskegi egingo dogu ori oindiño, ur-tantan bakotxak ezetzaren alde zin-egin eta ori irunsteko zabaldu-ala agoa zabal-du arren be (Zarata nastua barruan). Gu-rearen erruki! arrakaldu gara, itzekarrotu gara!... Agur, emazte ta umeok!... Agur, anai! arrakaldu gara, arrakaldu gara, arrakaldu gara!

AND.—Urperatu gadizan guztiok erregegaz! (Alde Andoni'k)

SEB.—Agur dagiogun. (Alde dagi).

GONTZ.—Itsasoko milla gizalan emongo neu-kez orain lur antzuzko estatu bategaitik, astiñarragaitik, otatza baltzeranagaitik, edozegaitik; Yaungoikoak gura dauena be-di! Orraitiño be, gurago neuke legorrean il. (Alde dagi).

II AGERLEKU.—Izaroa; POSPER'en txabola-aurrea

POSPER eta MIRANDE aurrera

MIR.—Aita lazian-laztan, zure esku ta an-tez imini ba'dozuz orroaka ur basatiok, otzandu ta baretu egizuz; diruedinez, ni an-durrezko sua eralgiko leuke ortzeak itsa-soak itzaliko ez ba'leu su ori, ortzearen mosuraño yagita. Enee! nik yasan doda-na, orreik yasaten ikusirik! birrindu-birrin-duta gelditu da bere barruan seguru be seguru izaki argien batzuk eukazan on-tzi txairoa. Biotz-biotzean yo nabe arein negar-arrantzak! Gixaxoak! Yoanik dira. Yainko altsurik izan ba'nintz izan, lego-rrari iruntsiazoko neuskion itsasoa, iruntsi dauen ontzi ederra ta barruan zamatzat ebazan lagunak itsasoak irunstekotan.

POSP.—Seneratu zadiz; arituterik asko ya-

tsu; inok be minik ez dauela artu esan egiozu zure biotz erukibereari.

MIR.—Enee! gaurko egunarena!

POSP.—Inok ez dau minik artu. Zu yagote-arren egin dot egin dodan guztia; zu ni-re kutun ori, zu nire alaba ori yagote-arren! Ez dakizu zuk zu nor eta zer za-rean, ni nondiko nazanik ez dakizu-ta; ezta, ez dakizu zuk txabolatxo beteren uga-zaba dan Posper baño, naiz a baño ba-pe andiago ez dan zure aita baño andi-ago nazanik.

MIR.—Eguño ez dot izan geiago yakiteko gu-rari biizaigorik.

POSP.—Eldu da zuri geiago iragarteko aldia. Ekadazu esku ori ta erantzi egidazu nire-yantzi liluratu au...olantxe. (Lurrean iz-

ten dau besorik bagako ganeko yantzi luzea. Atza or, nire antze.—Legortu zure begiak; gogargi ta txitxari izan. Nire aurre-ikusiz eta antzez esku-eskutik erabili izan dot zure biotzeko erruki-errukian yo zuzan on-tzi-urperatutezko ikuskizun itzala-ta, arimarik bat bera be ez da galdu, ezta buruko ulerik bat bera be, ezta ontzian negar baten entzun eta urperatuten ikusi izan dozuan lagunetatik bat bera be ez da galdu. Yezarri zadiz, oraintxe oindiño geiago yakin bear dozu-ta.

MIR.—Asi bai, sarritan asi zara zu nor eta zer nazan esaten, baña beti erdi-esanean gelditu izan zara, ta inora ezeko azterketetan itxi izan nozu, "Etixon, oindiño ez" atzenengo berbatzat esanik.

POST.—Eldu da orain tertzioga; zure belarriak adi-adi euki dagizuzala aginduten dautsu une-uneak; esaneko izan eta buru-belarri egon. Gomutau ete daikezu txabola onetara gu sartu-aurretiko aldirik? Ez dot uste zuk olangorik daikezunik, aldi atan iru urteko zintzazan-da.

MIR.—Ba.—daiket, yaun, seguru-seguru.

POSP.—Zer? Beste etxeren bat edo laguneren bat? Edo beste zeren bat? Dana dala, esaidazu zeren irudia daukan oindiño zure gomuteak.

MIR.—Antxinakoak dira zerok-eta, nire gomuteak zalantza bagarrik emotekoak ezlira, ames-antzekoagoak baño; lau edo bost emakume ez ete nebazan nik beñola niri yaramoteko?

POSP.—Ba-zenduzan eta bai geiago be, Mirande: baña zelan ete dirau orrek zure gomutean? Zer besterik dakusazu igaroko aldian eta aldiaren leza sakonean? Ona etorri baño lenagorik gomutauazkero, ona zelan etorri zintzazan be gomutau bear zeunke.

MIR.—Orraitiño, orrako ori eztoz gomutetan.

POSP.—Amabi urte dira, Mirande, amabi urte zure aita Milano'ko Duke ta esku andiko gizon izan zanazkero.

MIR.—Zeu etzara nire aita, ala, yaun?

POSP.—Ekandu on utsa zan zure ama-ta, nire alaba zintzazala esan eustan ak, eta Milano'ko Duke zan zure aita; eta duke-alabea aren ondasunen yabegai bakarra. Orixe zara zu, ez bape gitxiagorik.

MIR.—Enee! Yaungoikoa-arren! Kakazkeri andien bat egin euskuen gu andik ona etorteko; ala, onespenen bat izan ete yaku gu ona etortea?

POSP.—Biak ene neskatu, biak; kakazkeri

andizat dozunak atera genduzan andik, eta zori onez yaurlin ona.

MIR.—Enee! odola dariola dago nire biotza, orrako gomuta orregaz ekarri dautsudan lorra nik gogoraturik! ekin, aita, ekin, arren.

POSP.—Nire anai ta zure osaba, Andoni de-retxona, a bai ba-dala inondiko azpiyale, eta gogotan izan egizu au, arren! zure urren maite, ta nik nire duke-erria yaurliten imini nebana; aldi atan yauntza guztietatik gorengoa zan nire duketzea, ta gorengo duke zan Posper; zintzute andiko ta bera langorik bagako yatsun a adei-garritasunez eta antze-apaingarriz; antze-apaingarriok izanik ni buru-belarri irabazi ta eurekanatu nenduenak, ez neutsan emon, ba, yaungoa nire anaieari? Emon ba-neutsan emon neutsan. Geroago ta al-denduago nintzan ni nire duketzeagazko, nire burua nire zeletasun eta ixileko ikasketari geroago emonagorik. Zure osaba zitatalak, Adi ete zagoz?

MIR.—Adi be adi, yaun.

POSP.—Eskatua noz eta nori emon, eta noz eta nori ukatu bein ondo ikasi ebanean; nor eragi, ta nor moztu, geiegi azi ez edin, barrien-barri egin ebazan ak nire izandake lagunak; aldatu egin ebazala edo-ta era-barritu egin ebazala esan gura dot; agintzadunaren eta agintza-ordekoaren, bien giltzak berak eukita, bere belarriari gozo yaken otsera yarri ebazan ak biotz guztiak; orrazkero, bera zan nire duketzearen aldor eta adarrai eutsela arein muskertasuna irunsten eban untza, Adi etzagoz zu; arren-bai-arren, adi zagodaz.

MIR.—Adi nagotsu, ene yaun on.

POSP.—Mundu onetako arloa aintzakotzat ar-tu ez nik-eta, beti barruan egonda, eta olan bakarrik egonda nik nire gozoga giyetea erriaren niganako uste ona baño bein-negotzat etsita, ni olan nengoa, bizitu ta atzarri egin ziran nire anaiearen izakerea ta lera okerra; eta nire uste onak, bera sendo izan-da, bera langoxe ume sendoa sortu eban, baña guztiz besterakoa, andiz bera añako zitalkeria; neurririk ez eban izan nire uste onak, atzenik bagako zan. A onan yaun eta yabe eginda, nire ondasun eta etorrien yaun eta yabe ezeze, orreiz ganera nik nire eskubidez eskuratu nengikeanaren yaun eta yabe be; bera zala dukea sinistu be egin eban ak, bere bizia-ren onerako, esanaren esanez bere gomutea egiazazko obendi egin daroanaren antzera; nire ordezkotzeagaitik eta bere eragoan erregetzearen ezaugarriak erabiliagai-

ük, eta orreri deutoen zer bere bereak erabiliagaitik; ortik aren biotzean geiagoaren egarria azita... Entzuten daustazu?

MIR.—Gorkeria bera be osatu egingo leukie zure itzak, yaun.

POSP.—Berak egiten ebana zegaitik egiten eban ikusteko argi-ostoporik gelditu ez edin, bearrekotzat etsi eban ak bera Milano'ko yaun eta yabe bakar egitea; ni gizon onen zori txarreko! Nigazko, nire idaztiegia zan duketzarik asko nitzako, aren eretziz; ondasunekazko, nire arree-eskubideetarako enendun ni ak geiztat. Napoli'ko erregeagaz itundu ta alkartu zan, agintza-egarriren egarriz, ari urtero zerga ordainduteko ta aren bendeko izatekotan; bere burestuntxoaren burestunaren azpiko izateko ta (eneee! Milano'ren errukarri!) eguño ñori bururik makurtu ez dautsan duketzeak lotsaririk andienagaz ari makurtuteko.

MIR.—Ene Yaungoikoa!

POSP.—Aren baldintzeari ta ondorenari oartu zakioz, eta gero esan ari anai deitu leikion.

MIR.—Oben egingo neuke nire amamagazko uste txarrik ba'neu: sabel onak be seme gaiztorik sortu izan dabe.

POSP.—Arako baldintzea orain, Napoli'ko erregeak, aspalditik nire arerio gorri izanda, gogo onez entzun eban nire anaiearen eskaria; eta eskari ori etzan besterik ni ta nireak dukerritik bertatik erbesteratu ta Milano liraina ta omen guztiak nire anaieaganatutea baño; orren alde nire anaieak erregeari gorago aitaruriko buru-makurtute ta nik eztakit zenbat zerga ordainduta; orrazkero, azpiyale-gudaroste bat batuta, zori txarrak orretarako gertauriko gabaz, Milano'ko ateark idigi ebazan Andoni'k; eta asmo ori bete bear ebenak gau ilunez iradu gorrian atera ginduezan ni ta zu, negar baten zengozan ori.

MIR.—Ene! gurearen errukarri! Aldi atan negar-egin nebanik gomutau ez-arren, barienbarri egingo dot negar orain. Erdizka iragarri orrek begiak askatu egiten dautaz orretarako.

POSP.—Apu bat geiago entzun ta, orrazkero, gure egiteko arloro eroango zaudaz, ori bagarik au egokiez-egokieza ledike-ta.

MIR.—Zegaitik ez ete eben ebatzi gu une atantxe iltea?

POSP.—Arira datorren itauna, neskato; nire erago onek dakarrena da itaun ori. Etzirean atomau, neskatxi (maite-maite nendun erriak), ezta euren egitekoari olango atz

odoltsurik ezarten be; kolore argiagaz koloretu gura ebezan euren asmo dongeak. Labur esateko, iraduz eta arinka itsasontziratatu genduezan; legoa batzuetako bidean itsas-barruratu genduezan; ontzitxo zakar-txatxar-ustel bat gertau euskuen an; ez itsutarik, ez kako ta txirrikarik, ez axe-oialik, ez ontzi-aberik ez eban ontzitxo zakar-ustel bat; saguto edo arratoiak eurak be, euren sentzunak eraginda, andik alde eginak zirian; ara aldatu genduezan ontziz, orroaka eragoion itsasoari guk negar-arrantzak egiteko; axeai gure larri-arnasotsak egozteko, ta axeak, euren arnasots errukioz erantzunda, okerreko errukia erakutsi euskuen.

MIR.—Ene! ez nintzatsun izango aldi atan eragozpen makala!

POSP.—Bai, zera! ni yagon nendun kerubea izan zintxatazan zu! Itsasgana nik tantan gaziz estaliten nebanean irribarre egiten zeunstan zuk goitiko sendotasunez; nire zama astunaren azpian urrumaka neragoionean adorea ezarten zeunstan zuk, zer yazokoari arpegi emon negion.

MIR.—Zelan eldu gintzaran izpaztarrera?

POSP.—Yaungoikoz, Yakirik arean ba-gendun, bai ur-pitin bat be, Gontzal izeneko Napolitar gizon zindoak errukiz emonak (Gontzal au zan arako asmo zitala beteteko izentauriko ontzibururu); yantzi eder, liño miesa, oial eta osteango bearrekoak be emon, euskuzan, eta zerok arrazkero ederto be ederto etorri yakuz; eta ni idazti-zale nintzala ak yakinik, bere biotz onez, nire duketzea baño aintzakoagotzat dodazan idaztiak be emon eustazan nire idaztiegitik.

MIR. Egunen baten ikusiko al dot a gizona!

POSP.—Yagiten noa orain; yezarrita geldi egon zu ta entzun gure itsas-lorraren atzena. Izaro onetara eldu gintzazan; eta emen, zure irakastegi-irakasla onek, beste erregek baño on andiagaa egin dautsut, aik eurak astia uskerietan emonda euren semeak nik zuri baño gitxiago yaramoten dautsenen ardurapean izten dabez-eta.

MIR.—Yaungoikoak ordainduko al dautsu guzti ori! eta orain, aren, yaun, (Oraindik nire gomutan irauñ dirau-ta), zer dala-ta eragi dozu itsas-ekatz au?

POSP.—Auxe bakarrik yakizu bein-beinean. Ñondiko alan-bearrez, orain nire andera maite dan Zori esku-zabalak itsas-baztar onetara ekarri dauz nire aretioak; aren eraginari yarrai-bearrean, yarrai ez ba'nakio, oindik ara ristuz eta merrotuz yoango da nire zori ona. Itaunik ez geiagorik, lo-gura

zara-ta; ongari da moteltasun ori ta bere bidea artzen itxi egiozu; ba-dakit besterik ezin dozula. (Loak artzen dau Mirande). Ageru akit, otsein, erdu: gerturik naiagok ni orain; urreratu akit, ene Ariel.

ARIEL aurrera

ARIEL.—Kaxo, ugazaba argi! Kaxo, yaun ben! emen nozu zuri naiarak egiteko; dala egaz egiteko, uger egiteko, surtan mosuz-aurre sartzeko, naiz odei kirimilduen ganean izarttolakaka ibilteko; lana izentau Ariel'eri ta bere gaitasun guztiai, zure agindu zorrotze.

POSP.—Bete-betea eta utsik egiteka sortu ta osotu ete dok iratxo orrek nik iri agin-duriko ekatxa?

ARIEL.—Zeatz-zeatz. Erregeren ontziratu naz; bein musturrean, bein garrian, ganean, txoki bakotxean, garretan, ikaragarritzko garretan imini dot ontzia; aldiz, zatitu egiten izan naz eta ainbat lekutan ixitu sua; ontziabe nagusi-ganean, ontzi-oiuletan, eta ontzi-aurrealdeko abeetan banazeko suak ixitu dodaz, eta gero su guztiai bat eragin; eguño ezta izan ostots ikaragarrien aurrendari Yupiter'en yusturi bizkorragorik eta beingoangoagorik. Ango su ta sulphuraren orroiak ataraten izan dabean karraskadak entzun eta ikusirik, Netun altsu-altsua esiturik eta aren ugin azarriak ikaraturik egozala esan edikean.

POSP.—Nire iratxo adoretzu ori! Inondiko naste-borraste orretan nor izan dok bere burua ez galtzeko lain sendo ta tinko?

ARIEL.—Inortxo bez; bestera, guztiai zoratu egin yake ta etsiena egiten izan dabe; itsas-mutilez beste guztiak gezaletan murgildurik izan dira ta ontzitik alde egin dabe, nik sutan iminiriko ontzitik; Ferdinanda, etrege-semea, buruko uleak zutunik ebazala (iak irudien, ez uleak), izan da ontzitik larrien yauzi egin dauena; "ustu egin da sulezea, ta emen dira txerren guztiak" gedar egin dau ak.

POSP.—Bapo! ondo baño obeto, ene iratxo! Baña, itsas-ertzetik ur ez ete dok yazo orrako ori?

ARIEL.—Ur-ur ene ugazaba.

POSP.—Baña, onik ete dagoz aik, Ariel?

ARIEL.—Ule bat be eztau galdu euretatik inok; orban bat be ezta agiri aldean daroetan soñekoetan, len baño orratzetik arakoago dirudie; eta zeuk aginduaren arauz, mordoka zabaldu dodaz izaro onetan; errege-semea bera-berera itxi dot legorrean; eta izaroko okolu baten an dago a aspe-

renka, axeak ozkirritu dagian, an yezarritan, besoak aume eginda, gotilun eta goibel.

POSP.—Esaidak, zer egin dok errege-ontzi, ontzi-mutil eta ganetiko ontzidiagaz?

ARIEL.—Onik dago errege-ontzia itsas-atean; gomutan ete dozu bein Bermuda izaro axe-zurrubillotsuetatik inontza ekarteko gaberdiz dei-egin zeunstanean non nengoa ni? Ba, angoxe okolu sakonean ostonduta dago a. Ontzi-mutilak, ontzi-estalgiaaren azpian dagoz pilaturik; eta euren lan neketsuari nire lilurapena ezarrita, lotan itxi dodaz; eta ostera be batu da nik sakabanaturiko ontzidi enparaua, eta Lurrarteko Itsasoan dira, gogo-yausita, Napoli euren aberria yoteko asmotan, erregeren ontzia urperatuten eta errege andia itsas-ondoratuten ikusi dabezalakatotan.

POSP.—Ariel, zeatz egin dok ik ire egitekoa; baña, oindiño ba-yagok egikizun gea-gorik. Eguneko ze tertzio dok orain?

ARIEL.—Eguerdia-ostea.

POSP.—Ordu biak, gitxienez; guk biok garrantzi andiko egitekoak burututeko dok oindik eta seiretarte aldia.

ARIEL.—Lan-arlo gea-gorik be ete dogu? Neke-lorak emon daustazuzanzkero, oindiño bete bagarik dozun zure agindua zuri gomutatzen itxi egidazu.

POSP.—Zer yoagu? Gogaldi txarra dok, ala? Zer dok eskatuen dokana?

ARIEL.—Nire azkatasuna.

POSP.—Epea bete-aurretik? Ez al dok aitaturko olangorik!

ARIEL.—Arren, gomutau egizu, aingarri da nik egin dautsudan otseintzea; eztautsut esan guzurrik, eztautsut egin okerrekorik, ezer marmaroka bagarik egin dautsut otseintzea; urtebete osoa laburtuko zeunstala esan zeunstan.

POSP.—Aiztu egin ete yak zelango neke-elorrietatik yarei induan nik?

ARIEL.—Ez.

POSP.—Bai, aiztu yak iri; eta askotzat dok ik gezal sakoneko lupetza zapaldu izana; ipar-axe zorrotzaren ganean arin ibiltea; lurra leiez estalita dagonean lurraren zaretan nitzako lan egitea.

ARIEL.—Ez, yaun.

POSP.—Guzurra diñok, oker orrek! aiztu egin yak iri arako Saikoratz atso sorgin zikina, adinagaitik eta inori eutsan ikusi-ezinagaitik uztaizta egoana? Aiztu egin ete yak?

ARIEL.—Ez, yaun.

POSP.—Bai, aiztu egin yak: non yau zozan a? Itz-egik; esaidak.

ARIEL.—Algeri'n, yaun.

POSP.—Ui, an ete zoon? Ilean bein azaldu bear daukat i zer izan azan, aitzu egiten yak-eta. Algeri'tik erbesterau eginyoen Saikoratz sorgin askarri ori bere okerreri ugariakaitik eta gizakien belarrietarako itzalegi diran sorginkeriakaitik, ik euk dakikanez; berak eginiko zertxo bategaitik ez eutsoen kendu bizia; eztok au egia, ala?

ARIEL.—Bai, yaun.

POSP.—Onaxe ekarri yoen itsutu-aginiko atso sorgin ori bere umeagaz, eta emen itxi yoen itsas-ontzi-mutilak: aren yopu intzan aldi atan i, ire burua aintzakotzat dokan yopu ori; eta aren agindu zakar eta iguin-garriak egiteko i iraxo minberatiegia izaneta, aren agindu andirik ik egin gura ez-eta, aren olsein i baño indartsuagok ari lagun-duta, ler birrintzatu baten birrintzan sartu induan ak bere asarre gorrian; eta birrintza atan sarturik elorrio gorritan egon intzan amabi urtean; bitarte orretan a il eta an itxi induan i; urrumaka ta negar-arrantza baten engoan an i axe-errotako txirrinkeak bira egiten dauen baño sarriago; ganera, aldi atan izaro onetan beronen edergarritzat ez yegoan gizon-antzeko beste izakirik, ak emen eginiko seme sorgin-kume nazkagarriaz besterik.

ARIEL.—Ez; aren seme Kaliban'ez besterik ez.

POSP.—Zer argia axe! A, arako Kaliban, orain nire otseintzan dodana. Ik euk dakik ondoen zelango elorriotan aurkitu induan: otsoai be ausi eragitekoak eta artz asarreen biotzetan be sartzekoak zoazan ire negar-intziriak; gaiztetsiai ezartekoa zoon ire elorrio gorria eta Saikoratz'ek berak be ez yeukan alik berak egina deuseztuteko; nire antzea, nire ala izan zoon ori egin ebana, ni ona eldu, lerraren arako birrintzea nasaitu ta i azkatu induana.

ARIEL.—Nire eskarrik beroenak zuri, ugazaba.

POSP.—Marmarka ekin ba'dagiok ekin, aretzen bat birrintzatu ta ziria lez aren erraetan sartuko aut, an negar-arrantzaka amabi negu egin arte.

ARIEL.—Azketsi, parkatu, ugazaba: erantzun-go dautsat zure aginduari, eta zeatz eta zoli egingo dodaz nire iratxo-eginkizunak.

POSP.—Olantxe egin, eta opor emongo daukat egun bien buruan.

ARIEL.—Nire ugazabaren zindo! Zer egingo dot? Esan, zer? Zer egiteko nozu?

POSP.—Oa, itsas-neska-antza artu egik; neuz beste ifioek ez al au ikusi al izango; beste edozeñen begi-bolentzako ikus-ezindu adi.

Oa, antz ori artuik ta beragaz atzera ona ator; zoli-zoli alde emendik! (Alde ARIEL'ek.) (MIRANDE'ri) Atzarri adi, ene biotzeko ori, atzarri akiti! ondo egin don lo; atzarri adi!

MIR.—Sargoriarena egin daust zure itzaldi ifiondikoak.

POSP.—Aztindu egin aztuntasun ori; ale; eguño erantzun txeratsurik emon ez daukun gure yopu Kaliban ikusten yoango gonazan.

MIR.—Zital utsa dan a ikusterik ez yat bape gogoko.

POSP.—Baña, dalakoa dala, ez gagoz a izteko; sua egiten dauku ak, gutzako egurretan yoaten da; eta ondo datorkuzan otseintzak egiten daukuz. Eee! yopu! Kaliban! Sats ori! Itz-egik.

KAL.—(Barrutik) Egurrik asko dago barruan.

POSP.—Urten adi, mutil; beste zereginik dok itzako: urten adi, txaberama (turtube) ori—Eure bizian urtengo ete az?

ARIEL aurrera ostera be, ur-neska-antzez Agerpenaren zoragarri! Ifiondiko nire Ariel, entzui, belarrira esango daukadana.

ARIEL.—Egingo dot, ene yaun. (Alde dagi).

POSP.—I, yopu zitaltu ori, txerrenak berak ire amaigan sortu ori, urten adi!

KALIBAN aurrera

KAL.—Nire ama zanak eguño bela-egakiz iztoki usteletik baturikoa bestean galgarri dan ifionta yalgiko al yatsue ganera zuoi bioi! Egoe-sarkaldetiko axeak putz egingo al dautsue ta baba-zorroz bete zuon narru osoa.

POSP.—Orregaitik, seguru be seguru, zanbatuak izango dozak arratseon, saietsetako zaztadak, arnasarik artu-ezinik euliko abenak; euren egitekoak etentzaka egingo daukatzat iratxoak, lan egin al daben gualdi osoan; erlategiko abaiak zulotan daben baño zaztada geiago izango dok, eta zaztada bakotza erlauntzeko abaiak egin dabean erleena baño mingorrago izango dok.

KAL.—Bazkaldu egin bear dot. Neurea dot izaro au, nire ama Saikoratz'ek niri emona ta zuk niri kendua. Ona lenengoz etorri zintzaneanan eskuia estutu zeunstan zuk, eta aintzakotzat artu nenduzun; barruan ale-txoak ebazan ura emoten zeunstan; eta egunez eta gabaz argi andiagoa ta bukiagoa egiten daben zeren izenak irakasten zeunstazan; eta aldi atan maite zindudazan, eta izaro onek dauzan zer on guztiak erakutsi neutsuzan: iturri ozkirri ur-gardendunak, oxin gezaltsuak, lur emokorrak eta

elkor edo antzuak: añaena ori egin neban onentzat! Saikoratz'en lilurapen guztiak, kun-kunak, kakarraldoak, saguzarrak etorriko al yatsuez ganera! Eta izan be, bein nire buruaren errege izan au nozue zuon bende-
korik bakarra; eta atx gogor onen barruko artzulooan naukazue emen, izaro enparaua zeuontzako niri kenduta.

POSP.—Yopu guzur-ontzi ori, bizkarrekoak, ez txera onek eragiteko ori! i sats utsa izan-arren, gizoni dagokionez artu aut beti eta neure txabolan euki aut, nire alabatxo onen entzute ona zeian loituko asmoetan i ibili arte.

KAL.—Ara! ara! egin al neu orrako ori! Zuk ez zeunstan itxi, ostantxean Kalibanda-
rrez beteko neukean izaro au.

POSP.—Yopu askarri ori; edozein okerrerira-
ko gai-izan-eta, ezetarik ontasunen atzik ezin artu izan dokan ori! Nekearen nekez irakatsi neuskan nik itz-egiten, aldian zer bat edo beste irakasten neuskan: basati orrek euk zer esaten endun be ez enkianean orren ordez abereen urrengo azan orrek naste-borrasteka itz egiten endunean itzak emon neutsezan nik ire gogaketai, euren bi-dez ik ire gogaketak iragarteko; baña, ik ikasi-arren, ire leña ziztrinak an yeukan izaki onek ezin izan dauena: orrexegaitik baztatu indugun, ik euk irabazita, artzulo onetara, espeltea baño txarragorik ik irabazi izan-arren.

KAL.—Izkuntzea irakatsi zeunstan zuk; eta niri bost ardura daust ortik atera dodan onureak; elgorriak ondatuko al zazu niri izkuntzea irakatsiagaitik.

POSP.—Alde emendik, sorgin-kume! Barrura ekarri egistak errekin; arin abil; beste zer baterako intzake i onena. Sorbaldak eragiten dozak, zital orrek? Nire agindurik egin ez, naiz gogoaz bestera egin ba'dagik, burdin-koko ugertuz orraztuko aut burutik beeraño ta ire azurrak be mindu: arrantzaz eragingo dauskat, ire durunduz piztiak be ikaratu-aleko negar-arrantzakaz.

KAL.—Ez, olangorik ez, arren! esaneko izan-go naz: (Bere kitean) andi be andi da orren trebetasuna. Nire amaren yainko Setebotz be orrek berorren eskuko leuke ta berorren otsein egingo leuke.

POSP.—Orrazkero, yopu, alde emendik! (Alde KALIBAN'ek).

Ostera be aurrera ARIEL, ikus-ezina, yoten eta abestuten: PERDINANDA aren atzetik.

ARIEL'en Abestia:

Erdi ondartzaz bellegiotara,

Eskuak alkarri estututera;
Zuon txera-munak eginazkero,
(Urutu basatiak ixil dauz, gero)
Zapaldu lurra an-or-emen txairo:
Iraxo maiteek, eroan zama gogaro.
Entzun, entzun!
Pur-pur, bau-bau (Meatz)
Txakur zañak ausika:
Pur-pur, bau-bau (Meatz)
Entzun, entzun! Ba-dantzut
Ollar arro-ots indaritsu;
Gedar daqi kukurruku.

PER.—Non arrano ete da eresi au? Eguratscan, ala lurrean? Ixildu da; eta egiz izaro onetako yainkoren batentzako da, urrean. Uraren ganetik tatarrez nire aldame-na zear yon da eresia, aulki-ganean yeza-
rrita ni nire aita erregegaitik ostera be negarrez nengoala; bere ots gozoz uren asarrea ta nire naibagea arinduteko: orrexegaitik yarrai natxako, edo obeto esan, berak eroan nau. Baña, yon da Ez, ostera be ba-daragoio.

ARIEL abeska:

Bostetan sei oin oso bean datza zure aita;
Koraldurik dira aren azurrak;
Pitxi dira orain aren begiak;
Aren zan oro, ezta deusezturik, nork nai-ta,
Itsasoko zerbaitera aldaurik da;
Zer eder-eder inondikotuik da,
Itsas-ur-neskak aren il-yoaleak ordu oro yoten dabez;
Entzun! ba-dantzudaz orain, yo din, dan, ycale, errukibaga.
Yo ileta, din, dan, gau ilun ilunbetsuan atertzeka.

PERD.—Nire aita itoa gomutetan dau abestitxoak;... Ilkorren arlorik ezta au, ezta lurrak dauen abestirik be: ...nire buru-ganean dantzut orain.

POSP.—Eraqi betazaleko errezel txintxirridunak, eta esan an aragoan zer dakutsun.

MIR.—Zer da a? Iratxoan bat, ala? Aren yasearena! Sinistu egidazu, yaun, ibilkera txairc-lerdena dau ak, baña, izan, iratxoan bat da.

POSP.—Ez, neskato; yan eta lo-egiten yon ak, eta geureak langoxe oarmenak yozan. Ontzia urpera yon danean an izana don ik dakusanen zer lerdan-eder a be, eta edertasuna yaten dauen naibage-orbantxorik ez ba'leu aldean, lagun ederra dala ik esango eunkenana; bere lagunak galdu egin yozan ak eta aldarrai dabil euren billa.

MIR.—Yaungoikozko zeren bat dala a dirudi, izaki ain zindorik eguño eztoz ikusi-ta.

POSP.—Aurrera doa zera, ta nire gogara yoañ be (Bere kitean).—Iratxo, iratxo lirain! Egun bien buruan azkatuko aut onako onegaitik.

PERD.—Seguru be seguru yainkono onentzako ziran arako doñuak. Esaidazu, arren, izaro onetan egotez zagozantetz, eta emen zer egin bear dodan irakatsi egistazu, eta nire eskaririk lenengoa ta azkenen ebaten dodana auxe da, itzal ori, zera, neska zarean ala ez zu.

MIR.—Itzalik enaz ni, egi-egiz neska bai, ostera.

PERD.—Neronen izkuntzea! Ene Yaungoikoa! Izkuntza au egiten dabenetatik beinena nendike, berau, egiten dan lekuan ba'nengo.

POSP.—Ostera! Beinena? Napoli'ko erregeak entzun beiskian ori! Orduan engoke i ona!

PERD.—Oraintxe nazana bakarrik, eta Napoli'z iltz-egiten zuri entzunik arriturik nagona bera nendike ta engoke! Entzuten daust orrek! eta orrek entzuten daustalako negar egiten dot nik: neu naz Napoli, arrazkero eguño izperarik eztaben nire begiokaz nire aita errege itoten ikusi nebana.

MIR.—Ene! orren errukarri!

PERD.—Bai, benetan, eta aren andiki guztiak be bai; euretatik bi Milano'ko Dukea ta aren seme adoretua zirala.

POSP.—Milano'ko Dukeak eta aren alaba adoretuagoak benderatu engikie orain, orretarako aldi egokia ba'ledi (Bere kitean); alkar ikusiaz bat yosi dabez orreik begiak alkargan; Ariel samur, azkatu egingo aut onako onegaitik! (PERD'ri) Itz bat, yaun, zuk zure buruari okerren bat egin dautsazunaren bildur nozu: itz bat.

MIR.—Zer dala-ta itz-egiten dau orren latz nire aitak? Au da nik eguño ikusiriko gizonetatik irugarrena; eguño lenengoz arnasbera eragin daustana; Erruki, eragin nire aitari, nire lerearen alde yari daiten!

PERD.—Ara! neska ba'zara, ta zure maitasuna besteren batentzako ezpa'da, Napoli'ko erregeno egingo zaudaz.

POSP.—Geldi or, yaun; beste berbatxo bat. (Bere kitean) Bata bestearen bendeko dira orreik; baña arduraz erabili bear dot nik, erabili ta ebatzi, bertatiko arazo au, ari-negi irabazteak ordaina gixitu ta arindu eztagian.—Itz bat geiago; nik diñodanari adi egon aitela aginduten dauskat: ire eztan izena ifñori ostu egin dautsak ik emen; eta ik ire burua kuikalaritzan imini dok izaro onetan, niri, emengo yaun eta yabe nazon oni, berau kentzeko.

PERD.—Ez, ostantxean ez nendike gizon.

MIR.—Orrena lango yaretxen ezin egon ledike olangorik. Olango etxe ederrean bizi ba'ledi txerrena, bertan bizi gurako leuki on guztiak.

POSP.—(PERD'ri) Arraikit.—Zuk ez egin itzik onen alde; azpiyale da au. Erdu, alkarri lotuko dautsedaz ire esku ta oñak; itsasura izango dok edaritzat; ur gozotako txirlak, zustar zimelak eta ezkur-txapelak izango dozak yanaritzat: arraikit.

PERD.—Ez; entzungor egingo dautsat nik olango deiari, nire arerioak ni benderatu arte. (Ezpateta ateraten dau).

MIR.—Aita laztan, orren zakar ez egizu erabili ori, zindo ta bildurrik bagako da ori-ta.

POSP.—Zer? Astoak astazañari "arre" ta idiak itzaiari "aida"? Onangorik! Zorroratu egik ezpata ori, azpiyale; onegaz i iskallu bagarik itxi-ezinik eta iri ire izkailua lurrera egotzi-az-ezinik ez yoat-eta

MIR.—Arren, aita!

POSP.—Alde emendik; ez eskegi zure burua nire soñekoetatik.

MIR.—Erruki zadiz, yaun; neuk erantzungo dot orregaitik.

POSP.—Ixilik! Itz bat geiago esan egin bai, ta agirika egingo dautsat. Zer? Guzurtiren aldeko? Ixilik, gero! Ik ori ta Kaliban'ez besterik ikusi ez-eta, orren antzeko besterik ez dagola uste don: neskatoren zoro! Kaliban don au be gizonik geienentzat, eta onen aldean angeru dozan aik.

MIR.—Orrazkero, apal-zirtzilak dira nire gurariak; nik eztoz au baño gizon oberik ikusteko leiarik.

POSP.—Tiruk, egik agindua; ostera be euren ume-aroan yagozak ire kirio ta zamilak, eta ez yoek kemenik.

PERD.—Olangoaxeak dira izan be: amesetan lez loturik dagoz nire kemen-adoreak. Arin egingo yataz nire aita galdu izana, oartuten natxakon nire makaltasuna, nire adiskide guztiak itsaspara yoañ izana, naiz bere bendeau nauen gizon onen zemaik, nire baittegitik egunean bein neskatu au ikusi al izanazkero: munduko beste baztar eta okulu guztiak euren buruen yabe diran gizonak izan dagiezala; lekurik asko dot nik olango baittegian.

POSP.—(Bere kitean) Ba-doa aurrera arazoa ta ondo yoañ be: (PERD'ri) Tiruk.—(RIEL'eri) Ederto egin dok, Ariel bikain!—(PERD' ta MIR'ri) Zarrailkidaze. (ARIEL'eri) Entzun egik ik eginen ganera zer egin bear daustakan.

MIR.—Nasai egon; bere itzak diragarren baño izakera obeduna da nire aita; bere ekandua besterako da orain ari urtena.
 POSP.—(ARIEL'eri) Mendiko axeak aña azke

izango az i, baña, orrazkero, zeatz-zeatz be-
 te egik agindua.
 ARIEL.—Zeatzik zeatzen.
 POSP.—(MIR'eri) Aitor, arraitkit: itzik ez egin
 orren alde. (Alde dagie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.—Izaroko beste arlo bat.

ALBONTSA, SEBASTEN, ANDONI, GONTZAL,
 ADIRAN, PANTZESKA ta abar aurrera.

GONTZ.—Txitxari ta gogargi izan, arren, yaun:
 ba-dozu (eta bai guztiok be) pozkarririk;
 galdu ezoguna galduaren aldean andi da-
 ta; guztiena da gure lur-iskia, edo askorena
 beintzat; egunero dabe gure gaia bera lor-
 tzat itsas-gizonen baten emazteak, saleros-
 te-ontzi-yabeak eta salerosleak berak be;
 milloien artetik be gitxik alde-egin daie guk
 lez; orrazkero, yaun on, gure lorra ta
 gure pozbidea biak imini alkarren ondoan.

ALB.—Ixilik ago, arren-bai-arren.

SEB.—Aiko, bere buruko zorroztasunaren er-
 loia arilduten yeraoioak orrek, eta txili-
 nak yoko yok nozik-bein.

GONTZ.—Yaun...

SEB.—Bat. Esan.

GONTZ.—Datorkon lorrari barruan eragon
 eta eragiten yakonean, etorri datorko dara-
 gionari...

SEB.—Urre-imiña.

GONTZ.—Eztiñot nik imiñarik, biotz-mina ba-
 ño: untzetik alborago yo dok.

SEB.—Ik bai yo dok nik uste baño untzerago.

GONTZ.—Orrazkero, yaun...

AND.—Ekin-bearraren ekin-bearra! Azurr-ba-
 koa geldi euki-ezin gorria yok orrek!

ALB.—Arren, alperrik ez egik erabili ire mi-
 ña.

GONTZ.—Tiruk, ba, bego: baña, orraitño
 be...

SEB.—Berbetan eragoko yok orrek.

AND.—Ori, ala Adiran, bietatik zein asiko
 ete dok lenen kukurrukuka, zeñek obeto
 egin kukurruku, dema on bategaiti?

SEB.—Ollar zarra.

AND.—Ollar gaztea.

SEB.—Egina: zer yokatuteko?

AND.—Barre-karkaxa.

SEB.—Gerturik nor geagoketeka.

ADIR.—Basamortu-antzik izan-arren izaro
 onek...

SEB.—Ja, ja, ja!

AND.—Ordaindu yatsu, ba.

ADIR.—Berton iñor ezin bizi ledikena, ta la-
 rri-larri bertora elgatxa...

SEB.—Orraitño...

ADIR.—Orraitño...

AND.—Ezin gelditu izan zan bertoratu bagarik.

ADIR.—Edozelan be, izakera me, samur-bi-
 guneko izan bear dau izaro onek.

AND.—Neska bigun yatsun orrako izakerea.

SEB.—Bai, eta me be, orrek orren yakintsu
 esan dauenez.

ADIR.—Eguratsak emen leun-leun eta firi-firi
 putz egiten dauku.

SEB.—Biririk ba'leu lez, eta eurak ustelduta.

AND.—Edo-ta oxin usteletiko lurrunez andur-
 turik ba'lego lez.

GONTZ.—Biziaren aldeko zer guztiak dozuz
 emen.

AND.—Egiz, zegaz bizirik ba'lego.

SEB.—Orretarikorik arean bez, edo gitxi-gitxi
 dago.

GONTZ.—Bedarraren guri ta mardul! musker-
 musker agiri da!

AND.—Izan be, gorri agiri da lurra.

SEB.—Musker-iskitxo bat dauela.

AND.—Egitik urrin eztabil.

SEB.—Bai, zera; guztiz okerretara artu dau
 orrek egia.

GONTZ.—Baña iñondikorik iñondikoena ta ba-
 kanik bakanena zera da (eta larri-larri si-
 nistu-ezineko yatsu)...

SEB.—Aintzakotzat doguzan beste iñondikota-
 sun asko be olangoxeak dira.

GONTZ.—Bein itsasoko urez busti-bustirik ego-
 nak izan-arren, barri-barri ta orratzetik ara-
 ko dirudiela gure soñekoak; gezalez zi-
 kinduak bagarik koloretu-barrien antza da-
 bela.

AND.—Orren sakeletatik batak beintzat itzik
 egin al ba'leu, ez ete leuskio esango ixi-
 lik ago, guzurrti ori?

SEB.—Bai, edo ostantxean orrek esana itzulie-
 tara artu ta sakelean sartu.

GONTZ.—Nire ertxiz, erregeren alaba lirain
 Karibele Tunixa'ko erregeagaz ezkondu za-
 nean Apirka'n lenengoz yantzi genduzanean
 aña barri dagoz gure soñekoak.

SEB.—Eztegu gozoak izan ziran aik, eta bapo ibili gintzazan etxerakoan.

ADIR.—Euren erregenoa langorik eguño ez-tau izan ederrez Tunixa'k.

GONTZ.—Dide alargunaren aldiazkero ez.

AND.—Alargunaren? Utikan! Nondik dakik alargun zala Dide? Alargun izan be Dide!

SEB.—Enea be alargun zala esan ba'leu be, zer? Euk zetara artu dok ori, yaun on!

ADIR.—Alargun zala Dide esan dok? Buruari azka iminten nau ik esanak: Kartago'koa zoan a, ez Tunixa'koa.

GONTZ.—Len Kartago izana da Tunixa.

ADIR.—Kartago ete?

GONTZ.—Bai, Kartago zoan.

AND.—Arako arpa arrigarria baño arrigarriago dok itz ori.

SEB.—Arresia eragi yok orrek eta bai etxeak be.

AND.—Zer ezinik erreztuko ete yok orrek urren?

SEB.—Nire ustez, sakelean eroango yok orrek izaro au etxera ta sagartzat emon bere seme-alabai.

AND.—Eta izaro barriak sortu, aren aziak itsasoan ereinda.

GONTZ.—Bai ete?

AND.—Bai, bai al donbaist!

GONTZ.—(ALBONTSA'ri) Yaun, orain errege-no dan zure alabearen ezteguetan Tunixa'n ziran aña barri dirudiela gure soñekoak esaten daragoiogu.

AND.—Eta ara eguño eldu danik eta bakanena.

SEB.—Zirtzildu, bai, zirtzildu Dide alarguna.

AND.—Ba! Dide alarguna; bai, Dide alarguna.

GONTZ.—Ez ete dago nire yakea lenengoz erabili nebanean bestean barri? Gitxi gorabera esan gura dot.

AND.—Arrantzuan egin bear izan dogu gitxi gorabera orretarako.

GONTZ.—Zure alabearen ezteguetan erabili nebanean bestean, ala?

ALB.—Okada eragiten dautsezu nire belarriai zure itzokaz; ez al neu eguño alabarik ezkondu ara! nire semea galdu da andik onakoan-eta, eta bai nire alabea bera be nitzako, Itali'tik ain urrin yoa danazkero geiagotan iñoz be ezto ikusiko-ta. Napoli ta Milano'ren nire oñordeko yabe ori, iñondiko arrañen baten yanari izan az il!

PANTZ.—Yaun, ba-ledike a bizirik izatear; urutuakaz burruka ta arein bizkar-ganean izartolaka ikusi dot nik a; ostikoiz yo ura, aren areria bazarttu, ta aurrera etorten

izan yakozuan ugin arro-yagiari bere bularra emoten izan dautse; urutu mukerren ganean eukiten izan dau ak bere buru adoretua, eta aren beso sendoak arraunena egiten izan dabe a itsasertzerantza eroateko, ari lagunduteko izan ba'litz lez, burua makurrutuen izan dautson itsas-ertzera; ni neu seguru nago legorrera eldu dala a.

ALB.—Ez, ez, egin dau arenak.

SEB.—Yaun, eskerrak emon bear zeunskioz zeure buruari, zori ontsu etsi zure burua, zuk, zure alabearen bidez gure Europa onetsi baño, Apirikarrai emonda, galdu gurago izan dozun orrek; a beintzat an dago zure begien aurretik urrin ta bere zori txarra begietatiko urez bustiteko eskubiderik askogaz.

ALB.—Ixilik ago, arren.

SEB.—Zure aurrean belaunbiko yarri gintzazan gu guztiok, eta osteango bidez be eske ta eske egon gintxatsuzan; eta a bera be, lotsa ta esaneko izatearen bitartean yezarria, abearen zein aldetan sakatu ta berantza eragingo egoan. Zure semea betiko galdu ete dogunaren bildur naz; Milano ta Napoli'k andera alargun geiago dabe arazo onetan, guk euren pozkarritzat gizonetan emongo dautsegun baño; zeure da errua.

ALB.—Izan be, galtzerik andiena be nire da, orrexegaitik.

GONTZ.—Ene yaun Sebasten, egi gordinegia da zuk diñozuna, ta orretarako aldirik ezta au; zauriari azka zabiltz zu, osakaia ezarri bear litxakionean.

SEB.—Ondo esanda.

AND.—Eta bai osa-ebateari egoki-egoki dagoakionez be.

GONTZ.—Yaun on, gu guztiontzako eguraldi txarra, zu goibel eta odeitsu zagozanean.

SEB.—Eguraldi txarra?

AND.—Txar-txarra.

GONTZ.—Lur landu-arlorik ba'neu izaro onetan, yaun...

AND.—Asun-azia ereingo leuke orrek.

SEB.—Naiz lapatxak, naiz zigañak (mamu-kiok).

GONTZ.—Eta bertoko errege ba'nendi, zer egingo neuke?

SEB.—Mozkortu ez beintzat, ardaorik ezagaitik.

GONTZ.—Egiten diranaz bestera egingo neukez egitekoak errian; eta izan be, saleros-teari eneuskio lekuri emongo nik; izenik bez agintarienik; idatzirik ezautu be ez ledike egingo; otseintzarik ezetarikorik bez, ez aberatsik, ez landerrik; ez egiunerik, ezta ondorengotzarik be; lur, alor, solo ta

maaslietan ezetariko mugarik ez; ez ledike erabiliko mea edo metalik, gari-artorik, ardaorik, naiz oriorik; ez ezetariko lantegirik; arkolo gizon guzti-guztiak, eta bai emakumez be, baña erruge ta garbi; negusitasunik ez.

SEB.—Eta ori ta guzti be, ori berori ledike ango errege.

AND.—Nondik asi dan aitzu egin yakok atzen orri.

GONTZ.—Berezoak berez, izerdi ta lanik bagarik emon leiken guztia guztientzako izango da; azpikeri, zitalkeri, ezpata, aztamakil, aitzo, su-izkilo, naiz ezetariko beste lana-basa edo tramankulurik eneuke izango nik; berezoak berak, ostera, bere kitleik emongo leuke edozetariko ugaritasuna, edozetariko gonburutasuna, erri errugeari yaten emoteko.

SEB.—Ezkontzarik be ez ete orren bendekeen artean?

AND.—Garaurik bez, gizon: alperkeri utsean guztiak; urdaskak eta lotsabakoak be bai.

GONTZ.—Olangoxe osoa ledike nire yaugoa, arako urrezko aldiak lotsaturik itxiko leukezana.

SEB.—Gora, i errege ori!

AND.—Gora ta gora, Gontzal!

GONTZ.—Aitu ete daustazu, yaun?

ALB.—Bego, Yaungoikoa-arren: aletz utsa dok ik esaten daustakana.

GONTZ.—Egia diño zure nagusitasunak; eta esana esan ba'dote, edozein umekeriri barre egiten dautsoen biri gilberadun yaunoi barre-biderik emote-arren esan dot.

AND.—Zuri zeuri egin daustagu barre.

GONTZ.—Eta txantxa ergelotan ni enaz ezer zuon aldean; orrazkero, ekin baño eztozue, eta ostera be barre egin utsari.

AND.—Orrek bai yo gauz bete-betean!

SEB.—Bai, bera beteko lurrera yausi ezpa'litz.

GONTZ.—Gizon yator odol-beroak zarie zuok; iretargia be bere bidetik aterako zeunkie zuok, bide berean bost astean irauin ba'le-gi.

ARIEL aurrera, ikus-ezinek, eresi benetariko bat yoten.

SEB.—Orixe egingo geunke egin be, ta gero saguzarrak goatzen urten.

AND.—Ez, ene yaun on, ez asarratu.

GONTZ.—Ez, ez orixe; nire bereiztea ezto iminiko galbidean orregaitik eta orren erre; motel be motel nago-ta, lotan nagola be barre egingo ete daustazue?

AND.—Lotara zoaz, ba, ta entzun egiskuzu.

(ALBONTSA, SEBASTEN eta ANDONI'z beste guztiak loak arizen dauz)

ALB.—Zer, guztiak lotan orren arin? Nire begiak itxi-ala nire gogaketak be itxiko al dira: orixe egiteko leiarik ba-dabe izan.

SEB.—Purrustik ez al dauzazu egingo opatuten yatsun lo-gura astunari; gitxitan etorten yako olangorik naibageari, eta aringarri da datorrenean.

AND.—Guk biok yagongo zauguz, ene yaun, atsedean artzen zagozan bitartean, eta begiratuko zauguz okerrik yazo ez dakitsun.

ALB.—Eskarrrik asko; itzalez astun nago (Loak artu dau ALBONTSA. Alde ARIEL'ek).

SEB.—Inondiko lo-gurea egin da orren yabe!

AND.—Lur onetako eguraldiak dakarrena da ori.

SEB.—Orregaitik ba'da, gure betazalak be zegaitik ez dautsez lotuten alkarrerri? Ni enaz lo-gura.

AND.—Ez ni be; argi ta bizkor dago nire gogoa. Batera yausi dira orreik guztiak, alkarregaz itunduta lez; tximisteak yota lez itzuli dira orreik lurrera. Sekulako eretia ez ete da au, aintzako Sebastian? Eneee! ez ete da berebiziko eretia? Bego. Eta orraitño, zuk zer izan bear zeunken zure mosuan ba-dakustala dirudit: deiez dagozue eretia, eta nire irudimen bizi-sendoak burestuna dakus zure buru-ganera yausten.

SEB.—Zer, atzarrrik ete ago?

AND.—Enozu entzuten itz-egiten, ala?

SEB.—Bai; eta egin-eginean be erdi-lotan dagonaren itz-egikerea darabilik; eta lotan daragoiok ik herbetan; zer esan dok? Inondiko atsedena dok au, zabalik begiak, zutunik gu, itz-egiten, ibili-ala lo-egiten, eta orraitño arria lez lotan.

AND.—Sebasten yator, zori onari zuk lo-egiten ezeze, ilten izten dauzazu; begiak itxi-idigi egiten dozuz lotan.

SEB.—Igarri-igarrian lo-arrantzak egiten dozak ik; zerbait iragarren yoeik ire lo-arrantzok.

AND.—Oi dodan baño benago nago ni: onantxe egon bear zeunke zeuk be, niri yaramonik egitekotan; eta au egitekotan, dana lango iru egingo zeunke zure burua.

SEB.—Ondo yagok, ur geldi nok ni.

AND.—Neuk irakatsiko dauzutsu ibiltan.

SEB.—Orixe egidak, yatorrizko nagikeriak atzeraka egiten irakasten yaustak-eta.

AND.—Ara, zure elburuak zelango txera argia egiten dauzsun bakarrik al zenki, zuk olan irri egiten dauzazun bitartean! Billus.

tuago ta yantziago egiten dozula al zenki! Atzeraka egiten daben gizonak, gizon eba-tzi-ezinak, bildur naiz nagi diralako, sarri-askotan, orrexegaitik, elburuaren ondo-on-dora eltzen dira.

SEB.—Ekiok, arren; iri zerbaitek urten bear daukala iragarrien yoeik ire begi ta mo-suen ereikerak, eta ire umegintza orrek itzalezko ume-minetan au i, erdira-ezinik.

AND.—Olanixe da, yaun; gomuta makaldun gizon onek, lurperatu dagienean be orain baño gomuta gitxiagorik izango eztauen gizon onek aren semea bizirik dala erre-geri ointsu larri-larri sinistazo-arren (eta izan be iñori sinistuzoteko bakarrik da gi-zon au), ezina da a eztala ito, emen lotan dagon au uger dabilela legetxe.

SEB.—Ez yoaik nik a ito-ezaren itxarorik.

AND.—Ara, arenik ez, baño beste zer batena dozun zure itxaroa bai ba-dala andia! Bi-de atatik itxarorik ez izatea, beste bidetik itxaro lango itxaroa izatea da, itxaro an-diagorik asmau be ezin ledike asma-egarri-rik andiena izanda be-ta; seguru dago be-gi-itxi. idigiz bakarrik an idoroko dauela. Ferdinanda ito dala nigaz batera autortu-ko ete dozu?

SEB.—Arenak egin yok.

AND.—Orrazkero, esaidazu, nor da aren urren Napoli'ren yaun eta yabe?

SEB.—Karibele.

AND.—Tunixa'ko erregenoa, gizonaren bizia baño amar legoa arago bizi dana; eguzkia bidari izan ezik Napoli'tiko gutunik (idazki-rik) ezin artu daiena (orretarako geldoegi da iretargiko gizona) yaio-parria kazkondu ta arpegian bizardun izateraño azi arte; are-netik gentozala itsasoak gu guztiok irun-tsi genduzana, naiz-ta gero gutatiko batzuk itsasoak atzera okadaka egotzi izan; eta, au dala-ta, orrako ori egitekoaren aurreko baño eztala ogikizuna egiteko gara gu: zure ta nire eskuetan dago etorkizuna.

SEB.—Ze egikizun dok orrako ori? Zer diñok? Egia dok, Tunixa'ko erregeno dok nire anaiearen alabea eta, orrazkero, Napoli'ren yabegai; eta bitarte onik ba-yagok luurral-de bien bitartean.

AND.—"Napoli'ra-bidean Karibele'k zelan neur-tuko gu?" lurr-bitarte orretako beso bakotzak gedar dagiala dirudi. Tunixa'n bego no a, eta Sebastien atzarriko al da! Eriot-zea dala orreik benderatu dauzana dagi-gun; ba, orrazkero, elegokez dagozan ba-ño txartoago: ba-dago Napoli'n lotan da-gon orrek bestean ondo yaurri legikenik; bai Gontzal au bestean itz-dario ta itz-on-

tzi izan ledikezan yaunik asko be; nik neuk be egin dait nire burua bela barritsu, orrek bestean sakon itz egingo leukena. Eneee! nik dodazan asmoak al zenduz! Lo au bai ba-letorkela iñozkorik ondoen zure aurrera-piderako! Bai ete dakizu zer esan gura dodan?

SEB.—Baietz uste yoaik.

AND.—Eta zuk zeuretik zer eskeintzen dau-sa-zu zure zori onari?

SEB.—Gomutan yoaik nik ire anai Posper'en lekua bete enduala ik.

AND.—Egia; eta begira, ondo baño obeto ez ete datorkidaz yantziok? Lenago baño ego-kiago ta beteago; aldi atan nire kide ta lagun ziran nire anaiearen oteñak, nire otsein dira orain.

SEB.—Baña, ire yakinkidetzea...

AND.—Bai, yaun; non da orrako ori? Ozpel-arrakalen bat ba'ledi, oñetako bigun-nasaiak yantziakoko leuskidaz; baña olango yainko-rik ezto oartuten nik nire bularrean; ni ta Milano bitartean legokezan ogei yakinkide-tza be gozatu ta urtu ledikez ni kezkatu baño len! Emen daiza zure anaiea, eta orain dirudiana ba'ledi, ez berau ganean dauen lurra baño obea; eta nire esaneko galtzaidu onen iru atzondoz betiko oeratu neqike nik ori; eta zuk nik nireta egiten dodan bitartean, betiko itxiko zeunskioz be-giak usikada zar oni, Zurtasun yaun oni, artu dogun bidegaitik gero akarrik eta usi-kaarik egin ez dagiskun. Ganetikookazko, katuak esnea edaten dauen legetxe artuko dabe guztiak zure azalbena; guk egin da-gigun edozer ze ordutan egingo dogun esa-tea izango da asko orreik erloiuari ordua yozoteko.

SEB.—Ik beñola egin izango dok, adiskide maite, nik egitekoaren aurretiko; ik Mila-no iritxi enduanez lortuko yoaik nik Na-poli. Atera ire epatea; zartada batek ya-reiko au ik ordainduten dokan zergatik, eta maite izango aut nik errege onek.

AND.—Zeuk be atera, eta nik nire eskua eragi dagidanean, beste ainbeste egin zuk, Gontzal'eri erasoteko.

SEB.—Ui! itz bat, besterik ez. (Eurak eureta-rra berbetan).

Eresi, Barrien-barri aurrera ARIEL, iñok iku-si-ezinik.

ARIEL.—Aurre-yakitez daki nire ugazabak ze-lango galbidean dagozan bere adiskideak; eta neu bidalten nau ona, ostean aren as-moa, biziak bizirik eukitekoa, galdua le-dike-ta. (GONTZAL'en belarrira abeska).

Zu emen lo-arrantzaka zatzazan artean
 Azpikeriak begi-zabalik
 Bere eretia artzen dau:
 Biziazen ardurarik ba' dozu.
 Aztindu lo-zorroa ta zagoz atzarrik:
 Atzarri, atzarri!

AND.—Orrazkero, bizkor eta zirti-zarta gabil-
 izan gu biok.

GONTZ.—Angeru onok, yagon orain errege!
 (Atzarri egiten dira).

ALB.—Ara! zer dok au? Ara! atzarri adi!
 Zetarako atera douez ezpatak? Zegaitik
 begirakune itzalok?

GONTZ.—Zer yazoten da?

SEB.—Gu emen zure atsedena yagoten egon
 gareanean zezen, edo obeto esan, leioe-
 naren antzeko orroa arroa entzun dogu: ez
 ete zaeuz ak iratzarri? Larri-larri izenak
 eragin dautsez ak nire belarriai.

ALB.—Nik eztot ezer entzun.

AND.—Bidutzi edo mamuren belarriak ika-

ratuteko aňako durundua izan da; lurra
 bera be ikaratutekoa! Leirena bagarik
 leoi-talderen batena izan da, urrean.

ALB.—Entrzun dok olangorik, Gontz!

GONTZ.—Nire izen ona-arren, yaun iñondiko
 durundua izan da nik entzun dodana ta
 axek iratzarri nau; zuri eragin eta gedar
 egin dautsut nik; begiak idigi-ala, atera-
 ta ikusi dodaz orrein ezpatak; egia da
 durundurik izan dala; yagon daiguzan gu-
 re buruak, edo-ta alde-egin emendik; ate-
 ra daiguzan ezpatak.

ALB.—Alde-dagigun lekuotatik, eta ostera be
 nire seme gixaxoaren billa ekin dagiogun.

GONTZ.—Yaungoikoak yagongo al dau piz-
 tiotatik! seguru be seguru izaro onetan
 dago a-ta.

ALB.—Aurrendari yarri adi ta gaiocazan.

ARIEL.—Posper nire yaunak yakin bear dau
 nik egina (Bere kitean). Orrazkero, errege,
 zure semearen billa zoaz bildurge. (Alde
 dagi).

II AGERLEKU.—Izaroko beste arlo bat.

KALIBAN aurrera, lepokada egurragaz. Odei-
 otsak entzuten dira.

KAL.—Zingira, iztinga, iztoki, oxin eta ur
 geldietatik eguzkiak edoski ta zurrut egi-
 ten dauzan kutsu guztiak betoz Porper'en
 ganera, eta yan dagianaren atzondo ba-
 kotzeko gatxen bat intsigiko al yako! Entzu-
 ten dauste aren iratxoak, baña a ta guzi be
 ari birao-darioka ibili bear dot nik. Baña
 orreik ez dauste sartuko orratzik, ez kirikiño
 latzik erakutsita ni bildurrutuko, ez ni lu-
 petzan sartuko, ezta, ilintiak lez, ilunetan
 nire bidetik aldenduazoko, ai ak agin-
 du ezik; baña edozein aletz eta uskerigai-
 tik ezarten daustaz: niri mosuak egin,
 irrintze, ta gero usigiten dausten matxan-
 goen antza arturik batzuetan; beste bein,
 nire bide-bidean yarrita, nire oña euren
 gan-ganera yoanda, euren arantzakaz ni-
 re oin gorrietan min egiten dausten ki-
 rikikiño latzen antza arturik; beste batzue-
 tan sugedorriak kirimilduten yataz soin
 osoan, eta euren miñ sardatuz txistu-egin-
 da, zoratu-bearrean yarten nabe: ara! ara!

TIRINKUL aurrera.

Emen dator aren iratxoetatiko bat, eta niri
 elorriok ezarten dator egurrak astiro dar-
 oadazalako: luze ta soña betean etxungo
 naz; ba-ledike orrek ni onan ez oartutea.

TIR.—Eztago emen ez txarakarik, ez ezetari-
 ko zugatz merrorik be egualdiaren eraso-
 tik nobere burua yagoteko ta beste eka-
 txen bat datorku ganera; axearen txis-
 tuak iragarrien daust ba-datorrela; ert-
 lanagi itsusia dirudi an aragoko odei baltz
 eskarga ak, bere zirina ixuri-gurarik: ba-
 rrien-barri yo ba'dagi odeiak, len yo daue-
 nez eztaik non ostondu nire burua; kan-
 linkadaka yausteko dago a aragoko odeia.
 Zer dogu emen? Gizon, ala arrain? Bizi-
 rik, ala ilik? Arrain; arrain-usaña dau bein-
 tzat; usain zantar eta arrain-sundea; ma-
 kallatxo gatzituen bat eta ez gatzitu-ba-
 rriena. Iñondiko arraña berai! Ingelanda'n
 ba'nengo orain (bein an izan nintzanez),
 ta arrain onen irudia bera euki, zidar-di-
 rutzea emongo leuskit an ergelen batek an
 yaiegunez onen irudia ikuste-arren: gi-
 zon aberats egingo ninduke an ma-
 mu onek; iñondiko edozein piztik egi-
 ten dau an gizona aberats; eta, orrai-
 tiño, eztabe emongo txakurtzikirik be
 eskeko meikiri lagunduteko; amar emongo
 dabez ostera, Inditarren baten gorpua ikus-
 te-arren. Ostera! gizonarenen antzeko zan-
 goak dauz! eta beso-antzekoak dira onen
 egalak! Epel yagok, arranotan! Ortik zear
 bo nire lengo eretxia, oraindik ara enaz
 ereti atakorik; arraňik eztoz au, izaro
 onetako lagunen bat baño, ointsu oñazta-

rien batek yatakoa. (Ostotsa da) Ene! ekatxa dator ostera be; onen txartespera zirrist-egitea da nik egin daikedanik onena; alderdiotan eztago onez beste legorrik: inondiko oelagunen ezagun egiten dau bearrak gizona. Ementxe estail ta batuko dot nire burua ekatxaren ondarrak igaro arte.

ESTEPAN aurrera abeska; eskuan ardao-bonbil bat dauela.

EST.—Ez ni bein geiagotan itsazora, itsasora, Emen bertan ilgo naz legorrean ganoraz.

Doñu zirtzil-zirtzila dok au gizonen iletan abestuteko: bapo! amen nire poza. (Edan egiten dau).

Ontziburua, ontziyagoleak, ontzizañak eta nik

Suodizañak eta aren lagunak
Maite genduzan Mari, Miren, Marine ta Katalin,

Baña guri inñori ardura ez Sekunda:

Aren miñaren "in-tan"ak
Ontzi-mutilari gedar-egiten eutsan
"Eure burua eskegik";

No ari etxakon gogoko ui ta pike-sundarik,

Baña vostunek atz-eikion izanik ak azkurarik:

Orrazkero, itsasora, mutilek, ak dagiala burua eskegi.

Au berau be doñu zirtzila da, baña, amen nire poza. (Edan egiten dau).

KAL.—Minik ez egidak egin; ai, ene!

EST.—Ze arraio dok au? Txerrenen batzuk ete dagoz emen? Irri ta barre egin bear ete dauskuzue basati ta Indietako gizonen marroz? Uretan itotetik elxoat alde egin nik orain ire lau zangoen bildurrik izateko, eta izan be, esakunea dok "Lau oñeko gizonek ez daust eragingo atzerarik", eta ostera be esango da Estepan'ek surretatik arnasarik artuko dauen bitalean.

KAL.—Gorriak ikusiazoten daustaz iratxoak: ai, ene!

EST.—Izaro onetako lau-oñeko bidutzi edo mamuen bat dogu au ta, nire ustiez, beroenaren aldikadaen bat dau. Non den-ganiño ikasi ete dau gure izkunizea? Gatzar-ingarrien bat emongo dautsat, onentzako gai izatekotan. Osatu al ba'dagit, otz-nik eta bare euki, ta beronegaz Napoli'ta eldu, bere biziko emoi ledike au eguño naruzko oñetakorik yantzi izan dauen erregentzat.

KAL.—Enagik mindu, arren; bizkorrago etxeraturko yoa egurra.

EST.—Ointxe yo dau aldikadeak, eta sentsuntsuenak ez dira bere itzak. Nire bonbilekoa zelango dan ikusiko dau; inoz lenago ardaorik edan ezpa'dau, larri-larri kendu egingo dautso aldikadea. Osatu al ba'agit, eta ezi, geiegirik eztoz eralgi izango igaitik, ordainduko dautsak ik ire zorra i auenari, eta naiko ondo ordaindu be.

KAL.—Bein-beinean ez daustak egiten min andirik; laster bai egingo daustak; ire ikareak iragarten yauastak ori; Pozper'ek eragiten dauk orain iri.

EST.—Ale, idigi agoa; katu ori, aiko amen iri itz-eragingo dauskana; idigi ago ori; onek osatuko yok ire ikarea, baietz uxatu, sinistu egidak; eztaik ik nor dan ire adiskide au; zabaldu ire matrallazurrak ostera be.

TIR.—Ezagun yat barbaro ori; urliarenak izan bear leuke izan, baña itorik dago a, eta txerrenak dira onako oneik. Ene! lagun zakidaze!

EST.—Lau oin eta barbaro bi; inondiko mamu! Bere adiskideaz ondo itz egiteko da aurretiko onen itzaroa; atzetiko itzaroa ostera, zantarrkeriak eta inogazko txarto esatea da. Nire bonbileko ardao guztiak zuzpeteru al ba'dagi, onen beroenaren aldikadea benderatuten lagun izango natxako: tiruk... olantxe! Ire beste agora be ixuriko yoa arean.

TIR.—Estepan...

EST.—Ire bigarren agoa ete yagok niri diez? Ene! Txerren yatsu au, ez mamurik. Geldi itxi dagidan, eztoz txali luzerik.

TIR.—Estepan... Estepan ba'az, ukutu nagik eta itz egidak; Tirinkui nok-eta, ez izan bildurrik; ire adiskide on Tirinkul nok ni.

EST.—Tirinkul ba'az, argitara ator; zangorik laburrenetatik ten eta indar egingo yoa; zangootan Tirinkul'enik izatekotan, oneik dira arenak. Izan be, Tirinkul berbera az i; zelan eldu az i yaioztatiko ergel onen barrura? Tirinkulak egotzi daiz onek puzka, ala?

TIR.—Oñaztarriak ilekotzat artu yoa nik ori; baña, ez ete az ito, Estepan? Ez azala ito ustetan nago orain. Yoanik ete dok ekatxa? Yaioztatiko ergel il onen txartespean ezkutuan yarri nok ni ekatxaren bildurrez. Bizirik ago, ala, Estepan? Ene Estepan, Napoli' tar bik igesi!

EST.—Bizarik ez egidak eragin, arren; larri yagok nire biuzturia.

KAL.—Iñondiko zerak dira oneik, ta iratxoan batzuk epa'dira, yainko altsuen bat da, ta zerutiko edaria dakar: belaunbikatu egingo natxako aurrean.

EST.—Zelan urten dok ik onik eta ondo? Zelan eldu az ona? Bonbil au-arren zin egik esango daustakala zelan eldu azan ona. Nik neuk itsas-gizonak ontzi-egaletik itsasora egotziko ardao-upel-ganean igesi yoat, eta upela itsasertzeratuazkero neure eskuz zugatz-azalez eginiko bonbil au-arren dirauskat!

KAL.—Benetako zure bendeko izango nazala zin egingo dautsut bonbil ori-arren; ludi onetakorik ezta orrek dauen edaria.

EST.—Autso; zin egik, ba, Zelan igesi dok ik?

TIR.—Aatak legetxe uger-egin yoat izpastarrera, gizon; ba-yakiat nik aatak lez uger-egiten; zin-egiten yoat orregazko.

EST.—Autso, mun egioek idazti oni: aatak lez uger-egin al izan-arren, antzarraren antzeko egin aue i.

TIR.—Ene Estepan, onango arean geiagorik ez ete dok?

EST.—Upel-bete, gizon, upel-bete. Itsas-ertze-ko artzulo bat dok nire ardagela; antze yagok ostonduta nire ardaoa, Zelan ago, yaiotzatiko ergel ori? Zelan yoak be-roenaren ire aldikadea?

KAL.—Zerutik ez ete zara yausi zu?

EST.—Iretargitik yausi nok, bai orixe, Len iretargiko gizona izana nok ni.

KAL.—An ikusirik zaudaz. Nire ugazaba-andereak erakutsi zindudazan, baita zure txakurra ta egur-sendorra be.

EST.—Tiruk, orretzaz be zin egidak; mun egioek idaztiari; bariro beteko yoat idazti ori; zin egik.

TIR.—Argi on au-arren, ergel utsa da mamau: onen bildur izan? Mamu makal-makala da au... iretargiko gizona! mamu gixaxo onen sinispera uts; benetan, upel eginda ago, mamu.

KAL.—Atzondorik atzondo erakutsiko dautsuet izaro onek dauen lur emokorra; eta mun egingo dautsat zure oñari; arren-bai-arren, nire yainko zakidaz.

TIR.—Argi au-arren, mamu saltzalle-saltzalle ta mozkortti az i; loak artu dagianean orren yainkoa, ostu egingo dautso orrek bonbila.

KAL.—Mun egingo yautsat ire oñari; zin egingo ire bendeko izango nazala.

EST.—Orrazkero, tiruk, belaunbikatu ta zinegik.

TIR.—Iztenak egin arterañoeko barreack egingo dautsadaz bururik bagako mamu orri: mamu zirtzil-zirtzil orreri! Yo egin bear induket i...

EST.—Tiruk, mun egioek.

TIR.—edaritan epa'engo; mamu orren askarri!

KAL.—Iturririk onenak erakutsiko dautsuedaz; arangarratzak, aubiak, masustak-eta batuko dautsuedaz; arrantzuan be egingo dauskat iri, eta egurrik asko ekarri itzako. Izurrik eroango al dau bere otseintzan naukan legerik bagako gizona. Geiago eztautsat batuko abarrik, iri iñondiko gizon orreri yarra baño.

TIR.—Mamu onen barregarri! mozkortti gixaxo bat iñondiko gizontzat dau-ta.

KAL.—Arren-bai-arren, karramarroak azten diran lekura zu erooten itxi egistazu; eta eskuti-ogiak aterako dautsuz lurrpetik nire atzazal luzeokaz; eskilaso-abiak erakutsiko dautsuz, eta matxango bizkorra goakaluz zelan goatu irakatsi be bai; ur-mordontxiloetara eroango zaudaz, eta nozi-peinka itsas-erzi egin-barria ekarriko dautsut atxetatik; yoan gura dozu nigaz, ala?

EST.—Arren-baiarren, itz-darioa ixita, bide-a erakutsi egidak. Tirinkul, erree ta beste lagun guztiak ito diranazkero, izaro onen yabe egingo, gozak. (KALIBAN'eri) Autso; ik eroan egik nire bonbila. Tirinkul'eri yarra; bete egingo yoagu ori ostera be nozik bein.

KAL.—"Agur, ugazaba; agur, agur" (Mozkorantzera abestuten).

TIR.—Ausika daragoion mamu; mamu mozkor.

KAL.—

Eztot egingo geiago arrañentzako ur-or-marik;

Ezta billatuko be errekinik

Iñok aginduz,

Ezta olik igurdiko ta azpilik irukutziko;

Ban, ban, Ka-Kaliban'ek

Ugazaba barri dau. Gizon barri dau.

Azkatasuna, eup. mutil! Eup, mutil, azkatasuna! Azkatasuna, eup, mutil, azkatasuna!

EST.—Mamu adoretu ori! aurretik oa i. (Alde dagie).

III EKITALDI

I AGERLEKU.— POSPER'en txabola-aurrea.

PERDINANDA aurrera, zubil bat dakarrela.

PERD.—Mingor dira yolas batzuk, baña eurretan artzen dan atseginak arindu ta uxatu egiten dau nekea: gizonki yasaten dira txatxarkeri batzuk, eta xede, elburu goikoetarako bide izaten dira zeregin apal-zirtzilik geienak. Astun eta nekor egingo litxakit nire egikizun zirtzil au, aspergarri da-ta; baña ni otsein natxakon andereak ilek be biztuko leukez-eta, atsegindu egiten daustaz nekeok; eta aren aita asarbera dan baño eun bider txeratsua go ta leunago da a; eta aita laztasuna bera dalarik. Onango zuzat-zubilak millaka emendik kendu ta pilatu egin bear dodaz, agindu gorriaren arauz; negar egiten dau nire andera maiteak ni lanean izerdi-bitsetan ikusita; eta onango zirtzilkerik onango egilerik eguño eztauela izan esaten dau. Aiztu egiten yat; baña olango gogaketa leun-etziaak arindu egiten daustez nekeak; olango gogaketarik ezlodanean egiten yataz latzen nire nekeak.

MIRANDE aurrera, ta an arago baten POSPER

MIR.—Ai ene, bada! arren, orren gogor ez ekin lanari: tximisteak erreko al dauz zuk pilatu bear dozuan zubilok! arren, eratsi egizu bizkarretik, eta atsedan artu egizu: su egin dagianean negar egingo dau orrek zu nekatuagaitik. Ikasten daragoio gogatsu nire aita: atsedan artu egizu orain, arren; iru orduotan eztautsu yaramongo ak.

PERD.—Andera maite-maite ori, eguzkia sartuko da nik nire arloa egin baño len.

MIR.—Neuk eroango dodaz zure zubilak zu yezarrita zagozan bitartean; arren, ekadazu ori; neuk eroango dot egur-pilora.

PERD.—Ez, izaki eder-eder: lenago karraskarragin nire zan eta giarrai, lenago bizkarrazurra ausi, zure aldamenen arkolo yezarrita nagola zuri eginiko olango irainik yasan baño.

MIR.—Sari litxakit ori; eta zuk baño erreago egingo neuke nik ori; neke orren aurka zagoz zu, orren alde, ostera, ni.

POSP.—(Bere kitean) Neskato orren errukari! kutsuturik zagoz zu; zure ikustaldiak berak diragar argirorik asko onako au.

MIR.—Unatuaren, meko-eginaren antza dozu zuk.

PERD.—Ez, andera yator; goxalde ozkirri yat zu gabaz nire aldamenen zaukadaseanean. Arren-bai-arren, zure izena zean egidazu, alan be nire arrenetan gogoratu dagidan.

MIR.—Mirande yat izena; zure agindua ausi dot au esanaz, ene aita!

PERD.—Mirande arrigarri ori! Izan be, arrigarrien arrigarri zara zu; munduan dan zerik ederrena añako! Amaikatxo andera eder begiratu izan dot nik lotsarik andienagaz; eta ainbat bider nire belarri zoliegia benderatu izan dauz euren miñaren eresi gozoak; ekandu onen bategaitik edo bestegaitik ainbat emakume egin yataz begiko, baña eguño eztoz ikusi emakume oso onik bere ekandu onakaz batera akats au edo ori burruka eztabilkonik eta arein ederra ilundu eztautsanik; baña zu, zu langorik eztagon ori, izaki bakotzak dauen zerik ederrenez egin zara zu.

MIR.—Nire gizakorik bat be eztoz ezagun nik! emakumerik eztoz ezagun, nire ispilluan neure buruaz besterik; ezta gizon deitu daikodanik be zu nire adiskide on ori ta nire aita maitez besterik; ezta zear diranen antzak zelangok diran tautik be eztaikit; baña, berezkoak emoniko eskarren pitxitat dodan nire apaltasun eta lotsortasunez zu baño besterik eneuke gurako laguntzat ludi onetan; eta nire irudimenak be antzik ezin emon izango leuskio nire begiko izan ledikeneri, zeu ez besteri. Baña, umeke-ririk gelegi esaten daragoiot nik, umeke-riak esaten eta aitaren aginduak austen.

PERD.—Errege-seme naz ni, nire izatez, Mirande; errege bera, urrean; eta ez al nendi olangorik... eta egurreta-yoputza au ez neuke guragoko aragi usteleko euliak nire agoan durunduka ibiltea baño. Nire biotzak diñona entzun; zure otsaintzara egaz egin eustan biotzak zu ikusi-ala; or dago arrazkero zure otsaintzan; eta orregaitik nozu epetsu, zubil-gizon au.

MIR.—Maite nozu, ala?

PERD.—Zeru-lurrok, zeuok izan nire itzen aurtoria ta lekuko ta elburu zori onsuratu nire gurariak, egia ba'diño! Guzurti ba'neadi, ostera, okerretara yotoko al da niretzako etorkizun zan zerik onena! Munduan danik edozer baño askozaz maiteago, aintzakoago ta goragarriago zaudaz.

MIR.—Ergel nozu ni, pozbideak negar aragiten daust-eta.

POSP.—(Bere kitean) Inondiko leiak yo dabe emen alkarregana! Eskar gozozko euria bidalten dausoe zeruak orrein artean azten daragoion zerari!

PERD.—Zegaitik zagoz negarrez?

MIR.—Emon gura neuskizunik emoten atometako gai enazalako; eta artu ezik ilgo nazana yakinik, artzeko gai enazalako. Baña, au be ba-da, ba, aletza; eta eskutuago egon gurago ta erakutsiago egiten dau bere burua; alde emendik, irudikeri lotsorrok, eta adoretu nagizu, errugetasun izurge ta guren orrek! Zure emazte nozu, nigaz ezkondu gura ba'dozu; olangorik zuk gura ezik, zure otsein ilgo naz; ukatu zeinskit

zure lagun izatea, baña, zuk gura-naiz-gura ez, zure otsein izango naz ni.

PERD.—Nire andera izango zara, maiterik maiteena, eta ni onan beti zure otsein apal.

MIR.—Nire senar, orrazkero?

PERD.—Bai, eta bendekori yareitetik datorkona besteko biotzeko pozagaz; eutsi esku au.

MIR.—Eutsi nire au be, biotza barruan dauela; eta agur orain, oindik ordu-erdirate.

PERD.—Millaka ordu! millakak! (Alde biak, bide banatatik).

POSP.—Orreik aña ezin poztu neinteke ni onako onegaz, arriturik egon-arren; baña, orraitio, ezek be ezin poztu nagike geiago. Nire idaztira noa ni; oraindik eta aparitarre arira datorren lan-arlo andia dot egiteko-ta.

II AGERLEKU.—Izaroko beste alderdi bat.

ESTEPAN eta TIRINKUL aurrera; KALIBAN atzetik bonbilagaz.

EST.—Ez egidak esan olangorik...; ura edango yoagu upela ustu daitenean; tantanik bez ordurarte; ez larritu, ba, orrazkero, ta iruntsi; otsein mamu, edaik nire alde.

TIR.—Otsein mamu! Bai, zera! Izaro onetako ergel! Izaro onetan bost baño ezfirala bizi diño; geu gara euretatik iru; guk baño buru zindoagorik ezpa'dabe beste biak, zealdoka ta albo-alboraka dogu erri au.

EST.—Edan, otsein mamu, nik aginduten dauskadanean; ire burura sartu-aginik yagozatz ire begiak.

TIR.—Oba ez; eta izan be, non egoteko buruan ezik? Mamu ikusgarri ledike buztanean ba'leuz begiak.

EST.—Ardao zuritan ito dau bere miña nire otsein mamuak; ni neu eninduke itoko itsasoak be; itsas-ertzera baño len ogei ta amabost legoako bidea egin dot uger, atzeraka ta aurreraka, argi oneri eskarrak.—I izango az nire ordeko, mamu, edo nire ikurrindun.

TIR.—Zure ikurrindun bai, zuri eder izatekotan, nok eutsin bagarik ezin leroake-ta.

EST.—Aringa ez akít yoan, monsieur mamu.

TIR.—Urrin etzarie yoango; etxun bai egingo zarie, txakurrak lez; eta deusik be eztozue esango.

EST.—Ergel yaio orrek, ire bizian bein itz egik, ergel yaio ona ba'az.

KAL.—Zelan dago zure zindotasuna? Zure onetakoak miatzketan itxi egidazu. Orren otsein enaz izango; ori ezta adoreturik.

TIR.—Guzurra diño ik, mamu ezyakin-ezyakin

orrek; ertzañakaz burruka egiteko be geru nago ni. Errekatik aterako arrain ori, noz izan dok koldar eta bildurti, nik gaur edan dodan beste ardao zuri edan dauen gizona? I erdi arrain eta erdi mamu baño izan ezta, olango guzur eskargarik esango ete dok?

KAL.—Ara, irrika dabil! olangorik egiten itxiko ete dauzazu, ene yaun?

TIR.—Yaun, diño orrek! Ori bai ba-dala berezkoaz besterako mamu!

KAL.—Ara, ara ostera be! Usika il egizu ori, arren, yaun.

EST.—Tirinkul, obeto erabilteko eukik miñ ori agoan; asaldatu ba'akit, urrengo zugatzetik... Nire bendeko, nire otsein dok mamu errukarri ori eta eztautsak egin bear irainik.

KAL.—Eskarrrik asko, ene yaun yator. Ostera be entzungo ete daustazu bein egin neutsun eskaria?

EST.—Bai, mutil, entzungo daukat; belaunbikatu adi ta barriro esak. Zutunik egongo gozak ni ta Tirinkul.

ARIEL aurrera, iño ezin ikusi dauela.

KAL.—Lenago esan neutsunez, gizon biotz-gogor baten otsein naz ni; bere lupukeriz eta niri ziri ederra sarturik, izaro au otzu daustan aztu da a.

ARIEL.—Guzurra diñoik.

KAL.—Euk diñoik guzurra, matxango irrilari orrek, alango orrek; nire uzazaba adoretuak zuzituko al au! guzurrik etxiñoat nik.

EST.—Tirinkul, orren esanetan geiagotan sartu ba'adi sartu, aginen batzuk botazoko daukadaz esku onegaz.

TIR.—Ostera! nik eztoz ezer esan.

EST.—Orrazkero, ixilik, eta bego.-- (KALIBAN'eri) Ekiok.

KAL.—Zera da nik diñodana, aztukeriz ak izaro au beragandu daustala; nire zana artu eban ak... Agazko azaskatu gura ba'leu zure nagusitasunak (orretarako adorerik asko dozu-ta), baña au onako au, au ez ledike atomauko.

EST.—Egi uts-utsa dok ori.

KAL.—Zu izango zara izaro onetako yaun, eta otsein izango naitzatsu ni.

EST.—Zelan izan ledikek ori? Lagun-artera eroan ete nagikek?

KAL.—Bai, bai, ene yaun; lotan dagola eskuetararutuko dautsuta eta, zuk gurazkero, ari buruan untzea be sartu zineio.

ARIEL.—Guzurra diñok; olangorik ezin egin izango dok.

KAL.—Ze belamika barritsu-ergel dogu au? Adabaki zirtzil ori! Zure nagusitasunak orreri belarrendoko batzuk emon eta bonbila kenduko al dautso; gezalaz besterik eztaue edango orrek ori amaitu dakionean; urgozo-iturriak norago diranik eztautsat esango-ta.

EST.—Tirinkul, galbiderago ez adi yarri; bein geiagotan mamu oni itza eten ba'dagiok, errukiari atek itxita opildu egingo aut nire eskuz.

TIR.—Ostera! Zer egin dautsat, ba, nik? Eztautsat ezer egin nik; urrindu egingo naz orregandik.

EST.—Guzurra diñola ez ete dautsak esan?

ARIEL.—Guzurra diñok.

EST.—Esan ete yoa? au (Yo egiten dau). Aitsegin ba'yak au, ostera be guzurrtau nagik.

TIR.—Nik etzandaz guzurtau... Zu be burutik ezeze belarrietatik be eginda ete zagoz? Zure bonbil onen denganiñoa! Ardao zuria edanarena da au!... Sakuteak yoko al dau zure mamua! eta txerrenak eroango al dauts zure atzak!

KAL.—Ja, ja, ja!

EST.—Ekiok orain ire ipuñari.-- Arren, aragotu adi i.

KAL.—Gogorrango yo egizu ori; oindiño neuk be yoko dot laster.

EST.—Arago oa!-- Tiruk, ekiok.

KAL.—Ba, esan dautsudanez, eguerdi-ostean loaldia egiteko ekandua dau ak; lotan dagola garaunak atera zineioz ari, lenen aren idaztiak zeuganduta; edo-ta, adakiz birrindu aren buru-azurra, naiz egurka opildu a, edo-ta, iduna moztu ari zure aitzoz, naiz aiotzez. Ez aitzu gero, lenen aren idaztien

yabetu zaitez; aik bagarik a, ni nazanez, kedarra baño geiagorik ezta, eta eztaue izango iratxo bat be nori agindu; aik guztiak dautsoe gorroto gorria, nik lez. Erre egizuz aren idaztiak. Lanabasa (berak beintzat izen au ezarten dautse) bikainak dauts ak, eta etxerik izan dagianeane, eurakaz edertuko dau. Eta aren alabearen edertasuna da sakon-sakon ausmertu bear dana; BARDINBAKO eresten dautso ak berak; eguño eztoz ikusi nik emakumerik nire ama Saikoratz eta a baño; baña, eder be eder da a Saikoratz'en aldean, ederra itsusiaren aldean dan legetxe.

EST.—Orren eder ete dok, ba, neskato a?

KAL.—Bai, yaun, ezin ohea litxakizu oerako; bai orixe, eta seme-alaba ederrak emongo leuskizuz.

EST.—Mamu, il egingo yoa nik gizon ori; aren alabea ta ni errege ta erregero izango gozak.—Pozez ganezka imini nozu: ezti-eztiitan nago; txitxari ta gogargi izan gaitazan; tararaka abestuko ete dozu lentxoago irakatsi daustauz doña?

TIR.—Itzalez.

EST.—Ekadak esku ori; garbaiturik naigok i yo izanaz, baña ire bizian ondo erabili egik miña.

KAL.—Lotan dozu a ordu-erdi barru. Zuzituko ete dozu orduan?

EST.—Bai, nire izen ona-arren.

ARIEL.—Nire ugazabari esango dautsat ori.

KAL.—Pozez ganezka imini nozu: ezti-eztiitan nago; txitxari ta gogargi izan gaitazan; tararaka abestuko ete dozu lentxoago irakatsi daustauz doña?

EST.—Mamu, ik eskatuazkero, bidezko dan edozer egingo yoa nik, edozer, gero.--Ale, Tirinkul, abestu daigun. (Abesten dara-goioe).

Irri-egin eta irriz ezetsi daiguzan,

Irriz ezetsi ta irri dagitsegun;

Azke da oldoztutea.

KAL.—Arako doñaue ezta ori.

(ARIEL'ek yoten dau doñaue, danbolin eta txistuz)

EST.—Zer dogu au?

TIR.—Arako gure tararaka doñaue bera da au, Iñorez'en irudiak yota.

EST.—Gizonik ba'zara, bera dan legetxe erakutsi zure burua; txerrenen bat ba'zara, ostera, gura dozun antza artu.

TIR.—Ene! parkatu egidazuz nire obenak!

EST.—Bere zor guztiak ordainduten dauts il-ten danak; eupada egiten dautskat nik...; erruki izan egiskuk!

KAL.—Bildur zara, ala?

EST.—Ez, mamu, ni ez.

KAL.—Ez izan bildurrik, Ezetariko okerrik egiten eztaben ots, durundu, zarata ta axegiroz beterik dago izaro au eta pozkarri dira, Iñoz milla ereskinetik batera zali yoten dabe nire belarrietatik ur; eta nozik-bein bai abotsak be, luzarotan lotan egonda atzarri-arren, ostera be lo-arrazoko leuskidetak; eta gero, amesetan, odeiak idigi ta nire ganera aberastasunak eralten ebeziala irudituten yatan; eta atzarten nintzanean, negarrez, barrien-barri ames-eske egoten nintzan.

EST.—Eguñokorik ondoen etorriko yat bakalderri au, eresia emen utsean izango dot-eta.

KAL.—Posper zuzitu dagizunean.

EST.—Bertatik eta txirikelan egingo dogu orra-ko ori; gogotan yoat arako ire ipuña.

TIR.—Yoan da otsa; garralkiozan eta gero egin egitekoa.

EST.—Aurretik i, mamu, ire atzetik yoango gozak gu... Danbolin-yotzale au ikusi gura neuke nik; ixilduaz ixilduaz doa.

TIR.—Ba-zatoz, ala? yarraiko natxatsu ni, Estepan. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Izaroko beste arlo bat.

ALBONTSÁ, SEBASTEN, ANDONI, GONTZAL, ADIRAN, PANTZESKA ta abar aurrera.

GONT.—Añdera Miren-arren, aurrerago ezin yoan neinteko ni, yaun; minduta dodaz nire azur zarrok; izan be, bide kako-makotsu ta zearka-mearkatsu utsak doguz emen; bein artezak, bein kaksotsuak! epe artu egizu, atsedeen-bear gorrian nago-ta!

ALB.—Agure yaun, ezin ezarri neitsu errurik, ni neu be unatu-unaturik eta soñeko keme-nak moteldurik nago-ta; yezarri ta atsedeen artu egizu. Nire itxaroa be ementxe erantziko dot eta luzarago ez euki aldean nire zuritzalletzat; itorik dago gu emen bere billa bideak betean eta bideak galduta gabiltzana; eta itsasoak irri ta barre egiten dautso legorrez gu aren bila ibiltzeari; tira, ba, egin baño eztauko.

AND.—(Banazean SEBASTEN'eri) Pozik nago orrek itxaroa galdu dauelako. Bein atzertuarren, bertanbera ez egizu itxi aurrera eroateko bein artu zendun erabagia.

SEB.—Oso-osoa eta bete-betean elduko dautsagu urren letorkigun ereari.

AND.—(SEBASTEN'eri banazean) Gau onetan-ixe bedi ori; eta izan be, bideak emoneko nekearen nekez unatu-unaturik dagokezanean eztabe izango, ezin izan leie, soñak arin eta bizkor dabezanean euren buruak yagoterik eta zurtasunik.

SEB.—(ANDONIri banazean) Gau onetan egingo dala yifioat; bego.

Eresi ben eta iñondiko; eta euren buruen ganean POSPER, agiri ezala. Iñondiko Irudi batzuk aurrera, oturuntzea dakarrela; yantzán egiten dabe mai-inguruan, txera-soin-ereikera lirañakaz, eta errege ta enpaduati yateko del-eginala alde dagie.

ALB.—Ze doñu, ze oskidetasun dogu au? Entzun, adiskide onok!

GONTZ.—Eresi itzalez gozo ta zoragarri!

ALB.—Gure aldeko yagolak emon eizguzez, zeruok! Nortzuk izan dira orra-ko orreik?

SEB.—Txingote biziak dira orreik; orain bai sinistuko dot ba-dagozala adarbakardunak; ba-dagola Arabi'n "poinitzen bakaulki" de-rettan zugatz bat; eta une onetan poinitza dala ango errege (1).

AND.—Biak sinistuko dodaz nik; eta nire sinite-eske beste edozer etorri ba'dakit, egia dala zin-egingo dot; eguño eztabe esan guzurrik ortik zear ibiliak, etxeko ergelak aik guzurritzat etsi izan-arren.

GONTZ.—Napoli'n esan ba'negi au orain, sinistuko ete leuskide? Onango ta onango izarrotarrak ikusi dodazala esan ba'negi eta izan be, oneik izaro onetako lagunak dira, urrean), irudiz mamu-antzeko izan-arren, gutatiko asko baño, edo obeto esan, gutatiko iñor baño txeratsuago ta era-me-ratsuago dirala?

POSP.—(Bere kitean) Ondo esanda zuk esana, yaun yator, zuotatik batzuk txerrenak baño okerrago dira-ta.

ALB.—Lar ez tira izango nire goraketak Iru-di orrentzat, miñik erabili ez-arren olango itzaldi ederra egin dauskuenentzat, olango soin-ereikerak eta abots esankorrek dabeza-nazkero.

(1) Pointiz, nai Penitz. Aigito'koa ta eguzkiari opatua zan ipuin-egazti au. Guziak bardin eztabe eralten ipuin au, baño batzuk difioenez, bosteun urtean bein agertzen ei zan egazti au Aigito'ko Eliopoli urian eta, agertu-ala, egur-meta bat batu ta aren ganean erre egiten ei eben, baño errearen autsetatik pointiz barria sortuten ei zan.

POSP.—(Bere kitean) Alde egiterakoan goratu egizak.

PANTZ.—Iñondiko eraz ondatu dira.

SEB.—Eztau ardura; yakiak or euren atzean itxi dabezanzakero; eta izan be, urdallarik ba-dogu guk. Or maian dagozan zerak zelangoaq diran ikusi gura ete dozue?

ALB.—Nik ez.

GONTZ.—Benetan, yaun, eztozu zetan izan bildurrik. Mutiko gintzazanean nok sinistuko eukean esan ba'leuskue ba-dagozala zezenak lez idunetik dingilizka narru-zorroa daben menditarrak, idunetik dingilizka aragiz beteriko narru-zorroak dabezanak? Naiz, badagozala burua bularrean daroen gizonak? Orain, ostera, baten alderako bost yokaturik, or doatsuz orlik zear, eta egia dalagaz etorriko yatsuz.

ALB.—Yakioi eldu ta yaten noa ni; nire atzema izango ba'da be ori, eztaust ardura, guririk onena yonik dala uste dot-eta: -anaí, ene yaun duke, aurrera, ta guk dagiguna egin zuok be.

Ostotsak eta yusturiak. ARIEL aurrera, emakume-egazti-antzez (2); egoak aztinduten dauz mai-ganean, eta iñondiko bidez oturuntzarik agiri ez geiago.

ARIEL.—Iru gizon obendi zarie zuok, beko mundu au ta bertoko zer guztiak bere esaneko ta bitartekotzat dauzan alanbearrak itsaso asebeteari okadaka egotziazoriko iru gizon obendi, eta gizonik bizi eztan izaro onetara egotziazoak izan be, bizitoko gixien egoki zarienok. (ALBONTSA, SEBASTEN, eta besteak ezpatak ateraten ikusirik) Burutik eragin dautsuet; eta olangoxe adorez gizonak euren buruak eskegi ta itotera be elduten dira. Ergelok! alangook! Alanbearraren otseñak gara ni ta nire lagunak; nire egakiko (lumako) bizartxo bat kendu bestean erraz zauritu leikize rxe zarata-tsuaq, naiz epai irrigariz alkari deutsen urak ebagi zuon ezpaten gei diran 'enen-gaiak; onangoxe zauri-ezinak dira nire lagunak be; minik egin al ba'zendue be, zuon indarrentzako aztunegi dira orain zuon ezpatak, eta ezin eragi izango dozuez. Baña gogoratu (zuokana nakarren egitekoa auxe da-ta), gogoratu Posper onaren lekuaren yabe egin zariela zuok, Milano'tiko irurok; itsasoari emon dautsazuela a, ta itsasoak yarei itxi dauela bai a bera, bai aren alabatxo errugea, eta zuon egite askarri orregaitik alak, zuok eginagazko zigorra geroratu bai baña aitzu ez-eta, asarre bizian imini dabezala itsasoak eta itsas-baztarrak; bai, iza-

ki guztiak, zuon bakearen aurrka; iri, Albontsa, ire semea kendu dauksae iri, eta ire ganera astiro-astiro etorriko dan ondamentia iragarten yoek nire bitartez; bat-bateko eriotzea baño txarrago dan ondamentia, ire ta ire asmoen begira dagona; zuon biotz-naibagea ta, orren urren, bizitza zindoa dira alon asarre gorritik zuok alde egiteko bide bakarra; eta orrako ori izaro bakar-bakar onentaxe egin ezpa'dagizue, orrako asarre ori bete-betea yausiko yatsue buru-ganera.

Ostots-artean ondatuten da: gero, eresi leunez, arako Irudiak ostera be aurrera ta, mosuak eginde, maia kendu egiten dabe.

POSP.—(Bere kitean) Ene Ariel, itzalez ederto egin dok emakume-egaztiaren egitekoa; gatz andiz irunsten izan yok orrek; ik esatekoetan nire agindurik txikarrenik be ez tok itxi beteteka; olan, nire bendekorik zirtzenak be bizkor-bizkor eta iñondiko zeaztasunez egin dabez euren egikizunak; nire lilurapen andi iñok eragotzi-ezinak alde batetik, eta nire arerioon zorabioak bestetik, zer egin eztekiela itxi dauz onako oneik; nire bendeko dodaz orain; eta aldien onek yota itxiko dodaz oneik, ni neu oneik itotzat daben Ferdinanda Gaztea ta bere ta nire maite-maitea ikusten nazan bitartean. (Alde POSPER'ek).

GONTZ.—Zer gurenik gurenena-arren, zegaitik dozu iñondiko begirakune yosi ori?

ALB.—Eneee! mamuena da onako au! Itsasoak orroaka eragoiela ta itz egiten eustala iruditu yat; axeak be orixe abestuten eustala; eta oskín sakon eta ikaragarri diran ostotsak be Posper'en izena aitatuten eustela; eta abots lodi-sakonez abestu dau ak nire txatxarkeria. Aor ba, itsas-ondoko lupetzan datza nire semea; eta eguño ondo-berunek billatu izan dauen baño ondorago billatuko dot nik a, ta agaz batera ango lupetzako oean etzan. (Alde daqi).

SEB.—Aldian txerren bat, euretariko taldeak benderatuko dodaz nik.

AND.—Neu izango nozu zure urren. (Alde SEB. eta AND.'k).

(2) Lenagokoan ipuñak diñoenez, emakume-egazti au soñez egazti ta buruz emakume ei zan; erpa luzeak ei ebazan, eta txitean-pitean ei egoan zirin andurtsu-nazkagarria eriola. (Ikusi Enearena, III, 211-265 ta Odiseurena, I, 141).

GONTZ.—Irurak dagoz orreik etsita; bere lana geldi-geldi egiteko emoten dan zitalaren antzera, orrein erru andiak ba-daragoio orrein indarrak makaldu ta iristuten; ...nik baño azur-giltza bigunagorik dozuenok,

arren-bai-arren, zoaze arin orrein yarrai atzetik ara, orain orrein yabe eginda gagon lilurapenak eragin leioena galazoteko.

ADIR.—Zarraikidaze, arren. (Alde dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.--POSPER'en txabola-aurrea

POSPER, PERDINANDA ta MIRANDE aurrera.

POSP.—Zigor astunegirik ezarri ba'dautsut, orren ordekatot zuri emonak kitututen dau ori; eta izan be, nire biziazen aria emon dautsut, niri bizirik eusten daustan aria; eta bein barriro yarten dot ori zure eskuetan; zure maitasuna zelango dan ikusteko izan dira ezarri dautsudazan lorrak, eta zuk inõndiko eraz yasan dozu nire azterrketa ori; emen, Yaungoikoaren aurrean, sendesten dot nire emoi bikaña. Perdinanda, irribarrerik ez egin niri, ori onen arro goratuten dodalako. Eta izan be, zeuk ikusiko dezu orrek gorapen guztia geiago egin eta atzean urrin izten dauzala.

PERD.—Sinisten dautsut, baita yainkoben batek besterik esan ba'legi be.

POSP.—Orrazkero, artu egik nire alabea, nire emoizat, eta euk ondo irabazitatz; baña egiteko zer guren guztiak zeatz bete-aurretik orren neska-lotsakizuna ausi ta apurtu ba'dagik, egiune au azteko onespren gororik ez al dau ixuriko Yaungoikoak, bai, ostera, goroto antzuak, ezespren betokerrak, alkar-ikusiezinak estaliko dabe zuon ezkon-oea, bedar txarren antzera, ta oe ori gorrotazo egingo dautsue; orrazkero, arduraz abil, legezko ezkontza-argiak zuoi argi-egin arte.

PERD.—Ointxe dodana langoxe maitasunez egun baketsu, legezko seme-alaba ta luzaroko bizitzearen itzaroa dodanzkero, okolurik ilunenek, erarik egokienek, iratxorik geztobenek burura lekarkedan zirikaldirik baltzenek eztau inõz loituko nire izen ona lizunkeri-zantarrkeriz; leiearen ertz zorrotzik ezto amustuko eztegu-aurretik, egun atan nik edo Poiba'ren zaldiak unatu ta ebainduta gelditu dirala, edo-ta gaua an bean katez estuta gelditu dala uste izan dagidan (3).

POSP.—Ederto esanda; yezarri, orrazkero, ta itz-egin orregaz, ori eure dok-eta. Eee! Ariel; nire esaneko zoli-asmotsu, Ariel.

ARIEL aurrera.

ARIEL.—Zer gura dau nire ugazaba altsuak? Emen nozu.

POSP.—Zuon atzenengo oiseintzea eguñokorik ondoen egin dozue, bai euk, bai ire lagun i baño txikiagoak; eta a lango ziltzi-maltzan erabili gura zauedaz orain; oa ta ona ekarri egik nik iri areikazko ala emondako zarramarrea; bizkor erabili egizak, nire trebetasunak asmauriko uskeri bat imini gura yoa bikonde gazte onen aurrean-eta; agindurik yautset, bai, eta orrako orren begira yagozak oneik.

ARIEL.—Bertatik, ala?

POSP.—Bai, begiak itxi-idigi baten.

ARIEL.—Zuk "ator" eta "oa" esan eta arnasea birritan artu orduko; eta zuk "olan eta olan" gedar egin orduko, bakotxa bere beatz mokoan ganean datorrela, emen izango dira mosuak egiten. Maite ete nozu, ugazaba? Ez?

POSP.—Itzalez, ene Ariel me ori. Ez akitu urreratu nik dei egin arte.

ARIEL.—Ondo aitu dot. (Alde dagi).

POSP.—Begira, ta zintzo izan; maitakeritan geiegi ez nasaitu lokaririk; odol beroaren suarentzat lasto baño eztra zinik sendoenak; neurriberago izan, ostantxean egin dau zuon zinarenak!

PERD.—Nire berbea damotsu, yaun; nasai zagoz. Nire biotzko soin-osotasunaren edur zuri-otzak otzitu egingo dau nire gibelesko beroa.

POSP.—Bapo.--Aitor orain, ene Ariel; iratxo gitxlegi bagarik geiegi ekarrik orain; agertu ta koipekeritan ibili bagarik agertu Ez eragin miñi; begi bedi dana; ixilik egon. (Eresi samur).

(3) Eladetarren miti edo ipuin-iztian Poiba eresten yako batzuetan Apolon'eri (izen biokaz aitatuten dau Omer'ek geienetan yainko-aizun au), alan be beragaz eguzkia esan gura danean, Irakurla, emen Poiba'ren ordez "Eguzkia" irakurri egizu, bai, ta aurrera yarrai.

KOKOMARRO-BATZAR. IRITZ (4) aurrera.

IRITZ.—Keretx (5), andera eskuzabal-eskuzabal ori, itxi zure garitza, zikiriotza, garagar-tza, olotza ta idartza yori-aberatsak; ardiak motzuten dabezan zure mendi-bedartzak, eta eurak eukiteko bedar txarrez beteriko landak: ur-neskak burestun argi-garbiak egiteko Yorrail apitzak, zure aginduz, zora-garriro yazten dauzan ibai-baztar peoni ta liliz yantziak; eta mutilzar maitamindu bere kutunak bertanbera itxiak arein itzaia maite dauen zure erraztiak; itxi taktak deutsen zure maastiak; eta zuk an iparra artzen dozun itsas-ertz antzu-elkor atx gogorrezkoa; ni aren ostadar eta bidari nazan ortzeko Erregeñoak orrako zerok berari itxi dagiozuzala eskatuten dautsu, bera onaxe bedartza onetara txairorik txairoen etorrita, emen ak yolas egiteko; egaz egin-alean arin datoz ona aren paumak; urreratu, Keretz oberats, ari lagun egiteko.

KERETZ aurrera.

KER.—Gora, bidari nabar, Yupiter'en emaztearen eginduai eguño ezetzik emon eztautsezun ori; zure azaparan-egoz nire loren gainera ezli-tantanak, euri-zaparrada ozkirritza-leak ixurten dozuzan ori; eta zure ostadar urdin orren adar biekaz nire baso-arloak eta nire zugatzik bagako beetako landak burestundu ta lur arroari iduneko lirain-ederra ezarten dautsazun ori; zegaitik deigin daust ona zure erregeñoak, bedartza bedar-motz onetara?

IRITZ.—Bien arteko maitasunaren egiune-yai egiteko; eta maitale onetsioi emoirik eskuzabalena egiteko.

KERETZ.—Esaidazu, goitiko ostadar, erregeñoak orain bere lagunizat Benuts (6), naiz onen semea ekarriko dauen, ala ez, zuk badakizu-ta. Arein asmo ta azpikeriz Ditz'ek (7) nire alabea iritxi ebanazkero agur egin dautsat no aren eta aren semearen laguntza lotsabakoari.

IRITZ.—Ez izan arein laguntzearen bildurrik. Papotz'erako (8) bideko lañoak zear egaz ikusi dot yainkono ori; baita aren semea be usoaq daroela: Imen'en kurtzulua ixiotu arte oe-kutsuketarik ez egiteko zin-eginda dagozan gazteoi lilurapen lotsabakoen bat egitekotan egon dira aik, baña dana izan da alperrik; atzera yoañ da Marte'ren kutun beroa, belarriak apal; ausi egin dauz bere geziak aren seme erlastarburuk, zin eta zin daraqoio eztauela geiago gezirik

yaurtingo, aurrerantzean artatxoriakaz yolas-egin eta muliko on izango dala.

KERETZ.—Ba-dator Yune andia, erregeñorik gorengoa; bere ibilkeratik dot ezagun.

YUNE aurrera (9)

YUNE.—Zelan dago nire aizta eskuzabala? Nigaz zatoz bikonde au onesten, zori ontsu izan daitezcan eta euron ondorengoak onein izenaren goragarri izan daitezcan.

(4) Yainkoen bidaria ta ostadarra yatsu Iritz dalako au. Eurrez agertuten da Omer'en Iliasena'n, esaterako, III, 121.

(5) Erromarren yainkono da Keretz, Saturna ta Opits'en alaba. Berak irakatsi ei eutsen lur-lantzea gizakiai. (Ikusi Birgili'ren GEORGIKA, I, 147). Erromarrentzako Keretz zana, Demeter zan Eladetarrentzako.

(6) "Ortzeko Erregeño" edo "Ortzeko Bakalduno" eresten eutsoen Erromarrak Yune'ri, Yupiter yainkorik andienaren arrebaz ganera aren emazte be bazalako. "Here", Tzeu'ren emaztea, etzan orrenbestekorik Eladetarren artean. Zer bat bera dira Eladetarren Apordite ta Erromatarren Benuts, euren seme Heros eta Cupido bat bera diranez. Maitasun-yainko dira Heros eta Cupido, eta biak itsuak. Biak esan dot, baña izatez bat dira.

(7) Ilen erriko yainkorik nagusienari ezarten eutsoen Erromarrak Ditz, naiz Dispater izena; Eladetarrak, ostera, Pluton. Shakespear'ek emen Ditz'eri "dusky" (iluna, motza) deituten dautso, ilunbeko bakaldun dalako. Orregeaitik, abere balzak opatuten eutsoezan Ditz'eri, Kore edo Persepone da emen aitauten dan Keretz'en alabea. Keretz'ek yakiteka, Ditz'ek Kore ostu ta ilen errira eroan eban bere emaztetzat, ama-alaben gurariz bestera. Keretz estu ta larri, bideak betean eta goiak eta beak yoten, luzaro ibili zan bere alabearen billa ortik zear.

(8) Kypros izaroko uri da Papotz. Entzute andiko yauretxea eban Benuts'ek uri onetan. Birgili'k (Enearena I, 415-417) auxe diño: "Venus... ipsa Paphum sublimis abit, sedesque revisit laeta suas, ubi templum illi, centumque sabaeo thure calent acae, sertisque recentibus halant. Papotz'era doa Benuts eguratsa zear, pozik ostera be berera; izan be, yauretxe bat dau an, eun opa-mai berotuten dauz Arabi'ko usain gozo-gaiak, eta sunda atsegingarria darie lora-sorta barriai".

(9) Seigarren deian esan dogu nor dan Yune.

ABESTI

- YUNE.—Omen, ondasun, ezkontza onetsi,
Luzaro irauin, eta ugaldu,
Eten-bako pozak zuoi eldu!
Txera au dagitsue Yune'k.
- KERETZ.—Lurrak dakarrena ta dana oparo,
Garairik eta kutxarrik iñoz bez utsik;
Maastiak mordontxilloz bete-beterik;
Landarak ugaritasunez adar-makur;
Beranduenez udabarria betorrikizue
Uztearen azken-azkenetan ur!
Urritasun eta ezak zuokandik alde begi
Keretz'en onespenu zuentzako auxe bedi.
- PERD.—Andi baño andiagoa ta lilurapen utsa
da ikuskizun au; onakook zerutar gogotzat
artzen atomauko ete naz?
- POSP.—Bai, gogotzat, nik nire burubidez eu-
ren tegietatik ona, burutapenak betetako,
ekarriko gogotzat.
- PERD.—Beti emen biziko al naz! Zoriontegi
egiten dau leku au iñongo iñondiko aita
arrigarri-zurzak.

(Alkarregaz txutxu-putxuka daragoioe YUNE'K
eta KERETZ'ek, eta zereginen batera bidal-
ten dabe IRITZ)

- POSP.—Ixilik orain maiteok; benetan dara-
goioe txutxu-putxuka Yune'k eta Keretz'ek;
beste zereginen bat da egiteko oindiño;
ixil, ez egin itzik, ostantxean gure lilurape-
na alperrik galduta ledike-ta.
- IRITZ.—Errekatxu makurretako naiade izene-
ko ur-neska iizko burestundun eta begira-
kune beti errugedunok, itxi zuon ur-bide
konkortsuak, eta erantzun zelai musker one-
tarako deitari: Yune da aginduten dautsue-
na. Erdue, irristsik bagako neskok, eta la-
gun izan benetako maitasunaren egijune
onetan; beranduegi ez eldu.

Ur-neska batzuk aurrera.

Igitari eguzkiak erreok, dagonilaz aspertuek,
erdue zuok be sallatik, eta poza erakutsi; opor-
egin; zikiriño-lastoeko txapelak ezarri zuon bu-
ruetan, eta baserriar yantzita aurkitu zagie-
zala ur-neska gazteok.

Igitari batzuk aurrera, egokiro yantzita; yan-
tza liraña egiten dabe urneskakaz; eta yan-
tzaldiaeren atzenerantzta POSPER agertuten da
otoz-otoan, eta berbetan daragoio; orren on-
doren, geldi-geldi ondatuten dira iñondiko ots
arro ta nastuz.

POSP.—(Bere kitean) Aizturik neban nik Ka-
liban astakoak eta aren kideak asmauriko
azpikeri zantarra, nire biziaren aurkakoak;
eldu da larri-larri arein asmoak beteteko

- unea. (Iratxoai) Ederto egin daustazue; be-
go; geiagorik ez.
- PERD.—Iñondikoa dogu au; gogor eragiten
dautsan yasanen baten bendea dago zu-
re aita.
- MIR.—Gaur arte eztoz ikusi ori olango neu-
rririk bagako asarre gorrik yota.
- POSP.—Begirakune bakana dozu zuk, seme,
larriturik ba'zengoz legetxe; nasai egon; da-
goneko amaitu da gure yai zaratatsua; ira-
txoak yatsuzan orreik emen eragoioenok,
aurrezilik esan neutsunez, eta eguratsetan
urtu dira, egurats me-metan; eta ikuskizun
orretako ofarri bagarik eragiko zer guzi
ori legetxe banatuko dira nozbait odeietara-
ñoiko torrreke, yauregi arroak, yauretxe be-
nak, zer borobil andi au berau be bai, be-
ronek dauen oro, ta mamirik bagako era-
kusketa au geldiro-geldiro ondatu dan le-
getxe, eztau itxiko bere atzean ondakinik
be; ames-geiz eginak gara, eta loak bere
barruan artzen dau gure bizitzatxoak. Gogal-
di txarra dot nik, yaun; otzan eta bare ya-
san egizu nire ondo-ez-aldi au; eurenetik ur-
tenda dagoz nire garaun zurrak; ez larritu
nire mengelkeri onegaitik; eder ba'yatsue,
nire txabolara alde egin eta an atsedan ar-
tu egizue; ara-onaka yoan-etorri bat, naiz
bi egingo dodaz, yoka dabilan nire gogoak
geldituzazoteko.
- PERD ta MIR.—Gentza, bakea opa dautsugu.
(Alde dagie).
- POSP.—Nik oldoztu-ala atorkit; eskarrik asko;
ator, Ariel.

ARIEL aurrera.

- ARIEL.—Zure gogaketai deutesdala nago;
zer yatsu gogoko?
- POSP.—Iratxo, Kaliban'eri arrera egiteko ger-
tu egon bear yoagu.
- ARIEL.—Bai, ene agintari; Keretz ekarri neu-
tsunean orretaz zerbaite esan neutsulakotan
nago, naiz eta orduan nik bildurrik arean
izan etxatsula gogoko izango.
- POSP.—Barriro esaik, non itxi enduzan aik
askarriak?
- ARIEL.—Edanaren edanez piperra baño go-
rriago dagozala esan dautsut; adoreaen
adorez eguratsari be ezpatakadaka, arpe-
gira putz egiten dautselako; lurra be osi-
koka yo egiten izan dabe, onetan mun-
egiten dautselako, baña orraitio be beti
euren asmoari deutsoela; orretan, danboli-
na yo dot nik, eta entzun-ala, ezibako zal-
dizkoen antzera, belarriak arteztu dabez,
betazalak aurreratut, surrak eraqi, eresi-usa-
ña artu dabenekoxe; olan,liluratu egin dau-

tsedaz balarriak, eta aik txalaren antzera, nire orroiari yarraiteko, asuar eta sasi artsu, eta arantzatsu, inarralatz, eta arantza artetik ibili dira, eta arantza ta arrak sartzen izan yakez euren txandar samurretatik; atzanean, zure txabolea baño aragoan dagon oxin zikinkeriz estalian itxi dodaz aik; yantzan eragoioen an uretan okotzerano sarturik, iztinga zikinak arein onak len baño zikinago ta andurtsuago izteko.

POSP.—Ondo baño obeto egin dok ori, ene txori orrek; inok ikus-ezin adi oindokoarren; oa, ta ekarrik nire txabolako zaborrea, lapurrok lapurretan goatu dagiguzan.

ARIEL.—Ba-noa, ba-noa. (Alde dagi).

POSP.—Txerren, yaioztatik txerren, eguño ezikera onik ezin intsigi izan yakona; alperrik galduek gizatasunak eraginda aren alde egin izan dodazan alegin guzti-guztiak; eta aren soña urteen urtez geroago ta itsusiago egiten danez, bizienak daragoio aren gogoia be yaten: Kristo'nak eta geiagio emongo dautsadaz.

ARIEL ostera be aurrera, yantzi dizdikorrezko lepokada bategaz eta beste zer batzukaz, zereok bizkarreen dauzalarik.

Orroa eragiterano berotuko dautsat narrua: tiruk, ari onetatik eskegi egizak.

Bertan geldituten dira POSPER eta ARIEL, inok ikus-ezinik. KALIBAN, ESTEPAN, eta TIRINKUL aurrera, irurak busti-bustirik,

KAL.—Arren-bai-arren, bigun zapaldu lurra, sator itsuak oin-otsik entzun eztagian: aren txagolatik ur gara orain.

EST.—Mamu, ire iratxoak, ik esanez kalterik egiten ezakian ire iratxoak arako ontzi-mutilak yokatu euskuen baño asko obeto etxauskuk yokatu egin daukunagaz.

TIR.—Mamu, zaldi-txiz-andur egiten yatazak sunda guztiak; eta orregaitik asarre gorrian dozak nire surrak.

EST.—Olantxe yagozak nireak be. Entzuten dok, mamu? Asarrebiderik ez al daustak emongo, gero; arduraz abil, ostantxean...

TIR.—Ireak egingo leuke, mamu.

KAL.—Ene yaun on, oindiño be begiko izango al natxatu: epe artu, nik emongo dautsudan sariak ezbea au uskeritzat etsilko dautta; orrazkero, itzik ez egin zarataka; orraitño be ixilik dago dana, gaberdian legetxe.

TIR.—Bai, baño guk gure bonbilak iztingean galdu izana be...

EST.—Orretan, mamu, lotsea ta entzute ona galtzea ezeze, galtze itzala izan yoaqu.

TIR.—Ni busti-busti egitea baño okerrago dok

ori nitzako; orraitño be au ire iratxo mamu erruge dok.

EST.—Nire bonbilaren billa naioak ni, nire neke-orde uretan ondaturko ba'nok be.

KAL.—Arren-bai-arren, ene errege, ixilik zagoz; begiratu au, auxe da txabolearen atakea: otsik ez egin, barrura. Arako okerreri ona egizu, zu betiko izaro onen yaun eta yabe, ta ni, zure Kaliban, zure onetakoen betiko miatzkatzalle egingo gauzana.

EST.—Ekadak esku ori; burutapen odoltsuak asi dozak nire burura etorten.

TIR.—Estepan errege ori! Estepan aintzako ori! begira emen zutzako diran aldagarri bikañak.

KAL.—Geldi itxik ori, ergel orrek; aletz utsa dok ori.

TIR.—Ba, ba! mamu; guk geuk be ba-yakiguk zer dan aletz. Estepan bakaldun ori!

EST.—Erantzik yantzi luze ori, Tirinkul; esku au-arren, neutzako bear yoa yantzi luze ori.

TIR.—Zure ederrak izango dau au.

KAL.—Kokaldeak ustelduko al dau ergel au! zer darabilk, kutxa ori orren kutun izateko? Aurrera goazen, eta eriotzea egin lenen: atzarri ba'ledi a, beatzetatik asita buruko ertzerano gankadaka yosiko leuski-guz gure narruak; inondiko eginik itxiko gindukez.

EST.—Geldi ta ixilik ago i; mamu... Ari andera, nire ezta yake au, ala? Ariaren azpian dago orain nire yakea; yake, ulea galtzeko zorian ago orain i, yake uldu izateko bidean.

TIR.—Tira, tira; arikadaka ostu ta lurrera dakagu guk ostuten doguna, zure ederraren antzekorik ez gara gu (10).

EST.—Eskarrik asko izkirimiri orregaitik: autso aldagarri bat saritzat: "Arikadaka ostuta lurreratutea" eztok urteera txarra; beste aldagarri bat be autso orren alderako.

TIR.—Mamu, erdu, eraskin apur bana ezarri egiek ire atzai eta atera ondakinak.

(10) "Mistress line", "ari andera" diño emen Shakespeare'k, ari zer biziren bat ba'litz legetxe, anderaren bat ba'litz legetxe. Ba-dago zereginik eta bearlekurik Shakespeare'n idatz-arlotxo au aituten eta izan al dogunik eta ondoen aldatu dogu gure izkuntzara, baño alan eta guzti be motel geldituten da. Baña ez larritu, irakurla; beste izkuntzara arlotxo au aldatu dabenak be estualdi bardinean aurkitu dira. Benetan ulerkatxa da idatz-arlotxo au.

KAL.—Orreitatik arean be eztoz gura; astia alperrik galdu baño eztozu egiten-eta, gu guztiok antzartu, naiz matxangotu ta gure mosu zirtzialak lurra-begira doguzala iminiko gauz.

EST.—Mamu, ezarri ire atzak, eta lagun akinguzti au nire ardau-upela dagon lekura eroaten, ostantxean atera egingo aut nire bakalderritik; eldu, eroan au.

TIR.—Au be bai.

EST.—Bai, eta bai beste au be.

Ostotsak entzuten dira. Iratxo batzuk aurrera, eiza-txakurren antza artuta, eta lapurren yarrai doaz. Txakurrak aiazoten
POSPER eta ARIEL

POSP.—Axa, "Gorri", axa!

ARIEL.—"Zuri", or doa, "Zuri".

POSP.—"Tximist". "Tximist", arei. Arei "Odol-zale!".

(Ortik zear bidali dabaz KALIBAN, I STEPAN eta TIRINKUL)

POSP.—Entzun! entzun! zoazie, barratan askarrioi zarrakiez, ene iratxook, erzikera gogorrez euren azur-giltzak eio dreguzan; laburtu euren zan eta mamia luazaroko zanoratuz; eta zaxtada-antzeko orbanez katantabarra naiz basakaturia baño yosiago egizuez.

ARIEL.—Entzun, orroaka daragoieo.

POSP.—Ondo baño obeto eizatu aik; nire bendean dodaz une onetan nire arerio guztiak; laster da nire lorren atzena ta azke, yarei ta ire buruaren yabe izango az i eguratsetan; apur baten arrakit, eta otsein izan akit. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.--POSPER'en txabola-aurrea.

POSPER aurrera, itzalez txairo yantzita; eta
ARIEL.

POSP.—Azkenerantza doa orain nire asmoa. Porrotik eztabe egiten nire liluraketak; esaneko dodaz nire iratxoak, eta aurrera doa aldia bere burdian. Eguneko ze ordu dok?

ARIEL.—Seirak dira; eta tertzio onetan amaituko zala gure egitekoa esan zendun, ene yaun orrek.

POSP.—Bai, orixe esan neban, lenengoz eka-txa sortu nebanean. Esaidak, iratxo, zelan yagozak errege ta aren lagunak?

ARIEL.—Leku baten guztiak, zuk egindu zeustanez; egin-eginean zuk zeuk ita zenduza-nez, yaun; atxiloturik guztiak zure txabolearen babesgarri dan ezkutzan; ezin egin dabe zirkirik aik, zuk yarei arte. Besteakandik banandurik dagoz errege, aren anaiea, ta zurea, eta enparauek areikazko ileletan, naibagez ganezka ta gogo-yausirik; baño alan be, zuk bein "Yaun zar on Gontzal" deitu zenduna; ingeen orrietatik negu-tantanak legetxe yausten dira aren bizarra-bera negar-tantanak; zure liluraketeak arei gogor-gogor eldu dautse-ta, orain ikusi ba' zengiz ikusi, erruki emongo leuskizue ta samurtuko zintzatekez.

POST.—Ori uste dok, iratxo?

ARIEL.—Ni samurtuko nendukie, yaun, giza-likirik ba'nendi.

POSP.—Ni be samurtuko nabe. I egurats utsa baño izan ez-eta, iri be biotz-ondoan ukutu

dauskai arein biotzetako lera-leieak? Eta arein izakide nazanazkero, biotzaren ereikera, zirkirik eta yasanak ondo be ondo ezagun dodazan au, zelan izan ez i baño biotz-yausiago? Arein okerretarik ni biotz-biotzean ukutu izan-arren, orraitino be, ik zindoro esanari yarrai, nire asarrearen aurrez-aurre yarten nok; egite ona azaskatzea baño urriago dok baztarretan; garbaiturik, damaturik dagozanazkero aik, ai betozko ilunik bat be geiago ez egitea dok nire asmoa. Oa, azkatu egizak, Ariel; manatu egingo yoa nire lilurapena, leneratu arein oarmanak, eta ostera be lengoak izango dozak.

ARIEL.—Ba-noa euren billa, yaun. (Alde dagi).

POSP.—Mendi, lats (errekatu), zingira geldi ta zugaztieta iratxoak; eta oñatzik izten eztaben zuon oñez izperaz Netun'eri (11) yarra ta izkoraz atzera datorrenean igesten dautsazuenak; ardik yaten eztauzan bedar-moltsoxo muskerrak iretargitan egiten dozuezanak; eta zuok, gau-yoale-ots itzalak poztu ta zuon olgetatzat gabardi-perretikoak azten dozuezanak; irakasla erkin-

(11) Itsasoen yaun, yabe ta yainko zan Netun Erromarren artean. Itsasoa asarratu gura ebanean, iru-ortzeko bere sardeagaz itsasoko urak aztindu ta itzulten ei ebazan, luginak laiakak lurra, naiz larrinean garia aztinduten dauenez. Poseidon zan Eladarentzako, Erromarentzako Netun zana.

mengelak izan-arren zuok, eguerdiko eguzkia ilundu egin dot zuon laguntzeagaz, urtenazo ta putz eragin dautset axe asaldarici, eta gudu gorri-orroatsua sortu dot itsaso musker eta ortze urdinaren bien artean; ostots ikaragarri -astrapalatsuari su-emon eta Yupiter'en aretx garrastea Yupiter berberaren oñaztarriz (12) arrakaldu dot; ikarra eragin dautsat oñarri sendoko legor-musturrari; eta zuztarretatik atera dodaz lerra ta izaita; il-obiak, nire aginduz, an lo egozanak iratzarri, idigi ta barrukoai urteten itxi daustse, nire trebetasun altsuari eskarrak. Baña, ementxe ta oraintxe agur egiten dautsat lilura-bide latz oneri; eta nire asmoen eskariz, bein onako gizonon oarmenai zirkin eragiteko zerutiko eresien bat eskatu ta lortu dagidanean (eta ointxe nago orrako orren eske, eguratsaren liluraketa, au, izan be, oarmenai zirkin-eragiteko da-ta), ausi egingo dot nire aztu-makilea, lurpean barru-barrura sartu, ta nire idaztia eguño sakon-berunik eldu dan baño beerago murgilduko dot uretan. (Eresi andi-ben).

Ostera be aurrera ARIEL: aren atzetik ALBONTSA, zoro-mosuagaz, GONTZAL laguntzat dauela; SEBASTEN eta ANDONI be olandaxe, ADIRAN eta PANTZESKA lagun dabezala; guztiak sartzen dira POSPER'ek aurreztilik egindako leku biribilerata ta an dagoz liluratuta ta zutunik; eta au ikusirik-ara, itz egiten asten da POSPER.

POSP.—Irudimen artegearentzat nasagarririk onena dan doñu andi-ben onek osatuko al dauz zure buru-azur-barruan bor-borka dirakien garaunak, orain ezeterako be ezlira gauz-eta! Or zagoz zutunik, lilurapenak gel-dituazoturik zagoz-eta, Gontzal gure, gizon zindo, i ikusiaz beste bagarik ire kide egin-da, negar-tantan kideak darie nire begi-ai. Geldi-geldi ondatuaz doa lilurapena; eta egunabarrak, lapurraren antzera ixilik eta oinkadatzoka gabagana yoanda, aren iluntzuna urtu ta ondatu daroanez, biztu ta yagiten daragoien orrein sentzu edo oarmenak be asten dira adimen argiagoaren ezyakite-lañozko estalgia urrututen.—Gontzal on ori, nire yareile zintzo, ta yarrai zatka-kozanaren yagola zintzo izan zarean ori, eguñokorik ondoen ordainduko dauskadaz ire egite onak eta eskarrak, bai ithez, bai egitez.—I, Albontsa, gordin baño gordinago izan intxakun i, bai niri, bai nire alabeari, orretarako ire bultzatzalle nire anaiea izanik; orregaitik, Sebasten, gankadaka az-

katurik, azkatu-azkaturik ago orain.—Eta ik, nire anai orrek, ire biotzean geiagoren leiea dokan orrek ortik zear bidali enduzan kezkek eta berezko biotz-samurtasuna; eta ik, Sebasten'egaz batera, (eta egin-egin-bean be orregaitik dozak mingor-mingor orren barruko zaitadak), il egin gura enduan emen zuon erregea; berezkoaz besterako izan-arren i, parkatu egiten dauskat.—Aziaz-aziaz doa orrein aitutea, eta ba-datorren izkoreak laster estali ta beteko dau orain sastamar, lupetz eta zaborraz estalirik dagon orrein adimenaren izpaztara. Eurotatik batek be enau begiratuten oindokoarren, ezta ni ezautu be.—Ariel, nire txabolara oa. nire txapel eta ezpatatxoaren billa; (Alde dagi ARIEL'ek) nire yantziok erantzita, beñola Milano'n nintzana langoxe agertuko naz; arin, iratxo; ire buruaren yabe izango az gesu baten.

Ostera be aurrera ARIEL, eta yazten lagun yako POSPER'eri.

ARIEL.—Erleak zurrut non egin, an egiten dot nik;

Udabarri-lorearen txilin-barruan natza ni; An natza mozollook oio dagianean, Saguzarren bizkarrean egiten dot egaz Pozor-pozorrik tellatuko abe-ostera; Orain pozor-pozorrik biziko naz Adarretik dingilizka dagon lorapean.

POSP.—Ba! nire Ariel bakana da ori! Igarriko yot ire eza, baña au ta guzti be ire buruaren yabe izango az; bai, bai, bai. Errege-itsasontzira oa orain, iñok i ikusteka, iñok ikus-ezin az-eta; an idoroko dozak ontzi-mutilak gan-zuloen azpian lotan; ontziburua ta ontziyagolea atzarri ala, ona ekarri egizak, eta bertatik ekarri be, arren-bai-arren.

ARIEL.—Eguratsa iruntsiz axean yoango naz eta emen nozu ostera be zure biotzak tau-pada bi emon baño len. (Alde ARIEL'ek).

GONTZ.—Lor, naibage, alatz eta ago-zabalgarri guztiak dira emen. Zeruko aldunen batek bidea erakutsiko al dauku lurralde bildurgarri onetatik alde egiteko!

POSP.—Begira, begira, errege yaun, Posper Milano'ko Duke okerrik asko egin yakona; besartean estututen dot zure soña, bakal-
seme bizik itz egiten dautsula seguruago

(12) Izan be, Yupiter'eri opatua da aretxa; Yupiter'en kutun zugatzen artean. Orregaitik, zugatz ori oñaztarriz birrintzatutea, Yupiter'en kutuna bere geziz birrintzatutea da.

yakin dagizun; eta bai zuri, bai zure lagunoi biotz-biotzetiko ondo-etorria damotsuet.

ALB.—Eztakit nik zu arako a zarean ala ez, ala aletz liluratuena bat zarean niri okerrenien bat egiteko, oraintsu egin daustenez: taupadaka daragoioe zure zanak, aragi ta odolezko ba'zendiz legetxe; eta zu ikusi zaudazanazkero oberantza egin dau zoratuko nendula bildur nintzan nire gogoko nai-bageak; inondiko azalpena izan bear dau onako onek, ezer ba'da izan au. Itxi egiten yoat nik nire duketzea, eta partakutiko al daustazak nik iri egindako oker eta kalteak. Baña zelan izan leiteke Posper bizirik eta emen?

POSP.—Lenen eta beinen, adiskide zindo, zure adina, zure urteak nire besartean es-tututen itxi egidazu, neurtu-ezina ta lekuk artu-ezina da zure urteen omena-ta.

GONTZ.—Au egia dan ala ez, zinik ezto egingo.

POSP.—Izaro onetako inondiko zeren gozogarrazta dozu oraindik zuk zure ago-sapaian-eta, egiazko zerak sinisten eztautsu izten orrek. Ondo etorriak, adiskide guztiok: (SEBASTEN eta ANDONI'ri bakarrik) baña zuok, nire yaun bikonde ori, orren goikotasunaren betozko iluna biztu ta ganera ekarri neitsue emen, eta zuok saltzale zariela erakutsi, olangorik gogoak emongo ba'leust, baña, aldi onetan enoa barri-surik izaten.

SEB.—Txerrenak daragoio orren agotik itz egiten (Bere kitean).

POSP.—Ez: -iri barriz, iri yaun zantar orri, nire anai deituko ba'neuskik nire agoa kutsatuko neuken orri, ire okerreriik andurtsuena parkatu egiten dauskat; ori ta okerreri guztiak; eta nire dukegoa atzera emon dagistakala aginduten dauskat, ondo dakidanez ori atzera nai-ta-nai-ez emon bear ko dok-eta.

ALB.—Posper ba'zara, zelan yarei zintzazan zeatz azaldu eiguzu; ontzia galduta itsas-ertz onetan iru ordu egin doguzanokaz emen zelan batera yo dozun, nire seme maite Perdinanda galdu dodan itsa-ertz onetan. Galtze orren gomutearen zorrotz-mingots!

POSP.—Orrako orren tamal itzala dot, yaun.

ALB.—Galtze ori artezuterik eztago, eta epeak be beretzako geiegi dala diño.

POSP.—Besterik uste dot nik, zera, epearen laguntzarik ezozula billatu; aren eskar samurretik laguntzarik gorengoa iritxi dot nik zurea langoxe galtzean, eta nasai nago orain.

ALB.—Nirea langoxe galtzea izan dozula?

POSP.—Galtze andi ta oraintsuko: eta galtze itzal ori zutzako yasangarri egiteko bide nasai-zabalak dozuz zuk nire estuen aldean, eurak zuk artu gura izatekotan, alabea galdu dot nik-eta.

ALB.—Alabea! Yaungoikoa! bizirik al legoz biak Napoli'n, ango errege ta errege-ontzat! Orrako ori ba'lediz aik, pozik nengoke itsaso gaziaren ondoko lupetzan, nire semea datzan leku berean. Noz galdu dozu alabea?

POSP.—Oraintsuengo ekatx onetan. Ba-dakust, oartuten natzako nigana yoteagaz ain zora-biaurik eta zurturik dagozala-ta, arrituren arrituz yaunok euren adimena iruntsirik dabela ta nekez uste dabela euren begiak egirako bide diranik, eta euren itzak arnaszako diranik be: baña zuon oarmenak, zuon sentzuak nasturik egon-arren segurizat yaun egizue Posper eta Milano'tik egotziriko dukea berbera nazala ni; ontzia galduta legorreratu zaien leku onetanixe legorreratua, erarik inondikoenez lur onetako yaun eta yabe izateko. Bego, onako onen azalbena gosari-bitartean esan eta eraltetako bagarik egunetarakoa ta gure lengo batzar oneri eztagokiona da-ta. Ondo etorriak, yaunak; txabola au da nire yauregi: otsein gitxi dodaz nik emen, eta kanpoan bendekorik arean bez: begiratu barrua, arren. Atzera emon daustazun duke-tzearen orde zera baño zer gitxiagorik eztautsut emongo nik: gitxienez ni duketzeak aña poztuko zauzan zer arrigarria aterako dautsut aurrera.

Txabolako atea idigiten da, ta agirian yarten dira PERDINANDA ta MIRANDE, xake-yokoan daragoioela.

MIR.—Yoko zikina egiten daustazu, yaun kuttun.

PERD.—Ez, maite-maite ori, mundu osoagaitik be eneuskizu egingo olangorik.

MIR.—Bai, ogei bat bakalderrigaitik be olan yokatuten itxiko neuskizu nik eta, ganera, garbi yokatuten dozula esango neuskizu-ta.

ALB.—Izaro onetako ikuskizun utsa ba'da au, birritan galdu dot seme maite bat bera.

SEB.—Au bai alatz andi, alatz andirik ba'da!

PERD.—Zemaika ibili-arren, errukior dira itsasoak; orretarako biderik bagarik gaizetsi dodaz. (ALBONTSA'ren aurrean belaunbiko yarten da PERDINANDA).

ALB.—Aita pozez betearen onespen guztiak euren barruan artzen abe orain! yaqi ta ona zelan etorri azan esan egidak.

MIR.—Au bai ba-dok alatz! Enee! emen dagon ondasun-mordoaarena! gizatasunaren ederra! ludi-arlo barriaren bikain, olango lagunak dauzanzakero!

POSP.—Barri egiten yatsu au zuri.

ALB.—Nor dok igaz yokoan eragoion neskato au? Zuon arteko ezaguerarik zarrena be ezin izan dateke iru orduz gorakorik. Ori ete da gu alkarregandik banandu ta onan batu gauzan yainkonoa?

PERD.—Ilkizun da au, yaun; baña nire da Yaungoikoaren aurre-ikuste il-ezinez; nitzako artu dot au nire aitari bere ederretsirik ezin eskatu izan dautsadanean, aitarik dodanik be uste izan eztoanean: Milano'ko Duke entzute andiko onen alabea da au, sarritan adeiz entzun bai, baña eguño lenago ikusi enebanarena; bigarren bizia emon daustanarena, eta bigarren aitatzat emoten daust au andera onek.

ALB.—Ni nok no orrena; baña egingo dodana inondiko ta bakan iruditu-arren, parkamena eskatuten dautsat neure alabeari!

POSP.—Geldi or, yaun, eztaigun gogoratu igaroriko naibagerik.

GONTZ.—Lenago itz egingo neukean, barruko negarrak eragotzi ezpa'leuste. Yainkook, ona beera itzuli zuon begiak eta zuon onespenezko burestuna eralqi egizue bikonde onen ganera; gu ona ekarri gauzan bidean bide-atzak zuok imini dozuez-eta!

ALB.—"Olantxe" diñot nik, Gontzal!

GONTZ.—Bere ondorengoak errege izateko egotzi ete eben Milano Milano'tik? Ara! edozelango pozez ganetik poztu zaitze, eta onako au urrezko izkiz sakon irarri egizu arri-zutiko iraunkor-betikoetan; ostera bat berean senarra idoro dau Karibele'k Tunixa'n, eta Ferdinanda aren nebeak emaztea bera galduta egotan lekuan! Bere duketza Posper'ek izaro txiro-landerrean, eta guztiok geure burua idoro dogu inor bere buruaren yabe etzan lekuan.

ALB.—(PERD. ta MIR.'ri) Ekadazuez zuen eskuak. Oindiño be naibageak eta lorrak besarkatuko al dau zuoi pozik opa eztautsuenaren biotza!

GONTZ.—Olan bedi! bai, olantxe!

(ARIEL aurrera ostera be, Ontziburua ta Ontziyagolea ago-zabalik yarrai datorkozalarik.)

Begira, yaun, begira, yaun; amezan gutaitiko geiago! Aurrezirik esan neban nik,

legorrean eskegiteko aberik izatekotan lagun ori ezin ito edikela uretan. Biracoti orrek, ontzian biracoti eurrez yaurtiten enduazan orrek, legorrean biracoti eta zinik bat be ezto egotzen orain? Ze barri dok?

ONTZIY.—Errege ta bere lagunak guk onik eta ondo idoro izana da barririk onena; gure ontzia, urrengoa; eta izan be, arazkeron iru ordu baño ezala, guk arrakaldutaz etsirik ontzia, birintzarik eta irristurik bagarik, arin eta bikain orniduta dago orain, lenengoz itsasoratu gintzazanean legetxe.

ARIEL.—(POSPER'eri bakarrik) Yaun, otseintza guzti ori egin dot ara yoan nazanazkero.

POSP.—(ARIEL'eri bakarrik) Nire iratxo as-motsu orrena!

ALB.—Eurenez yazoak eztera onako zerok; inondikotik inondikorago doazanak dira onelik: esan, zelan etorri zarie ona?

ONTZIY.—Yaun, esaten aleginduko nintzake, guztiz atzarrik gagozala uste ba'neu. Logurearen loguraz ilik gengoan gu eta, eztaikit zelanik, baña ontzi-zuloen azpian baitegiraturik, eta ara, bapatean, aitian baten inondiko ta askotariko otsak, orroiak, irrintzek, ausiak, kate-otsak, duruundu ta astrapalak, guztiak ikaragarriak, iratzarri gabez; otozotoan yarei aurkitu gara; eta an bertan orratzetik arako lez ikusi dogu guk guztiok gure errege-ontzi on, txairo ta arroa, apain-apain; ontzia ain txairo ikusirik ikutika ekin dautso ontziburua; aide baten (eder izango al yatsu) eta amesetan lez, besteakandik banandu egin gabez gu eta ona ekarri, totolotu ta papaoturik.

ARIEL.—(POSPER'eri bakarrik) Ondo egina ete?

POSP.—(ARIEL'eri bakarrik) Itzalez ederto, otsein zoli. Eure buruaren yabe izango az.

ALB.—Eguño gizonek zapaldu eztauenan langoa da bide-mataza nastu au, eta berezkoaren egitea baño zerbait geiago agiri da emen; goitiko argiren bat bearko dogu au zuzenduteko.

POSP.—Nire ugazaba yaun, ez lorrindu arazo onen inondikotasunak zartadaka darabilen zure buru ori: asti egokirik izan dagidanean (eta asti egoki ori laster izango dogu) neuk bakarrik arteztuko dautsut arazo ori; yazoko guztien azalbena zeatz emongo dautsuet eta sinisgarri egingo yatsuela nik uste; pozik egon arariteño, ta dana ondo dagola uste izan. (ARIEL'eri bakarrik) Erdi ona, iratxo; azkatu egizak Kaliban eta aren lagunak; manatu egiek lilurapena. (Alde ARIEL'ek.)

Zelan aurkituten da nire yaun eskartsua? Oraindik ezoguz emen zuok aitzurik dozuezan zuon lagundiko mutil banaka bakan batzuk.

ARIEL ostera be aurrera, KALIBAN, ESTEPAN eta TIRINKUL, euren yantzi ostuakaz aurrean dakazala.

EST.—Gizon bakotxak bestean ardurea artu dagiala, ta ez egin yaramonik nobere buruari, dan-dana alanbearrezko baño ezta-ta. Adoretsu, manu arropuz, adoretsu!

TIR.—Zintzo ba'yataz buruan dakadazan kulkariok, ikuskizun ederrik ba-dogu emen.

KAL.—Ui Setebotz, benetan dira lirain iratxook, gero! Nire ugazabaren txairo! Zigor-tuko nauenaren bildurrik ba-dot.

SEB.—Ostera! ostera! Oneik bai ba-dirala izatekoak, ene yaun Andoni! Salgei ete dagoz?

AND.—Bai, urrean; arrain utsa dok, izan be, euretatik bat-eta, seguru be seguru salgei yagok.

POSP.—Ene yaunok, gizon orrein yaseari oartu zakioez, eta gero esan zindo ta zintzo diranentz. Yasa zakarreko zirtzil au (sorgin zan onen ama; eta al andidun sorgina izan be-ta, bere esaneko egin eukeazan iretargia, izkorak eta izperak eragin itsasori, iretargiak legetxe, eta bere alaz gorakoak ziran bere aginduak; lapurretan egin dauste oneik irurok) eta onako erdi-txerren au.... sasikume da-ta, orreikaz itundu da niri bizia kentzeko; lagunotatik bi ezautu bear zeunkiez eta zoutarikotzat autortu: ilunbe-zer au niretzat dautort nik.

KAL.—Zastadaka ilgo nau.

ALB.—Estepan, nire ardandegi-zai mozkortia ez ete da au?

SEB.—Orain be mozkortuta dago ori: non ete dau ardaoa?

ALB.—Tirinkul be mozkorraren mozkorrez zabuka ta kakoka dabil; non idoro ete dabe orreik gorri-gorri egin dauzan edabe bikain ori? Zelan pipergorritu az?

TIR.—Azkenengoz zu ikusiazkero pipergorriturik nozu ta bildur naz azurretarano pipergorritu ete nazan. Margoztu nagienaren bildurrik ezot izango.

SEB.—Zelan ago orain, Estepan?

EST.—Enagik ukutu, arren; Estepan enok ni, zanbatu baño.

POSP.—Izaro onetako errege izateko intzan, eztok? Txotxo!

EST.—Zauri bat nazanazkero, errege zauritu nintzakean.

ALB.—Eguño nik ikusikorik inondikoena da onako zer au (KALIBAN erakutsi-ala).

POSP.—Bai bere ekanduz, bai soñez be, neurrikoz besterakoa da ori. Nire txabolara oa, kirten, ire lagunakaz batera; nik iri perkatutearen begira ba'ago, inozkorik eta txairoen iminiko al dok a.

KAL.—Bai, iminiko dot; eta zur izango naz oraindik ara, eta zure ederraren bila ibiliko naz. Ni bai izan nazala bururik bagako astatzar, mozkor mozkorti au yainkotzai artu ta ergel motel au yauresteko!

POSP.—Oa; alde emendik!

ALB.—Alde, ta idoro dozuen lekuan itxi kuxa ori.

SEB.—Edo, obeto esan, ostu dozuen lekuan.

(Alde KALIBAN, ESTEPAN eta TIRINKUL'ek)

POSP.—Yaun, nire txabolara dei egiten dautsuet zuri, nagusi orri, ta zure lagunai; eta an artuko dozue gau onetako atsedena; eta gau ori edo gau orren zati on bat beintzat, nire ustez, arin eroango dau nik egingo dautsuedan erasi edo berbaldiak, ni izaro onetaratuazkeroko bizitzeagazko ta bereko yazokunekazko erasiak; eta biar goxean ontziratuko zaunedaz-eta, olan, Napoli'ra, ditxarodanez, gure ezkon-barri maite-maiteon ezteguak an andiro eginda ikusteko; eta andik nik Milano'ra alde egiteko ta, an, iru gogaketatik bat nik nire ilobiagazko izan dagidan.

ALB.—Zure bizitzako gora-bera ta zertzeladak entzuteko leia itzala dot, belarria inondiko egingo yakez-eta.

POSP.—Dan-dana esango dautsuet; eta itsaso bareak, erako axe leunak eta itsasaro atsegingarria aginduten dautsudz zuri, urrin dagon zure errege-ontzidia goatu dagizun. (ARIEL'eri bakarrik) Ene Ariel, ene txoritxo, auto ire alogera; lengaietara, ba, bertatik, eure buruaren yabe izan adi, ta onik eta ondo abilke! Eder ba-yatsue, urreratu zakidaze, arren. (Alde dagie).

POSTER'en AZKEN-BERBALDIA

Egotzi dodaz orain nire liluraketak
Eta nik dodan al gutzia neure-neure da,
Eta mengel-mengela da au; -orain egie da
Edo emen mugatuik itxiko nozuela;
Edo Napoli'ra bidali. Nire duketzea lortu ta
Nire ziri-sartzalleari parkatu dautsadanaz-

kero,
Zuon liluraketaz izaro gorri onetan
Ez al nozue, arren, ezetara be itxiko:
Bai, ostera, nire lokarriak azkatu
Zuon esku on-onen laguntasunagaz.
Zuon arnasa bigunak bete bear dauz

Nire ontzi-oialak, ostean zuon pozkarri
 Ziran nire asmoenak egin dau. Orain nik
 Iratxorik eza dot ai agintzeko, liluratzeko
 antzerik eza;
 Etsipena litzateke nire atzena,
 Iñok niri otoi-arrenez laguntzeka;

Sarkor-sarkor da arrena-ta, errukigana el-
 tzen da
 Ta uts eta akats guztietatik yareiten dau.
 Zuon makurkeriak zui iñok parkatzea
 Naiko zeunkienez, zuon errukik yareiko al
 nau.

AMAIÁ.

Salta'n (Argentina) 1966-VII-28'gnean.

EKATXA'KO ITZ GITXI EZAGUNAK

AIAZO (Arratia).—Txakurra zirikatu, norbaite-ri, naiz zerbaite-ri eldu dagion.

ALETZ (Zeanuri).—Uskeri.

ALATZ.—Al andia diragarren zerbaite, "mirari" euskel-gaiztoz.

ANTZE.—Terbetasuna, "abilidade" euskal-gaiztoz.

ARKOLO.—Nagi alper.

AZARRI.—Adoretu, oldartsu.

AZPIYALE.—Zintzo eziana, saltzalle.

ASTA.—Pixudun ba'da "aztun", "azta" pixuda.

BARRANDARI.—Inok zer dagian, naiz zer esaten dauen yakiteko kukuka dagona.

BIUSTURI (Zeanuri).—Urdail. "Biusturiko min" = urdallako min.

BONBIL.—"Botilla" euskel-gaiztoz.

BURUNTZ, BURESTUN.—Erregelzea iragariteko erregel buruan yarten dauen zer borobila.

EDESTU.—Ipuin, naiz beste zerbaite urrengorik urrengo esan edo eralgi; "kontau"

ERDI, ERDIRATU (Bizkaia'n eztabilgu aditza, baña bai beste euskelgietan).—Ume-egin. Olan, "erdi-minak" = ume-minak.

ETOI.—Azpiyale, saltzalle.

GENTZA.—"Bake" euskel-gaiztoz.

GARAI (Zeanuri).—Abe bat, bi, naiz iruren ganean arri-ol laukotu, naiz txirintola-antzekoa imini, saqu, naiz sagutzarrek gora igon eztagian, arri-ganean txabolatzoa egin gari, naiz osteango aleak eukiteko-ta, or dozu garai bat eginda. Urtebete ezta oraindik nire loba Gorostiza-goiza'tar Inaki Zuloaga'koak lenagoko garaiaik olangoxeak zirala esan eustanetik.

GIYAU (Zeanuri).—Landu. "Soloa giyau" = soloa landu.

INTSIGI (Otxandiano, Azkue'n iztegitz).—Itxiki, orain Bizkaia'n bere ordez "erantsi" erabilten dogu. itxiki'tik iratziki datorrenez, "intsigi"tik "erantsigi" edo "erantsi" dator; eta "intsigi"tik dator "itxiki" bera be, "intsigi"ri "n" kendu, "ts"ren ordez "tx" imini, ta "g"ren ordez "k" gogorra iminita.

IRATXO.—Gizona baño goragoko adimendun, soinbako edo soin arineko izakiak, eta eu-

retatik batzuk geztok, Olan, "Anboto'ko" señoa, lami, ta orretariko beste mundukoak iratxotzat etsi bearko doguz.

ITSAS-NESKA.—Neska-antzeko itsas-iratxo.

ITSUTA.—Euskel-gaiztoz "soka", edo "soka" lodi.

IZTEN (Zeanuri).—"Barreko istenak egin genduzan" esaten da Zeanuri'n beintzat, "barreka errementau gintzazan" orain batzuk esango leukiena esateko; orrazkero, "izten" eta "eztanda" esangura batekotzat etsi bearko.

KOKALDA (Zeanuri). Gibelesko gatxa. Kokaldadun ardiak gexorik eukiten dau gibela ta soña urez beteten yako. Orregaitik "hydropesi" dalakotzat erabili geinke "kokalda" itza.

KERUBE.—Ebertaren izkuntzako "Kerub" itza yatsu, ta angeru berezia da itz orrek esan gura dauena.

LER.—"Piñu" euskel-gaiztoz. Euskalerrian ler geigci ta pago gitxiegi dogu orain.

MARGO.—Kolare.

MARGOZTAU.—Zerbaiteri margo edo kolore ezari.

MEKI (Arbizu, Naparroa).—Oñetan, naiz zango-iztarretan gatxen bat izan-eta, alboraka ibiten dana, "Erren", naiz "koxo" euskel-gaiztoz.

OKOLU (Zeanuri).—Zoko.

ORRATZETIK ARAKO, LABATIK ARAKO (Zeanuri).—Egin-barri.

OSKIDE.—Alkarren adiskide diran "soñu" edo otsak oskide dirala esaten dogu.

SAKUTE (Zeanuri).—Baztanga, naparreri.

TXANDAR (Zeanuri).—Zango. "Txandar-me" esaten yako Zeanuri'n zangameri.

UNATU.—Neka-nekatu, eiota gelditu.

UR-NESKA.—Ibai eta latsetako neska-antzeko iratxo.

YAKINKIDETZA.—"Kontzentzi" euskel-gaiztoz.

Bestek dakianik guk ezpa'dakigu, gu ez gara orretan yakinkide. Nik au, edo besterik egin dodala bestek esan-arren, nik neuk ezpa'dakit olangorik egin dodanik, ni enaz orretan yakinkide, nik eztoit orretan yakinkidetzarik. Zilegitzilariak diñoenez, guk beti

yokatu bear ei dogu gure yakinkidetzeak dirauskunez, ez besteen yakinkidetzeak diñonez. Besteak onako au, naiz orrako ori ontzat izan-orren, nik neuk ezpa'dot, nire yakinkidetzeak on dala ezpa'diño, olango-rik egin ba'dagit, oben egingo dot, nire yakinkidetzeaz bestera yokatuten dodalako. Egia esan, orretan ni ta besteak ez gara

yakinkide, kide izateko nik eta besteak ereti bateko izan bear dogu-ta.

YAUURI.—"Gobernau" euskel-gaiztoz.

YAUURGO.—Yaurteko eskubideduna; baita orretarako eskubidea bera be.

YAUZI.—Euskel-gaiztoz, "salto", naiz, "saillu"-egin.

BERONA'KO GIZAZINDO BI

(TWO GENTLEMEN OF VERONA)

BERONA'KO GIZAZINDO BI

(TWO GENTLEMEN OF VERONA)

ANTZERKI ONETAKO LAGUNAK

MILANO'KO DUKEA, SILBE'n aita.

BALENDIN }
PORTEU } BERONA'ko Gizazindo.

ANDONI, PORTEU'n aita.

TURI, BALENDIN'en leiakide tentel-samar.

EGALMOR, SILBE'ri bere igesian lagun izango yakona.

BIZKOR, BALENDIN'en otseinetariko aketo.

LONTZ, PORTEU'n otsein.

PANTIN, ANDONI'n otsein.

Arroztari, Yule Milano'n bere arrozlegian artzen dauana.

Legebakoak.

YULE, Berona'ko neskazindo, PORTEU'n maitea.

SILBE, Dukearen alaba, BALENDIN'en maitea.

LUKETXU, YULE'n laguntza-emakume.

Otseinak eta Ereslariak.

AGERLEKU.--Bein BERONA; bein MILANO; bein MANTOBA'ko mugak.

I EKITALDI

I AGERLEKU.--BERONA'ko toki agiri.

BALENDIN eta PORTEU aurrera.

BALENDIN'ek.—Ez egik ekin, Porteu maite, niri buruan sartzen; etxean dagozan gazteak beti dozak buru-motel; ire maitearen begirakune samur-eztiak, leia-bidez, ire urte gazteak lotuta ezpa'leukiez, or erbeste-ko ikuskizun arrigarriak ikusten niri lagun egiteko eskatuko neunskik, etxean nagikeri motelez egonda ire gaztearoa alperkeri ilunean alperrik galdu barik. Baña ik maite dokanazkero, ekiok maitatzen, eta orretan obatzen, maitatzen asi nadinean neuk be orixe egingo dodan legetxe.

PORTEU'k.—Yoa oaku, ala? Agur, Balendin ezti ori. Ire adiskide Porteu onetaz oroitau adi ire atzera-aurre ta yoa-etorrietan ikusgarri danik ikusi dagikanean; Zori onik izan ba'dagik, ire erkide eta lagun etsi nagik ire zori onean; eta ire galdu-gordeetan, inoz olangorik eldu ba'dakik, aire otoiitzi gorantzi egitsezak ire naibageak, ire otsein neu izango noketa, Balendin (1).

BALENDIN'ek.—Eta maitasun-idaztutik otoi egik nire zori onaren alde.

PORTEU'k.—Maite dodan idaztiren baten otoi egingo yoat ire alde.

BALENDIN'ek.—Bai, ik maitasun sakonen bateri buruzko ipuin arin-azalean otoi egingo dok, Lander gazteak (2) zelan egin eban Helespont'en alde batetik besterakoa.

(1) Beñola, norbaitek gura izatekotan bere bizian, naiz eta batez be bera ildakoan, beste norbaitek bere alde otoi edo arren Yaungoikoari egiteko beste norbait ori izentau eta onenbesteko bat emon, naiz ilburukoz agintzen eutsan. Or dozu bien arteko eguinea batak dirua naiz beste ondasunik emon eta besteak emolearen alde Yaungoikoari arren egin. Porteu'k emen olangarik egingo dautsala agintzen dautsa Balendin' eri: arren-gin izango yakola.

(2) Landar'ek Hero neskea maite-maite eban. Lander Abidos urian bizi zan; Hero, Sestos'en; uri bien bitartean Helesponti'ko itxas-adar estua. Hero Sestos'ko Apordite'n yauretxeko yauparino yakun. Gazte biak alkarrekin bero-bero maitemindu ziran. Lander ga-

PORTEU'k.—I, orrako ipuin ori maitasun sa-
konagoren ipuin sakon dok; a buruko ertze-
raño maitasunean murgilduta yegoan-eta.

BALENDIN'ek.—Egia dok; izan be, i buruko
ertzerano ago maitasunean murgilduta, eta
orraitino ik eztok uger egin Helespont'en
alde batetik bestera.

PORTEU'k.—Buruko ertzerano! Ez egidak ai-
tatu be egin olangorik.

BALENDIN'ek.—Ez, etxoat aitatu, ez yak
atsegin-eta.

PORTEU'k.—Zer ez atsegin?

BALENDIN'ek.—Maite izaterik, orretan intzi-
riz norbere ezespena ta inok yaramonik ez
egiteaz besterik eztok irabazten-eta; biotz
mindutiko adietaz, begirakune mukerrak;
ogei gau atzarrik, nekatuta, aspertuta iga-
roaren orde, unetko bateko poza; eta az-
kenean be gura enduana iritxi ba'dagik iri-
txi, zori bako irabazi; galdu ba'dok, lan
gogaikarri datorrik; zur ekinda be, uskeri
baño eztok erosi, edo ostean zurtasuna ten-
telkeriak benderatu dausk.

PORTEU'k.—Ik, zearka-mearka, zoro deitzen
nok eztok?

BALENDIN'ek.—Ire inguru-marika orrek orixe
azala erakutsiko ete dauan bildur nok.

PORTEU'k.—Ik buruan darabilkana maitasu-
na dok; ni enok Maitasunik.

BALENDIN'ek.—Maitasuna dok ire yabe, ak
auka bendean-eta; eta zorok olan buztar-
tzen dauanik etxoat uste zurtat euki bear
litzakeanik.

PORTEU'k.—Eta orraitino idazleak yinoek
yan daroan mamarroa, arra, pipilik ede-
rrenean ostonduten dan legetxe, yan da-
roan maitasuna be bururik argienetan ego-
ten dala.

BALENDIN'ek.—Idazleak onako au be ba-
yinoek, pipilik mardulena idigi baño len
arrak yaten dauan lez, buru-argitasun gaz-
te-samurra maitasunak tenteldu egiten
dauala: zimeldu ta igartu pipiletan, yai-
parri-yaioparritan here ezotasuna galdu,
baita gerorako itzaropenik ederrenak be,
dana batera. Baña zetan naiabilk ni astirik
alperrik galtzen, i ire leia kutunei ire bu-
rua emonda agonazkero? Agur beste bein:
begira yaukat aita kaian, ni an ontziratze-
koan niri agur egiteko.

PORTEU'k.—Neuk eroango aut ara, Balen-
din.

BALENDIN'ek.—Ez, Porteu maite; oraintxe
agur egin yagitoagun alkarri. Milano'ra
idatzi egidak ire maitasun-arazoa zelau
doan, eta ni emendik alde nazala yazo di-

ran beste zerak; nik be beste ainbeste egin-
go yout igaz.

PORTEU'k.—Zori ontsu izango al az Mila-
no'n!

BALENDIN'ek.—Beste orrenbeste izango al
az i be etxean! eta, orrazkero, agur.

(BALENDIN'ek alde).

PORTEU'k.—Ori dedu-billa doa, ni maitasun-
billa; orrek agur dagitxe adiskideai, euren
aurrean ederra go agertzeko; nik neuri, ni-
re adiskideai, ta danari agur dagitset mai-
tasunarren. Yule, zuk, zuk antzaldatu no-
zu; zuk egin nozu nintzanaz besterik; ni-
re ikasketak itxiaz, astia galduazo, onu
oneri gogor eragin, mundua ezetsiaz daus-
tazu: zu buruan erabiliaren erabiliz, buru-
argitasuna makal; biotza gexorik, oldoztua-
ren oldoztuz.

BIZKOR aurrera.

BIZKOR'ek. Egun on, Porteu yaun. Nire uga-
zaba ikusi ete dozu?

PORTEU'k.—Oraintxe oraintxe alde egin yok
emendik, Milano'rako ontzia artzeko.

BIZKOR'ek.—Orrazkero bateri ogei yokatuko
neunskioz a onazkero ontziraturik dala;
eta nik a galduaz ardiarena egin dot.

PORTEU'k.—Izan be, artzia aldikadatzko ba-
ten alde eginda ba'yagok, ardia sarritan
galtzen dok.

BIZKOR'ek.—Orrazkero, zuk ateraten dozun
ondorena nire ugazaba artzai dala ta ni
ardi nazala da, ezta?

PORTEU'k.—Egin-eginean orixe.

BIZKOR'ek.—Ba, orrazkero, ni atzarrik naiz lo
egon, ni atzarrik naiz lo nago.

PORTEU'k.—Erantzun ori tentelik asko, ta
ardiri egoki yakona dok.

BIZKOR'ek.—Orrako orrek ni ardi nazala era-
kusten dau.

PORTEU'k.—Bai orixe; eta ire ugazaba ar-
tzai dala.

BIZKOR'ek.—Ez ba; eta nik ori ukatu nei-
ke zertxo bategatilik.

boro etorten yakon Hero'ri, itxas-adarra zeaz
uger eginda. Orretarako, Hero'k bera bizi
zan dorreko leiotik argi egiten eutsan. Zori
txarreko gau batez Lander, uger eragotola
giarrétko miñak edo zan-biurak yota, ara-
ko itxas-adarrean ito egin zan. Au ikusirik eta
biotz-miñaren biotz-miñez doreko leioa-bera
bere buruari itxita, Hero be il egin zan.

PORTEU'k.—Gaitz izango yak, baña nik nire esana beste zertxo bategaitik erakutsiko dauskat.

BIZKOR'ek.—Artzaita ibiltan da ardi-billa, ez ardirik artzai-billa; baña ni nozu ugazabaren billa nabilana, nire ugazaba eztabil nire billa; orrazkero, ni enozu ardirik.

PORTEU'k.—Ardiri erakutsiok yakirik bai, eta an yoak artzaiaren yarra, baña artzairik etxoak ardiren yarra yakigaitik; i alogeragaitik arraikio ire ugazabari, ire ugazaba ez darraikik alogeragaitik; orrazkero, i ardi az.

BIZKOR'ek.—Olango beste argibiderik atera ba'dagistazu, be gedar eragingo daustazu.

PORTEU'k.—Baña, entzuten daustak, ala? Emon dautsak nire idazkia Yule'ri, ala?

BIZKOR'ek.—Bai, yaun; nik, aari galdu onek, emon dautsat zure idazkia ardi lotu ari; eta ak. ardi lotuak, niri, aari galdu oneri, eztaust deusik emon nire nekeen alderako!

PORTEU'k.—Emen orrenbeste ardi ta aarintzako bedar gitxiegi yagok.

BIZKOR'ek.—Bedartzea ardi ta aariz beteegi ba'dago, ez ete yatzu oba a iltea?

PORTEU'k.—Ez; i oker ago orretan; i baitutea litzatekek onena.

BIZKOR'ek.—Ez, yaun; nik eztoz bear bairik, gauzea bera baño; betor eskupekoa.

PORTEU'k.—I ostera be oker ago; nik esan gura izan dodana zera dok, i ilunbetan sartzea litzatekela onena.

BIZKOR'ek.—Baitik ilunbera gatoz orain? Bairik zirtzilena be, utsa izanaren, ilunbe guztiak baño oba yatzu.

PORTEU'k.—Baña zer esan yok Yule'k? --Buruaz baietzik emon yok, ala?

BIZKOR'ek.—(Buruari berantza eraginaz) Bai.

PORTEU'k.—Eragiok buruari, bai; ori tentelaren ezaugarri dok.

BIZKOR'ek.—Oker zagoz, yaun; ak buruaz baietz esan dauela diñot nik, eta zuk buruari eragin dautsanentz itandu daustazu; eta nik Bai diñot.

PORTEU'k.—Eta ori, dana batera yota tentel izatea dok.

BIZKOR'ek.—Dana batera yoten artu dozun nekea bedi zure nekearen ordain.

PORTEU'k.—Ez, ez; ori itzako, idazkia eroanaren ordaintzat.

BIZKOR'ek.—Tira, zugaz nik epe beariko dot.

PORTEU'k.—Zegaitik beariko dok epe artu nigaz?

BIZKOR'ek.—Ba, yaun, nik idazkiakin ezkondu beariko, idazkia eroanagaitik itz onez besterik ezer ez artzekotan.

PORTEU'k.—Izurriak eroan nagiala, baña ik urteera bizi-bizkorak dozak.

BIZKOR'ek.—Eta orraitino, nire bizkortasunak ezin goatu dau zure zisku geldoa.

PORTEU'k.—Tiruk, tiruk; ator arin arira; zer esan yok ak?

BIZKOR'ek.—Idigi zure ziskua, dirua ta esatekoa biak batera emetoko.

PORTEU'k.—Tiruk, yaun, eutso ire nekeen alderakoa; zer esan yok No ak?

BIZKOR'ek.—Egia esateko, yaun, zuk nekez irabaziko dozu a.

PORTEU'k.—Zer ba, orrenbesterik igarri dautsok, ala?

BIZKOR'ek.—Yaun, nik eztaustat ezertxo be igarri; ezta duketxo bat be nik idazkia eroatearen nekeen alderako; eta zure go-go a zer dan eroan dautsadan onentzako orren gogor izan danazkero, bildur naz eztala izango bigunago zuri bere asmoa iragarteko. Ez emon ari arriz beste maite-emaririk, a galtzaidua bestean gogor data.

PORTEU'k.—Ostera! Etxok ezer esan, ala?

BIZKOR'ek.—Ez ba; ezta onexenbeste be;

"Eutso au ire nekeen alderako". Zure eskuzabaltasuna erakusteko, erlain bat emon daustazu (3); eskerrik asko; baña aurreantzean, orren alderako, zure idazkiak zeuk eroan baño eztozu; eta orraitino be nire ugazabari gorantzitzen zaudaz.

PORTEU'k.—Oa, oa; oa ire ontzia yarei dadin, i alan-bearrak legorrekio eriotza legorragorako izentauta aukanzkero, i barruan aucla ontzia ezin ondatu leitekek-eta. I baño geznari oberik bidaltzen naioak ni; bildur nok ni nire Yule'k nire lerroak eztauzala etsi argarri, i lango bidari gauzezagandik opatu yakoalako. (Alde biak).

(3) Erlain. Bizkaya'n, Zeauri'n beintzat, erlain erreal biko zidarrezko diruari esaten yako. Orain ezta agiri olango dirurik.



II AGERLEKU.—Lengoa. YULE'neko Baratza.

YULE ta LUKETXU aurrera

YULE'k.—Luketxu, orain emen bakarrik gagozanazkero, maitasunari men egiteko onurik emoten ete daustazu?

LUKETXU'k.—Bai, andera; ardurarik ezagaitik oztopo egin eta yausi ezpa-zadiz.

YULE'k.—Or egunoro bidean aurkitzen dogozan guztitariko gizazindoen artean zein da, zure ustez, maitagarriena?

LEKUTXU'k.—Eder ba'yatzu, esaisuz barriro euren izenak; nire ganora xalo-bakun-agiari dagokionez emongo dautsut nire ertxia.

YULE'k.—Ze eretxi dozu Egalmor yaun zuriaz?

LUKETXU'k.—A itz egiten dakian zaldun garbi ta eratsu dala; baña ni zu izatekotan, a elitzateke eguño nirerik.

YULE'k.—Eta ze eretxi dozu Merkatio aberatsaz?

LUKETXU'k.—Aren aberastasunaz eretxirik onena dot; baña beratzaz, alan-olangoa.

YULE'k.—Ze uste dozu Porteu zindoaz?

LUKETXU'k.—Yauna, Yauna! gure zoroaren zoro!

YULE'k.—Ostera! Zer esan gura dau aren izenak eragin dautzun biozkada orrek?

LUKETXU'k.—Azketsi, andera maite; lotsez ganetiko da nik, ezer enazan onek, olango gizazindo maitagarriak akatsik ezarten ibili-bearra.

YULE'k.—Zegaitik ez Porteu'ri besteai lez?

LUKETXU'k.—Goazen, orrazkero; on aunitzen artean a dot nik onentzat.

YULE'k.—Zegaitik?

LUKETXU'k.—Nik eztoz emakumenaz beste zegaitirik; olangotzat dot, olangotzat dodalako.

YULE'k.—Eta nik a orregaitik maite izaterik gurozu, ala?

LUKETXU'k.—Bai, olangorik eginaz zure maitasuna erre kara botaten dozula uste ezpa' dozu.

YULE'k.—Ba! beste guztien artean bera da nire biotzari eragin eztautsana.

LUKETXU'k.—Eta orraitio, nire ustez, a da zu maiteen zauzana.

YULE'k.—Aren itz-urri izateak ba-diragar ak maite ba-dauela maite, baña gitxi.

LUKETXU'k.—Esituta orma-barruan dogozan suak erreten dabe geien.

YULE'k.—Maite dabenik iragarten eztabenak eztabe maite.

LUKETXU'k.—Ene! maite dabela esaka daragoienak yatzuz gitxien maite dabenak.

YULE'k.—Ak ze gogo dauen yakin gura neunke nik.

LUKETXU'k.—Irakurri egizu ingi au, andera. (Idazki damotso).

YULE'k.—(Irakurri dirakur) "YULE'ntzako"... Esaisu, nogandiko?

LUKETXU'k.—Ori barruan dakarrenak iragarriko dautzu.

YULE'k.—Esan, esan; nok emon dautzu?

LUKETXU'k.—Balendin yaunaren esku-mutlak; eta, nire ustez, Porteu izan da bidali dauena; ak idazki ori zeuri emoteko gogo iragarri dau; baña, ni aren bidean aurkituta neuk artu dautsat zure izenez; azketsi, arren, nire utsa.

YULE'k.—Orain, nire lotsortasunarren, etzaukaguz bitarteko txarra: Lotsabako lerrorik ezkututzen azarri zaiakuz? Nire gaztetasunaren aurka txutxu-putxuka ta zinkidetzen ibiltzen azarri zara? Orrako ori, sinetsi egidazu, ogibide goragarri goragarri-tariko yatsu izanbe, eta zu beargin egin-eginekoa ogibide orretarako. Eutsi, artu papel ori; atzera bidali, gero: ostean ez agertu bein geia gotan nire aurrera.

LUKETXU'k.—Maitasunaren aldeko aleginak ori baño ordain oberen lain yatzuz.

YULE'k.—Alde egingo ete dozu emendik?

LUKETXU'k.—Bai, zuk ausmer egin dagizun (Alde daqi).

YULE'k.—Eta orraitio, idazkia irakurteko gogorik izan dot nik. Atzera dei egitea lotsagarri litzakit; atzera deitu ta nik asarre egin dautsadan uts berbera ostera be egiteko eskatzea. Nolango tentela da emakume ori ni neska nazala yakinda, idazki ori ez irakurriazoteko? Eta izan be, neskek, lotsortasunarren, Ez esaten dautsoe opatzen dautsenak Bai'tzat artzea gurako leukienari. Utikan, utikan! maitasun zoro onen gogalditsu, sein asarretaren antzera, sentzainari atzazalka egin, eta andik bertan, apal-apalik, mun egiten dautsa yo dauen abarri! Nik bai zakaroto bidali dodala Luke-txu emendik agirilka eginda, a emen egotea gura izanik! Nik bai nire betozkoari irakatsi dautsadalara asarrearen asarre erakusten, barruko pozak irribarre egitera bul-tzatzen izan nauenean!

Nire oben-nekeak Luketxu'ri atzera etorteko dei egitea izango da, eta nire lengo zorakeria azkesteko eskatzea: eee! Luketxu!

LUKETXU aurrera ostera be.

LUKETXU'k.—Zer gura dozu andera orrek?
 YULE'k.—Laster ete da bazkal-ordu?
 LUKETXU'k.—Oba ba'lit; zure asarreak zure
 otseinari barik zure okeleari ekin dagion.
 YULE'k.—Zer eragi dozu orren artega?
 LUKETXU'k.—Ezebeze.
 YULE'k.—Zegaitik makurtu zara, ba?
 LUKETXU'k.—Eskuetatik yalgi yatan papela
 eragiteko.
 YULE'k.—Ingi ori ezebeze da, ala?
 LUKETXU'k.—Niri dagokidanik ezebeze.
 YULE'k.—Orrazkero, dagola lurrean etzanik,
 dagokienentzako.
 LUKETXU'k.—Andera, eztaue etzan gura da-
 gokion lekuan, oker ezpa'nago.
 YULE'k.—Zure maiteen batek itz neurtuz ida-
 tzi dautzu.
 LUKETXU'k.—Doñura abestu dagidan, ande-
 ra; doñu ezarri egiozu, zuk ba-dakizu-ta.
 YULE'k.—Olango umekeritan enozu ni aitu-
 rik; oba dozu Maite-Zuzia'ren doñura abes-
 tu.
 LUKETXU'k.—Orrako ori doñu arinegi da
 onango gai aztunarentzako.
 YULE'k.—Onango gai aztunarentzako! Orraz-
 kero, ba-dau, urrean, gai orrek aztuntasu-
 nik.
 LUKETXU'k.—Bai; eta eder eta gozo litzakizuz
 itz neurtuok, abestu gura ba'zenduz.
 YULE'k.—Eta zegaitik ez zeuk abestu?
 LUKETXU'k.—Nik abestu al izateko, zuk gore-
 gi artu dozu.
 YULE'k.—Dakusdan zure abesti ori. A! mal-
 tzur ori!
 LUKETXU'k.—Ekin, ekin ots orretan; eta orrai-
 ñño etxat begiko-begiko.
 YULE'k.—Etxatzula begiko?
 LUKETXU'k.—Ez, andera; ori latzegi, gogorre-
 gi da.
 YULE'k.—Zu, kutun ori, zu zakarregi zara.
 LUKETXU'k.—Ez, orain beregi artu dozu, ta
 dana alperrik gaitzen dozu, aurrekoaren
 belarriak urratu-bearrean; zuk abetzoli-bear-
 rra dozu.
 YULE'k.—Zuk abetzolia ito egiten dozu zure
 abesperen zakar orregaz.
 LUKETXU'k.—Nik Porteu'na egiten daragoiot...
 YULE'k.—Olango txatxukeriz ni inok nekatze-
 rik etzat gura. Ikusi; auxe dozu nik ingi oni
 egiten dautsadan yaramona. (Idazkia urra-
 tu ta zati-zatitu egiten dau). Zoaz, alde
 emendik; eta ingi-txatalok lurrean dago-
 zala; bai, zu or ibiliko zara orreik eskuar-
 tean darabiltzuzala, ni asarratuazoteko.

LUKETXU'k.—Alde dagi) Orrek asarratuare-
 na egiten dau egin, baña ori pozik lego-
 ke olango beste idazkik olango asarrerik
 emon ba'legio.

YULE'k.—Bai, onango asarrerik al neu bide
 beretik! Nire eskuok, zuon gorrotagarri ta
 askarri, olango itz maitagarriak urratu do-
 zuezalako! Erlabio zantar-iguinagarriok! ezti
 gozoa egiten daben erlak zuon izpikadaka
 ilda, eztiya yan dozuelako! Egin dautsadan
 irainaren alderako, ingi-txatal bakotxari
 mun egingo dautsat. Eta emen "Yule mai-
 tagarri" dago idatzita; Yule'n esker txar-
 reko! Eta zure esker txarrentzako apen-
 bidez bailizan, zure izena lurreko arrien
 aurka yaurtiten dot, zure mukerkeria igui-
 nez ostikopean zapalduta. Begira, emen
 "Porteu maitasunak zauritua" dago idatzita:
 ...izen zauritu orren erurrakari! Nire biotza
 izango yatzu oe, zure zauria guziz osatu
 arte emen arrotzegi onetan egon zadizan;
 eta ori iristeko pa itzal bat emongo dau-
 tsat; baña Porteu'n izena birritan edo iru
 bider dago idatzita. Geldi, axe ori, ez putzik
 egin eta ez eroan axe-bolada itzalez aitz
 latz, bildurgarri ta dingiliren aurka, andik
 itxaso asarrera egotzeko! Ara, emen le-
 rro baten aren izena birritan idatzita agi-
 ri da... "Porteu erurrakari, yaramonik egi-
 ten eztautsoena, Porteu biotzaldi utsa, Yu-
 le eztiarentzako"; au atzeneko au urratu
 egin bear dot; baña ez, eztoz egingo olan-
 gorik, bere izen zinkurintsuei orren polito ta
 bikain yosi dautse-ta. Onan, onan batuko
 dodaz alkarren ganera; orain mun egin,
 besartean estutu, burruka egin, zeuok zer-
 gura egin.

Ostera be LUKETXU aurrera.

LUKETXU'k.—Andera, bazkaria gertu dago,
 ta zure aita zure begira.
 YULE'k.—Ori ondo, goazen.
 LUKETXU'k.—Ostera! Ingiok emen deslai gel-
 dituko dira inori zer-esanik emoteko, ala?
 YULE'k.—Lotsagarri ba'yatzuz, eragi baño ez-
 tozu.
 LUKETXU'k.—Ez, zuk agirika egina nozu
 orreik lurrean itxi izanagaitik; orraitino be
 eztozax itxiko lurrean, otzitu eztaitezan.
 YULE'k.—Dakustanez, ilebeterako ardurarik
 ba-dozu orreikaz.
 LUKETXU'k.—Bai, andera, ikusi dozuna esan
 daikezu, baña neuk be ba-dakust, begiak
 itxirik dodazala zuk uste izanarren.
 YULE'k.—Tira, tira; yon gurozu, ala? (Alde
 dagie).

III AGERLEKU.—Lengoxea. ANDONI'n etxeko txoki.

ANDONI ta PANTIN aurrera.

ANDONI'k.—Esaidak, Pantin, Ze erago itun izan dok nire anaieak eta ik makotzapean izan dozuena?

PANTIN'ek.—Aren iloba, zure seme Porteu'z izan da gure eragoa.

ANDONI'k.—Zer ba, zer esan yok aretaz?

PANTIN'ek.—A andi eretxita dago zuk, nire ugazaba yaun orrek, zelan izten dautsazun zure semeari etxean astia alperrik galtzen, izen apalagoko etxaldeetako gizonak euren semeak azi-ezikera on eta izen on-billa ortik zear bidalita; batzuk gudueta, euren zori ona an billatzeko; beste batzuk, urineko izaro-billa; eta beste batzuk, goi-irakastegi yakintzazaleetara. Ak esaten erago dautso zure seme Porteu ekintza guztio-tatik edozeinerako gai eta egoki dala; eta niri eskatu daust zuri ekiteko etzagiozula itxi zure semeari astirik geiago etxean galtzen, gaztetan inora ez urtenetik gazte ari kalte andi letorkiola-ta.

ANDONI'k.—Eztok niri orretan asko ekin-bearrik, egin-eginean be ilebete oso onetan buruan erabili ta erabili ibili nok a ezin leitekela gizon oso-bete izatera eldu, olan astia galdu, ta ludian gizonen arteko gorra-beretan eta ikusiak irakasten dauskunaz gure bizitzarako bizibiderik egokienak ikasi ezik. Orrazkero, esaidak a nora bidaltze litzateken egokien.

PANTIN'ek.—Nire ustez, zu etzara yakitun etzareanik aren lagun, Balendin gaztea, Erregeren yauregira yoanik dala erregeren otseintzarako.

ANDONI'k.—Bai, ori ondo yakiat.

PANTIN'ek.—Nire ustez, ugazaba yaun orri on litzakizu zure semea be ara bidaltzea; eta izan be, an ikasiko dau zaldi-ganeko burruka ta nor-geiagoketetarako be gertauko da, itzaldi gozo-laban-apainik entzungo dau, gizazindoakin berbetan eragoko dau, eta aren gaztetasun eta odol garbiari dagokiezan ekintzak begien aurrean izango dauz.

ANDONI'k.—Ire onu ori begiko yatak; benetan onu ona emon daustak; eta onu ori zenbateraño gogoko yatan bera beteteak iragarriko dauk; len baño len bidaliko yoat erregeren yauregira.

PANTIN'ek.—Eder ba'yatzu, biar dira Albon-tsa yauna ta beste gizazindo batzuk erre-

geri agur egiten yoateko; agur egiten eta ari on deretxon otseintzea opatzeko.

ANDONI'k.—Laguntza ona dok ori; orreikin yoango dok gure Porteu. Eta ordu onean, gero; or yatok bera.

PORTEU aurrera.

PORTEU'k.—Maitasunaren ezti! Lerroon ezti! Bizitzearen ezti! Au aren eskua da, aren biotzaren bitartekoa; emen dago aren maitasunaren zina, aren deduaren baia; gure gurasoak ederretsiko al dabe alkarregana-ko gure maitasuna, gure maitasunari euren ederretsiaeren ikuratzza ezarteko! Zerutiko Yule ori!

ANDONI'k.—Ze barri dok? Ze idazki irakurten daragoiok?

PORTEU'k.—Eder izango al yatzu, baño bi edo iru gorantzizko baño ez dira, Balendin'ek bidali ta agandiko adiskidek ekarriak.

ANDONI'k.—Ekak idazki ori, ze barri dakarren dakusdan.

PORTEU'k.—Eztakar barririk, ene yaun; ez besterik zori ontsu bizi dala, maite-maite dabela, erregek egunetik egunera maite-erakutsi barririk egiten dautsala, ta bere zori onaren erkide izateko ni an gura nindukela baño.

ANDONI'k.—Eta ik aren gurariari erantzuteko gogorik ete dok?

PORTEU'k.—Nire gogoa zu nire yaun orren guraria egiteko da, ez aren adiskide-gurarririk.

ANDONI'k.—Nire guraria zertxobait arena-gaz batera yoten dauena dok izan; ez ibili or buruari bear eragiten, nire erabagia zegaitik dan onan bat-bateko yakin gurarik; eta izan be, nire guraria nire gurari dok, eta ori dok dana. Ni erabagita naigok ik aldikada baten erregeren yauregian egon bear dokala Balendin'ekin; ak bere etxetik artzen dauen eskuartea beste-kozik emongo daukat nik be niretik. Gertau adi biar yoateko; ez etorri nigana aiko-maikogaz, ni gauzak zirti-zarta egitekoa nok-eta.

PORTEU'k.—Ene yaun, ni ezin gertu naiteke orren arin; emoidazu, arren, egun bat edo biko eperik.

ANDONI'k.—Aiko, ik bear dokana ire atzetik yoango dok; etxagok emen luzarago egoterik; biar yoan bear dok.—Gaiçaaan, Pantin; iri orren urteerea gertatzeko zeregina

ezarriko dauskat. (ANDONI'k eta PANTIN'ek alde).
 PORTEU'k.—Erretereko bildurrez sutondotik alde egin dot, eta ara non itxasoan busti-busti egin eta ito nazan; Yule'ganako nire maitasunari ak akatsik aurkituko eutsalakotan, aren idazkia nire aitari erakusten bildur izan naz, eta nerau nire yokabideaz lagun izan naiako aitari nire maitasunari eragozpen geiago ezarteko. Ene! Maitasunaren udabarri au bai ba-dala Yorraileko eguraldi bada-ezpadakoaren aintzaren antze-

ko; orain eguzkiaren edertasunik zoragarriena darakus, eta bertatik odeiak estaltzen dau!

PANTIN aurrera ostera be.

PANTIN'ek.—Porteu yaun, zure aita deiez dagotzu; estu ta iradu dago a; orrazkero, arren, zoakoz arin.

PORTEU'k.—Au be ba-dok, ba; nire biotzak baietz diño; eta orraitíño be milla bider ba-diño ezetz (Alde daji).

II EKITALDI

I AGERLEKU.—MILANO.DUKEA'ren Yauregiko gela.

BELANDIN eta BIZKOR aurrera.

BIZKOR'ek.—(Esku-zorro eragiaz). Yaun, amen amen zure eskuzorroa.

BELENDIN'ek.—Ori eztoz nirerik; nik nireak aldean yaukazat.

BIZKOR'ek.—Ba, orrazkero, au zurerik izan leiteke, au bakar yatzu-ta.

BELENDIN'ek.—Ostera! Ikusi egin bear yoat; bai, ekak; neure dok; ori yaungoikozko zera estaltzen dauen estalgi dok; ene Silbel Silbe!

BIZKOR'ek.—(Deiez) Silbe andera! Silbe andera!

BELENDIN'ek.—Zetan abil, yaunko?

BIZKOR'ek.—Urrinegi dago entzuteko, yaun.

BELENDIN'ek.—Nok agindu dauk ari dei egiteko, yaun?

BIZKOR'ek.—Zeuk, yaun orrek; edo ostean oker nago.

BELENDIN'ek.—I bat-batekoegi az.

BIZKOR'ek.—Eta orraitíño geldoegi izanagaitik egin daustazu agirika azkenengoz.

BELENDIN'ek.—Tiruk, tiruk, yaun; esaidak, ezagun dok ik Silbe anderea, ala?

BIZKOR'ek.—Zuk yaun orrek maite dozuna, ala?

BELENDIN'ek.—Ostera! Nondik dakik ik ni maiteminduta nagonik?

BIZKOR'ek.—Ba! ezaugarrietatik dakit ori: lenen, Porteu yaunak lez, gogoz bestera bizi danak lez besoak aume egiten ikasi dozu; txindorraren antzera, maite-abestiak yatzuz gogoko; bakarti egin zara, izurriduna legetxe; intziri egiten dozu, bere Agakea galdu dauen irakasteqi-mutikoaren antzera; gabaz atzarrik zagoz, lapurrek ostuko dautsoenaren bildur danaren antzera; eskekoak Domusantuetan legetxe, negar-zinkurinka zabiltz. Barre egiten zebanean, zuk

ollarrak legetxe kukurruku egiten zeban; ibiltzen zintzazanean, leoi baizintzazan ibiltzen zintzazan; baraurik egiten zebanean, ondo yanda ara egiten zeban; gotilun egoten zintzazanean, dirurik etzebalako izaten zan; eta orain emakumek antzaldatuta zagoz-eta, zu begiratzen zaudazanean, nekez zaudaz ezagun nire ugazabatzat.

BELENDIN'ek.—Orrako zer guztiok oartu ta ikusten ete dozak nigan?

BIZKOR'ek.—Orrako zerok zugan barik zure azalean agiri dira.

BELENDIN'ek.—Nire azalean? Olangorik ezin izan leitekek.

BIZKOR'ek.—Zure azalean? Bai, ori agirian dago; eta izan be, azalean ezpa'lekoz, bestek ikusi al izateko zuk garden izan bear-ko zeunke; baña yazoten dana da, zeu zagozala zorakerion azalean, eta zorakeriok zure barruan, eta zu zear argi egiten dabe, urak txizontzian legetxe; eta ori dala-ta, zu zakusan begi oro zure gatxaz esamesaka daragoion osagile yatzu.

BELENDIN'ek.—Baña esaidak, nire andera Silbe ezagun dok ik, ala?

BIZKOR'ek.—Apaltzerakoan yezarrita dagonen, zuk onan, onan begiratzen dozuna, ala?

BELENDIN'ek.—Orretaz be oartu az, ala? Bai-axe bera.

BIZKOR'ek.—Ba, yaun, nik eztoz ezagun orra-ko ori.

BELENDIN'ek.—Nik begiratzen dodalako ezagun dokala esan dok, eta orraitíño eztokala ezagun diñok?

BIZKOR'ek.—Ez ete da maitagarri, yaun?

BELENDIN'ek.—Lirain baño maitagarriago, mutil.

BIZKOR'ek.—Ori ba-dakit neuk be.

BALENDIN'ek.—Zer dakik ik?
 BIZKOR'ek.—A ezala zuk maite dozun bes-
 tean lirain.
 BALENDIN'ek.—Nik esan gura dodana zera
 dok, aren edertasuna bikainenik bikainena
 dala, baña aren maitagarritasuna neurritz
 gorako.
 BIZKOR'ek.—Ori zeragaitik da, bata margoz-
 tua ta bestea zenbatu-ezina dalako.
 BALENDIN'ek.—Zelan margozturik? Eta zelan
 zenbatu-ezinik?
 BIZKOR'ek.—Ba! yaun, bere burua edertzeko
 margoztuaren margoztuaren edertasuna
 iñok be eztau artzen aintzakotzat.
 BALENDIN'ek.—Zertzakotzat naukalk? Nik ain-
 tzakotzat yoat aren edertasuna.
 BIZKOR'ek.—Zuk eztozu ikusi izan a itsusitu
 danazkero.
 BALENDIN'ek.—Noztik ona yagok a itsusituta?
 BIZKOR'ek.—Zuk maite izan dozuanazkero.
 BALENDIN'ek.—Lenengoz ikusi nebanazkero
 maite izan yoat nik a; eta oindiño be a li-
 rain agiri yatak.
 BIZKOR'ek.—Maite ba' dozu, ezin dozu ikusi.
 BALENDIN'ek.—Zegaitik?
 BIZKOR'ek.—Maitasuna itsu dalako. Nire be-
 giak al zenduz; edo-ta zure begiak al le-
 be zuk bein Porteu'ri, gaitzerdiak lotzeka
 ebilelako, agirika egin zeuntsanean eu-
 kien argia!
 BALENDIN'ek.—Zer dok, orrazkero, nik ikusi
 bear neunkena?
 BIZKOR'ek.—Oraingo zure zorakeria ta No
 aren itsusitasun neurritz gorakoa; eta izan
 be, ak, maiteminduta egokalako, ezin eban
 ikusi galtzerdia lotzeka eukanik; eta zuk
 orain, maiteminduta zagozalako, ezin dozu
 ikusi galtzerdi barik zagozanik.
 BALENDIN'ek.—Orrazkero, mutil, ba-leitekek
 i eu be maiteminduta egotea, azkenengo
 goxean nire oñetakoak ikuzi (garbitu) bear
 dozakanik ezin ikusi izan dok-eta.
 BIZKOR'ek.—Egia, yaun; nire oieagaz mai-
 teminduta nengotzun; eskerrik asko damo-
 tzut nire maitasunagaitik aztindu ninduzu-
 lako, eta orrexegaitik ni azarriago nozu zu-
 reagaitik zuri asarre egiteko.
 BALENDIN'ek.—Labur esateko, ni ari leiaturik
 eta intsigirik naiagok.
 BIZKOR'ek.—Areri buztartuta al zengoz: olan
 amaituko litzake zure leiea.
 BALENDIN'ek.—Bart ak maite dauen bateri
 idaztera bearrtu nindun.
 BIZKOR'ek.—Eta zuk idatzi dautsazu, ala?
 BALENDIN'ek.—Bai.
 BIZKOR'ek.—Orrako lerrook ez ete dozuz ida-
 tzi meiki, gero?

BALENDIN'ek.—Ez, mutil, al izan dodanik
 ondoen baño:... Ixil: or yatok bera.
 BIZKOR'ek.—(Bere kitean) Orrena bai eska-
 kizuna! eta beste onen bendekokeriarena!
 eta onek orain azaldu egingo dautsa No
 orreri.

SILBE aurrera.

BALENDIN'ek.—Andera ta nire yabe ori,
 egun on milla bider.
 BIZKOR'ek.—(Bere kitean) Bai, gau on esai-
 zu!... Baietz egin orain No orrek milloi bat
 mosu.
 SILBE'k.—Balendin yaun eta nire otsein (4),
 bi milla zuri.
 BIZKOR'ek.—(Bere Kitean) Onek ordaindu bear
 leuskioz orri irabaziak, eta ori da oni da-
 motsazana.
 BALENDIN'ek.—Zuk agindu zeunstaneez, ida-
 tzi dot zure idazkia zure adiskide ixilpeko
 izenbakorentzat; eta zukanako bearturik
 ezpa'nengo, olangorik idazteko gogorik
 eneunkake nik.
 SILBE'k.—Eskerrik asko, otsein zindo orri.
 Idazkia ederto idatzita dago, gero.
 BALENDIN'ek.—Sinis egidazu baña, andera,
 nekez idatzi dodala, norentzako zanik enen-
 kianazkero burura etorri-ala ta ezbaika
 idatzi dot-eta.
 SILBE'k.—Zuk gogotanegi dozuz zure nekeak,
 ala?
 BALENDIN'ek.—Orrenbesterik ez, andera; go-
 goko ba'yatzu, agindu baño eztozu, ta nik
 olango milla be idatziko dautzudaz; orrai-
 tiño be...
 SILBE'k.—Esakera polita benetan! Ondo
 dago, ba-dakit nik orren ondorena, baña
 eztautzu aipatuko: eta orraitino be eztaust
 ardura: (Ingi damotso) eta orraitino eutsi
 au: eta orraitino eskerrik asko, emendik
 aurrera zuri nekerik emoteko asmorik ez-
 tot-eta.
 BIZKOR'ek.—(Bere kitean) Eta orraitino emon-
 go dautsazu, bein eta burriro.
 BALENDIN'ek.—Zer esan gura dozu andera
 orrek? Etxatzu gogoko, ala?
 SILBE'k.—Bai, bai; lerroak bikain dagoz ida-
 tzi; baña gogoaz bestera idatzi dozuz-
 nazkero, eutsiz ostera be; bai, bai, artuizuz.
 (Idazkia atzera damotso).

(4) Shakespeare'n aldian andikietariko
 emakume euren maitaleai "nire otsein" dei-
 txeko ekandua eben. Alditik aldira ekandua
 be aldatu egiten dira ludi aldira uts
 onetan, eta gaur eder dan ekandua, biar
 itsusi agertzen da.

BALENDIN'ek.—Andera, zutzako da ori.
 SILBE'k.—Bai, bai, nire aginduz idatzi dozu zuk, yaun; baña eztoz gura; lerrook zeutzako dira izan eta nik biotz-eragingarriagorik gura neban.
 BALENDIN'ek.—Eder bekizu ta nik besterik idatziko dautzut.
 SILBE'k.—Eta idatzi dagizunean irakurri egizuz zure lerroak nigaitik; gogoko ba'yatzuz, ondo; bai, ezpa'yatzuz be.
 BALENDIN'ek.—Gogoko ba'yataz, andera! Zer gogoko ba'yataz?
 SILBE'k.—Ba, gogoko ba'yatzuz, artuizuz zure nekeen alderako. Eta, orrazkero, egun on, otsein orri (SILBE'k alde).
 BIZKOR'ek.—Izkirimiri au eguño ikusi ezta-na, asmau-ezina ta ikusi-ezina da, gizonaren arpegian surra ta tellatu-gallurrean axerorratza legetxe! Nire ugazaba maitasun-eske dabilko ari, eta ak nire ugazaba aren ikasle zanari aren irakasle izaten irakatsi dautsa. Asmamenaren inñondiko! Eguño entzun ete da olangorik, nire ugazabak, idazlerena eginda, beretzako idazkirik idatzi bear dauela?
 BALENDIN'ek.—Ze barri dok, yaun? Zer darabilk ire buruan?
 BIZKOR'ek.—Nik itz neurtuak egiten erago dautsat; zu zeu zara gauzak buruan darabiltzuzana.
 BALENDIN'ek.—Zer egiteko?
 BIZKOR'ek.—Silbe anderearen bitartekoarena egiteko.
 BALENDIN'ek.—Nogazko?
 BIZKOR'ek.—Zeugazko: ba! No a zearka-mearka zuri maitasuna iragarten dabilzuz.
 BALENDIN'ek.—Nongo zearka-mearkaz?
 BIZKOR'ek.—Idazkiz, garbi esateko.
 BALENDIN'ek.—Ostera! ak etxastak idatzi niri.

BIZKOR'ek.—Ez eukan idatzi-bearrik be, zutzako zeuri idatziaz do dautzu-ta. Ez ete zara oartzten izkirimiri ta igarkizunaz?
 BALENDIN'ek.—Ez ba, eta sinis egidak.
 BIZKOR'ek.—Izan be, zuk eztozu sinistu, yaun. Baña ez ete dozu ikusi a benetan dabilenik?
 BALENDIN'ek.—Ak erantzun garratzaz besterik etxastak emon.
 BIZKOR'ek.—Ba! ak idazki emon dautzu.
 BALENDIN'ek.—A idazkia neuk aren adiskideri idatzia izan dok.
 BIZKOR'ek.—Eta a idazkia zuri emon dautzu, ta aor gauzea argi ta garbi.
 BALENDIN'ek.—Ez al litzok ori baño txarra-gorik.
 BIZKOR'ek.—Baietz izan nik diñodana.
 "Eta, izan be, zuk sarritan idatzi dautsazu ari:
 Eta ak, lotsaz naiz astirik ezaz, ez erantzunik:
 Edo-ta, geznarik aren asmao igarrikoren bildurrez
 Bere maiteari irakatsi ak bere ordez idazten
 No aren maitearentzako, ganorarik bikaine-nez".

Onako au idatzi irarritik artuta dirautzut, idazti irarrian aurkitu izan dot-eta... Zer dala-ta daragoiozu or gogaketa ta gogaketa? Bazkai-tordu da.

BALENDIN'ek.—Bazkaldu yoat nik.
 BIZKOR'ek.—Bai, baña entzun, yaun: maitasun erubea bizi al izango da eguratsaz elikatuta, baña ni yaki sendoagok elikatze-ko-rik nozu-ta, nik okelea gura neunke: ene! etzadiz izan zure biotzaren kutuna lango-rik: eragina zadiz, eragina zadiz.

(Alde dagie)

II AGERLEKU.—BERONA. YULE'neko txoki.

PORTEU ta YULE aurrera.

PORTEU'k.—Epe artu, Yule maite orrek.
 YULE'k.—Beste biderik eztagonazkero, artu bear ko dot.
 PORTEU'k.—Inñondik eta inñora al dodanean atzera etorriko naz.
 YULE'k.—Yoan ezpa'zadiz yoan, lenago etorriko zara; oroiagarri au euki zure Yule'n aldetik (Erestun damotso).
 PORTEU'k.—Ba, orrazkero, ar-emon egingo dogu: eutsi, artu au.
 YULE'k.—Eta egijuneari ikurratza ezarri al-kari mun zindo bana eginaz.

PORTEU'k.—Eutsi esku au be nire benetako zintzotasunaren agirizat; eta ordurik igaro ba'dakit igaro, Yule, zugaatik intziririk egiteka, betoz urrengo orduan zori txar guztiak nire ganera, nik nire maitea aztu izanagaitik! Begira daukat aita; ez erantzun zuk; eldu da izkorea, baña ez negarrena; eta izkora orrek ni nik gura baño luzaroago egonazoko nau. (YULE'k alde). Agur, Yule... Zelan dok au! Itzik be egiteka yoan da, ala? Bai, orixe da benetako maitasunak egin bear leukena; ezin dau itzik egin; eta izan be, itzez baño egitez ederragoazen da zintzotasuna.

PANTIN aurrera.

PANTIN'ek.—Porteu yaun, zure begira dozu aita.

PORTEU'k.—Zoaz; ba-noa, ba-noa: ...al ene! alkarregandik alde egite onek maiteak mingetu egin daroaz. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Lengoxea. Etxarte bide.

LONTZ aurrera, txakur bat lokarritik daroala.
LONTZ'ek.—Bai, ordubete izango da nik negarra itxi orduko; gaitz berberau dau Lontz'tarren sendiak: nik artu dot nire laina, seme ondatzallearen antzera, eta Porteu yaunakin errege-urira noa. Nire ustez, gure txakur Karramarro bizi diran txakur guztietarik biotz-gogorrena da: nire ama negarrez, nire aita intzirika, nire arrebea negar-arrantzaka, gure otsein-neskea gedarrez, gure katua besoak kirimilduta, eta gure etxe guztia nastuta ta zer egin eztakiala: eta orraitio abere txatxar onek negartxo bat bera bez: au arri utsezko da, errekarri utsezko, ta txakurrek baño erruki geiagorik eztau: guk alkarri agur egiterakoan Yudarrek be negar egingo leukean: ara, nire amamak eztau begirik, gero, baño orraitio be nik alde egikeran negarraren negarrez itsutu egin zan. Bai, neuk irakatsiko dauskat gauzak ondo egiten; oski au nire aita dok ...ez, ezkerreko oskia dok nire aita; ...ez, ez, ezkerreko oski au nire ama dok; ez, ori be ezin izan leitekek; bai, olan dok, olan dok; orrek yaukak azpirik txarrena. Azpian zuloa dauen ezkerreko oski au dok nire ama, eta beste au nire aita. Or yoak apena, eutso. Orain, yaun, makila au nire arrebea dok; eta izan be, a lili baxen zuri ta bardatxoa bestean txiki dok, gero; txapel au gure neska otsein Nan dok: ni txakur nok: ...ez, txakurra bera dok txakur, eta ni txakurra nok; ene! ni naz txakurra, eta ni neu nok; bai, orixe, orixe. Aitagana noa orain: "Aita, ekazu zure onespena"; eta oskiak negarraren negarrez ezin dau itzik egin; orain nire aitari mun egin bear neunskio; ondo dago, oraindik negarrez daragoio: ...orain amagana noa (Ene! a orain itz egiteko gauz ba'litz!) zurezko emakume bailitzan; ...ondo dago, mun dago; ...ara, emen da; bai, emen dogu nire ama arnaseaz bularra yaqi ta yatsi egiten yakola; orain nire arrebeagana noa; oartu aren zinkurinak; txakurrak ostera aldi

guzi onetan eztau ixuri negar bat bera be; itzik egin bez battxo be; baño ikusik nik zelan iminten dodan lurreko autsa negarrez.

PANTIN aurrera.

PANTIN'ek.—Lontz, alde, alde ontzira; ire ugazaba dagoneko ontzian dok, eta ik arraunka goatu bearko dok. Olangorik! zer yazoten yak olan negar egiteko, gizon? Alde, asto orrek; izkorea galduko dozue emen luzarago irautekotan.

LONTZ'ek.—Eleuskit ardura izkorea galduagaitik, inoz izkorarik ezpa'litz gurago neunke-ta.

PANTIN'ek.—Zer dok ori?

LONTZ'ek.—Zer izango da .ba? Emen lotuta daroadan Karramarro txakurra.

PANTIN'ek.—Ori baño ezpa'dok, gizon! Nik esan gura dodana zera dok, ik itxas-gorea galduko dokala; eta itxas-gorea galduazkero, ire bidaldia galtzen dok; eta ire bidaldia galduazkero, ire ugazaba galtzen dok; eta ire ugazaba galtzekotan, ire otseintzea galtzen dok; eta ire otseintzea galduazkero..., Zegaitik isten daustak agoa?

LONTZ'ek.—Zure miña galduko dozulakoaren bildurrez.

PANTIN'ek.—Non galduko naioan ba nire miña?

LONTZ'ek.—Zure ipuinean.

PANTIN'ek.—Ire ipurdian, ala?

LONTZ'ek.—Izkorea, ibiltaldia, ta ugazaba, ta otseintzea galdu? Izkorea! ba, gizon, ibaia legortuko ba'litz be asko nintzake ni nire negarrez beteteko; axea gelditu ba'ledi, nire intziarik asko litzatekez ontziari eragiteko.

PANTIN'ek.—Oa, oa, gizon; iri dei egiteko bidali naioek.

LONTZ'ek.—Yaun, zeuk zer-gura deitu nagizu.

PANTIN'ek.—Yoango ete az?

LONTZ'ek.—Bai, yoango naz. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.—MILANO. DUKEA'ren Yauregiko gela.

BELENDIN, SILBE,TURI ta BIZKOR aurrera.
 SILBE'k.—Nire otsein ori...
 BALENDIN'ek.—Ugazabandera?
 BIZKOR'ek.—Ugazaba, Turi yaunak betozkoa okertzen dautzu.
 BALENDI'ek.—Bai, mutil, maitasunarren egiten yok orrako ori.
 BIZKOR'ek.—Ez zuganakoarenarren.
 BALENDIN'ek.—Orrazkero, nire ugazabandeanarren.
 BIZKOR'ek.—Oba zenduke zuk orri belarriak berotu.
 SILBE'k.—Nire otsein ori, zu itun eta gotilun zagoz.
 BALENDIN'ek.—Bai, izan be, andera, olantxe nagola uste dot.
 TURI'k.—Etzareanarena egiten dozula uste dozu, ala?
 BALENDIN'ek.—Zori onez, orixe egiten yoat.
 TURI'k.—Olantxe egiten yoek azalutsak.
 BALENDIN'ek.—Ik egiten dok olan.
 TURI'k.—Enazan zerena egiten yoat nik?
 BALENDIN'ek.—Zurrarena.
 TURI'k.—Zer dala-ta nok besterik?
 BALENDIN'ek.—Ire zorakeriagaitik.
 TNRI'k.—Zegaitik aipatzen dok nire zorakeririk?
 BALENDIN'ek.—Ire yakean ikusi dakustalako.
 TURI'k.—Nire yakea gorantxa dok.
 BALENDIN'ek.—Ba, orrazkero, ire zorakeria bera ta beste ainbesteko dok.
 TURI'k.—Zer esan dok?
 SILBE'k.—Olangorik! Asarre zauguz, Turi yaun ori, ala? Zegaitik aldatzen yatzuz arpegiko margoak?
 BALENDIN'ek.—Geldi itxizu ori andera; ori eribetariko yatzu.
 TURI'k.—Ire eguratsetan biziteko baño ire odola edateko gogo geiago dauena.
 BALENDIN'ek.—Euk esan dok, yaun.
 TURI'k.—Bai, yaun, eta egin be bai oraingoz.
 BALENDIN'ek.—Ori ondo yakiat, yaun; ik be ti amaitzen dok asi baño len.
 SILBE'k.—Itz-zaparrada galanta, gizazindook, eta arin egotzia, gero.
 BALENDIN'ek.—Bai izan be, andera; emolleari esker oneko gaiakoz.
 SILBE'k.—Nor da orrako ori, otsein?
 BALENDIN'ek.—Zeu andera ezti ori; su emon dautsazuna zeu izan zara-ta. Turi yaunak bere sentzuna zure begirakuneetatik yesaten dau, eta yesan-ala txeratsu zuri lagun egiten eralтен dau.
 TURI'k.—Itzak ganora barik eralgi ba'dagi-

zak, laster eragingo yautsat ire sentzunari porrot.
 BALENDI'ek.—Ori ondo yakiat, yaun; i itzontzi az eta, nire ustez, ik eztalkak itzaz besterik ire yarraileai emoteko; ire otsein yantziak iragarten dabenez, ik eztalkak itzaz besterik ai emoteko.
 SILBE'k.—Asko da, yaunak, asko da; or dator nire aita.

DUKEA aurrera.

DUKEAK.—Silbe alaba, estu-esturik zabez orreik, Balendin yaun, onik dago zure aita; zer dozu zuk barri ezin-obeak bidali dautzuezan adiskideai esateko?
 BALENDIN'ek.—Ene yaun, ni esker oneko izango naioka andik letorken edozein gez-nari zori onekori.
 DUKEAK.—Ezagun ete dok ire urikide Andoni?
 BALENDIN'ek.—Bai, ene yaun on; ba-dakit gizon ori benetako gizazindo ta aintzakogarrri dana, ta bestek olangotzat estea ondo irabazita daukana.
 DUKEAK.—Ez ete yok ak semerik?
 BALENDIN'ek.—Bai, ene yaun on; olango aitarik eukitearen dedua ta omena ondo irabazita daukan seme izan be.
 DUKEAK.—Ondo ezagun dok ik, ala?
 BALENDIN'ek.—Neure burua bestean dot ezagun, gure seintzarotik onako egunak alkarrekin egin eta igaro doguz-eta: eta nik, arlote onek, nire burua angeru-antzeko osotasunez yantzi-ordez astia alperrik galdu baño egin ezarren. Porteu yaunak, -izan be Porteu yako izena-, bere egunak alperrik galtzeka, onura andia atera izan dautse; aren urteak gazte dira, baño ak ikusiz ikasia, zar; aren burua oraindik umatzeko, baño aren sentzuna, eldurik; eta, labur esateko, nik aren alde egin dodazan gorape-nak aren lain izatetik urrin dagoz-ta, a oso-bete da soñez eta gogoz, gizazindorik apaindu leikien apaingarri guztiak aldean dauzala.
 DUKEAK.—Izurriak eroan nagiala, yaun, orren on izanik, a errege-alabaren maitasungarri izateko bestean erregeren onulari izateko be ezpa'da. Ondo dago, yaun; gizazindo ori nigana etorteko dok, andiki-andikien gorantzi ta guzti; ak emen aldikada egiteko asmo yok, eta etxoat uste orrako ori ire gogoaz besterako izango danik.

BALENDI'ek.—Ezer gura izatekotan, orixe gurako neunkean nik.

DUKEAK.—Orazkero, aren lainari dagokion ondo etorria egiok; Silbe, zuri nagotzu; eta iri, Turi yaun orri; Balendin'eri buruz, ez-tot orri onurik emon-bearririk laster bidaliko dautzuet ona. (Dukeak alde).

BALENDIN'ek.—Ori da nik aipatu neuntzun gizazindoa ta nikin etorri izango litzakeana, aren ugazabandereak aren begiak bere leiarrezko begirakuneetan lotuta euki izan ezpa'leuz.

SILBE'k.—Ba-leiteke orain No ak azkatu ba'dauz, bere zintzotasuna besteren bati opatu izan dautsalako izatea.

BALENDI'ek.—Eztot uste olangorik; ak, nire ustez, oraindik be No aren atxilo daukaz.

SILBE'k.—Ba, orrazkero, ak itsu izan bear leu-ke, eta itsu izatekotan, zelan billatu ta idoroteko zuganako biderik?

BALENDIN'ek.—Bai zera, andera, maitasunak ogei biko begi dauz.

TURI'k.—Or diñoenez, maitasunak eztau begirik zelangoa danik be.

BALENDI'ek.—I lango maitalerik ikusteko ez, Turi; gauza zirtziliek ez ikusteko, maitasunak begiak itxi-ezunik etxuk.

PORTEU aurrera.

SILBE'k.—Bego, bego; emen dator gizazindoa.

BALENDIN'ek.—Ondo etorria augu, Porteu maite ori! Ugazabandera, sendetsi egizu, arren, ondo etorri au berarizko emaitzen batlegaz.

SILBE'k.—Zuk ainbeste bider orren barriak yakiteko gogoia iragarri dozuna ba'dogu au, onen laina da bairik asko oni ondo etorri-rik biotzelikoena egiten dautsagula.

BALENDIN'ek.—Ugazabandera, izan be bada; andera ezti orrek, itz egiozu, ori be nikin batera zu andera orren otsein izan dakizun.

SILBE'k.—Ni ugazabandera bekoegi nozu orren goiko otseintzarako.

PORTEU'k.—Ez olangorik, andera ezti; ugazabandera orren lainek begirakunerik egiteko otsein zirtzillegi baño.

BALENDI'ek.—Baztarrera eragin gai-zezko eragoketok: andera ezti, zure otseintzat ar egizu.

PORTEU'k.—Nire arrokizun bakarra egin-bearraren bendeko izatea da; eztot beste arrokizunik.

SILBE'k.—Eta egin-bearraren bendeko izateak beti izan dau bere saria. Otsein, ondo etorria zara ezeren lain eztan ugazabandera onegana.

PORTEU'k.—Zeuk ez bestek esan ba'legi olangorik, bizia kenduko neunskio.

SILBE'k.—Zu ondo etorria zareala, ala?

PORTEU'k.—Ez; zu ezeren lain etzareala.

OTSEIN aurrera.

OTSEINAK.—Andera, nire ugazaba zure aitak zukin itz egiteko gogo dau.

SILBE'k.—Ni aren ederraren otsein nozu. (Alde dagi. Goazen Turi yaun erdu nikin.

-Beste bein otsein barri ondo etorria. Nik emen izten zauedaz zuon etxeetako arazoez itz egiteko; zuok zuona amaitu dagizue-nean etorriko gara zuekana.

PORTEU'k.—Geu biok yoango gara zu andera orren esanera yarteko. (SILBE'k TURI'k eta BIZKOR'ek alde).

BALENDIN'ek.—Esaidak orain zelan yagozak gure errikoak?

PORTEU'k.—Ire adiskideak onik eta itzako gorantziak emon yaustezak.

BALENDIN'ek.—Eta ireak zelan yagozak?

PORTEU'k.—Danak itxi yoazat osasunez.

BALENDIN'ek.—Zelan yagok ire maztegeia?

Eta zelan yoak zuon arteko maitasuna?

PORTEU'k.—Maitasunazko nire esanak itzako gogaikarri zoazan; ba-yakiat nik ik ezto-kala pozik maitasunazko eragotan.

BALENDIN'ek.—Bai, olantxe dok, Porteu; baña orain besterik dok, orain nire bizia aldatu dok; oben-nekea yasaten yaragoioat maitasuna ezetsi, zapuztu izanagaitik; maitasunaren gogaketa nagusi aginkorrek barru latzez, garbai-urruz, gaboroko negarez, eta biotz ausizko egunoroko intziriz zigortau naiok; eta izan be, nik maitasuna aintzakotzat artu ez izanagaitik, aperbidez maitasunak nire begi benderatuetatik loa ustu, ta nire begiok nire biotzeko naibagearen yagola egin yozak. Porteu maitagarri ori, yaun andi dok, maitasuna gero; eta, dautortanez, ondo be ondo makurtu ta apaldu naiok, eta etxagok zigorrik gizona ak bestean zigortzen dauenik; baña aldi berean, etxagok lurrean aren otseintzan besteko pozik be! Orain etxoat nik maitasunaz beste eragorik; orain nire barauskarri, bazkari, apari, ta loa maitasun-izen utsezko izan leitekezak.

PORTEU'k.—Asko dok; ire begietan yirakurrat ire zori ona; emen egon dana dok ik orrenbestean yauresten dokana, ala?

BALENDI'ek.—Axe bera; eztok a zerutiko deunik, ala?

PORTEU'k.—Ez; orraitioño lurreko eredu bai ba-dok.

BALENDIN'ek.—Yaungoikozko deitu egik.

PORTEU'k.—Ni enaioak ari zurikeririk esaten.
BALENDIN'ek.—Ba! neu zuritu nagik; maitasunaren poza gorapenak dozak-eta.

PORTEU'k.—Ni gexorik nengoanean ilk boro-billi mingotsak emoten eunstanean, eta ora-in iri beste ainbeste emon bear dauskat.

BALENDIN'ek.—Orrazkero, aretaz egia esaidak; yaungoikozko ezpa'dok, emakumerik andienetariko, lurreko izaki guztietarik gorango dala esaik.

PORTEU'k.—Nire ugazabanderea ez beste guztiak baño goragoko.

BELENDIN'ek.—Ezti orrek, ez egik a inoren urren yarri, nire iganako maitasuna beste inoren urren yarri gura ezpa'dok.

PORTEU'k.—Ez ete naiagok zuzen neurea obetsiaz?

BALENDIN'ek.—Eta neu izango naiatik lagun a obesteko be; ireak nirearen yantzibuztanari eusteko dedu lango dedu izango yok, lur zakarrak aren yantzien ixileko munik artu eztagian, eta orrenbesteko emaitzez arrotirik, udako lora guriari yakia ukatu ta negua betiko egin eztagian.

PORTEU'k.—Ostera! Ze arropuzkeri dok ori, Balendin?

BALENDIN'ek.—Azketsi nagik, Porteu; nik al dodan guztia utsa dok arientzako, aren lainaren aldean beste guztienak deusik eztozak-eta; bakarra dok a.

PORTEU'k.—Orrazkero, geldi ta bakarrik itxik,

BALENDIN'ek.—Ez ludi osoagaitik be; ba, gizon, neure dok a; eta ni neu, alango pitxirik eukiaz, ogei itxaso bestean aberats nok, euren ondar guztia txirila-arri, ura yainko-edari, ta aitz guztiak urregorri ba' litzozak. Azketsi nagik iretazko amesik egi-ten ezpa'yoat, euk dakusakanez, ni aren maitasunak txotxatuta naiaukaketa. Bere ondasun itzalakaitik bakar-bakarrik nire maitearen aitari gogoko yakon nire leiakidea nire maiteakin batera yoana dok; eta nik aren yarrai yoan bear yoat, euk dakikanez, maitasuna tuku utsa dok-eta.

PORTEU'k.—Ire maiteak ez au maite, ala?

BALENDIN'ek.—Bai, alkarri ezkon-itza emonik gagozak; ori baño areago; gure ezkon-tza-aldia bera be, gure igesiaren marrobide zur ta guzti, izentauta yagok; lokarizko zurubi eginda, zelan igon bear dodan aren leiora; eta nire zori onerako bide guztiak asmauta ta ontzat emonda yoguzak. Porteu on ori, ator neukin nire logelara; arazo onetan ire onuz nire lagun izateko.

PORTEU'k.—Oa nire aurretik; geroago yoango nok ire billa; nik kaira yoan bear yoat, nik erabili-bearreko zer batzuk ontziatik legorreatzeko; bein orrako ori eginazkero bertatik izango nok iri laguntzeko.

BALENDIN'ek.—Arin egingo ete dok?

PORTEU'ek.—Bai, mutil. (BALENDIN'ek alde)

Berok beste berorik uxatzen dauenez, edo-ta untzek beste untzerik indarrez ateraten dauenez, maitasun barri onek nire lengoa guztiz aztuazo daust. Neska orren benetako osotasunik, ala nire begiak ala Balendin'en gorapenak, ala nire salkeri ustelak onan itz eragiten ete daust, bide barrik? Lirain da neska ori eta olangoxe da nik maite dodan Yule..., maite nebana esan beariko, aganako nire maitasuna urtu daita; suaren aurrean iminten dan argizagizko irudiaren antzera, ak eztau orain lengo antzik. Nire ustez, Balendin'ganako nire leiea otzitu egin da, ta nik ezto maite a len bestean; ene! neuk be maite dot andera ori, bai lar be; eta orregaitik maite dot Balendin onen gitxi. Zelan maite izango ete dot neska ori bururik geiagogaz, onen buru gitxi-gaz onan maite izaten asi ba'naz? Orain artean orren irudiaz besterik ezto ikusi, eta ori izan da asko nire burubidearen argia iluntzeko; baña orren osotasuna begiratu ta dakusdanean seguru-segurutik itsututa geldituko naz. Okerreko nire maitasunari gogor egin al ba'dagiot, egingo dausta; ostean, aurrera erateko nire arte, ganora ta bide guztiak artuko dodaz. (Alde daqi).

V AGERLEKU.--Lengoxea, Etxartebide

LONTZ eta BIZKOR aurrera.

BIZKOR'ek.—Lontz! nire zintzotasunarren, Milano'ra ondo etorria augu.

LONTZ'ek.—Ez egik zinik ausi, gazte ezti orrek; ni enok ondo etorririk-eta. Nik au yoat beti buruan... gizonik eztagola ondaututa eskegi dagien arteño; eta eztauela inoz ondo etorririk artzen arik eta arroztegi-sa-

ria ordaindu ta arroztegi-yabeak Ondo etorria zauguz esan dagion arte.

BIZKOR'ek.—Tiruk, tentel ori; gesu baten neukin garardotegira eroango aut; eta an, erlain bat ordainduazkero, bost milla ondo etorri artuko dozak. Baña, yauntxo, zelan arrano alde egin yok ire ugazabak Yule andereagandik?

LONTZ'ek.—Ba! Alkarrekin batuta benetan egonda, txantxetan polito egin yoek alkerregandik alde.

BIZKOR'ek.—Baña neska a orrekin ezkonduko ete dok?

LONTZ'ek.—Ez.

BIZKOR'ek.—Zelan, ba? Mutilak artuko yok neskea, ala?

LONTZ'ek.—Ezta, ori bez.

BIZKOR'ek.—Ostera! Alkarregaz ausi yoek, ala?

LONTZ'ek.—Ez, biak yagozak oso-osorik, arraina legetxe.

BIZKOR'ek.—Ba, orrazkero, zelan yagok euren arteko arazoa?

LONTZ'ek.—Ba! onetaraxe: To'gaz ondo dagonen, No'gaz be ondo yagok.

BIZKOR'ek.—Ze astotzar augu i? Eztauskat a-tuten.

LONTZ'ek.—I bai ba-azala kirten lango kirtena, ez aituteko; Nire zatoak aiteten yaus-tak.

BIZKOR'ek.—Zer esan dok?

LONTZ'ek.—Bai, baita nik zer egiten dodan be; begira, nik zurrutada bat egiteko bai, ta nire zatoko ardaoa amaituaz yoak.

BIZKOR'ek.—Izan be, or len baño ardao gixi-ago yagok, amaituaz yoak.

LONTZ'ek.—Aiko ba, aitu ta amaitu biak dozak bat; zerbait aiteten dauenak zerbait oriustu, amaitu, bere bururatu egiten yok.

BIZKOR'ek.—Baña esaidak egia, ezkontzarik izango ete dok?

LONTZ'ek.—Nire txakurrari itandu egiok; ak baietz esatekotan, izango dok; ak ezetz esatekotan, izango dok; ak buztanari eragin ba'yagiok, izango dok, ak ezer esan ezarren.

BIZKOR'ek.—Orrazkero, ondorena zera dok, izango dala arein arteko ezkontzarik.

LONTZ'ek.—Olango ixilkizunik eztok lortuko alegiz ezik.

BIZKOR'ek.—Ondo yagok orrako ori nik olan lortutea, Baña, Lontz, zelan diñok ik nire ugazaba maitale ezagun egin dala?

LONTZ'ek.—Eguño etxoat izan a bestetzat.

BIZKOR'ek.—Zertzat izan dok ba?

LONTZ'ek.—Tentel bakar agirikotzat, euk olan- go dala esan daustakanazkero.

BIZKOR'ek.—Astakillotzar: sasikume ori, ik oker aitu daustak.

LONTZ'ek.—I bai ba-azala ergel; nik etxoat esan i olangorik azanik, ire ugazaba ba- ño.

BIZKOR'ek.—Nik dirauskadana nire ugazaba maitale bero egin dala dok.

LONTZ'ek.—Eta nik dirauskat niri etxatala bape ardura ire ugazaba maitasunetan erre ba' dadi be. Garardotegira yoan gura ba' dok nikin, ator; gura ezpa'dok, barriz, i Ebertar, Yudar az, eta ez Kistar izengarri be.

BIZKOR'ek.—Zegaitik?

LONTZ'ek.—Kistarrekin garardotegira yoateko lain maitasun be eztokalako. Yoan gurok, ala?

BIZKOR'ek.—Ire otsein nok. (Alde dagie).

VI AGERLEKU.—Lengoxea. Yauregiko gela.

PORTEU arrera.

PORTEU'k.—Yule bertan-bera itxi ba'dagit, zinausle izango naz; Silbe liraina maite ba' dagit, zinausle izango naz; nire adiskideari okerrik egitekotan, zinausle izango naz; eta nire eguño lenengo zina egiteko izan neban indarrak berak zirikatzen nau zinausle izatera. Maitasunak agindu eustan zin egiteko, eta maitasunak agintzen daust zina austeko. Maitasun zirikatzaile ezti ori, obenik egin ba'dozu, zirikatu ta benderatu dozun oni irakatsi egidazu okerra zuritzen. Lenengotan nik izar kiñulari yauretsi dot, baña orain zeruko eguzkia yauresten dot; ganorabako zinak ganoraz ausi leikez; eta eztau bururik, erabagi sendoz, bere buruari txarraren ordez oberik arrazoten irakatsi ezin dautsanak... Oa ortik zear, oa ortik zear, lotsabako min ori! txar dala diñok ainbeste bider ogei milla

zinez sendetsi izan dokan aren gurentasuna? Ezin dot ez maite, eta orraitioño eztoi maite; baña egineginean be, maite bear neunkean aldi berean izten dot maite izatea. Yule galtzen dot, eta Balendin be galtzen dot; aik galdu ezpa'dagidaz, nai ta nai ez neure burua galdu bear; aik galdu ba'dagidaz, orduan, aik galduaz, neure burua billatzen dot; Balendin'en ordez, neu; Yule'n ordez, Silbe. Neure burua maitagarriago yat nire adiskiderik baño; eta izan be, maitasuna berean da ederrago: ...bai, Silbe'k... bedi autorla bera lirain egin eban Yaungoikoa... Silbe'k Yule Etiopitar baltz baño eztala erakusten dau. Aztu egin- go dot Yule bizirik dala, aganako nire maitasuna il dala gogoratirik; eta Balendin areriotzat etsiko dot, Silbe adiskide eztiago- gana yota. Orain nik ezin erakutsi orain ni nor nazan Balendin'eri azpiyalekeririk

egin ezik: ...ak gau onetan Silbe zerutarren lo-gelako leiora lokarritzko zurubiz igoteko asmoa dau... eta ni, aren onulari au, aren leiakide: bertatik egingo dot Silbe'n aita aik kokomarrotuta iges egiteko daben asmoaren yakitun; eta ak, suak artuta, erbesteratu egingo dau Balendin; aren asmoz, Turi'k ezkondu bear dau Sil-

be'kin-eta; baña, bein Balendin'ek alde eginazkero, marro maltzurren baten bidez, laster banatu ta ezereztuko dot Turi motelaren ganorabako yokerea. Maitasun eri, asmo au asmatzeko buru-bizkortasuna emon daustazun legetxe, egoak emoidazuz.

VII AGERLEKU.--BERONA. YULE'neko txoki

YULE ta LUKETXU aurrera.

YULE'k.—Betor zure onua, Luketxu! Lagun zakidaz, neska maitagarri ori! eta, zu nire gogaketa guztiak agirian irarrita ta sakon marraztuta dauzan ola zareanazkero, zure maitasun orrexegaitik niri irakasteko arautu ta zinkidetzen zaudaz; eta esaidazu bideren bat, nire entzute ona galtzeka, nire maite Porteu'gana yotateko.

LUKETXU'k.—Ene! orrako ori bide nekor eta luze yatzu.

YULE'k.—Palmadun txangolari benetan intsigirik ezta nekatzen bere oinkada makalez errialde osoak zearkatzen be; askozaz gi-biagou unatuko iges egiteko maitasun-egoak dauzanik, eta igesa Porteu yaunak daukan zerutiko osotasuna dauena lango maitegana izatekotan.

LUKETXU'k.—Oba yatzu Porteu etorri al izan arte epe artu.

YULE'k.—Luketxu, ez ete dakizu aren begirakuneak dirala nire gogoaren yanari? Erruki izan egiozu orrako yakiarene gose orren luzaro izanaz ilten naukazun oni. Maitasunaren barruko ukutuz besterik ezagun ezpa'zendu be maitasunaren sua itzez itzaltera bestean arin yoango zintzakez sua edurrez ixitutera.

LUKETXU'k.—Ni enabiltzu zure maitasunaren surik itzali-billa, suaren asarre gelegia ausi ta moteltzen baño, bidezko dan baño geiagou erre eztaqian.

YULE'k.—Zuk esituagou ta erreagou egiten dau ak; marmar samuraz laban doan ura esitu ba'dagizu, zeuk dakizunez, artega ta asarre da; baña bere bide leunez yotaten galazou ezpa'dagiozu, bideko ari azal-argietan eresi ezti egiten dau, bere bidean aurkitzen dauen ertz bakotxari mun maitekorrik eginik; eta olan doa itxaso itzaleraño, bere kitetik yolasturik, aინbeste okulu makurzeaz aldarrai ibili ondoren. Orrazkero, itxi egidazu yotaten, ez imini otzoporik nire bidean, errekatxu maitagarriak aña epe izango dot nik, eta nire oinkada nekor ba-

kotxa nitzat asti emongarri izango da, azkenengo oinkadeak nire maitegana narroan arte; eta an atsedan artuko dot, eka txik askoren ostean zori oneko gogok Elisizelaietan legetxe (5).

LUKETXU'k.—Baña zer yantziko dozu ortik zeaz yotateko?

YULE'k.—Emakume-yantzirik ez beintzat, gizon lizunen eraso nasaietzako biderik eneunke emon gura-ta; Luketxu maitagarri, esku-mutil begiragarriaren antzik emongo leuskiden yantziak gertau egidazuz.

LUKETXU'k.—Ba, orrazkero, zuk anderaño orrek zure adatsa moztu egin bear dozu.

YULE'k.—Ez, neska; sedazko lokarritz lotuko dot, an-orr-emenka maitasun zintzoaren korapilo ondo asmaurik eginda; apain gelegirik etorri lekikio ondo ni baño zarragori, baña ez nire adineko gazteri.

LUKETXU'k.—Zelango parkak egingo dautzudaz, andera?

YULE'k.—Ori itandutea ta edozein yauni "zelango gonea egingo dautzut" itandutea ainbaten da. Ba! zeuri ondoen deretxatunez egizuz, Luketxu.

LUKETXU'k.—Euskaldun parkak (6) bearko dozuz, andera.

(5) Eladetarrak Elysiou pedion izenez ezagun eben ildako zori ontsuak yotaten eta an biziten ziran toki atsegiagarriari, eta guk euskeraz olango tokiari Zorion-zelai esan giñeio. Gu Kistarron zeru edo Zoriontegiren ordoko edo-da Eladetarrak asmautako toki ori, baña ez dira bardinak, ezta alkari urrik emotekorrik be. Gure zori ona oso-betea izango da; bestera yonak, barriz, gurago eben atzera ludi onetara etorri, an bizi baño. Zori on ustela, beraz, eurena. Ikus Odiseu'rena IV, 563.

(6) Euskaldun-parkak. Onetariko parkai buruz nik LEAR ERREGE odol-antzerkian zerbait idatzi ondoren, nire lanaren txostena emonaz, nire adiskide Irizar'tar Txaber abeak Oñati bere errian onango parkai "euskaldun parkak" ereisten eutsela idatzi eustan; baita Es-

YULE'k.—Olangorik ez, olangorik ez, Luketxu!
Olangoak itsusi emongo leukie.

LUKETXU'k.—Orain inok eleuke emongo orratz bat bera be an orratzak sartzeko gauz dan atakarik eztaukan parkagaitik.

YULE'k.—Luketxu, maite ba'nozu, zeuk egokien eta erakoen uste dozuzan parkak yosi egidazuz; baña esaidazu, neska, zer nazala uste izango dau munduak nik olango ibiltaldi ez oiturik egin ba'dagit? Bildur naz inori txarbiderik emongo eta dauksadan.

LUKETXU'k.—Olangorik uste ba'dozu, etxean gagoz ez yoan.

YULE'k.—Ez, ori ez.

LUKETXU'k.—Orrazkero, entzule ona galtzearen amesik be ez egin, yoan baño. Zu arakoan Porteu'ri eder ba'yako, eztau ardura nori etxakon gogoko zu ara yoatea; ni bildur naz ari etxakola gogoko izango zu ara yoan izana.

YULE'k.—Orreri dauzat nik bildurrik gitkien, Luketxu: milla zin, itxasorik beteteko lain negar eta neurribako maitasun-agiriak dodaz baitzat Porteu'k ondo etorria egingo daukala.

LUKETXU'k.—Orrako zerak gizon maltzur-guztietien otsin yatzuz.

YULE'k.—Zirtzilak yatzuz olango elburu zirtziletarako olango bide zirtzilak darabilezanak! Baña Porteu'n yaotzaldian izar zintzoagok agintzen eben: aren itzak lokarri dira, aren itzak zerutiko itzak; aren maitasuna benetako da, aren oldozpenak, garbiak; aren negarrak aren biotzaren gezna-ri ikusiak; aren biotza guzurretik zerua lurretik bestean urrin.

LUKETXU'k.—Arren egiozu Yaungoikoari Porteu olangoxe izan dakizun zu aganatzekoan!

YULE'k.—Maite nozunazkero, ez egizu a iraindu, aren zintzotasunaz uste okerreri lekurik emonda; a maite izanaz bakarrik egin zadiz nire maitasunaren lain. Eta zatoz oraintxe nikin nire gelara, nik bear dodanaren erreskadatxo egin eta nire bidaldi luzerako emetoko. Nire dan oro zure eskuetan izten dot, nire ondasunak, nire lurrak, nire izen ona; orrako guztian ordez, ni emendik bidaltzea bakarrik daskatzut; tira, erantzuten astirik galtzeka, egitekora bertatik; luzaketa onegaz ni artega nozu.

(Alde dagie).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-MILANO. DUKEA'ren Yauregiko gela-aurre.

DUKEA, TURI ta PORTEU aurrera.

DUKEAK.—Turi yaun, arren, alde egizu gurgandik apurtxo baten; ixilkizun batzuk doguz guk gure artean eragoteko. (Turi'k alde). Orain, esaidazu, Porteu, zer gura dozu nigaz?

PORTEU'k.—Ene yaun maitagarri ori, zuri iragarri gura neunskizuna ostondu ta ixilik eukiteko agintzen daust adiskidetasun-legeak; baña nire aldetiko irabazi barik zuk egin daustazuzan on-eginak gogoratzen dodazanean, mundu onetako beste ondasunek niri aterako eleuskidana esateko zirikatzen nau zukanako bearrak. Yalizu, errege laingarri orrek, nire adiskide Balendin yaunak zure alabea gau onetantxe ostuteko asmoa dauela; neu bakarrik nozu aren asmoaren yakitun danik. Ba-dakit zu zure alabea ak gorroto dauen Turi zindoari emetoko erabagia artuta zagozana; eta a inok ostu ba' legitzu ostu, zure adinerako naibage gogor litzake. Olan, nire eginbearra betetearren gurago izan dot nire adiskideari bere gogoaz besterakorik egin, aren asmoak dirala-ta, zuk aldiz aurretik ez ya-

kitetokian zu aldiz aurretik ilobira eroango zindukiezan lor eta atsekabe-pilorik, arazo au ostonduta, zure ganera eratorri baño.

DUKEAK.—Porteu, nire eskerrik biotzetikoenak ire ardura zintzoagaitik; eta orrako orri nik erantzuteko, ire agindura naukaki bizi nazan arte guztian. Orrein arteko maitasun-

paña'ko ertzain edo txapel-okerrak ya andietan onango parkak erabilten dabezala be. Nire ume-aldian ezagutu nebazan nik onango parkak azkenengoz nire erritarren artean. Aldi atan gizonak olangoxeak erabilten ebezan, baña bertatik alde egin eben. Olango parkak lotsakizunak estaltzeko leiatal-antzeko oialezko laukia eukiten eben aurré-aldean, goitik bera idigitekoa, goian alde banatatik botoiz estuta; ostein, beste zer guztietan, oraingo parkak langoxe ziran. Emen Shakespeare'k diñonez, leiatal-antzeko zer ori parka batzuk lodia eukiten eben, orratzak, alan be buruko orratzak sartzeko emakumek ormako untzetik bera eskegita eukiten daben eta barruan zaia eukiten dauen zorrotzoa bestean lodia.

naz neu be sarritan oartu izan nok, baña zori onez aik ni loak artuta nengoala uste ebenean; eta sarritan izan yoat Balendin yaunari ari lagun egitea galazo ta duke-yauregitik alde eragiteko asmoa; baña nire tukuak bide okerrik artukoaren bildurrez, eta olan, gizon ori bide barik iraintzeko bildurrez, -eta izan be, itsumuskeria izan dok beti nik alde egin dautsadana-, nik Balendin maitakiro begiratzen izan yoat, ik iragarri daustakanaz topo egin arteño. Eta yazo danaren bildur izan nazala oartu dagikan, gaztearo samurra iñok eragin-errez dalarik, nik a neskea gaboro etzanazolen izan yoat goiko torrea, aren giltzea beti neuk dodala; eta andik a ezin eroan yok iñok.

PORTEU'k.—Yakizu, yaun zindo orrek, aik asmau dabela aren lo-gela-leiora zelan igoen eta a andik lokarrik zo zubiz erasteke bidea; maitale gazte ori zurubi-billa yoanik da ta laster da emen zer orregaz; gogoko ba'yatzu, emen egon eta bidea ebagi ziñeio, baña, ene yaun on orrek, burubidez egizu egiteko ori nik iragarri dautzudanik igarri eztagian; eta izan be, zugarako maitasunak bultzau nau aren asmoak zuri iragartera, ez aganako gorrotok.

DUKEAK.—Nire entzute ona yokatzen dautzut, ak eztauela iñoz yakingo niri arazo orretaz ezertxo be esan daustazunik.

PORTEU'ek.—Agur, ene yaun; ba-dator Balendin yauna. (Alde dagi).

BALENDIN aurrera.

DUKEAK.—Balendin yaun, nora oa orren arin?

BALENDIN'ek.—Eder bekizu, geznari dot begira nire idazkiak nire adiskideai eroatekotta, aixek ari emoten noa.

DUKEAK.—Idazkiok garrantzitsuen batzuk dok, ala?

BALENDIN'ek.—Aik diñoena ezta besterik ni onik eta zori ontsu bizi nazala zure yauregian baño.

DUKEAK.—Ba, orrazkero, aletz utsa yaukiek; etxoik apur baten emen; niri urr-urteik ukututen daustan arazoaz itz egiteko nok ikin, eta iri ixilpean iragarteko. Eztok ik eztaikianik nik nire alabea Turi'ri emoteko asmoa izan dodala.

BALENDIN'ek.—Ori ondo dakit, ene yaun; eta segurutik ezkontza ori aberatsa ta ondo lortokena litzake; ganera, gizazindo ori, zure alaba lirainari dagokionez, onbidez, eskuzabaltasunez, lainez eta beste zelango-

tasun onez bete da; zuk, maitagarri orrek, ez ete dozu biderik zure alabeari mutil ori begiko izan dakion?

DUKEAK.—Ez, eta sinis egidazu; No ori gogalditsu, uxo, setatsu, ukor, arro, men-egin-gaitz, muker, burugogor, eta egin-bearririk egiten eztaikana da; eztau artzen aintzakotzat nire alaba danik, eta eztaust bildurrik be ni bere aita izanarren; eta nire adin enparaua aren alaba-maitasunez kutundua izango zala uste neban au, orain orren ordez erabagi erabagita nago nik emazerik artu ta a etxetik aterateko, gura dauenak a beretzat artu dagian; orrazkero, bere edertasuna bekio bere ezkonsari, ez ni, ez eta ni eukitea bata be eztau aintzakotzat artzen-eta.

BALENDIN'ek.—Eta zuk, yaun maitagarri orrek, arazo orretan nik zer egitea gurako zeunke?

DUKEAK.—Emen Milano'n ni intsigita nagonk andera bat dago; baña lirain eta lator da ta nire agure-itzik eztau artzen aintzakotzat; orrazkero, zu laguntzat gura zindukedaz, -eta izan be, aspaldiko zerai yazoten yakenez, maite-bideak aztu yataz; eta ganera, gure egunotan beste biderik oitu be oituten da; -laguntzat gure zindukedaz, ba, ze bide ta zelan artu bear dodan aren eguzki-begietan ni aintzakotzat artu nagian zuk irakatsi dagitazun.

BALENDIN'ek.—Esku-erakutsi bidez, bezuza-bidez irabazi egizu, itzai yaramonik egiten ezpa'dautse; sarritan emakume-biotzari eragiteko itz bizkorak baño geiago yatzuz orenenez itzik egiten eztaikien pitxi minge edo izkeak.

DUKEAK.—Baña ak muxin egin, zapuztu egin eban nik bidali neuntsan esku-agiria.

BALENDIN'ek.—Batzuetan emakumek begikoen yakona zapuztuten dau; besterik bidali egiozu; ez aspertu, lenengotan zapuztuteak geroko maitasuna geitu egiten dau ta. Betozkoa okertu ba'dagitzu, ezta zuri gorrotorik dautzulako, zugar maitasun geiagoko sortuazoteko baño; asarrerik egin ba'dagitzu, ezta zuri alde eragiteko; eta izan be, emakumea bakarrik itxi ba'dagizu, burutik eginda geldituko yatzu. Esan dagiana esan, ez egizu artu ezeztat; eta izan be, "zoaz orlik zear" ek eztau esan gura "urri" ik; zuritu, goretsi, gorantzi, eta eraqi egizuz emakumeen apaingarriak; balzik balztenak izanarren be, esaezu angeru-arpegiak dabezala, Miñik dauen gizonik ezta gizon, -neuk dirautzut, gero-, bere miñez emakumerik irabazi ezin ba'dau.

DUKEAK.—Baña nik daragoiodana bere gurasoak gizazindo gazte begiragarriari aginduta dago; eta gizon artetik gogorrez bakanduta daukie, egunez gizonezkorik urreratu eztaikion.

BALENDIN'ek.—Ba, orrazkero, ni gabaz elduko nintzakio.

DUKEAK.—Bai, atean giltzea emonda ezpa' legoz, eta giltzak gordeta, gabaz gizonik urreratu eztaikion.

BALENDIN'ek.—Zek eragozten dau aren leioa zear barrura sartzea?

DUKEAK.—Aren lo-gelea goitegian dago, lurretik goi-goian; eta arako bidean orman baldak eginda dagozeta, ara inor ezin igan leiteke galdu-gorde andi ta agiriko barik.

BALENDIN'ek.—Ba, orrazkero, ganoraz eta trebetasunez egindako ta goian eltzeko karko bi leukezan lokarizko zurubi letorkizu ondo baño obeto; olan igongo zintzakez zu beste Hero'n torrera (6), beste Lander legetze ara igoten azartuko litzakenik idoro al izanazkero.

DUKEAK.—Orain, odol garbidun gizazindo zareanazkero, onurik emon egidazu non idoro nengikean olango zurubirik.

BALENDIN'ek.—Noz erabilteko dozu? Arren, yaun, esaidazu au.

DUKEAK.—Gau onetantxe maitasunari, umeen antzera, gura dauena lortu arterañoako aldia luze egiten yako-ta.

BALENDIN'ek.—Zazpiretarako iritziko dautzut olango zurubirik.

DUKEAK.—Baña entzun: bakarrik yoan gura yoat nik agana; zelan eroango yoat ondoen ara zurubia?

BALENDIN'ek.—Zurubi arin izango da, yaun, ezetariko luzerarik dauen txartespean eroan al dagizun.

DUKEAK.—Irearen luzerako txartesa gauz izango dok zeregin orretarako.

BALENDIN'ek.—Bai, ene yaun on.

DUKEAK.—Orrazkero, dakusdan zelan dator-kidan ire txartesa; orrexen luzerako beste bat lortuko yoat.

BALENDIN'ek.—Ba! edozein txartes yatzu on egikizun orretarako, ene yaun.

DUKEAK.—Noren antz emongo ete yaustak txartesak?... Arren, itxi egidak zelan dator-kidan ikusten... Ze idazki dok au? Zer yoagu emen?... Silbe'ri? eta emen nire egikizunerako beren-beregiko dan lanabasa! beingoaqaitik ikurratz au urratzen azartuko naz. (Irakurri dirakur):

"Nire gogapenak gaboro Silbe'kin dagoz;

Nire yopu dira, neuk dabidaldaz egaz go-goz.

Ene! orren arin lioa euren ugazaba. Bera legoke etzanik orrakoon lekuan. Nire gezinari gogapenak zure biotzean Garbi datzae oerik zoragarriean. Ni, euren errege, orra bultza dodazana Bitartean, alango ederrek erakutsi ederra Gaitzesten naqola, nik nire otseinen Zoririk, euren yabe onek eztozala; Nire burua nik gaitzesten, nik bidaliak Neronen lekua bete bear dabela?"

Zer dago emen! "Silbe, gau onetan yareiko zaudaz": bai, olantxe da; eta emen dago orretarako zurubia be. Ara, Paeton (7), --izan be, i Meropa'n seme augu-, ortzeko burtzai izatera eldu gura ete dok, eta ire zorakeri azarkeritsuz ludi au erre-kiskali? Izarretaraño eldu gura ete dok, ire buru-ganean argi dagielako? Ken akit, inoren lekuko zirtzil ori! Yopu geiegikeritsu ori! Ire bardinai zuzendu egiezak ire begirakune maiteberak; eta uste izan egik ik emendik alde egitea nire epeari zorrango dautsakala ire irabaziarri baño; onako onegaitik esker oberik erakutsi egidak, nik iri eginiko beste on-egite guzti geiegiaitilik baño. Baña emen gure lurralde onetan alde egiteko gertakuntzak egiteko bear dokan astia baño luzaroago yarra ba'dagik yarra, Yaungoikoarren, nire asarrea eguño nire alabeari naz iri izan dautsadan maitasuna baño askozaz andiago izango dok. Ken akit aurretik, oa; etxoat entzun gura be ire alperiko buru-zuritzerik; orren ordez, ire bizia maite ba'dok, arin alde egik emendik. (DUKEA'k alde).

BALENDIN'ek.—Eta zegaitik ez il, elorrio bizitan bizi baño len? Neugandik alde egitea da iltea; eta Silbe neu da; agandik erbesteratua izatea norbera norberagandik erbesteratua izatea da; erbesterate onen eriozkor! Ze argi da argi Silbe ikusi ezik? Ze poz da pozik Silbe aldamean izan ezik? Pozkarri ezpa'da beintzat a nire alda-

(7) Paeton edo Paiton (Phaethon) dalakoa Meropa edo Eguzkiaren seme yatzu Eladetarren siniskeriz. Paiton orrek bein zaldi-ugalak eskuetan artuta bere aitaren burdia zuzendu gura izan eban, baña zaldi sutsuak eskuratzeke lain ganora izan ez-ta, burdia ta burdiko Eguzkia Lur oneri urregi elduta, eguzkiak lur-arlo itzalak erre-kiskali ei ebazan, esaterako Apirka'ko Saara izeneko eremua.

menean dala iruditzea, ta aren osotasunaren itzala yakitzat artzea. Gabaz Silbe nire aldameanean ez egotekotan, urretxindorraren eresia ezta eresirik; egunez nik Silbe'ri begirakunerik ez egitekotan, nireztat eztago egunik bera begiratzeko; a nire zer-izana bera da; eta nik nire bizia itxi dagit, nire bizitari agur dagiot, a nire aldameanean ez egotekotan eta ak bere eragin atseingarriz ni bazkatu, argitu, kutundu, ta bizirik euki ezik. Epai eriozkor onetatik igesiaz eztoz igesten erioztatik; emen yarraitzekotan, erioztaeren begira egon baño eztoz egiten; baña emendik igesiaz, bizitzatik dagit igesi.

PORTEU eta LONTZ aurrera.

PORTEU'k.—Arin egik, mutil, arin egik, arin egik, eta a billa egik landan.

LONTZ'ek.—Kaixo, Kaixo!

PORTEU'k.—Zer dakusak?

LONTZ'ek.—Gu billa gabiltzana bera; aren buruko uleak eurak be Balendin dira.

PORTEU'k.—Balendin?

BALENDIN'ek.—Ez.

PORTEU'k.—Nor ba? Aren irudia, ala?

BALENDIN'ek.—Ezta.

PORTEU'k.—Zer ba?

BALENDIN'ek.—Ezebez.

LONTZ'ek.—Ezebezek itzik egin ete legi? Ugazaba, yoko ete dot?

PORTEU'k.—Nor yoteko ik?

LONTZ'ek.—Ezebeza.

PORTEU'k.—Zital ori, epe artu egik.

LONTZ'ek.—Ba! yaun, utsa yo gura dot, arren...

PORTEU'k.—Yauntxo, epe ar egik, gero; itz bat, Balendin adiskide.

BALENDIN'ek.—Nire belarriak itxita yagozak, eta ezin yoa entzun barri onik, dagoneko ainbeste barri txarrez artu-alean bete dozak-eta.

PORTEU'k.—Orrazkero, nireak ixilik obiratu-ko yozat, latzak, gogorak, gordinak eta txarretan be txarrek dozak-eta.

BALENDIN'ek.—Silbe it dok, ala?

PORTEU'k.—Ez, Balendin.

BALENDIN'ek.—Etxagok Balendin'ik, izan be, Silbe gurgarriarentzako! Enaiok maite, ala?

PORTEU'k.—Ez olangorik, Balendin.

BALENDIN'ek.—Etxagok Balendin'ik, Silbe'k maite ezpa'naio!... Ze barri dakak?

LONTZ'ek.—Yaun, zu erbesterau zabezala aldarrikatu dabe.

PORTEU'k.—I erbesterau abela; ene! au dok nik dakadan berria: emendik, Silbe'gandik, eta ni ire adiskide onegandik.

BALENDIN'ek.—Dagoneko nago zori txar orrez ase-beterik, eta orain orrako ori geiegi yanak okada eragingo dauk. Ete yakik Silbe'k ni erbesterau nazanik?

PORTEU'k.—Bai, bai; eta aren alegin eta negarrak gora-bera indar osoz aurrera darrain agindu orri atzera eragiteko, ak batzuk negarrak deitzen dauksen itxaso bete pitxi urkor opatu yok; negarrokaz batera, bere aita mukeraren onetan belaubiko yarrita, bere burua apaldu izan yok; eta arartexa, ta eurei egokienez, zuri ziran esku orain lorraren lorrez argizai-antza artuak alkarrekin kirimilduta aitari arren be arren egin izan yautsak; baña ez belaubun makurrek, ez gora eragitako esku garbik, ez antzi negarberak, ez adia sakonek, ezta urrezuri-antzeko negarrek be ezin zulatu izan yok alderik alde aren aitaren biotz gogor errukibakoa, ezta biotz aren barrunio sartu be; Belandin'ek, ostera, goatu ba' dagie goatu, il egin bearrko dau. Orrez ganera, neska a ire alde eske yari izanak a baitegi estu-estuan sartuazoteraño mindu yoa aren aita, eta a an beti eukiteko zema gordinik askogaz.

BALENDIN'ek.—Bego, bego, ez geiagorik; ire urrengo itzak nire biagiagako gogo txarreko indarrik ez eukitekotan: olangorik ba' yok, barriz, ixurik, eralgik, arren, nire belarrira nire atzenbako minaren atzenengo abesti izan dadin.

PORTEU'k.—Besterik ezinaren aurrean ez egik intziri-zinkurin geiagorik egin, eta ekiok negarbidena dana zuzentzen. Aldia dok on guztien sorle ta azle. I emen yarraitzekotan, ik ezingo dok ikusi ire maitea; ganera, emen yarraiaz ire bizia laburtu egingo dok. Itxaropena dok maitaleren makilea; oa emendik makila orrekia eta gogaketa etsi guztiak uxatzeko erab'li egik. Ire idazkiak izan leitekezak emen, eu emen izan ezaren: eta idazkiok niri zuzentzekotan, nik ire maitearen bular esnea baxen zurian be ezarriko yozat. Etxagok orain eskean ibilteko astirik; tiruk, neuk atera-ko aut uriko atea zear, eta nik igandik alde egin-aurretik esaidak euk gura aña luze ire maitsun-arazoari dagokion oro; Silbe maite dokanazkero, eugaitik ezpa'dok, eure galdu-gordeari yaramon egiok, eta ator nikin.

BALENDIN'ek.—Arren, Lontz, nire mutila ikusi ba'dagik, esaiok arin egin eta nikin iparraldeko atean batzeko.

PORTEU'k.—Oa, yauntxo, eta billa egik a. Gaioazan, Balendin.

BALENDIN'ek.—Ene Silbe maite ori, zori txarreko Balendin! (BALENDIN'ek eta PORTEU'k alde).

LONTZ'ek.—Aiko, ni ergel utsa nok: eta orraitio nire ugazaba zital bat dala uste izateko beste buru ba-dot; baña ori dana da bat a zital bat baño ezpa'da. Ni maiteminduta nagola dakiana ezta bizi orain, eta orraitio maite-minduta nago ni, baña zaldi bikotez be eztaust kenduko (erauziko) ori; ezta nik nor maite dodan be, eta orraitio emakume da; baña neuk eztoz esango zein emakume danik; eta orraitio esne-neska da; eta orraitio ezta neskarik, zer-esanik asko emona da-ta; eta orraitio neska da, nire ugazabaren neska izan, eta alogeraren alderako aren otsein da-ta. Ur-txakurrak baño zelangotasun geiago dauz ak, eta ori ezta giti Kistar utsagan. Amen erreskadea (Ingi ateraten dau saketetik), aren egokitasunen erreskadea. Imprimis, Billatu ta eroaten ba-daki. Ba! zaldik be ezin ori baño geiagorik: ez, oker nago, zaldik eztaiki billatzen, eroaten bakarrik baño; orrazkero, a zaldizarririk baño obe da. Item, Esneak batzen ba-daki; ara! onbide ederrik asko eskuak garbi dauzan neskaentzat.

BIZKOR aurrera

BIZKOR'ek.—Egun on, Lontz jaun! Zelan abil andiki ori?

LONTZ'ek.—Eta i, merro ori?

BIZKOR'ek.—Tiruk, ik beti eurera yoten dok, itzak atzekoaz aurrera artuta. Ze barri yakak ire ingi orrek?

LONTZ'ek.—Ik eguño entzun dokazanik eta baltzenak.

BIZKOR'ek.—Zegaitik baltzenak, jaun?

LONTZ'ek.—Idazkura bestean baltz diralako.

BIZKOR'ek.—Itxi egidak eurak irakurten.

LONTZ'ek.—Ken akiti, kirten ori; ik eztaiki irakurten.

BIZKOR'ek.—Ba-yakiat, ez egik guzurrik esan.

LONTZ'ek.—Laster ikusiko yoat: auxe esaidak: nor dok ire aita?

BIZKOR'ek.—Nor izango dok, ba? Nire aitaitaren semea.

LONTZ'ek.—Ezyakitun geldotzar ori! Ire amamaren semea dok: onek erakusten yok ik eztaikiala irakurten.

BIZKOR'ek.—Tiruk, zoro, tiruk: ire ingian ikusik irakurten dakidanentz.

LONTZ'ek.—Eutso: eta Nikola deuna lagun bekik!

BIZKOR'ek.—Imprimis, No ak esneak batzen ba-daki.

LONTZ'ek.—Bai, ori ba-yakik.

BIZKOR'ek.—Item, No ak garagardo onik egiten dau.

LONTZ'ek.—Eta ortik yatok esakune au: Zadziz onetsi, ene biotzeko ori, garardo onik egiten dozu-ta.

BIZKOR'ek.—Item, yosten ba-daki.

LONTZ'ek.—Ori esatea ta yoten be ba-dakiala esatea ainbaten dok.

BIZKOR'ek.—Item, galtzerdiak egiten be ba-daki.

LONTZ'ek.—Zetarako bear yok gizonak bere emaztegaiarentzako ezkon-saririk, neskeak galtzerdiak egiten yakinazkero?

BIZKOR'ek.—Item, bogadea egiten eta garbikuzia egiten ba-daki.

LONTZ'ek.—Orrako ori onbide lango onbidea dok: olangorik izatekotan a garbitu ta ikuzi-bearrik etxagok-eta.

BIZKOR'ek.—Item, goruetan ba-daki.

LONTZ'ek.—Olangorik izatekotan, nik munda txirinka-ganean imini nei eta gu ganean era-eraz yoan.

BIZKOR'ek.—Item, izenbako onbide aunitz dauz.

LONTZ'ek.—Ori esatea ta onbideok sasiko dirala esatea ainbaten da; euren gurasoak nortzuk diranik eztaikiela ta, beraz, izenga dirala.

BIZKOR'ek.—Emen dotoz No aren akatsak.

LONTZ'ek.—Bere onbideen orpoz-orpo.

BIZKOR'ek.—Item, baraurik dagonean etxako munik egin bear, amasearen andurragaitik.

LONTZ'ek.—Akats ori barauskarriaz zuzenzu leike orraitio. Yarra irakurten.

BIZKOR'ek.—Item, No ak ago ezit-surik ba-dau.

LONTZ'ek.—Orrako ori aren amasa audurra-aren alderako yak.

BIZKOR'ek.—Item, lotan dagola itzetan eragoten dau.

LONTZ'ek.—Orregaitik etxok ardura, itzetan daragoiola loak artu ezik.

BIZKOR'ek.—Item, astiro itz egiten dau.

LONTZ'ek.—Orrako ori aren akatsen artean idatzi ebanaren zital! Astiro itz egitea emakumearen onbide bakarra dok: kendu egik orrako ori ortik, arren; eta aren onbide bakarrizat imini egik.

BIZKOR'ek.—Item, arro da.

LONTZ'ek.—Ori be kendu egik ortik; ori Ebe'gandiko yarauntsi yok eta ezin kendu lekiok.

BIZKOR'ek.—Item, eztau aginik.

LONTZ'ek.—Orregaitik be etxastak bape ardura, kuskurzale neu nok-eta.

BIZKOR'ek.—Item, asarreti da.

LONTZ'ek.—Tira ba; eskerrak aginik eztauela usika egiteko.

BIZKOR'ek.—Item, sarritan gorensten dau bere edaria.

LONTZ'ek.—Edaria onetarikorik izatekotan, goretsi bear yok; berak ez egitekotan, neuk goretsiko yoa; gauza onak goretsi-bearrekoak dozak-eta.

BIZKOR'ek.—Item, eskuzabalegi da.

LONTZ'ek.—Bere miñaz ezin izan, itz egiten geldo dala yagok idatzita-ta; bere sake-laz etxok izan bear, a neuk eukiko yoa giltzapean-eta; ganetikoaz izan baño etxakak; eta ori etxagok nire eskuan. Tiruk aurrera.

BIZKOR'ek.—Item, bururik baño ulerik geiago, ulerik baño akatsik geiago dau, eta ondasunik akatsik baño geiago.

LONTZ'ek.—Geldi or; No ori artzeko gertu naiagok; nire izan dok, eta eztok izan, birritan edo iru bidar azkenengo txatal orretan. Irakurrik beste bein orako ori.

BIZKOR'ek.—Item, bururik baño ulerik geiago dau...

LONTZ'ek.—Bururik baño ulerik geiago.. ba-leitekek; ikusi egin bear yoa egia darentz; ontziak artzen yok gatza, eta orrazkero gatza baño andiagok dok; burua estaltzen dauen ulea be burua baño geiago izan bear; beti txikiagok andiagok estaltzen yok-eta. Zer yatak urren?

BIZKOR'ek.—Eta ulerik baño akatsik geiagogo...

LONTZ'ek.—Ori itzaletan be itzal dok; orra-ko orixe ez al lego idatzita!

BIZKOR'ek.—Eta ondasunik akatsik baño geiago.

LONTZ'ek.—Arrano! itz orrek akatsak be edertu egiten yozak. Ondo yagok, neska ori artzeko gertu naiagok, eta ezinik eztago-nazkero, orrekin ezkondu ba'nadi...

BIZKOR'ek.—Ezkontzekotan zer?

LONTZ'ek.—Ba! olangorik yazotekotan esango dauskat... ire ugazaba ire begira daga-gola iparraldeko uri-atean.

BIZKOR'ek.—Nire begira?

LONTZ'ek.—Ire begira? Bai; nor augu i? A i baño gizon oberen begira egon dok.

BIZKOR'ek.—Eta agana yoa bear yoa nik, ala?

LONTZ'ek.—Ik ariñeketan yoa bear dok agana, emen luzaroege egon azanazkero i yoa-te utsa etxakok gauz izango-ta.

BIZKOR'ek.—Zegaitik eztaustak esan lenago? Izurriak eroango al yozak ire maite-idazkiak! (Alde dagi).

LONTZ'ek.—Aztinaldia langorik emongo dau-tsoe orain orri nire idazkia irakurriten egon dalako. Inoren ixilkizunetan musturra sartzen dakian yopu baldartzarra!... Orren yarra yoango naz, orren aztinaldiaz poztu nadin. (Alde dagi).

II AGERLEKU.—Lengoxea. DUKEA'ren yauregiko Gela.

DUKEA ta TURI aurrera; PORTEU arein atzean.

DUKEAK.—Turi yaun, orain neskearen begien aurretik Balendin erbesteraturik dazanazkero, ez izan ak maite izango etzauzaren bildurrik.

TURI'k.—A erbesteratuazkero eguñokorik geien zapuztu nau, zin egin dau ezala nire lagun izango ta nitaz txarto esaka daragoio, ta, au dala-ta, ni etsita nago a eztodala iribiko.

DUKEAK.—Maitasunaren koska makal au leiean egindako zenbakiaren antzeko dok; ordubeteko beroak urtu ta bere antza galdu egiten yok. Aldi apur bat izango dok asko arein gogopen otzak urtuteko, eta Balendin gauz ezтана azturik izango dok. Kaixo, Porteu yaun? Guk agindu dogunez, ire aberkideak alde egin ete yok?

PORTEU'k.—Alde egin dau, ene yaun on.

DUKEAK.—Nire alabeak naibagez artu yok ak alde egitea.

PORTEU'k.—Alditxorik izango da asko arein naibagea ilteko.

DUKEAK.—Neuk be ori uste yoa; baña Turi eztok eretxi orretakorik... Porteu, ik irabazita ba-dokala erakutsi dokan itazko nire uste onak egokiagotu egiten au nik ikin auturik izateko.

PORTEU'k.—Zintzo naitzula erakusteko baño luzarago ez al naz biziko zure arpegia begiratzeko.

DUKEAK.—Ik ba-dakik nik gogoz be gogoz ezkonduko neunkela nire alabea Turi'kin.

PORTEU'k.—Bai, ba-dakit, ene yaun.

DUKEAK.—Baita, ba-dakik, nire ustez, nire gogoaz bestera nire alabeak ezkontza orri gogor egiten dautsala be.

PORTEU'k.—Olanixe egiten eban egin be, ene yaun, Balendin emen zanean.

DUKEAK.—Bai, eta orretan darrai a okerrez. Zer egin geinkeala uste dok ari Balendin aztuazo ta Turi maitezoteko?

PORTEU'k.—Orretarako biderik onena Balendin baltzitutea dala nik uste, ustelkeriz, dollorkeriz eta etorki zirtzilez; onako iru zerok emakumeak gorroto be gorroto dabez.

DUKEAK.—Bai, baña guk orrako ori bekathez egiten dogula uste izango yok ak.

PORTEU'k.—Bai, orrako ori langorik areriok esatekotan: orregaitik, orrako ori ak edersita dauenek esan bear dauiso ari, ardurarik andienaz.

DUKEAK.—Orrazkero, ik artu bear dok igan a baltzituteko arazoa.

PORTEU'k.—Eta olangorik egiteko lotsa izango naz ni, ene yaun; olango egitekoa zeregintzar eta iguingarri da gizazindontzako; alan be bere adiskiden aurka izatekotan.

DUKEAK.—Ire itz goreskorrek onik ezin egin leionari ire txarto esanek etxautsak inoz kalterik egingo; orrazkero, bealeku ori ainbaten dok, iri ire adiskidek olangorik eskatuazkero.

PORTEU'k.—Atzanean be irabazi daustazu, ene yaun; a baltzituteko nik esan neikenez inondik eta inora al ba'dot, zure alabeak ezta luzaro yarraiko Balendin maite izaten; baña bedar txar ori, Balendin'ganako aren maitasuna sustarretik, erroilik ateraarren, ortik ezator berez ak Turi maite izango dauenik.

TURI'k.—Balendin'ganako aren maitasuna kirimil erpatsu ta guzti bein azkatu ta kenduazkero, nigana, nire biotz-barrura ekarteko aletinak egin bear dozak, bedar txar ori atzera eldu ta bere kirimil eta erpaen artean besarkatu eztagian, untzak aretxaren enbor eta adarrakaz egiten dauenez; eta orretarako ik Balendin baltzitu ta gaztosten dokan bestean ni goretzi nagik.

DUKEAK.—Eta, Porteu, guk igan yartzen yogu gure ustea arazo onetan; ba-yakiguk, ba, Balendin'ek esanda, i dagoneko azala maitasunari zinez ire burua opatua ta ezin az asaldatu ta ire asmorik aldatu. Bai au dala-ta, Silbe'kin nasai itz egiteko

lekurako bideak nasai eta zabal izango dozak; eta izan be, a motel-geldoturik, az-tun, gotilun yagok, eta ire adiskideagaitik, i ikusiak poztuko yok; eta ik an Balendin gazteari gorroto ta nire adiskideari maitasunik izateko gogaldira eragin einkio.

PORTEU'k.—Al dodana egingo dot; baña i, Turi yaun, i ez az bizirik eta eraginik asko; ik lurrean karea zabaldu bear eunke, aren leieak an intsigita gelditu dadizan, amalauko negartiz, amalaukootan itz eretsuakaz otsein-zinak eralgita.

DUKEAK.—Bai, zerutiko olertiaren indarra andi dok izan be.

PORTEU'k.—Esaioik aren edertasunaren opamaian ire negarrak, ire arnas-otsak, intzirak, ire biotza opatzen dozakala; idatzioik ire idazkura legortu arteraño; eta ire negarrakaz ezatu ta busti egik ostera be; eta olango zintzotasuna erakutsi daikean lerro eragikoren bat eratu egik; eta izan be, Orpeu'n gitarreak eukazan ariak olerkariren zanilezkoak zoazan; aren urrezko ukutuak galtzaidua ta arriak bigundu egiten yoazan, katamotzak otzandu, eta bale eskargai ur sakon-sabonak itxiazo ta ondar-ganean yantzan eragin. Ire olerki negarbera-itunen ostan oa gabaz ire andrearen gelako leiopera eresi ezliren bategaz; ereslarion eresiari itz negarberaen batzuk nastu egiozak; gabeko ixiltasun ixilari ondo etorriko yakok zinkurin negarbera, Onetaiko bidez izan ezik eztoz a irabaziko.

DUKEAK.—Irakaskintza orrek irakasten dauenez, ik norbait maite izan dok.

TURI'k.—Gau onetantxe erabiliko yoat ire onua; orrazkero, Porteu ezti, nire irakasla, gaioazan bertatik urira, musikalari trebe diran gizazindo-billa: ba-yoat nik amalauko bat arazo onetarako beren-beregikoa ta ire onuari asierea emoteko gauz dana.

DUKEAK.—Atara, gizazindook.

PORTEU'k.—Zure ederraren begira egongo gara apal-osterarte; eta gero erabagiko dogu zer eta zelan egin.

DUKEAK.—Oraintxe eldu zuon egitekoari; ordozue nire ederra. (Alde dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.-MANTOBA ondoko baso.

LEGEBAKO batzuk aurrera.

- I LEGEBAKOAK.—Gertu, lagunok: bidazti bat dakust.
 II LEGEBAKOAK.—Amar ba'dira be ez kilil-
 du, yo ta zeartau baño.

BALENDIN aurrera, BIZKOR'ekin.

- III LEGEBAKOAK.—Geldi, yaun, eta egotzi ona aldean daroazuna; ostantxean lurrean yezarriazo ta tiro bana emongo yatzue.

BIZKOR'ek.—Yaun, gureak egin dau! orreik bidazti guztiak ainbesteko bildurra dauksen zitalak yatzuz.

BALENDIN'ek.—Nire adiskideok...

- I LEGEBAKOAK.—Ezta olangorik, yaun; zure arerio gara gu.

II LEGEBAKOAK.—Ixilik; entzun egin bear yautsalak.

- III LEGEBAKOAK.—Bai, nire bizarrakarren, entzun egin bear yautsalak; benetako gizon dok-eta.

BALENDIN'ek.—Orrazkero, yakin egizue nik ondasunetan zer galdu gitxi dodala; ez-bearrez ganaz egindako gizon nozue ni; nire ondasunak aldean daroadazan soñeko zirtzilok dira, ta oneik kendu ba'dagistazue dodan guztiak kentzen daustazue.

- II LEGEBAKOAK.—Norako bidea daroazu?

BALENDIN'ek.—Berona'rakoa.

I LEGEBAKOAK.—Nondik zatoz?

BALENDIN'ek.—Milano'tik.

- III LEGEBAKOAK.—Luzaro egon izan zara an, ala?

BALENDIN'ek.—Amasei bat ilebete; eta luzarago egon al izango nintzan, zori makurra bidera urten izan ezpa'litxat.

- I LEGEBAKOAK.—Ostera! erbesteratu egin zabez andik, ala?

BELENDI'ek.—Bai, ori egin dauste.

II LEGEBAKOAK.—Ze okerrerigaitik?

BALENDIN'ek.—Orain barrero esan-bearrak elorriok yasanazoten daustanagaitik; olangorik egin izanaren garbai izanarren orain, nik gizonik il dot; baño orraitño be garbi il neban, burruka garbian, ziritik sartzeka, azpikeri txatxarrik egiteka.

- I LEGEBAKOAK.—Ba! olan egin izan ba'dozu, eztozu zetan damurik izan. Baña olango aletzegaitik erbesteratu zaue, ala?

BALENDIN'ek.—Bai, eta pozik alan be ori baño epai txaragarik emon ez eustelako.

II LEGEBAKOAK.—Izkuntzetan yakitun ete zara?

BALENDIN'ek. Bai; gaztearoko nire ortik zear ibili-bear izanak orretarako erarik asko emon izan daust; ostein sarritan izango nintzan gogo-yausi ta errukarri.

- III LEGEBAKOAK.—Robin Hood'en (8) lekai-de loditoaren buru ulduarren, urli au beren-beregiko litzakigu gure bakaldun izateko.

I LEGEBAKOAK.—Geure buru egin bear dogu; itz bat, yaunak.

BIZKOR'ek.—Ugazaba, zadiz euretaiko! lapurreta goragarritariko yatzu ori.

BALENDIN'ek.—Ixilik ago, zital ori!

II LEGEBAKOAK.—Auxe esaiguzu. Ete dozu ezetariko eskuarterik?

BALENDIN'ek.—Nire zoriaz besterik ezer bez.

- III LEGEBAKOAK.—Yakizu, ba, gutariko batzuk gizazindoetaiko dirala; esatarako, gaztearo ezigearen lera neurgeak gizon begiragarrien artetik yaurtiten dauzanak; neu be Berona'tik erbesteratu nozu, andera etxarungai ta dukearen urreko senide zana ostu izanagaitik.

II LEGEBAKOAK.—Eta ni Mantoba'tik, nire gogaldi txarrean gizazindo bat biotzean zauritu ta il nebalako.

I LEGEBAKOAK.—Eta onango beste okerreri utsakaitik. Baña arira goazen, onako akatsok aitatuten ba'doguz, legebako gure bizitzen zurigarri izan dadizan aitatuten doguz-eta. Bestetik, ta azalez be gizon eder zareala, zeuk autortuz izkuntzalari, ta gure bizibidean bear doguna langoxe gizon egin-egina zareala-ta...

II LEGEBAKOAK.—Bai orixe; izan be zu gizon erbesteratu zara-ta, zukin egiunerik egin gura genduke. Eder ete yatzu gure buru izatea? Bearrari arpegi emon, eta gu lez lekaro, basamortu enetan bizitea?

(8) Robin Hood. Legebako ospatsu-ospatsu au asko be asko agertzen da Ingelanda'ko legebakoi buruzko ipuin eta abestietan. Legebako-talderen buru izan ei zan Ingelanda'ko Sherwood oianean. Aberatsai ostu ta ai ostua landerri banantzen ei eutsen. Bere bendekoen artean lekaide lodito bat be beukan, ipuiñak diñoenez, legebakoen gogo-arazoan ardurea eroateko-edo.

- III LEGEBAKOAK.—Zer diñozu? Guretaiko izan gura ete dozu? Erantzun baietz, eta zadiz gu guztion buru; men egingo dautzugu guk, zure agindura bizi, ta gure gudalburu baizintzazan zu maite.
- I LEGEBAKOAK.—Baña gure txera au baztaratu ta zapuztu ba'dagizu, zureak egin dau.
- II LEGEBAKOAK.—Etzara biziko guk zer eskeñi dautzugu orlik zear arro-arroka esaten ibilteko.

BALENDIN'ek.—Eskeintzen daustazuena aritzen dot, eta zuokin biziko naz, zuok okerrik ez egitekotan ez emakume ergeli ez bidazli txirori.

III LEGEBAKOAK.—Ez, olangorik ez; olango egite zantarrak guk iguin dausegu. Tiruk, ator guktin, gure lagunartera eroango augu eta dogun altxor osoa erakutsiko dauskagu; eta ori ta geu ire eskuko gozak. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-MILANO. Yauregiko Arrazpel.

PORTEU aurrera.

PORTEU'k.—Dagoneko izan naiako ustel Barentin'eri, eta orain beste ainbeste izan bear naiako Turi'ri. A gorantzeko zurrian (gorantzlekoa eginik) bidea zabalik dot neure maitasuna beinego izateko; baña Silbe lirainegi, zintzoegi, deunegi da gauz ez diran nire bezuzen deuz usteldurik izateko. Arentzako benetako zintzotasuna autortzen dautsadanean, nire adiskideaganako ustelkeria egozten daust arpegira; aren edertasunari nire zinak gorantzi ta oroitzen dautsadazanean, nik beñola maite neban Yule'ri egin eta ausi dodazan zinak goratzeko agintzen daust ak; eta aren batbateko zipladak gora-bera, zipladotatik txikiena maitalaren itzaropenai atzera eragiteko asko izanarren, txakurraren antzera, Silbe'k purrustadak eginago ta aganako nire maitasuna aziago egiten da, ta a kuntuaz doa oraindik be. Baña emen dator Turi; orain yoan bear dogu Silbe'n leiopera, ta aren belarriak gau-eresirik emon.

TURI ta Ereslariak aurrera.

TURI'k.—Gau on, Porteu yaun! Gure aurretik tarraz eldu az, ala?

PORTEU'k.—Bai, Turi maitagarri; ba-dakik ba, maitasuna tarraz yoaten dala oñez ezin dan tokira.

TURI'k.—Bai, baña ik emen nor maiterik ez tokala uste yoat nik.

PORTEU'k.—Baña nik ba-yoat, yaun: ostean enintzatekean emen.

TURI'k.—Nor? Silbe, ala?

PORTEU'k.—Bai, Silbe... igaitik.

TURI'k.—Eskerrik asko euregaitik. Orain, gizazindook, ekin eresiarri, eta ekin erruki barik apur baten.

ARROZLARIA (ostataria), urrinetik aurrera; eta YULE mutil-yantzirik.

ARROZLARIAK.—Nire arrotz gazte ori! zu gotilun zagozala uste dot; esaidazu, arren, zegaitik zagozan.

YULE'k.—Zegaitik egongo naz, ba, ene arrozlari, txitxari ta gogargi ezin egon nazalako baño?

ARROZLARIAK.—Tira, geuk poztuko zauguz; neuk eroango zaudaz eresirik entzungo dozun lekura, eta zuk ataz itanduten dozun gizazindoa ikusiko dozunera.

YULE'k.—Itzik entzungo ete dautsat, gero?

ARROZLARIAK.—Bai, entzungo dautsazu.

YULE'k.—Ori izango yat eresirik asko. (Eresia yoten).

ARROZLARIAK.—So! So!

YULE'k.—Orrein artean ete dago a, ala?

ARROZLARIAK.—Bai; baña ixil, entzun daguegun.

ABESTI

Nor da Silbe? Zer ete dogu a.
Gazteak oro gora dabe-ta?
Deun, lirain eta zur be ba-da a.
Oron arrigarri izan dadin
Zeruak ederrez yantzi dabe.
Lirain aña maitagarri ete?
Ederra maitagarin lagun da:
Maitasuna begietara doako
Bere itsutasuna osatzera:
Ta, osatu-ala, an gelditzen.
Abestu daiogun, ba, Silbe'ri,
Silbe neska bikain-bikainen dala:
Lur motel-ganeko ezer baño
Bikain-bikañago dogu Silbe.
Dakarrosogun lora-sorta bana.

ARROZLARIAK.—Eta? Len baño gotilunago zauguz, ala? Olangorik, gizon! zuri etxatzu gogoko eresori.

YULE'k.—Oker zagoz; ereslaria da niri gogo-ko etxatana.

ARROZLARIAK.—Zegaitik, ene gazte polit?

YULE'k.—Ustel yolen dau,aita.

ARROZLARIAK.—Zer? Doñutik bestera, ala?

YULE'k.—Ez, ori ez; baña orraitño be doñutik landara ta nire biotzeko ariak be mindu egiten daustaz.

ARROZLARIAK.—Zuk belarri bizi-zoliegiak dozuz.

YULE'k.—Bai, gor al nintz! biotza moteltzen daust.

ARROZLARIAK.—Dakustanez, zu etzara bape eresizale.

YULE'k.—Deusik bez, orren latz danean.

ARROZLARIAK.—Entzun, ara zelango aldakuntza zoragarri izan dauen eresiak.

YULE'k.—Bai; ori zakarretik zakarragorako da.

ARROZLARIAK.—Beti zer bat bera yotea gurako zeunke, ala?

YULE'k.—Beti zer bat yotea gura neunke nik izan be. Baña, arrozlari, Porteu yaun guk daraqoiogun au, sarritan etorten ete da emakumezindo orregana?

ARROZLARIAK.—Nik esango dautzudana auxe da: bere otsein Lontz'ek esan eustanez, ak emakume ori igarri-igarrian maite dauela.

YULE'k.—Non da Lontz ori?

ARROZLARIAK.—Bere txakurraren billa yonik da; bere ugazabaren aginduz, biar goxean emakume orri esku-agiritzat emoteko ekarri bear dau-ta.

YULE'k.—Ixil! bazartu zadiz! talde ori alkarregandik bananduteko da.

PORTEU'k.—Turi yaun, ez izan bildurrik! or ikusiko dozu nik ari zure alde eskatzeko erabiliko dodan bide barri zurra iñondikorik bikainena dala; zeuk be autortuko dozu ori.

TURI'k.—Non yoteko alkarregana?

PORTEU'k.—Gergori Deunaren oxin-ondoan.

TURI'k.—Agur. (TURI'k eta Ereslariak alde).

SILBE agiri da goitegian, bere leioan.

PORTEU'k.—Andera, gau on zuri, andera orri.

SILBE'k.—Gizazindook, eskerrik asko zuon ereslagaitik; nor da itz egin dauena?

PORTEU'k.—Zuk aren biotzeko zintzotasun garbia ezagun ba'zendu nor dan aren abotsetik igarriko zendukeana bera.

SILBE'k.—Oker ezpa'nago zu Porteu yauna zauquz.

PORTEU'k.—Porteu yauna izan be, andera maitagarri, ta zure otsein.

SILBE'k.—Zer gura dozu?

PORTEU'k.—Zure guraria egitea.

SILBE.—Or dozu zure guraria; nire guraria egin-eginean auxe yatzu... zu luki, zin-yale, ustel, zintzotasuna zer danik be eztaikun gizon ori zoazala arin eta bertatik zurera ta oera! zure zinen bidez ainbeste atzipetu, ainbesteri ziria sartu, ainbesteri iruzur egin dautsezun orrek zure zurikeriz liluratzeko bestean sinisbera ta burubako nazala uste dozu, ala? Zoaz atzera, zoaz atzera ta ordaindu zure maiteari dautsazun zorra, Nigazko, gabeko erregeno zurbil auarren zin dagit zure okerreko maite-eskabideari erantzutetik urrin be urrin nagola ta, urrin egonaz ganera, zeu be eskabide orregaitik ezetsi, zapuztu egiten zaudazala, ta bertatik neure buruari asarre ta agirika egiteko nazala, zukin itz egiten emon dodan astiagaitik be.

PORTEU'k.—Ba-dautort, maite ezli ori, emakumerik maite izan dodala; baña a ilik dago.

YULE'k.—(Bere kitean) Orrek esana nik esan ba'nengi, guzurra esango neunke; ezta il seguru nago-ta.

SILBE'k.—Dagigun il dala No a; orraitño, Balendin zure adiskidea oraindik bizi da; eta ni ezkontzeko itza ari emonda nagonaren lekuko ta autorla zeu zara. Eta ez ete dozu lotsarik ari irain eta okerrik egiteko niri ziri-zirika ibilteko?

PORTEU'k.—Balendin be ilik dala entzun dot.

SILBE'k.—Ba, ni be ilik nazala uste egizu; eta izan be, zagoz seguru nire maitasuna be aren ilobian dartzala eortzita.

PORTEU'k.—Andera ezti, maitasun ori lurpetik ateraten itxi egidazu.

SILBE'k.—Zoaz zure anderearen ilobira, eta arenari dei egiozu andik urteteko. Naiz, ori ezean, gitxienez sartu zurea arenaren ilobian.

YULE'k.—(Bere kitean) Ak eztau entzun orra-ko ori.

PORTEU'k.—Andera, zure biotza orren gordingogor ba'da, orraitño be dautzudan maitasunaren alderako emoidazu zure irudirik; zure gelan eskegita dagon zure irudia; ari itz egingo dautsat, ari intziri ta negar egin; eta izan be, zure zer oso orren zerizana ta mamia beste nonbaiten eta beste norbaiteri intsigita dagozanazkero, ni itzalaz besterik enozu; eta zure irudiari egingo dautsada z nire maitaketa zintzoak.

YULE'k.—(Bere kitean) Zer-izanik eta mami-rik ba'litzok, ik marro egingo eunskio, eta itzal utsetan itxi, ni itzal utsetan nagon legetxe.

SILBE'k.—Yaun, zure yainkoizun izateaz lotatuta naukazu; baña zure ustelkeriari izalak eta guzurrezko irudiak gurtu ta yaurestea ondo etorriko yakonazkero, bida-

li egizu goxean norbait aren billa, eta bidaliko dautzut; eta orrazkero, gau on.
PORTEU'k.—Bai, goxean ilteko diran zori txarrekoen antzeko gaba.

III AGERLEKU.—Lengoxea.

EGALMOR aurrera.

EGALMO'ek.—Au da Silbe'k berari dei egiteko ta bere gurariaren yakitun ni egiteko agindu eustan ordua: arazo andien baten erabili gura nau, urrean... Andera, andera!

SILBE agertzen da goitegian, bere leioan.

SILBE'k.—Nor dogu deiez?

EGALMOR'ek.—Zure otseina ta zure adiskidea: zu andera orren aginduaren begira dagona.

SILBE'k.—Egalmor yaun, milla bider egun on.

EGALMOR'ek.—Beste ainbeste zuri, aintzako andera orri. Zu andera orren aginduaren arazuz, onen goiz etorri naz, ze otseintza agintzea eder yatzun yakiten.

SILBE'k.—Agalmor ori! zu gizazindorik zara..., ez uste izan ni zurikerietan nabilzunik, olangotan enabilela zin dagit-eta..., zu adarretsu, zur, errukior eta, benetako gizon oso zauguz. Etzara zu erbesteratuko Balendin' eri nik dautsadan lera ta on-gurearen barri eztakianik; ezta nire aitak ni akin ez-konduzo gura nauen Turi buru-arinari nire biotzak dautsan iguinaren barri eztakianik be. Zu zeu be maite izana zara; eta neuk daukat zuri entzunda zure andera ta zure maite zintzoa il yatzunean besteko naibagerik eztozula eguño izan, eta aren ilobi-ganean zin egin zendula gizkarbi irauteko. Egalmor yaun, Balendin'gana yoan gogo dot nik, Mantoba'ra, an bizi da-

la entzunda nago-ta; eta, arako bideak galbidez beteak dirata, zu, aintzako ori, zu gura zindukedaz bide-laguntzat; nik nire burua zure zintzotasun eta deduaren bende yarrten dot. Ez ekin nire aitaren asarrez, Egalmor, nire naibagea, emakumeren naibagea gogotan artu baño; oroi-tu nik emendik alde egiteko dodan biderik askoaz be zeruak eta zoriak izurriz zigorrtzen daberen ezkontza askarritik alde egiteko da-ta. Ixasoak ondarretan dauen beste lorrez beterik dodan biotzez eskatzen dautzut lagun zakidazala, ta nikin batera zatozala: olangorik ez egitekotan, ixilik euki egizu nik esan dautzudana, bakarrik yoaten azarri nadin.

EGALMOR'ek.—Andera, zure naibageai erruki be erruki dautset; eta zuri erabagi ori arrazoten dautzuen zegaitiak zuzen-bidezkoak diranazkero, or dozu nire baietza zukin yoateko; neuri zer yazokoaren ardurarik eztodan besteko zori ona opa dautzut. Noz yoatea gura dozu?

SILBE'k.—Etorri datorrkun gabaz.

EGALMOR'ek.—Non batzeko gu alkarrekin?

SILBE'k.—Patirik lekaidearen gelan, nire aurtorpen gurena an egiteko naz-ta,

EGALMOR'ek.—Eztautzut utsik egingo andera orri: egun on, andera maitagarri.

SILBE'k.—Egun on, Egalmor yaun txeratsu orri. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.—Lengoxea.

LONTZ aurrera, bere txakurrakin.

LONTZ'ek.—Aor ba, gizonaren otseinek gizonagaz txakurrarena egin bear dauenean, zera txarto doa: txakurkumetandik neuk azi nebana, bere iru-lau anai ta arreba itsu ito ziran legetxe bera itotetik yarei nebana; inok esan ba'legi "Onan irakatsiko neunskio nik txakurrari", egin-eginean be olantxe irakatsi dautsat nik oneri. Nire ugazabak txakur au esku-agiritzat Silbe andereari eroateko bidali nau; baña ni aren yatokira sartu-ala, an doa lotsabakoa artez-aztez yanaritegira ta ollar irenduaren iztar bat ostuten dau. Ene! andi ta lotsagarri ta askarri

da txakurra edozeintzuen artean eraz eta egoki ez yadutea! Nik gurako neunkeana da txakurrak beti txakur izan bear leukeala, benetako txakur, txakur oso ta egin. Nik nire txakurrak baño buru geiagorik izan ezpa'neu, eta aren utsa neure lepoan ez artu, benetan sinisten dot a onazkero eskegi ebela egin dauenagaitik; zeuk ebatzi. Dukearen maipeko gizazindo-antzeko txakur-artera sartu da: ezta egon izango an, -parkatu-, txiz egiteko lain luzaro, baña yatoki osoa txiz-usainez bete da. "Landara, txakurra" diño batek; "Ze txakur zantzar da ori?" diño beste batek; "Landara

ori bizkarra berotuta" diño irugarren batek; Eskegi egizue" diño dukeak. Usaina lendik yatan ezagun-eta, nik ba-nenkian Karamarro'na zana;ba-noa ba, txakurrai txibitea emoten daragoien lagunagana: "Adiskide" dirautsat, "txakurrari txibitea emon gura dautsazu, ala?-Bai, arrano, emon gura dautsat" diño ak. "Orrexegaitik oker andiagorik egiten dautsazu" diñot nik"; neu izan naz orrako oker ori egin dauena". Geiagoko barik, txikita-olsean atera nau andik. Zeinbat ugazabak egingo ete leukie beste onenbeste euren olseinen alde? Bai, eta zin egiteko gertu nago oinbiurretan egona naz onek ostu izan dauzan gozokiakaitik, ostean onenak onazkero egin eban: pikotean egona naz onek il izan dauzan antzarrakaitik, ostean beronenak ikusi bear izango ebazan onek orregaitik: zit-tal orrek, ik dan au aztuta daukak...! Bai, nik, gogoan yaukat Silbe andereari agur egiterakoan ik niri egindako marroa; ez neuskan nik agindu niri adi egoteko ta neuk egiten neban legetxe egiteko, ala? Noz ikusi izan nok ni zangoa eragi ta andera zindoren gonari txizik egiten? Eguño ikusi ete nok olango txantxa zantarrrik egiten?

PORTEU ta YULE aurrera.

PORTEU'k.—Sebasten yatzu izena, ala? Begiko zaizataz, eta laster erabiliko zaudaz egitekoren baten

YULE'k.—Zeuk zetan gura...; al dodana egiteko gertu nozu.

PORTEU'k.—Alan uste dot neuk be... (LONTZ'eri) Ze barri dok, basetxetar sasikume ori? Nondik nora ibili az egun biotan alperkeriz ortik zear?

LONTZ'ek.—Ba, yaun, eroan dautsat Silbe andereari zuk agindu zeunstan txakurra

PORTEU'k.—Eta zer esan yok ak nire pitxitxoaz?

LONTZ'ek.—Ba, ak diñona zure txakurra txakur zakar-ziztrina dala da; eta alango esku-agirintzako txakur ziztrin-eskerrak be eskerrik asko dirala.

PORTEU'k.—Baña artu yok nire txakurra, ala?

LONTZ'ek.—Ez orixe, eztau artu: emen ekkarri dautzat atzera.

PORTEU'k.—Ostera! Nire aldetikotzat eskeñi ete dautsak, gero?

LONTZ'ek.—Bai, yaun; beste mixerra giza-eskegitzallearen mutillak ostu eusten azokan: eta, orrazkero, neurea opatu dau-

tsat; eta au zurea lango amar beste andi ba-da, ta orrazkero esku-agiri andiago.

PORTEU'k.—Oa, ken akit emendik eta oa nire txakurraren billa, ostean ez akit etorri aurrera iñoz be. Alde, gero. Oraindik be or ago niri gogait eragiteko, ala? Yopu orrek txitean-pitean lotsatuten nok. (LONTZ'ek alde)

Sebasten, olseintzat artu aut, batetik ori baldarto ergel ori iñok orregan usterik izatekorik eztanazkero nire arazoak sentzun apurren bategaz egiteko gauz dan gaztebearrik dodalako; baña batez be ire arpegi ta yardukereagaitik; eta izan be, nire igarpena okerrekorik ezpa'dok, aitatu dodazan ire zerok ire azi-elikera onaren, zorriaren, eta zintzotasunaren autorria dozak: yakik, ba, beraz, orrexegaitik artzen audala olseintzat. Oa ba bertatik, eta erestun au aldean artu, eroan eta emoiok Silbe andereari: maite-maite nindun au emon eustanak.

YULE'k.—Dirudianeaz, zeuk etzeban maite a, aren maite-agitxari agur egiten dautsazunazkero: No a ilik da, urrean.

PORTEU'k.—Ez, olangorik ez: bizirik dala uste dot.

YULE'k.—Ene!

PORTEU'k.—Zer dala-ta egiten dok gedar, Ene?

YULE'k.—Ezin dot aren errukirik izan ez.

PORTEU'k.—Zegaitik izan bear dautsak errukirik?

YULE'k.—Nire ustez ak zu zuk Silbe maite dozun bestean maite zinduzalako: No a bere maitasuna aztu dauenez dago amesetan; zure maitasunari yaramonik egiten eztautasana kutuntzen daragoiozu zuk. Errukarri da maitasunak orren alkarren aurka egotea, ta ori gogoratzeak gedar eragiten daut Ene!

PORTEU'k.—Tira, ba, emoiok No ari erestun au ta elastunaz batera idazki au be...; a dok aren gelea... Esaiok nire andereari ak aginduko bere zerutar irudiaren begira nagola. Bein ire geznea egindakoan, ator arin nire gelara, an aurkituko nok goga-yausi ta bakarri-ta, (PORTEU'k alde).

YULE'k.—Zenbat emakumek egingo ete leukie onango geznarik? Ene! Porteu'n errukarri! Azeria artu dok ire asuri-yagolatzat; ene! zoro orren errukarri! zegaitik dautsat errukirik biotz-biotzez ezetsi ta zapuzten nauenari? No a maite izatearren, ni ezesten nauelakoxe; maite dodalako, erruki izan bear dautsadalako. Neuk emon neuntsan elastun au, alkarri agur egin

geuntsanean, nire maitasuna gogoratuazoteko: eta orain neuk, zori geztoko geznari onek, neuk eskatu bear arentzako, iristerik gura eztdodana; artzerik gura eneunkeana bera emon bear; goretsi egin bear, beretsirik gura neunkean zintzotasuna bera. Ni naz nire ugazabaren benetako maite baiez-tua, baña ni ezin izan nire ugazabaren otsein zintzorik, neutzako saltzalle ustel ez izatekotan. Orraitiño nik maite-eskabiderik egingo dot aren aldetik; baña, Yaungoikoak daki, eskabide ori ari zera ondo ur-ten eztaqiola gura dodan bestean otzik egingo dot.

SILBE aurrera, lagunduta.

Egun, on, emakumezindo! Arren, zakidaz bi-tarteko ta eroan nagizu Silbe andereakin itz egiteko lekura.

SILBE'k.—Zer gurako zenduke aregaz ni izatekotan?

YULE'k.—Zu ba'zara a, arentzako emon izan dausten geznea entzuteko lain epe izango al dozu.

SILBE'k.—Nogandik?

YULE'k.—Nire ugazaba Porteu'gandik, ande-ra.

SILBE'k.—Ostera!... irudi-billa bidali zauz ak, ala?

YULE'k.—Bai, andera.

SILBE'k.—Ursule, ekazu an dagon nire irudia. (Ba-dakar irudia).

Zoaz eta emoiuzu au zure ugazabari: esai-
zu nire aldetik, aren gelarako itzal au ba-
ño egokiago letorrkela aren gogapen alda-
korrak aztu dabon Yule dalakoa.

YULE'k.—Andera, irakur egizu, arren idaz-
ki au, Parkatu, andera; oartzekta, bear ez-
tan (okerrekto) ingirik emon izan dautzut.
Au dozu zu andera orrentzakoa.

SILKE'k.—Arren, itxi egidazu beste ori ba-
rien-barri begiratzen.

YULE'k.—Ezin daitekena da; ori parkatu, an-
dera on.

SILBE'k.—Eutsi, ba. Begiratu gura be eztoz
zure ugazabaren lerrorik: ba-dakit nik orreik
nire aldeko autorpenez yosita, ta zin as-
mau-barriz atsituta dagozana; eta ak zi-
nok nik ingi au urratzen dodan bestean
errez ausiko dauz.

YULE'k.—Andera, ak zu andera orri elastun
au bidaltzen dautzu.

SILBE'k.—Lotsagarriago arentzako ori niri bi-
daltzea; milla bider entzun dautsat esaten
ori bere Yule'k emon eutsala alkarri agur
egiterakoan-eta; aren atz ustelak elastun

ori loitu izanarren, nireak eztautso egingo

Yule'ri orrenbesteko okerrak.

YULE'k.—Artu aren eskerrak.

SILBE'k.—Zer diñozu?

YULE'k.—Eskerrik asko damotzut, andera, ari
zure ederra opatzen dautsulakoa; emaku-
mezindo aren errukarr! oker andia egiten
dautso, nire ugazabak.

SILBE'k.—Ezagun dozu Yule ori, ala-

YULE'k.—Larri-larri neure burua bestean;
autorrutu dautori, aren naibageak gogora-
tuaz eun bider negar egin dodala.

SILBE'k.—Ba-leiteke Porteu'k bertan-bera itxi
dauela ak uste izatea.

YULE'k.—Nire ustez, ak orixe uste be uste
dau, eta orixe da aren lorraren begaitia.

SILBE'k.—Ez ete da a lirainik lirainena?

YULE'k.—Dan baño lirainagorik izana da a,
andera; nire ugazabak benetan maite eba-
la uste ebanean, nire ustez, a zu zarean
bestean lirain ba-zan; baña ak bere ispi-
llua begiratzea itxi, ta eguzkiari biderik egi-
ten ez izteko arpeg-estalgia bazartu eba-
nazkero, eguratsak yan dautsaz mosuetako
larrosa-margoa, eta arpegitilik lili-antza os-
tu dautso, eta orain neu bestean baltz egin
da.

SILBE'k.—Ze luzera eban?

YULE'k.—Giti gora-bera, neure luzerea: eta
izan be, Mendekostetan, erriaren aurrean
gure atsegin-yolasak egiten ziranean, gure
gazterik emakumena egiteko izentau nin-
dun eta Yule neskearen yantziak yantzi-
zoz eustezan; eta gizon guztien eretxiz, aren
yantziak niri neutzako ebagi-yosiak baili-
ran egoki etorkidazan; eta aldi atan ne-
garrrik asko eragin izan neuntsan, nire
egitekoa itzalez negargarri zan eta; an-
dera, nik Ariadne'na egin bear izan ne-
ban (9), Teseu'n zin-yate ta bidebako ige-

(9) Ariadne ta Teseu. Eladetarren miti-iztia-
ren arauz. Ariadne Kerete izaroko bakaldun
Minos'en alaba zan. Teseu, ostera, Azena'
ko bakaldun Aigaios'en seme. Mino-zezen
edo Minotaur dalakoa buruz zezen eta soñez
gizon zan bidutzi edo mamu dogu; bere gu-
rasoak Pasipae, Minos'en emaztea, ta zezen
izan ei ziran; olango bidutzi lotsagarri-
rik errege-yauregian ezin euki-ta, arentzako Mi-
nos'ek lurpean berarizko etxe egin eban
eta etxe orren barruko bideak sarritan alka-
rregaz kurutzeturik, bein arazkero andik
atzera-biderik idorotea zeregin zaila zan. Bi-
dutzi orri yaten emoteko, Azena'tarrak urte-
ro zazpi mutil eta beste ainbeste neska gazte

siagaitik naibage-lorrez beteriko Ariadne'na; nik nire negarrez bizi be bizi egin neban Ariadne'na-ta, nire andera errukarriak, nik eraginda, negarrak lango negarrak egin ebazan; eta ilgo al naz nik orduan uste izan ezpa'neban a naibagetu naibageturik egoala!

SILBE'k.—A zorrean yatzu, gazte zindo!... Ene! emakume aren errukarri! poz barik eta deslái itáita!... zure itzak entzunda, neuk be negar dagit. Amen, gazte, eutsi nire zisku au: au zure andereagaitik damotzut, zuk a maite dozu-ta. Agur. (SILBE'k alde).

YULE'k.—Eta zuk iñoz ezagutu ba'dagizu a, ak orregaitik eskerrik asko emongo dautzu. Emakumezindo onbidetsu, biozbera ta eder orixe. Ba-dot nik itzarorik nire ugazabaren maite-eskabideak arrera otza izango dauela, Silbe'k nire ugazabanderearen maitasunarentzako orrenbeste begirune dauenazkero. Ene! maitasunak bere buruaz erabili leikezan yolasena! Emen dago orren irudia. Dakusdan: onango apainketarik ba'leu, nire arpegi au be onako No onena bestean eder-maitagarri litzateke-la nik uste: eta orraitíño margolarlak oneri

zuriketa apur bat egin eutsan, neure burua zurituegi egiten ezpa'dot, gero. No onen adatsa urre-baltzeran da, nirea bellegi-bellegi: alde orretatik bakarrik ba'dator To aren maitasuna, olangoxe guzurrezko adatsik lortuko dot. No onen begiak leiarra baxen urdin dira: eta nireak be olangoxe dira: bai, baña No onen bekokia txiki da, nirea andi (10). Zer izan ete leiteke To ak No onegan begiragarri aurkitu ta nik neugan begiragarri ezin egin nengikeanik, maitasun intsigibera au yainko itsu ezpa'litz? Tira, Yule, zeure itzal ori, No onen antza ar egizu, zure leiakide da-ta. Bizibako irudi ori, zu yauretsia, mun egina, maite izana, ta gurtua izango zara; eta orraitíño, yainkoizun gurtze orretan sentzunik izatekotan, nire zer-izana izan bear litzateke irudi zure orde. Irudi ori, begirunex erabiliko zaudaz zure yabe andereagaitik, berak be niqazko begirunerik izan dau-ta; ostein, Yupiteraren zin dagit, begi itsuok atzazka aterako neunskizuzan, nire ugazabari zuganako maitasuna erauzi-kentzeko (Alde dagi).

V EKITALDI

I AGERLEKU.—Lengoxea. Lekaretxe.

EGALMOR aurrera.

EGALMOR'ek.—Eguzkia asirik da sarkaldeko ortzea urrezatzen: eta oraintxe da, urrean, ni ta Silbe Patirki'ren gelan alkarrekin aurkitzeko tertzioa. No ak eztau utsik egingo: eta izan be, maiteak eztabe austen izentauko ordurik, aldiz aurretik erduteko izan ezik: orrenbesteraño sartzen dautsoez aztalak eta akulua euren bide-egiteari.

SILBE aurrera.

Ára non datorren; arrasti on, andera!
SILBE'k.—Olantxe, olantxe! Aurrera, Egalmor on! Lekaretxe-ormetako atzealdeko atetik urtengo gara; kukuka legokezanen batzuk nire zaí ete dagozan bildur naz.

EGALMOR'ek.—Ez izan bildurrik: basoa iru legoa baño urrago dago; Ára bein eldu ba'gadiz, segururik asko gara. (Alde dagie).

bidali bear izaten ebezan. Olango zerga latsagarri ta gordina amaitzeko asmotan Teseu'k bidutzi ori marroz, naiz indarrez iteko asmoa artu ta Kerete'ra yoañ zan. Ára eldu ta laster maitemindu zan Ariadne Teseu'az eta Teseu'ri bere erabagia burutzeko lagun egin yakon. Aril andi bat emon eutsan, barrura yoañ-ala arila azkatu ta, gero, atzerakoan, aritari yarraiaz argitarako bidea aurkitzeko. Teseu'k il eban Mino-zezena ta bai gero argitara urten be, eta Ariadne bere emaltetzat

artuta, Kerete'tik alde egin; baña gizonaren biotza aldakor izan-eta, Ariadne errukarria, lotan egoan baten, Naxos izaroan bertan-bera itxita alde egin eban. Bere burua bakarrik ikusi ebanean, Ariadne'n negarrak biotzik gogorrenak be austekoak izan ziran, Teseu gedarra, baña Teseu'rik ifiondik agiri ez.

(10) Ganetiko edergarriak alde, aldi atan emakume bekoki-zabalak bekoki-estuek baño ederragotzat esten ziran. Aldien zaletasunak!

II AGERLEKU.—Lengoxea. DUKEA'ren Yauregiko leku.

TURI, PORTEU ta YULE aurrera.

TURI'k.—Porteu yaun, zer diño Silbe'k nire maite-eskabideaz?

PORTEU'k.—Yaun ori, len zan baño otzango aurkitzen dot a; eta orraitño be eztago zure alde, zuri akatsik aurkitzen dautzu.

TURI'k.—Ostera! nire zangoa luzeegi dala, ala?

PORTEU'k.—Ez; meegi dala baño.

TURI'k.—Oski garratzik erabiliko dot, orrazkero, borobil-samarrago egiteko.

PORTEU'k.—Baña maitasunak eztau gura izaten iguin dautsanaren aldera iñok zirikatutagianik.

TURI'k.—Zer diño ak nire arpegiaz?

PORTEU'k.—Zuririk asko dala diño ak.

TURI'k.—Ba, orrazkero, txantxetari ak guzurrara esan dau; baltzeran da nire arpegia.

PORTEU'k.—Baña txirlarriak zuri yatzuz; eta esakune zarrak diñonez: "Gizon baltzak emakume lirainen begientzat txirlarri dira".

YULE'k.—(Bere kitean) Bai, orren begiak emakumei euren begiak beste aldera eragiteko obeak dira, nik orrei begiratu baño begiak itxi gurago neunke-ta.

TURI'k.—Ze eretxi dau ak nire itz-egikereaz?

PORTEU'k.—Eretxi txarra zuk gudeaz itz egiten dozunean.

TURI'k.—Baña ona, nik maitasunaz eta ba-keaz itz egiten dodanean, ezta?

YULE'k.—(Bere kitean) Baña oberik, benetan, zu ixilik zagozanean.

TURI'k.—Zer diño ak nire adorea?

PORTEU'k.—Yaun ori, eztau ak ezpairik orretaz.

YULE'k.—(Bere kitean) Ez ba, ezin izan ezpairik, dollorkeri dala ba-daki-ta.

TURI'k.—Zer diño ak nire leñuaz, nire etorkiaz?

PORTEU'k.—Leñu ta etorki oneko zareala.

YULE'k.—(Bere kitean) Egia; gizazondoren seme ergel dala.

TURI'k.—Nire ondasunak burutan eta aintzakotzat ete dauz?

PORTEU'k.—Ene! bai orixe; eta erruki dautse.

TURI'k.—Zegaitik?

YULE'k.—(Bere kitean) Alango astakok euki bear dauzalako.

PORTEU'k.—Errentan emonda dagozalako.

YULE'k.—Or dator Dukea.

DUKEA aurrera.

DUKEAK.—Eta, Porteu yaun? Eta, Turi? Zenek ikusi dozue oraintsuen Egalmor yauna?

TURI'k.—Ez nik.

PORTEU'k.—Nik bez.

DUKEAK.—Nire alabea ikusi dozue, ala?

PORTEU'k.—Ezta.

DUKEAK.—Ba, orrazkero, ak arako Balendin baseketarragana igesi dau; eta Egalmor aren lagun da. Egia da, Laurentzi lekaideak ikusi izan dauz oben-nekaldia artzen ebilen bitartean-eta; Egalmor ondo ezagutu dau, eta neskea nire alabea zalakotan dago a; baña arpegia marroz estalita ebanazkero, eztago seguru-seguru a zanik; orrez ganera, a iluntze onetan Patirki'n gelan bere autorkuntzea egiteko zan: eta an ezta izan: egi-antzok aren igesa baieztu egiten dabe; orrazkero, arren, ez galdu astirik itz-darioka, bertatik zaldi-ganeratu baño; eta, zuok eta ni Mantoba'ra daroan bideko mendiaren egalpean alkarganatu gadizan, aik Mantoba'ra igesiak dira-ta. Arin egin, gizazindo maitagarriok, eta erdu nire yarrai. (Alde dagi).

TURI'k.—Orraitño neska au gogalditsu be gogalditsu da, bere yarrai doakon zori onari igeska dabil-eta; aren atzean yoango naz; Egalmor'eri berea emoteko, sentzumbako Silbe'n maitasunarren baño areago. (Alde dagi).

PORTEU'k.—Ni be yarrai noake, Silbe'kin yoan dan Egalmor'eri dautsadan gorrotoarren baño areago Silbe'ri dautsadan maitasunarren. (Alde dagi).

YULE'k.—Eta ni be yarrai yoango naz, maitasun orri eragozpenik yarteko geiago. Silbe'ri dautsadan gorrotoarren baño, a berea be maitasunarren yoan da-ta. (Alde dagi).

III AGERLEKU.--MANTORA'ko mugetan. Oian (baso).

SILBE, ta Legebakoak aurrera.

- I LEGEBAKOAK.—Tirun, tirun; epe ar egin; gure gudaiburuagana eroan bear aunagu.
- SILBE'k.—Onez gainerako milla zori txarrek irakatsita naukazu onako au epez artzeko.
- II LEGEBAKOAK.—Tiruk, eroaik No ori emendik.
- I LEGEBAKOAK.—Nondik dok No onekin batera egoan gizazindoa?
- II Legebakoak.—Zango-bizkor izan-eta, guk baño arinago egin yok ak, baño Moxe ta

Baleri yoan dozak aren atzetik ara. Oa i No orrekin basoaren sarkaldoko ertzera; an dok gure gudaiburuu; gu igesiaren yarra yoango gozak. Sasi ta sastraka au esiturik yagok; etxaukak igespiderik.

- I LEGEBAKOAK.—Tirun, gure gudaiburuaren artzulora eroan bear aunat; ez izan bildurik; a gizon zindo yatzu, eta ezta erabiliko emakumerik legez bestera.
- SILBE'k.—Balendin ori, zugaitik yasaten dot nik au. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--Basoko beste arloi.

BALENDIN aurrera.

BALENDIN'ek.—Oituaren oituak bai sortu ekandurik gizongan! Uri mardul-yentetsurik baño erogarriago yataz baso itzaltsu au, eta oian bakartio: bakarrik yezari naitete emen inok ikusteka, eta uretxindorren ots zinkurintsuen doñura nire neke-lorrak abestu ta nire ezbeurrak gogoratu. Nire biotzean bizi zaran ori, ez itxi zure bizilekua orren luzaro utsik, zakartu ta lurre-ra yausi ta, olan, len zer zanaren oroimenik be ez gelditzerik yazo ezadin! zeu agertu ta barriztau ta lengoratu egizu, Silbe; ur-neska maitagarri orrek; kutundu nagizu zure maitale deslai auk!... Gaurko eize-zarata ta iskanbillearena! Euren guraria lege egiten daben nire lagunak dira oneik, bidazi zori geztokoen baten eizean daragoienok: maite be maite nabe; orraitioño buruko minik asko be emoten dauste eurok irain zantzarretik alde eukiteko. Baztartu adi, Balendin; nor datorku emen? (Baztarrera egiten dau).

PORTEU, SILBE ta YULE aurrera.

PORTEU'k.—Andera, otseintza au egin dot zure alde... zure otseinak dagianik zuk aintzakotzat artu ezarren... nire bizia galdugordean imini, ta zure entzute ona ta zure maitasuna indarrez benderatu gura ebazanaren eskuetatik yareita. Emoidazu sarizat zure begirakune bat baño epa'da be; ezin eskatu neitsu au baño sari txikiagorik, eta seguru nago ori baño gitxiagorik eztaustazula emongo.

BALENDIN'ek.—(Bere kitean) Nik dakustana ta dantzudana bai ba-dala ames-antzekorik!

Maitasun, emoidak zorrean apur bateko eperik.

SILBE'k.—Nirearen errukarri ta zori geztoko!

PORTEU'k.—Ni eldu baño len bai ba-zintzazan zu zori geztoko, andera: baño ni elduaz zori oneko egin zaudaz.

SILBE'k.—Zu elduaz eguñokorik zori gezto-koen egiten nozu.

YULE'k.—(Bere kitean) Eta ni, ori zuri aurre-ra datortzunean.

SILBE'k.—Gurago neunkean leoi gosetik goatu ba'nindun eta pizti orren barauskarri izan ba'nintz, Porteu ustelak yareia izan baño. Ene! Yaungoikoak daki nik zenbat maite dodan Balendin, eta aren bizia neurea bestean maite dodala; eta beste ainbeste. --geiagorik ezin-eta--, iguin eta gorroto dau tsat Porteu ustel, zin-ausleari: orrazkero, ken ortik: ez zirikatu ni bein geiagotan.

PORTEU'k.—Eriotzearen urren ze egite galdugordetsurik ete dago nik zure begirakune batgeitilik egingo eneunkeanik? Onangorik! Araoen bat dau maitasunik --eta orraitioño be ori be ederretsi egiten dot--, emakumek eurak maite dauzanik ezin maite dabenzkero.

SILBE'k.—Porteu'k bera maite dauena ezin maite dauenzkero. Irakur, irakur zure lenengo maite zan Yule'n biotzean, maite aren alde zure zintzotasuna milla zinez beste ainbeste zati egin zeban-eta; eta zin guzti aik zin-austera yatsi dira, ni maite izateko. Etxatzu gelditzen orain zintzotasunaren izperrik be, zuk zintzotasun bi ez izatekotan, eta ori bat be ez izatea baño txarago litzateke; oba da zintzotasunik bape euki ez, bi euki baño, biotatik bata da asko-ta. Zuk marro egiten dautsazu, ziria sartzen dautsazu zure benetako adiskideari!

PORTEU'k.—Maitasun-arloan nok izateko begirunerik adiskidea?

SILBE'k.—Porteu'k ez, beste guztiak.

PORTEU'k.—Ara! Itz eragikorren gogo leun-samurrek ezetara be ezin aldatu ba'zabez izate bigun-otzanagora, gudari-antzer, iskiloz eta indarrez eskatuko dautzut maitasuna; eta, olan, maitasunaren aurka maite izango zaudaz... indarrez benderatu.

SILBE'k.—Ene Yaungoiko ori!

PORTEU'k.—Nire guraira indarrez benderatuko zaudaz.

BALENDIN'ek.—Zital ori, alde ortik ire esku zantar ori; adiskide ustelik ustelen ori!

PORTEU'k.—Balendin!

BALENDIN'ek.—I, sastegiko adiskide ori, zintzotasunik eta maitasunik bako ori... eta izan be, olangoak dira gaurko adiskideak: gizon saltzalla ori! Ik iruzur eta marro egin izan dautsek nire itzaropenai; neure begiaz beste ezek etxastan buruan sartu al izango olangorik. Orain enaiagok adiskiderik bat bera be bizirik dodanik esateko; euk guzurtauko nindukek. Nogan ustetik izateko orain, norbere esku eskoia zana atzenbako zinausle urten danazkero? Porteu, naibagez beterik naukak; gaurtik ara igan ustetik ezin izan dodanazkero, gaurtik ara igaitik ludi au arrotzat etsi bearko yot. Norberak bakarrik dakian zauria dok sakonena ta minberaena: aldion askarri! Ainbeste arerio izan, eta eurak baño gezoago izan bear dauela adiskidek!

PORTEU'k.—Nire lotseak eta erruak nastauko al nabe... Azketsi nagik, Balendin: irain eta okerren alderako biotzetiko naibagerik asko izatekotan, or dok nirea: nire damua, nire garbaia nire erru ta okerren neurriko dok.

BALENDIN'ek.—Orrazkero, ordea emon dautak; eta bein barru zindotzat artzen aut... Garbaia askotzat artzen eztauen a etok ez zerurako, ez ludi onetarako be; onako biok ederretsita ta pozik yagozak-eta; garbaiaz Belikoaren asarrea bareturik eta baketurik yagok...: eta nire maitasuna argi ta garbi agertu dadin, Silbe'gan nire zan guztia euri damoskat.

YULE'k.—Ene! nire zoriaren geztu! (Larritu egiten da).

PORTEU'k.—Begira mutil ori.

BALENDIN'ek.—Zer dok ori, mutil! Zer dok ori? Txantxetan, ala? Zelan ago? Zer yazoten yak? Idigi begiok; itz egik.

YULE'k.—Yaun on ori! nire ugazabak Silbe'ri erestun bat erotan bidali nindun; eta nik,

nire ardurarik ezarren, agindu ori eneban bete.

PORTEU'k.—Non dok arako elastuna, mutil?

YULE'k.—Emen dozu; auxe da. (Erestunik damoto).

PORTEU'k.—Ostera! ekazu ikusteko: ba! au nik Yule'ri emona da.

YULE'k.—Ene! parkatu, yaun; oker egon naz: au da zuk Silbe'ri bidaliko erestuna. (Beste erastunik erakusten dautso).

PORTEU'k.—Baña zelan iritxi dozu erestun au? Yule'ri emon neuntsan nik au agandik alde egitekoan.

YULE'k.—Eta Yule'k berak emon eustan; eta Yule'k berak ekarri dau ona.

PORTEU'k.—Zelan! Yule'k!

YULE'k.—Adi-adi begiratu egizu zuk zure zin guztiak ari zuzendu zeuntsazana, ta zinok bere biotzaren barru-barruan euki izan dauzana: zeinbat bider ebagi ta motzu izan dozuz sustar-sustarretik zure zin-austeen bidez? Porteu ori! nire yantzi onek lotsaz gorrituko al zauz! lotsatu zadiz nik onango yantzi ezegokirik aldean ekarri bear izan dodalako: maitearena egiten dauenagan lotsarik izatekotan: ezta gelegikeririk esatea, uts eta akats txikiagoa dala emakumek euren antzak aldatzea, gizonak euren gogoak aldatzea baño.

PORTEU'k.—Gizonak euren gogoak aldatzea baño! Bai izan be; Yaungoiko ori! Gizona bein artuko erabagiarri eustekorik ba' litz, oso-bete litzateke: ori dau gizonak bere okerretarik bat, bera utsez beteten dauena; orrek darabil obena guztiak zear, obenik oben: ekite-ezak, yaraitze-ezak asi baño len egiten dau atzeraka: zer dago Silbe'n arpegian, nik begi berean-iraunkorrez Yule'n arpegian guriago ikusiko eneunkeanik?

BALENDIN'ek.—Tira, tira, emon alkarri esku bana; alkartze zori ontsu ori eginaz nik zeruaren onespina izango al dot: tamalgarrri litzake zuok lango adiskide bi luzaro alkarren arerio izatea.

PORTEU'k.—Bedi zerua lekuko ta autoria, nire gurari-leleak bete dirala.

YULE'k.—Bai nireak be.

LEGEBAKOAK aurrera, DUKEA ta TURI'kin.

LEGEBAKOAK.—Arrapaki! arrapaki! arrapaki!

BALENDIN'ek.—Epe artu, gero: ori nire yaun dukea da. Zu, maitagarri ori, ondo etorria zara zure ederra galdu dauen gizonagana, Balendin erbesteratuagana.

DUEAK.—Balendin yaun!

TURI'k.—An aragoan dago Silbe; eta nire da Silbe.

BALENDIN'ek.—Turi, emoik atzera ire dala diñokan ori, ostean eriotzea estutu egik besartean; ez adi eldu nire asarrea eltzen dan lekuraño: ez egik aiatatu be egin Silbe ire danik; bein geiagotan esan ba'dagik olangorik, Milano'k ez au ikusiko. Emen yagok Silbe, beratu artzeko ukutu baño ez egioik egin...; ire arnasea bera nire maiteari egozten azartu baño eztaukak...

TURI'k.—Balendin yaun, orrek etxastak ardura, ez niri; zorotzat yaukat nik bere soña bera maite eztauen neskaqaitik galdu-gordean iminten dauena: nik etxoat ori nireztat eskatzen, eta orrazkero ire dok.

DUKEAK.—Ainbat eta endekatuago ta zirtzilago az i, ik neska orrez egin dokazan gixiesteakaz, eta ori bertan-bera izteko ireak baño zegaiti oberik ez izateaz. Orain, nire aurreko asabaen duñarren, txaloak yoten yauntsazat ire adoreari, Balendin, eta errege-alabaren maitasungarritzat aut. Yarik, orrazkero nik ementxe ta oraintxe aztuten dodazala len artuko atsekabe guztiak, ezabatu gogo txar guzti, ta atzera gure etxerako dei egiten dauskadala... Bardinbako ire irabazia dala-ta, goragoko lekurik eskatu egik, eta nire ederra ta izenpetzea or dozak... Balendin yaun, gizazindo augu i, eta yatorri oneko; ar egik ire Silbe, ori irabazita daukak-eta.

BALENDIN'ek.—Eskerrik asko zuri, maitagarri orri: zure emariak zori ontsu egin nau.

Orain, zure alabeqaitik, nik eskatuko dautzudan emaitza emongo al daustazu.

DUKEAK.—Eugaitik damoskat, dana dala.

BALENDIN'ek.—Nikin egon izan diran gizon erbestetuok gaitasun aintzakogarridun gizonak dira: azketsi egiezu emen egin izan dabezan okerrak, eta euren erbestetik etxerako dei egiezu: gizon barri, txeratsu ta onez beteak eginik dagoz, eta otsaintza andietarako egokiturik, yaun aintzako ori.

DUKEAK.—Oingoxean irabazi daustak: azkesten yoadaz, bai eu be; euk dakikanez egik eurekaz euren irabazi ta lainaren arauz. Tiruk, gaiogazan; gure arteko asarre ta laztasunak ito egin bear doguz yaletan, pozetan eta iñondiko ospetan.

BALENDIN'ek.—Eta, bidean yoaan-ala, zuri, nagusi orri, itz egiten azarriko naz, zuri irribarre eragiteko. Zer deretxazu esku-mutil au, ene yaun?

DUKEAK.—Nutil orrek gatzik ba-dauela uste yoa; arpegia gorritu egin yakok.

BALENDIN'ek.—Sinis egidazu, yaun; orrek mutiletan baño gatzetan geiago dau.

DUKEAK.—Zer esan gura dok esakune orregaz?

BALENDIN'ek.—Eder bekizu ta neuk esango dautzut, orren ondotik igaro-aldian, alabearrez yazo danaz zu arriturik gelditu zadizan... Aitor ona, Porteu: ire oben-neke bakarra ire maiteketak nik agirian imini-ala ik entzutea izango dok; bein ori eginda-koan, gure eztegu-eguna irearena be izango dok; yai bat, etxe bat, alkarren arteko zori on bat. (Alde dagie).

AMAIA

Salta'n 1960'gko. Bagilaren 26'gnean.

LAN ONETAKO EUSKAL-ITZ EZEZAGUN ETA GITXI EZAGUNAK

ARRAZPEL.—Etxe-inguruan, naiz etxe-barruan, ormaz naiz beste esiz itxita ta geienetan legor bagarik dagon lur-arloa. Erderaz patio esaten dautsoe. Itz au ezta nik as-maueatkorik, Zeanuri' n bizi dana baño.

BOROBILKI.—Osakai batzuk oso-osorik irunsteke borobilak izaten dira; borobilki itzez orretaiko zerak diragartaz nik.

ERREGENO.—Errege eme.

ERKIDE.—Zetan edo atan lagun yakuna, gure erkide da. Itz au osatzen daben itzak ERI ta KIDE dira. Eri ta atz, barriz, bialk dira esan-gura bereko. Orregaitik atzen mokoko mamiari erpuru esaten dautsagu. Esaterako, bazkaltzen neu bakarrik barik bi naiz geiago ba'gara, bazkarian ni besteen erkide naz; besteak nire erkide: guztiok daroaguz gure eri edo atzak bazkari berera.

GEZNA.—Norbaiten aginduz beste norbaiteri beren-beregi erooten yakon agindu, naiz bari; eta orretaikorik daroana geznari da.

IKURRATZ.—Sillu.

MAKOTZA.—Alde batetik, naiz bietatik maiko edo arkuak eta zutikoak erreskadan dauzan toki legortuari deritxot makotza, Igaratzetan gure aita-amabitiak emoten dauuskuen opil mokodunari mokotz esaten dau-

tsagunazkero, zegaitik ez esan olango tokiari be makotz edo makotza?

MAKOTZAPE.—Makotza zer dan dakizunazkero, makotzape zer dan ba-dakizu. Oñati'n, erderakadeaz bape ikaratu barik, olango tokiari kalistrophe esaten dautsoe eta tenplau gelditzen dira gure txantxiuak.

YAINKOAIZUN.—Guzurrezko yainko.

YAURETSI.—Yaungoikotzat artu, ta Yaungoikoari dagokona egin: gurtu, buru-biotzak makurtu ta Bere yabetasuna autortu.

YESAN.—Zorrea zerbait artu.

ALETZ.—Uskeri, zer gitxi dana.

TUKU.—Maitaleak bere maitea ustel yakola koan dauen bildur, kezka, larrira. Tuku ta tukuak dirala-ta amaikatxok bizitza larririk eroan daroe, alan be tukuok bidetakoak ba'dira. Tukurik dauena bestea zintzo atxakolaren bildur da, kezkaz betetarik bizi da, bere burua berak yaten dauela. Olangoen zori gezloko. Norbaiteganako nobera ta besteak be zintzo izateko gurari ta aleginai be tuku izena ezarri giñeio beste izkuntzetan legetxe, esaterako Yaungoikoaren aintzaren tuku, Yaungoikoa guztiak aintzatzea gura be gura dogula iragarteko.

**WINDSOR'KO
GOGALDI ONEKO EMAZTEAK**

(MERRY WIVES OF WINDSOR)

WINDSOR'KO GOGALDI ONEKO EMAZTEAK

(MERRY WIVES OF WINDSOR)

ANTZERKI ONETAKO ANTZEZLARIAK:

YON FALSTAFF (SIR JOHN FALSTAFF).

FENTON.

AZAL, Basa-uriko Ebazle.

SLENDER, AZAL'en iloba.

FORD

PEITX (PAGE) } Windsor'ko aitonen seme bi.

GILELMA PEITX (PAGE), mutiko, PEITX yaunaren semetxo.

UGA EVANS (SIR HUGH EVANS), Wales'tar abade.

KAI, Pantze'tar osagile.

Zango-galartzu-Arroztegiko Arroztuna.

BARDOLPA (BARDOLPH)

PISTOL

NIM

} FALSTAFF'en yarraigoko.

ERROBIN, FALSTAFF'en esku-mutil.

KOKOLO, SLENDER'en otsein.

ERRUBI (RUGBY), KAI osagilearen otsein.

FORD'en anderea.

PEITX'en anderea.

ANE PEITX anderañoa, eurrekoaren alaba, FENTON'ekin maitemindua.

BIZKOR emakumea, KAI osagilearen otsein.

PEITX eta FORD'en otseinak, eta beste batzuk.

AGERLEKU.--WINDSOR; eta inguru-mariak.

I EKITALDI

I AGERLEKU.--WINDSOR. PEITX'en etxe-aurrea.

AZAL Ebazlea, SLENDER, eta UGA EVANS
aurrea.

AZAL.—Uga yaun, ez egiozu ekin niri olan-
gorik buruan sartzen; Izar-Epaitegigei egin-
go dot nik ori (1); dan lango ogei Yon Fals-
taff ha'litz be ak eztautso egingo bear ez-
tanik Erroberta Azal, ikurdidunari (2).

(1) IZAR-EPAITEGIA (Star-chamber), lenen eta beinen, erregelazko okerrerriak epaitzeko sorturiko epaitegi izan zan Ingelanda'n; gero-
ra, osteango auzietan be sartzen zan, bai alkarren arteko eztabaidetan, bai eriotzazko auzietan; epaitegi orrek beti be bere epaiak

ezetariko arau edo epaipideri yaramonik egi-
teka emoten ebazan, eta epaitegi bildurgarri
orrek 1.640'garren urteraño irauñ eban. Epa-
itegi orrek bere ebatzi edo epaiak emoteko
ezetariko arautegiri lotuta egon-bearrik ez eba-
nazkero, bildur izateko zan ara yoan-bearra.

(2) Beñolako aldiñtan andikiak, euren iski-
loak erotateko, otseinik eukiten eben; gudu-
ra-ta andikiak euren orretariko otseinik la-
gun ebela yoaten ziran, eta orretariko otsei-
nari deritxogu ikurdidun, naiz ikurdi-eroale,
geien baten orretariko otseinak ikurdia eroa-
ten eben-eta; ikurdi ori, giti gora-bera, txi-
rrintola antzeko zer biribila izatan zan, bein
sarezkoa, bein olezkoa, bein beste geizkoa,

SLENDER.—Gloster erkian bake-ebazle ta coram danari.
 AZAL.—Bai, Slender iloba, eta custalorum be danari.
 SLENDER.—Bai, eta Ratolorum be; eta yaio-izatik aitonen seme danari, abade yaun; Armigero erasten dautso orrek bere izenari edozein ar-emon agiritan, baietan, ordain-agiritan, eta zor-agiritan... Armigero! (3).
 AZAL.—Bai, ori egin doroagu; eta ori egin izan dogu irureun urteotan.
 SLENDER.—Bere aurreko guztiak, bere aurretik yoanak, olantze egin izan dabe; eta gero, bere urren letorkezan bere aurretikoak be ori egin leie; euren mazmarroko amabi sollo zuriak emon leiez.
 AZAL.—Mazmarro ori antxiñatiko da.
 EVANS.—Amabi zorri zuri ondo be ando dagokoz txartes zarreri, antxiñako txarteseri (4); bai, ondo dagokoz, ibili dabilzenarena egiten; piztitxo ori gizonari etxeko ta ezagun egiten yako, eta maitsuna diragar.
 AZAL.—Solloa arrain goatu-barri da; arrain gatzartua bai ba-da txartes zar.
 SLENDER.—Laureduko ete dot mazmarroa, osaba?
 AZAL.—Ezkundu ba'adi bai.
 EVANS.—Bai, ezkontzea da izan be, laurendu ba'dagi.
 AZAL.—Bai, zera!
 EVANS.—Bai, gure Anderea-arren; zure mazmarrotik orrek lauren bat artuazkero, zutzako iru lauren baño ez tira gelditzen nire eretxi apalez; baño bego ori. Yon Falfaff'ek irainik egin ba'dautzu, ni eleiz-gizonetariko nozu-ta, pozik egingo dodaz onezkoak zuon artean eta zuok alkarrekin adiskidetu, bakotxari berea emonik.
 AZAL.—Batzarrak entzun bear dau ak egin daustana; asaldatze da ak egina.
 EVANS.—Asaldatzeaz ebaxterik eztagoko Batzarrari; izan be, asaldatzean eztago Yaungoikoaren bildurrik; yakizu, Yaungoikoaren bildurragazko zerak entzun gura dauz Batzarrak, ez asaldatzeazkorik; zur izan adi.
 AZAL.—Ba! nire bizia-arren, beñola lez gazte ba'nintz, ezpataz ebatsiko neunke auzi au.
 EVANS.—Oba yatzu auzia ezpataz barik adiskideen bitartez amaitzea; eta, orrez ganera, ba-dot nik nire garaunetan beste asmorik, eta ba-leiteke nire asmo au bidezko izatea. Or dozu Ane Peitz, Gorka Peitz yaunaren alabea, neskatu ezkongia liraina.
 SLENDER.—Ane Peitz neskatoa? Ak ule balterana dau, eta abots me-zolia, emakumek oi daben langoxea.
 EVANS.—Bai, axe bera egin-eginean, eta

egin-eginean be zuri dagokizuna langoxea; eta bere aitaita zanak, ilteko oeratu zanean, urre ta zidarretan zazpireun libera itxi eutsosan (Yaungoikoak berbizte pozkarririk emongo al dautso aril) neskatok amazapzi urte bete dagizanerako; gure aiko-maiko ta auzi-mauziak baztarturik,

eta gudaketan gudariak ezkerreko besocri eutsola erabilten eban, agaz soña yagoteko. Gerora, ikurdi orrek apaingarririk asko izan iban, esaterako sendi-ezaugarriak. Geroago, ikurdion yabeak euren etxeetako ate-buruetan be, arlanduan irarri edo irudituta, imini ebezan ikurdi edo mazmarrook, eta oraindik be gure Euskal-erriko ainbat etxetako ate-buruetan ikusi zengikez mazmarro edo ikurdiok, geien baten arlanduz ormearen azalletik aurrera yagiten diralarik.

Gizonaak beti izan dau bere auzokoa baño zerbait giago izateko leratxoata, aldiak aurrera yoan-ala, ikurdidun edo ikurdi-eroaleak be euren buruak erri zea baño andiagotzat etsi ebezan eta orrako izengoiti ori artu eben eurentzat, eurak eguño ikurdirik eroan ezarren,, euren aurretikoak eroan ebelako, eta garai atako legeak be ontzat artu eben uritarren arteko banatze ori. Orreitariko yatzun emen agiri dan Azal bake-ebazlea. Izengoitiok eta beste zer asko aldi atan lateraz erabilten ebezan, eta zuzentza-bideak Erromarregandik datorkuzalako, arlo orretan len eta oraindik be laterakadarik asko erabili zan eta erabilten da, eta Shakespeare'k laterakadaun lepotik irri ta barrerik asko egiten dauksu.

Ganera, gazte zanean, Shakespeare bere uriko bake-ebazleari oreina il eutsola salatu eben eta salakuntza ori zala-ta bere burua keizpetan ez ikuste-arren, bere yaioertirik London'era igesi eban. Ortik dator Shakespeare'k ikurdidunai dautsen ikusiezintxo, ikurdidunai eta bake-ebazleari. Slender bera be, segurutik, Stratford-on-Avon bere yaioertarian ezaguturiko ergelen bat yatzu.

(3) Armigero dalako au eta ikurdidun itza esangura berekoak yatzuz.

(4) Ingelanderaz "coat" itzak ikurdidun edo mazmarrodun eta "txartes" itzaren, bien esangura dau bai, eta ezta bape arritzekorik Evans Wales'tar yaupari edo abade begikoak itz ori entzunaz bere buruan mazmarroa barrik txartesa gogoratzea; Evans'ek eta Kai osagileak Ingelander a mordolloaz besterik ezta-kie-ta, ortik sortzen dira antzerki onetako yatzokera barrerarik batzuk; izan be, biak dira Ingelanda'n erbestetar.

on litzake guk Abarran Slender yaunaren eta Ane Peitx neskatoren artean ezkonzea atontzea.

AZAL.—Bere aitata zanak zazpireun libera itxi eutsozan, ala?

EVANS.—Bai, eta neskatoren aita ari diru geiago emoteko da.

AZAL.—Ezagun dot aitonen alaba gazte ori; emaitz onan da.

EVANS.—Zazpireun libera ta ganetikoak, emaitz on dira izan be.

AZAL.—Ori ondo, dakusagun Peitx yauna. Arenean ete dago Falstaff?

EVANS.—Zetarako esateko nik guzurrik? Gizon ustelari besteko iguin dautsat guzurtiari; naiz, zintzo eztanari besteko iguin. Bai, arenean dago Yon zalduna, izengoitiz "Sir" daroana (5); eta, arren, zuri ondo gura dauzuenen esanera zagoz zu. Neuk yoko dot atea (Atea yoten dau) ta Peitx yaunari dei egingo dautsat, Eup! eee! Yaungoikoak onetsiko al dau zure etxe au!

PEITX aurrera.

PEITX.—Nor da?

EVANS.—Yaungoikoaren onespena ta zure adiskide dozuz emen, eta bai Azal ebazlea be; emen dozu Slender yaun gaztea be; eta ba-leiteke onek zuri beste ipuinen bat eraltea be, gauzea zure gogoko izatekotan.

PEITX.—Pozik zakusadaze zuok yaun adeigarriok; eskerrik asko zure oreinagaitik, Azal yaun.

AZAL.—Peitx yaun, pozik zakustaz; zure biotz onarentzako nasaigarri izango al da! orein oberik gurako neunkean nik zutzako, baña zakar il egin izan dabe...: nolán dago zure andera on, Peitx'ena? Beti maite zaudaz nik biotz biotzez, bai orixe: biotz biotzez, gero?

PEITX.—Eskerrik asko, yaun.

AZAL.—Eskerrik asko, yaun! neu nozu esker oneko naiztazuna.

PEITX.—Pozik zakustaz, Slender yaun on.

SLENDER.—Zelan dago zure erbi-txakur gorrikoa? Cotsale'n besteak baño arinago egin dauela entzun dot.

PEITX.—Oraindik ebazteko dago ori, yaun.

SLENDER.—Eztozu autortu gura zuk; ez, eztozu autortu gura zuk.

AZAL.—Ez, eztau autortu gura orrek; eta zure erru da ori; bai, zure erru da ori... Txakur on da a.

PEITX.—Txakur txakur da a, yaun.

AZAL.—Yaun, txakur onetariko ta txakur lango txakurra yatzu a. Emen ete da Yon Falstaff?

PEITX.—Bai, barruan da; eta zuon artean onik egingo al dot.

EVANS.—Kristarrek egin bear leukenez itz egin dozu.

AZAL.—Orrako orrek iraindu, laidotu egin nau, Peitx yaun.

PEITX.—Ak autortu be egin dau ori, zelan edo alan.

AZAL.—Autortzea ta zuzentzea ez tira bat; ez ete da olan, Peitx yaun? Iraindu egin nau ak; bai, iraindu egin nau; garbi esateko, iraindu egin nau ak; sinistu egidazu; iraindutzat dau bere burua Erroberta Azal'ek.

PEITX.—Emen dator Yon Sir'a.

YON FALSTAFF Sir'a, BARDOLPA, eta PIS-TOL aurrera.

FALST.—Kaxo, Azal yaun; nigazko alaketarik eroango ete dautsazu erregeri?

AZAL.—Zaldun orrek, yo egin dozuz nire gizonak zuk, il egin dozu nire oreina, eta indarrez sartu zara nire etxean (6).

FALST.—Baña eztautsat munik egin zure etxe-yagolearen alabeari.

AZAL.—Ba! ori uskeri yatzu! Zuk eginagaitik erantzun bearke dozu.

FALST.—Bertatik erantzun be erantzungo dautzut; zuk diñozun dan-dana egin dot; aor nire erantzuna.

AZAL.—Onu-batzarrak entzungo dau ori.

FALST.—Ainbat obeto; barre egingo dau zure lepotik Onu-batzarrak.

EVANS.—Pauca verba, Yon yaun, itz gitxi ta eurak onak.

FALST.—Itz onak! aza onak... Slender, burua ausi neuntzun nik, zer dozu esateko nitzaz?

SLENDER.—Andera Miren-arren, yaun, ba-dot nik nire buruan zutzaz zegaitik alaturik asko; baita zure lagun zantar Bardolpa, Nim eta Pistol'etzaz be. Ni ardandegira eroanik, orreik mozkortu egin ninduen, eta gero nire sakelak ustü.

BARD.—I, Banbury'ko gaztae ari! (7).

(5) SIR. Izengoiti au Ingelanda'n edonok ezin erabili lei orretarako gitienez zaldun izan bear dozu. Izan be, antzerki onetan agiri diran gizonetatik bi baño ez dira izengoiti ori daroenak: Falstaff eta Evans yauparia.

(6) "Il egin dozu nire oreina". Esakera onen bidez dakar gogora Shakespeare'k berari bere yaoterrian gaztetan yazoza edo gaztetan egin yakon salakuntzea.

(7) Banbury'ko gaztaea zapal, me izaten zan, eta Slender be, bere Ingelanderazko izenak diragarrenez, gizon kankalu, garratza, luze-bedar, mengel, aragi-urri, txakil zan non-

SLENDER.—Orretzaz eztok gure auzia.

PISTOL.—Zer diñok, Mepostopil?

SLEN.—Ez, ori be eztok gure arteko auzia.

NIM.—Zerrenda, bai, zerrenda ori! pauca verba; zerrenda az i, bai, iri zerrenda deitzeko gogaldia yocat.

SLEND.—Nondik da Kokolo, nire otseina?... Esan ete daikedazu, osaba?

EVANS.—Ixilik, arren! Ebatzi dagigun auzia.

Nik dakustanez, iru ebazle gagoz auzi onetarako: zera, Peitx yauna, fidelicet, Peitx yauna; ba-nago ni be, fidelicet, neu; eta irugarrena, ta atzenengo ta azkenengoa, Zangogalartzu-arroztegiko nire arroztuna.

PEITX.—Gu irurok, orrei entzuteko ta orrein arteko auzia ebazteko.

EVANS.—Ondo baño obeto. Neuk egingo dot auziaren laburgoa nire sakel-idaztiñoan; eta bein ori egindakoa, auzia ebazteari elduko dautsagu, al dogunik eta ardura-tsuen.

FALST.—I, Pistol...

PIST.—Belarriz entzuten dagotzu Pistol.

EVANS.—Txerrena ta bere anderea! ze esakera dogu orrako ori, "belarriz entzuten dagotzu"? Ba! geiegikeri yatzu ori.

FALST.—Pistol, ustu egin dautsak ik Slender yaunari sakela, ala?

SLEND.—Bai, esku-zorrook-arren, ori egin eustan (eta nik esana guzura izatekotan, eztagidala bein barriro ofnik imini nire areto nagusian). Seina peni'ko diru barritan ogei ta zortzi peni ostu eustazan (8), eta Edorta'ren xillin bi, nik Miller errotariari seina xilin eta peni binatan erosiak; esku-zorrook-arren dirautzut.

FALST.—Egia ete dok ori, Pistol?

EVANS.—Ez; guzurti da ori, sakel-lapur ba'da.

PIST.—Ja! zoaz ortik zear menditar ori, erbestetar ori!... Yon Sir, nire ugazaba ori, Bilbo'tiko ezpata bellegi orren eupadeari erantzuteko emen nozu gertu... ik esana emen ire arrean ukatzen yocat; bai, bete-betean ukatu be; bits eta sastamar ori, guzura diñok ik.

SLEND.—Orrazkero, esku-zorrook-arren, ori beste ori izan zoan ostu eustana.

NIM.—Guzurti ori, txantxetan bez gero olangorik: enagik zirikatu geiegi, ostantxean ireak eta erdi artuko dozak: entzun dok?

SLEND.—Orrazkero, txapel au-arren, mosu-gorri ori izan zoan: eta izan be, mozkortu ninduzuenean zer egin neban ezin gogoratu-arren, enok ni astorik.

FALST.—Zer diñok ik, Yon Gorri?

BARD.—Ba, yaun, nik diñodana da aitonen seme ori mozkortu zanean bere bost sentzuna galduta gelditu zala.

EVANS.—Bere bost sentzu, naiz oarmenak esaten dok; uf! ire ezykitatearena!

BARD.—Eta edanaren edanez burua nasturik ebalu diru-zaintzatik egotzi egin eben, or esaten denez, eta gitxien uste ebana yazo yakon.

SLEND.—Bai, eta zuokaldi atan Lateraz itz egiten zenduen: baño orrek eztau ardura: bizi nazaño enaz bein be geiagotan mozkortuko, lagun on, zindo ta lotsadunen artean ez izatekotan, onango yolas txarrik eztagisten. Mozkortzekotan, Yaungoikoaren bildurrik dabenen artean mozkortuko naz, ez mozkor maltzurren artean.

EVANS.—Yaungoikoa bekit ebazle, asmo ori on-indarrari dagokona da.

FALST.—Aitonen semeok, zer guztiok antzun dozuez ukaturik; bai entzun dozuez.

ANE PEITX aurrera ardaogaz; aren atzetik FORD'en anderea ta PEITX'ena.

PEITX.—Ez, alaba, barrura eroan ardaog; barruan edango dogu. (ANE PEITX'ek alde).

SLEND.—Yaungoikoa'arren! Ane Peitx neska-ta izan da ori.

PEITX.—Nolan zagoz, Ford'en andera?

FALST.—Ford'en andera, egia esateko, ondo aurkitua zauguz: zure ederretsiaz, andera on (Mun dagitso).

PEITX.—Emazte, emon zure ondo-etorria aitonen semeoi: Goazen, urunetan ondutako oreinki beroa dogu bazkaltzeko; erdu, aitonen semeok, asarre guztiak ardaotan ito ta iruntsiko doguzala ditxarot.

bait, Nim'ek be "zerrenda" deitzen dau-eta. Olango gizona lurrera egozteko axe-bolada-bearrik eztozu, putz egitea dozu asko.

(8) Ingelanda'ko txanpon edo dirua, urregorizkoa bera, esterlin-libera da ta ogei xilin dauz libereak; xilina bera urrezurizkoa da; ba-dago xilin-erdiko urrezurizko txanponik be; xilinak amabi peni dauz eta ba-dago peni-erdiko txanponik be; peni dalakoa ta peni-erdiko txanponak metal orizkoak dira.

Slender'en bururik eza ta ergeltasuna emen be ondo argi agiri da, txanponak zenbatzen be ezta-ki-ta. Izan be, ogeta zortzi ezta seinako zenbakirik, Ganera, umekeriak dauz gizon ergel onek txanpon barriak erosten agiri da-ta.

AZAL, SLENDER eta EVANS'ez beste guztiak alde.

SLEND.—Berrogei xilin baño gurago neunke Abesti-Idaztia ta Amalaukoak emen eukitea...

KOKOLO aurrera.

Kaxo, Kokolo! Non izan augu? Neuk izan bear ete yoat ire otsein? Neuk izan bear ete yoat? Ik eztok aldean Igarkizun-Idaztia, eztok?

KOKOLO.—Igarkizun-Idaztia! ba! etzeuntson aurreratu Alitze Shortcake'ri oraintsuengo Deunoroetan, Mikel Deunaren yaiaik baño amabost egun lenago, ala?

AZAL.—Tira, iloba; tira, iloba; ire begira gaqozak. Itz bat ikin, iloba; auxe dok, iloba; eskeintzerik egin yok, obeto esan eskeintze dalako asmoa yok emen dagon Uga yau-nak. Aituten ete daustak?

SLEND.—Bai, yaun, bidezko aurkituko nozu ni; bidezko danari yarraiko naiako.

AZAL.—Bai, baño ulertu nagik.

SLEND.—Ulertzen zaudaz.

EVANS.—Entzun egizuz orren asmoak, Slender yaun: aituteko gai ba'az, neuk azalduko dauskat arazoa.

SLEND.—Bai, egingo dot nire osaba Azal'ek diñona: asketsi, arren; bake-ebazle da ori bere erkian, ni buru argi-argikorik izan ezarren.

EVANS.—Baña ori eztok arazoa; ire ezkontzeari dagokionaz dok arazoa.

AZAL.—Bai, ori, orixe da egin-eginean be arazoa.

EVANS.—Ezkontzea da, bai; egin-eginean be Ane Peitx'ekin i ezkontzea.

SLEND.—Ba, olan izatekotan, bidezko litza-kezan edozeintzuk baldintzaz ezkonduko nintzake ni.

EVANS.—Baña maite ete daikiek emakume ori? Ori dok guk yakin eta ire agotik, naiz ire ezpanetatik, entzun gura doguna: eta izan be, yakintzazale batzuk diñoenez, agoaren txatal dozak ezpanak... Orrazkero, egin-eginean esateko, begiko ete yak neskato ori?

AZAL.—Iloba Abarran Slender, maite ete daikiek neskato ori?

SLEND.—Baietz uste dot, yaun... gertu nozu bidezko danari legokiona egiteko.

EVANS.—Bai, Yaungoikoaren zori ontegiko gizon eta emakumek-arren, argi ta garbi esai guk, ire biotzeko lerak neska orreganatu leitekezanentz.

AZAL.—Ori dok ik egin bear dokana. Ezkon-

sari onik izatekotan, ezkonduko ete intzake neskato orrekin?

SLEND.—Ezkondu, ezkonduko naz neskato orrekin, zure eskariz, yaun; baño lenengotan maitetasun andirik izan ez-arren, gerora, gu ezkondukoan, alkar obeto ezagaturik, orretarako len baño era oberik izan be bai-ta, ba-leiteke Yaungoikoak maitetasun ori gitxitutea. Nik ditxarodanez, alkarrekin ar-emon geiago-ta, alkarganako zapuzkeri geiago sortuko dala: baño zuk esan ba' dagistazu, "ezkondu egik neskato ori", emaztetzat artuko dot nik: orretan nasai eta bigun nagotzu.

EVANS.—Erantzun zurra dok ori; orixe bai, nasai eta bigun itzak eztagozala or ondo erabilia; guk esan gura doguna esateko, ik erabili bear eunkezan itzak" orretan erabagia arturik, etsita nagotzu" dozak. Asmo ona dau orrek.

AZAL.—Bai, nire ilobeak asmo onik ba-dauela uste dot neuk be.

SLEND.—Bai, eta olan ez izatekotan eskegi naguela.

ANE PEITX aurrera ostera be.

AZAL.—Emen dator Ane anderaño liraina.--Gazte al nintz zugaitik, Ane anderaño!

ANE.—Maian dago bazkaria; zuok maian bere lagun izangoren begira dagotzue nire aita.

AZAL.—Aren esan eta agindura nago ni, Ane anderaño.

EVANS.—Yaungoikoaren guraria egin bedi! Maia onesterakoan an izan gura dot.

(AZAL'ek eta EVANS'ek alde)

ANE.—Eder bekizu, yaun, eta zu be barrura zatoz.

SLEND.—Ez, eskerrik asko benetan eta biotzez: ondo be ondo nago ni.

ANE.—Zure begira dago bazkaria, yaun.

SLEND.—Eztoz goserik, eskerrik asko, benetan.-- Oa i, zirtzil ori; nire otsein izanaren, otsein alio nire osaba Azal'eri (KOKOLO'k alde). Bake-ebazle izan-arren, ak bere ilobearen otseinaren otzeintzea aintzakotzat artu lei... Nire ama il arte iru gizon eta mutiko bat bakarrik dodaz otseintzarako: baño ze ardura daust orregaitik? Bitartean, yaiotzez beartsu dan aitonen seme-antzera bizi naz.

ANE.—Ezin sartu neinteke ni barrura zu adeigarri ori barik; aik ez dira yarriko maira zu yoan arte.

SLEND.—Sinis egidazu, enaz gose; yango ba'neu legetxe eskerrik asko damotzut.

ANE.—Arren, yaun, zatoz barrura.

SLEND.—Gurago dot emen bertan ibili; eskerrik asko; lengo egunean, ezpataketa-irakaslekin askota ta sastakai-yolasean geragoi-ola, iru oldarketa edo yarraikadaren alderako okaran egosiak yokaturik, nire zangazurra urratu neban, bai? eta arrazkero, sinis egidazu, ezin yasan dot okela errearen usainik be. Zegaitik daragoioe zuon txakurrak olan ausika? Artzak doguz uri onetan, ala?

ANE.—Ba-dagozala uste dot, yaun; entzun izan dot olangorik.

SLEND.—Begiko-begiko yat yolas ori; baña laster nozu ni iskanbillaren baten sarturik, Ingelanda'n edonor lez... zu bildur izaten zara artzik askatuta ikusiazkero, ezta?

ANE.—Bai, izan be, yaun.

SLEND.—Orain ori nitzako yatea ta edatea legetxe da. Ogei bider ikusi dot Sackerson artza askatuta; eta katetik artuta erabili izan dot; baña, sinis egidazu, emakumek geda-

rez eta irrintzeka eragoioen bera euren aurretik igaro-ala... ez, emakumek ezin yasan dabe artzik; arpegi zantarreko pizti benetan motzak yatzuz artzak.

PEITX aurrera ostera be.

PEITX.—Zatoz, Slender yaun maitagarri ori, zatoz; zure begira gagoz.

SLEND.—Eztot yateko gogorik, Eskerrik asko, yaun.

PEITX.—Ez ekarri niri atrakirik; erdu, erdu.

SLEND.—Tira ba, arren, aurretik zoaz.

PEITX.—Tira, yaun, zeu yarri aurretik.

SLEND.—Ane anderaño, zeu yoan aurretik.

ANE.—Ez ni, yaun; zeu zoaz, arren.

SLEND.—Benetan dirautzut, ni enaz yoango lenen; benetan, gero? Eztautzut egingo olan-go irainik.

ANE.—Arren, yaun.

SLEND.—Gogaikari izan baño gurago dot zakar izan; zeuk iraintzen dozu zure burua, aor. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--Lengoxea.

EVANS eta KOKOLO aurrera.

EVANS.—Oa euk nondik nora gura, eta itandu egik norago bizi dan Kai osagilea; arenean bizi dok Bizkor dalako andera, aren añearena, aña legorrena, sukaldariarena, ta aren bogadaginarena egiten dauena.

KOKOLO.—Ori ondo, yaun.

EVANS.—Ez, ori ez; ori baño oberik otu yatak; ...idazki au emoiok ari; eta izan be

a emakumea Ane Peitx anderañoaren ezagun eta adiskide dok; eta idazkia ari aren aleginak eskatzeko dok Ane Peitx anderañoari bultz eta indar egin dagiola, Ane ire ugazabaren Ane'gazko asmo ta gurarien aldera itzuli dadin; oa, arren; bazkaria amaitzen naiok ni; sagarrak eta gazatea etorteko dozak oraindik. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--Zangogalartzu-Arroztegiok gela.

FALSTAFF, ARROZTUNA, BARDOLPA, NIM, PISTOL eta ERROBIN aurrera.

FALST.—Zangogalartzu'ko nire arrozton ori...

ARROZT.—Zer diño nire arroskok? Yakituntzera ta zur itz egik.

FALST.—Benetan, ene arrozton, orlik zear bidali bear dodaz nire yarraigoko batzuk.

ARROZT.—Bai, egotzi egizak, Erkul arrosko orrek; alde eragiek igandik; doazala euren zoriaren billa; doazala orlik zear txaka-txaka ta apatx-otsean.

FALST.—Amar libera doctaz astean.

ARROZT.—Bakaldun az i, Kaisar, Keisar, eta Beizar. Neuk artuko yoat Bardolpa neure etseintzarako; ak aterako yaustak ardaoa, ak txastatuko yaustak; zer deretxak, Hektor arrosko?

FALST.—Orixe egizu, ene arrozton on orrek.

ARROZT.—Esana esanda; datorrela nire ya-

rrai.—(BARDOLPA'ri) Ikusi egin bear yoat zelan ateraten dautsakan bita garardoari ta ardaoa zelan garbi ateraten dokan; auxe dok nire itza, arraitik. (ARROZTUNA'k alde).

FALST.—Arraikio, Bardolpa; txastatzallearena ogibide ona dok; txamarra zarragaz yake barririk egiten dok; oisein zarra txastatzalle barri izan leitekek. Oa; agur.

BARDOL.—Egin-eginean be orixe da nik gura izan dodan bizibidea; bita legetxe aziko naz.

PISTOL.—Ungaritar zatar ori! upel-tapozak erabiliko ete dozak esku-artean?

NIM.—Edaritan sortua yak ori; ez ete da ezin ohea nire gogaldiaren urteera au? Ezta ori bape adoretzurik, eta aor dana esanda.

FALST.—Pozik nago sultsu-ontzi ori nigandik

- uxatu dodanean; agiriagi ziran orren lapurretak; ganorabako abeslariaren antzeko izan dira orren lapurretak; neurririk, ez aldirik ezta uagon izan.
- NIM.—Beingoan ostutean dagoz ganorea ta trebetasuna.
- PISTOL.—Eskuz aldatzea esaten yautsoek ostuteari gizon zurrek; ostu! ut, ut! ostuterik ez egik citatu be egin!
- FALST.—Ara, yaunak, zui autortu-bearrean nago katanarrua ia uts-uts eginik nago-la.
- PISTOL.—Utsik eukiteko egina ezta katanarrua.
- FALST.—Eztago beste biderik; iñori ziria sartzen asi bearko yoat; garbi esateko, lapurretan.
- PISTOL.—Bela-kumek yan egin bear dabe.
- FALST.—Zuotarik zeinek yok ezagun uri onetako Ford yauna?
- PISTOL.—Neuk dot ezagun orrako ori; ondasurez eztabil txarto.
- FALST.—Ene mutil zindook, iragarri bear dauzuedaz nire buruko asmoak. Or ikusiko doze ni nolango gizon nazan.
- PISTOL.—Bai, zuk kana bi baño geiagoko neurria dozu garrian.
- FALST.—Izkirimiririk eta txantxetarik ez orain, Pistol. Izan be, nire garriak kana bi or orrenbaten yozak; baña ni orain enaiagok ondasunak eraltekot asmotan, ondasunak egitekotan baño. Labur esateko, Ford'en emazteari kutunkeriak egiteko asmoa yoat; emakume ori txerakortzat yoat; egaztia zatitzen daragoiola itz eta pitz ibiltzen dok, eta dei diralako begirakune samur batzuk be egozten yaustazak; ba-yakiat nik ak zer diragarren; eta aren yarduna, euskera garbiz eta argiz,auxe dok: "Ire nok ni, Yon Falstaff".
- PISTOL.—Orren ondo ta zeatz aztertu ta ikasi yok orrek a, baita ikasia izkuntzaz aldatu be; aiko-maikoetan ibilteka, euskerara.
- NIM.—Bai, orrek sarea sakon egotzi yok; ezer aterako ete yok?
- FALST.—Or diñoenez, aren senarraren ziskua berak ei yarabilk; emakume ak angerutaldeak yozak (9).
- PISTOL.—Beste ainbeste txerren dauz laguntzat; eta, "emakume agana, mutil" diñot nik.
- NIM.—Biztuaz dot gogaldia; ondo dago; daroezala aurrean angeruak.
- FALST.—Emen dot idazki bat emakume arentzako idatzita; eta emen beste bat bePeitx'en emaztearentzako; onako onek ointxe be begirakune esankorrek egin yaustazak, eta nire atal, txatal eta alderdi guztiak begirik ebazkorrenez aztertu ta arakatu yaustazak; batzuetan, aren begietaitiko argiak nire oñetarako bidea artzen izan yok, beste batzuetan, nire sabeltzarrerakoa.
- PISTOL.—Olan ba'da, sastegia argitu dau eguzkiak.
- NIM.—Eskerrik asko ire gogaldiaren urteera orregaitik.
- FALST.—Ene! ain gogatsu ta salobera ibili izan dok nire azaleko zerak arakatzenta, aren begiaren yangarrak, erretzeko leiarrak legetxe, narrua erre egiten izan daustala iruditu yatak! Aiko amen beste idazkirik arentzako; ak be berak yaroak ziskua; Guiana'ko lurralde dok a, urre ta aberastasun utsa. Biai sartuko yautset ziria-eta, nire diru-yagola izango yatazak; ekaldekot ta sarkaldekot Indiek izango yatazak, eta eurakin izango yoat nik ar-emona. Oa, ik eroan egiok idazki au Peitx'en emazteari; eta ik, beste au, Ford'enari; obariren billa, mutilek, obariren billa.
- PISTOL.—Toroiko Pandar (10) izan bear ete dot, eta nire aldamenen aldean ezpatarik erabili? Olan izatekotan, txerren nagusiak beora dana.
- NIM.—Neuk be eztoz sartu gura gogaldi zantaretan; eutsi, artu idazki au atzera; nik eztoz galdu gura nire entzute ona.
- FALST.—(ERROBIN'eri) Eutso, yaunxo, apain-apain eroan egizak idazkiok; nire itxarontzixorik ba'intz legetxe yo egik urrezko itxas-bazter orreitarara... Zirtzil dollorrok, alde zuok emendik, alde gero? Xtingorra baño bizkorrago ondatu zadize, alde emendik; lau-oñean eta apatx-otsean alde emendik; yoan aterpe-billa, txakur-mordontxilo ori! Falstaff bere egunik onetako mallaratu-ko da, obaririk lortuko dau, Pantzetarrak oi dabenez, zitalok! nik eta nire esku-mutil yantzi-ertz zerrendadunak, beste iñor bagarik. (FALSTAFF eta ERROBIN'ek alde).

(9) "Emakume ak angeru-taldeak yozak"

Aldi atako Ingelanda'ko txanponak angeru-irudia eukan irarrita alde batean eta, orregaitik, angeru esaten eutsen txanponai. Orregaitik, orko angeru-taldeak diru-moltsoak dira. "Angeru" txanpona amar xilineko ei zan.

(10) "Toroiko Pandar". Pandar au Kerside neskatoaren osaba zan, eta Kerside ta Toroil gaztea alkarrekin maiteminduk. Ikusi Shakespeare beraren "TOROIL ETA KERSIDE" antzerkia. Antzerki orretan berak diñoenez, Pandar gazte maiteminduon bitarteko izan zan: "...gone between and between".

PISTOL.—Saiak iruntsiko al dautsoez orri erraiak! Ba-da ditare (dado) ustelik aberatsai eta beartsuai iruzur egiteko; xilin'ek etxastak niri utsik egingo sakelean, Pirgi' ko Turkar zakar!

NIM.—Ba-yoat nik buruan asmorik, orreri bereak eta erdi emoteko.

PISTOL.—Ordea emoteko gogo dok, ala?

NIM.—Bai, ortze ta bertako izarrak-arren!

PISTOL.—Beste burubidez, ala galtzaiduz?

NIM.—Bietara nik, bietara; Orrek Peitx'en emazteari dautsan kutunkeriari aterako yausat nik koipea.

PISTOL.—Eta nik ak Ford'enari dautsona iragarriko yoat, nolan Falstaff, lizun-zantarrak, aren usoa gozatuko dauen, aren urreaz yabetuko dan, eta aren oe aratz-apitza zapaldu ta loituko dauen.

NIM.—Nire gogaldi au eztok otzituko; edena erabilteraño asarratuazoko yoat Peitx; tukuaren tukuz larutu egingo yoat, buruko nastea bildurgarri dok-eta; au dok nire gogaldia.

PISTOL.—Mukerren Marte augu i: ire yarra yoango nok ni; aurrera, mutil. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.—KAI osagileareneko gela.

BIZKOR anderea, KOKOLO ta ERRUBI aurrera

BIZKOR.—Ara! Yon Errubi!... Zoaz, arren, leiora ta begiratu ia nire ugazaba, Kai osagile yauna, etxerantza datorrela, agiri dan: etorri ba'ledi, ta edonor idoro bere etxean, sinis egidazu, emen sortuko litzateken iskanbilleak eta goiak eta beak yo-bearrak Yaungoikoari be epea galazoko leuskio ta erregeri Ingelanderea.

ERRUBI.—Ba-noa begiratzen. (Alde dagi).

BIZKOR.—Oa; eta seguru ago orregaitik laster, arratsean, ardao-esnea artuko yoagu ikatz-sua atzenetan dala. Otsein ori zindo, gogatsu ta maitagarri da, otseinik izatekotan; eta neuk dautori, ori ezatala bape or esa-mesetan ibiltzen dakianik, ezta zakarririk be: bere utsik eta akatsik andiena ottoibera izatea da; orretan setatsa ta buru-gogor samar da izan; baña inor be eztozu akats bakorik; ...baña bego ori, Kepa Kokolo, ori ete da zure izena, gero?

KOKOLO.—Bai, oberik ezagaitik.

BIZKOR.—Eta Slender yauna da zure ugazaba, ala?

KOKOLO.—Bai, izan be.

BIZKOR.—Ez ete daroa ak eskuzorroginarean aiztoaren antzeko bizar borobila?

KOKOLO.—Ez, sinis egidazu; arpegi txiki-txiki dau ak, bizartxo laruagaz; Kain'enaren margoko bizarra (11).

BIZKOR.—Gizon mengel kihil dok a, eztok?

KOKOLO.—Bai, izan be; baña ezta bear danean eskuak eta ukabilak erabilten ezta-kianik: bein basazainakin egin eban burruka.

BIZKOR.—Zer esan dok? Ene! gogotan euki bear neunke nik a. Ez ete dau erooten burua goian eta tente? Ez ete da ibiltzen arroputzen antzera?

KOKOLO.—Bai, egin-eginean be olantxe ibiltzen da.

BIZKOR.—Tira ba, Yaungoikoak ez al dautso bidaliko Ane Peitx'eri ori baño zori txarragorik! Esaiok Evans abade yaunari, ire ugazabaren alde al dodana egingo dodala: neskato on da Ane ta...

ERRUBI aurrera ostera ba.

ERRUBI. Alde, bai, alde, Yaungoikoa-arren! or dator nire ugazaba.

BIZKOR.—Galduak gara guztiok. Sartu zadiz arin ona, gizon gazte on ori; txoki onetara sartu zadiz (Txokian sartuta izten dau KOKOLO). A ezta egongo emen luzaro. --Kaxo, Yon Errubi! Kaxo, Yon! --Oa, Yon, nire ugazabaren billa; a eztagola onik uste yoat nik, agiri eztanazkero; (Abesten daragoio) Tru la la, tru la la...

KAI osagilea aurrera.

KAI.—Zer abesten daragoiozu? Umekeriok etxetaz bape begiko, Zoaz nire lantegira ta ekarri egidazu kutxatxo orlegirik: kutxatxorik, kutxatxo orlegirik. Aituten ete daustazu? Kutxatxo orlegirik.

BIZKOR.—Bai orixe, ba-noa orrako orren billa: (Bere kitean). Pozik nago berau yoan ezatalako zer orren billa: gizon gazte ori an idoro izan ba'leu, adarduna baño burutik eginago yarriko litzakean.

KAI.—Uf, uf, uf! au dok beroa! Epaitegira noa..., auzi andigaitik.

BIZKOR.—Au da, ala, yaun?

KAI.—Bai; nire sakelean sartu: arin, bizkor: Nondik da Errubi zitala?

(11) Aldi atako irudietan Kain eta Yuda bizar irau edo bellegiatz agiri dira beti. Aldi atan, eta bai beti be, bizarra zelan ebagi ta atonduk egitekorik asko emon izan datso gizonari, bizarra azten dabenetariko ba'da.

BIZKOR.—Eee! Yon Errubi! Yon!

ERRUBI.—Emen nozu, yaun.

KAI.—Yon Errubi az i, eta bai Yontxo Errubi be. Oa, artuik ire espatea, eta ator nire yarrai epaitegira.

ERRUBI.—Emen bebarruan dot gertu, yaun.

KAI.—Nire sinistea-arren, berandu egiten yat: ...nireaena! Zer aztu yat? An nire lantegian yagozak bakun (lora) batzuk bai, eta mundu guztiagaitik be etxoazat itxi gura an.

BIZKOR.—Nireak egin dau! idoroko dau gizon gazte ori an, eta oneri burutik egingo yako!

KAI.—Denganiñoen denganiño! Nor dago nire lantegian? Zitaleria! lapur ori! (KOKOLO tiraka ta bultzaka ateraten daragoio) Errubi, ekak nire espatea.

BIZKOR.—Ugazaba on, nasai zadiz.

KAI.—Ze nasai ta nasai bako! zegaitik egon bear dot nasai?

BIZKOR.—Gizon gazte ori gizon zindoetaiko yatzu.

KAI.—Eta zer egin bear dau gizon zindok nire lantegian? Gizon zindorik ezta sartzen nire lantegira.

BIZKOR.—Etzadiz asarratu; entzuizu zera zelan dan, Uga abadeak bidali dau ori nitzako gezneaz.

KAI.—Eta?

KOKOLO.—Bai, izan be, orreri zeraren eske...

BIZKOR.—Ixilik zu be; arren.

KAI.—Ixilik zeu be: elkiok ik ire esakizuna eralten.

KOKOLO.—Bai, zure otsein, aitonen alaba zindo onegana etorri naz zeraren eske... onek itz onik egin daigiola Ane Peitx anderañoa-ri, ezkontza-arloan, nire ugazabaren alde.

BIZKOR.—Orixe da dana, izan be, aor; baña nik ezto bein be sartuko nire atzik surtan, eta ezto zetan sartu be.

KAI.—Uga yaunak bidali au, ala?... Errubi, ekak ortik papel bat. (KOKOLO'ri) etxoik ik apur baten (Idazten daragoio).

BIZKOR.—Pozik nago orren nasai dagolako: guztiz eraginik egon izan ba'litz, or legokean ori zarata ta gedar baten, asarre bizitan eta goiak eta beak yoten; orraitio be, gizon, egingo yoat nik al dodana ire ugazabaren alde; argi ta garbi ta zeatz esateko, ori dok gure eragozpena, Pantzetar osagile ori, nire ugazaba ori... ba-yoat nik ori ugazaba deitzeko biderik izan be, izan be ba, neu nok orren etkeyagola: eta neuk egiten yautsat garbi-ikuzia, neuk soñeko ikuziak biurtu, neuk egin garardoa, neuk laba-sua, neuk etxea igurtzi, yan-edana

gertau, oek egin, eta neuk egiten yautsat dan-dana...

KOKOLO.—Zeregin askotxo ta lar yatzuz orreik batentzako.

BIZKOR.—Oartu az i be orretzaz, ala? Bai, egikizun andi ta astun dalakoaz oartu az i be: eta orretarako, goxetik yagi ta belu etzan bear dala... baña orraitio be, iri belarrira esateko, --ez al dok gero onezaz inon eta inoz txitik egingo--, nire ugazaba bera be Ane Peitx anderañoz maitemindurik yagok: baña, ori gora-bera, ba-yakiat nik Ane'n gogoaren barririk, eta a etxagok ez onen, ez aren alde.

KAI.—I, ergel; eutso ta emoiok idazki au Uga yaunari; txerren guztiak-arren, eupada egiten yautsat nik ari; iduna ebagiko yautsat or zugaztian; eta neuk irakatsiko yautsat abade kirten orreri inoren arazotan ez sartzen; yoan baño eztaukak; ire onerako, ez al az geldituko emen; txerren guztiak-arren, barrabil biak kenduko yautsazat; denganiñoen denganiño, etxakok geldituko barrabil bata be bere txakurrari egozteko. (KOKOLO'k alde).

BIZKOR.—Onangorik! Yaun, ak dagiana bere adiskideren alde dagi, ez bere alde.

KAI.—Noren alde dagianek eztaust ardura: eztaustazu esaten Ane Peitx neurtzetat bear neunkela, ala?... Denganiñoen denganiño, il egingo dot abade asta-kirten ori; eta Zangogalarizu'ko Arrozegiko arrozuna izentau dot gure iskillorak neurtzeko; denganiño, neutzako da Ane Peitx.

BIZKOR.—Yaun, neskatokak maite zauz bai, eta dana yoango da ondo; yenteari autumautu biderik emon bear dautsagu, ala? Ba!

KAI.—Errubi, ator epaitegira nikin.--Denganiñoen denganiño, Ane Peitx lortu ezpa'dagit, (BIZKOR'eri) nire etxean eztozu lekurik; arraitik, Errubi. (KAI'k eta ERRUBI'k alde).

BIZKOR.—Ane ergelen bat bai lortuko dozu zuk. Ez, zuk eztozu lortuko Ane Peitx; badazagut nik Ane Peitx'en gogo orretzaz: Windsor'en eztago inor Ane'n gogoaren barri nik baño obeto dakianik; eta, Yaungoikoari eskerrak, eztago ari nik baño geiago eragitekori be.

FENTON.—(Barrutik) Nor dogu emen? Eee!

BIZKOR.—Nor da or? Nor? Zatoz aurrera, arren.

FENTON aurrera.

FENTON.—Kaxo, emakume on; zelan zagoz?

BIZKOR.—Obeto baño ez zuk itanduagaitik.

FENTON.—Ze barri dogu? Nolan dabil Ane anderano polita?

BIZKOR.—Benetan da a, yaun, polit, zindo ta maitagarri; eta, bide batez, zure adiskide; goratua bedi Yaungoikoa orregaitik.

FENTON.—Ezer onik lortuko ete dot? Ez ete dot galduko nire maitea?

BIZKOR.—Egia esateko, yaun, dana dago Goikoaren eskuetan; baña orraitioño be, Fenton yaun, zin egingo neunke Ane'k maite zauzala:... --Ez ete dozu gari bat zure begi bataren ganean?

FENTON.—Bai, izan be, ba-dot; eta orlik zer?

BIZKOR.—Ba, orrako orretzaz izan dogu itz-asperturik, au ta au diragarrela-ta; egia esateko, neskato ori eguño ogirik ebagi dabenen artean zindoetariko yatzu. Ordu beteko eragoa izan dogu zure gari ori da-la-ta:... neskato arekin beste barre bein be

eztot egingo! Baña, a ta guzti be, neskato a ausmeritzera ta goibeltasunera itzuliegi da: zugaitek ezpa'litiz,... --Tira, zoakioz.

FENTON.—Ori ondo, gaur bereon elduko naiko. Eutsi, zutzako diru au; eragin zure miñari nire alde; nik baño lenago ikusi ba' dagizu, a, nire gorantziak emon.

BIZKOR.—Bai ete? Oba ez, orrenbeste egingo dot; eta urrengo abagunea dogunean zerbait geiago esango dautzut zure gari orretzaz; baita zure maitearen beste maiteletzaz be.

FENTON.—Ori ondo, agur; iradu-iradu nago orain. (Alde dagi).

BIZKOR.—Agur, yaun adeigarri orri.--Bene-benetan, aitonen seme zindoetariko orixe; baña Ane'k ezta maite, Ane'n gogoia beste iñok bestean ondo dazagut-eta; nirearen burubako! Zer aztu yat? (alde dagi).

II EKITALDI

I AGERLEKU. PEITX'en etxe-aurrea.

PEITX'en emaztea, idazkigaz.

PEITX'ena.--Onangorik! Nire edertasunaren udabarian maitasun-idazkirik ez-eta, orain etorri bear ete yataz? Dakusadan: (Irakurri dirakur).

"Ez egidazu itandu zegaitek maite zaudazanik; eta izan be, maitasunak bera egin-eginean azaldu bear dauenagan zegaiteirik erabili-arren, eztau iñoz artzen zegaitia bere onularizat. etzara gazte zu: enaz ni bapre gazteago; eta orrexegaitik alkarregana itzuliago; ardao ona gogoko yatzu, eta bai niri be. Non alkarreganako gurari ta biotz oberik? Ori bedi asko, Peitx'en emazte ori (gudariren maitasuna asko izatekotan beintzat), nik zu maite izatea. Eztautzut esango niri errukirik izan dagistazunik: olango eskakunerik eztagoko gudariri: baña bai baidirautzut nik, maite nagizu. Neuk idatzita.

Zure-zure zaldun zintzo,
Egunez, naiz gabaz,
Edozetariko argiz,
Bere al guzti-guztiz,
Zure alde erasoteko,

YON FALSTAFF'ek.

Ze Yudarren Erode dogu au?... --Ludi zantar ori... zarraren zarrez usteldu ta zati-zati egin-eginik dagonak maiteminduarena dagi! Nederlanda'tar mozkorti onek ze yadun eta erago buru-arinik eraqi ete daust

niri onan erasoteko? Ba, iru bider ezta izan izango nire lagun!... Zer esan ete neutsion nik?... Eztoz uste txixariegia izan nintxonik... Yaungoikoak parkatuko al nau! --Legegeirik aurkeztuko dot lege-etxean gizonak ondartzeko. Zelan emongo ete dautsat ordea, apena? Eta izan be, ordecz, apena emongo dautsat, eta seguru emongo be, orren erraiak satsez heterik dagozan bestean seguru.

FORD'en emaztea aurrera.

FORD'ena.--PEITX'en andera! sinistu egidazu, zure etxerako bidean nintzan!

PEITX'ena.—Eta, sinis egidazu, zurrera-bidean ninduzun ni. Ondo-ezlik eta gogaldi txarragaz zagozala dirudi.

FORD'ena.—Ez, ez orixe; bestera naqola erakutsi bear dautzut.

PEITX'ena.—Baña, benetan, nire ustez eta nik dakustanez, nik esanekoa dirudizu.

FORD'ena.—Ba, orrazkero, antza dodana izan be ba-naz; orraitioño, nik erakutsi neitzu orren okerretarakoa nazala. Ene! Peitx'en andera, emoidazu zure onurik;

PEITX'ena.—Zer yazoten yatzu, emakume?

FORD'ena.—Andera, lotsa-iskitxogaitik ezpa'litiz, nik eskuratu neinkean omena!

PEITX'ena.—Iski ta aletz ori errearka egotzi egizuz, emakume, eta artu omena. Zer dogu orrako ori?... bazarrtu aletz eta uskeriok;... zer da orrako ori?

FORD'ena.—Betiko une baterako, edo olango-tsurako su-lezara yoteko gertu ba'nengo, zaldunetarik o nintzake.

PEITX'ena.—Zer? Ez esan niri guzurrik!... --Sir Alise Ford; Zaldunok, ugariaren ugariz, merke dabiluz eta, orrexegaitik, zagoz geldi zutarikoen artean.

FORD'ena.—Astia alperrik galtzen daragoizu... --eutsi, irakurri, irakurri au; ikusi egizu zelan zaldundu neinteken. Gizonetik gizon berezeten dakidan artean, gizon gizenak arbuatu, zapuztu egingo dodez. Baña, orraitioño be, gizon orrek eztautu zinik egin; emakumeen lotsortasuna goratu bai egin dau; eta yardukera zindo ta erakoren orren aldeko, ta yardukera txararen orren arerio agiri da-ta, zin eragingo leuskit orren itzak izanari dagokiozanak dirala; baña orraitioño be orren itzak alkarrekin ukabilka daragoioe, eungarren eresiak eta "Yantzi-beso orlegiak" alkarren doñugaz daragoioenez. Ze ekatz egotzi dausku Windsor'ko itxas-baztarrera orrenbeste orio dauen sabeltzar orregaz bale orrek? Zelan emongo ete dautsat bere ordea, bere apena? Nire ustez biderik onena, orri itxaroa emotea da, bere lizunkeriaren suak bere koipetan urtu arte.--Entzun ete dozu eguño onangorik?

PEITX'ena.—Bardin-bardinak yatzuz idazki biak; axe, Peitx eta Ford'en ezitrala bardinak! Gure entzute onaren alderako barik besterako dan arazo onetan zure nasaitasun andirako emen dozu zutzako idazkiaren birkia; baña zurea bedi lenen yaioa ta etxaguntzea artuko dauena, nik autorrtzen dautzudenez, nireak eztau inoiz be artukota. Baietz izan ak oneik lango milla idazki, izenak idazteko lekuak betetzeka, utsik itxita, eta orrez ganera, zagoz seguru, bigarren umaldikoak dirala oneik. Segurutik, ak irarri egingo dauz oneik; eta izan be, ari eztauto ardura irarregira zer bidaliagaitik, gure izenak imini dauzanazkero. Gurago neunke nik emakumetzar izan eta Pelion mendiaren azpian etzan, arenean baño. Ara! gizon garbi bat baño errezago ta lenago idoroko dautzudaz ogei galeper lizun.

FORD'ena.—Izan be, au ta niretzakoa bardin-bardinak yatzuz; esku berbera, itz berberak. Zertzuk gareaia uste ete dau ak?

PEITX'ena.—Nik eztaikit; ia neure on-indarretaz zalantzan egoteko nago, eta neure buruz ezagun eztodanez legetxe yarduteko; eta izan be, nik eztaikidan leraren bat ak nigan ez ezagutzekotan, enindukean eraso-

ko olango oldarrez, etzan nire ontziratuko. FORD'ena.—Etzan ontziratuko diñozu? Sinis egidazu, nik eztautsat itxiko nire ontzi-zubira igoten be.

PEITX'ena.—Neuk be orixe egingo dot; nire ontzi-ganeko zuloperatu ba'dadi, enaz bein barriro itxasoratuko... Ordea emon dagiogun, apena ari, apena; alkar ikusteko aldi ta lekua izentau dagiogun; ak bere asmoak lortuko dauzanena egin guk; eta a aurrera ekarri amuzki onez, gerokoaren itxaroz, bere zaldiak Zangogalartzu-Arroztegiko arrotunari baitu arte.

FORD'ena.—Bai, gure zindotasuna orbandu ta lausotuko eleukean edozein zitalkeri egiteko, naiz ederreteko gertu nozu. Ene! nire senarrak ba'lekus idazki au, aren betiko tukuen bizkarri litzateke.

PEITX'ena.—Ba, aor non datorren bera; eta bai nire gizon ona be; ni orretarako biderik emotetik bestean urrin dago ori tukue-tatik; eta bitarte ori, nik ditxarodanez, andi be andi da.

FORD'ena.—Orrexegaitik zu emakume zori ontsuago zara.

PEITX'ena.—Alkarri onurik emon dagiogun zaldun koipetsu orren aurka; erdu ona. (Alde dagie okolura).

FORD, PISTOL, PEITX, eta NIM aurrera.

FORD.—Tira ba, ez al da izango olangorik.

PISTOL.—Ez al da'gaz etzoaz urrin arazo batzuetan; zure emaztea maite dau Yon Sir'ak.

FORD.—Ba, yaun, nire emaztea estok ez umerik, ez neskatorik.

PISTOL.—Ak bardin egiten dautsez maitekeriak goiko ta bekoai, aberatsai eta beartsuei, gazte ta zarrak; bardin yakoz batzuek, naiz besteak; Ford; ak maite dau zure zertan sartzea; ausmer egizu, Ford.

FORD.—Nire emaztea maite dauela?

PISTOL.—Gibel bero ta gori-goriz, akerrak auskara dan auntza baño beroago, astarrek asto agia baño goritago. Aurreak artu egiozuz, ostantxean zoaz Aktaion legetxe (12),

(12) AKTAION. Antxiña-antxiñatikiko dogu gizon au, inoiz Aktaion'ik izan ba'da; mitualdiko dana dala be. Mitu edo ipuinak dirauskuneez, Akataion au Elade'ko Tebai'tarra, Aristai'ren seme da. Eiztari amurruetariko ei zan eta, orretarako, eiza-txakur bat barik, txakur-taldea ei eukan. Oi ebanez, bein urten zan besteetan lez eizean bere txakur-taldeagaz, eta basotik etxerakoan, bidean, Ar-

oreinduta, ta txakurrak atzetik ara doaki-zuzala. Ez egizu emon biderik zuri inok ez-izen gorrotagarririk ezarteko.

FORD.—Ze izen, yaun?

PISTOL.—Adardun izena diñot. Agur. Arduraz ibili; begiak zabalik euki, gabaz ibilten yatzuz lapurrak-eta; arduraz ibili, udea baño len, edo kukuak kuku egin baño len... Gaiozan, gudaiburutxo Nim...

(NIM'ek) Sinis egiozu, Peitx; sentzunez itz egin dautzu orrek. (PISTOL'ek alde).

FORD.—Epe artuko dot! aztertuko dot arazo au.

NIM.—(PEITX'eri) Au be egia da. Etxat bape gogoko guzurrik esatea. Ak bere gogaldi batzuetan laidoitu egin izan nau; ak bere burualdian eginiko idazkia nik eroan egin bear neuskion emakumeri; baño nik ba-dot ezpatarik, eta nire espateak bere egitekoa egingo dau ni atara beartu nagienean. Zure emaztea maite dau ak; aor zerak argi, garbi ta labor esanda. Gudalburutxo NIM yat niri izena; neuk diñot eta neuk baituten dot. Egia da: Nim da ni-

temis yainkono eiztariakin egin eban trikixt alanbearrez. Artemis bera be, txakur barik, ango basoetan eizean ibilirik izerditu- izerditurik eta beroak ito-bearrean arkuitu zan eta uretan sartu ta busti-aldi on bat artzeko irrikiturik egoan. An eban aurrean ur garbi-gardenezko errekeak, aldameneko zugatzak euren itzalpean artzen ebena, ta an-or-emenka oxin sakon-samarrak ebazana. Eurotariko baten sartu da Artemis, bere soñeko izerdiz ase-tuak lats-baztarrean arri-ganean itxita, Alanbearrez, an dator Aktaion be goitik bera bere txakur-taldeagaz eta ak be eztau Artemis'ek baño gogo gitxiago basa-latseko oxinean bere soin bera murgiltzeko. Bein erreka-baztarreratuazkero, bai ba, goitik bera marmarka etorren uraren zurrumurrak belarriak eta biotza, bitzuek, poztu eutsazan-eta, begiak be uretara. An dakus Artemis oxinean murgildurik, baña ur gardenetan soña ostondu-ezinik. Gizonezkoren begiak beragan alan lotsabarik yarteak Artemis asarre bizitan gori-gori imini eban. Zer egingo? Ipuinak eztiño, baña Aktaion bera be bere asmo zantzarretan aurreragi sartu edo sartzeko bidean yarri zan urrean, Artemis'ek artu eta bete eban erabagia itzala izan zan-eta. Yainkonoak Aktaion bertatik oreindu egin eban. An etzanda, min luzeak aterata egozan Aktaion'en txakurrak len Aktaion egondako lekuan orein

re izena, eta Falstaff'ek maite dau zure emaztea.—Agur.—enozu ni gaztaeari ogi, ta ogiari gaztae esateko gogalaikorik; oar zera argi esanda. Agur. NIM'ek alde).

PEITX.—Zerak argi ta garbi esaten dakiana ei dogu urli ori.

FORD.—Falstaff'en billa yoango nok.

PEITX.—Nire bizian etxoat ezagutu orren astiro ta orren arro itz egiten dauen zitalik.

FORD.—Olangorik idoro ba'dagit, ba...

PEITX.—Nik eztautsat sinistuko olango txinatarrerri, bere uriko abadeak benetako gizon dala autortu-arren be.

FORD.—Orako gizon ori gizon on eta sentuntsu da. Tira ba.

PEITX.—Ze barri, Margarite?

PEITX'ena.—Nora zoaz, Gorka?... Entzun.

FORD'ena.—Nolan zagoz, Pantzezka ezti? Zegaitik zagoz oldozpera ta goga-yausi?

FORD.—Oldozpera ta goga-yausi! enago ni oldozpera ta goga-yausi... Zoaz, zoaz etxera.

FORD'ena.—Burukeri ta burutapenen batzuk dozuz zuk orain buruan, benetan. Bazatoz etxera, ala, Peitx'en andera?

txairo, bildurri, buru-yaso, adar kimutsuduna ikusiaz bat an doaz oreinaganantza, euren agin zorrotzak aren aragietan yosi ta a zati-zati egiteko. An doa orein larria lau oñean, burua goian, beso-makur, zangoak atzeraka luze eguratsa zear, noizean bein lurri osta-osta ikuturik, eta txakur-taldea atzetik ara era berean eta baso guztia euren ausiz beteten dabela; bide-arlo azi-samarra dago oreinaren eta txakurren bitartean, baña alango baten oreinari bere buru adartsua elorri ta sasiartearen guztiz kirimilduta gelditzen yako-ta, ezin egin eurrera biderik. Eldu dautsoe txakur asarre-goseak eta Aktaion oreinduarenik ezta gelditzen txakurrak ezin goatu daben buruaz besterik. Aor Aktaion gixaxoa bere txakurrak iruntsita. Txakurrak, bein euren amorrua ta gosea asazkauazkero, euren ugazabaz oroitzen dira ta an doaz atzera, ekarri eben bidez bide aren billa, baña... ifion agiri ez Aktaion euren ugazaba maitea. Txakurrak an, gau ta egun, gau ta egun, goseak ilik eta damu-ausika, naibagearen naibagez, euren ugazaba ifiondik agiri ez-eta. Ugazabaren sudea antxe amaitzen zan eta an izan bear ifion izatekotan eta, txakurrak an andik ifiora alde egiteka ta beti eurenear, beti damu-ausi baten. Yainkoben bat nozbaiten errukitu ei zan errubako txakurrokaz.

PEITX'ena.—Zure esanera... Bazkaltzeko etorriko zara, ala, Gorka? Begira, nor datorren andik aragotik; emakume ori izango da gure gezinari zaldun zatar aganako. (Onako au Ford'enari bakarrik esan dautso).

BIZKOR anderea aurrera.

FORD'ena.—Sinistu egidazu, neuri be orixe otu yat; beren-beregiko da ori orretarako. PEITX'ena.—Nire alaba Ane ikusteko zatoz zu, ezta?

BIZKOR.—Bai, izan be; eta, arren, nolán dago Ane anderaño ona?

PEITX'ena.—Zatoz barrura geukin eta zeuk ikusi; ordubete dogu zukin itz egiteko.

(FORD'enak, PEITX'enak eta BIZKOR'ek alde)

PEITX.—Ze uste dozu, Ford yaun?

FORD.—Entzun dozu zital orrek esan daustana; eztozu entzun, ala?

PEITX.—Bai, entzun dot; eta zeuk entzun dozu besteak niri esana?

FORD.—Zer orretan susterrrik eta egiaren antzik ba-dagola uste dozu, ala?

PEITX.—Eskegi dagiezala yopuk; nik eztot uste zaldunak olangorik iragarri ta agindu dauenik; gure emazteakazko aren asmoez a salatu dabenak ak ortik zear bidaliko buztarkide bi yatzuz; otseintzea galdu daben zital-zital bi.

FORD.—Aren gizonetariko dira, ala?

PEITX.—Bai, aren gizonetariko izanak.

FORD.—Orrailño be enagotzu nasai-nasai. Zangogalartzu'koan etzaten da Falstaff ala?

PEITX.—Bai, antxe etzaten da. Nire emazteaganako olango yoan-etorririk egiteko asmorik ak dauena ba'nenki, nire emaztea bera beretara itxiko neunke; eta ak nire emazteagandik itz zorrotzez besterik iritxi ba'dagi, neuk erantzuteko.

FORD.—Eztot nik nire emazteazko susmo txarrik; baña nik nire aldetik eneunkez itxiko eurak euretara. Ustetsuegi izan leike gizona; nik eneunke gura erantzunbiderik, erantzungaririk, erantzukizunik; ni ezin egon naiteke nasai olan.

PEITX.—Begira, non datorren Zangogalartzu'ko nire arrotzun itz-arroa: orren txitxari etorren danean orrek edo buruan txitxiparra geiegi, edo sakelean dirua izaten dau.—Ze barri, ene arrotzun?

ARROZTUNA ta AZAL aurrera.

ARROZT.—Kaxo, azkar! aitonen seme augu i; ebazle ta zaldun augu i, gero!

AZAL.—Ba-narraikizu ene arrotzun, ba-narraik-

kizu... Egun on, milla bider egun on, Peitx yaun on! Peitx yaun, etorri gurozu gukin, ala? Ba-dogu yolasik gure begira.

ARROZT.—Esaiozu, ebazle zaldun; escaiozu, azkar, zer ikusteko garean.

AZAL.—Yaun, Uga Sir Wales'tar abadea ta Kai Pantze'tar osagilea alkarrekin burruka egiteko dira.

FORD.—Zangogalartzu'ko ene arrotzun on ori, itz bat zukin.

ARROZT.—Zer diñozu, adoretsu orrek? (Baztarreratu egiten dira biak).

AZAL.—(PEITX'eri) Lagun izango zaiakuz orrako ori ikusten, ala? Nire arrotzun gogargiak neurtu dauz euren izkilloak; eta, nire ustez, okerreko lekuak izentau dautsez; eta izan be, sinis egidazu, entzun dodanez abadea ezta txantxetan ibiltekorik. Adi, bidean yoan-ala azalduko dautzut zelango izango dan gure yolasa.

ARROZT.—Ez ete dozu zuk auzirik nire zaldunaren aurka, nire arrotz-zaldunaren aurka?

FORD.—Bapez, zelango danik bez, eta ori bedi nire autorra: baña ardao ona dauen bonbil bat emongo dautzut ni agana eroan eta nire izena Iturri dala zuk ari esate-arren; txantxetan ibilteko bakarrik da.

ARROZT.—Eutsi nire eskua, yaun adoretsu; agana yoateko ta agandik atzera etorteko biderik izango dozu; ondo esanda, ala? Eta Iturri izango da zure izena: gogargiko zaldun da a. Ba-goaz, ala, lagunak?

AZAL.—Zure esanera, ene arrotzun.

PEITX.—Pantzetarra entzun dodanez, trebe da bere ezpatea erabilten.

AZAL.—Utikan, yaun, esan dautzudana baño areago esan neinketzun nik. Gure egunotan, ezpata-burrukan, besteagandik urregi yarri ez baño eztozu, gero aurrera egin, zart; zartadea emon, eta eztakit zer be geiago; biotzik izatea, adoretsu izatea da dana, Peitx yaun; (bere bularra biotz-aldean yoaz) au, au. Ezagun izan dot nik aldia nire ezpata luzeagaz lau gizon garratzari arratoiai legetxe igesiazokoto neuntsena.

ARROZT.—Erdi, mutilek, erdu! ba-goaz, ala?

PEITX.—Zure esanera: --Gurago neunkean nik aik burrukan barik alkarrekin asarre ikusi. (ARROZTUNAK, AZAL'ek eta PEITX'ek alde).

FORD.—Peitx ergel uts izan, eta bere emaztea ezjala auskor eta yauskor ak uste izan-arren, nik ezin dot bazartu orren erreze nire ertxia. Nire emaztea Falstaff'ekin batera egon da Peitx'enean; eta nik eztakit aik an zer egin izan daben. Tira ba, sa-

konago aztertuko dot zera eta ba-dot nik marrorik Falstaff'eri usaina artzeko: nire emaztea zintzo dala idoro ba'dagit, nire

nekeak ez dira izan alperrik artuak; eta bestera dala idoro ba'dagit, ondo artuak izango dira nire nekeak. (Alde dagi).

II AGERLEKU.-ZANGOALARTZU-Arroztegiko gela.

FALSTAFF eta PISTOL aurrera.

FALST.—Nik eztauskat emongo txakurtzikirik be.

PISTOL.—Ba, orrazkero, nire ispel da munda, eta nire ezpateaz idigiko dot... Zuk aurreratzen daustazuna pardel-lapurretan eginaz ordainduko dautzut.

FALST.—Txakurtzikirik bez. Orain arte itxi daukat nire izena ik baitzat artu ta erabilten; orain artean nire adiskide onak parkatu yaustezak iru bider iri aik aurreratu diruak, iri ta ire buztarkide Nim'eri aurreratuak; olan izan ezpa'ltzok, orrazkero burdin-sareen ostetik begira egongo zintza zen zuok, matxango bikotearen antzera. Su-lezarako gaiztetsirik naiagok ni gudari on eta mutil adoretu zariela nire adiskide aitonen semeai nik zin egin izana-gaitik; eta Birgite andereak bere aizetalluaren kirtena galdu ebanean, nire omena yokatu naioan ik ez eunkala.

PISTOL.—Etzendun artu zure zatia, ala? Etzenduzan artu amabost txakurrandi, ala?

FALST.—Gogoratu ta buruan erabili egik, ausmer egik, zital orrek, ausmer egik. Nire gogoa utsagaitik iminiko dodala galbidetan uste dok, ala? Labur esateko, ez akit ibili soñekotik tiraka ta eskegita, ni enok izako kakorik-eta; artuik aitzolxo bat eta oa yentetzara: oa Pichthatch'eko ire etxera... --Eztoz eroango nigandiko gorantzi-papelik, zital orrek!... eure izenari egon bearko akio!... Aiko, zirtziltasun baztarbako ori, auxe bakarrik dok nik egin daike-dana, auxe omenaren ertzak argi ta garbi agiri dadizan. Neu, neu, nerau be batzuetan, Yaungoikoaren bildurrari ezkerretara eraginda, eta nire bear-aldian nire omena ostonduta, iñori iruzur egin-bearrean, bide zuzena barik arteza artu-bear gorrian aurkitzen nok-eta; eta zuok, zitalok, seguru gura dozuez zuon sorkiak, zuon basakatu-begirakuneak, zuon ardan-degi-esakuneak, eta zuon zin arroak, nire omenaren aterpe ta babespean! Eztozue egingo olan-gorik, ez orixe.

PISTOL.—Apaldurik nozu. Zer geiago gurozu gizongandik?

ERROBIN aurrera.

ERROB.—Yaun, zukin itz egin gogo dauen emakumerik ba-do zu emen.

FALST.—Datorrela aurrera.

BIZKOR anderea aurrera.

BIZKOR.—Egun on, adeigarri orri.

FALST.—Egun on, emakume on.

BIZK.—Ez olangorik, adeigarri orri eder ba'yatzu.

FALST.—Otsein on, orrazkero.

BIZK.—Zin egingo dautzut; bai, otsein, ni yaio nintzan lenengo orduan nire ama zana zan legetxe.

FALST.—Sinisten dautsat zinginari. Zer gura dozu?

BIZK.—Zuri, adeigarri orri, iru-lau itz eralgiko ete dautzudaz?

FALST.—Bi milla be bai, emakume lirain; eta nik gogoz entzungo dautzudaz.

BIZK.—Eutsi bat, Ford'en anderea, yaun; onaxeago Zatoz, arren: ...ni neu Kai osagi-leakin bizi naz.

FALST.—Ori ondo, aurrera yo: Ford'en anderea diñozu, ezta?

BIZK.—Ondo diñozu zuk adeigarri orrek; bai, axe; urreragotu zakidaz, arren, adeigarri ori.

FALST.—Sinis egidazu, iñor be eztago guri entzuten; nireak baño eztagoz emen, nireak baño ez.

BIZK.—Zure dira, ala? Yaungoikoak onetsiko al dauz, eta Aren otsein izango al dira!

FALST.—Ba; Ford'en anderea: ...zer Ford'en andereaz?

BIZK.—Ba, yaun, emakume on da a. Yauna! lotsabako zara zu adeigarri ori. Ba, Yaungoikoak parkatu zagizala, eta bai gu guztiok be, arren!

FALST.—Ford'en anderea; ...ira, Ford'en anderea...

BIZK.—Andera Miren-arren, auxe dozu argi ta garbi ta labur; ukutu ta eragin itzalak emon dautsazuz zuk aren biotzari, arrigarririk benetan. Errege ta yauregikoak Windsor' en dagozanean, yauregikorik trebeenak be eleuskion eragingo ari zuk eragin izan dautsazun bestean. Eta orraitño an zaldunik, andikirik, eta aitonen semeirik

asko izan da euren zalpudi ta guzi; sinis egidazu, zalpurdia zalpurdiren ostean, idazkia idazkiren ostean, esku-erakutsia esku-erakusiren yarra; usain ain gozoa erioenak, dana usain gozo ta dana yantzien ziri-zara. Sinis egidazu, sedaz eta urrez yantzirik; eta ain txairo; euren autuak ez-ti ta gozo ziran eta yauregitarrak eurak izan leitekezanik lerdenenak, edozein emakumeren biotzaz yabetu eitekezanak; eta orraititño, sinis egidazu, aik ezin lortu izan eben Ford'en andereagandik kiñutxo maitekor bat be.-- Urrinago yotekaa, gaur goxean opatu daustez ogei angeru (or esaten dautsenez), baña zer ardura dauste niri munduko angeru (13) guztiak be, onerako ezpa'dira. Eta, sinis egidazu, yauregitarrak ezin lortu izan dabe ak, Ford'en emazteak, euren arteko arroenaren edalontzitik zurrutadaxo bat egitea be: eta arein artean konderik be izan yatzu eta, gelago dana, erregegandik urterokoa artzen dabenetarikorik be bai; baña, sinis egidazu, guztiak izan dira bat arentzako.

FALST.—Baña ze gezna da aren nitzakoa? Labur eta arin esan, emakumezko nire Merkuri (14) orrek.

BIZK.—Andera Miren-arren, artu dau ak zure idazkia; eta milla bider emoten dautzuz eskerrak beragaitik; eta aren senarra etxetik landa amerretatik amaiketara bitartean izango dala diragaritzu.

FALST.—Amarretatik amaiketara?

BIZK.—Bai, orixe; aldi orretan yoan zeintekoz, --diño ak--, zuk ezagun dozun irudia ikusten; ...Ford jauna, aren senarra, etxetik landa izango da. Ai ene! emakume maitagarri ak bizitza ondo latza daroa bere senarrakin; a gizon tukutsu utsa da: eta emakume biotz oneko ak bizitza ondo goibel-goibela daroa gizon akin.

FALST.—Amarretatik amaiketara. Emakume, nire gorantziak emiozuz; eztautsat utsik egingo.

BIZK.—Izan be, ondo diñozu zuk: beste geznarik be ba-dot zutzako. Peitx'en andereak be biotz-biotzetiko gorantziak emon daustaz zutzako; ...eta zure belarrira esaten itxi egidazu a emakume on-indartsu, txerakor eta lotsor dala ta, dana dala, besterik eztagola Windsor'en ak lez gabeko ta goxeko ototzats utz barik egingo dauzanik; eta zuri, adeigarri orri, esan dagitzudala agindu daust bere senarrak nekez alde egiten dauela etxetik; baña aldi egolirik, abagunerik agertuko dala ditxaro ak. Eguño ez-tot ezagutu emakumerik a zugaz bestean

gizonez txotxaturik dagonik; zuk baztarrak liluratu egiten dozuzala uste dot nik; aor dana batera esanda; bai, benetan.

FALST.—Ez nik; seguru zagoz; nire alde on, nire gaitasunez beste lilurarik ez-tot nik.

BIZK.—Onetsia zadiz, adeigarri ori, orregaitik!

FALST.—Baña, arren, esaidazu au: Ford'en eta Peitx'en anderek ete dakie ni bataak eta besteak, biak, maite nabarik?

BIZK.—Txantxetan lebilkeiz, olan ba'litz! ez-tot uste orren buru gitxi dabenik; olan ba'litz, marroen bat leukie asmauta! Peitx'en andereak zuk zure esku-mutila ari bidaltzea gura dau: aren senarra zoratuta dago mutikoaz; eta, benetan, Peitx yauna gizon zindo da. Eguño emazteak ez-tot eroan Windsor'en aren emazteak daroan baño bizitza erosoagorik eta oberik; berak gura dauena egin, berak zer-gura esan, berak artu dana, berak ordaindu dana, berak noz-gurra etzan, berak gura dauenena yagi, dana da berak gura dauena ta berak gura dauenez; eta, egiaz, ondo irabazirik dau ak ori; izan be, emakume maitagarriak ba'dago Windsor'en, a da bat. Bidali bear dautsazu zure esku-mutila; eztago beste biderik.

FALST.—Ba, bidaliko dautsat.

BIZK.—Bai, orrazkero orixe egizu: eta, begira, yoan-etorriak egin leiz orrek agana ta zugana, biakana; eta edozelan be, zuok zuon arteko izkuntzea erabili zeinkie alkarri zuon gogoa iragarri ta, orraititño be, mutikoak berak ezer yaktiketa; eta izan be, ezta egoki umeak gaitzakeririk ikasi ta yaktiketa: adineko lagunak ba-dabe sentzunik eta zurtasunik eta berezpiderik, or esan daroenez, eta ba-dakiez munduko barri ta atzera-aurreak.

FALST.—Onik eta ondo ibili; nire gorantziak biak; eutsi nire ziskua; zordun gelditzen naiztu oraindik... I, mutiko, oar emakume orrekin... Barri onek poza-arren zoraturik itxi nau! (BIZKOR'ek eta ERROBIN'ek alde)

PISTOL.—Kupidaren geznarietako yatsu zirilda ori... Axe-oial gelago ezarri zure itsasontziari; eraso ta zarrakiez; gertau su-odiak; su emon; nire da emakume ori.

(13) An esana gogotan ezpa'dozu, irakurla maite, 9'garren oarra barriri irakurri egizu.

(14) Erromarrentzako Merkuri ta Eladetarrentzako Iris zer bat berbera yatzu, yainkoen geznarria.

ostantxean itxasoak iruntsi dagiala dana!
(PISTOL'ek alde).

FALST.—Ori diñok, Falstaff zar? Arraikio ire bideari; orain arte egin dodan baño geiago egingo yocat ire soin zar orregaz. Oraindik be begiratuko ete aue? Len ainbeste diru galdu ta eralgita, irabazi egingo ete dok orain? Ene soin on, eskerrak iri. Esan da giela zakar eta trakets egin dala; ondo egin dala esan ba'daigie be bardin da.

BARDOLPA aurrera.

BARD.—Yon Sir, or bean dozu Iturri yaun dalakorik zukin itz egin gura leukena, ta ezagutu gura zindukezana; eta goxeko ardao-zurrutadea bidali dau zu adeigarri orrentzat.

FALST.—Iturri yakok izena, ala?

BARD.—Bai, yaun.

FALST.—Ona barrura ekarrik; (BARD'k alde) olango edariz ganaz dagozan iturriak yataz niri begiko. Aja! Ford'en emazte ta Peitx'en emazte, sareratu zauedaz, ala? Ondo yoaak au; aurrera!

BARDOLPA aurrera ostera be, FORD kokomartuakin batera.

FORD.—Onesia izango al zara, yaun.

FALST.—Bai, zeu be, yaun. Nikin itz egin gogo dozu, ala?

FORD.—Geiagoko barik zure aurrera etorri izana parkatu egidazu.

FALST.—Ondo etorria zara; zer gura dozu? (BARDOLPA'ri) Gu biok biotara, bakarrik itxi gogiazak, Bardolpa. (BARD'k alde).

FORD.—Yaun, diru asko eralgi izan dauen aitonen seme nozu ni; Iturri yat izena.

FALST.—Iturri yaun on, zure adiskideago izan gura neunke.

FORD.—Yon Sir on ori, zure adiskidetasunaren eske nagotzu ni; enatoritzu zutzako nekagarri izateko; eta izan be, iragarri bear dautzut, nire ustez niri egokiago yatala zuri dirua aurreratzea, zuk niri baño; eta orrek emon izan daust adorea zugana onan aro ez egokian etorteko. Izan be, or diñoenez, dirua aurretik yoaazkero, bide guztiak dozuz zabal-zabalik.

FALST.—Gudari on yatzu dirua, yaun, eta aurrera egiten dau.

FORD.—Bai, izan be, eta emen dot nekagarri yatan diru-zorroa; au eroaten lagun izan ba'zakidaz, Yon Sir, guztia, naiz erdia artu egizu, eroatea niri arintzeko.

FALST.—Yaun, eztakit nik nolán irabazi izan dodan zure igarola izatea.

FORD.—Neuk esango dautzut, yaun, entzun gura ba'daustazu.

FALST.—Esan, Iturri yaun on orrek; pozik izango naizazu zure otsein.

FORD.—Yaun, gizon ikasietariko zarea la zu entzun dot... labur esango dautzut esatekoa... eta nik atxinerik ezagun izan dodan gizona zara zu, nik gura izan-arren zure adiskide egiteko erarik eta abagunerik izan ez-arren. Eta nire osoeztasuna agiri-agirian iminizoko daustan zertxobait iragarri bear dautzut; baño, Yon Sir on, nik nire zorakeriak iragarri-ala, eurak ikusteko, zuk zure begi bata idigirik eta zur eulitko dozunez, bestea zeureen erreskada-ganera itzuli egizu; olango utsetan yaustea ain erreza dala zeuk ikusirik, nirentzako zure gaitzespena eroangarriago egin dakidan.

FALST.—Ondo baño be abeto ori, yaun; ekin.

FORD.—Aitonen alaba bat dozu uri onetan, eta Ford yakok izena aren senarrari.

FALST.—Ori ondo, yaun.

FORD.—Luzaroan maite izan dot nik emakume ori, eta autor dautortzut nik asko emon izan daustadala; txakurtzako bañ zoliago ibili izan naz bere atzetik; abagunerik askoren billa ibili izan naz akin batzeko; erarik txikienez billa ibili naizazu a ikusteko; ari emoteko emaitzik asko erosi ezeze, amaitzaxori itandu be egin izan dautset ari nik zer emotea litzakion gogoko; labur esateko, aren yarra ibili naz maitasuna nire yarra ibili yatan bestean; eta erarik izan dodan guztietan izan da ori. Baña nik nire gogo ta asmo onez, naiz nire emaitzen irabaziak irabazi, nik eztoz ezertxo be artu agandik; ba-leiteke oar-ikusia pitxirik izatea, baño ori ondo karu erosi izan dot; eta orrek irakatsi daust onako au esaten:

"Mamidun maitasuna darraikonean, maitasuna igesi doa itzal-antzo; Igesi donanren yarra, eta yarra doakonaren igesi; ori dordoa!"

FALST.—Ez ete dozu artu agandik ezetariko buru-zuritzerik? Edo-ta buru-zuritzeren agindurik?

FORD.—Eguño bez.

FALST.—Ez ete dozu zirrikatu ta estutu orretarako?

FORD.—Bein bez.

FALST.—Orrazkero, zetariko izan da zure maitasuna?

FORD.—Beste norbaiten lurrean eragiriko etxe ederra langoxea; eta olan, galdu egin dot okerreko ustez iñoren lurrean eragiriko nire etxea.

FALST.—Ze asmogaz iragarri daustazu orra-ko ori?

FORD.—Ori esan dagitudanean, dana dozu esanda, Nik a zindotzat euki-arren, batzuk diñoenez leku batzuetan a gogargiegi ta bitzariegi agertzen ei da-ta susmo txarrik sortzen ei dau. Orain, Yon Sir, amen nire asmoaren mamia, Aziera gaileneko aitonen seme zara zu, itz-egikera arrigarrikkoa, edonon eta edonok artzen zauzana, yator zure leku ta izatean, guztiak artzen zabez zure gudari aldetiko, yauregitar aldetiko ta yakintza aldetiko egokitasunagaitik.

FALST.—Bego, bego, yaun!

FORD.—Sinis egidazu, ori zeuk be ba-dakizuta... --eutsi dirua; eralgi egizu; eralgi egizu; geiago eralgi; dodan guztia eralgi; bakar-bakarrik diruaren ordez ekazu zure asü apur bat Ford'en emazte orren zintotasunari adiskide-erasoalditxo bat egiteko; zure trebetasun guztia erabili egizu maitemindurena egiteko, irabazi egizu, zure asmoetarako bere burua makurtu dagian eta etsi dadin; gizonek egitekotan, naiz egin al izatekotan, beste inok bestean arin egin zeinke zuk orra-ko ori.

FALST.—Zure leia biziari ondo ete letorkio zuk gozatu gura dozuna nik irabaztea? Nire ustez zuk zure burua atzeregi iminten dozu.

FORD.—Ene! ulertu egizu nire asmoa! A anderea ain seguru dago bere omenaren bikaintasunaz-eta, nire gogoko zorakeria ezta azartzen bere burua erakusten; a argiegi da artez-artez begiratzeko. Ni agertu ba' nalkio lendiko aret laban eta yausteren agiria eskuelan dodala, a nire gurari ta irrisaren aldera errezago iminteko, ari alde eragin al izango neunskio orain aret garbitasun, entzute on eta ezkontzako zinaren eta beste amaika babes-lekutik, orain nik gogor eraso-arren be nik lurreratu ta banatzeko sendoeqi eta yagonegi diranetatik. Zer deretkatzu nire asmo oni, Yon Sir?

FALST.—Iturri yaun, bein-beinean artzen dot zure dirua; urren, zure eskua ekazu; eta azkenez, ni aitonen seme nazan bestean seguru zagoz, gure ba'dozu, Ford'en emaztearen soñia irrisaren asegarri izango dala.

FORD.—Baietz uste ete dozu, yaun on?

FALST.—Iturri yaun, neuk dirautzut baietz.
 FORD.—Diruren bearrik eztozu izango, Yon Sir, diruren ezetariko bearrik ez; satsa lez izango dozu dirua.

FALST.—Zeuk be eztozu izango Ford'en anderearen bearrik, Iturri yaun, ezetarikorik

bez. Berak aurretik aldi-lekuak izentauta izango naz akin (onenbeste esan daiketzu); egin-eginean be zu ona eldu zarean une berean alde egin dau emendik aret lagunak, aret bitartekoak; neuk dirautzut, amaretatik amaiketara bitartean egongo naz akin; eta izan be, aret senar zital, tukutsu ta zirtzila, etxetik landa izango da. Gabaz zatorkidaz; or dakuskezu ni bizkor eta zoli ibilteko gizona nazala.

FORD.—Onespen yat zu ezagutu izana. Ezagun dozu Ford, ala, yaun?

FALST.—Ezagun dodan? Adardun beartsu a nik ezagun dodan? Eztot ezagun: ...eta orraitio irain egin dauzat nik ari, beartsu deiturik; or diñoenez, adardun zital tukutsu ak diru-mendiak ei dauz; eta orrexegaitik zori ontsutat dot aret emaztea. Adardun zital aret emaztea erabiliko dot nik aret diru-kutxen giltzatza; eta or dot nik sekulako uztea.

FORD.—Ezagun al zendu Ford, yaun; zuk a ikustekotan aret aurretik zirrist eta alde egiteko.

FALST.—Ba! Gurin gaziarene salerosle agandik nik igesi? Nire begiak arpegian yosiyosi egingo dauzat eta ni yasan-ezinez burutik eragingo dauzat; ikaratu egingo dot nire makileari eraginaz; egaz ibiliko da nire makilea adardun aret adarren ganean; Iturri yaun, zeuk dakuskezu baserritar trakets a nolant benderatzen dodan, eta aret emazteakin izango zara zu; izango ta etzango... Gaulendiz zatorkidaz; ...gizon zakar-ezige da Ford, eta nik zakar-ezigeagotu egingo dot; Iturri yaun, zeuk dakuskezu a gizon zakar adarduna dala; ...gaulendiz zatorkidaz. (Alde dagi).

FORD.—Epikurtar gaitzetsi zital makalik eztozu gizon au!... Nire biotza tarrat egin aginik dago eperik ezagaitik. Nok diño nire yokabide au bidebako tukukeri dala? Nire emazteak gezne bidali dautso orri, izentaurik dago ordua, eginik dago alkar-ganaztea. Nongo gizonek uste izateko, nori burura etorteko onangorik? Ikusi zelangosuleza dan emakume ustelik eukitea! Nire oea iraindu ta orbanduko dabe, nire diru-kutxak murratuko daustez, nire izen ona aginkadaz zeaturik geldituko da; eta nik zitalkerizko irain au bakarrik eztot artuko, izengoiti askaririk askarriena be artu baño, eta egin-eginean be iraina egin daustan berberagandik artu. Izengoitiak, ez-izenak!... Amaimon izena etxake gorrotagarri

belarriaci; Lutzifer... boa ori be; Barbason... ori ondo; eta orraitño, txerrenen izengoiti dira izenok, txerrenen izen; baña adardun! kuku-yostallu! txerrenak berak be eztau olango izengoiti askaririk. Asto da Peitx, seguru dagon asto! bere emazteaz entzitea, uste ona izango dau ak; eztau izango ak tukurik! baña nik, nik ustetsuago aurreratu neuskio nire gurina Nederlandatarrerri, Uga Wales'tar abadeari nire gaztea, Eire'tarrerri nire espiritu-bonbila, naiz lapurreri nire zaldia, nire emazteagan usterik izan baño! Orrazkero, iruzurrak asmatzen dara-

goio nire emazteak, ori darabil gogotan, asma-asmaka daragoio: eta emakumek au, ori, naiz besterik egitea erababi ba'dagi, orretarako bere burua ausi bear ba'dau be bere asma burutuko dau. Gorapenak Yaungoikoari tukutsu nazalako!... Amaikak dira aik izentauko ordua: ...aurreak artuko dau-tsedaz, nire emaztea agirian imini, Falstaff' eri berea eta erdi emon, eta Peitx'en lepotek barre egingo dol. Ba-noa nire egiteko-ra; oba da iru orduz aurreak artu, minuto bat beluegi eldu baño. Uf, uf! adardun, adardun, adardun! (Alde dagi).

III AGERLEKU.--WINDSOR'ko uri-zugaztia.

KAI eta ERRUBI aurrera.

KAI.—Yon Errubi!

ERRUBI.—Yaun?

KAI.—Ze ordu dok, Yon?

ERRUBI.—Uga Sir'ak alkarrekin batzeko aginduriko ordua baño geiago da.

KAI.—Yinkoa-arren! ona etorri-ezaz ak bere bizia yarei dau; ak bere Idazteunean ondo egin dau otoitz, ona ez etorteko; yinko-arren, Yon Errubi, a etorri izan ba'litzok, onazkero ilik zoan.

ERRUBI.—Gizon zur da a, yaun; ba-ekian ak zuk, adeigarri orrek, ilgo zenduala, ona etortekotan.

KAI.—Il bai, baña orraitño be egokiz ilgo yotat. Artuik ire ezpatea, Yon; neuk erakutsiko daukat nik a zelan ilgo dodan.

ERRUBI.—Yaun, ai ene! nik eztaikit ezpata-burrukan.

KAI.—Zital, dollor ori, artuik ire ezpatea.

ERRUBI.—Geldi, yaun, emen lagunak datoz eta.

ARROZTUN, AZAL, SLENDER eta PEITX aurrera.

ARROZT.—Yaungoikoak onetsiko al zauz, osagile burrukari.

AZAL.—Yaungoikoa lagun bekizu, Kai osagile yaun!

PEITX.—Kaxo, osagile yaun on!

SLENDER.—Egun on, yaun.

KAI.—Bat, bi, iru, lau... zetan zatoze ona?

ARROZT.—Zure burrukea ikusten, zure era-soaldiak ikusten; bira egiten zu ikusten, batetik bestera yotaten zu ikusten; ezpata-mo-koaz, agoaz, bizkarraz yoten eta alde bate-tik bestera egiten zu ikusten. Ilik ete da a, ene Eitopi'tar ori? Ilik ete da a, ene

Pantzeska? A! Burrukari! Zer diño nire Eskulapi'k? Nire Galen'ek? Nire Intxusa-biotzek? Ja, ja! ilik ete dogu a, Ollar Ustel? Zeartau dok a, ala?

KAI.—Yinko-arren, munduan danik eta abade-rik kihilena yatzu a: eztau erakutsi bere arpegririk.

ARROZT.—Kastila'ko Errege Txixontzi az i! Elade'ko Ektor augu i, ene seme!

KAI.—Arren, zuok zadize lekuko ta autorla ni emen egon nazala aren begira, sei edo zazpi, bi edo iru ordu, eta a eziala etorri.

AZAL.—Orrexegaitik da zurrago a, osagile yaun; gogoen osagile da a, zu, barriz, soñen osagile; zuok burrukari ba'zengie, zeuon ogibideen aurka eragoko zendukie; ez ete da olan, Peitx yaun?

PEITX.—Azal yaun, zu zeu be burrukari lan-go burrukaria izana zauguz, orain gizon bakezale izan-arren.

AZAL.—Arrano arranoa! Peitx yaun, ni orain zar eta bakezale izan-arren, ezpatarik aterata ikusi ba' dagit, nire atzak urliri zera egiteko gili-gili egiten dauste: gu bake-ebazle, eleiz-gizon, eta osagile izan-arren, Peitx yaun, oraindik aldean dogu gure gaztearoko gatz-apuren bana; bai ba, emakume-seme gaiatzuz, Peitx yaun.

PEITX.—Egia da, Azal yaun.

AZAL.—Bai, Peitx yaun, olangoze nozu ni, Kai osagile yaun, zu zurera erroteko nortzu; zin egindako bake-ebazle nozu ni; osagile zur zareala erakutsi dozu zuk, eta Uga yaunak be eleiz-gizon zur eta epetsu dala erakutsi dau; nikin yoan bear dozu, osagile yaun.

ARROZT.—Parkatu, ebazle arrotz... Itz bat zuri, Sastegi-ur yaun.

KAI.—Sastegi-ur! zer da ori?

ARROZT.—Ingelanderaz sastegi-ur'ek adorea, ollartasuna esan gure dau (15).

KAI.—Yinkoa-arren! Orrazkero, Ingelandararak aña sastegi-ur ba-dot nik... Abade txarri legentsu a! belarriak moztuko dau sadaz, bai orixe.

ARROZT.—Atzazalka urratuko au ak, ollar.

KAI.—Atzazalkatu, atzazalka azkatu! zer dogu ori?

ARROZT.—Bereak eta erdi emongo dau sazu-zala, esan gura dau orrek.

KAI.—Ak ni atzazalka noz azkatuko begira egon ni? Bera azkatuko dot nik.

ARROZT.—Neuk zirikatuko dot a orretarako; ostantxean, doala ortik zear buztana zango artean sartuta.

KAI.—Eskerrik asko zure orregaitik.

ARROZT.—Eta, orrez ganera, ollar... Baña, lenen, zu arrotz yaun ori, Peitx yauna, eta bai Slender Zalduna be, zoaze urla zear Frogmore'ra (Eurai bakarrik dirautse au).

PEITX.—An dago Uga yauna, ala?

ARROZT.—Bai, an dago: ikusi zelango gogaldia dauen ak; eta nik zelarik zelai erroango dot osagilea. Onerako izango eta da?

AZAL.—Orixe egin be egingo dogu.

PEITX, AZAL eta SLENDER.—Agur, osagile yaun on. (Iurak alde).

KAI.—Yinkoa-arren! il egingo dot nik abadea, asta-kirten baten alde ak itz egiten dautso Ane Peitx'eri-ia.

ARROZT.—Bai, il dadila a; baña lenen, zorroan sartu egizu zure eperik-eza; ur otza egotzi egiozu zure asarreari; zatoz nikin Frogmore'ko zelaiek zear ibiltaldi bat egiten; neuk eroango zaudaz Ane anderañoa-gana, lugintza-etxera, oturuntzara, eta an egingo dautsazuz kutunkeriak. Ondo esan ete dot, osagile?

KAI.—Bai orixe, eta eskerrik asko zuri orregaitik; arrano arrano, maite zeudaz nik, gero? eta zure arroztegira, arrotzun on ornera ekarriko dodaz nik kondeak, zaldunak, andikiak, eta aitonon semeak, nire osapide-eske etorriak.

ARROZT.—Eta orrexegaitik zure leiakide izango naiatzu ni Ane Peitx'ganako; ondo esan ete dot?

KAI.—Ori ondo, yinkoa-arren; ondo be ondo esanda.

ARROZT.—Goazen, orrazkero.

KAI.—Nire orpoz-orpo, ator Yontxo Errubi. (Alde dagie)

III EKITALDI

I AGERLEKU.—Frogmore'tik urreko zelai.

UGA EVANS Sir'a eta KOKOLO aurrera.

EVANS.—Arren, Slender yaun onaren otsein orrek, eta izenez Kokolo orrek, ze alderditan erago dautsak Kai, bere buruari Osagiletzan Irakasle deretxonaren billa?

KOKOLO.—Andera Miren-arren, yaun, London'erako bidean, uri-zugaztirakoan, bide guztietan; Windsor zarrerako bidean, eta urirakoaz beste bide guztietan.

EVANS.—Bene-benetan eskatzen dauskat urirako bidean be billa ibiteko.

KOKOLO.—Ori ondo, yaun.

EVANS. Yaungoikoak onetsiko al nau! nik dodan asarrearen asarre ta biotz-ikareak! Pozik nagoke, ak ziria sartu ba'daust: ...ni-rearen gogo-yausi! nik bai ausi ta birrinduko dodazala gogoz be gogoz aren txixontziak koldar-kikil aren buruan (16) orretarako erarik dodanean... Yaungoikoak onetsiko al dau nire gogoa! (Abesten daragoio).

Arein ur-yauzietan abesti gozoak
Txoriak dabesen ibai azaletara;
An eingoguz gure larrosa-tegiak,
Ta milla lora-sorta sunda-sundatsuak...

Arrano, arrano! negarbera nago.

Txori ezti-eztiak maite abestiak
Abesten daragoioe txorrotxioka,
Babilon'en yezarririk nengoanean...
Ta milla sorta sundatsurik sundatsuenak.

Arein ur-yauzietan...

KOKOLO.—An aragoan agiri da, onantza datorrela, Uga yaun.

EVANS.—Ondo etorria dok a:

Arein ur-yauzietan abesti gozoak...

Zuzenaren alde yarriko al da Yaungoikoak! Zetarikio iskiloak yakazak?

(15) Kai Pantzetarrak Ingelanderako mordo-illoa baño eztaiala-ta, ifondiko adarra yoteak darabilez berakin; orretarako beren-beregiko yatzu izan be Arrotzun gogargitxixaria.

(16) Aldi atako osagileak, gexoak ze gaitz eban igarteko, gexoaren txixa azlerizen eban beste ezer baño arduratsugoa; orregaitik eta orretarako, osagileak etxe bete txixontzi bear izaten eban. Izango zan an usain gozorik.

KOKOLO.—Eztakar iskilorik, yaun. An datoz nire ugazaba, Azai yauna, eta aitonen beste seme bat, Frogmore'tik; barruti-esia igaro dabe onako bidean.

EVANS.—Arren, ekak nire abade-yantzi luzea; ostantxean, ire besoetan eulik.

PEITX, AZAL eta SLENDER aurrera.

AZAL.—Ze barri, abade yaun? Egun on, Uga on, Uga on. Yokalaria diteretatik eta ikastuna bere idaztietatik alde eginda ikustea bai ba-dala andi ta arrigarri.

SLENDER.—Ai ene! Ane Peitx ezta!

PEITX.—Egun on, Uga yaun on!

EVANS.—Yaungoikoak onetsiko al zauez guztio!

AZAL.—Ostera! Yaungoikoaren itza ta ezpatea biak batera? Biak ikasten dozuz, ala, abade yaun?

PEITX.—Eta gazterik oraindik be, gorantxa ta galtzerdiak, eguraldi gordin eta ezo onetan?

EVANS.—Zegaitiak eta erdi dodaz orretarako.

PEITX.—Zuri otseintza onik egiteko gatortzuz, abade yaun.

EVANS.—Ondo baño obeto ori: zer doqu orrako ori?

PEITX.—An aragoan dago aitonen seme bat, eta norbaitegandik irainen bat artu dauelakotan, berari dagokion bentasun eta epeilik zuk eguño iñor ikusi izan dozun baño besterago dago.

AZAL.—Larogei urtetik gora dodaz aldean; eta oraindik ikusteko nago aren lekuko, aren bentasuneko, ta aren yakituriko gizonik, a lez bere buruari lotsea galdurik.

EVANS.—Nor da orrako ori?

PEITX.—Ezagun yatzula uste dot; Kai osagile yaun Pantzetar entzute andikoa.

EVANS.—Yaungoikoaren asarrea boakio ganera! Aretzaz baño porru-patatatz itz egingo ba zeunstie gurago neunke.

PEITX.—Zegaitik?

EVANS.—Ak Hipokrate ta Galen'en izenik be ezta entzun... orrez ganera, zital utsa da; zital kilil utsa, zeuok be autortuko zeunkienez, a ezagun ba'zendue.

PEITX.—Sinis egidazu, a da zukin burruka egin gura leukeana.

SLENDER.—Ene! Ane Peitx ezti ori!

AZAL.—Alan dirudi, iskilo ta guzti datorrenazkero... Alkarregandik bananduta euki egizuez;... -emen dator Kai osagilea.

ARROZTUNA, KAI eta ERRUBI aurrera.

PEITX.—Bai, abade on orrek, bere zorroan sartu egizu zure iskiloa.

AZAL.—Beste orrenbeste egin zuk, osagile yaun on orrek.

ARROZT.—Kendu iskiloak orrei, eta autuka ekin dagioela alkarrekin; eztagiela galdueuren azbegirik, eta muskildu dagiela gure Ingelanderea.

KAI.—Arren, itxi egidazu itz bat zure belarriara egiten. Zegaitik eztozu egin gura burruka nikin?

EVANS.—Arren, epe artuizu: zurituko dot nire burua bere tertzioan.

KAI.—Yinko-arren, zu kihil, koldar, ollo, txakur, matxango zara.

EVANS.—Arren, ez gadizan izan besteen barrerari; zure adiskide izan gura dot nik, eta bide batez, naiz bestez iraina zuzenduko dot: ...zure txixontziak zu zital orren buruan ausiko dautzudaz, izentauko batzar eta lekura zuk uts egin dozulako.

KAI.—Yinko-arren!... Yontxo Erubi... Zangogalartzu-Arroztegiko nire arroztun, ez ete naz egon orren begira ori ilteko? Ez ete? Eta nik izentauriko lekuan?

EVANS.—Kistar nazanez dirautzuet, gero! au au da izentauriko lekua, au. Zangogalartzu 'neko nire arroztunak ebatzi dagiala nik egia diñodanentz.

ARROZT.—Ixilik, gero! Gallia ta Gaul, Pantzetar eta Walestar; gogo-osatzalla ta soin osatzalla.

KAI.—Bai! ondo baño obeto ori! itzalez ondo!

ARROZT.—Ixilik, gero! Entzun Zangogalartzu'neko arroztunari, Politikari nozue, ala? Mee-kerietan ibiltekorik? Makiabel'ik? Nire osagilea galduko ete dot? Ez; orrek emoten daustaz edabe-medabeak. Nire abadea galduko ete dot? Nire abadea? Nire Uga yauna? Ez; orrek emoten daustaz niri Yaungoikoaren aginduak eta Yaungoikoak galazoak. Ekazu zure eskua, lurreko orrek; bai, olan!... -Ekazu zure eskua, zeruko orrek; olantxe.--Yakituraren irakasleok, bioi sartu dautzuet ziri ederra; okerreko lekuetara bidali zauedaz; adoretzu dira zuon biotzak, osorik dagoz zuon narruak, eta ondoren au burutzeko ardao egosia edan dagigun.--Tirra, baitu egizuez orreïn ezpatak; ...Erdi nire yarra, bake-gizon; guztioek erdu nire yarra.

AZAL.—Sinis egidazue, burutik eginda dago arroztun au... yarra, aitonen semeok, yarra.

SLENDER.—Ai ene! Ane Peitx ezti ori! (AZAL, SLENDER, PEITX, eta ARROZTUNAK alde).

KAI.—A! narruto! barre egin dok gure lepoto, ezto? Ja, ja!

EVANS.—Auxe bai ba-dala izatekoa! irri egin dauksu... adiskide izango al gara; eta bat egin daiguzan gure garaunak Zangogalartzu'neko arroztiun gure lagun legentsu ta maltzurari bereak eta erdi emoteko.

KAI.—Bai orixe, eta biotz-biotzez lagun izan-

go naiztu orretan; Ane Peitx bizi dan lekura eroango nindula agindu eustan ak: arraioa! niri be eztaust sartu ziri makala.

EVANS.—Tira ba, burua ausiko dautsat: yarra, arren.

II AGERLEKU.--WINDSOR'ko etxarte-bidea.

PEITX'en anderea ta ERROBIN aurrera.

PEITX'ena.—Eure bideari arrailio, maitaño; len iñoren yarraile izan az i, baña orain aurrendari izango az. Zer litzakik gogokoago, nire begien aurretik yoa, ala ire ugazabaren orpoak begiratu?

ERROBIN.—Gurago dot, benetan, gizon-antzeru zure aurretik yoa, aren atzetik gizon-txo-antzeru baño.

PEITX'ena.—Mutiko zurikeritsu augu i: dakustanez, yauregitar txarrik ez az izango i.

FORD aurrera.

FORD.—Ondo aurkitua, PEITX'en andera. Nora zoakuz?

PEITX'ena.—Egin-eginean be, yaun, zure emaztea ikusten. Etxean ete dago bera?

FORD.—Bai; eta iñozkorik eta asiñsuen, lagun-ik eztauelako; nire ustez, zuon senarrak ilik ba'litzaz, ezkondu egingo zintzakeze zuok.

PEITX'ena.—Bai orixe... beste senar banakin.

FORD.—Nondik zuzendu dozu aize-orratz lerdan au?

PEITX'ena.—Eztakit nik ze denganiñon izena dauen au nire senarrari emon euton gizonak: i, yauntxo, zer yakok izena ire zaldunari?

ERROBIN.—Yon Falstaff Sir.

FORD.—Yon Falstaff Sir.

PEITX'ena.—Axe, bai, bai; bein be ezin dot bururatu izen ori. Bai ba, aibesteko alde dago nire gizon onagandik agana... Etxean ete dago zure emaztea, gero?

FORD.—Bai, etxean dago egon be.

PEITX'ena.—Zure ederretsiaz, yaun... Eztot onik a ikusi arteño. (PEITX'enak eta ERROBIN'ek alde).

FORD.—Bururik ete dau Peitx'ek? Ete dau begirik? Ete dau ezetarik sentzurik? Segurutik, lotan dagoz aren sentzurik: eztabiltz beintzat. Izan be, suagatik boleak suagatik bere elburura dagon berreun eta berrogei millako bidea egingo leuean bestean errez eta arin egin-ezirik ezta mutiko orrek eskuetan leroaken idazkiak ogei millako bidea. Peitx bera da bere emaztea-

ren lera ta irrisen lagun; ak berak bulzau eta aurrera eragiten dautso bere emaztearen zorakeriari: eta orain ori, Falstaff'en mutikoa lagun dauela, nire emaztea ikusten doa. Nok ez igarteko, nok usainik ez artzeko or dabilenari?... Eta Falstaff'en mutikoa eurokin!... Sekulako ta iñondiko asmo ta marroak doguz emen!... gerturik dagoz; eta gure emazte asaldatuak, kateak urraturik eta eurak euretara, biak dira erkide ta lagun euren ondamentian. Ondo yagok; or goatuko yot auzoko auzetara kiratsa dariola datorren aker adar-andi ori, elorriok ikusiazoko dautsazaz nire emazteari, Peitx'en emazteari be erazuziko dautsat zorrea artuko lotsor-estalgia, eta Peitx bera be bere kiteliko Aktaiion seguruegizat aldarrikatuko dot (17); eta nire auzoko gutiak ontzat artuko dabez nire egipide gogorrok (Erloiak orduak yoten daragoio). Nire azterketak egitordu dala diragarst erloiak eta eldu bearko dautsat lanari, nire segurutasunak agintzen daustanez; emen didoret Falstaff: onako onegaitik irigarri baño goragarriago izango naz; eta izan be, lurra sendo dala baño seguruago da Falstaff emen dala. Ba-nao.

PEITX, AZAL, SLENDER, ARROZTUNA, UGA EVANS, KAI eta ERRUBI aurrera.

AZAL, PEITX eta besteak.—Ondo aurkitua, Ford yaun.

FORD.—Egia esateko, laguntza itzala: sekulako yolasa dot nik etxean; eta, arren, goazen guztiok ara.

AZAL.—Parkatu egidazu, Ford yaun, ni zuon lagun ez izatea.

SLENDER.—Bai niri be, yaun; Ane anderañoakin bazkaltzeko gara-ta, eneunke utsik egin gura nik zenbatu-ala dirugaitik be.

AZAL.—Ane Peitx eta nire iloba Slender'en arteko eskontzearen begira egonak gozuz, bai? eta gaur izango dogu aren erantzuna.

(17) 12'garren oarra irakurri, an esana aztu ba'yatzu.

SLENDER.—Ba-dot itzarorik zura ederra badodala, aita Peitx.

PEITX.—Ba-do zu izan be, Slender yaun; osoan nago ni zure alde... baña nire emaztea, osagile yaun, zure alde dago, ta a be oso-osoa.

KAI.—Bai, arrano arranotan; eta neskatok maite nau, nire otsein Bizkor'ek iragarri daustanez.

ARROZT.—Zer diñozu Fenton yaun gazteaz, zer erantzungo dautsazu ari? Ak yauzi ta gora-gorakak egiten daki, yantzari bikain yatzu, gazletasuna dario ari begietatik, olerkiak egiten dauz, itz egiten dakiana da, Yorrail-Orrilei darioen sunda gozoa dario ari; ak irabaziko dau, ak irabaziko deu; irabazita dau ak, irabazita dau.

PEITX.—Ez nire ederretsiz, ez orixe. Aitonen seme a ondasunbako da; Errege-seme txoriburuaren eta Poin's'en lagun da a; gorenian bizi da a, eta gelegi daki. Ez, ak eztau oratuko bere ondasunik nire ondasunen atzez; ak artu ba'dagi nire alabea, bera utsik artu dagiala; nire aberastasuna nire

ederretsia begira dago, eta nire ederretsia eztoa bide orretatik.

FORD.—Arren be arren, zuotariko batzuk bezotz nirera bazkaltzen: zuon pozaren ganera yolasik be izango dozue: bidutzietariko bat erakutsiko dautzuet.--Osagile yaun, zuk ez al daustazu utsik egingo; ezta zuk be, Peitx yaun; gitiagiago zuk, Uga yaun.

AZAL.—Ori ondo, onik eta ondo ibili: ...olan guk nasaiaago erakutsiko dogu gure maite-tasuna Peitx'enean. (AZAL eta SLENDER'ek alde).

KAI.—Oa etxera, Yon Errubi; laster nok ni be an (ERRUBI'k alde).

ARROZT.—Agur, ene biotzekook, ni nire zaldun zindo Falstaff'egana noa, akin Kanarietatiko ardaoa edateko. (ARROZTUNA'k alde).

FORD.—(Bere kitean) Akin upeletiko ardaoa ik baño len edango dodala uste yoat; yantzian eragingo yautsat nik ari. Ba-goaz, ala, aitonen semeok?

GUZTIAK.—Zeuk noz-gura, arako bidutzia ikusten. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--FORD'eneko gela.

FORD'en anderea ta PEITX'ena aurrera.

FORD'ena.—Eee! Yon! Eee! Erroberta!

PEITX'ena. Arin, arin: non da bogada-saraina?

FORD'ena.—Gertu dago: ...I, Errobin, non ago?

Otseinak aurrera, saranagaz.

PEITX'ena.—Erdi, erdi, erdi.

FORD'ena.—Agindu zure gizonai: arin ibili bear dogu.

FORD'ena.—Andera Miren-arren, lendik escanda dautzuedanez, Yon eta Erroberta, or aldameneko garardotegian egon zuok; eta nik dei egin-ala, urten, eta astirik galtzeka ta nagikeri barik, zuon sorbaldetaratu ta eroan saran au; ori egindakoan, txaka-txaka ta al danik eta bizkorren eroan ori Datchet'eko landan soñeko loiak zuritzeko dagozan oxinetara, eta an erreka lupeztzura ustz, Thames ibaiaren ertzetik ur.

PEITX'ena.—Egingo dozue, ala?

FORD'ena.—Bein baño geiagotan esan dautset; eztabe bear zertzelada geiagorik. Ospa, ta erdi deirik entzun dagizuenean. (Otseinak alde).

PEITX'ena.—Emen dator Errobin txo.

ERROBIN aurrera.

FORD'ena.—Ze barri, morroskotxo? Ze barri dakak?

ERROBIN.—Nire ugazaba, Yon Sir'a, etxe-osteko atetan dago, Ford'en andera, zure eske.

PEITX'ena. I, kokomarrotxo ori, zintzo izan ete aiaku?

ERROBIN.—Bai, zin egingo neunskizu baietz. Nire ugazabak eztaiki zuok emen zagozenik; eta betiko yareiko nauelaz zemaite nau zuoi olangorik aiatatu be egitekotan; eta izan be, zin egin dau ortik zear bidaliko nindukela.

PEITX'ena.—Mutiko on az i; ixilkizun au gordetea itzako yostun izango dok; eta yostun orrek yantzi ta ofietako barriak egingo dautkaz.--Ostondu egingo naz ni.

FORD'ena.—Bai, orixe egin.--(ERROBIN'eri) Oa ta bakarrik nagola esaiok ire ugazabari. Peitx'en andera, gogoan euki zuk nire itz-allea. (ERROBIN'ek alde).

PEITX'ena.—Nasai egon; nire egitekoa ondo egin ezpa'dagit, txistu egidazu. (PEITX' enak alde).

FORD'ena.—Eldu dagiogun, beraz, egitekoari; erabili dagigun aragi ustel au, sorki zilkin ur loiz ase au... --or erakutsiko dautsagu galeperrak eskilasoetatik berezten.

FALSTAFF aurrera.

FALST.—"Azkenean be emen zaudaz, zerutiko pitxi ori?". Izan be, il nadila orain, lu-

zarorik asko bizi izan naz-eta; lortu dodaz, iritxi dodaz nire amesik gozoenak: ordu onen zori ontsu ta onetsi!

FORD'ena.—Yon Sir ezti ori!

FALST.—Ford'en andera, nik ezin dot egin zurikeririk; ezin dot itz askorik egin, Ford'en andera. Nire lera ta iritsi zantar eta errudun eta obenerakoak iragarriko dautzudaz. Ilik al litz zure senarra; andikirik onenaren aurrean esateko be kezkarik ez eraberik ezto, nire emazte egin gura zinduke-dazala.

FORD'ena.—Yon Sir, zure andera ba'nintz, ene! ni bai ba-nintzakela andera errukari!

FALST.—Pantze'ko errege-yauregiak erakutsi dagistala zu lango beste bat; ba-dakut nik zure begia diamantearen leialkide litzakela; egin-egineko bepuru-makurra dozu zuk, zure adats-apainketea itxas-ontzi-erakoari, ontzi-oi-al-erakoari, naiz Binixa-erakoari beren-beregi datorkona da (18).

FORD'ena.—Buru-izaratxu lau-laua, Yon Sir: ori, buru-izaratxu lau-laua da, ta ez besterik, nire buruari, nire bepuruai dagokiena; eta axe be osta-osta ta ez ondoegi.

FALST.—Saltzallearena egiten dautsazu zuk zure buruari ori esanaz: yauregitarrak gellenarena egingo zeunke zuk; eta gona borobilaren barruan zure oin ondo yarriak itzalez egoki letorkoz zure soin eraginari, ibili dabilenean. Ba-dakit eta ba-dakut zu zer zintzakezan zoria arerio epa'litzakizu; izatea bera bai, a adiskide yatzu ta izan yatsu. Tira, ori ezin dozu ostondu.

FORD'ena.—Sinis egidazu, eztozu olangorik nigan.

FALST.—Zek bultzau nau ni zu maite izatera? Orrek etsi azo begitzu, orrek zuri buruan sartu, ba-dagola zugan oituz ganetiko zerbait. Tira, enozu ni zurikerietan ibiltekorik, yantzi az besterik euki ez, eta elorrietako zeruko katuak deretxoen mamarroen ibilkereaz ibili, ta bakun-aidian Buckler's-bury'ko lora-saltegiari darion usaina darioela, emakumeen antez datozen amaikatxo gizon lez; ez, nik ezin dot olangorik (19); baña maite zaudaz nik; eta irabazirik dozu zuk mailetasun au.

FORD'ena.—Ez egidazu adarrrik yo, yaun; bildur naz ni zuk Peitx'ena maite dozula.

FALST.—Bardin esan zengike okerreko atea yotea ta okerreko bidea artzea gogoko yatala be; eta ori, gogoko barik, karobi-babola bestean iguingarri yat.

FORD'ena.—Ori ondo, Yaungoikoak bakarrik daki nik zenbaterano maite zaudazan; eta zeuk be yakingo dozu nozbaiten.

FALST.—Asmo orretan yarra; zure maitea-sungarri izateko egin-alak egingo dodaz.

FORD'ena.—Bai, esan bear dautzut, egin be ba-dagizu ori, ostantxean nik ezin izan neinke onango asmorik.

ERROBIN.—(Barutik) Ford'en andera, Ford'en andera! emen atetan dago Peitx'en anderea, izerdi-bitsetan, arnas-estuka, begirakune larriz, eta bereala zukin itz egin gura dau.

FALST. Ez al nau ikusiko ak; oial dingilien ostean ostonduko naz.

FORD'ena. Orixe egizu, arren: emakume esames utsa da a. (FALSTAFF ostondu egiten da).

PEITX'ena ta ERROBIN aurrera.

Zer yazoten da? Ze barri dogu?

PEITX'ena.—Ford'en andera ori, zer egin dozu? Lotsaria datorizu, itzuli zara zu, zureak egin dau betiko.

FORD'ena.—Zer yazoten da, Peitx'en andera on?

PEITX'ena.—Egun onen zori txarreko, Ford'en andera! zuk dozuna lango gizon zindorik izan, eta ari onango susmo-biderik emonbearra!

FORD'ena. Ze susmo-biderik?

PEITX'ena.—Ze susmo-biderik! Lotsagarririk lotsagarriena da au! nik bai izan dodala zutzaz okerreko usterik!

FORD'ena.—Baña, onangorik! Zer yazoten da ba?

(18) Emaakumek euren buruetako ule edo adatsak askotara atondu ta apaindu izan dabez igaroko aldietan eta, asmauak asmau, etxatzuz geldituko barriagorik asmatzeka, naiz ta Solomon yakintsuak antxiña esan eguzkipean zer barririk, lenago yazo eztanik, ez ebalta idoro. Shakespeare'n aldiko emakume batzuk adatsari, orrazkeran, itxasontzi-antza-ta emoten eultsoezan.

(19) Beste edozer lez, lorea be zer askok osotu-arren, zeretatik bat da loreari bere usain edo sundea emoten dautsana, eta zer orreri esaten dautsoe edo esaten eultsoen lenagokoak bakun, beste zeretatik bakanduriko zera dalako, kimi-aldetik zer bakunik izan ez-arren, baña aldi atan kimia ume-oialetan egoan oraindik. Bakun dalako ori oriozko izaten da, ta aspaldi ikasi eben gizon buru-argiak lorai zer bakunok zelan atera ta eureka egindako usain gozok ondo karu saltzen. Bakunok aterateko lorak bear dozuz, eta lorak errezen lora-saltegian idoroko dozuz.

PEITX'ena.—Onako bidea dakar zure senarrak, emakume, Windsor'ko ertzain guztiekin batera, ak diñonez, emen etxe onetan, zure ederretsiz, dagon aitonen semeren bila, orrako gizon ori ona a landatik dala sartu dalako: zureak agin dau.

FORD'ena.—(Ixilpean PEITX'enari) Garratza-go itz egizu... --Ba, neuk dirautzut, ez tala olangorik.

PEITX'ena.—Arren egiozu Yaungoikoari ez dabila izan olangorik, eztozula emen olango gizonik; baña seguru baño seguruago da or datorrela zure senarra olangoren bila, Windsor'ik erdia bere orpoen atzetik darraikiola, Aurretik natortzu zuri esaten, atera, atera egizu emendik. Ez gelditu agoa zabalik, ikarearen ikaraz; dei egiezu zure sentzu ta oarmen guztiai; yagoizu zure omen ona, ostantxean zure bizitza onari beti-betirako agur egiozu.

FORD'ena.—Zer egiteko nik? Bai, nire adiskide aitonen semerik ba-dago emen; eta lotsearen baño aren gabidearen bildurrago naz; milla libera baño gurago neunke gizon ori etetik landa ba'litz.

PEITX'ena. Lotsea-arren, etzadiz egon "gurago neunke" ta "gurago neunke" ka; emen bertan dozu zure senarra, ganean dozu, eta asmau egizu gizon ori zelan edo alan emendik atera ta eroatea; etxean bertan ostonduterik eztago... --Ene! zuk bai iruzur egin daustazula!... Ara, emen dozu saran bat; gizon asarrerik ezpa'da, onaxe zirrist egin lei gizon orrek; eta gero oial loiak egotzi orren ganera, ikuzteko darenarena egin dagian; naiz, miesak eta oialak zuritzeko garaia da-ta, zure otseinetariko gizon biri Datchet'eko landara eroanazo.

FORD'ena.—Saran orretan sartzeko andiegi da a. Zer egingo dot?

FALSTAFF aurrera ostera be.

FALST.—Dakusadan, dakusadan! ikusten itxi egistazue, arren! artuko nau, bai, artuko nau; zure adiskidearen onuari yarra: ...saran-barrura noa.

PEITX'ena.—Ostera! Yon Falstaff Sira dogu au! Idazki au zure da, ala, zaldun?

FALST.—(PEITX'enari agopean) Zu maite zaudaz nik, eta zuez besterik iñor bez; lagun zakidaz emendik alde egiten; itxi egidazu saranera sartzen; iñoz be ezto... (Saranera sartzen da; oial eta sorki zikinez estaltzen dabe).

PEITX'ena.—I, txotxo, lagun akigu ire ugazaba estaltzen. Dei egin zure gizonai, Ford'en andera: ...Zaldun ziri-sartzale ori!

FORD'ena.—Eee! Yon! Erroberta! Yon! (ERROBIN'ek alde. Otseinak aurrera ostera be). Eragi oialok, arin; non da esku-lekueatik zear sartzeko agea? Igi zadize, epelok: eroan Datchet-landako miesa ta oial-ikuzleari; arin, gero?

FORD, PEITX, KAI, eta UGA EVANS Sira aurrera.

FORD.—Urreratu zakidaze, arren: sustarba-ko ba'dira nire susmoak, ba, orduan irri egidazue, zuon barregarri izan nadila; orren-besterik irabazi dot-eta... --Zer dozue or? Nora darozazue ori?

OTSEINAK.—Emakume ikuzlearenera; bai, araxe.

FORD'ena.—Zer dala-ta yakin gura dozu orrako zer ori nora daren? Bogada-arazoan be musturra sartu gura dozu, ala?

FORD.—Bogada-arloa? Bogadea egin-bearrrik ba-dot nik izan be! Bogadea, bogadea, bogadea? Bai, bogadea; bai orixe, bogadea; eta bogada lango bogadea egiteko naz; ikusiko dozu zelangog bogadea egingo dan. (Otseinak alde saranagaz). Aitonen semeok, ames egin dot bart; eralgiko dautzuet nire amesa. Eutsiez, eutsiez nire giltzak: igon goitegiko geletara, eta arakatu, aztertu, aztertu, idoro: baia emoten dautzuet baietz atera azeria zulotik... ate au itxi dagigun lenen... ondo dago, arakatu dagigun orain.

PEITX.—Ford yaun on, nasai zagoz; geiegi naibagetzen dozu zuk zure burua...

FORD.—Egia diñozu, Peitx yaun... --Gora, aitonen semeok; laster ikusiko dozue yolasa. Zarraikidaze, aitonen semeok. (Alde dagi).

EVANS.—Gizon orren gogaldia ta tukuak iñondiko ta neurriz goitiko dira.

KAI.—Yinkoa-arren, Pantze'n ezta oituten onangorik: Pantze'n ezta ezagun tukurik.

PEITX.—Bai, aitonen semeok, zarraikioze; ikusi zer sortzen dan arakatze orretatik.

(EVANS, PEITX eta KAI'k alde)

PEITX'ena.—Ez ete doguz emen zer bi, bata baño bestea bikainagoak?

FORD'ena.—Neuk be eztaikit zein yatan pozkarriago nire senarra, ala Yon Sira iruzur eginda ikustea.

PEITX'ena.—A bai egon izango da larri, nire senarrak saranean zer egoan itandu dauenean!

FORD'ena.—Ak berak be parkak aldatu ta ikuzi-bearrrik izango ez ete dauen bildur naz; uretara egozteak on egingo dautso ari.

PEITX'ena.—Ez egidazu aitatu be egin gizon zantar ori! Orretariko gizon guztiak aurkituko al dira zori txar berean.

FORD'ena.—Nire ustez, nire senarrak susmo berezien bat dau emen dala Falstaff; egunotan bestean tukuz beterik eguño eztoz ikusi-ta.

PEITX'ena.—Ori olan danentz ikusteko lukikeritxo bat asmauko dot: eta oraindik iruzurrik egingo dautsagu Falstaff'eri; emon yakon osakaiak nekez osatuko dau aren lizunkeria.

FORD'ena.—Bizkor anderea, a aragi ustela, bidaliko ete dogu Falstaff'egana, a uretara egotziaz gure buruak zuritzera ta, olan, ari itxaro barririk emon, eta beste zigorraldira-ko ostera be ziria sartu?

PEITX'ena.—Orixe egin be egingo dogu; datorrela biar goxeko zortziretan, okerrak zuzentzeko dalakotan.

FORD, PEITZ, KAI, eta UGA EVANS Sira aurrera ostera be.

FORD.—Ezin idoro dot a iñor: bear ba'da arrokeriz esan dau egingo dauela ezin dauena.

PEITX'ena.—Entzun dautsazu esan dauena?

FORD'ena.—Bai, bai, ixilik; --Ori da, Ford yaun, ni zure emaztea erabilteko era ta ganorea?

FORD.—Bai, olantxe zarabildaz.

FORD'ena.—Yaungoikoz, zure susmoak baño obe izango al zara!

FORD.—Olantxe, amen.

PEITX'ena.—Irain itzala egiten dautsazu zeure buruari, Ford yaun.

FORD.—Bai, bai; eta neuk yasan bear orra-ko orren ordea.

EVANS.—Iñor egotekotan geletan, kutxetan, eskapolotetan, Yaungoikoak parkatu dagiz-tazala nire obenak azken ebazaldian!

KAI.—Yinkoa-arren, nik be eztoz idoro iñor; or eztago iñor.

PEITX.—Ui, ui! Ford yaun! eztozu lotsarik, ala? Ze gogok, ze txerrenek zirikatzen zauz burutapen orretara? Zurea lango okerrik eneunke egin gurako Windsor Gazteluko ondasun guztiakaitik be.

FORD.—Neure da uts au, Peitx yaun; neu naz orregaitik yasaten dauena.

EVANS.—Yakinkidetza txarragaitik yasaten dozu zuk; zure emaztea bost milla ta bostun emakumeren artean be aurkitu leite-kenik zindoena bestean zindo yatu.

KAI.—Yinko-arren, emakume au on dala dakust, on eta zindo.

FORD.—Tira, ba; ...-bazkaria agindu dautzuet nik:... --goazen zugaztian ibiltaldi egiten: asketsi nagizue, arren; gero iragarriko dautzuet zegaitik egin dodan egin dodana.--Erdi, emazte; ...--erdi, Peitx'en andera; parkatu nagizue, arren; biotz-biotzez nagotzue eske, parkatu nagizue.

PEITX.—Goazen barrura, aitonen semeok; baña, sinis egidazue, iririk egin bear dautsagu orreri. Or dozue biar goxean nirean gosalteko deia; ori egindakoan, guztiok yoango gara txoriak goatzen; txararako aztore ezin ohea dot. Ederresten dozue nire asmoa, ala?

FORD.—Zeuk zer-gura.

EVANS.—Beste bat yatekotan, neu izango naiztu bigarrena laguntzan.

KAI.—Bat, naiz bi izatekotan, neu izango naz irugarrena (mokordo).

EVANS.—Euk yaik oori: lotsa apur bat etxagok txarto lagun artean be (20).

FORD.—Ba-zatoz, ala, Peitx yaun?

EVANS.—Ez aztu, gero? biar nire arrozlun zital zorritsuaz.

KAI.—Ori ondo; yinko-arren, biotz-biotzez egingo dot orrako ori.

EVANS.—Zital zorritsu; bai, zital zorritsu, bere irri ta barregarritzat artu gauz-eta. (Alde dagie).

(20) Kai'k ostera be egin dau bererik bere Ingelanderak mordolloaz. Oraingoan zangoa iztar-begiraño sartu dau lupetzan edo zer nazkagarriagotan; irugarrena esan gura izan dau (third), baña irugarrena (third) esan-bearrean gogora bulko txarra dakarren itza (turd), mokordo edo korotz esan dau bere gogoaz bestera, eta mokordo orren kiratsa laster eldu yako suretara Evans'eri.

IV AGERLEKU.--PEITX' eneko gela.

FENTON eta ANE PEITX aurrera.

FENTON.—Dakustanez, nik ezin dot lortu zure aitak ni maite izatea; orrazkero, gaurdanik ara enagizu eroan agana, Anetxu ezti orrek.

ANE.—Ai ene! zer egiteko orrazkero?

FENTON.—Zer egiteko? Zeuk egin egin bear dana, zeuk erakutsi zure leiea. Ak, bere esanez, eragozpidetzat iminten dauena ni yaiotzaz goregiko izatea da; eta nik nire diru-eralteakaz min artuta dodan nire burua aren ondasunez osatu gura dodala. Eragozpenoz ganera, beste oztopo batzuk be iminten daustaz ak nire bidean... nire lengo iskanbilla ta barrabaskeriak, nire laqun nasaiak; eta ak dirauz zu nire zeren bat zarealaktotan izan ezik nik ezin maite zinduke-dazala.

ANE.—Ba-leiteke ori egia izatea!

FENTON.—Ez: eta guzurrik ba'diñot, aurretzean eztakidala laqun izan Yaungoikoa! dauortanez, zu maite izatera lenen eta beinen bultzau ninduna zure aitaren aberastasuna izan-arren, Ane, zu maite izan-ala, urre- diruetako irudiak, naiz diruzorroetako diru-moitsoak baño geitasun geiago, nire biotza zure yarra narraz eroteke indar geiago idoro dot zeugan; eta zeu zerori zarean aberastasuna da orain ni bere atzetik narocna.

ANE.—Fenton yaun maitagarri ori, orraitño be ekiozu nire aitaren maitasun-billa: ekiozu oindiño be orrako orren billa, yaun: zure ekinaren ekinak eta eskerik apalenak lortu ezin ba'dabe, ba orduan... --Zatoz ona, ta entzuizu. (Eurak euretara itz dagie).

AZAL, SLENDER, eta BIZKOR anderea aurrera.

AZAL.—Ausi egizu orrein autua, Bizkor andera; nire sendeak berak itz egingo dau bere alde.

SLENDER.—Tximistea legetxe yausiko naiako ganera: zirti-zarta; azarriarena eginda, kuttunki batzuk esango dautsada.

AZAL.—Ez adi kikildu.

SLENDER.—Ez orixe; neskato orrek enau kikilduko. Eztot orren ardurarik; ...eta orraitño be bildur naz.

BIZKOR.—Entzun: Slender yaunak zukin itz bi edo iru egiteko gogo dau.

ANE.—Ba-noa... -(Bere kitean) Au dogu nire aitak autua. Ene! amaikatxo akats zanta-

rrek eder emoten dau, akastunak urtean irureun liberako etorria izanazkero!

BIZKOR.—Eta nolan dago Fenton yaun ona? (FENTON'ekin banazean) Arren, itz bat zuri.

AZAL.—Ba-yatok neskatoa; eldu akio, iloba. Oroitu egik, mutil, ik bai ba-eunkala aita lango aita!

SLENDER.—Ane anderaño, nik bai ba-nebala aita lango aita... --nire osabeak esan leiskizuz izkirimiri on batzuk aretzaz:...Arren, osaba, esaciozu Ane anderañoari arako izkirimiria, nolan nire aitak ostu ebazan antzar bi antzartegitik, osaba on.

AZAL.—Ane anderaño, maite zauz nire ilobeak.

SLENDER.—Bai, maite zaudaz; bai Glauceter-erkiko beste edozein emakume bestean.

AZAL.—Aitonen alabari dagokionez emongo dautzu orrek yaten eta edaten.

SLENDER.—Bai, olantxe egin be egingo dot, iskilleroatzallez berako danik onenak bestean.

AZAL.—Orrek, berori eztanerako, andik arako zure bizitza osorako, urteoroko eun eta berrogetamar liberako etorria itxiko dautzu.

ANE.—Azal yaun on ori, orrek berorrek egin dagiala maiteminduarena.

AZAL.—Andera Miren-arren, eskerrik asko zuk esanagaitik; eskerrik asko emon daustazun nasai-aldi on orregaitik.-Iloba, anderañoak ikin itz egin gogo yok; or izten zaudaz zeuok zeotara.

ANE.—Eta? Slender yaun.

SLENDER.—Eta? Ane anderaño on.

ANE.—Zer da zure azkenengo guraria?

SLENDER.—Nire guraria? Itau ori ezta bape nasagari; txantxa astunetariko yatzu ori! Yaungoikoari eskerrak, oraindik eztot egin azken-guraririk, il-buruko esaten dautsoenik; enozu orren gexoti edo gexobera, eta Yaungoikoa goretsia bedi orregaitik.

ANE.—Nik esan gura izan dautzudana zera da, Slender yaun, ia nigazko zer gura dozun.

SLENDER.—Egia esateko, nik neure aldetik zuzgako gitxi edo ezebe eneunke gura. Zure aita ta nire osabea dira zuzgako asmorik dabenak: arein asmoa lortu ba'dagit, ondo; ezpa' dagit, bardin yat. Eurak esango dautzue nik baño obeto zerak zelan dagozan. Zure aitari itandu egiozu; or dator bera.

PEITX eta PEITX'en anderea aurrera.

PEITX.—Kaxo, Slender yaun: ...Ane alaba, maite egizu au... Ori be ba-dogu ostera? Zer egiten dau emen Fenton yaunak? Irain egiten daustazu, yaun, oraindik be nire etxera etorriaz; lendik be esanik dautzut besterentzat dodala nire alabea.

FENTON.—Bai, Peitx yaun, baña etzakidaz asarratu.

PEITX'ena.—Fenton yaun on, ez etorri nire alabeagana.

PEITX.—Ori ezta zutzako.

FENTON.—Ez ete nozu entzungo, yaun?

PEITX.—Ez, Fenton yaun on. -Erdi, Azal yaun; erdu barrura, Slender ene seme; -nire asmoa ezagun yatzunazkero, irain dagidazu, Fenton, yaun.

(PEITX, AZAL, eta SLENDER'ek alde)

BIZKOR.—Peitx'en andereari itz egiozu.

FENTON.—Peitx'en andera on ori, nik zure alabea ain zuzenkiro maite dot-eta, nai ta nai ez aurrera eroan bear dot nire maite-tasunaren ikurrina, eta ez ezetara be atzera egin, oztopo, arbuizate, ta era-mera guztiai albora eraginda. Nire alde izango al dot zure biotz ona.

ANE.—Ene ama on, enagizu ezkondu or yoa dan ergel orrekin.

PEITX'ena.—Neuk be etxonat olango asmorik; itzako senar oberen billa naiabilna.

BIZKOR.—Nire ugazaba da orrako ori, osagile yauna.

ANE.—Ai ene! ori baño gurago neunke lur-

pean bizirik sartu, ta an arbi-buruka il naguela.

PEITX'ena.—Tira, Fenton yaun on, ez artu alperriko nekerik, ni enaz izango ez zure adiskiderik ez zure areriorik; neuk itanduko dautsat nire alabeari nolán maite zauzan, eta ortik zer urtengo, alan ebatziko dot; agur, yaun, ordurarteño:... -neskato orrek orain barrura yoa bear dau; asarre da onazkero orren aita. (PEITX'ena eta ANE'k alde).

FENTON.—Agur, andera maitagarri: agur, Anetxu.

BIZKOR.—Nik eginá yatzu au: ...bai, esanik dot nik, "ergelari, naiz osagileari emon zure alabea? Or dozu Fenton yauna"; au dan au egin dot nik.

FENTON.—Eskerrik asko; eta, arren, gaur arratsean emiozu nire Anetxu eztiari erestun au. Eutsi zure nekeen alderako. (Alde dagi).

BIZKOR.—Yaungoikoak zori ona bidaliko al dautzu! Biotz ona dau orrek orraitño: surlatik eta uretatik igaroko litzake edozein emakume olango biotz maitagarriakaitik. Baña orraitño be, gurago neunke nik nire ugazabak ba'leu Ane anderañoa; naiz Slender yaunak ba'leu; naiz, benetan gero? Fenton yaunak ba'leu: iruron alde egingo dot al dodana; eta izan be, orixe da nik agindu dodana, ta beteko dot nire itza, baña berariz Fenton yaunaren alde. Ondo dago, beste gezna bat eroan bear dautsat Yon Falstaff Sirari nire andera bien alde-tik. Ni bai ba-nazala astortzarra egiteko orretan naqi ibili nazalako. (Alde dagi).

V AGERLEKU.—Zangogalartzu-Arroztegiko gela.

FALSTAFF eta BARDOLPA aurrera.

FALST.—Bardolpa, geroo!

BARD.—Emen nozu, yaun.

FALST.—Ekak litro bat ardao, eta surltan erdi-erre-kiskalitako ogi-zatirik egotzi egik ardaotara. (BARD'k alde) Arakinaren esku-burdian aragi ustela ta satsak eroaten diran legetxe, ni saranean eroateko ta Thames ibaira yaurtiteko bizi izan ete nok? Olango marrorik niri beste bein egiteko-tan, nire garaunak niri kenduazo ta koi-petan erreazo egingo yoa, eta txakurrei emon urte-barri emaitzat. Umaldi bateko amabost txakurkume itsu uretara yaurtin eta itoten diranean baño bape erruki gei-ago barik erabili ta egotzi izan nabe ibaira zitalok; eta nire neurletatik igarri ziñeie ni neurez urperakor nazala; ibaiaren ondoa

su-lezea bestean sakon ba'lego be, ondo-ra niñoake ni. Itorik nintzan ni ibai-ertza baldadun eta azal izan expa'lit: olango eriotzeari iguin gorria dautsat, urak gizona anditzen dauelako; eta ni bai ba-nintzateke-la izatekoa anditu izan ba'nintz! menditza-rra lango bidutzi nintzatekean, ikusiko nin-dukien guztien bildurgarri.

BARDOLPA aurrera osterá be, ardaoagaz.

BARD.—Emen dozu Bizkor anderea, yaun, zu-kin itz egiteko.

FALST.—Tiruk, lenen Thames'ko uretara ar-daorik ixurtzen itxi egidak; izan be, nire urdallea kuntzurrunak otzitateko edur-bola-txoak iruntsi izan ba'neuz baño be otzago yagok. Barrura dei egio.

BARD.—Zatoz barrura, emakume.

BIZKOR anderea aurrera.

BIZK.—Zure baimenaz; erruki-eske nagotzu.

Egun on zuri, adeigarri orri.

FALST.—Kendu egizak emendik edalontziok, eta bonbil bete ardao bero gertau egidak.

BARD.—Arrautzakaz, ala, yaun?

FALST.—Bera utsik: nire edarian etxoat gura nik olla-zirinik. (BARD'k alde). Ze barri do-
gu?

BIZK.—Andera Miren-arren, yaun, Ford'en anderearen aldetik natortzu adeigarri orri.

FALST.—Ford'en andereagandik. "ford" (ubi-
de) rik asko izan dot nik lendik be: ubidera egotzi izan nabe: nire sabela ubiderik as-
kogaz dago beterik.

BIZK.—Egunaren zori txarreko! emakumearen
errukarri! errurik ezta izan ak: ba'zenki
zelango akarra egin izan dautsen bere
otseina! okerreko bidea artu eben aik.

FALST.—Neuk be okerreko bidea artu neban,
emakume ergelen aginduari sinistuz.

BIZK.—Ara, beratuta ta odola dariola gelditu-
ko litzake zure biotza aren zinkurinak en-
tzungo ba' zenduz. Txoritan doa aren sena-
rra goiz onetan; zu beste bein zortziretatik
bederatzietara-bitartean beragana yotea
gura dau ak; bertatik eroan bear dautsat
zure erantzuna: ordain onik emongo dau-
tzu, bai orixe.

FALST.—Ondo dago, yoango naiako. Ori esan
egiozu; eta esazioz gizona zer dan gogo-
ratu dagiala: burutan erabili dagiala gizo-
naren mengeltasuna eta, orrazkero, ebatzi
dagiala nire irabazia.

BIZK.—Bai, esango dautsat.

FALST.—Esan, bai. Bederatzietatik amarreta-
ra, esan dozu?

BIZK.—Zortziretatik bederatzietara, yaun.

FALST.—Ori ondo, zoaz; eztautsat utsik egin-
go.

BIZK.—Bakea lagun bekizu, yaun. (Alde dagi).

FALST.—Andia da Iturri yaunaren barririk
nik ez izatea; etxean egoteko geznea bida-
li daust: gogoko be gogoko yat aren dirua.
Ara! emen dator bera.

FORD aurrera.

FORD.—Yaungoikoak onetsi zagizala, yaun!

FALST.—Emen zauguz, Iturri yaun? Nire ta
Ford'en emaztearen artean zer yazo dan
yakiten zatoz zu, ezta?

FORD.—Egin-eginean orretarakoxe natortzu,
Yon Sir; ori da nire egikizuna.

FALST.—Iturri yaun, enoatzu guzurrik esa-
ten; arenean izan nintzan ak izentauko or-
duan.

FORD.—Eta nolán yoan yatzun, yaun?

FALST.—Txarto baño txartoago, Iturri yaun.
FORD.—Zer ba? Ak bere asmoa aldatu egin
eban, ala?

FALST.—Ez, Iturri yaun; baño aren senarra,
Iturri yaun, tukukeriaren tukukeriz iristen
eta igartzen dagon aren senar adarduna,
alangoa, tukukeriak beti gedar baten dau-
kona, eldu yakun gu alkarraganatu gintza-
zan une berean, zuk alkar besartean estutu,
alkarri mun egin eta alkarrerri maitetasuna
autortuazkerokoan eta, esaterako, gure an-
tzerkiaren sarrerea esandakoan; eta aren
atzetik, aren orpoetan, aren lagunezko sas-
tamara, aren gogaldi txarrak arako zi-
rikatu ta bultzaurik, eta egin-eginean aren
etxea arakatzeke aren emaztearen maiteke-
riak zirala-ta.

FORD.—Onangorik! Zeu an zengozala, ala?

FALST.—Bai, neu an nintzala.

FORD.—Eta zure billa ibilirik, ezin idoro izan
zinduezan, ala?

FALST.—Entzuidazu. Zori onez, Peitx'en ande-
rea dalako bat sartu zan; Ford ur zala-
koren barri emon eutsan; eta ak asmauta
ta, olan Ford'en emaztearen larrialdia na-
saiturik, bogada-saranera sartu ninduen.

FORD.—Bogada-saranera!

FALST.—Yaungoikoa-arren dirautzut, bogada-
saranera: estu-estu imini ninduen an, ato-
rra, gona, oin-zorro, mantar loi ta altzo-
zapi koipetsuakaz; Iturri yaun, an zan
eguiño surrik iguindu izan daben sunda-
rik naskagarrienen nasterik zitelen eta oka-
garriena.

FORD.—Eta luzaro egon ete zintzazan an?

FALST.—Bai, entzuita, Iturri yaun, nik yasan
izan dodana emakume a zure ederragaitik
bide geztora eroate-arren. Arako sara-
nean sakatu-sakaturik nengoala, soñeko loi-
rik bainintzan, Ford'en otseinetariko bik,
euren etzanderearen aginduz, Datchet'eko
estartara eroan ninduen; euren sorbalde-
tan artu ninduen; euren ugazaba tukutsua-
kin trikitx egin eben etxeko atetan; bein
edo birritan itandu eutsen ak saranean zer
eroen; bildur-ikareak artu nindun zital bu-
rutik eginiko ak sarana arakatuko ebala-
ren bildurrez; baño alan-bearrak, a adar-
dun izatea erabagirik eukita, eskuak lotu
eutsazan. Aor; ak aurrera ekin eutsan etxea
arakatzen, eta ni be aurrera eroan nin-
duen sorki ta soñeko loi nintzalakotan. Ba-
ña ondorenari oartu zazioz, Iturri yaun;
irutariko eriotzearen min zorrotzak eta ele-
rriok yasan nebazan; lenen, tukukeriz us-
teldutako aari arrandun ak idoroko nindu-
naren bildur yasan-ezina: urren, Bilbo'tiko

ezpata onaren kirtanak mokoari deusola legetxe, orañen borobiltxo baten barruan, nire orkatillak nire okotzari eutsola, estu-esturik eta makur-makurrrik egon-bear gorria; eta, gero, lurrunurtzeko zer gogorrik nintzalekotan-edo, soñeko loi andurtsu ta euren koipetan egosten egozanen artean estu-estu ta zirkinik egin-ezirik egon-bearra; iruditu egizu orrako ori, -ni lango gizona-, bai, iruditu egizu orrako ori: ni koipea baño izerperago izanik; beti zirina ta izerdia dariola dagon gizona; andia da zelan ito enintzan an. Eta izerditan izerdia bera nintzala, Nederlanda'ko yaki lez, koipetan erdi-errerrik nintzala, Thames ibaira egotzi ta an otzitu ninduen bero goritan nengoala, ango uretan, zaldi-oñetako burdiñezkorik bainintzan: bai, gogoratu egizu orrako ori, bero goritan egotzita, ur otzetan txistu egin neban; bai, iruditu ta gogoratu egizu ori, Iturri yaun.

FORD.—Bene-benetan, tamalik andiena dot nigaitik orrako guzti ori yasan bear izan dozulako. Orrazkero, etsietariko da nire eskabi-dea; barriro eztautsazu ekingo.

FALST.—Iturri yaun, emakume a olan itxi baño len Thames'era egotzi izan nabenez, Eta'ra egotzi nañela. Txoritan yoana da aren senarra goiz onetan; beste bein alkarrekin batzeko, agandik gezna barririk ar-

tua nozu; zortziretatik bederatzietara bitartean izango da batzaldia, Iturri yaun.

FORD.—Dagoneko dagoz zortzirak yota, yaun.

FALST.—Bai ete? Orrazkero, ba-noa izentauko lekura, Erdi ona astirik dozunean, eta yaltingo dozu zelan yoañ yatan; eta emakume ori zuk zure gozagarri izatea izango da ondorena. Agur Bai, irixiko dozu emakume ori, Iturri yaun; Iturri yaun, buru bete adarregaz itxiko dozu Ford; kukuarena egingo dautsazu. (Alde dagi).

FORD.—Um! ja! amesetan ete nago? Burukerien bat ete da au? Lotan ete nago? Atzarri adi, Ford yaun; atzarri adi, Ford yaun; zulaturik yagok ire yantzirik onena, Ford yaun. Onango ondorenak yakazak ezkondata egoteak! onango ondorenak soñekoak eta bogada-saranak eukiteak! Aor, or aldarrikatuko dot ni nor nazan: ezina da oraingoan orrek igesitea; ezin sartu leiteke txakurtxiki-ziskura, naiz piperrontzira; baña zuzendari dauen txerrena lagun ez-takion, iñori ezin bururatu lekikiozan lekuak be arakatuko dodaz. Ni nazana ez izatea ezina izan-arren, nik gura eneunkeana izateak enau epelduko; adarrrik ba'dot, niri burutik eragiteko, esakune au bete bedi nigan "Abere adardun ba'naz, adarkari izango naz".

IV EKITALDI

I AGERLEKU.—Etxartebide.

PEITX'en anderea, BIZKOR anderea, ta GILELMA.

PEITX'ena.—Onazkero a Ford yaunarenean dala uste dozu, ala?

BIZK.—Bai, onazkero an da a, seguru-segurutik; edo-ta gesu baten izango da an: baña, bene-benetan, asarre baño asarreago da uretara egotzi zenduelako. Zu ara len baño len yoatea gura dau Ford'en andereak.

PEITX'ena.—Bereala nozu an; bakar-bakarrik, nire mutikoa ekarri bear dot aurretik ona irakastegira. Begira, orra non datorren bere irakaslea; dakustanez, opor dogu gaur.

UGA EVANS Sira aurrera.

Nolan zagoz, Uga yaun? Gaur eztoqu irakasterik, ala?

EVANS.—Ez; yolas egiteko baimena emon dautse mutikoa Slender yaunak.

BIZK.—Ak bai ba-dauela biotz ona!

PEITX'ena.—Uga yaun, nire senarrak diñonez, nire semeak ez ei dau egiten aurrera-kadarik bere ikasteetan; arren, itaun batzuk egiozuz bere Latera-ikaskizunetan.

EVANS.—Ator ona, Gilelma; eragik buru ori; ator.

PEITX'ena.—Tiruk, txotxo: eragik buru ori; erantzuiok ire irakasleari; ez izan bildurrik.

EVANS.—Gilelma, zenbat zenbaki yagozak izenetan?

GILELMA.—Bi.

BIZK.—Benetan, zenbaki bat geiago zala uste neban nik, or biko ez diran izenak be aitatzen dabez-eta.

EVANS.—(BIZKOR'eri) Baztarreratu egizuz txakutkeriok.—Zer dok "eder", Gilelma?

GILEL.—"Pulcher".

BIZK.—"Poker!" bai, zer ederra izan be bera, iñoren aurrean egitekorik izan ez-eta.

EVANS.—Ergel utsa Zara zu, emakume; ixilik zagoz, arren! Zer dok "lapis" Gilelma?

GILEL.—"Arri".

EVANS.—Eta arria zer dok, Gilelma?

GILEL.—Ur-arria, erreka-arria.

EVANS.—Ez, lapis dok: sartuik buruan, sartuik buruan.

GILEL.—Lapis.

EVANS.—Ori ondo, Gilelma. Nondik ateraten dozak, Gilelma, zeinkiak?

GILEL.—Izen-ordekoak emoten dautzuez zorean zeinkiak, eta onetara austen dira: zerbakarrari dagokozanak, izenagazkoak, hic, haec, hoc.

EVANS.—Izenagazkoak hig, hag, hog... --arren, oar akit: sortzegazko hujus. Tira, ba, zer dok zuzenatarako ausi-erea?

GILEL.—Zuzenatarakoa, hinc.

EVANS.—Arren, bai, arren, biztu egik ire oroimen ori, mutiko. Zuzenatarakoa, hing, hang, hog dok.

BIZKOR.—Latera ori olan ba'da, oba dok nire seme orrek Latera ikasi baño ire lagunakin "kinkinka" yolas egin.

EVANS.—Baztatu egizuz zure txaldankeriak, emakume.--Zer dok dei ausi-erea, Gilelma?

GILEL.—Ori... -ori da dei-ausi-erea.

EVANS.—Gogoratu egik Gilelma, caret dok dei ausi-erea.

BIZK.—Bai, karetarako burdiari burtolak eta burtesia ezarri bear dautsazuz, ipuztari ona buztartu ta aterri izan.

EVANS.—Epe artu egizu, emakume.

PEITX'ena.—Ixilik.

EVANS.—Zein dok sortzegazko ausi-erea, zer bat baño geiago diranean, Gilelma.

GILEL.—Sortzegazko ausi-erea, ala?

EVANS.—Bai.

BILEL.—Sortzegazkoa... horum, harum, horum.

BIZK.—Sortze ori orren itsusia ba'dok, txerrenari emoiok. Uf! sortze ori, eta gaurdanik ara ez egik aitatu be egin, ene seme, orretan daragoioenak zirilda utsak ba'dozak.

EVANS.—Lotsea-arren, emakume.

BIZK.—Txarto egiten dozu umeari itzak irakatsiaz: ostikadak emoten eta zauritzen irakasten dautso orrek mutikoari, eta olangorik egiten mutikoak berak ikasiko dau lar be, iñok irakatsi barik: uf!

EVANS.—Burutik egin yatzu, ala, emakume? Ez ete dozu aituten zer diran izenagazko ausi-erak eta ar-emetasunak zenbatariko diran? Nik iruditu neinken kistarrrik ergele-na zauguz zu.

PEITX'ena.—Arren, ixilik zagoz.

EVANS.—Erakutsi egidazak, Gilelma, izen-ordekoen ausi-erak.

GILEL.—Egia esateko, aztu egin yataz.

EVANS.—Aiko, oneixek dozak, ki, kae, cod; aztu ba'dakikaz ire kiak, ire kaeak, eta ire codak, parkak erantzi ta atze-aldea berotuko yak. Oa orain eta yolas egik.

PEITX'ena.—Nik uste baño ikasla ohea yatzu umegorri ori.

EVANS.—Oroimen ona dau orrek. Agur, Peitx'en andera.

PEITX'ena.—Agur, Uga yaun on. (Alde dagi Uga yaunak) -Oa etxera, semetxo.-- Goazen, luzaroege egon izan gara. Alde dagine).

II AGERLEKU.--FORD'eneko gela.

FALSTAFF eta FORD'en anderea aurrera.

FALST.—Ford'en andera, zeatz ezebeztu dau zure naibageak nire nekea: eskuzabal zara zu zure maitetasunez, eta nik zeatz-zeatz ordainduko dautsut; ez maitetasun-arloan bakarrik, maitetasunari dagokozan beste zer guztietan be baño. Baña orain seguru ete zagoz zure senarraz?

FORD'ena.—Txoritan yoa da a, Yon Sir ezli.

PEIETX'ena.—(Barrutik) Eup! Ford'en emazte adiskide ori, eup!

FORD'ena.—Gelara, -zoaz, Yon Sir. (FALSTAFF'-ek alde).

PEITX'en anderea aurrera.

PEITX'ena.—Ze barri, maite? Zuek besterik nor dozu etxean?

FORD'ena.—Ba! etxekoez beste iñor bez.

PEITX'ena.—Ez ete?

FORD'ena.—Ez ba; gedartsuago egizu itz (Banazean dirautso).

PEITX'ena.—Benetan, pozik nago etxean etxekoez besterik eztzulako.

FORD'ena.—Zer ba?

PEITX'ena.—Egin-eginean be, emakume, zure senarra lengoxe gogaldi zoroak darabil barriri be: or orragoan daragoio txakurrenak esaten nire senarrakin; ain-asarre da gizon ezkondu gutzie; ain biraoti dabil Ebe'ren edozetariko alabez; eta ainbeste ukabilkada damotsoz bere bekokiari, gedarrez "urten, adarrok, urten" -eta, nik orain arte ezagutu izan dodan burutik egindakoen asarrerik asarreena otzantasun, baretasun, txerakortasun eta epe yatzu aren oraingo asarrearen aldean: pozik nozu zaldun lodi-koipe-tsua emen eztagolako.

FORD'ena.—Ostera! aretzaz be ba-daragoio nire senarrak, ala?

PEITX'ena.—Aez bestetaz ez; eta zinka ta biraoaka daragoio a lengo aldian berak etxea arakutzen eragoion artean saranean atera ebela: nire senarrari esaka daragoio, a emen dala orain; eta bere susmoa bidetzko danentz yakite-arren, a ta bere beste lagunak ekarri dauz: baña pozik be pozik nago zalduna emen eztalako; bere burueriaz besterik eztau ikusiko orain zure senarrak.

FORD'ena.—Ur ete dago a, Peitx'en andera?

PEITX'ena.—Ur-ur; etxartebidearen atzanean; bertatik dozu a emen.

FORD'ena.—Nireak egin dau!... --Emen dago zalduna.

PEITX'ena.—Ba, orrazkero, ganean dozu lotsariaren lotsaria, eta zaldunarenak egin dau; aren gorpuzak besterik ezta geldituko emen. Nolango emakumea zauguz zeu! Atera egizu a emendik, atera egizu a emendik; gizon-ilterik baño oba yatsu lotsaria bera be.

FORD'ena.—Baña ze bide artzeko ak? Nolan lag'n izango gu a urteteko? Saranean sartuko ete dot ostera be?

FALSTAFF aurrera ostera be.

FALST.—Ni enoa barriro saranera ezegaitik be. Ezin urten ete neinteke a ona eldu baño len?

PEITX'ena.—Ai ene! Ford yaunaren iru anai-dagoz atetan zai eta begira su-iskilo labur bana eskuetan dabela, iñor urten ezta din: ostantxean, zirríst egin zeinke a ona baño len. Baña zetan zagoz emen?

FALST.—Eta zer egiteko nik?... Ke-zuloa gora igongo naz.

FORD'ena.—Orra ustuten dabez beti aik txoritaren goatutako txoriak. Karobira sartu zaidiz.

FALST.—Non dago bera?

FORD'ena.—An be ibiliko da a billa, bai orixe. Ezin sartu leiteke eskapolotetan, kutxatan, soñeko-ontzitan, oxinetan, ezta goitegi-ko makopetan be; buruan dauz ak olango toki guztiak eta euretara egunoroko egitekoa egiteko lez artez doake-ta. Eztago zu etxe onetan ostonduterik.

FALST.—Orrazkero, atetara noa.

PEITX'ena.—Zure antza ta arpegia aldean dozuzala ba'zoaz, zureak egin dau, Yon Sir, atetara kokomarroturik ez urtetekotan.

FORD'ena.—Zelan kokomarrotuteko guk ori?

PEITX'ena.—Egunaren zori txarreko! nik eztaikit. Eztago emakumeren gonarik orrentza-

ko asko danik; ostantxean, buruan ganbela yantzi lei, idun-zapi bat, eta sorbalda-ganera zapi andi bat egotzi ta, olan igesi.

FALST.—Biotz onekook, asmau egidazue zerbait: edozer, okerrik egin baño len.

FORD'ena.—Nire otseinaren izekoak, Brentford'eko emakume gizenak dau goitrik oñe-tarañoko yantzi luzea or goian.

PEITX'ena.—Sinistu egidazu, axe etorri be etorriko yako ederto; emakume a gizon au bestean andi ba-da; or dago aren egai-txin-txirridun ganbela be, baita aren idunzapia be. Zoaz gora arin, Yon Sir.

FORD'ena.—Zoaz, zoaz, Yon Sir ezti ori. Peitx'en andereak eta nik, biok arteztuko dogu zapien bat zure bururako, izaratxu andi bat.

PEITX'ena.—Arin, arin; laster gara an zu yantzitoko: bien bitartean soin osoko gonea yantzi egizu. (FALSTAFF'ek alde).

FORD'ena.—Nire senarrak trikitx egingo al dau orrekin ori igesi doala: ak ezin dau ikusi be Brentford'eko atsoa; zin egiten dau ak sorgin dala atsoa, nire etzean sartzea galazo egin dautso, eta sartzekotan yo egingo dauela zamaitu dau.

PEITX'ena.—Zure senarraren txibita-pera zuzenduko al dau Yaungoikook ori; eta gero ixerrenak erakutsi dagiela bidea txibiteari!

FORD'ena.—Baña etorri ete dator gero nire senarra?

PEITX'ena.—Bai, ba-dator; eta arako saranaz be erago daragoio, danagandik yakin dauela saran-arazo ori.

FORD'ena.—Ikusi egin bear dogu ori be; neuk aginduko dautset nire otseinei barri-barri eroan dagiela sarana ak dakarren bidetz-bide, lengoan legetxe akin trikitx egin dagien.

PEITX'ena.—Bai, baña a bertatik dozu emen; goazen gora gizon ori Brentford'eko atsoaren antzera yazien.

FORD'ena.—Lenen, nik nire gizonai iragarriko dautset saranaz zer egin bear dabem. Zoaz zu gora, bertatik eroango dautzudaz goikoarentzako yantziak. (Alde dagi).

PEITX'ena.—Eskegi egizu, zital lizun ori! Guk egin giñeiozan irain guztiak gitxi dira orrentzako.

Guk egingo dogunaz guk ikasbidea itxiko.

Txitxari izan-orren, emazteak ba-leikezala zindo:

Txantxa ta barreetatik egiteetara ez guk yoko: Antxiñako baña egia da: "Txarriaientzako ondakiñak".

FORD'ena eurrera ostera be otsein bikin.

FORD'ena.—Eldu, artu sarana ostera be zuon sorbaldeetan: atetara eldu-aginik da zuon ugazaba: lurrera erasteke agindu ba'dagitzue, egin aren esana: arin, bereala. (Alde dagi).

I OTSEINA.—Tiruk, eldu, gora.

II OTSEINA.—Ez al dok zalduna barruan egongo beste bein.

I OTSEINA.—Etxoat uste; enaieunkek eroan gura ainbeste berun.

FORD, AZAL, KAI, PEITX, eta UGA EVANS
Sira aurrera.

FORD.—Bai, baña egia dala yazo ba'dadi, Peitx yaun, ostera be ergeltzat eukiko ete nozu?... lurrera --Eratsi egizue saran ori, zitlok: --Datorrela nire emaztea... --I, saranean agon gazte ori, urten akit orlik!... --Ara! lizunkeri-bitarteko zitlok! zuok korapiloa, sarea, lagun-taldea, itzulbidea egin dozue nire aurka. Lotsatuta geldituko da oingoan txerrena. Eee! emazte, geroo? Zatoz, zatoz ona atetara; begira zelango soñeko zindoak bidaltzen dozuzan garbi-ikuzira.

PEITX.—Onangorik! neurritz gorako da au! Ford yaun, zu eztagoz gaurdanik ara zeu zeutara ibilteko, askaturik ibilteko; lotu egin bearke zauguz zu.

EVANS.—Izan be, Ford yaun, eztago ondo au: ez eztago ondo.

FORD'en anderea aurrera.

FORD.—Orixe diñot neuk be, yaun.--Zatoz ona, Ford'en andera; Ford'en anderea, emakume zindoa, emazte lotsorra, izaki on-in-dartsua, bere senartzat ergel tukutsua dauena!... --Bidezko susmoa ete dot, andera?

FORD'ena.—Yaungoikoa bekit lekuko ta autorla bidebako susmoa dozu izan be, ni lizunkerietan nabilela uste ba'dazu.

FORD.—Ondo esanda, lotsabako orrek; bai, ekiozu ori esaten... --Urten adi orlik, zantar ori. (Soñekoak banan-banan saranelik ateraten daragoio).

PEITX.—Lar da au!

FORD'ena.—Eztozu lotsarik, ala? Geldi itxi egizuz oial eta miesok.

FORD.—Idoroko aut orraitño, ta arin idoro be.

EVANS.—Ezta bidezko ori! zure anderearen soñekoak be gora eragi, aztindu ta erakutsi bear ete dozuz? Itxixu bealeku ori.

FORD.—Ustu sarena, gero?

FORD'ena.—Ara, yaun, ara...

FORD.—Peitx yaun, ni gizon nazan bestean

egia da atzo eroan ebela urli bat nire etxetik saran onetantxe. Ez ete leiteke egon a emen ostera be? A nire etxean dala seguru nago ni: egiazko dira nik dodazan barriak: bidezko da nire tukua.--Atera egizuez eun-ki guztiok.

FORD'ena.—Gizonik idorotekotan zuk or, orra-ko orrek euliren eriotzea izango dau.

PEITX.—Eztago gizonik emen.

AZAL.—Nire zintzotasuna-arren, Ford yaun, au eztago ondo; erruduntzat zauz onek.

EVANS.—Ford yaun, arren egin bear dozu zuk, eta ez ibili zure burukerien yarrai; tukukeri yatzu au.

FORD.—Tira ba, eztago emen ni aren billa nabilena.

PEITX.—Ez, ezta beste iñon be zeure buruan izan-ezik.

FORD.—Lagun zakidaze etxea arakatzan beste bein bakarrik: billa nabilkona idoro ezpa'dagit, ez izan nire errukirik; zuon barregarri izan nadila betirako; nitzaz besae: "Bere emaztearen kutun-billa inxaur-mokola arakatu eban Ford bestean tukutsu da urli". Nire ederra egizue beste bein; arakatu beste bein nikin batera.

FORD'ena.—Eee! Peitx'en andera! zu ta atsoa zatoze ona bera; zuon gelara yoan gura dau nire senarrak.

FORD.—Atsoa! nongo atsorik dogu bertan?

FORD'ena.—Nongo atso? Nire otsein neskearen Brentford'eko izekoa.

FORD.—Sorgina, atso sorgin itsusi-guzurtia! ez ete dot nik galazota a gurean sartzea? Esa-mesakaz dator, ezta? Lauegi ta bakunegi gara gizonok; guk eztagu ze ondoren dakarren or etorkizuna igarten ibiliak. Lilura bideak darabiz orrek, sorginkeriak, aztukeriak, eta batek ba-daki zer geiago: beste munduko zerak guk eztagiguzanak... --Yatsi zadiz, sorgin ori, txarri ori; yatsi, gero?

FORD'ena.—Arren, ene senar on, ezti ori; --aitonen seme onok, ez egiozue itxi atsoa yoten.

FALSTAFF aurrera, emakume yantzita, ta bide PEITX'enak erakusten dautsola.

PEITX'ena.—Tira, Ama Itzontzi, tira; ekazu esku.

FORD.—Itzontzi? Satsontzi be ba-da ori... --Alde nire etxetik, sorgin orrek (Yo egiten dau, arpegia beteko zaplateko zaratatsu batzuk emonda), sorli ori, sastamar ori, ogigaztae ori, alde! alde! neuk aratuko zaudaz, neuk igarriko dautzut etorkizuna! (FALSTAFF'ek alde).

PEITX'ena.—Eztozu lotsarik, ala? Il egin dozu zuk, urrean, emakume errukarria.

FORD'ena.—Bai, orixe egingo dau orrek.—Entzute ederra irabaziko dozu.

FORD.—Eskegi ori, sorgin atsitu ori!

EVANS.—Izan be, sorgin dala emakume ori uste dot neuk be: emakume bizartsurik etxat begiko; buru-estalgipean bizar andia dakusatot.

FORD.—Ba-zatoze, ala, aitonen semeok? Yarraizakidaze, arren; ikusi nire tukuen ondorena: guzurrezko oñatzen yarra imini ba'zagiedaz, ez sinistu niri aurrerantzean.

PEITX.—Men dagiogun orren gogaldiari aurreaxeago. Goazen, aitonen semeak.

(PEITX, FORD, AZAL, eta EVANS'ek alde)

PEITX'ena. Sinis egidazu, erruki barik yo izan dau.

FORD'ena.—Bai, izan be, ondo erruki-barik yo dau, bere eskuai be eztautse izan errukirik.

PEITX'ena.—Onetsizat eukiko dot orrek erabili dauen txibitea ta yauretzean opamai-

ganean eskegiko dot; sekulako otseintza goragarria egin dau orrek.

FORD'ena.—Zer uste dozu? Gure emakumetasunak eta gure yakinkidetzat garbiak itxiko ete daukue lotsabako orri apen gogorragorik ezarten?

PEITX'ena.—Onazkero lizunkeri-gogoak alde egin dau agandik; txerrenak osoan bere turik ez eukitekotan a, aurrerantzean etxaku etorriko zirika, urrean.

FORD'ena.—Esango ete dautsegu gure senarrak zer egin izan dautsagun?

PEITX'ena.—Bai, edozelan be esan bear dautsegu, zure senarraren burutik bere burukeriak kentzeko baño ezpa'da be. Biotzik ba'dabe aik zaldun lodi on-indarbako errukarriari zigorrik geiago ezarteko, gu biok gertu gagoz, orretarako euren lagun izateko.

FORD'ena.—Sinis egidazu, aik a agirian bete gurako dabe lotsariz: eta, nire ustez, a agirian, guzieren aurrean lotsatu bear da.

PEITX'ena.—Ba, orrazkero, asmau dagigun asmau bear dana: aragi ta azurtu dagigun asmao: otzean-barik beroan egin bear doguz zerak (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Zanzogalartu-Äroztegiko gela.

ARROZTUNA ta BARDOLPA aurrera.

BARDOL.—Yaun, Alemani'tarrak zure zaldietarik iru gura dabez; dukea bera izango da biar errege-yauregian, eta akin batzera doaz aik.

ARROZT.—Ze duke ete dok orren ixilik datorrena? Aren barririk etxoat entzun errege yauregian. Neuk itz egingo yoat aitonen semeokin; Ingelanderaz egiten ba-yakiek-eta.

BARDOL.—Bai, yaun, ba-dakie; zueganako dei egingo dautset.

ARROZT.—Emongo yautesdaz nire zaldiak; baño ordainduazoko yauteset; lotsabako izan bear naiakek; aste betean izan yozak nire zaldiak euren naierarako; eurekaitik beste arrotz batzui lekuri ezin emon izan yauteset nire arroztegia; andikiro artu bear izan yoadaz; ondo ordainduazoko yauteset orain. Ätor. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.—FORD'eneko gela.

PEITX, FORD, PEITX'en anderea, FORD'ien anderea, ta UGA EVANS Sira aurrera.

EVANS.—Emekumek asmauetarikorik onena izan yatzu au; oberik eztoi ezagutu nire bizian.

PEITX.—Eta bioi batera bidali eutzuezan idazkiok?

PEITX'ena.—Ordu-lauren baten barruan.

FORD.—Äzketsi, parkatu nagizu, emazte. Zeuk zer-gura egizu gaurdanik ara; lenago izango dot eguzkia otzenak artu dauelaren susmorik, zu lizunkeritan ibili izan zaralarenik baño: orain bai ba-dagola sinistea bestean sendo zure omena, oindo oraintsu sinisteausle zanarengan.

PEITX.—Ori ondo, ori ondo; bego. Ez egik erabili geiegikeririk ire burua makurtzean, irainean erabili dokan bestean; baño boa aurrera gure asmao; guk agirian yolas egiteko, gure emazteak beste bein izentau dagioela urli zar gizen ari alkarrekin batzaraldia ta lekua, guk a goatu al izango dogun lekua, a goatu ta egin dauenagaitik lotsa-lotsaturik itxi dagigun.

FORD.—Orretarako, emakumek eurak dabena baño bide oberik eztozu.

PEITX.—Bai, zera! uri-zugaztian gaberdiz akin batuko dirala ari iragartea? Ut, ut! inoz be ezta etorriko a.

EVANS.—Ibaietara egotzi izan dabela a di-

ñozu zuk; eta atso zar dalakotan zaplateko ederrak arturik irainduta yoan da: nire ustez, ak bildurrak ilik egon bear leuke atzera ez etorleko: nire ustez aren aragiak zigorrik asko izan dau, atzera etorri gura izateko.

PEITX.—Neuk be orixe uste dot.

FORD.—Zuok ez egizue asmau besterik, a datorrenean a zelan artuko baño. Eta gure eskuetan itxi egizue a ona zelan ekarri asmatzea.

PEITX'ena.—Ipuin bat dabil or, antxiñatik ipuina bera, Erne eiztaria, beñola emen Windsor'en basazain zana, negute osoan, gaberdi ixilez, areitz baten inguruan ibiltzen ei da bere adartzar latzakaz; zugatzak itzuli ta igartu egiten ei dauz, abelgorriak artu ta eroan, eta esna-beia esne-ordez odola emonazoten ei dautse, eta kateri eragiten ei dautso bildurgarrikiro. Entzunik dozue zuok onako agerkizun onen barririk; eta lenagoko gizon eta emakume asititsuak eurak artu ta gure aldikoiak belau-nik belau-n egitzat itxi eutsela Erne eiztariaren ipuin au.

PEITX.—Izan be, asko dira oraindik be gau beranduz Erne'ren areitz-inguruan ibilteko bildur diranak: baña zer ortik?

FORD'ena.—Andera Miren-arren, au da gure asmoa: Falstaff'ek gukin bat egin dagiala arako areitz-ondoan, kokomaroturik, Erne'renen antzeko adartzarrak buruan dauzala.

PEITX.—Ori ondo, ez izan ezpairik a etorriko dala ta olangoxe antzez etorri be. Zuok a ara ekarri edo eratorri dagizuenean, zer egiteko ari? Zer asmau dozue zuok?

PEITX'ena.—Ori be asmau dogu, ta onetara asmau be: Ane Peitx nire alabea, nire semetxo, eta txiki-andiz eurak langotsu diran beste iru-lau mutiko yantziko doguz, orlegiz eta zuriz, malo, iratxo, maitagarri ta Anboto'ko Anderearen antzera, euren buretan argizagizko argiak eta euren eskuetan kalaka bana dabela; Falstaff eta gu biok alkarreganatu gadizanean, bat-batean eta arrapaladan urtengo dira aik serrarien serrauts-zuloetatik inñondiko abesti latzen baten durundua eginaz; aik ikusi-ala guk, arrituarena eginik, igesi egingo dogu: orrazker, aik inguratu dagiela guztien artean Falstaff eta, maitagarri ta iratxoak egin daroenez, atximurka ta kiñeta erabili dagiela zaldun zantar-lizun a; eta itandu dagioela zegaitik eta zelan azarri dan alango era

zakarrez arein yolas eta yaletako aldi gurenez euren bide guren eta lotsagarriak zapaltzen.

FORD'ene.—Eta ak egia autortu arte, maitagarri ta iratxo diralakook atximurka ta kiñeta askatu dagiela, ta euren argizai-argiz erre.

PEITX'ena.—Bein egia entzunazker, gu guztiok elduko gaiakoz, adarrak kenduko dautsaguz, eta Windsor'era ekarri, ekarri-ala bi-dean irri ta isekaz ganaz eraginik.

FORD.—Mutikoi euren egikizuna aurretik ondo irakatsi bear yake, aik olangorik egitekotan.

EVANS.—Neuk irakatsiko dautset umeci euren egikizuna; eta neuk be orretariko iratxoena egingo dot, zalduna nire argizai-argiz erretzeko.

FORD.—Asmo lango asmoa dogu ori. Neuk erosiko dodaz arpegi-estalgiaik, euren betzulo ta guzti.

PEITX'ena.—Nire Anetxu izango da maitagarri ta iratxo guztien erregeno, yantzi zuriz bikain eta orratzetik ara apaindurik.

PEITX.—Neu yoango naz orretarako sedea erosten; (Bere kitean) eta arako aldan ostuko dau Slender yaunak nire Anetxu, ta akin ezkondu Eton'en... --Goazen, bertatik bidali norbait Falstaff'egana.

FORD.—Bai, neu yoango naz agana beste bein, Iturri yauna nazalakotan. Bere asmo guztiak eralgiko daustaz ak, zeatz-zeatz. Ez izan ezpairik, etorriko da a.

PEITX'ena.— Ez, ez izan etorriko eztanaren bildurrik. Goazen, billatu gure iratxo ta maitagarrientzako bear doguzan marro ta ganetikook.

EVANS.—Bai, eldu dagiogun egikizun eta arlo orreri. Yostaketa lango yostaketea izango dogu, ta bai iñoren kaltebako okerria be. (PEITX, FORD, eta EVANS'ek alde).

PEITX'ena.—Zoaz, Ford'en andera, bidali egizu norbait Yon Falstaff Sirari, ak ze gogo dauen yakiteko. (FORD'enak alde).

Osagileagana yoango naz ni; aren alde, ta aren alde bakarrik dago nire gogo a Anetxu Peitx'ekin ezkontzeko. Orrako Slender ori, lurrik askoren yabe izan-arren, ergel utsa da; eta orraitio a da nire senararen kutunena: osagileak berak be ba-dau dirutza ederrik, eta aren adiskideak altsu dira errege-yauregian; ak, eta ak bakarrik izango dau nire alabea, naiz ta ogei mila aintzakoango etorri nire alabearen billa ta eske. (Alde dagi).

V AGERLEKU.--Zangogalartzu-Arroztegiko gela.

ARROZTUNA ta KOKOLO aurrera.

ARROZT.—Zer gura dok, traktets orrek? Zer, narru-lodi? Itz egik; arnasea artu egik; zerbait ez erago egik; labur, arin, bizkor, zirri-zarta.

KOK.—Andera Miren-arren, yaun, Slender yaunaren aldetik nator ni Yon Falstaff Sirakin itz egiteko.

ARROZT.—Aiko or aren gelea, aren etxea, aren gaztelua, aren txirrinkabako oea, ta txirrinkaduna (21); Seme Ondatzalearen ipuina ikusiko dok ormetan margoztu-barri Oa, atea yoaz dei egiok; Gizaki-yale bailitzok erantzungo dauska orrek. Yo atea, gero?

KOK.—Atso bat, emakume lodikote bat sartu da aren gelara; a urten eta andik yatsi arte etxon egingo dot; izan be, atsoarekin itz egiteko nator ni.

ARROZT.—Ja, ja! atso gizona! ba-leiteke zaldunari lapurretan egitea; neuk dei egingo dautsat... —Zaldun ollar! Yon Sir ollar! ire gudari-birien indar osoaz erantzun egidak. Or ete ago? Ire arroz-tuna, ire Espo' tarra dok iri deiez dagona.

FALST.—(Goitegitik) Ze barri da, ene arroz-tun?

ARROZT.—Boemi-Tartari'tar bat dok emen, emakume gizona noz yatsiko begira dagona. Yatsi dadila ori, ollar, yatsi dadila ori; lotsagarri dozak nire gelak. Ut, ut! bakarrean? Onangorik!

FALSTAFF aurrera.

FALST.—Oraindik ointxe-ointxe dala egon da nikin emakume lodi bat; baña yoana da. KOK.—Arren, yaun, ez ete da izan a Brentford'eko emakume aztua?

FALST.—Bai, arranotan, bera izan be izan dok, igar, giarra uts-ontzia. Zer gurok akin?

KOK.—Nire ugazabak, yaun, nire ugazaba Slender'ek bidali nau agana, etxartebideak zear yoan yoiala ikusirik, Nim dalako batek, yaun, katea ostu dautsala-ta, kale ori ak dauenentz yakitiko, emekume orregana bidali nau.

FALST.—Arazo orretzak arako emakumeekin itz egina nok egin-eginean.

KOK.—Eta zer diño ak, arren, yaun?

FALST.—Arrano arranoa! emakume ak yinok Slender yaunari katea ostu dautsan gizon berberak egin dautsala lapurretan.

KOK.—Emakumeekin berakin itz egiteko go-go izan dot nik; nire ugazabaren aldetik ari beste itaun batzuk be egiteko nintzan.

FALST.—Zeintzuk dozak? Iragarri egiskuzak

ARROST.—Bai, tiruk; arin.

KOK.—Ezin iragarri daikedaz, yaun.

FALST.—Iragarri egiskuzak, ostantxean ilgo az.

KOK.—Ba, yaun, itaunok Ane Peitz anderañoari dagokozanak baño ez dira; zoriz, naiz alanbearrez neskato a nire ugazabarentzako izango danentz yakitea.

FALST.—Zori ona izango dauela esaiok.

KOK.—Zer esan dozu, yaun?

FALST.—Iritxiko dauela neskatoa... edo-ta eztauela iritxiko. Oa; emakumeak olandte esan daustala esaiok.

KOK.—Ori esateraño azartuko ete naz, yaun?

FALST.—Bai, Kokolo, ori esaterano azarri eindede. Nor i baño azarriagorik?

KOK.—Eskerrik asko zuri, adeigarri orri: pozik artuko dauz barriok nire ugazabak. (KOKOLO'k alde).

ARROZT.—Trebe zara, trebe zara, Yon Sir. Emakume azturik izan da zukin, ala?

FALST.—Bai, egon da, ene arroz-tun; nire bizian eguño inok irakatsi daustan baño geaigo irakatsi izan daustana; eta orregaitik ezebe eztautsat ordaindu, niri, ostera, ordaindu dauste nire yakituriagaitik.

BARDOLPA aurrera.

BARD.—Lapurretea, yaun, lapurreta utsa!

ARROZT.—Non dozak nire zaldiak? Barri onik emoidak euretaz, otsein.

BARD.—Igesi egin dabe aik lapurrekin batera; izan be, Eton baño aragora ni elduaz bat euretariok baten atzetik lupetzara egotzi izan nabe; eta zaldia aztalak yosita, igesi egin dabe, iru Alemani'tar txerrenen antzean, iru Doctor Faustus (22).

ARROZT.—Dukearen billa yoan dozak aik, zital; ez egik esan igesi egin dabela; gizon zindo dozak Alemani'tarrak.

UGA EVANS Sira aurrera.

EVANS.—Nondik da nire arroz-tuna?

(21) Shakespeare'n aldian arroztegietako oek bikotzak izaten ziran. Ugazabaren oe nagusi txirrinkabakoaren azpian txirrinkadun beste oe bat sartzen zan, eta azpiko oe orretan egiten eban lo nagusikoaren otseinak.

(22) "Doctor Faustus" izeneko antzerkia Marlowe Ingelandar olerkari ta antzerki-idazleak idatzi eban, egin-eginean be Shakespeare'n aldian.

ARROZT.—Zer yazoten da, yaun?

EVANS.—Zure arroztegia nortzuk artzen dozuan ardura geiago artu egizu; uri onetara etorri dan nire adiskidek esan daust iru Alemani'tar ziri-sartzalek Reading, Maidenhead eta Colebrook'eko arroztegi guztietako zaldiak eta diruak ostu dabezala. Zeurre onerako dirautzut, bekizu: gizon zur eta txantxa ta izkirimiritsu zara zu; eta ezta egoki, ta langori lapurretan egitea: onik eta ondo ibili. (Alde dagi).

KAI osagilea aurrera.

KAI.—Nondik da nire Zangogalertzuz-Arroztegi-ko Arroztuna?

ARROZT.—Emen, osagile yaun, zer egin ezta kidala ta zetara yo yakin-ezinik.

KAI.—Nik eztaikit zera zelan dan, baña niri esan daustenez, gertakunza andiak egiten daragoiozu zuk Alemani'ko dukeren bat artzeko: nik dakidanez, errege-yauregian iñok be eztaiki olango dukerik etorteko danik; gogo onez dirautzut au; agur.

ARROZT.—Oa, zital ori, eta asalda ta yarraketa-gedar egik ortik zear:... -lagun zakidaz zu be, zaldun; nireak egin dau: -egaz egik, arin egik, yarraiketara ots egik, gedar egik oioka, zital orrek! Nireak egin dau! (ARROZTUNAK eta BARDOLPA'k alde).

FALST.—Mundu guztiari ziria sartuko al dautsoe! eta izan be, niri sartu dauste, ta bai narrua berotu be. Yauregikoen entzutera eldu ba'ledi ni nolán antzaldatu nazan, eta nolán nire antzaldakuntzea ikusi ta txibiteaz aztindu izan daben, nire koipeok urtu egingo leuskidez aik tantanka, ta arrantza-leen oskiak koipatuko leukiez nire koipeokaz; eztoz ezpairik, ez ezetariko zalantzarik, aik ni zipladaka ta irrika erabilita ma-

dari zimela baño gangar-yausiago itxiko nindukiela. Eztoz egin obarantzakorik bein kartetan marro egin nebanazkero. Tira ba, arnaseak iraungo ba'leust nik otoiitzak egin arte, damutu egingo nintzake...

BIZKOR anderea aurrera.

Kaxo! nondik zatorkuz?

BIZKOR.—Alde bietatik natortzu, benetan.

FALST.—Txerrenak beroa alde bata, ta aren emazteak bestea ta, olan, bien guraria egingo dot! Eurak dirala-ta, gizonaren gogaldi aldakor zitalek yasan leien baño geiago yasan izan dot.

BIZK.—Eta aik eurak eztabe ezer yasan, ala? Bai, bai orixe; alan be euretariako bata; Ford'en anderea, biotz on utsezkoa, yoka baltzitu ta ubelduta itxi izan dabe, ta aren soñean ezta agiri zuri-une bat bera be.

FALST.—Zer dala-ta aitatzen daustazu baltzik eta ubelik? Ni neu be ostadarraren margo guztiak aldean dodazala itxi izan nabe yoka; eta Brentford'eko sorgina nintzalakotan goatu-aginik gelditu nintzan; baña nire asmamenaren trebetasun arrigarriak, nik atsoarena egin izanak yare izan eza'nindu, ertzain zitalak zildaietan imini izango nindun, guztientzako zildaietan, sorgintzat.

BIZK.—Yaun, zure gelan zuri itz egiten itxi egidazu, arren; an entzungo dozu zerak zetan dagozan eta zelan doazan; eta eztoz ezpairik nasai eta pozik geldituko zareala. Emen dozu zerbait iragarriko dautzun idazkirik. Biotz erurakarri-onok, ainbeste neke alkarrekin batzeko! Zuatoriko batac edo besteak ezta egiten Yaungoikoaren ederra, olango oztopo ta nekerik izateko.

FALST.—Zatoz gora, nire gelara. (Alde dagi).

VI AGERLEKU.--Zangogalertzuz-Arrozteiko beste gela.

FENTON eta ARROZTUNA aurrera.

ARROZT.—Fenton yaun, ez egidazu itzik egin; itzalez goibel nagotzu, bertan-bera itxiko dot dana.

FENTON.—Orraitino be entzun nagizu. Lagun zakidaz nire asmoan, eta aitonen seme nazan bestean seguru emongo dautzudaz eun libera urre gorritan, zuk galdu dozunaz ganera.

ARROZT.—Entzungo zaudaz, Fenton yaun; eta gitzienez be zure ixilkizuna gordeko dot.

FENTON.—Bein edo bein iragarri izan dau-

tzut Ane Peitx lirainari dautsadan maite-tasun andia; ak berak be bere aldetik erantzun izan dautso nire leleari al izan dauen bestean, nire pozerako: ba-dot agandiko idazkirik, eta zuk ezta kizu zelangoz zer arrigarriak dakazan; eta ak dakarren barrigarrikeria nire arazoz bat-bat eginik dator-eta, bata bestea barik ezin iragarri ta erakutsi daiteke; -Falstaff yaunak dau egikizun andia zer orretan; irriaren irudi edo azalpena erakutsiko dautzut emen (Idazkia erakusten dautso). Entzun, ene arroztun on; arratseon, Erne'n areizpean, egin-eginean

be amabietatik ordu batetara, iratko ta maigarrien erregenoarena egin bear dau nire biotzeko Anetxu'k: zetarako dan emen dozu;... eta olan kokomarroturik, beste yolasak oraindik irau dirauela, Slender'ekin igesi dagiala agindu dautso ari aren aitak, eta akin bertatik ezkondu dadila Eton'en: aitaren esanera yarri da alabea; orain, yaun, neskatoren amak, ezkontza orren aurka beti egon izan danak, eta Kai osagilearen aldeko sendo izan danak, ak be bere alabeari oraindik yostaketeak irau dirauela andik alde egin, aurrezitik esanda ta gertu dagon abadeagana yoan eta bertatik osagileekin ezkontzeko agindu dautso: bere amaren asmo oneri be, dirudienez, men eginik, neskeak agindu dautso osagileari:... --zerak onan dagoz bein-beinean; aitaren asmoz, neskeak zuri utsez yantzirik agertu bear dau eta olango yantzi az yoango da Slender'ek bere garaia eldu dala ikusi ta eskutik elduta berakin yoateko esan dagionean; neskearen amaren asmoa da, osagilearentzat neskatoa ezaugarriago egiteko, --eta izan be, guztiak ibili bear dabe kokomarroturik eta arpegiak estalirik--.

bere alabea orrlegiz yaztea, yantziak nasa dauzala, ta burutik bera dingilizka eroango dauzan galartzuak argi-izla zoragarriak yaurtiten dabezala; eta osagileak bere tertzioa eldu dala ikusi dagianean, atximur egingo dautso eskuan, eta ori izango yako neskeari, aurrezitik alkarrekin itundu diranez, osagilearen yarrai yoateko ezaugarria.

ARROZT.—Eta bietatik zeineri iruzur egin gura dautso neskatok? Aitari, ala amari?

FENTON.—Biai, ene arrotzun on, nikin yoateko: aor gauzea argi ta garbi esanda, zu yauretxera yoan eta anga abadeari esan dagiozun gertu egon dadila, amabietatik ordu batetara, ak gu legez ezkondu ta alkarrekin bat eginiko gure biotzi Yaungoikoaren onspena emon dagitsen.

ARROZT.—Ori ondo; aurrera eroan zure asmo ori; yoango naz abadeagana; neskatoa ekarrizu, bai? eta abadeak eztautzu utsik egingo.

FENTON.—Betiko loturik geldituko naiztazu olan; orrez ganera, bertatiko saririk be emongo dautzut. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.--Zangogalartzu-Arroztegiko gela.

FALSTAFF eta BIZKOR anderea aurrera.

FALST.—Itzik asko da, arren:... zoaz... Yoango naz. Irugarrenezko aldia da au; zenbaki ez-bikotxai darraie zori ona, nire utsez. Alde, zoaz; or diñoenez, yaungoikotasuna dozu zenbaki ez-bikotxetan, yaiotzean, naiz alan-bearrean, naiz eriotzean. Agur.

BIZKOR.—Neuk zuzenduko dautzut kateren bat eta al dodana egingo dot zutzako adar bi nonbaitetik arteztuteko be.

FALST.—Alde emendik, gero? Aurrera doaz orduak; eragi burua ta bizkor egin oinkadak. (BIZKOR'ek alde).

FORD aurrera.

Ze barri dogu, Iturri yaun? Iturri yaun, gau onetan yakingo dogu yakitekoa, edo iñoz bez. Uri-zugazlian zagoz arrats onetan, Erne'n areitz-ondoan, eta zer arrigarriak ikusiko dozuz an.

FORD.—Izentauta zendula esan zeunstanez, atzo ez zintzazan yoan, ala?

FALST.—Iturri yaun, agana yoan, dakusazu-

nez, gizon beartsu-antzean yoan nintzan, baña etorri, atso beartsuren antzean etorri nintzan. Zital ak berak, emakumearen senar Ford'ek, tukuaren txerren amorraturik zoliena dau beragan, Iturri yaun, eguño amorruren yabe izan danik eta zoliena. Entzuizu... Aldean nebazan soñekoakaz emakumerena egiten nebalarik yoka erabili nindun; eta izan be, nik aldean gizoneko yantziak dodazanean, eztautsat bildurrik, Iturri yaun, Golia berari be, a euleren agegaz etorri-arren be; ba-dakit ba nik bizitzea bera be ariltzen dan ari bañe zotala. Iraduz nabil; neukin zatoz; neuk eralgiko dautzudaz gauzak zezatz, Iturri yaun. Antzarrak lumatu, irakastegirakoan kalba egin, eta zibara yokatu nebanazkero, orain arte eztoz yakin ni iñok yo izana zer dan Zerrakidaz; iñondiko gauzak eralgiko dautzudaz Ford zitalaz, eta ari ordeazkoa arrats onetanixe emon eta aren emaztea zure eskuetan iminiko dot.--Zerrakidaz. Iñondiko gauzak bereala yakiteko zara, Iturri yaun! Zerrakidaz. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--Windsor'ko zugaztia.

PEITX, AZAL, eta SLENDER aurrera.
 PEITX.—Goazen, goazen; gaztelu-lubakian etzan eta ostonduko gara gure iratxoan argia begiztatu arte... -Slender seme, gogoratu egik nire alabea.
 SLEND.—Bai, gogoratuko dot; alkin itz egina nozu, eta alkar ezagutzeko itza be bado-gu; a zuriz yantzita dagola urreratu ta "ixil" gedar egingo dautsat; eta ak "ixilik" itzaz erantzungo daut; eta olan alkar eza-gutuko dogu.

AZAL.—Etxagok txarto ori: baña mum eta "ixilik" en bearrik ba-dozue, ala? Soñeko zuriaq iragarriko dauska a ondorik asko.--Ordu batak yota yagozak.

PEITX.—Gau iluna dok; etxakozak txarto eto-rriko argia ta maitagarriak. Yaungoikoz, gu-re yolas edo yostaketa au onerako izango al dok! Txerrenaz beste gizonek ezta emen asmo txarrik, eta bere adarretatik ezagu-tuko dogu txerrena. Goazen, zarrakidaze. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--Windsor'ko etxartebidea.

PEITX'en anderea, FORD'ena ta KAI aurrera.
 PEITX'ena.—Osagile yaun, orlegiz yantzita dozu nire alabea; zure garaia eldu dala dakuskezunean, eskutik artu, abadearenera eroan eta egitekoa len baño len egizue. Zoaz gure aurretik zugaztira; gu biok bate-ra yoango gara.
 KAI.—Ba-dakit nik nire egikizuna; agur.
 PEITX'ena.—Onik eta ondo ibili, yaun. (KAI'k alde) Falstaff'eri egindako irri ta laidoak poztuko daben baño asarreago egingo dau nire senarra bere alabea osagileakin ez-kondu izanak; baña eztau ardura; oba da akar apur bat biotz-auste andirik baño.
 FORD'ena.—Nondik dira orain Anetxu ta be-re maitagarri-taldea? Eta Wales'tar txerre-na. Uga?

PEITX'ena.—Guztiak dagoz aik Erne'n aretxa-ren ondoko arekan kukurumio, argiak es-talirik dabezala, eta gu ta Falstaff alkarre-kin batu gadizanean, bertatik erakutsiko dabez argiak gau ilunean.

FORD'ena.—Orrako orrek agoa zabalik itxi-ko dau a seguru-segurutik.

PEITX'ena.—A arritu ta agoa zabalik ez gel-ditezkotan, irri egingo dautsagu; baña a arritu ta agoa zabalik gelditu ba'dadi, or-duan bai izango dauela ak irrik asko.

FORD'ena.—Ziri lango ziria sartuko dautsa-gu; adarra ondo yota geldituko da.

PEITX'ena.—Olango lizun eta lizizunkeriren aurkakorik dagienak eztautzu egiten, ez, salkeririk.

FORD'ena.—Aurrera doaz orduak. Aretxera, aretxera! (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--Windsor'ko zugaztia.

UGA EVANS eta Maitagarri ta iratxoak au-rerra.
 EVANS.—Ariñeketan, ariñeketan, maitagarri ta iratxoak; goazen; eta ez aztu bakotxak

bere egikizuna; adoretu izan, arren; za-rrakidaze lubakira; eta itz itunduak entzun dagizuezanean, nik agindua egin. Erdu, er-du; arin, arin; takata, takata. (Alde dagie).

V AGERLEKU.--Zugaztiko beste arlo.

FALSTAFF aurrera, kokomarroturik, buruan orein-adarrak darozala.
 FALST.—Windsor'ko yocleak yo dauz ama-biak; aurrera doaz minutoak. Lagun bekidaz orain yainko odol-beroak:... -Gogoratu zuk, Yupiter, zezen izan zintakozala zure Euro-pe'ri; maitetasunak emon eutzuzan ada-rrak!... -Maitetasun altsu ori! Zuk alde ba-tetik gizona aberetu egiten dozu; bestetik, aberea gizondu. -Yupiter, zisne be izan

zintazan zu, Lede'n maitetasunagaitik: ... Alorodun maitetasun ori! zelan eroan zen-dun yainkorik antzar-izatearen ain urre-raño?... -Abere-antzez egina a lenengo obe-na:... -Yupiter ori, abelgorriak dagokienez egin zendun oben, abere-obena, oben aska-rria! eta gero beste obenik, egazti-antzez! Gogoratu egizu orrako ori, Yupiter; oben zantar, egaztien erako obena, eta yainkok egina!... -Yainkoak ba'dabez bizkar, kun-

tzurrin-alde beroak, zer egiteko gizon erru-karriak? Nigazko, emen nago ni Windsor'ko oreinar bainintz; eta baso onetakorik gizenena, nire ustez. Ar-beroaldi ozkiritik bidali egidazu, Yupiter, ostantxean nok egotziko daust errurik nik nire gurin guztiak txiz egin ba'dagidaz? Nor datorku emen? Nire orein emea, ala?

FORD'en anderea ta PEITX'ena aurrera.

FORD'ena.—Yon Sir, ala? Or zagoz, ala, nire orein ori? Nire orein ar ori?

FALST.—Nire orein emea alla balzagaz?... —Lusagarrezko euria betor ortzetik; betoz ostotsak "Yantzi-beso Orlegiak"-en doñura; okaran-gozoak yatsi dadizala ortzetik txirgorea lez, eta arrautza-zuringo-gozoak, edurra lez; betor zirikaldi-ekatxa, ni emen babes-tuko naz-eta (Mun dagio).

FORD'ena.—Zu, kutun, Peitx'en emaztea be emen dago, gero?

FALST.—Bion artean zatitu ta banandu nagizue, ebazleri a nobere alde irabazteko emoten yakon oreinaren antzera, iztar bana artuta; neutzako euki gura dot nire saiets-aldea, nire sorbaldak emengo basayaunarentzako, eta nire adarretatik bana zuan senarrak izten dautset. Basa-gizon ete naz? Ja, ja! Erne eiztariaren antzez itz egingo ete dot? Oraintxe bai, oraintxe da Kupida yakinkidetzadun mutiko; ordaintzen dau zorra. Benetako agertuetariko naza-nez, ondo etorriak zaitatze! (Zurumurruta ta otsa barruan).

PEITX'ena.—Ai ene! ze zurumuru ta ots dogu ori?

FORD'ena.—Yaungoikoak parkatuko al daukuz gure obenak!

FALST.—Zer ete da ori?

FORD'ena eta PEITX'ena.—Alde, alde. (Ariñketan alde dagie).

FALST.—Nire ustez txerrenak eztau gura ni gaiztetsi nagienik, nik dodazan koipeak suleza sutan iminiko leukielaren bildurrez; ostantxean eleuskidaz beti bideak onan itxiko.

UGA EVANS Sira, gizon-aker antzez; BIZKOR anderea ta PISTOL; ANE PEITX, maitagarrien erregeno antzez, maitagarri-yantziz bere nebea ta beste batzuk lagun dauzala, buruetan argizagizko argi-taketak dabezala, aurrera.

BIZKOR.—Maitagarri baltz, nabar, orlegi, ta zuriok, iretargitan yolas egin ta gabaren itzalak zarienok, alanbear ez-aldakorraren umezurtz zarienok, egizue zuon egitekoari

ta izateari dagokiona. Hoggoblin aldarrikari, dei egin maitagarriak.

PISTOL.—Iratxook, entzun zuon izenak: ixilik, eguratsetako izaki motxorrok. Txirri-txirri, oa i yauzi baten Windsor'ko ke-zuloetara: suak batu-barik eta sukaldeak ifarreaz garbitu-barik aurkituko dozakan etxeetako neskaek atximurka ta zaxtadaka aubiak baño balzagoe itxi egizak: gure erregeno argitsu-dizdizgileak iguin dautse alperrai eta alperkeriari.

FALST.—Maitagarriak dira orreik; il egiten da orrei itzik egiten dautsena; begiak itxita auzpez etzango naz; gizonak eztau ikusi bear orreik dagienik. (Etzan egiten da auzpez).

EVANS.—Nondk da Pede?... —Oa, eta etzan-aurretik bere otoiitzak egin izan dauzan neskaerik idoro ba'dagik, iratzarri egioek irudimena, kezkabako umetxoak legetxe lo egin dagian; baña euren obenak gogoratzeke lotara yon diranai atximurka ta gankadaka ekiek euren beso, zango, bizkar, sorbalda, saiets eta zangazurretan.

BIZKOR.—Ekin, ekin; arakatu, iratxook, Windsor'ko gaztelua barru ta landa; zori ona zabaldu, maitagarriok, gela ezkutu bakotxean, gazteluak azken-epaialdirarte zutunik irauan dagian, eta irauan be zindo irauan yabeari dagokionez, yabea gazteluari dagokionez. Gorengoen yezarlekuetatik berengoeneneraño igurtzi, gero, bedar usaintsuen eta guztitariko lora sunda gozodunen izerdi lurruntsuz; zuzenez emondako apain-garri guztiak eta bakotxa,mazmarro ta gangar, beti bediz onetsiak, zintzotasun-ezau-garritzat! eta zuok, zelaietako maitagarriok, gauoro abestu zuok, Zangogalartzuaren antzeko ingurutxo eginda, beste zelai guztiak baño orlegiago ta guriago agertu dadin Windsor gazteluko zelaietako bedarra; eta lora ubel, urdin eta zuridun bedar-mototsez idatzi egizue Hony soit qui mal y pense (23); olan irudituko dozuez zaldun txaroen belau makurtuaren bealdeko orratz-lan bikaina ta sapirarripitxien margoak: lorak erabilten dabez maitagarriak izkiak egiteko. Alde; sakabanatu: baña, ordu batk dira-ta, ez al yaku aztuko Erne'n aretxaren inguruan guk oi dogun yantzaldia egitea.

EVANS.—Arren, eldu alkarri eskutik; urren-gorik urrengo yari bedi bakotxa bere le-

(23) Pantzerazko ikurrizok daroaz Zangogalartzudunen ikurdi edo mazmarroak.

kuan: eta ogei ipurtargik egingo dabe gure argiena, areitz-inguruko gure yantzaldia neurtzeko. Baña, etxon: lurraren erdi-aldeko giza-sundea somatzen dot (24).

FALST.—Yaungoikoak babestuko al nau Wales'tar maitagarri orregandik! orrek gaztaetu enagian! (25).

PISTOL.—Ar, mamarro zakar ori, yaio intzanean be ez euskan inok yaramonik egin iri.

BIZKOR.—Nolango dan ikusteko, azpurua ukutuko dautsat garraz; garbi ba'da, atzeraka egingo dau garrak eta eztautso gatxik egingo; baña garrak ikaratu ba'dai, biotz ustela dau orren soñak.

PISTOL.—Bai, aztertu dagigun ori: erdu.

EVANS. Erdu, surik artuko ete dau egur onek? (Erre egiten dabe euren argizalez).

FALST.—Ai, ai, ai!

BIZKOR.—Usteltzar, usteltzar, kirastu ori! eldu orri, maitagarriok; abestu irri-abestiren bat edo beste; eta, yantzan egin-ala, zaztada ta gankadak emon abestiaren neurri-ra.

EVANS.—Zuzen da; izan be, zantarkeri ta gaiztakeriz ganaz dago ori.

ABESTI

Uf, uf, irudimen obentsu ori!

Uf, uf, zantarkeri ta lizunkerri!

Su gori-gori da zantarkeria

Irrits-lera lizunak ixiotua,

Biotzean sortua; aren garrak,

Gogapenak putz egin-ala, or doaz gora-goraka.

Zaztatu egizue, maitagarriok, leiaka:

Zaztatu orren zitalkeriagaitik;

Zaztatu, erre, ta bira eragiozue,

Argizaiaik, izarrak, eta iretargia itxungi arte.

Abestiak dirauen artean maitagarriak zaztadaka darabile FALSTAFF. KAI osafilea dator alde batetik eta eroan daroa orlegiz yantzitako maitagarria; SLENDER dator bestetik eta soñeko zuridun maitagarri bat artu ta eroan daroa; FENTON be badator beste aldetik, eta ANE PEITX anderañoa daroa. Eizarako otsa entzuten da barrutik. Maitagarri guztiak igesi digese. Yagi egiten da FALSTAFF, bere oreinburua kendurik.

PEITX, FORD, PEITX'en anderea, ta FORD'ena aurrera. Eldu egiten dautsoe FALSTAFF'eri.

PEITX.—Ez, ez egik igesi: oraingoan sorgindu auzgula uste yoit: Erne eiztariaz beste-rik lagun izango ete yak?

PEITX'ena.—Arren, asko da, bego: ez eroan aurrerago irria: ...—Esan orain, Yon Falstaff Sir, ze eresti dozu Windsor'ko emazteen gogaldiaz? (Orein-adarrak PEITX'eri erakutsiaz) Ba-dakusazuz oneik, senar? Ez ete dira yola-liras lirainok urirako baño egokiago basorako?

FORD.—I, yaun, nor dok emen orain adarduna?... —Iturri yaun, zital da Falstaff, zital adardun; amen aren adarrak, Iturri yaun; eta, Iturri yaun, ak eztau artu ta gozatu Ford yaunarenik Ford' en bogada-sarana, aren txibetea ta aren ogei liberaz besterik ezer; eta diruok atzera emon bear yakoz Iturri yaunari; Falstaff'en zaldia bai-tuta gelditzen dira orretarako, Iturri yaun.

FORD'ena.—Yon Sir, zori txarretan be txarra izan dogu guk; eguño ezin batu izan gara alkarrekin. Gaurdanik ara bein be etzau-daz artuko nire maitetzat beti zu oreintzat etsi baño.

FALST.—Oraitxe cartzen naz astotu egin nazala.

FORD.—Bai, baita iditu be: bien agiriak doguz.

FALST.—Eta onako oneik ez dira maitagarri, iratxo, ala? Birritan edo irutan uste izan dot etzirala ez maitagarri, ez iratxorik: eta orraitioño be, nire biotzaren erruduntasunak, nire al guztiak bat-batean eta otz-otoan benderatuak izanak, irria zakar izan-arren, eta areinaz bestelango antza gora-bera, sinistuzo dauste benetan zirala maitagarriak. Ara zelan zurtasun guztia ergel-tenteldurik gelditzen dan gaiztakerirako erabilten danean.

EVANS.—Yon Falstaff Sir, Yaungoikoaren otsein izan adi, eta itxi egizak ire iritsak, eta maitagarriak ez aue erabiliko zaztadaka ta atximurka.

FORD.—Ondo esanda, Uga maitagarri.

EVANS.—Eta zuk zeuk be itxi zure tukukerriak, arren.

(24) "Lurraren erdi-aldeko". Lurrtzat lurraren mamia, lurraren azala ta lurraren inguruko eguratsa artu ba'dagiguz, lurraren erdi-aldea aren azala, gizonok bizi garean lekua da. Lenagokoen siniskeriz, lur-barruan, lur-mamian bizi ziran sorginak, lu-azalean edo lur-erdian gizonak, eta eguratsetan maitagarri, iratxo ta olango beste izakiak.

(25) "Orrek gaztaetu enagian", orrek zapal-zapal egin eta opildu enagian esan gura dau. Izkuntzatik igarri dau Falstaff'ek iratxo edo maitagarri ori Wales'tar dala.

FORD.—Gaurdanik ara bein be ezto izango uste txarrik nire emazteaz, zu ari kutunke-riak Ingelander a onez egiteko gai izan arte.

FALST.—Nire garaunak eguzkitan igartu ete dodaz onenbesteko zantarkerirraño eltzeke? Wales'ko akterrak be niri irrika? Wales'ko oialezko ergel-txapelik yantziko ete dot? Nire burua gaztae erre zatigaz. itotordu dot

EVANS.—Gaztaerik eztoz on gurinik aterateko; koipo utsa dok ire sabela.

FALST.—Gaztae ta koipe! Ingelanderiaz naste-borrastea egiten dauenek niri irri egiteko bizi izan naz, ala? Au da asko errege-erri onetan lizunkeria ta gau-txori eginik ibiltea betiko bazartzeko.

PEITX'ena.—Ara, Yon Sir, guk gure on-endarra gure biotzetatik atera ta sorbalda ta buruganetik zear yaurtinik, gure buruak kezka-barik su-lezeari opatu izan ba'gauntsos be, txerrenak zure atsegingei egingo ginduzanik uste ete dozu?

FORD.—Onangorik! orixe bai agokada ederra, izateko be! Zorrobete kirru.

PEITX'ena.—Puztutako gizonik?

PEITX.—Zar, otz, zimel, eta sabel eskargadunik?

FORD.—Eta Txerrenburu Satan añako laidoztallarik?

PEITX.—Eta Yoba bestean ezbeartsurik?

FORD.—Eta aren emaztea bestean gaiztorik?

EVANS.—Eta lizunkerietara, ardandegietara, ardoara, edari gogorretara, txixiparrara, edanera, zin eta biraoetara itzulirik; iskanbilla ta eztabaidetara makurturik?

FALST.—Tira ba, zuon itz-bide ta itz-gei nozue ni: aurreak artu daustazue, irabazi daustazue: lur yota naukazue: ni enaz gai Wales'ko oialari erantzuteko be: ezyakintasuna bera be berun yat buru-ganean; zeuok zelan-gura erabili nagizue.

FORD.—Arrano, arrano, yaun; Windsor'era eroango zauguz, Iturri yaun dalakoagana, zuk dirua ostu dauzasunagana, arentzako zuk lizunkeri-bitarteko izan bear zendunagana: zuk yasan izan dozunuz ganera, nire ustez, zuk ari dirua atzera emon-bearra naibage gorri izango yatzu.

FORD'ena.—Ez, ene senar, orrek yasan izan dauenaren alderako bedi diru ori; parkatu egiozu diru-moltso ori, eta, olan, guztioz izango gara adiskide.

FORD.—Tira ba, eutso nire eskua; azkenean dana parkatzen dauskat.

PEITX.—Gogargitu akigu, zaldun; arratseon edalontzikada bat edango dok gurean; eta an orain ire lepotik irri ta barre egiten dauen nire emazteari ik irri ta barre egi-

ten itxiko daukat. Slender yaunak ezkondu dauela aren alabea. Esaiok ari.

PEITX'ena.—Bere kitean) Osagilek ezbaian dabe orrako ori: nire alaba ba'da Ane Peitx, onazkero Kai osagilearen emazte da.

SLENDER aurrera.

SLEND.—Eee, ee, ee! Peitx cita!

PEITX.—Seme! Ze barri dok? Ze barri dok, seme? Egin dozue egitekoa, ala?

SLEND.—Egitekoa egin doguentz! Eskegi naguela Gloucester-erriko gizonik aituenak mataza au askatu ta arildu al ba'dagi.

PEITX.—Ze mataza, seme?

SLEND.—Eton'en izana nozu ANE Peitx'ekin ezkontzeko asmotan, eta ara non aurkitu izan dodan mutilzar kirten asiakorik Ane'n orde. Yaurretxean gengoan, ostantxean ondo astinduko neukean nik a, edo-ta berak ni. Ane Peitx zala uste izan epza'dot, ez al dot iñoz emendik zirkinik egingo; baña, bai zera, bidariaren otseina izan da.

PEITX.—Orrazkero, nire bizia-arren, okerreko artu izan dok ik.

SLEND.—Ori zuk esan-bearrrik dot, ala? Neuk be alan uste dot, mutila neskatzat artu izan dodanazkero. Akin ezkondu izan ba'nintz, emakumeren antzaren azpian zan guttiagaitik, enukean gurako emaztetzat.

PEITX.—Ba, orrako ori eure tentelkeriari zor dautsak. Ez ete neuskian esan nik nire alabea bere yantzetatik ezagutuko enduala?

SLEND.—Zuriz yantzita egoanari urreratu nintzakon eta "ixilik" gedar egin neuntson, eta "ixilik" erantzun eustan ak, Ane ta ni aurrezirik alkarrekin itundu gintzazanez; eta orratziño a etzan Ane, bidariaren mutil otseina baño.

EVANS.—Yosu! Slender yaun, ez ete dozu begirik mutilekin ezkontzeko?

PEITX.—Onangorik! biotz-biotzez nok naibageturik: zer egingo?

PEITX'ena.—Gorka on, etzakidaz esarratu: ba-nenkian nik zure asma; neuk yantzi dot alabea orlegiz; eta, izan be, a orain osagileekin dago yaurretxean, eta an ezkondu dira.

KAI aurrera.

KAI.—Nondik da Peitx'en anderea? Yinkoarren, lapurretan egin izan dauste, iruzur egin izan dauste; morroskokin ezkondu naz, bai, mutilekin; baserriar mutilekin, yinkoarren; a ez da izan Ane Peitx; yinkoarren, ziri ederra sartu dauste.

PEITX'ena.—Ostera! orlegiz yantzita egoana eztozu artu izan, ala?

KAI.—Bai, yinko-arren, eta mutil izan da: yinko-arren, Windsor osoa asaldatu ta aldean iminiko dot. (KAI'k alde).

FORD.—Inondiko da auxe. Nok artu ete dau benetako Ane?

PEITX.—Ba-dot nik susmo txarrik:... emen dator Fenton yauna.

FENTON eta ANE PEITX aurrera.

Ze barri, Fenton yaun?

ANE.—Parkatu, aita on! parkatu zuk be, ama on orrek!

PEITX.—Neskato, zegaitik etzara yoan Slender yaunakin?

PEITX'ena.—Zegaitik ez az yoan, neska, osagile yaunakin?

FENTON.—Arriturik eta agoa zabalik zagoze zuok orrek eginaz: entzun yazoaren egia. Lotsagarriro ezkondu gura izan dozue zuok ori, bataren maitetasunetik bestearenera urrik be ez egoala. Auxe dozue egia: ori ta ni, aspaldidanik alkarrekin ezkontzeko itza emonak gintzazanok orain ain seguru gagozala alkarri loturik-eta, inok ezin banandu izango gauzala. Orrek egin dauen utsa edo akatsa berari lotsa izateko da; eta iruzur au ezta marrorik izangarri, ezta benedikotasunik-ezaren izengarri, naiz asaldatze izengarri be: eta izan be, egin izan daue-nagaz inok atara bearturiko ezkontzeak eka-

rri izango leuskiozan ordu gaitzetsi ta birakatuak aurreratu ta baztarrtu ta uxatu egin dauz.

FORD.—Ez egon or arriturik eta agoa zabalik: yazoaz yazota dago:... maitetasunean, Yaungoikoak berak idigi naiz isten dauz bideak; airuz lurak erosten dira, alanbearrak saltzen dauz emaztegaiak.

FALST.—Gezi guztiak nire aurka zuzendurik egon-eta, pozik nago batek beintzat okerreko bidea artu dauelako.

PEITX.—Tira ba, zer egiteko? Fenton, pozez beteko al au Yaungoikoak! besterik ezin dogunean, datorrena artu bearko.

FALST.—Gau-txakurrak eurak euretara dabilzanean edozetariko oreinak goatzen dabez, ez eurak gura dabena.

EVANS.—Zuon eztegetan yantzan egin eta okaranak yango dodaz.

PEITX'ena.—Tira ba, arriturik egoterik asko da:... -Fenton yaun, Yaungoikoak anitz eta anitz egun zori ontsu emongo al dautzuez!... --senar on, goazen guztiok etxera, eta yotaketa au izan dala-ta barre egiteko, dagigun baserrietan oituten dan "sañoan" esaten dautsoen sutzarrik; Yon Sir eta guzti.

FORD.—Olan bedi: --Yon Sir, oraindik be beteko dok ik Iturri yaunari emondako itza, ak arrats onetan bere emazteakin lo egin-go yok-eta. (Alde dagie).

AMAIA

Salta'n 1961'gko. Yorrailaren 29'gnean.

ITZ BARRI TA ZARR GITXI EZAGUN BATZUK

ARAKIN.—Arakin itza aragigin'etik dator, eta or euskeraz mordoloz "karnaseru" esaten dautsoen aragi-saltzalea esan gura dau; saltzalea ta saltzeko abere-iltzalea. Euskerazko itz zarra da.

ARROTZ.—Etxeko, naiz norbere erriko eztana.

ARROTZEGI.—Arrotzai yan-edana ta etzalekua emoten dautsen etxea. Itz au euskerazko itz zarretariko dogu, baña orain auzoko izkuntzatiko "ostatu" euskerazkoa baño erabiliago da. Landara arrotzak itoaz daroa etreko landarea, azpian artuta.

ARROZTUN.—Arrotzak bere arrotzegian aritzen dauzana.

AZBEGI.—Itz au "atz-begi" tik dator, eta yatorriz esku-begiak esan gura dau, baña, gerora, soñeko edozein atal iragartera zabaldu da bere esan-gurea. Itz zarra au be.

AZTORE.—Aztorea egazti aragi bizi-yaleetariko dogu, txiki-andiz usoren neurrikotsu. Egazti aragi-yale guztiak lez moko sendomakurra dau eta erpak be sendoak. Beñola andikien etxeetan azi ta ezten eben, beragaz txoritán egiteko. Itz zar da.

BERUN.—Metal bigun-samar, ilun-samarra da ta itz au be erderazko "plomo"ak itobearrean darabil.

BIDUTZI.—Olabide andiaren IDAZTEUNA'tik artu dot itz au eta "mamu" eta oi ezlanaz beraterako izaki itxusi-itzala esan gura dau. Esaterako, buru biko, naiz bost oneko txala bidutzi yatzu.

BOGADA.—Arratia'ko Zeanuri'n beintzat eurrez darabile itz au ta beste leku batzuetan "gobara, bokata" esaten dautsoena esan gura dau. Gure ama zanak, bogadea egiteko, miesa edo soñeko, oeko ta maiko eunikiak azpian zulotxo bat eukan upolean iminten ebazan, ganean sorki bat eta sorkiareneanean surtako autsa edo errautsa; gero, berotu ura supuruan eta autsaren ganera ixuri berotu-ala; eta olan yarra ordu batzuetan. Urrengo goxean errekarra upeleko eunki ondo beratuak saranean, naiz otzarran artuta.

EKALDE.—Eguzki sorkera alde.

GEZNA.—Norbaiteri beren-beregi eroaten yakon barria.

GEZNARI.—Norbaiteri bere ogibidez barriren bat daroatsona.

IKURRIN.—Ikurriña izan berez miesa, naiz oial-xati baño ezta, baña geien baten erri-

ren baten ezaugarri ta ordeazko yatzu. Itz au barrietariko yatzu euskeraz, baña lur guri-mardulean landatu izan da-ta, mizke azi da. Bai bear be.

IKUZI.—Mikoleta'ren aldian orain baño mizkeago bizi zan itz zar au orain baño; orain, geien baten, bere ordeaz "garbitu" erabilten dogu, baña garbitu ta "ikuzi" ez dira bat. "Ikuzi" urez, naiz beste olangotsuz garbitzea da; inarreaz be garbitzen da etxea, baña soñeko loiak ikuzi egiten dira. Zeanuri'n, esaterako, "ikuzi" bera eztogu erabilten orain erri zearen agotan, baña "irukutzi" bai. Eta zer da "irukutzi"? "Oa iturrira bai, eta yarroa bete-aurretik irukutzi egiok" bein baño geiagotan esan euskuen guri umezori gintzazanean; eta zer egin bear geuntsan guk yarro edo pitxarrari iturriko urez bete-aurretik? Auxe; bota ur apur bat pitxarrera, ta aztindu ta eragin urari pitxarr-barruan, egotzi ur ortik zear, bete gero urez pitxarra ta eixera astiro-astiro, iturrira zetan yoan gintzazan be ta bidean aztuta. Erderazko "enjuagar" edo olangotsu yatzu "irukutzi" ori.

ISKILO.—Gizonak bere burua edozetariko are-rietatik yagoteko, naiz areriori min egiteko erabilten dauen edozer yatzu iskillu. Abereak be ba-dabez euren iskilluak, izakien egilleak Berak emonak. Esaterako, zezenaren iskilluak bere adarrak dira. Gizonak berak asmau dauz bere iskilluak, geroago ta obe ta indartsuagoak, oraintsuen-gea kiski edo atomo-indarrezkoa dala.

ISPEL.—Auzoko erderazko "ostra" dalakoa da ispel, berez isten da-ta. Uretako izakirik da ispel dalakoa eta unetxo baten alkarrerri deuten koskol gogor bik yagoten dabe bere soin likia.

IDAZTIÑO.—Odazti edo liburu txiki, idatzia naiz ezer idatzibakoa.

IKURDI.—2'garren oarrean azaldu dot "ikurdi" zer dan.

ITZ-ALLA.—Antzerkietan itz egiten daben notin edo "presonak" urrengorik urrengo, bakotxa bere aldian, agertzen dira aurrera. Zelan yakin bakotxak noz sartu bear dauen berak? Bere aurrekoaren azkenengo itzak iragarriko dautsoe noz sartu bear dauen berak. Aor ba, azkenengo itzok dira "itz-alla" dalakoa.

LARU.—Bellegi. Laru'tik dator "laruena" eta esaterako, Zeanuri'n laru itza bera erabili ez-arren, laruena ba-darabille, gibeledo gaxa, arpegia ta soin osoa bellegitu edo larutzen dauena iragarteko.

MAZMARRO.—Itz onek eta "ikurdi" itzak esan-gura berbera dabe. Axe, mazmarro itza ikurdi baño zarrago dala.

MOKO.—Itz au be beraka doaku euskeran. Arratia'n "mokotz" itzean bakarrik bizi da, eta eztaikit erriak dakientez nondik dato-rran. Igaratz edo Pazko-aldian gure aita-bitxi-amabitxiak bidaltzen euskuezan moko-tzak pozik artu ta yaten genduzan gu umegorri gintzazanean, eta erdian arrautza bakarra barik moko banatan arrautzea ba-ekarren pozago artzen genduzan; ondo esanda orrako ogi ori mokotz, moko edo puntaz beterik etorten yakun-eta; moko-tzak esan gura dauena ezta besterik, ainbat moko edo punta dauzan zera baño. Zer dabe txoriak eta egaztiak euren yakia ar-tzeko ta zatitzeko? Atzazal, naiz adar-antze-ko musturra; mustur orreri be moko ereis-ten yako euskera yatorrez eta lenagotikoz, orain batzuk moko esan-bearrean piku esan-arren.

OREIN.—Oreina auntzaren antzeko basa-abe-rea da ta toki batzuetan basantz be eres-ten dautsoe edo eutsoen. Gorbaie'ko orei-nak nire gurasoak ume ziranean ondatu ei ziran, nire ama zanak esaten eustanez. Oreinaren adar bakotxa sustarra baño go-ragotik kakotu edo kimatu egiten da, zu-gatza enborraren goialdean adarrez yosten dan legetxe. Ganera, oreina andi-txikiz be auntu baño andiago da ta okozpean ez-tau bizarrik.

ORLEGI.—Itz barri baño ondo asmaua erde-ratiko "berde" iragarteko.

SARAN.—Oñati'n "banasta" esaten dautsoe-nari Zeanurin saran edo san esaten dau-tsagu eurrez.

TXOKI.—Itz onek toki txiki-estu ormaz itxia esan gura dau. Zeanuri'n beintzat mardul bizi da itz au.

TUKU.—Zure emaztea, naiz emaztegia bes-teren baten kutun ete dan bildur zara? Biotza larri dozu, arpegia be zurbildu, la-rutu, bellegitu egiten yatsu? Lorik be ezin dozu egin. Orreik dira elorriok zuk dozu-zanak. Zer dozu zuk? Tuku.

ON-INDAR.—Onerako indarra, Indar ori bi-tara etorri leikigu: egite ona sarritan egi-naz eta indar ori Yaungoikoak goitik emo-naz Euskera mordoloz "birtute".

YAKINKIDETZA.—Euskera mordoloz "kontzen-tzi" esaten dautsoena.

ZANGOGALARTZU.—Itz au antzerki onetan ainbat bider agiri da-ta, zerbait azaldu dagigun. Berez zangogalartzu etxatzu bes-terik or belaunpean oin-zorroak lotu edo estuteko erabilten dan galartzu edo "zin-tea" baño.

Zangogalartzu izeneko gudaritariko giza-batza sortu zan Ingelanda'n amalagarren gizaldian. Sortu edo yaiio-barritan Zango-galartzu giza-batz ori ango aldi atako ba-kaldunak eta amabost zaldunek osotu eben, baño gerora ugaritu zan sendi ori. Giza-batz orrek bere ezaugarritzat zangogalar-tzua artu eban. Zangogalartzu ori berez urdina da, baño urrezko edergarriak dau-kaz ertzetan-eta. Ingelandarrak eurak Char-ter (txarter) ereisten dautsoe. Batzuetan zan-gogalartzuaz batera agertzen da Gorka Deuna be, zaldi-ganegan, zaldiak oinpean erensugea dauela. Errege bera be giza-batz onetariko zalako egiten dautsoz Sha-kespeare'k ainbeste txera Zangogalartzu gi-za-batzari ta onen ezaugarriari.

NEURRIRI NEURRI

NEURRIRI NEURRI

ANTZERKI ONETAKO LAGUNAK

BINGEN, Biena'ko Duke.

ANGERU, Dukearen Ordeko aren alde-aldian.

ESKAL, Agure andiki, ANGERU'n Aldunkide.

KAULDI, gizazindo gazte.

LUKI, Buruarin.

GIZAZINDO ANTZEKO BESTI BI.

BARRI, Dukearen otseintzako Gizazindo.

BAITEGIBURU.

TOMA, { Lekaide biak

KEPA, }

EBAZLE.

UKONDO, Ertzain ergel.

BITS, Gizazindo ero.

AKETO, OBERDONE anderearen otsein.

NASKASEME, Eskegitzalle.

BERNARDIN, Atkilo lizunkeritsu.

ELIXABETE, KAULDI'n arreba.

MARENE, ANGERU'n maite, ezkontzeko itza emona.

YULETXU, KAULDI'n maitea.

PANTZESKE, Lekaima.

OBERDONE anderea, Emagalduburu.

YAUNAK, GIZAZINDOAK, Zainak, Erri-otseinak, eta laguntzako beste batzuk.

AGERLEKU.--BIENA.

I EKITALDI

I AGERLEKU.--Dukearen Yauregiko gela.

DUKEA, ESKAL, Yaunak, eta Laguntzakoak aurrera.

DUKEAK.—Eskal...

ESKAL'ek.—Ene yaun.

DUKEAK.—Erririk zelan yaurri bear danez nik emon nengiketazudazan onuak irakatsiko leuskizuena baño geiago zuk zeuk dakizunazkero, nik olangorik zuri azaltzea ni itz-dario nazala iragartekoaz bestetarako elizateke; orrazkero, zu orretarako gei eta lain zareala-ta, nire egikizun bakarra zure zeroi lan eragiten iztea da. Gure erria ezagutzen, gure erriko legeak eta zuzena zelan erabili bear diran ezagutzen, bat ikastez, bai egitez, guk dazagunik onena bestean orniduta zagoz zu. Nire ordeazkotzea damotozut nik, eta ez al daustazu ezetzik emongo... Dei egin ona, gero, Angeru'ri, eta datorrela agindu. (Laguntzako batek alde)

Izango ete dau ak gure antzik bere egitekoan? Eta izan be, yakin bear dozu, berrizko arduraz autu dogula a, gu emendik alde eginda garean bitartean gure ordeazkotzea egin dagian; gure bildurra emon dautsagu zorrean, gure maitasunez yantzi dogu, ta gure agintaritzako eskubide ta al guztiak emon dautsaguz; zer deretzatzu?

ESKAL'ek.—Orrenbeste emari ta dedu eroateko lain danik Biena' izatekotan. Angeru yauna dogu orrako ori.

ANGERU aurrera.

DUKEAK.—Ara non datorren bera.

ANGERU'k.—Beti zu maitagarri orren gurariaren bendeko, emen natortzu zer eder yatzun yakiten.

DUKEAK.—Angeru, abelgorri ta umeriren berrietako akatz naiz artazikadeak aberea

norena dan, eta bidean dakusgun oinatzak bidez zer igaro dan iragarten daskuenez, ire bizitzeak be ba-yok atz edo ezaugarririk, atz ori dakusanen aurrean ire bizitzea zabal-zabal agirian iminten dauna. I eu ta ireak eztozak orrenbesteraño eure, i ire on-indarretan eta ire on-indarrak igan alperrik galtzeak. Zeruak gugaz guk zuziakaz egin daroaguna bera egiten yok, zeurak eurei argi egiteko etxoaguz ixituten: eta izan be, gure on-indarrak gure aurrean agertuko ezpa'litsozak, olangorik guk ez eukitea be ainbaten litzatekek. Gogoi ukutu guri-bikainik emoten ba' yakek, ondoren guri-bikainetarako emoten yakek: izateak berak be etxok ezer emoten zorrean bere zer guri-gurenetafik, yainkono zur baltizok, esker ona erakutsi ta erabiliaz, bere aintza iragarteko baño. Baña nik, nik diñodan au berak be ondo dakianari itz egiten daragoiot; orrazkero, Angeru, entzun eta aintzat artu: gu emendik alde eginda gairean artean i izan adi gure ordeko betebete ta oso-oso: eriozea ta errukia begoz Biena'n ire miñean eta ire biotzean! Eskal agurea, lenen izentaua izanarren, ire urrengo izango dok: artu ire ordekozeta.

ANGERU'k.—Ene yaun on, olango irudi edergurenik bertan irarri-aurretik obeto ta zeztago nire metala zelango dan ikusi egizu.

DUKEAK.—Ez egin niri ziririk, ez egin bazarrera geiagorik: astiro ta ondo oldoztuta egin yoagu ire aulespena; orrazkero, artu egizak gure dedu-omenak. Emendik alde egiteko dogun iradua andi be andi dok-eta, bera obetsi, ta zer-ikusi andiko zerak be aipatuga ta aztertzeka izten yoaguz. Astiak eta gure ardureak orretara bul-

tzau-ala idatziko daskuagu gure barri emonaz, eta iri emen zelan doaktikan yaktiteko begira egongo gozak. Orrazkero, onik eta ando abil. Or izten daskat nire ordezkotzea, ik ondo beteko doanaren uestez.

ANGERU'k.—Orraitiño be, ene yaun, itxi egidazu zuri bide-arlo baten lagun egiten.

Dukeak.—Nire iraduak ezin artu yok ontzat olangorik; eta, neure omenarren dirauskat, ik eztok orretan zetan izan kezkarik txiki-nik; ire egitekoa neurea bera dok; euri deretxakanez legeak bete eragin naiz biguntzeko. Ekak esku ori, edozein erritarrek lez alde egingo yoat nik; erria maite yoat izan, baña etxatak begiko nire burua bere aurrean erakusterik; neurriaren alde-tik ondo eginda egonarren, neri etxatazak eder euren txalo zaratatsiak eta euren gara sutsu-biziak; eta gizon sentzuntsutaz be etxaukat olango zerak eragiten dautsoena. Beste bein onik eta ondo yarra.

ANGERU'k.—Zure asmoak aurrera eroango al dauz zeruak!

ESKAL'ek.—Zori onez eroan eta atzera ekarriko al zauz Yaungoikoak.

DUKEAK.—Eskerrik asko. Agur. (alde dagi).
ESKAL'ek.—Zure ederretsia izango al dot, yaun, zuri nasai eta argi ta garbi itz egiteko; eta nire egitekoa norañio eltzen dan begiratzea da niri dagokidana: ba-dot nik alik izan, baña bein-beinean eztaikit ze indar dauen, eta zetariko dan oraindik yakiteko naz.

ANGERU'k.—Neuri be orixe berori yazoten yat. Goazen biok biotara ta arazo orretan laster yarriko gara eretxi batera.

ESKAL'ek.—Zu nagusi orren ederraren begira nagotzu ni. (alde dagie).

II AGERLEKU.—Etxarte bide.

LUKI ta Gizazindo bi aurrera.

LUKI'k.—Dukea, ta beste dukeak, Hungari'ko bakaldunakin itundu ezpa'dadiz, olangorik yazotekotan, duke guztiak yausiko dira bakaldunaren bendeen.

I GIZAZINDOAK.—Yaungoikoak ba kea emongo al dasku, baña ez Hungari'ko bakaldunarena!

II GIZAZINDOAK.—Olanixe.

LUKI'k.—Ik ateraten dokan ondorena itxasora amar aginduakaz yoan, baña amarrotatik bat aginduen oletik igurtzi-irukutzika kendu eban itxas-lapuraren zindotasunaren antzeko dok.

II GIZAZINDOAK.—Eztok ostuko, ala?

LUKI'k.—Bai, ak ori kendu yokan igurtzi-irukuzka.

I GIZAZINDOAK.—Bai ba, agindu ori ontzi-buruari ta ganetikoa euren egikizuna galazoteko zoan izan be, aik lapurretan egiteko itxasoratu zoazan-eta. Nor dok izan be gure artean gudaririk, maia onestera-koan bakearen alde egiten dan eskaria ontzat artzen dauenik?

II GIZAZINDOAK.—Eguño etxoat entzun gudariri orrako ori gogoko etxakonik.

LUKI'k.—Sinisten daskat, maia onestera-koan i eguño an izan azanik etxoat uste-ta.

II GIZAZINDOAK.—Ezetz? Amabi bider bai gitxienez.

I GIZAZINDOAK.—Zer diñok? Neurritan, ala? LUKI'k.—Neurritan naiz neurri barik, naiz edozein izkuntzatan.

I GIZAZINDOAK.—Bai, alan uste yoat, naiz edozein yaurespidetan.

LUKI'k.—Bai ba! eta zegaitik ez? Onespena onepen dok, eta eskerrak esker dozak eretxi guztien ganetik. Esaterako, eretxi guztien ganetik i zital zantar azan legetxe.

I GIZAZINDOAK.—Tiruk ba, gu biok gozak ari ta zezpal bereko.

LUKI'k.—Bai; oial aztina ta aren ertza legetxe. I ertza az.

I GIZAZINDOAK.—Eta i oial aztina; i oial aztin onetariko augu; i iru ariko oialzati augu, bai orixe; gurago yoat nik Ingelanda'ko oialaren ertz izan, i agonez Pantze'ko oial aztinari yosita egon baño (1). Sentzunez itz egiten ete yoat orain?

LUKI'k.—Alan uste yoat; eta ire itzaldiak minik asko egiten dauk; ire gurarien arauz, ire osasunaren alde edaten ikasiko yoat, baño bizi nazan artean etxoat edango ire urren.

I GIZAZINDOAK.—Nik nire buruari oker egin dautsadalda uste yoat: ez ete yautsat?

II GIZAZINDOAK.—Bai, egin dautsak, izurriaz naiz garbi egon.

LUKI'k.—Ara, ara! or dator Atsegin anderea! onenbesterañoko gatxak erosi dodaz orreanean...

II GIZAZINDOAK.—Zeinbesterañokoak, arren? I GIZAZINDOAK.—Ebatzi.

II GIZAZINDOAK.—Urtean iru milla dolarre-rañokoak, ala?

I GIZAZINDOAK.—Bai, eta geiagokorik be. LUKI'k.—Pantze-buruntza bat geiago (2).

I GIZAZINDOAK.—Ik beti uste nok gatxez ganekza, baño ni osasuntsu naiagok; oker ago i.

LUKI'k.—Bai, osasuntsu ago, baño ez osasuna dariola agola esateko bestean; zer arroen antzera ago i zindo; lizunkeriak igan oturuntza lango oturuntzea egin yok.

EMAGALDUBURUA aurrera.

I GIZAZINDOAK.—Kaixo! esadazu, ipur-mokorreria dala-ta, zein ipur-mokorretan dozu min geiago?

EMAG.—Tira, tira; zuok guztiok lango amar milla zana goatu ta baitegira daroe or.

I GIZ.—Nor da orrako ori, arren?

EMAG.—Ba! Kauldi da, orrako ori, Kauldi yauna.

I GIZ.—Kauldi baitegira! ezta izango olangorik.

EMAG.—Bai, nik dakidala bera da; neuk ikusi dot a goatzen; a baitegira eroaten; eta, areago dana, iru egun-barru ari burua moztuko dautsoe.

LUKI'k.—Baña zure esanak gora-bera, ez al da izango olangorik. Seguru ete zagoz?

EMAG.—Seguru baño seguruago; eta dana da Yuletxu neskatoa izortu dauelako.

LUKI'k.—Sinis egidazu, ba-dateke orrako ori; ordu bi ba-dira nikin batuko zala agindu eustala; eta a beti izan da agindua beteten egin-egina.

II GIZAZINDOAK.—Ganera, orrako ori guk oraintsu erago dautsagunagaz erara dator.

I GIZAZINDOAK.—Baña aldarrikatzeaz dator erazen.

LUKI'k.—Alde dagigun emendik; egia darentz yakiten goazen. (LUKI'k eta GIZAZINDOAK alde).

EMAG.—Onan, bateko gudua dala, besteko sukarra ta eskegitea ta txirotasuna dirala ta, nire irabaziak urrituaz doaz. Kaixo, ze barri dakak?

AKETOA aurrera.

AKETOAK.—An aragoan gizonik baitegira badaroe.

EMAG.—Tiruk ba; eta zer egin izan yok?

AKETOAK.—Emakume, andera, emakume.

EMAG.—Baña ze okereri egin yok?

AKETOAK.—Iñoren errekan arrankari-billa ibili yatzu ziri-zirika.

EMAG.—Ostera! neskaren batek agandiko ume yok, ala?

AKETOAK.—Ez; ak neska zana ama egin dau. Eztozu entzun zer aldarrikatu daben, ala?

EMAG.—Ze aldarrikatze, gizon?

AKETOAK.—Biena'ren ertzetako etxe guztiak lurrera eratsi bear dirala.

EMAG.—Eta uri-barrukoakaz zer egiteko?

AKETOAK.—Orreik azitarako geldituko dira: eta orreixek be iurrera lioatzean uritar zur bat euren alde urten ezpa'litz.

EMAG.—Baña uri-ertzeko gure etxe guzti-guztiak eratsiko ete yoezak lurrera?

AKETOAK.—Bai, dan-danak lurrera, andera.

(1) Emen, Pantze'ko oial aztinaz, bere izenik aitatzeke "Syphilis" dalako gaitz zantar iguingarri-bildurgarria esan gura dau inguruminguruka. Gaitz askarri ori, geien baten, lizunkeriz intsigiten da, olango gatxa daben zirildakin aragizko ar-emonaz izanez.

(2) Pantze'ko buruntza au, ango beñolako txanpon edo diru yatzu.

EMAG.—Ba, olan izatekotan, uri onetan aldakuntza lango aldakuntzea yoagu. Zer izango nitaz?

AKETOAK.—Tira; ez larritu, ez izan bildurrik; onulari onak bein be ez dira aurkitzen bezeru-urri: zuk zure etxea aldatuarren, zure ogibidea alda-bearrik eztozu; oraindik be ni zure otsein izango naitazu. Adore izan; errukirik izango dautzue zuri; zuk

zure ogibidean lerrean egin dozuzanaz-keru zuri izango dautzue adeirik, errukirik eta begirapenik.

EMAG.—Zer egiteko guk emen, Toma Otsein? Alde dagigun emendik.

AKETOAK.—Emen dator Kauldi yauna baitegiburuak baitegira daroala; eta or dator Yuletxu neskatosa be. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Lengoxea.

BAITEGIBURUA, KAULDI, YULETXU, Erri-otseinak, LUKI eta GIZAZINDO bi aurrea.

KAULDI'k.—Lagun, zegaitik yarten nozu onan ludiaren ikuskizun? Baitegira eroan nagizu arako izentauta nago-ta.

BAITEGIBURUAk.—Gogo txarrez etxoat egiten onako au Angeru yaunak beren-beregi agindu daustalako baño.

KAULDI'k.—Onan ba, Agintaritzeak, erdi-yaungoiko orrek, berorren itzak Yaungoikoarenak bailitzaz, berorren eretziz ordainduazoten dauskuz gure okerreriak, batari esku gogor ezarri ta besteari ez, bere gogara; eta alan be beti zuzen.

LUKI'k.—Ostera! zer dok ori, Kauldi? Zegaitik lotu abe?

KAULDI'k.—Buruak emona geiegi egin izanagaitik, ene Luki, geiegi egin izanagaitik: betekadeak barau eragiten dauenez, buruak emona eginegiak be gizona lokarri-pean yarten yok. Arrotioak edena yoranez yaten daben legetxe, gu be salobera goazak egarria emongo dauskun okerreriaren billa; eta edan-ala il egiten gozak.

LUKI'k.—Loturik nagola olan zurtasunez itz egien al izatekotan nik, zor dautsedan bazuen eske bidaliko naieunkek norbait; eta orraitioño, egia esateko, gura goat yarei nagola kirtenkeriak esan, baituta zurrkeririk baño... Zer oker egin dok, Kauldi?

KAULDI'k.—Zer egin dodan esatea okerreri barri litzatekena.

LUKI'k.—Ostera! eriotzarik egin dok, ala?

KAULDI'k.—Ez.

LUKI'k.—Lizunkeririk, ala?

KAULDI'k.—Olan deitu baño eztakuk.

BAITEG.—Goazen, yaun; yoan egin bear dozu.

KAULDI'k.—Itz bat, adiskide on... Luki, itz bat egin gura dauskat. (Berakin alde eragiten dautso Luki'ri).

LUKI'k.—Ezer onerako izatekotan, bai eun be. Orren gogor artzen ete yoek izorkeria?

KAULDI'k.—Ikusi baño eztakuk... benetako egiane eginda, Yuletxu'n oera yoan nok:

ik ezaqun dok neskea; a oso-osoa nire emazte dok; zeren utsa bakarrik yoagu, orrako ori, egiane ori, eztozula legez agirian esan eta autortu; baño legezko bete-bearrekoak be egin eza'yoagu, zeragaitik bakarrik izan dok, aren gurasoen kuxan dagon aren ezkon-saria oraindik artzoko gagozalako; eta alkarren arteko gure maitasuna arei ezkatutzea egokitaz izan yoagu, aldiaz aik gure alde yarri arteño. Baña yazo dana zera dok gure arteko ixileko ar-emona zereraño eldu dala, Yuletxu'gan ezaugarri agiriegiz irarteraño.

LUKI'k.—Seindun gelditu dok, ala?

KAULDI'k.—Orixo yazo dok yazo be, zori txarrez. Eta dukearen ordeko barriak, nik etxakiat ala ordezkotzearen barriaren erruz, ala ordezkari orrek erria bere ganean ibilteko zalditaz artuta, agintzen badakiala erakusteko bere aztalak oartu dagizan dan, ala ordezkariaren gurenak arrotu ta puztu dauelako, ni beintzat emen nok zabu-zabuka, yausi-aginik... Baña, urte-etan ormatik dingiliz inok erabili barik egon diran iskilloen antzera, emeretz urte biribiletan inori ezarri barik egon izan diran zigor guztiak agintari barriak lotatik iratzarri ta ezarri gura yozak; eta bera agotan erabili dagien, lo-zorroan eta inok yaramonik egiteta or bazartuta egon dan legea niri ezarten yaustak; bai, seguru-seguritik bera agotan erabili dagien, ez beste ezegaitik.

LUKI'k.—Seguru ago, orrexegaitik dok; eta ire burua ire sorbelda-ganean egon be sorbaldai bai deusela ez deusela yagok-eta, orri ortik alde eragiteko asko litzakek neska esnedunek intziri bat egitea, a maitasunak yotekotan. Bidali egik norbait dukeagana, eta aren epaitegira dei egik.

KAULDI'k.—Egin-eginean be orixe egin yoat, baño a eztoz inon agiri. Arren, Luki, egidak otseintza auxe: nire arrebea gaur dok lekaimetxean sartzeko, an arako gei danentz ikusteko; iragarri egiok ari ni zelango gal-

du-gordean aurkitzen nazan; nire aldetik eska egiok ordezko gordinaz adiskide egin dadilla; agindu egiok berak eraso dagiola ari; orretan itxaro andi yotat nik; eta izan be, aren gaztetasunak gizonai itzik egiteka erasoteko izkuntzarik ba-yok; orrez ganera, ak ba-yok ganorarik, trebetasunik eta antzerik asko gizonai edozer buruan saritzeko, buruz eta itz egoliz yokatuazkero.

LUKI'k.—Lortuko al yok ire guraria; ostan-

txean, bai gure antzekoak yasan bearko leukiezan burubako gogorkeriekaitik, bai yoko onetan ik galtzea mingarri litzakidan ire biziagaitik. Ba-naioak agana.

KAULDI'k.—Esterrik asko, Luki adiskide on orri.

LUKI'k.—Ordu bi barru...

KAULDI'k.—Tira, erri-otsein, goazen. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--Lekaretxe.

DUKEA ta TOMA lekaidea aurrera.

DUKEAK.—Ez; aita zindo; uxatu egizu gogapen ori; ez sinis maitasunaren gezi dardaratiak biotz osorik alderik alde zulatu daikeanik; emen ixilean niri leku emoteko egiten dautzudan eskariak gazte beroaren asmo ta elburuak baño zegaiti sakonago ta kako-makotsuagorik ba-dau.

LEKAIDEAK.—Ez ete zengike iragarri zegaiti ori?

DUKEAK.—Ene yaun zindo, zeuk dakizu inok baño obeto zelan nik beti ederretsi ta maite izan dodan bakarrik bizitea, eta zelan gixiatsi dodazan euretan gaztetasuna, ondasunak eta burubako arropuzkeria erakusten diran batzarrak. Nik Angeru gizon estu-latz eta neurri tinkoz bizi danari emon izan dautsadaez nire al eta eskubide guztiak Biena onetan, eta ak ni Poloni'ra alde eginik nazala uste dau; errian ori zabaldu dodalako eta erriak ori uste dauelako. Baña, yaun yaungoikozale, nik au zegaitik egiten dodan itandu daustazu zuk, ala?

LEKAIDEAK.—Bai, ene yaun, egin-eginean orixe yakin gura dot.

DUKEAK.—Guk lege gogor-gordinak doguz izan... zaldi buru-gogorak ezteko ago-burdin eta ugalak... baña legeoi amalau urteotan lo egiten itxi dautsegu, yatekoaren billa yoan-bearrean artzuloan etzanda gelditzen dan lei zarraren auzera. Baña orain, euren umeak kutunegi dabezan gurasoak egin daroena egin dogu guk: urki-abarra etxean ormatik eskegita euki bai, umeen bildurgarritzat, ez erabilteko; aldiatz bardea-

ri bildurrik yakon baño iseka geiago egiten yako: olan, gure aginduak be, ezarriak ezaz, ilik dagoz; eta nasaikeria or dabil zuzentzeari surretaitik tiraka, isekaz, lotsea osoan galduta; seinak sentzaina yoten dau, eta lotsa guztia lur yota gelditzen da.

LEKAIDEAK.—Zeure eskuan zeunkan estuta egoan zuzentza ori zeuk noz-gura azkatzea, eta zure eskuetan bildurgarriago agiriko litzakean. Angeru yaunarenetan baño.

DUKEAK.—Bildurgarriegi agiriko zanaren bildur nozu: erriari orretarako biderik emon izana neure erru izan danazkero, nire gogorkeri litzatekean neuk agindua eginagaitik neuk zigortu ta mindutea. Eta izan be, olangorik egiteko geuk agintzea zan okerretari aurrera yotaten itxi ta zigorrik ez ezartea. Orrazkero ba, ene aita, Angeru'ri ezarri dautsat egitekoa; ak, nire izenaren estalgiz, yo daike gogor, eta orraitio ni neu agiri ez burruka orretan-eta, nitzaz eztau inok txarrik esango. Eta aren yaukerea zelan doan ikusteko, zuetariko bainintz, agintaria ta erria biak ikusten yoango naz noizik-bein; orrazkero, arren, zuon yantziz ornidu nagizu, ta irakatsi egidazu zer egin bear dodan zuetariko legetxe ibilteko. Astirik geiago dodanean emongo dautzudaz zegaiti geiago onan zegaitik yokatzen dodanaren alde; orain auxe bakarrik: Angeru yauna zeatz-zorrotz da; eztau inoren bekatzik; osta-osta iragarten dau odolik daunenik, eta aren yangaleak arririk baño ogirik gurago dauenik: or ikusiko dogu aginpi-deak gizonak aldatzen dauzan ala ez, eta gure ordezkoak zelan yokatzen daben. (91-de dagie).

V AGERLEKU.--Lekaimetxe.

ELIXABETE ta PANTZESKE aurrera.

ELIXABETE'k.—Eztozue lekaimetx berarizko beste eskubiderik, ala?

PANTZESKE'k.—Eurok ez dira andirik asko, ala?

ELIX.—Bai, izan be: nik itandu ba'dot, ezta

izan geiagorik gura dodalako, Kalare Deu-
naren alabak bizibide estuagorik bear leu-
kiela uste dodalako baño.

LUKI'k.—(Barrutik) Eee! Bakea bedi etxe one-
tan!

ELIX.—Nor dago deiez?

PANTZ.—Abotsa giza-abots da izan. Elixabe-
bete txeratsu, idigi atea, ta ikusi zer bear
dauen; zuk egin zengike ori, nik ez; zuk
eztozu egin oraindik zinik; bein zinak egi-
nazkero, etxatzu sori gizonekin itzik egi-
terik, lekaimburuaren aurrean izan ezik;
orduaz, itzik egitekotan, ezin erakutsi izan-
go dozu zure arpegia; edo-ta, arpegia era-
kustekotan, ezin egin izango dozu itzik. Ba-
rrien-barri dei egin dau; erantzuoazu, arren.
(PANTXESKE'k alde).

ELIX.—Bakea ta osasuna! Nor dago deiez?

LUKI aurrera.

LUKI'k.—Agur, neska uts, olangorik ba'zara;
zure mosuetako larrosa-margoak iragarren
dabenez, zura etzara besterik! Elixabete'n
aurrera ni eroteranoako otseintzarik egin-
go ete daustazu? Elixabete ori etxe one-
tako lekaimagei eta bere zori geztoko neba
Kauldi'n arreba lirain yatzu.

ELIX.—Zegaitik da zori geztokorik aren ne-
bea? Sori bekit itaun au egitea; areago,
aren arreba Elixabete neu nazala diragar-
zut-eta.

LUKI'k.—Maitagarri ta lirain ori, zure nebeak
bere gorantziak bidaltzen dautuz; enoa-
tzu gogaitik eragiten, baitegian dago a.

ELIX.—Nirearen zori txarra! Zegaitik?

LUKI'k.—Ni aren ebazle izatekotan, ari zigor-
tzat eskerrak emongo neunsukiozanagaitik;
bere adiskide maiteari ume bat emon dau-
tso.

ELIX.—Zu ipuinekaz zatorrikidaz.

LUKI'k.—Egia diñotzat. Edurtean txindorra
etxe-inguruan ibiltzen denez, neska-inguruan
ibiltzea eta ai txantxak eta zipladak bota-
ten ibiltzea gogoko ta egunoroko oben iza-
narren, neska guztiekaz ezot izan gura
olangorik; nik zu zeruan yarritako zer deun-
tzat zaudaz; zuk uko ta agur egin dautsa-
zuenakaitik, gogo ezilkortzat zaudaz; eta
deunei lez, benetan itz egitekotzat.

ELIX.—Zuk zindoak arautu ta birautu egiten
dozuz niri iseka ta irri eginaz.

LUKI'k.—Ez sinis olangorik. Labur eta egiz
esateko, zera onantxe da; zure nebeak
eta bere maiteak alkar estutu dabe besar-
tean; eta yaten dabenaik bete egiten dira;
eta loraldian azia errein dan lur landuak
landara eder guri-mardulik emoten daue-

nez, aren sabel aziak be an zure nebeak
lur-lantze ta ereite ona egin dauela dira-
gar.

ELIX.—Ak norbait izortu egin dau, ala? Nire
lengusin Yuletzu, ala?

LUKI'k.—Zure lengusin da, ala?

ELIX.—Lengusintzat artua; neskato irakaste-
gi-kideak euren izenak aldatu ta alkar
aiztatzat artzen dabenez.

LUKI'k.—Bai, axe da.

ELIX.—Ba! alkarrekin ezkondu daitezala!

LUKI'k.—Ortze dago, ba, untea. Andia da,
baña dukeak emendik alde egin dau; gi-
zazindo asko, eta euren artean neu, itxa-
roz beterik gengoan, eta orain... dana
uts; baña arazoak zelan doazan yakitun ga-
reanok dakusgunez, ak iragarten ebana be-
re benetako asmoetatik urrin be urrin
egoan. Aren lekuan eta aren ordezkotzat,
aren eskubide oso-osoz Angeru yaunak
agintzen dau; edur-saldazko da gizon orren
odola; orrek eztau somatu eguño be-
ragan aragiaren kiñakada ta akulukada-
rik; orrek aragiaren zirrikadak benderatu egi-
ten dauz gogoaren onerako, ikasketa ta
barauen bidez. Leioaren zangartean arat-
onat dabilzan saguen antzera, lege-errian
nasaí ta zabal dabilzan nasaikeri-gelegi-
keriari bildurra sartzeko, aisetatik, edo
obeto esan, lurpetik atera dau gizon orrek
an betiko usteldutaz egoan lege gogor-gor-
dina, eta lege orren arauz zure nebeak il
egin beariko dau berak egin izan dauena-
gaitik. Orrazkero, zure neba ori goatzeko
agindua aldarrikatu dau, lege gogor-gor-
dina osoan ezarri gura dautso, besteen
ikaskizun izan dadin. Itxaropen guztiak yo-
nik dira, zuk zure ganora ta trebetasunez,
zure bitartekotasun eragikorrez Angeru'n
biotza beratu ta bigundu ezpa'dagizu; eta
arazo onegaitik bidali nau zugana zure
neba errukarriak.

ELIX.—Olan kendu gura dautso bizia, ala?

LUKI'k.—Dagoneko emon dau Angeru'k be-
re epaia; eta nik entzun dodanez, baite-
giburuak artu dauz zure nebea ilteko bear
diran aginduak.

ELIX.—Ai ene! zer egiteko nire ganora urriak
aren alde?

LUKI'k.—Aleginak egin, noraño eltzen zarean
ikusteko.

ELIX.—Noraño eltzen nazan ikusteko! Ene!
eztaikit ba...

LUKI'k.—Gure ez-baiak etoi yakuz, eta ale-
ginak egiteko bildurra dala-ta, iritxi gein-
kean ona galazo egiten dautseu. Zoaz An-
geru yaunaqana, ta erakutsi egiozu neskak

eskatzen dautsenean gizonak yainkoak lez emoten dabela; baña negarrez eta belaubiko eska ba'dagie, euren eskakizun guztia errez eta eurrez iristen dabezala, ñok emonak barik norberena izan eta norberenetik artuak bailitaz.

ELIX.—Ikusiko dot zer dagikedan.

LUKI'k.—Arin ibili, gero.

ELIX.—Bertatik elduko dautsat egitekoari;

enaz egongo emen nire nagusiar nire amoaren barri emetoko lain bear dodan aldiz gora. Nire esker apalak zuri: nire gorantziak nire nebeari: gabaz tertzioz iragarriko dautsat nire aleginen ondorenen barri.

LUKI'k.—Nik agur dagituz.

ELIX.—Agur, yaun on. (Alde dagie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.—ANGERU'neko bebarru.

ANGERU, ESKAL, EBAZLE, BAITEGIBURUA, Erri-otseinak, eta Laguntzako beste batzuk aurrera.

ANGERU'k.—Legeagaz eztogu egin bear txuxorik, okela-belak eta saiak ikaratzeko tarket-ganean imini, eta an beti bat eta geldi egonda, arein bildurgarri izan-bearrean arein ota egin eztaadin.

ESKAL'ek.—Bai, baña zur izan gadizan, eta ebagitxo bat dagoiogun gexoari, barruregi ebagita bizia kendu eztagiogun. Ene! nik yarei gurako neunkean gizazindo au aita zindo-zindoren seme da. Zeuk ebatzi. Badakit nik zu gizon artez-estu zareana; baña zure irriits-aldietan aldia lekua, ta lekuaz guraria erara etorri, naiz zure odola zure guraria aurrera eroanazoteko lain bero izan ba'litxatzu, ez ete zeunkean zure bizian bein beintzat egingo zuk orain gaiztetsi ta legearen indar guztia ezarten dautsazun okerreria langorik, eta legea zeure ganera eratorriko?

ANGERU'k.—Eskal, zer bat da zirikatu izatea, eta besterik yaustea. Nik eztot ukatzen gazte orri eriotz-epaia ezarri dautsoen ama-bi zinegotzien artean eurak epaitu dabena baño erru andiagodun lapur bat naiz bi aurkitu leitekezanik: zuzentzeak okerreria agiri dan tokian goatzen dau: zer daki zuzentzeak lapurrak euretaikorik gaitzesten dabenik? Ba-dakizu, ori agirian dago-ta, bidean pitxirik aurkitu ba'dagizu, makurtu ta eragi egiten dogua, ikusi dakus-gulako, baña ezta kusguna ostikopean zapaldu ta aurrera egiten dogu, ta bein be eztogu aren burutapenik. Zuk ezin arindu zengike orren okerreria nik olango okerririk egin izan dodalako; esan dozun ori barik esaidazu, orren okerra gaitzesten dodan onek olango okerririk egin ba'dagit, nire epai au eredu ta irakaspen izan dadi-

lla ni eriotzara zigortzeko, ta epai ori eze-gaitik be ez bigintzeko. Yaun, il egin bear dau orrek.

ESKAL'ek.—Zure zurtasunak gura dauenez bedi.

ANGERU'k.—Nondik da baitegiburua?

BAITEG.—Emen nozu, zure ederraren begira.

ANGERU'k.—Zure ardurapeko bedi Kauldi'ri biar goxeko bederatzietan burua moztutea: ekarri egiozue autor-entzulerik; gertu be-go, orren bizialdiaren azkena ori izango da-ta. (BAITEGIBURUAK alde).

ESKAL'ek.—Tira ba, Yaungoikoa erruki dakiola! eta guztioi be erruki dakigula! obenez yaqiten dira batzuk, eta on-indarrez yausten dira beste batzuk; or doaz batzuk okerreriaren sasiarterik sasiarte ta etxakie okerririk yazoten; eta beste batzuk uts battegaitik bakarrik gaitzesten dabez.

UKONDO, BITS, AKETOA, Erri-otseinak, t. a. aurrera.

UKONDO'k.—Tira, eroan orreik emendik: etxe galdutan euren geiegikeriak eginaz besterik egiten eztabenok yente onik izatekotan, legeagaitik bost ardura daust; eroan orreik emendik.

ANGERU'k.—E! yauntxo! Zer yak izena? Zer yazoten dok?

UKONDO'k.—Eder ba'yatzu, yaun, ni dukearen ertzain errukari nozu, eta nire izena Ukondo da; zuzentzearen aldeko nozu ni, yaun, eta emen dakartzudaz zure nagusitasun orren aurrera ongille ezagun bi.

ANGERU'k.—Ongilleak! Tira ba; zetarik ongille dira? Ez ete dira gaizkille, gero?

UKONDO'k.—Eder ba'yatzu, yaun, ondo-ondo ezta kit zertzuk diran: baña zital garbi dirana, ori bai, ori ondo ta argi dakit; eta

Kistar on guztiak euki bear leukiezan munduko loikeribako dirala (3).

ESKAL'ek.—Auxe bai ba-dala zerak argi ta garbi esatea; emen dogu erri-otsein zur bat.

ANGERU'k.—Aurrera yo; ...zetariko dira gizonok? Ukondo yak izena, ala? Zegaitik ago ixilik, Ukondo?

AKETOAK.—Ezin dau itzik egin, yaun; ori eztago or, bere ukondoan baño.

ANGERU'k.—Zer zauguz, yaun?

UKONDO'k.—Ori, ala, yaun? Ori emagaldutsein yatzu; erdi emagalduburu; emakume geztoaren otsein; eta, or diñoenez, urietzeko aren etxea lurrera eratsi izan dabe; eta orain ur bero ikuztegi-etxea ei dau, eta nire ustez, orrako ori be etxe geztoetariko da.

ESKAL'ek.—Nondik dakik ori?

UKONDO'k.—Zeruaren eta zure aurrean iguin-du ta zapuztuten dodan nire emazteak.

ESKAL'ek.—Olangorik! ire emaztea!

UKONDO'k.—Bai, yaun; Yaungoikoari eskerak, emakume zindo dan nire emazteak...

ESKAL'ek.—Eta orregaitik iguindu ta zapuztuten dok, ala?

UKONDO'k.—Nik diñodana da, yaun, neronek eta nire emazteak, biok iguin dautsagu orrako etxe orri, eta ori emagaldutxerik ezpa'da, nire emaztearen biziaren erruki, etxe ori etxe gezto da-ta.

ESKAL'ek.—Zelan dakik ori, ertzain?

UKONDO'k.—Bai yaun, nire emaztearen bitartez; eta izan be, a aragitarra itzulirik izan ba'litz, izorrkeriaz, ezkontza-kutsuketaz eta an egiten diran zantarkeri guztitarikoz salatua izan eitekean.

ESKAL'ek.—Emakume galdut orregaitik, ala?

UKONDO'k.—Bai, yaun, Oberdone andereagaitik; baño ak gizon oni (BITS'eri) arpegira txu egin dautso, ta olan eupada egin.

AKETOAK.—Yaun, eder ba'deretkatzu, ori ezta egia.

UKONDO'k.—Emen dagozan zital bion aurrean erakutsi egik ori, gizon adeigarri orrek; erakutsi egik.

ESKAL'ek.—Entzuten dozu orrek zerak zelan diñoan oker eta atzekoaz aurre?

AKETOAK.—Yaun, orren emazteari señaiz sabela azi egin yakon; eta, --zu nagusi orrentzako lotsaz--, okan egosiak yateko goغو egin yakon (5); gurean okan bi baño ez egozan une atan, eta aldi-arioa yon da arrazkero, eta okanok iru bat txakurrandiko igali-ontzian egozan; zuok begiragarriok olango ontzirik ikusiak zauguze; ontziok ez

dira troskakizkorik, baño orraitino be ontzi on-on.

ESKAL'ek.—Aurrera, aurrera; ontzien ardurarik etxoagu, yauntxo.

AKETOAK.—Ez izan be, yaun; ez ardurearen bildarrik be; orretan zuzen zagoz; baño agozan arira. Esan dodanez, Ukondo'n andera ori seindun egola, ori be esan dodanez, sabela azita eta au be esan dodanez, okanak yateko yan-galez; eta ontzian okan bi baño egon ez, esan dodanez, emen aurrean dogun Bits yaunak ganetikoak yanda, au be esan dodanez, eta onek okanok zintzo ta zeatz ordainduta, orain diñodanez, --eta izan be, Bits yaun, euk dakik ondo nik ezin emon izan neuns-kazala iru txakurrandi atzera...

BITS'ek.—Ez, izan be.

AKETOAK.—Ori ondo: i aldi atan, ik ori go-goan ba'dok, i aldi atan okan-azurrak austen enbilela...

BITS'ek.—Bai, orretantxe neragoioan erago be.

AKETOAK.—Bai ba, ori be ondo baño obeto: eta orduan ni iri esaten naiengoan urlia ta berendia etzirala osatuko euk dakikan gatxetik bazkakera egoki ta estuesturik ez yagotekotan, nik orduan esan neuns-kanez...

BITS'ek.—Egi utsa da guzti au.

AKETOAK.—Ba, orrazkero, ori ondo be ondo yagok.

ESKAL'ek.—Bego, zoro gogaikarri augu eu: arira yo egik. Zer egin zeuntsoen Ukondo'n emazteari ori olan alaka ta zinkurinka etorteko? Esaidak ari zer egin zeuntsoen.

AKETOAK.—Yaun, zu nagusi ori ezin eldu zeintekez oindokoarren arano.

ESKAL'ek.—Ez, yauntxo, arano eltzeko asmorik be etxoat.

AKETOAK.—Baño elduko zara, yaun, zu nagusi orren ederraz. Eta begiratu, arren, emen dozun Bits yaunaren arpegia; urtean larogei esterlin-libera dauzan gizona; Deunoroetan il yakon aita... ez ete zoan Deunoro, Bits yaun?

BITS'ek.—Deunoro-aurregunez.

(3) Ukondo dalako gizon tentel naste-borraste uts onek emen ta nainon zerak okerretara esateko ekandua dau. Esaterako, emen on-indarbako esan-bearrean loikeribako diño. Gogotan euki Okondo'n ekandu au arren esakerak aituteko.

(5) Okan egosiak, aldi atan, lizunkeri-etxetako ezaugarri ziran.

AKETOAK.—Ba, ori ondo be ondo dago; egiak esan dodazalaktan nago: ori, yaun, diñodanez, beragoko yezarlekuan egoan yezarrita... Mats-mordo deretxon gelan egoan i yezarrita, an egotea iri begiko yaketa. Eztok onan, Bits yaun, ala?

BITS'ek.—Bai, gela a gogokoago yatak, idigia ta negurako on dalako.

AKETOAK.—Ba, orrazkero, ori be ondorik ondoen dago; oneik be egiak dirala uste dot.

ANGERU'k.—Onako onek Errusi'ko gaurik luzeenak baño luzarago iraungo dauela nik uste: ni ba-noa ta zuk entzun onein auzia, ta guztiok zigortzeko biderik asko aurkituko dozula uste ta ditxarot.

ESKAL'ek.—Neuk be eztoz uste besterik. Egun onik emongo al dautzu Yaungoikoak! (ANGERU'k alde) aurrera orain, yaun; bein barrero, zer egin zeuntsoen Ukondo'n emazteari?

AKETOAK.—Bein, yaun? Bein ari etxakon ezertxo be egin.

UKONDO'k.—Arren, yaun, itandu egiozu gizon onek zer egin eultson nire emazteari.

AKETOAK.—Itandu egidazu, arren, yaun.

ESKAL'ek.—Tira ba, yaun; zer egin yeutsan gizazindo onek orren emazteari?

AKETOAK.—Begiratu, arren, yaun, gizazindoen arpegia.—Bits yaun on ori, begiratu egizu nagusi yaunaren arpegia, zure onerako da-ta.—Arakatu dozu, yaun orrek, orren arpegia, ala?

ESKAL'ek.—Bai, yauntxo, ta ondo arakatu be.

AKETOAK.—Bai, arren, ondo ta zeatz arakatu.

ESKAL'ek.—Tira ba, orretantxe daragoiot.

AKETOAK.—Ba-dakusazu, nagusi orrek, ezetariko errurik arpegi orretan, ala?

ESKAL'ek.—Ez ba.

AKETOAK.—Idazti Deunaren ganean zin egingo neunke, gizon orrek dauen zerik txarrena orren arpegia dala. Tira ba, Bits yaunak dauen zerik txarrena arpegia izatekotan, zelan egin eikion orrek okerrik ertzainaren emazteari? Orixe yakin gura neunke nik zu nagusi orregandik.

ESKAL'ek.—Ori zuzen dago.—Ertzain, zer diñozu zuk orretaz?

UKONDO'k.—Lenen, eder ba'yatzu, arako etxea etxe begiragarri yatzu (6); urren, au lagun begiragarri yatzu; eta onen ugazabanderea emakume begiragarri yatzu.

AKETOAK.—Esku auarren, yaun, orren emaztea gure arteko iñor baño lagun begiragarriago da.

UKONDO'k.—Zital orrek, ik guzurra diñok; guzurra diñok zital gezto orrek; oraindik etorleko da ak gizonegaz, emakumegaz, naiz umegaz bear eztanik eginaren susmorik izateko aldia.

AKETOAK.—Yaun, aretaz ba-zan susmorik a orrekin ezkondu baño len be.

ESKAL'ek.—Zein da emen zurrago, Zuzentzea ala Gaiztakeria? —Egia da ori, ala?

UKONDO'k.—Gezto ori, alango ori! Zital ori! Giza-aragiyale ori! Nire susmo txarrik ni arekin ezkondu baño len? Ni arekin, naiz a nikin ezkondu- aurretik ibiliren susmorik izatekotan, enagizu etsi dukearen ertzain errukarritzat.—Eradutsik ori, giza-aragiyale gezto orrek, ostantxean gaiztakeriauzia ezarriko dauskat.

ESKAL'ek.—Orrek belarrondokorik emongo ba' leuskik, iraintze-azurrik be ezarri einskio.

UKONDO'k.—Arrano, arrano! Eskerrik asko zu nagusi orri, onu orregaitik. Zer litzakizu eder zuri nagusi orri, nik zital gezto oni egitea?

ESKAL'ek.—Egia esateko, ertzain, gizon orrek ba-dauz izan zuk zeintzuk diran yakin gurako zeunkean gaiztakerien batzuk, baño yarraí dagiala bere bidean zeintzuk diran zuk yakin arteño.

UKONDO'k.—Arrano! Eskerrik asko zuri nagusi orri orregaitik.—Ba dakusak orain, ba-dakusak, zital gezto orrek, zer etorri kan ganera; orain yarraí egin bear dok, zital gezto orrek; ik yarraí egin bear dok.

ESKAL'ek.—(BITX'eri) Non yaio intzan, adiskide?

BITX'ek.—Emen Biena'n, yaun.

ESKAL'ek.—Larogei esterlin-liberaren etorria dok urtean, ala?

BITX'ek.—Bai, eder ba'yatzu, yaun.

ESKAL'ek.—(Aketoari) Ori ondo.—Ze ogibide dok irea?

AKETOAK.—Otsein nozu ni; emakume alar-gun errukarritzen otsein.

ESKAL'ek.—Ire ugazabandearen izena?

AKETOAK.—Oberdone anderea.

ESKAL'ek.—Senar bat baño geitgorik izan yok, ala?

AKETOAK.—Bederatzi, yaun; eta azkenengoaok murratuta, ondatuta (7) itxi dau.

(6) Begiragarri diño Ukondo'k, nazkagarri, biragarri, naiz beste olangorik esanbearean.

(7) Egin-eginean be emakume lizun orren Oberdone (Overdone) izenak orixe esan gura dau Ingelanderaz: murratua, ondatua.

ESKAL'ek.—Bederatzi!... Ator ona, nigana, Bits yaun. Enaieunkek gura ik olango otseinekin ar-emonik izaterik; olangoak murratu ta bilustu egingo abe, ta ik eskegiako egingo dozak, Bits yaun. Oa, ta ez al yoat aurrantzean itaz itzik entzungo.

BITS'ek.—Eskerrik asko nagusi orri. Nigazko, ni neu enaz sartu eguño etxe galdutan inok areitara eroan ezik.

ESKAL'ek.—Ondo yagok; bego, Bits yaun: agur. (BITS'ek alde). Ator i be ona, etxe galdu-otsein yaun; zer yak izena, otsein yaun?

AKETOAK.—Ponpei yat izena.

ESKAL'ek.—Zer geitago?

AKETOAK. Eperdi, yaun.

ESAL'ek.—Bai izan be, eperdia dok ik dokan zerik andiena; eta, orazkero, esan-gurarik zakarrenaz i Ponpei andi augu. Ponpei, i zati bat emagaldubitarteko augu, baña orraitino be ik ogibide ori apur bat apaindu egiten dok otsein izanaz. Ez ete az olangorik? Tiruk, esaidak egia: oba izango yak argi ta garbi autortzea.

AKETOAK.—Benetan, yaun, bizitearren al dodana egiten dodan gizon errukarri nozu ni.

ESKAL'ek.—Zelan bizi gurako eunke, Ponpei? Emagaldubitarteko izanaz, ala? ze eretxi dok ik bizibide orretaz, Ponpei? Legezko ete dok ogibide ori?

AKETOAK.—Legeak galazoko ezpa'leu bai, yaun.

ESKAL'ek.—Baña legeak ori beti galazoko yok, Ponpei; olangorik eztoz sori izango: eta olangorik egiten etxakok itxiko inori Biena'n.

AKETOAK.—Zuk, nagusi orrek, uri onetako mutil-neskato guztiak irentzeko asmoa dozu, ala?

ESKAL'ek.—Ez, Ponpei.

AKETOAK.—Ba, orazkero, yaun, nire uste zirtzilez, aik eurenara yoko dabe. Zuk, nagusi orrek, emagalduei eta gizonetzko nasa-lizunei gogor egin ba'dagiezu, eztozu emagaldubitartekoei zetan bildurrik izan.

ESKAL'ek.—Gogor egiten polito asiak gara izan, yakin dagizun. Emon doguzan aginduak lepo egiteko ta eskegitako dira.

EKETOAK.—Arlo orretan uts egin dagien guztiak, amar urtean baño ezpa'da be, lepo egin eta eskegi ba'dagizuz, bururik ezta geldituko ta beste nonbaitetik ekarri bearke dozuz. Lege ori Biena'n amar urtean bete ba'dadi, Biena'ko etxerik onena leioko

iru txakurrandigaitik maiztertzan artu al izango dot. Au ikusteko lain bizi ba'zadiz, au Ponpei'k esan eutzula esaziu.

ESKAL'ek.—Eskerrik asko, Ponpei on: eta zure iragarpenaren alderako, entzun au: Onu au emoten daukat, ez al aut gaurdanik ara nire aurrean ikusiko ezetarik ala edo zinkuririk dala-ta, ez, ez orain bizi azan lekuan bizi azalako; itaz alarik izatekotan, or noaik, Ponpei, i ta ire txoznea lurrera erauziteko, eta ni Kaisar bildurgarri izango naiak; argi ta garbi esateko, Ponpei, narua ondo berotuko daukat; orazkero, oraingoarren, Ponpei, oa onik eta ondo.

EKETOAK.—Eskerrik asko nagusi orri, zure onu onagaitik; baña onu orri aragiak eta alan-bearrak erabagiko dabenez yarraiko naiako. Niri narua berotu? Ez, ez; zaltzainak emon dagiola txibitea zaldizarrari; baña eztago biotz adoretzuri bere ogibidetik alde eragiteko txibitarik. (Alde dagi).

ESKAL'ek.—Ator ona, Ukondo yaun: ator ona, errtzain yaun. Luzaro egon ete az errtzaintza orretan?

UKONDO'k.—Zazpi urte ta erditan, yaun.

ESKAL'ek.—Ire egitekoan ikusi dodan zolitasuna ikusirik, egikizun orretan barririk etzauzuzala uste izan dot. Guztiara be zazpi urte esan dok, ala?

UKONDO'k.—Eta erdi, yaun.

ESKAL'ek.—Ene! amaika lan eta neke arzu izango dozu ogibide orretan! ezta zuten zu ogibide orretan orren luzaro eukitea. Ez ete dago zure auzoan bear aña gizon egokirik ogibide orretarako?

UKONDO'k.—Egia esan, yaun, onango arazoetarako bear aña bururik daben gitxi baño ez: eurak autetsiak izan-ala, pozik gelditzen dira euren ordez ni autetsita; ogibide onek diru apurren bat ekarten daust, eta danena neuk egiten dot.

ESKAL'ek.—Tiruk, ire auzoko sei-zazpi gizon egokien izenak ekadazak.

UKONDO'k.—Zure etxera, ala, yaun?

ESKAL'ek.—Nire etxera. Ondo ta onik ibili. (UKONDO'k alde).

Ze ordu dala uste dozu?

EBAZLEAK.—Amaikak, yaun.

ESKAL'ek.—Zatoz bazkaltzen nirera, arren.

EBAZLEAK.—Eskerrik apalenak damotzudaz.

ESKAL'ek.—Tamalgarri yat Kauldi'n eriotzea; baña eztago beste biderik.

EBAZLEAK.—Angeru yauna zorrotz eta gogor da.

ESKAL'ek.—Bearreko da olango izatea: ezta beti benetako erruki sarritan erruki dirudiana; bein baño geiagotan gaiztakeri berriren inñude da azketea. Baña orraitinño

be... Kauldi'n errukarri! etsita dago arena eztago beste biderik. Goazen, yaun. (Alde dagie).

II AGERLEKU.—Lengoxean beste gela.

BAITEGIBURUA ta OTSEIN bat aurrera.

OTSEINAK. Auzi entzuten dago a; beingoan etorriko da. Ba-noa ari zu emen zaqozala esaten.

BAIT.—Esaziozu, bai, arren. (Otseinak alde). Aren ederra zer dan ikusiko dot: ba-leiteke a biguntzea. Ai ene! Ak amesetan lez oben egin dau! Oker au guztitarikoak, zarrak eta gazteak, egiten dautzue; eta ak il egin bear orrexegaitik!

ANGERU aurrera.

ANGERU'k.—Zer yazoten da, baitegiburu?

BAIT.—Zure guraria ete da Kauldi biar iltea?

ANGERU'k.—Ez daukat esan baietz, ala? Eztozu artu orretarako agindurik, ala? Zegaitik itantzen dozu barrien barri?

BAIT.—Bat-batekoegi ta itsumustukoegi izango ete danaren bildurrez; parka nagizu, baña nik bein baño geiagotan ikusita daukat, eriotz-epaia emon izan dabena damutu egin dirala euren epiaz.

ANGERU'k.—Zoaz, zoaz; neuri dagokidana da ori; zuk egin zure egitekoa estantxean itxi bertan-bera zure lekua, eta zu barik be egingo dogu.

BAIT.—Azkets-eske nagotzu zuri, nagusi orri: zer egiteko, yaun, negar-intzirika dagon Yuletxu'gaz? Laster sein egiteko da a.

ANGERU'k.—Toki egokiagoen batera eroan egizu; eta arin egin ori.

OTSEINA aurrera ostera be.

OTSEINAK.—Gizon eriotz-opaituaren arrebea dozu emen zuri itz egin-gurarik.

ANGERU'k.—Arrebarik ba-yok ak, ala?

BAIT.—Bai, ene yaun on: neska on-indartsu on-indartsua, eta labur esateko, laster lekaime izatekoa, dagoneko ezpa'da.

ANGERU'k.—Ondo dago, datorrela. (Otseinak alde). Zuk neska izortuari andik alde eragiozu: emon ari bearreko dauena, baña ez gurikeririk; orretarako aginduak be emon-go dautzudaz.

LUKI ta ELIXABETE aurrera.

BAIT.—Agur, nagusi yaun! (Alde egitekoarena dagi).

ANGERU'k.—Etxon apur baten.—(ELIXABETE'ri) Ondo etorria zauguz zu. Zer gura dozu?

ELIX.—Zuri, nagusi orri, eske datortzun eskale lorrez betea nozu ni. Zuri, nagusi orri, eder izango al yatzu niri entzutea.

ANGERU'k.—Ori ondo; zeren eske zatoz?

ELIX.—Gaiztakeri bat da nik iguinik geien dautsadana ta zuzentzeak beste edozein baño gogorrago yo ta auts egitea gurako neunkeana; orrako orren alde nik eneunke gura nire burua yarri, baña yarri-bearrean nago; eta orrako orren alde enintzake yarriko nire kitean gura ta ez-guraren arteko gudu gogorrik ezpa'neu.

ANGERU'k.—Ori ondo: zer dogu orrako ori?

ELIX.—Eriotzara epaitu dabena neba dot nik; nik eskatzen dautzudana zera da, nire nebearen okerreriari, ez nire nebeari, ezarri dagioela eriotz-epaia.

BAIT.—Esker eragikorrik emongo al dautzu Yaungoikoak.

ANGERU'k.—Okerreria ta ez aren egillea gaiztetsi! Onangorik! Egin-aurretik dago oker oro gaiztetsita; leku onean legoke nire egitekoa okerreria egin dauenari orlik zear yoaten itxi ta okerreriarentzako ze zigor dagon izentauta iragarriaz besterik egingo ezpa'neu.

ELIZ.—Legearren zuzen baña gordin! orrazke-ro, nire nebearenak egin dau.— Yaungoikoa lagun bekizu, yaun! (Yoan doanarena dagi).

LUKI'k.—(ELIXABETE'ri) Ez etsi orren arin: ekiozu ostera be; barrien barri eskatu ta arren egin; belauboikotu zakioz aurrean, tiratu egiozu soñekotik; otzegi zara zu; orratz baten bearra ba'zeu be etzeunskio eskatuko epelago: ekin, gero.

ELIX.—Ezinbestez il egin bear dau, ala?

ANGERU'k.—Neska, eztago beste biderik.

ELIX.—Bai, ba-dago; nire ustez, zuk azketsi, parkatu zeinke a, eta ez zeruak ez gizonek eleuke erruki orren tamalik.

ANGERU'k.—Eztot gura.

ELIX.—Baña gura izatekotan, ete zeinke?

ANGERU'k.—Begira, gura eztodanik ezin dot egin.

ELIX.—Baña inñori kalterik egiteka egin zeinke zuk, zuk zure biotzean nik ari dauzadan errukirik somatuko ba'zendu.

ANGERU'k.—Epaütuta dago a; beluegi da LUKI'k.—(ELIXABETE'ri) Otzezi zara zu.

ELIX.—Beluegi? Bai, zera! ez; nik, itzik esan ba'dagit, itz ori etxeratu daiket atzera. On-do, eta auxe sinis egidazu: errukiak emoten dauzsan apaingarriaren erdirik eztautse emoten nagusiai eurei dagokiazan era-merak, ez erregeri buruntzeak, ez zuzentzeari ezpateak, ez gudalburuari esku-makilleak, ez ebazleari bere soñeko lizeak. Nire ne-bea egon izan ba'litz zure lekuan, eta zu arenean, zuk zeuk be ak lez laban eta zirrist egingo zendukean; baña a elitzake izango zu zaran aña gordin.

ANGERU'k.—Alde egizu emendik, arren.

ELIX.—Yaungoikoari eder al lekio nik izatea zuk dozun ala. Eta zu al zintaz Elixabete! Gauzak olan izatekotan, orain yatzoten da-nik yazoko ete litzake? Ez; nik ba-nenkike zer dan ebazle izatea, eta zer atkilo izatea.

LUKI'k.—(Bere kitean) Bai, ukutu ta eragiozu; orain bai ukutzen dauzazu aragi bizian.

ANGERU'k.—Legeak ondatua da zure nebea eta zuk zure itzak alperrik eralgi baño eztozu egiten.

ELIX.—Ai ene! Ai ene! Ba! beñola gizadi osoa zan galdua ta ondatua; baña zigorra ta apena inñok baño obeto ezari eikion Ak, idoro eban oker orren zuzenbidea be. Zer litzake zurea, ebazlerik gurena dan Ak zu orain zuk dagizunez ebatziko ba'zin-duz? Ene! artuizu au gogotan: eta au egitekotan, arnasea lez urtengo da erukia zure ezpanetatik, zu gizon barririk eginda.

ANGERU'k.—Nasai zagoz, neska lirain; legea da, ez ni, zure nebea gaitzesten dauena; a nire senide, anai, naiz neure semerik ba'litz be, zori bardina litzake berea: biar il bear dau ak.

ELIX.—Biar! Ene! Orren arin! Yarei egizu, yarei egizu! A eztago ilteko gertu. Gure mairako aroko, egazti eginak ilten doguz: Jaungoikoa'gazko gugazko baño be begirapen gixtiago izango ete dogu, gure bear-izan zakarretarako baño? Ene yaun on orrek, gogoratu egizu: nor da okerreri orregaitik il danik? Anitz eta anitz dira olango okerreria egin izan dabena.

LUKI'k.—Bai, ondo esanda dago ori.

ANGERU'k.—Legea ezta egon ilik, lotan egon izanarren: gaitzakeri ori egiten azarri izan diran anitzek elitzakezan azarriko, legea

lenen ausi eban gizonari bere zigorra azarri izan ba'litzakio: orain atzarrik dago legea: egiten danaz oartzen da; eta igarleren antzera, leiarra begiratu (8), ta leiarra zear ikusi daukasaz etorteko diran okerreriak... bai oraingoak, bai bigunkeria arren burrienbarri sortuak, eta olan, geroago yaioletko oraindik sabelean azten dagozanak; eta legeak ebatzi dau okerreriok etxakela itxi bear ondorengorik izaten, bi-zi diran lekuan bertan il baño.

ELIX.—Orraitiño be erruki-apurrik erakutsi egizu.

ANGERU'k.—Zuzentzea erakutsiz erakusten dot geien eta ondoen errukia: eta izan be, onan yokatzekotan, ezagun eztodazanen, orain azketsitako okerreriok gerora kalte egingo leuskienen erruki dot nik; eta bein okerrik egin dauenari zuzen nintzako, ak bein egin dauen okerrari biziaz erantzun-da, geiago egiterik eleukelako. Au bekizu asko. Zure nebea biar ilgo da: seguru zagoz.

ELIX.—Orrazkero, zu izango zara onango epairik lenen emongo dauena: eta a olango-rik lenen yasangon dauena, Ene! gizatarraren indarrak eukitea bai ba-dala eder: baña gordinkeria da indarrok gizatarrak lez erabiltea.

LUKI'k.—Ondo esanda orixe.

ELIX.—Yupiter'ek egin doroenez, gizon andiak be ostots eta tximistak erabili al ba'lebez, Yupiter bein be ezin legoite nasai eta bildurga, gogor egin gurako leukean edozein erri-agintarik bere gogaldi txarrean Aren ostots-tximistak erabili gurako leu-kez-eta; ostots eta tximistak bakar-bakarrik... Zeru errukior ori! Bestelan egin daroazu zuk, zuk oñaztarri zorrotz-andurrez areitz lakaztsu ta ziririk sartuezinak arrakaltzen dozuz, ez gillori bigunik...; baña gizonak, gizonaren arri! Al gixti ta bera luzarorako eztauen gizonak... bera zer da-nik ezatikian gizonak, leiarra baño auskorrago dan gizonak... matxango asarrearen antzera, angeruai negar eragileranoño inñon-diko zorakeri burubakoak egiten dauz zeru garratzaren begi-begietan; eta angeruak, gure gogaldi txarretako okerreriak ikusita, eta il-ezinak ezpa'litzaz, guztiak batera, barreka iztenak egingo leukiez.

(8) Erdi-aroko aztuak edo euren ogibidetzat etorkizuna igartea ebanak, euren marroren artean eben maltzurkeri bat leiar margoztua zear begiratzea zan, olango leiarra zear etorkizuna ekusela eurekana yozzan gizon eta emakume tentel-sinisberai sinisazota.

LUKI'k.—Ori, ori! ekin, ekin, neskato: bigunduko da; eraso yako; oartzen naz.

BAIT.—Yaungoikoarren, buruan sartuko al dautso, etsiazoko al dau!

ELIX.—Ba-dakit nik nire neurria ezatorkola ondo nire auzokoari: gizon andiak ibili leitekez deunekin txantxetan: ba-dabe bururik orretarako, baña ori, gitxienez be, loitze zantar da.

LUKI'k.—Zuzen zagoz, neskato; ekin eta or yo.

ELIX.—Gudalbururen agotan asarreak erasandako itz zakarra baño ezтана, gudarirenean birao argi ta garbi da.

LUKI'k.—Nok irakatsi dautzu olangorik? Ekin, ekin ortik.

ANGERU'k.—Zer dala-ta zuzentzen daustazuz esakuneok?

ELIX.—Agintzeak, beste edonork legetxe okerrik egin al izanarren, okerra osatzeko osapidea beragan dauelako. Zoaz zeure biotzera; yo aren ateak, eta zure biotzari itandu egiozu zer deretxon nire nebearen okerraz; zure biotzak autor ba'dagi arena legetxe zurea be auleriari dagokon errua dala, zure miñak ez begi iragarri nire nebearen biziaren aurkako gogo edo asmoren otsik be.

ANGERU'k.—(Bere kitean) Ba-dago sentzunik orren itzetan, eta neu be sentzunera nakar.—Zoaz, Yaungoikoa lagun bekizu. (Alde dagianarena dagi).

ELIX.—Ene yaun adeigarri ori, zatoz atzera.

ANGERU'k.—Orrako ori burutan erabiliko dot:... Zatoz ostera be biar.

ELIX.—Entzun zelan ordainduko dautzudan. Ene yaun on ori, zatoz atzera.

ANGERU'k.—Zer diñozu! Ni irabazteko, ala?

ELIX.—Bai, zurea be zukin batera erkide izango dan esku-agiriz.

LUKI'k.—Tertzioz ibili zara, ostantxean dana alperrik galduko zendun.

ELIX.—Nire esku-agiriak ez dira izango urregorri zindozko zorro ta zorroak, ezta leiearen neurritz irudimenak ederragotu naiz zirtzilagotzen dauzan arri-pitxirik be: eguna argitu baño len zerura igon eta ara sartuko diran benetako otoitzezkoak baño: ludi onetako irris eta zikinkerietatik ya-reindako gogoen otoitzak, barau egiten da-

ben neskato garbiekandikoak, ludi onetako ezeri intsigita eztagozanen arrenak.

ANGERU'k.—(ELIXABETE'ri bakarrik) Goazan; ederto egin dozu; alde dagigun.

ELIX.—Yaungoikoa lagun bekizu ene yaun orri!

ANGERU'k.—(Bere kitean) Olantxe bedi, nire bideak otoitzak eragozpen yakoan zirikaldira naroa-ta.

ELIX.—Biar ze ordutan etorriko naitzuz, yaun orreri?

ANGERU'k.—Eguerdi-aurrean edozein ordutan.

ELIX.—Yaungoikoa lagun bekizu, begiragarri orri! (LUKI'k, ELIX., eta BAIT. alde).

ANGERU'k.—Bai, Yaungoikoa yagon nagiala zugandik, baita zure on-indarretik be!... Zer da au? Zer da au? Neska orren, ala nire erru ete da? Zirikatzaileak, ala zirikatua ete dau erru ta oben geiago? Ene! ez neskato orrek; orrek zirikatua be eztau egiten; neu naz, neu, eguzkitan lili-ubelaren ondoan etzanik, lora-sunda gozok lez eguratsa lurrin atsegingarriz bete-bearrean, okela ustelak lez andur naskagarritz beteten dodana. Izan ete leiteke lotsortasunak gure sentzunei emakume buruarinak baño indartsuago eragiterik? Lantzarrik, larrarik asko euki or, eta yauretzerik lurreratu bear ete dogu, gure gaiztakeriak an landatzeko? Ene ut, uf, uf! Zeri daragoiot? Edo-ta, zer az i, Angeru? Neskato a eder egiten daben zerakaitik dok ik agazko gogo zantarririk? Onangorik! bizi bedi aren nebea; ebazleak eurak lapurretan dabilzanean, lapurrak ba-dabe ostuteko esku-biderik. Ostera! neskato ari barriro entzuteko gogorik eta aren begirakunez bazkatzeko leiarik dodanazkero, maite ete dot nik a? Zetaz daragoiot nik amesetan? Zindoak goatzeko amuari zindozko amuzkia ezarten dautsakan luki-maltzur ori! maite dogun on-indarragaz oben egitera zirikatzen gauzana da zirikaldirik kaltegarriena; eguño emagalduk, ganoreak eta bere zerizanak emoten dautsan indar bikotzez ezin eragin izan nau aragikerira; baña neska on-indartsu onek osoan benderatzen nau... Orain arte beti, maitasunak erasotako gizonik ikusiazkero, irribarre egin eta arenari andi eretxita gelditu izan naz. (Alde dagi).

III AGERLEKU.--Baitegiko gela.

DUKEA, lekaidez yantzita, eta BAITEGIBURUA aurrera.

DUKEAK.—Osasuna, baitegiburu orri! olangotzat zaudaz beintzat.

BAIT.—Bai, baitegiburua nozu. Zer gura dozu, lekaide on orrek?

DUKEAK.—Ni nire goi-maitasunari ta nire anaigo gurenari nagoko-ta, baitegi onetako errukarriak ikusten nator: eurak ikusteko edonok dauen eskubidea emoidazu niri be, euren okerrerik zetariko diran yakin, eta nire egitekoa bear danez, eurei dago-kienez dagidan.

BAIT.—Ori baño geiago egiteko be gerturik nozu, bear izanazkero.

YULETXU aurrera.

Begira, or dator bat; nire ardurapeko leñargi-
emakume, bere gaztearoko su-garretara ya-
sita bere entzute ona ur-zorroz bete dauena.

Seindun dago ori; eta sein ori sortu dauena eriotzarako epaituta; gizon gazte; egin dauen okerrerigaitik ilteko baño olango okerrik barrio egiteko egokiago dana.

DUKEAK.—Noz ilteko da?

BAIT.—Nik uste dodanez, biar... (YULETXU'ri)
Zugazkoa atondu dot; etxon apur baten,
eta lagunduta yoango zara.

DUKEAK.—Damututa zagoz, lirain ori, aldean daroazun oben orregaitik, ala?

YULETXU'k.—Bai, damututa naço: eta lotsa-
ria epe-epez daroat.

DUKEAK.—Neuk irakatsiko dautzut zelan itan-
du zure yakinkidetzeari ta zelan igarri zure
damua zindo, ala ero dan.

YULETXU'k.—Poizik ikasiko dot.

DUKEAK.—Maite dozu okerra egin dautzun
gizona, ala?

YULETXU'k.—Bai, ari oker egin eulsan ema-
kumea bestean maite dot a.

DUKEAK.—Ba, orrazkero, dirudianez, zuon
okerreari andia alkarri egina da, ezta?

YULETXU'k.—Alkarri egina.

DUKEAK.—Orrazkero, zure obena arena baño
aztunago da.

YULETXU'k.—Ba-dautort, aita, eta garbaitu-
rik nago.

DUKEAK.—Erara datorrena da ori, alaba; ba-
ña zure damua ez al da izango okerreari
orrek lotsari orretara ekarri zauzalako,
olango damua geugaitik, ez zeruagatik da-
ta; olango damuak erakutsiko leukeana gu-
re bildurra litzake, ez zeruaren maitasun-
arren obenaren garbairik dogunik...

YULETXU'k.—Egin dodana gaiztakeri dalako
garbaitzen naz, eta lotsaria pozik artzen
dot.

DUKEAK.—Yarrai orretan. Entzun dodanez,
zure oben-kideak biar il bear dau, eta ari
ondo ilteko laguntzen noako.

YULETXU'k.—Eskerra zukin boa!

DUKEAK.—Benedicite! (Alde dagi).

YULETXU'k.—Biar il bear dauela! Ene! lege
orren gogor, ni bizirik itxita nire bizitzako
pozak elorrio gorri biurtzen dira-ta!

BAIT.—Benetan errukarri da a! (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--ANGERU'neko gela.

ANGERU aurrera.

ANGERU'k.—Arren egin eta oldoztu gura do-
danean, zer batetik bestera doaz nire arre-
nak eta oldozpenak. Itz utsak bidaltzen do-
daz zerura; bitartean nire irudimena, nire
miñari yaramonik egiteka, Elixabete'gana
doa egaz; nire agoan dago zerua, aren ize-
na bakarrik zeatzen bainenbil; eta nire bio-
tzean, nire burutapenetako gaiztakeria, in-
dartsu ta geroago ta andituago. Len gogo-
gogoz ikasten nebazan erri-arazoak, iraku-
rriaren irakurritz gogaikarri ta aspergarri
egiten yakun idatzi bikainaren antzeko egin
yataz; bai, nire arrokizun izan dan nire
bentasuna... ez al daust iñok entzungo
au... nire bentasun ori pozik aldatuko neun-
ke axearen yostallu dan egaki arin bate-

gaitik. Nagusitza ori! Azal-ederkeri ori!
ire azal orregaz, ire yantzi orregez amai-
katxo bider ik agoa zabalik itxi dozak
ergelak, eta gizon zurragoai ire mami uste-
la dalakoa zindotzat artzera eragin izan
dautsek! Odol ori, oraindik be odol augu i
txerrenaren adarretan idatzi egik Angeru on
eta gaurdanik ara etozak izango txerrena-
ren kazkarreko.

OTSEIN aurrera.

Eta? Nor dok?

OTSEINAK.—Elixabete dalako bat, lekaime
bat, zuk aurrera artzeko eske dago.

ANGERU'k.—Onako bidea erakutsi egiok,
(Otseinak alde).

Zeruok! zegaitik dator nire odol guztia ni-

re biotzera, biotza bere zereginerako ta soñeko beste atal guztiak eurenenerako gai ez dirala izteko? Orixe egiten dau yentelza ergelak inor larritu ba'dadi: an datoz danak batera lagun egiten, eta larrituak konortertzeko bear dauen egurtsari aganako bidea galazoten dautsoe: olantsu erriak, euren erregea maite izan-eta, euren lekua itxita eta maitasun esku-zabalak eraginda, aren aurrera batzen dira, maitasun ezyakinez gogait eragiteraño.

ELIXABETE aurrera.
Eta, neskato lirain?

ELIX.—Zure gogoā yakiten natortzu.

ANGERU'k.—Niri zer yatan gogoko zuk yakitea gogokoago litzakit, zuk olangorik itandutea baño. Il egin bear dau zure nebeak.

ELIX.—Benetan ete? Yaungoikoa lagun beki-zu, nagusi orri! (Alde dagianarena dagi).

ANGERU'k.—Orraitiño apur baten bizi leiteke: eta ba-leiteke zu naiz neu bestean luzaro bizitea be; eta orraitiño be il egin bear dau.

ELIX.—Zure epaiz, ala?

ANGERU'k.—Bai.

ELIX.—Noz, arren? Itaun au zeragaitik egiten dautzut, bizi dan artean, aldi ori luzeago-laburrago izan, aren gogoā gexorik egon eztaidin.

ANGERU'k.—Ba! uf! ekandu zantarrona! Gizon eginik izadiari ostu izan dautsanari parkatzea, ta euren atsegin zikin-zantarriz Yaungoikoaren irudia galazotako bidez ezeri ezarten dautsenai parkatzea ainbaten litzake: oker bardina da gizon eginari bizi kentzea ta egiteko dagonari bide galazoz emotea.

ELIX.—Ori olan da zeruan, baña ez lurrean.

ANGERU'k.—Ori diñozu? Orrazkero, itaun bat egingo dautzut bertatik. Zer zeunkake gurago, legerik zuzenenak zure nebeari bizi kentzea, ala a yareitearren zure soña opatu ak orbandu dauenagaz langoxe zantarreri gozo-ezirik egiteko?

ELIX.—Yaun, sinis egidazu, gurago neunkake nik soña emon gogoā baño.

ANGERU'k.—Nik eztautuz aitatu zure gogorik; gogoaz besterako gure obenak zenbatzeko bai ba-dira, baña ez eurakaitik inori erantzuteko.

ELIX.—Zer diñozu?

ANGERU'k.—Ez, eztautuz baieztuko esan dodan ori, ori nik guzurtu nengikeana data. Erantzuoizu onako oni: nik orain, idatzitako legearen agoa ta abotsa nazan

onek, zure nebearen aurka epaia emon izan dot: neba orren biziā yareitearren oben egitea ez ete litzake goi-maitasun?

ELIX.—Olangorik egingo al dozu eta orren errua nire lepora betor bere galdu-gorde ta guzti; orrako ori ezta obenik, goi-maitasun baño.

ANGERU'k.—Zure gogoaren galbidez olangorik egitea eder ba'litzatu, obena ta goi-maitasuna erdi banagaz geldituko litzakez.

ELIX.—Nik nire nebearen biziā eskatzea oben ba'da, Yaungoikoak ederretsiko al dau nire oben ori! Zuk, nire eskariaren alde yarrita, nire nebea yareiaz obenik ba'dagizu, goizetako nire otoi-gai egingo dot oben ori, nire beste utsai Yaungoikoak ori ezarri dagitsen, eta zuk orretaz ezetariko erantzun-bearririk izan eztagizun.

ANGERU'k.—Bai, baña entzun egidazu: zure oldozpenak eztoaz nireen bidez: edo eztozu aituten, edo aituten eztauenarena egiten dozu, marroz; eta ori elegoke ondo.

ELIX.—Ba-dakit ezyakina ta ezer onerako gauz enazana nazala.

ANGERU'k.—Gitxien erakusten danean agetzen da ederren zurtasuna: olantsu yazoten da edertasunaz be; arpegi-estalgi baitzairen ostean ostontzen dan edertasunak be amaika bider ederrago emoten dau, estalgi barik erakutsiak baño... Baña entzun, gero: aitu dagistazun, argiago ta zakarra-go itz egingo dautzut: il egin bear dau zure nebeak.

ELIX.—Bai.

ANGERU'k.—Eta legearen aginduz ori da aren gaiztakeriaren ordaina.

ELIX.—Egia.

ANGERU'k.—Egizu zure nebearen biziā yagoteko eztagola beste biderik nik ez bat, ez besterik izenpetu ta ontzat artu gura ezto-dalako... arako galteza baño, zera, zuk, aren arreba orrek, zuk ikusirik ebazleagazko esku andia dauen urlik, naiz berez goitegian dagonek, zugazko irrisetan bero danak, zure nebea legearen lokarrietatik azkatu legikela; eta zure nebea yareiteko eztagola ludi onetan ezetariko beste biderik zuk orrako urli orri zure soñeko altxorra emon, edo ostantxean zure nebeari ilten itxi baño; olangorik yazotekotan, zer egingo zeunka?

ELIX. Neure alde egingo neunkeana bera egingo neunke nire nebearen alde; zera, ilteko ba'nintz, txibitakada zorrotz-gordinak ezarriko leuskedazen narru-gorriuneak arri-gorri-pitxizat etsiko neunkez, eta ilteko bi-

- llustu egingo nintzake, etzateko begira luzaroan egon nazan oerako bailitzan, nire soña egite lotsagarriako iñori emon baño len.
- ANGERU'k.—Orrazkero, zure nebeak il egin bear dau.
- ELIX.—Eta orixe da biderik merkeena: oba da nebarik bertatik iltea, a yareitearren arrebarik betiko iltea baño.
- ANGERU'k.—Orrazkero, ez ete zintzakez zu zeu zuk orrenbestean txartzat emon dozun epaita bestean gogor eta gordin?
- ELIX.—Lotsagarriko yareitea bat da, eta besterik baldintzabako azkestea: legezko errukiak eztau zer-ikusirik lotsagarriko yareiteaz.
- ANGERU'k.—Zuk oraintsu legea gogorkeritzat zeunkala irudian; eta zure nebearen laparraztadea okerreiritzat barik yolastzat esten zebala.
- ELIX.—Ene! parkatu, ene yaun; onangorik sarritan yazoten da, guk gura geunkeana iristeko: esan gura doguna eztagu esaten gorroto dodana zerbaiz zuritu egiten dot nik, maite-maite dodanaren alderako.
- ANGERU'k.—Guztiok gara makal, auskor eta yauspera.
- ELIX.—Ostantxean il dadilla nire nebea, bera bakarrik izan ba'da makalkeri orretan laparast eta zirrist egin dauena.
- ANGERU'k.—Ez, emakumek be makal, auskor eta yauspera dira.
- ELIX.—Bai, euren burua aitan ikusten daben ispilluak legetxe; eta aik irudia sortzen daben bestean errez auzen dira. Emakumek!... Yaungoikoa lagun bekigu! gizonak loi-zikintzen dabe euren izana euren zantarkerietarako emakumek erabiliaz. Bai, dei gagizuz amaika bider auskor eta vauspera; eta izan be, gu gure soñak legetxe guri gara, eta itz usteletarako sinisbera.
- ANGERU'k.—Sinisten dot ori: eta gizonok be, nire ustez, irrisak guri ezin eragiteraño sendo ezkareanazkero, zure autorpen ori dala-ta, azarri nadin:... zeure itzetatik eltzen dautzul. Zadiz zareana, zera, emakume zadiz: ori baño areago ba'zara etzara ezer; emakumerik ba'zara, zure agiriko zer guztiak baiestuten dabenez, zure yantzi yatorra yantzita erakutsi ezazu.
- ELIX.—Nik min bat bakarrik dot: ene yaun txerakor ori, arren, lenago lez itz egidazu.
- ANGERU'k.—Argi ta garbi entzuizu, nik maite zaudaz.
- ELIX.—Yuletxu maite eban nire nebeak; eta ak orregaitik il bear dauela dirastazu zuk.
- ANGERU'k.—Ezta ilgo a, Elixabete, ni maite ba'nagizu.
- ELIX.—Ba-dakit nik besteen barrua ta barrukoak igarteko, zuk zure on-indarrari bera dan baño antz txarragorik emoten dautsoen zerak egiten izten dautsazula.
- ANGERU'k.—Nire omenarren, sinis egidazu, nire izak nire gogoia iragarten dabela.
- ELIX.—Ba! Omen txikiegia asko sinisteko, eta gogo orren zistrin-kaltegarri!... Irudi! irudi!... billustuko aut, Angeru; segurutzat euki au: bertatik izenpetu egizu nire nebearentzako azkespena, ostantxean, nire iduna luze-luze eginda, ludi guziaren aurrean esango dot zu zelango gizon zarean.
- ANGERU'k.—Nok sinistuko zuri, Elixabete? Orbanbako nire izena, nire bizitza latz-estua, zure aurkako nire autorra, eta lege-erriko nire lekua zure salakuntzearen aldean astun be astun izango dira-ta, zu zure zurrumuruak eta iñor balzitute keak ito egingo zauez. Asi naz asi; eta orain nire lizunkeri-irrisai euren ariñeketarako ugelak nasaitek dautsedaz: etsi zadiz nire leia zorroztaren alde. Bazartu kezak, eragin alde batera eurak gura dabena bera uatzen daben zure arpegiko lotsok: yarei egizu zure nebea zure soñari nire gurariaren alde oben eraginda; ostantxean zure nebea ezta il bakarrik egingo, zure buru-gogorke-riak aren elorriok luzatu be baño: biar emon zure erantzuna, ostein, orain nigan nagusi dan biozperatasunaren zin dagitzut, ni arentzako biozbako, anker uts izango nazala. Zugazko zuk zer-gura esan, nire guzurak zure egia ito egingo dau. (alde dagi).
- ELIX.—Nori alatuko ni? Yazo dan au nik esatekotan, nok sinisteko niri? Bai dirala galbidetsu ta kaltegarri min berberagaz gaiztetsi naiz onetsi daikien agoak! euren guraria egiteko darabile legea expanetan; euren yan-galeak zer eskatu, zuzena naiz okerra goatzen dabe amua egotzita, eta arrain erukarriak amuaren yarra yon bear! Nire nebeagana yango naz: a, odolak zirikatuta yausi izanarren, ak gogo-zindotasun andi be andi dau-ta, ak ba'leuz ogei buru ogei zubil-ganean ezarteko, ogeiak emongo leuze arren arrebeak bere soña olango zantarkerirako makurtu baño len. Orrazkero, Elixabete, garbi, bizi zadiz, eta i, neba, il adi i gure nebarik baño beinego da gure garbitasuna. Orraitiño, esango dautsat Angeru'n eskabidea, eta aren gogoia betiko atsedenerako gertauko dot. (alde dagi).

III EKITALDI

I AGERLEKU.—Baitegiko gela.

DUKEA, KAULDI, ta BAITEGIBURUA aurrera.

DUKEAK.—Ba-dozu, orrazkero, Angeru yaunagandik azkespena iristeko itxarorik, ezta?

KAULDI'k.—Itxaroa da errukarren osakai bakarra: ba-dot biziteko itxarorik, eta ilteko be gertu nago.

DUKEAK.—Zagoz ilteko etsita: olan, eriotzea, naiz bizitza gozoago egingo yatzu. Onan itz egiok bizitzeari... galdu ba'agit galdu, ergelez bestek euki gurako eleukeana galtzen yotat: arnasa baño ez az i, i bizi azan leku au une oro neke-lorrez bete daroen ortze-eraginaren bendeko: i ez az besterik, eriotzearen yostallu baño: agandik zirrist egiteko igesi dagik ik, eta orraitño be i arantza arñeketan oa. I ez az zindorik; eta izan be, ik aldean daroazakan naiera-bide guztiak zer zirtzilek emonak dozak. I ez az adoresurik be: eta izan be, ar errukarri-zirtzilaren zitxada bigun-samurrari be bildur dauetak ik. Atsedenk onena ta gozoena loa dok, eta i sarritan orren billa abil; eta orraitño be bildurra lango bildur dauetak ire eriotzeari, loaz besterik izan ez-eta. I ez az eu be: i lurreko autsetiko millaka ta millaka bildarrez osotua az-eta. Zori onsurik be ez az i; eztokanaren billa urduri ta artega abil-eta; eta euki daukakana, aztu egiten dok. I ez az tinkoiraunkorrik be; igar, iretargiaren antzera, edozer aldakor dok-eta. Aberats azanean, lander-txiro az; urregorritzko abetxoaren azpian bizkarra makurtzen dauen astoaren antzera, ik ire ondasun aztunak bide-arlo baten bakarrik daroazak, eta ire bizkarreko zamea erioztekak kentzen, ustuten dauk. Adiskiderik be eztok ik zelango danik be; eta izan be, eure erraietati sortu, iri aita deitu, eta eure kuntzurrun-aldetik ixuriki eurak, ire seme-alabak, or yabiltzak ubilloari, legenari ta sukarrari alaka ta biraoka, emendik lenbaño-len eroaten ez auelako. Ik eztok ez gaztearorik, ez adinik; bazkal-ondoko biaoa dalako zertxobait baño, eta bietan amesetan: eta izan be, zori ontsu dalako ire gaztearoa zartzaro lez agertzen dok, eta zar elbarrituen ondasunen begira ta eske yagok; eta aberats azanean, eztok ik ez berorik, ez maitasunik, ez azpegirik, ez edertasunik, ire ondasunak atsegin-bide izateko. Zer gelditzen dok oraindik onetan bi-

zita-izena daroanik? Ondño be bizitza onetan milla eriotza baño geiago dagoz ostonduta; eta orraitño be eriotzeari bildur dauetagu, ezbardintasunok bardintzen dauzan eriotzeari.

KAULDI'k.—Eskerrak damotzudaz apal-apalik. Ba-dakust bizitza eskatuaz, eriotzearen billa nabilela; eta eriotzearen billa ibilita, bizi-a aurkitzen dodala. Betor eriotza ori.

ELIX.—(Barrutik) Eee! Eup! Bakea bedi etxe onetan; Yaungoikoaren eskerra ta laguntza ona!

BAIT.—Nor da or? Aurrera; ondo etorgarri da gurari ori.

DUKEAK.—Yaun maite, luzaro barik barrienbarri etorriko naiztazu ikusten.

KAULDI'k.—Yaun guren-guren ori, eskerrik asko.

ELIXABETE aurrera.

ELIX.—Kauldi'ri itz bat edo bi egitea da nire egikuzuna.

BAIT.—Ondo etorria zauguz. Begira, yaun, emen dozu zure arrebea.

DUKEAK.—Baitegiburu, itz bat zuri.

BAIT.—Zeuk zenbat gura egin.

DUKEAK.—Eroan nagizu eurak ni ikusteka, nik orrei entzun al izateko lekura.

(DUKEAK eta BAITEGIBURUAK alde)

KAULDI'k.—Orain, arreba, ze pozkarri dakaztazu?

ELIX.—Ba! beste pozkarrien antzekoa; eder-ederra benetan: Angeru yaunak, zerurako arazoak dauz-eta, bere gezinari zoli-bizkorrtzat bidali gura zauz ara, zu an beti arren otsein izateko: orrazkero, gertau zadiz len-baño-len; biar artuko dozu arako bidea.

KAULDI'k.—Eztago beste biderik, ala?

ELIX.—Bapez, burua yareitelo biotza erditzeaz besterik.

KAULDI'k.—Baña, benetan, ez ete dago beste biderik?

ELIX.—Bai, neba, bizi zeintekez; bai, egon badago ebazleagan txerren-errukirik, zuk eskatzekotan zure biziya yarei bai, baña aldi berean eriotzarteraño katez lotuta eukiko zindukezana.

KAULDI'k.—Betiko baitegia, ala?

ELIX.—Bai, egin-eginean betiko baitegia; ludi guztiaren yabe ba, zintzaz be lokarritz leku baten lotuta eukiko zindukezana.

KAULDI'k.—Baña zetariko da osakai ori, ya-reipide ori?

ELIX. Osakai edo yareipide orretara zu etsiko ba'zintzakez, azala kenduazkero zugatz-enborra billusik gelditzen dan legetxe, ya-reipide orregaz zure omenaren aldorra be zurituta, narru-gorritan geldituko litzake.

KAULDI'k.—Argiago itz egidazu.

ELIX.—Ene! bildur dautzut, Kauldi; eta ika-reak artzen nau, zuk betiko omena baño beinego etsiko ez ete dozuzan bizitza gaizpe-
ra utsa ta sei-zazpi negu geiago. Ez ete dozu ilteko adorerik? Eriotzearen zirria burutapen da geien; eta osükopean zapaltzen doqun kakarraldoak bere soñean gizatza-
rrak bere eriotzaldian besteko oñaze-elo-
rriok somatzen dauz.

KAULDI'k.—Zegaitik egozten daustazu lotsa-ri ori arpegira? Ala, erabagirik artzeko la-
raz apaindutako samurtasun-bearrrik do-
dala uste dozu? Il bear ba'dot, ezkongai-
aren antzera yoango naz ilunbearen aurre-
ra, eta nire besartean estutu.

ELIX.—Ori da, ori, nire nebeari dagokion itz-egikerea; nire aitaren ilobitiko abotsa en-
tzun dot or! Bai, zuk il egin bear dozu: zin-
doegi zara zu, bizitzarik bide geztoz eukite-
ko. Azalez guren dan ordezko au..., begira-
kune tinkoz eta itz erabagiz gazteari bu-
rua moztu eta aztoreak egazlia lez zora-
keriak esi-barrurutzen dauzan au..., orrai-
ño be txerren da; barruan dauen zantar-
keria azalera agertu ba'ledi, su-lezea bes-
teko oxin sakon-andurra agertuko litzake.

KAULDI'k.—Angeru duke-ordekoa, ala?

ELIX.—Ene! arena su-lezearen yantzi marro-
tsua da, soñik gaiztetsi-askarriena estaltze-
ko, bere nagusitasuna yagolatzat dauela!
Uste ete dozu, Kauldi, nik nire neskatasu-
nari agur egingo ba'neunsto, zu yareiko,
azkatuko zindukiezala?

KAULDI'k.—Yaungoikoarren! Olangorik ezin
leike.

ELIX.—Bai, azkatuko zindukez, ak beretzako
irain barrizat artu bear leuken oben zan-
tar au egitekotan. Gau au da olangorik ai-
tazeari berari nik iguin eta nazka dautsa-
dan zera egiteko aldia, ostean zu biar ilgo
zara.

KAULDI'k.—Ez al dozu egingo olangorik.

ELIX.—Ene! nire bizia ba'litz, orratz bat bes-
tean gogoz egotziko neunke lurrera zu ya-
reitearren.

KAULDI'k.—Eskerrik asko, Elixabete maite.

ELIX.—Certu egon, Kauldi, biarko zure erio-
tzarako.

KAULDI'k.—Bai... Ba-dau ak biotzaldirik le-
gea ezarri bear dauenean legeari ziri egi-
teko, ala? Ak olangorik eztau obentzat,
urrean, edo beintzat zazpi oben nagusien-
etatik ez andientzat.

ELIX.—Zein da txikiena?

KAULDI'k.—Orrako oben ori su-lezagarri ba'
litz, a gizon orren zur izanik, beingo olgeta
yolasegaitik zelan gurako ete leuke ak be-
ti-betiko zigortu izaterik?... Ai, Elixabete!

ELIX.—Zer diñozu nire neba orrek?

KAULDI'k.—Bildurgarri da eriotzea.

ELIX.—Eta gorrotagarri lotsarizko bizitzea.

KAULDI'k.—Bai, baña iltea, eta nora ezta-
kigun lekura yoatea; leku estu-otzean etzan
eta usteldu; oartu, bero izan eta ibili da-
bilen zer au lurr-mokil oratu bat izatera-
tzea...; eta bere atseginak izan ebazan gu-
re gogoaz suzko urioletan murgiltzeko, naiz
leikerraldoz estalitako lurraldeetan otzez
dardaraka egoteko, egurats ikus-ezinetan
baituta egon, eta andik indur eskarrgaz
goitik bera ta mundua zear yaurtiteko; edo-
ta, euren gogapen eta irudimen neurriba-
koak, orretarako zegaiti seguru barik, ala-
ka ta aieneka iruditzen dabezanak baño
be okerrago egoteko...! Orrako ori buru-
ko uleak latzitetuko da! Eriotzeari dautsa-
gun bildurraren aldean bizitzarik asper-
tuen eta lotsagarriena be atsedentegi litza-
teke, adinak, minak, goseak, eta baitegira-
tzeak gure izatearen ganera ekarri leikie-
zan lorrak gora-bera.

ELIX.—Ai ene! Ai ene!

KAULDI'k.—Arreba ezti ori, bizi nadilla; ne-
bearen bizia yareitearren egingo zeunkean
obena iziateak zuritu ezeze, on-indartzat
etsiko leuke.

ELIX.—Zu bai ba-zareala astako! Sinisterik-
bako koldar ori! Zori geztko errukarri ori!
Nire gaiztakeriz egingo ete az gizon? Ez
ete dok senidekeri ire bizia ire arrebearen
lotsaririk artzea? Zer uste izango ete yoa?
Yaungoikoarren ez al daustak sinisazoko
nire ama nire aitari ustel izan yakola, olan-
go laban basati-makurrik aren odoletik ez-
tok sortu-ta. Eutso nire eupadea; il adi;
gal adi! Ik bizirik irauteko nik lotsaria
eroateaz beste biderik ez egotekotan, milla
arren egingo yoadaz i il adin..., Itzik bez i
yareiteko.

DUKEA aurrera ostera be.

DUKEAK.—Itz bat, arren, lekaima gazte, itz
bat bakarrik.

ELIX.—Zer gura dozu?

DUKEAK.—Astirik ba'zeu, itz-alditxorik egin gogo neunke beingoan zukin zeure onerako da nik eskatu gura dautzudana.

ELIX.—Asti larrik ezot izan; nik emen emongo dodan astia nire beste egitekoai ostua izango da; baña apur baten entzungo dautzut.

DUKEAK.—(KAULDI'ri bakarrean) Seme, zuok yakiteka, zuok alkarrekin izan dozen autua entzun dot. Angeru'k ezta izan eguño zure arrebea laidotzeko asmorik; ak zure arrebearen on-indarra norañño eltzen dan bakarrik ikusi gura izan dau, olan gizabio-tza obeto ezagutzeko; benetako zindotasunaren yabe dan zure arrebeak, ari guztiz pozkarri izan yakon ezetz biribila emon izan dautso: neu naz Angeru'n autorentzula, eta bide onetik dakit ori; orrazkero, gertau zadiz ilteko. Ez izan bidebako itxarorik: biar il bear dozu; belaunbikotu ta gertau zadiz.

KAULDI'k.—Itxi egidazu nire arrebeari asketskatzen. Ain gitxi maite dot bizia-ta bera kentzeko eskatuko dautsat Yaungoikoari.

DUKEAK.—Yarra'i eta ekin orretan. Agur (KAULDI'k alde).

BAITEGIBURUA aurrera ostera be.

BAITEGIBURU, itz bat zuri.

BAIT.—Zer gura dozu, aba?

DUKEAK.—Etorri zarea legetxe yoañ zadizala emendik. Neska onekin itxi nagizu apur baten. Nire gogoa eta nire yantziak, bitzuek dagoz ni lagun izanaz onek eztauela ezer galdukoaren alde.

BAIT.—Ondo dago. (Alde dagi Baitegiburua).

DUKEAK.—Lirain egin zauzan esku berberak egin zauz on: ontasun gitxiko edertasunik ezta luzaroko; lotsortasunak, ostera, zure izatearen gogo da-ta, zu beti eder-lirain eukiko zauz. Angeru'k zuri egin izan dautzun erasoa, alanbearrez eldu da nire entzuteria; eta aren yauskerearen alde beste olango auskorkeri-yazokunerik ezpa'lego, aren yauskera orri andi eretxiko neunskio. Zer egiteko zuk ordezk orren gogoa bete ta zure nebea yareiteko?

ELIX.—Oraintxe yoateko naz ari erantzuten; gurago dot nire nebea il dadilla, legezko eztan seme-alabarik izan baño. Baña enel duke ona bai ba-dagola oker Angeru'z! Dukea iñoz itxera etortekotan, eta nik ari itz egin al itzatekotan, edo nire itzak alperriko izango dira, edo agirian iminiko dot aren yaukerea.

DUKEAK.—Orrako ori ezta txarto etorriko; orraitiiño, arazoa dagonez, ak zure salakun-

tzeari zirrist egingo dautso; zu aztertu egin gura izan zauzala esango dau ak... orrazkero, ondo-ondo entzun nire onuok; nire onberatasunak zutzako urten-bide bat dakus. Nire ustez, zuk Yaungoikoaren aurrean ezetariko okerrik egiteka, iraindutako emakume errukarri bati bera aingarri dan onegiterik egin zeinkio; zure nebea lege asarrearen erpetatik yarei; eta emendik yoañ na dan dukearen ederra iritxi, arazo au entzuteko a alanbearrez iñoz atzera etortekotan.

ELIX.—Aurrera yo ta sakonagotik azaldu laidotuko enauenik edozer egiteko gertu nozu-ta.

DUKEAK.—Adoretsu da on-indarra, eta ontasuna ezta iñoz bildurtirik. Ez ete dozu iñoz entzun Marene'zkorik, itxasoan galdutako gudari bikain Perdeika'n arrebeazkorik?

ELIX.—Andera orretaz zerbait entzuna nozu izan, baita orretaz edonok ondo esaten dauela be.

DUKEAK.—Orrekin ezkontzeko zan Angeru au; ezkontzeko itza zin-bidez emon utson, eta ezteguak noz izango be izentauta egoan: ezkontzeko egiunea egin eta ezteguak birtartean andera orren neba Perdeika itxasoan ondatu zan, itxasontziáz batera bere arrebearen ezkon-saria be galduta. Baña oar zadiz zelango zartada gogor-itzala izan zan oker ori leñargi-emakume errukarri orrentzako; orretan orrek neba zindo otsandikoa galdu eban, bere arrebearentzako beti maitakor eta txeratsu ta gure yatorriari dagokon begirapentsu zana; eta arekin batera berorri egokon ondasuna, orren ezkon-saria; eta biakaz batera, itz emondako berorren senargia, on-antzeko dan Angeru au.

ELIX.—Izan ete leiteke olangorik? Olan itxi eban Angeru'k bertan-bera andera ori?

DUKEAK.—Olanixe itxi eban negarrez urtuten, eta negarrotatik bat be etzan legoriu Angeru onek ezetariko pozbiderik emonaz; bere agindu ta zin guztiak yan eta iruntsi eban. zuri-bidez emakume errukarri orri zintzotasunik-eza ezarri ta zabaldua; labur esateko, negar utsetan itxi eban, eta orretan daraqoio oraindik be emakume errukarri orrek aren eruz; eta a, orren negarrentzako arria baño gogorrago, negarrotan busti bai egiten da, baña beratu ez.

ELIX.—Eriotzea bai ba-leiteke la errukior neska zori geztko ori ludi onetatik eroango ba'leu! Bizitza onek ba-dau ustelkeririk asko olango gizonik bizirik eukiteko! Baña zer egiteko neska orrek zori gezto orretan?

DUKEAK.—Zuk errez osatu daitezazu azur ausi ori; eta osatze orregaz zuk zure nebea yareiaz ganera zure omena ta entzute ona be yareiten dozuz.

ELIX.—Erakus egidazu zelan, aba on orrek.

DUKEAK.—Len aitatuko neska orrek oraindik aldean dau lengo leiea; bere senargaiaren bidebako zakarkeriak neskato orren maitasuna itzali-bearrean, bideko oztopoak geldiazoten daben uraren antzera biziago ta yaubetu-ezinago egin izan dau. Zoakioz Angeru'ri; aren eskariari baietz bete-biribilla emon egiozu; etsi zadiz zererako bere eskabidera; bakar-bakarrik ontzat arazoz egiozuz urrengo zertxook: zu etzarella akin luzaro egongo; batzerako lekua ilun izan dadilla ta alkarri eztautsazuela itzik egingo; eta lekua orretarako egoki izan dadilla; bein ak zerok ontzat emonazkero, dana datorke eraz. Irain egindako neska orri zure ordez yoteko onua emongo dautsagu; aik alkarrekin egon izanaren ezaugarriarik agertu ba'ledi gerora, orrek beartu lei Angeru neska ori saritzera: eta burubide

onen bidez zure nebea yaraita dozu, zure omena akats barik gelditzen da, Marene erri-karria onureagaz, eta ordezko ustela billustuta. Neskea orretarako gertatzea neure lepoan artzen dot. Gure burubide au zuk al dozun bestean ondo aurrera eroateko, asmoari ederretsita ba' zengoz, orrik letorken onura bikotxak marroa ederto zurituko leuke edonoren zer-esanetik. Zer deretzatzu?

ELIX.—Burubide orren irudiak berak dagoneko poztuten nau; eta nire ustez bete-betean urtengo da ondo.

DUKEAK.—Zeuk zelan yokatzen dozun, ortxe dago egitekoa geien bat. Zoaz len baño len Angeru'gana; gau onetantxe bere oera yoteko eskatu ba'dagitzu, baietz borobila emon egiozu. Ni neu beingoan yoango naz Luka Deuna'renera; an, lekaimetxearen landetxe ur-bide sakonez inguratuan bizi da Marene biotz-yausia. An billa nagizu; eta Angeru'azkoa egizu, ara arin erdu zadizan.

ELIX.—Eskerrik asko pozaldi onegaitik. Onik eta ondo ibili, aba on ori. (Alde dagie banazean).

II AGERLEKU.—Baitegi-aurreko etxartebidea.

DUKEA, lekaide yantzita; berakin UKONDO, AKETOA, ta Erri-otseinak aurrera.

UKONDO'k.—Bai, nai ta nai ez gizonak eta emakumeak saldu-erosiaz beste biderik eza' dozu orretarako, mundu guztiari yeben-aziko orea edanazo bearko dautsagu (9).

DUKEAK.—Ene bada! Ze zaborra dogu emen? AKETOAK.—Mundu au ezta izan bein be pozik eta gogargi malleguz emolla bitik gogargiena murraturik, lur yota gelditu, ta besteari, gezoagoari, legeak azpian narrudun soñekoa erabilteko eskubidea emon dautsanazkero; eta azpian azeri ta arkume-narrudunak be bai, errugetasuna baño aberatsago izanazkero, maltzurkeria burua goian dauela ibili daitekela iragarteko.

UKONDO'k.—Ekiok ire bideari, yaun... Yaungoikoak onetsi zagizala, aba on ori.

DUKEAK.—Bai zeu be, anai. Ze okerreri egin dautzu gizon orrek, yaun?

UKONDO'k.—Ba, yaun, onek legea ausi dau; eta lapur be ba-dala uste dot, ordezkoari bidali dautsagun kaxoa aldean dauela aurkitu dogu-ta.

DUKEAK.—U! emagaldubitarteko ori, emagaldubitarteko geztu ori! i euk eragiten dokan gaiztakeriz bizi az. Inoz oartu ete az nondik datorren ik yaten dokan ogia ta ire aragiak estaltzen dauzan ire soñekoa, orra-ko orreik zelango zantarkeritik datoza?

Esaiok ire buruari: Orrein alkar-ukuketa zantar-askarritik dator nik yaten dodana, nik edaten dodana, nire soñekoak, nire bizia. Bizitzat ete dok ik olango iturri ta etorburu zikin-zantaritik datorren bizitza? Tira, arteztu egik bizibide ori, arteztu egik.

AKETOAK.—Izan be, andurrik ba-dario nire bizibideari, yaun; baño orraitño be zelango dan ikusi egin gura, ba.

DUKEAK.—Bai, txerrenak emon ba'dagiskaz obenerako zelango dan ikusbideak, i arena az. Ertzain, baitegira eroan ori; zigorra ta irakasbidea erabili bear dira abere zakar onek bererik egin eztagian.

UKONDO'k.—Onek ordezkoaren aurrera yoan bear dau, yaun; ak lendik dauka zemaituta; ak ezin dau yasan, ezin dau iruntsi emagaldudunik; emagaldudunik ba'da au, ta aren aurrera aurkeztu, oba litzakio oni agandik milla bateko bidez urrin egon.

(9) Ukondo'k emen zer esan gura dauen ezta agiri argi-argi, baño "azi,geitu, ta bete lurra" Yaungoikoaren agindua beteteko gizon-emakumeak alkar saldu-erosiaz beste biderik ez izatekotan, yeben-azi-ura edan bearko dabela esan gura dauela dirudi. Orraitño, ez-takigu yeben-azi-uraren indarra sortzea bizituteko, ala galazoteko dan Ukondo'n eretxiz.

DUKEAK.—Gizon orren akatsak azalkeribako diranez, guztiok al gintzakez batzuk dirudien bestean on-zindo ta akats-bako!

UKONDO'k.—Yaun, zure garrikoa lango lokaririk letorkio ondo onen idunari.

AKETOAK.—(LUKI dakus) Ba-dakust nire laguntzea; baiarena egingo daust orrek! Or dator gizazindo ta nire adiskide.

LUKI aurrera.

LUKI'k.—Ze barri, Ponpei zindo? Onangorik! Kaisar'en atzean lotuta! gurenda ospatze-ko aroe, ala? Orain ezin iritxi ete leitekek Pigmalion'en irudietakorik, emakume egin-barririk, eskua ziskura sartu ta andik itxita atereaz? (10). Zer erantzuten dok, ee? Zer diñok ik gogaldi onetaz, arazo ta bide onetaz? Eztok ito oraintsuengo euritean, ala? Zer diñok orretaz? Mundua lenean ete yagok oraindik be, gizon? Ze bide artu ete yok? Bide mukerra ta itz gitxilkoa, ete? Ze marro-bide artu yok?

DUKEAK.—Oraindik berean, oraindik berean! gerago ta okerrago!

LUKI'k.—Zelan yabilk nire kutuna, ire ugazabanderea? Oraindik be emagalduburutzean, ala?

AKETOAK.—Gatz-askako okela guztiak yan dauz ak eta orain bera dago gatz-askan.

LUKI'k.—Ba! ori ondo yagok; ori zuzen dok; olan izan-bearreko zozan: olan izan bear yok emagaldu gatzareanak eta emagaldu arpegia autsez zurituarenak: ziri egin ezin dakikion ondorena: bai, olan izan bear yok. Baitegira oa, ala, Ponpei?

AKETOAK.—Bai, izan be, yaun.

LUKI'k.—Ba, ori zuzen eta egoki dok, Ponpei. Agur; oa, esaik neuk bidali audala ara. Zorraitik, ala, Ponpei? Zegaitik?

UKONDO'k.—Emagaldubitarteko dalako, emagaldubitarteko dalako.

LUKI'k.—Ba, orrazkero, eroan ori baitegira: baitegiratzea ba'da emagaldubitartekoari dagokona, ba, zuzen da ori ara eroatea: izan be emagaldubitarteko da ori, ta aspaldidanik izan be: emagaldubitarteko yatorra. Agur, Ponpei on. Nire gorantziak baitegiari, Ponpei. Oraindik aintzina senar on izango az i, etxea yagongo dok-eta.

AKETOAK.—I, nire bezeru on ori, nire bai izango azala uste yoat.

LUKI'k.—Ez orixe, ni enok izango olangorik, Ponpei; nire oitura eztok ori. Nik otoi egingo yoat ire baitegaldia luzatu dadin: eta epez artu ezpa'dagik, ire adorea ainbat andiago. Agur, Ponpei zindo... Yaungoikoak onetsiko al zauz, lekaide.

DUKEAK.—Bai ue be.

LUKI'k.—Birgite'k oraindik be bere burua margoz apaintzen ete yok, Ponpei? Ja, ja! UKONDO'k.—Ekin zure bideari, yaun; aurrera.

AKETOAK.—Orrazkero, zuk eztozu izan gura nire bai, yaun?

LUKI'k.—Ez gero, ez orain, Ponpei... Ze barri da orlik zear, lekaide? Ze barri?

UKONDO'k.—Ekiok ire bideari, yaun; tiruk.

LUKI'k.—Oa, oa txakurtegira, Ponpei. (UKONDO'k, Aketoak eta Erri-otseinak alde) Dukearen ze barri dogu, lekaide?

DUKEAK.—Nik etxakiat zelango danik be. Ik ete dakik ezetarikorik?

LUKI'k.—Batzuk Errusi'ko Nagusienakin dago la diñoe; beste batzuk, Erroma'lik dala: baña zuk nondik dala uste dozu?

DUKEAK.—Nik etxakiat a nondik dan; baña dagon lekuan dagola, onik eta ondo izango al dok.

LUKI'k.—Zororen burukeria izan da ari eldu yakona, bere aginterritik alde egin ixilik eta atarako yao eztan esleketzeari elteko. Aren erbeste-aldian Angeru'k bikain egiten dau dukearena; eta a baño aurrerago yoaten be ba-daki.

DUKEAK.—Ak orretan ondo egiten yok.

LUKI'k.—Lizunkeriaz biguntxoago ba'lebil eleuskio iñori kalterik egingo: arlo orretan latzegi ta gordinegi da, lekaide.

DUKEAK.—Orrako oben ori zabalegi yak, eta gogortasunez osatu bear dok.

LUKI'k.—Bai, egia ori be, senitarte ugaridun obena da ori: lagunik asko dauena da: baña ori sustarretik ateratea ezina da, lekaide, yate ta edateagazkoa egin ezik. Or diñoenez, Angeru au ezta irazate-bide zuzenez, emakume ta gizonek eginik: egia ete da orrako ori?

DUKEAK.—Bide orrez eginik ez izatekotan, ze beste bidez izango dok, ba?

LUKI'k.—Itxas-neskaren arrautzatik datorrela zabaldu dabe batzuk; beste batzuk, eguzkitan legortutako arrain-bikoteran seme dala. Baña seguru dana da, txiz egiten dauenean, orren txixa leikerraldotu egiten dala; ba-dakit nik ori egia dana: eta ziztor da: orretan eztago ezetarik ez-bairik.

DUKEAK.—Txantxa-zale auqu, yaun, eta ik ire gogaldiaren erara itz dagik.

LUKI'k.—Olangorik! Nondik datorko gizon orri gogorkeri ori, bargetearen asaldatzea da-

(10) Eskua sakelera sartu ta andik itxita ateraten danean, geien baten andik txanponak, dirua ateraten da; au da emen Luki'k esan gura dauena. Txanponok lizunkeria ordaintzeko dira.



la-ta gizoni bizia kentzeko? Emendik alde egin dan dukeak egingo ete eukean olangorik? Eun sasikume egin dauzalako gizonik eskegi baño lenago, ak olango milla aztea ordainduko eukean. Beukan ak berak be yolas orretarako lerarik; bekian makurreri ori, eta orrek egiten eban errukibera.

DUKEAK.—Eguño etxoat entzun izan a emakumezale zanik; etzoan a orretara makurturik.

LUKI'k.—Ene! zu oker be oker zagoz, yaun. DUKEAK.—Ezin leitekek.

LUKI'k.—Nor? Dukea ez, ala? Bai, berrogei ta amar urteko zure eskekoa; ...ak emagalduren atabakara duket bat egozteko ezandua eban; beukazan dukeak bere zoroaldiak. Mozkortu be egiten zan: neuk diñotzut au, gero.

DUKEAK.—Ik agiri-agirian a laidotu egiten dok.

LUKI'k.—Yaun, aren kutunetaiko ninduzun ni. Luki ta azeririk asko zan dukea; eta ak zegaitik alde egin dauen be ba-daki-dalokotan nago.

DUKEAK.—Arren, zegaitik dala uste dok?

LUKI'k.—Ez, parkatu: agin eta ezpanen bitartean ondo gordeta euki bear dan ixilkizuna da ori: baño au iragari neinketzu orraitio... bendekorik geienak dukea gizon zurtzat eban.

DUKEAK.—Zurtzat? Oba ez, orretan etxagok ez-bairik.

LUKI'k.—Gizon arin, txori-buru, ezyakin eta santzunbako gizona.

DUKEAK.—Ik diñokana ikusi-ezinak, zorakeriak, edo ezyakinak erasana dok; aren bizitzearan yoan-alak, ak arazoak ezandua ta burutu izanak aretaz, nai ta nai ez, ori baño eretxi oberik eskatzen yoeak. Aren eginak eurak izan dadizala aren autorla, eta a ikusi-ezina yakintsu, erri-yaurle bikain eta gudari adoretu agertuko yatek. Orrazkero, ik ganora barik itz egiten dok; edo, ostantxean, ik nik baño geiago ba'dakik, geiegi baltzituden dok ire gaiztakeriz.

LUKI'k.—Yaun, nik ezagun dot a, eta maite be ba-dot.

DUKEAK.—Maitasunak zerak obeto ezagututa itz egiten yok, eta bein ezagutuazkero maitasun geiagogaz.

LUKI'k.—Tira, yaun, dekidana dakit nik.

DUKEAK.—Nekez sinisten yoat ori, ik zer diñokanik ezatik-eta... Baña, inoz dukea atzera etortekotan... eta gure arrenak orretara yoten yoeak... aren aurean erantzungo al daustak ataz esan dokanaz. Egia ba'

dok ik esana, adorerik izango al dok bein barriro esateko; neuk deituko aut aren aurrera; eta, zer yak izena, arren?

LUKI'k.—Yaun, Luki yat izena; dukearen ezagun-ezagun nozu.

DUKEAK.—Nik ari ire barri emoteko bestean bizi ba'nadi, obeto ezagutuko au ak.

LUKI'k.—Eztot zure bildurrik.

DUKEAK.—Ba! ik dukea inoz eztala atzera etorriko ditxarok; ostean ik ni aurkezleri kalterik ezin egingarriegitatz naukak. Baña, izan be, nik iri kalte gitxi baño ezin egin; ik ukatu egingo dok euk esana.

LUKI'k.—Nik olangorik egin baño len eskegiko al nabe! zuk eretxi okerra dozu nitaz, lekaide. Baña bego, itzik bez geiago onetaz. Esan al dagistazu Kauldi biar ilgo danentz?

DUKEAK.—Zegaitik il bear yok, ba?

LUKI'k.—Ostera! upeletikoaz bonbil bat bete dauelako. Guk erago dauzagan dukea al leor atzera; seme-alabarik izateko bera gei izan ez, eta bestedi olangorik izaten izten eztautsen ordeko onek yaurerri au bizi-lagunez ustu egingo dauzku gizon-emakumeen arteko ar-emona galazota; gaurdanak ara artaxoriak eztabe egin bear abirik etxegan-egalpeetan, lizunkeritsu dirata. Dukeak orraitio ilunetako eginak ilunetan erantzunazoko leukez: ak bein be ez eban ateraten argitara olangorik: atzera al leor a! Denganiño! Kauldi au nasaikeri bategaitik dago eriotz-epaituta. Agur, lekaide on: arren egin nire alde, arren. Dukeak, barriro dirautzut, dukeak barikueta be ardi-okelea yango eutzun. Orain zarregi da olangotarako; orraitio, eta beste bein dirautzut, oraindik be ak eskekeri mun egingo leuskio, eskekoak ogi urdindu ta berakatz-sundarik egotziarren; au neuk esan dodala esaizu or... Agur. (Alde dagi).

DUKEAK.—Ez aldunek, ez andik, ilkorren artean ezin alde egin, ezin zirrist egin besteak bera ebattetik; atzetik ara yoten dauen laidok on-indarririk zuriena be yo ta baltzituden dau. Non da bakaldun indartsurik asko min laidotzallearen beazunari esirik ezarteko? Baña nor datoriku emen?

ESKAL, BAITEGIBURUA, EMAGALBURUA, ta Erri-otseinak aurrera.

ESKAL'ek.—Zoaz, baite gira eroan emakume ori.

EMAKUMEG.—Ene yaun on, zakidaz on: zu begiragarri ori errukiortzat zauez: ene yaun on.

ESKAL'ek.—Birritan eta iru bider zemaitu, eta oraindik be okerreri berean yausi? Au errukiari agur egin eta edonor gordin izateko be asko litzake.

BAIT.—Ogibide orretan amaka urtetan ibili dan emagaldua, sinis egidazu, yaun.

EMAG.—Ene yaun, onako au Luki dalakoak ekarri dautzun esamesa ta ipuña yatzu; dukearen aldian Luki'k Katariñe Bendeko emakumea seindun egin eban; ak ezkontzeko itza emon eutsan emakume orri; euren señaak urtebete ta lauren egingo dauz datorren Phillipa ta Yagoba Deunen egunean; neuk euki dot sein ori; eta ikusi zelan dabilen a, alangoa, nigaitik inñondikoak esaten.

ESKAL'ek.—Urli ori, urli nasairik asko da; datorrela gure aurrera.. baitegira eroan ori Zoaz; ez itzik geiago. (Emagalduburuak eta Erri-otseinak alde) Baitegiburu, nire anai Angeru berean dago, eztago a aldatzerik. Kauldi'k il egin bearko dau biar; artu dagizala Elexakoak, eta al dan lagun-tza guztia emon: nire anaieak nire errukiaren arauz yokatu izan ba' leu, ari elitazkion yazoko olangorik.

BAIT.—Eder bekizu, lekaidea izan da akin eta eriotzarako gertau dau.

ESKAL'ek.—Arrasti on, aba on.

DUKEAK.—Zori ona ta bakea zuri.

ESKAL'ek.—Nondiko zauguz?

DUKEAK.—Ez errialde onetakorik, alanbearrez orain aldikada baterako emen egonarren; lekaidego guren-begiragarriko nozu izan, eta oraintsu Aita Gureagandik etorria nozu, agandiko berarizko arazogaz.

ESKAL'ek.—Ze barri doqu mundu zabalean?

DUKEAK.—Bapez, zindotasuna ain gexorik dagonazkero, ezatala innoz osatuko baño; barrikeri-billa dabiltz guztiak; eta edozein egipidetan zartzea galbidetsu dan bestean on-indartsu yatzu orain edozeren eta edonoren alde yartea. Nekez dago zintzotasunik asko bizirik, gizonak alkarrekin seguru bi-zi al izateko; baño segurutasunik asko dago-tzu gizonak alkarrekin lagungo askarri-rik egiteko; igarkizun onen inguruan dabil, geien baten, munduko yakituria. Barri au zarrik asko da izan, eta orraitño be egunoroko barri da. Arren, yaun, zetariko lerak ebazan dukeak?

ESKAL'ek.—Aren lerarik eta ekiterik beinena bere burua ezagutzea zan.

DUKEAK.—Zetariko atseginei emona ete zan?

ESKAL'ek.—Ak beinego esten eban inñor pozik eta gogargi eukitea, bere autorrez pozka-

rrri ta gogargiarri yakonez bera poztu baño: a edozetan neurriko dan gizazindo yatzun. Baña itxi dagigun a bere zeretan, zori ona lagun izan dakiola arren eginda; eta iragarriko al daustazu zelan gertaurik idoro dozun Kauldi. Entzun dodanez, zu a ikusten izanik zauguz.

DUKEAK.—Ebazleagandik erabagi bildurgarri-itzialik eztauela arzu autorizen dau ak, eta burua gogoz makurtzen dau zuzentzearen epaiaren aurrean; orraitño be, bere makalkeriak eraginda, iruditu izan dauz ak itxaro iruzurkor batzuk bere bizian alde: baño nik, astiro-astiro, burutik atera daustadaz irudipen itxarotsuok, eta orain ilteko gertuta etsita dago.

ESKAL'ek.—Egin dozu zuk Yaungoikoagazko zure egitekoa, eta atxilotuagazko zure egin-bearra. Gizazindo errukarri orren alde egin-alak eta geiago egin izan dodaz; nire egin-altxoak emon-ala: baño nik nire zuzentza-laguna gordin be gordin idoro doteta, zuzentzearen azkenengo itza berak dauela esatera beartu nau.

DUKEAK.—Yardukera ori egoki izango yako, olango yardukereari bere bizibideak erantzun ba' dagio; baño orretan uts egiterik yazo ba' lekikio, bere buruaren kalterako emon izango dau epaia.

ESKAL'ek.—Atxilotua ikusten noa. Ondo ta onik ibili.

DUKEAK.—Bakea lagun izango al yatzu! (ESKAL'ek eta Baiteg.ak alde).

Zeruaren ezpatea daroanak
Gordin bestean zindo izan bear leuke;
Besteen eredu izan,
Errukia gellen, on-indarra aurrera;
Ez egin besteri ez geiago ez gitxiago
Norbere utsak eskatzen dabena baño.
Bekio lotsaria inñor gordin yoaz bere
Uts kutunakaitik inñor il dagianari!
Lotsari birritan irukotza Angeru'ri
Nire okerra erazi, bereari azten itxi!
Ene! zer ez ostontzeko gizonak barruan,
Azalez angeru-antzik izan-irudituarren!
Okerrerez beteko antzak bai ba-dauzala,
Erak bere alde erak eta eretik artuta,
Armiarma nagia-aren ari zirtzil-meagaz
Zer astun-mamitsuak eratorri beragana!
Iruzur egin bear nik okerreri geztuari;
Angeru'kin arrats onetan nik etzanarazi
Egingo aren emaztegei zar ezetsiari;
Olan iruzurrak, kokomarrotuaren bidez,
Ustelkeriz ordainduko aren eskari ustela,
Eta egin-bete aspaldi-aspalditiko egiunea.
(Alde dagi).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.--MARENE'neko gela.

MARENE yezarrita agiri da; Esku-mutilla abesten.

ABESTI

Ken, ene! ken ortik begiok,
Ain ezteki ustel zinduok;
Eta begiok, egunabarrok,
Goxari iruzur dagioenok:
Baña eroan barrero nire munak,
Nire munak;

Maitasun-ikurratzak, baña alperriko ikurrazak,

Alperriko ikurrotzak.

MARENE'k.—Baztariuk ire abesti ori, eta alde egik arin, arin be arin; or yatok poza emongo daustan gizona; orren onuak sarritan ixildu yok nire gogaldi txar-asarreata. (Esku-mutillak alde).

DUKEA aurrera.

Erruki-eske nagotzu, yaun; eta ez al ninduzun idoro emen onen eresizale; zurigarrri bekit, eta sinis egidazu, nire poza, gogoz besterako izan ba'da be, nire lorrari gogoko izan yakola.

DUKEAK.—Ondo dago ori, eresiaten lilureak sarritan txarretik ona aterateko ezeze, ona txarerra zirikatzeiko indarrak izanarren. Arren, esaidazu, inor eldu ete da ona gaur nire billa? Gitxi gora-bera tertzio onetan emen aurkituko nauela agindu dauzat.

MARENE'k.—Ezta etorri inor zure billa: egun osoan egon naz etzean.

ELIXABETE aurrera.

DUKEAK.—Beti lez, sinisten dautzut... Tertzioa da izan. Epe apur bat artuizu: baleiteke zuri laster ots egitea, zure alderako dan arazoz itz egiteko.

MARENE'k. Eskerrik asko. (Alde dagi).

DUKEAK.—Tertzio onean zator; ondo etorria. Ze barri dogu ordeko on orregandik?

ELIX.—Ak luterrezko ormaz inguratutako baratza dau; baratzaren eguzki-sarrera aldeko ormeari deusala maastia dago; maasti orretarako atea burdiñezkoa da ta giltzotatik andiena da ate a idigiten dauena; beste onek maastitik baratzerako atetxo idigiten dau; gaberdi-gaberdian agana araxe yatekotzat gelditu naz.

DUKEAK.—Baña leku ori ezagutuko dozula uste dozu, ala?

ELIX.—Egon naiako begira begien albotik ara, olangorik egiten eztodanarena egin-da; bere itzetan errudunaren artegatasuna, ta bere itz eginetan nagusiaren agintzea iragarri, txukupuxuka itz egin-ala, gitxienez birritan erakutsi daust arako bidea.

DUKEAK.—Ez ete zare alkarrekin itundu Marene'ri bete-bearreko litzakion beste ezertaz!

ELIX.—Ez, beste ezertotaz bez, bakar-bakarrrik gure alkarganatzeta ilunetan izango dala; gu alkarrekin egotea labur-labur izango dala iragarri dauzat; eta izan be, nire begira dodan mirabeakin yoango nazala esan dauzat; eta a ni nire nebeaz itz egi-ten noala sinistuta dagola.

DUKEAK.—Ederto eundu ta yosita dago ori. Oraindik eztautsat iragarri Marene'ri gure asmoa, ezta itzik egin be orretaz... Eeee! barruan zanguz, ala? Urten ortik.

MARENE aurrera ostera be.

Arren, egizu ezaguera neskato onegaz; zure onerako datortzu au.

ELIX.—Neuk be beste orrenbeste gura neunke.

DUKEAK.—Buruan sartu ete yatzu nik begirunez zarabildazala?

MARENE'k.—Lekaide on, ba-dakit ori, eta olangoxe zareala aurkitu dot.

DUKEAK.—Orrazkero, emoi-ozu zure eskua neskato oni, zure belarrietarako ipuin bat gerturik dauka-ta: zuon begira egongo naz ni; baña zoli ta bizkor ibili; gau lurruntzua ur da.

MERENE'k. Alde egin gurozu emendik nikin, ala? (MARENE ta ELIX.'ek alde).

DUKEAK.—Lekuarena ta anditasunarena! milloi ta milloi begi azal-uts yagozak igan yosi-yosita! Ik eginetazko barri ustel-guzurti alkarregaz onezkorik ezin egin dabe-nez heterik idaztiak eta idaztiak yabiltzak or zabal, emen aztertu, or induzka ibili ondoren! Milla buruk, euren motelaldietan, euren amesak ezarten dauskaez, eta eurak zelan-gura egiten dauskaez erpaka ta atza zalka!... Ondo etorriak. Ze itunben, ze egiune egin dozue?

MARENE ta ELIXABETE aurrera otera be.
 ELIX.—Berorren lepoan ariuko dau orrek egikizuna, aba, olango onurik emon ba' dagiozu.
 DUKEAK.—Nire onua ta ederretsia bakarrik ez dira orrek dauzanak, nire eskabidea be baño.
 ELIX.—Eztozu asko esan-bearrik, bakar-bakarrik esan alde egiterakoan txutxuputzuka:

"Gogoan euki orain nire nebea".
 MARENE'k.—Ez izan nire bildurrik.
 DUKEAK.—Ez izan ezeren bildurrik be, alaba maite orrek: a zure senar da aurretiko-egiunez; zuok olan alkartzea ezta obenik. Yakizu aganako zure eskubidearen zuzenak zuritzen dauela zure marroa. Tira, goazen; oraindik ezin ebagi garirik, oraindik ereiteko dago-ta. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--Baitegiko gela.

BAITEGIBURUA ta AKETOA aurrera.

BAIT.—Aitor ona, yauntxo. Ete dakik gizoni burua moztuten?

AKETOAK.—Gizona mutilzar izatekotan bai, yaun: baño ezkonduzik izatekotan, a emaztearen buru da-ta, nik eztaikit emakumeri burua moztuten.

BAIT.—Tiruk, yauntxo, txantxetok or itxita, artez erantzun egidak. Biar goxean ilteko dozak Kauldi ta Bernardin. Emen baitegian dogun giza-eskegitzalleak bere egitekoan laguntzalle bear yok; ari lagun egitea igan artu gura ba'dok, ire oinbiurretatik ire burua askatuko dok: ostantxean, atxilo-aldi osoan eukiko dozak aldean, eta azkenean ire bizkarreko autsak ondo aztinduta aterako augu; eta izan be, i agiri-agiriko lizunkeri-bitarteko izana augu.

AKETOAK.—Yaun, ni legeaz besterako lizunkeri-bitarteko nik gogoratzen dodan baño lenagotik nozu; baño orraitio be pozik izango naz legezko giza-eskegitzalle. Nire bizibide-kideakandiko irakaspena etxat txarto etorriko.

BAIT.—Eee! Nazkaseme! Nondik dogu Nazkaseme?

NAZKASEME aurrera.

NAZKASEME'k.—Deiez zagotaz, ala, yaun?

BAIT.—Yauntxo, emen dok biar ire egikizunear lagun izango yakan laguna: egoki ba'deretxak, egik orrekin urterako eguinea, eta dagola ori emen ikin: osteam, erabili egik oraingoarren, eta ortik zear bidali. Igandik begirapen andirik eskatzeko etxagok ori, lizunkeri-bitarteko izana dok-eta.

NAZKASEME'k.—Lizunkeri-bitarteko, yaun? Uf! gure ogibidea loitu egingo dau orrek.

BAIT.—Tira, yaun; zeu be etzara ori baño az-tunagorik; egaki batek eragingo dauso astakinari. (Alde dagi).

AKETOAK.—Arren, yaun, zure etxura onarren... eta izan be, arpegi ta etxura onak zeunkez zuk, eskegitzallearen ez dalako, bai

dalako zertxobait ezpa'zeu... zure ogibideari ganora deitzen dautsazu, ala?

NAZKASEME'k.—Bai, yaun; ganora, naiz antze, naiz trebetasun.

AKETOAK.—Nik entzun dodanez, margolaritza antze yatzu: eta zure emagalduko, nire ogibidekoak, euren arpegiak margoztu egiten dabez-eta, nire ogibidea antze dala erakusten dabe: baño ni eskegitekotan, inor eskegiteko ze antze bear dan, ezin dot as-mau.

NAZKASEME'k.—Yaun, antze dok onako au.

AKETOAK.—Erakutsi egidazu.

NAZKASEME'k.—Edozein gizon zindoren yantziak egin-eginean yatorkozak lapurrari: txikiegi ba'yatokozak, a ta guzti be lapurrak andirik askotzat yaukazak; andiegi ba'yatokozak, lapurrak txirik askotzat yaukazak; orrazkero, edozein gizon zindoren yantziak egin-eginean yatokozak lapurrari.

BAITEGIBURUA aurrera otera be.

BAIT.—Itundu zarie alkarrekin, ala?

AKETOAK.—Yaun, ni orren otsein izateko gertu nago, damututa dagonarentzat eskegitzallearena lizunkeri-bitartekoarena baño ogibide obea da-ta; orrek okerzeria egin dauenari azkespenea eskatzen dautso.

BAIT.—I, yauntxo, ik artuik ardurea zubilla ta aizkorea biar gozeko lauretarako gertatze-ko

NAZKASEME'k.—Tiruk, lizunkeri-bitarteko; neuk irakatsiko dauskat nire ogibidea; yarra ait.

AKETOAK.—Ba-dot ikasi-gogorik, yaun; eta ba-dot itxarorik, ni zuri burua moztu-bearrean aurkitzekotan, orretan ganorarik asko erakutsiko dautzudala; orrenbesterik zor dautzut zure on eginen alderako.

BAIT.—Dei egin ona KAULDI ta Bernardin'i. (Aketoak eta Nazkaseme'k alde). Batari erruki dautsat: ezta izperrik be besteari, nire anai ba'litz be, giza-iltzalle da-ta.

KAULDI aurrera.

Begira, Kauldi, emen dago zure eriotzarako agindua; orain gaberdri geldi-ixila da, eta biar goxeko zortziretarako betiko bizitzara yonnik izan bear dozu. Nondik da Bernardin?

KAULDI'k.—A loak gogor artuta dago, neke errugabea bidaztiaren azur unatu gogorretan datzanean bestean, Eztau atzarri gura.

BAIT.—Onik egin al ba'neuntso gizon oni! Tira, zoaz eta gertau zadiz. Baña entzun; ze zarata da ori? (Barruan ate-yoka). Pozik emongo al dautzu Yaungoikoak! (KAULDI'k alde).

Ba-noa!... Kauldi txerakorrarentzako azketsik naiz bein-beinean ez ilteko agindurik batorrela ditxarot... Ondo etorria, aba.

DUKEA aurrera ostera be.

DUKEAK.—Gabeko maizagarririk onen eta ongilleenak erdian artuko al zabez, baitegiburu on ori! Nor izan da emen oraintsu?

BAIT.—Inor bez iluntze-yoaleak yoazkero.

DUKEAK.—Elixabete be ez, ala?

BAIT.—Ez.

DUKEAK.—Orrazkero, emen dira luzaro barik.

BAIT.—Ze pozbide dogu Kauldi'ntzat?

DUKEAK.—Olangoren itzarorik izan ba-dogu.

BAIT.—Ordezko ori ondo gordin dogu.

DUKEAK.—Orrenbesterik ez, orrenbesterik ez; ipuztariko idien antzera, edo-ta estropadetan batera urten, batera aurreratu ta elburura batera eltzen diran ontzien antzera, aren bizitza ta zuzentza andia batera urten, oin-bardin yoan, eta batera eltzen dira bide-burura: ak here aginpidez besteai agindu ta eragiten dautsena bere buruan egiten dau, ezipide gurenez bere burua benederatuta; besteai galazoten dautsena berak yan ba'legi bai ba-litzake a gordin; baña olangorik egiten eztauenazkero, a zuzen da... Eldu dira aik. (Barruan ate-yoka; Baitegiburu urten). Baitegiburu au atsegingarri-begiko da. Meatz yazoten da baitegiburu galtzaiduzkoa gizonen adiskide izaterik... Ostera! Ze ots dogu ori? Beste mundukoen batek dakar ori arin, orren etentzaka ate-yoka eragoteko.

BAITEGIBURUA atzera dator, atetan dagonari itz eginda.

BAIT.— Or egon bearke dau agintzaduna ya-gi ta sartzeko baimena ak emon arteño; dei egin yako.

DUKEAK.—Ez ete dozu Kauldi'gazko aurka-agindurik, ala biar il egin bear dau?

BAIT.—Ezetarikorik bez, yaun, ezetarikorik bez.
DUKEAK.—Baitegiburu, larri-larri arginabarra dagoneko izanarren, eguna argitu baño len barririk izango dozu.

BAIT.—Zori onez, zuk zerbait ba-dakizu; orraitio be, nire ustez, ezlator aurka-agindurik; olangorik eguño yazo danaren barririk ez-togu; ganera, Angeruk epaitegind bertan mundu guztiaren aurrean esan izan dau besterakoa.

GEZNARI aurrera.

DUKEAK.—Nagusienaren aldetiko gizona dogu au.

BAIT.—Eta emen dator Kauldi'ntzako azketsa.

GEZNARIAK.—Nire yaunak bidali dautzu idatiz or au; eta nire agoz beste agindu au, eztagizula alde egin or datortzun aginduren txatalik txikienetik be, ezta aldiaren, egitekoaren, eta beste ganetikoen aldetik be. Egun on; uste dodanez, ia egun da-ta.

BAIT.—Beteko dot aren agindua. (GEZNARIAK alde).

DUKEAK.—(Bere kitean) Aren azkescpena dogu ori; azkestzallea bera tarteko ta kide dan obenez erositako azkescpena; goikoak egin izan dauen okerreriak bai egin arin bideak; makurkeri-ındarrak erurkirik iragarten dautsena, makurkeriaren zaletasunarren erakusten dan errukia gizon makur-geztoa adiskidetzat esteraño eltzen da... Ze barri dogu, yaun?

BAIT.—Esan dautzut: ni nire egitekoan nagi izango nazalakoaren bildurrez-edo, Angeruru yaunak, oi eztan zirikada ta akulukada onegaz, iratzarri egiten nau; andi eretxita nago, onangorik bein be ezta yazo-ta.

DUKEAK.—Arren, irakur egidazu.

BAIT.—(Irakurri dirakur) "Besterakorik entzun dagizunik entzun, Kauldi'na lauretan egin bear dozu; eta, arrastian, Bernardin'ena; nire nasaigarritzat, Kauldi'n burua bostetan bidali egidazu. Bear danez egizu onako au; gogoan euki onako onek orain esan bear dogunak baño zer-ikuski andiagorik dauela. Orrazkero, utsik ez egin zure egitekoan, zure galbidez erantzun bearke dozu-ta". Zer deretzatzu, yaun?

DUKEAK.—Zer dogu gaur arrastian burua moztu bear yakon Bernardin ori?

BAIT.—Boemi'n yaioatariko; baña seintzarotik emen azia; bederatzitarteotan emen baitegitan atxilo doguna.

DUKEAK.—Zelan yazo zan orain alde egina dan dukeak gizon ori azkatu naiz lepo egiteka eukitea? Aren ekandua beti olan egitea zalakotan nago ni.

BAIT.—Orren adiskideak orren epia betetzea bein baño geiagotan geroagoratzea lortu izan dabe; eta izan be, orren errua, orain Angeru yaunaren agintzaldirarte ezta argi-argi agiri izan.

DUKEAK.—Eta orain argi-argi agiri ete da?

BAIT.—Argi baño argiago, eta berorrek be ez-tau ukatu.

DUKEAK.—Baitegialdian garbairik iragarri dau, ala? Zetara ete dago orain?

BAIT.—Eriotzeari eztautso ezetariko bildurrik, eriotzea mozkorraren loa langotsu dala diñio-ta; len-aldi, orain-aldi ta geroaren arduraga, kezka, bildurga da; ilkor danaren kezkarik txikienik be eztau, mukulu utsal baillizan bizi izanarren.

DUKEAK.—Onu-bearrean dago orrako ori.

BAIT.—Orrek eztautzu entzungo onurik; ori baitegian beti egon izan da azke ta yarei; emoiouzu emendik alde egiteko baimena, eta eztautzu urten gurako: egunean bein baño geiagotan egoten yatzu mozkurtuta, egunak egiten ezpa'dauz mozkor bategaz. Bein baño geiagotan iratzarri izan dogu ori burua moztutera daroagularena eginda, ta orretarako guzurrezko agindua erakutsita; baña olango be eztautso deusik eragin.

DUKEAK.—Gesu baten barriro eragoko dau tsagu gei oni. Baitegiburu, zure arpegian irarrita agiri dira zure zindotasuna ta zure gizatasauna: orrako ori oker irakurten ba'dot, nire trebetasun zarrak iruzur egiten daust; baña nire trebetasunak orretara adoretuta, nire burua galdugordean iminiko dot. Lepo egiteko agindua or dozun Kauldi ori ezta Angeru bera baño eriozgarriago legearen aurrean. Au egia dala zuri agiri-agirian nik iminteko, lau eguneko epea baño eztautzu eskatzen Kauldi iltoko; eta orretarako esku-agiri edo emari galbidetsu bat egin bear daustazu.

BAIT.—Zetarikorik, arren?

DUKEAK.—Aren eriotzea geroagoratzea.

BAIT.—Ai ene! zelan egiteko olangozik? Ordua izentauta daukat; eta beren-beregiko agindua, ta bere zigor-zemaiz, burua Angeru'ri bialtzeko. Aren aginduai utsik egiteak ni Kauldi'n zori berean yarri nengike.

DUKEAK.—Nire anaigoko zin gurenez baitzen zaudaz, nire burubideari yarraitzekotan etxatzula okerrik etorriko. Bernardin dalako orri burua moztu eragin egiozu goxalde onetan, eta orren burua bidali Angeru'ri.

BAIT.—Angeru'k biak dauz ikusirik, biak dauz ezagun, eta nik egin emariaz oartuko da.

DUKEAK.—Ba! eriotzea bera antz-aldatzalle andi dogu, ta zuk be orretan dozun zure ganorea erantsi ziñeio. Kendu bizarra ta uldu burua; eta esan orrako ori damutuaren eskabidez egin dozula, orrek eriotz-aurretik berorren burua billustu eriotz gura izan dauela-ta. Ba-dakizu zuk, orrako ekandu ori lepo egiten yaken geienena dala. Burubide onetan ezek uts egin ba'dagitzu, zuri eskerrak emon eta zori ona opa izanaz ganera, nire anaigoko Deun Iraslearen zin dagitzut, neure biziaz erantzungo dodala zuri okerrik etorri eztaizun.

BAIT.—Parkatu, aba on; orrako ori nire zinaren aurkako da.

BUKEAK.—Nori egin dautsazu zin, dukeari, ala aren ordezkoari?

BAIT.—Dukeari ta aren ordezkoai, bitzuei.

DUKEAK.—Okerrik eztozula egin uste izango ete zeunke, dukeak zure egitea zuzen izan dala autortuko ba'leu?

BAIT.—Baña ze egi-antzik dago orretan?

DUKEAK.—Antza bakarrik ez, segurutasuna baño. Orraitiño, bildurrez beterik zakustazan-azkero, eta ez nire yantzik, ez zindotasunek, ez zuri buruan sartzeko nire aleginek ezin nasaitu zauezala ikusirik, asmorik neban baño aurrerago yoko dot zure bildur guztiak uxatzeko. Begira, yaun, emen dozudukearen eskuz idatzia ta aren ikurratza. Ezagun yatzu dukearen idazkerea, orretan ezto ez-bairik; ikurratza be etxatzu ezezagunik.

BAIT.—Bai, biak dodaz ezagun.

DUKEAK.—Ingi onek diñona duketa ba-datorrela da; laster irakurriko dozu astiz; eta or aurkituko dozu egun bi barru a emen dala. Onako au eztaki Angeru'k; eta izan be ak, gaur berean, barri bakana dakarren idazkia artuko dau; ba-leiteke dukearen eriotzearen barri dakarrena izatea; ba-leiteke a lekaretxeren baten sartu dalarena; baña, alambearrez, olangozik eztago or idatzita. Begira, Artzi-izarra agertu da. Ez gelditu agoa zabalik zerok zelan izan leitekezan asmaka; eragozpenak utsal ta aska-errezak dira bein zelan goitu yakinazkero. Dei egin zure giza-eskegitzalleari, eta kendu burua Bernardin'eri; beingoan entzungo dot aren autoritza, eta leku oberako onurik emongo dautsat. Oraindik be agoa zabalik, liluratuta zagoz; baña onako onek erabagia osoan arrazoko dautsu. Goazen emendik; ia-ia eguna argitu da. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--Leku bereko beste gela.

AKETOA aurrera.

AKETOAK.—Nire ogibideko etxean gañe ezagunen artean aurkitzen naz emen; Oberdone ugazabanderaren etxean nagola uste izateko da au, eta izan be, emen dira aren bezeru zarretatik anitz. Lenen, emen dogu Oldarti yaun gaztea; onako au gure etxe onetako dogu, eun eta larogei ta amar esterlin-libera'ren lain ziran lasta-ingi ta arabote-edariz yabetu zalako; eta guzti orregaz txanpon garbitan ogei ta bost marko baño eztauz egin: bai ba, garai atan arabote-edariak eskabide gitxi eukan, atso zar guztiak ilik ziran-eta. Gero, emen dogu Buztanikara yauna, Burusoil dendariaren eskariz, satinezko madari-margoko lau bat soñekoren yabe egin zalako, eta orain soñekook eskeko dala aldarrikatzen dabe. Urren, emen dogu Geldigor gaztea, eta Zintti yaun gaztea, eta Zalduntxo yauna, eta Gosakil yauna, aitzo ta sastakaizalea, eta Etxagungeiyausi, Sakuto gizona il ebana, eta Alerreska yauna, aztamakilaria, Oskilokarri yaun adoretsua, ibiltari andia, eta Astakirten basatia, Suil'eri aitzokadak emon estozana, eta, nire ustez, berrogei geiago; guztiok izan dira gure ogibideaz artu-emon andia izan dabenak, eta orain emen dagoz, "Yaungoikoaren alde nekatu izan diralako".

NAZKASEME aurrera.

NAZKASEME'k.—Yauntxo, ekak ona Bernardin.
 AKETOAK.—Bernardin yaun! Yaqi egin bear dok, eskegi egin bear augu-ta. Bernardin yaun!
 NAZKASEME'k.—Ostera! Eee! Bernardin!
 BER.—(Barrutik) Izurriak erango al dautzuez eztarriok: nor dago oro zarataka? Nortzuk zarie?
 AKETOAK.—Ire adiskidea, yaun; giza-eskegitzalea. Arren, yaqi egin bear dok i ilteko.
 BER.—(Barrutik) Alde egik ortik, zital orrek, alde egik logura nok-eta.
 NAZKASEME'k.—Yaqi egin bear dauela esaiok, ta arin egin be.
 AKETOAK.—Arren, Bernardin yaun, atzarri adi i il arteño, eta gero egik lo.
 NAZKASEME'k.—Barrura sar adi, ta ekarrik ona.
 AKETOAK.—Ba-dator, yaun, ba-dator: badantzut lasta-otsa.

BERNARDIN aurrera.

NAZKASEME'k.—Aizkorea zubil-ganean ya-gok ala, yauntxo?
 AKETOAK.—Gertu-gertu, yaun.
 BER.—Kaixo, Nazkaseme! ze barri dakartzu?
 NAZKASEME'k.—Benetan, yaun, zure otoitzak egingo al dozuz, zurearena egiteko agindua eldu da-ta.
 BER.—Zital ori, gau osoa egin dot edaten; enago ilteko gerturik.
 AKETOAK.—Ba! olan obeto, yaun; eta izan be, gau osoan edaten egon eta goxean goiz eskegiten dabenak urrengo egun osoan gogorrigo egin lei lo.

DUKEA aurrera.

NAZKASEME'k.—Begira, yaun, emen dator zure gogo-aita. Txantxetan gabiltzala uste dok, ala?
 DUKEAK.—Yaun, nire goi-maitasunak eraginda, eta emendik arin alde egin bear dozula entzunda, zu laguntzen, zuri poza ekarten, eta zukin otoi egiten etorri naiz-tzu.
 BER.—Lekaide, ni ez; nik gau osoa egin dot edaten, eta asti geiago gura dot geriau nadin, ostein tiroka atera bearlo daustez garraunak: nik eztot ederretsiko ni gaur iltea, ez orixe.
 DUKEAK.—Ba! yaun, gaur il bear dozu, bai; eta orrazkero, arren, begira egizu zuk artu bear dozun bidea.
 BER.—Zin daqit gaur enazala ilgo, olango-rik niri iñok buruan sartuta.
 DUKEAK.—Entzun baña...
 BER.—Ezta itzik be: niri esatekorik ba'dozu, zatoz nire gelara, andik gaur eztot alde egingo-ta, (Alde dagi).
 DUKEAK.—Ori eztago gertu ez ilteko, ez biziteko. Arrizko biotz ori!... Eldu orri, mutilak; ekarri zubilera. (NAZKASEME'k eta AKETOAK alde).
 BAITEGIBURUA aurrera.
 BAIT.—Yaun, zelan aurkitzen dozu atxiloa?
 DUKEAK.—Eztago gertaurik; olan ezin il leitek; eta dagonetan ori beste mundura bidaltzea gaiztakeri litzake.
 BAIT.—Aba, gaur goxean emen baitegi onetan il da sukar itzalez Erragozin dalako bat itxas-lapur ezagun-ezaguna, Kauldi'n adineko gizona; egin-eginean be aren burua ta

bizarra Kauldi'nen margokoak dauz. Zer deretxatu gaiztetsi au iltea aldi egokiagorako, ori gertu dagonerako itxi ba'dagigu? Eta Kauldi'n antzekoago dan Erragozin'en burua opatu ordezkoari?

DUKEAK.—Ene! orrako ori Yaungoikoak bidaltzen dauskun alanbearra dogu! Bertatik bidali egiozu; Angeru'k izentauko ordua aurrera doa; ak agindu dauenez, burua bidaltzeko ardurea artu egizu; bitartean, bere kiteitik iltea errukarri baldar-trakets orri buruan sartzen aleginduko naz.

BAIT.—Onako au, aba on, beingoan egingo dogu. Baña Bernardin'ek gaur arrastian il bear dau; eta zelan eta non eukiteko Kauldi, a bizirik dala yakitekotan niri letorkidan galdu-gordea uxatzeko?

DUKEAK.—Au egizu: „Kauldi ta Bernardin, biak, imini egizuz gela ezkutu banatan. Eguzkiak emen beko izakiai ure agur txeratsua birritan egin baño len zure seguru-tasuna agirian ikusiko dozu.

BAIT.—Ni zure agindura nozu edozertan.

DUKEAK.—Arin gertau eta bidali burua Angeru'ri. (BAITEGUBURUAK alde).

Orain idatziko dautsat Angeru'ri... Baitegiburua berak eroango dau; ...idazkian dagonak iragarriko dautso ari ni etxetik ur nazala, eta erriaren eskariaren eskariz, agirian sartu bear dodala Biena'ra; nikin trikitx egiten iturri gurenera etorteko dei egingo dautsat, uria baño legoa bateko bidea berago; eta andik astiro-astiro, yai andiri dagokonez, aurrera egingo dogu Angeru'kin.

BAITEGIBURUA aurrera ostera be.

BAIT.—Amen burua; neuk eroango dot.

DUKEAK.—Egoki da-ta, zatoz arin atzera; eta izan be, zure belarriez besterenek entzun bear eztabezan zer batzuk iragarri gura neunskizuz.

BAIT.—Al dodanik arinen egingo dot. (Alde dagi).

ELIX.—(Barrutik) Bakea etxe onetakoai, ee! erdu ona!

DUEAK.—Elixabete'n abotsa da ori... Ori bere nebearen azkespena etorri danentz yakiten dator ona; baña nik bere zori onaren ezyakinean eukiko dot, gitxien uste dauenean bere etsipenetik pozik andiena izan dagian.

ELIXABETE aurrera.

ELIX.—Parkatu!

DUKEAK.—Egun on zuri, alaba maite-eder orri.

ELIX.—Ainbat ohea zu lango gizon gurenetik datorren txera ori. Dagoneko bidali ete

dau ordezkoak nire nebearentzako azkespena?

DUKEAK.—Ak mundu onetatik yarei dau a, Elixabete: burua moztu ta Angeru'ri bidali yako.

ELIX.—Ez al donbait! olangorik ezin izan leitelte.

DUKEAK.—Bai, olantxe da: zure zurtasuna, alaba, zure epe ixilez erakutsi egizu.

ELIX.—Onangorik! agana yoan eta begiak aterako dautsadaz.

DUKEAK.—Etzauez artuko aren aurrera.

ELIX.—Kauldi'n zori txarreko; Elixabete'n errukarri! mundu zikin ori! Angeru gaiztetsi-gaiztetsi ori!

DUKEAK.—Orregaz eztautsazu ari minik egiten, eta zeuri onaren bilderrik ez: orrazkero, epe artu; zure auzia Yaungoikoari gorantzi egiozu. Oar nik dirautzudanaz, azkenengo txataleraño egia dala idoroko dozu-ta; biar dator dukea etxera;... bai, legortu zure begiak; aren autor-entzula dan gure lekaretzeko batek iragarri daust onako au. Dagoneko eroan dautse ak barri au Eskal eta Angeru'ri, eta aik ari uriko atetara urteteko gertatzen daragoioe, euren eskubideak an aren eskuetan izteko. Al ba'dozu, zure zurtasunari nire gogoko diran bide onak arrazo egiozuz; olan egitekotan, zori geztoke askarri orregaz zeuri gogoko yatzuna egingo dozu, dukearen ederra, zure apana, ta erri geienaren ederretsia iritxiko dozu.

ELIX.—Zuk ni zelan zuzendukoren begira nagolzu ni.

DUKEAK.—Orrazkero, Kepa lekaideari emoi-zu idazki au; dukearen atzera etortez ak bidali daustana bera da: esaiozu, agiri onen bidez, gaur gabaz MARENE'n etxerako dei egiten dautsadala. Zure ta Marene'n auziaz yakitun egingo dot a; eta ak eroango zautz dukearen aurrera: eta bein an zareala, Angeru salatu ta salatu ekiozu, aren burua eskatuta. Nigazko, ni zin gurenez lotuta nago-ta, ni enaz izango an. Zoaz zu idazki onegaz; biotz argiz bandera egizuz zure begietako negar goibelok; ez izan gaugergero uste onik nire anaigo gurenagan nik okerreko biderik arrazo ba'dagitzut... Nor dogu emen?

LUKI aurrera.

LUKI'k.—Arrasti on, lekaide; nondik da baitegiburua?

DUKEAK.—Barruan ez beintzat, yaun.

LUKI'k.—Ene! Elixabete lirain, nire biotza zurbil dago zure begiak orren gorri ikusita;

epe artu bear dozu zuk: nik eztoz beste biderik ogi ta urez bazkaldu ta apaldu baño:

burua galdukoren bildur naz nire sabela bete ba'dagit; betekada bat litzakit asko nire burua galtzeko bidean yarteko, lizunkerira yota. Baña or diñoenez dukea emen izango dogu biar. Sinis egidazu, Elixabete, nik maite neban zure nebea. Duke zar gogalditsu ta okulu ilunzalea etxean egon izan ba'litz, zure nebea bizirik litzatekean. (ELIXABETE'k alde).

DUKEAK.—Yaun, dukeak eztau zetan arrotu zuk ataz iragarten dozunaz: baña, zori onez, aren entzutea ezta zure esanen bendekorik, ez orrein erakorik.

LUKI'k.—Lekaide, zuk eztozu ezagun dukea nik bestean ondo: a zuk uste baño lizunberagorik yatzu.

DUKEAK.—Tira ba, orretaz egunen baten erantzun bearko dok. Agur.

LUKI'k.—Ez, etxon; laqun egingo dautzut; zer politik esan neinketzu dukeaz.

DUKEAK.—Dagoneko esan daustazak asko ta geiegi be ataz, yaun, egizko ba'dozak: egizko ezpa'dozak, barriz, bat be eztoz asko.

LUKI'k.—Bein bere aurrera yoan bear izan neban neskato bat izortu nebalako.

DUKEAK.—Olangorik egin dok, ala, egin?

LUKI'k.—Bai, arrano, egin izan dot: baña zinbidez ukatu-bearrean aurkitu nintzan; ostean mizpiru ustel arekin ezkonduazoko nin-duen.

DUKEAK.—Yaun, ire lagungoa zindo ta osasungarri baño atsegingarriago dok. Emen geldi adi.

LUKI'k.—Ez orixe. Etxartebidearen azkenarño lagun egingo dautzut. Lizunkeri-auturik gogoko ezpa'yatzu, olangorik gitxi baño eztoqu egingo. Bai, lekaide, ni legena lan-gotsu nozu: irustarbiz igurtziarren, or yarraiko naiatzu intsigita.

IV AGERLEKU. ANGERU'neko gela.

ANGERU ta ESKAL aurrera.

ESKAL'ek.—Ak idatziko idazki bakotzak bes-teetakoa guzurtatu egiten dau.

ANGERU'k.—Bai, kakomakorik, zirriki-marra-karik eta ezalkarkidegorik asko dabe aren idazkiak. Aren egiteak zoroarenen antz andi iragarten dabe: Yaungoikoarren, aren zurtasuna ez al da moteldu! Eta zegaitik urten ari atetara, ta gure aginpideak ari atzera emon?

ESKAL'ek.—Ezin dautsat antzik emon be.

ANGERU'k.—Eta zegaitik aldarrikatu bear dogu a sartu baño ordubete lenago, artutako irainik arteztutea iñok gura izatekotan, olangoak euren eskabideak etxartebideetan egin bear dabezala?

ESKAL'ek.—Orretarako bere zegaitiak erakusten dauz: alaka guztiak amaitu gura dauz: gero gure aurka etorri leitekezan esames eta burukerietatik gu yareitearren, olangok gure aurka ezetariko indarrrik izan ezta-gian.

ANGERU'k.—Tira ba, aldarrikatu dadilla ori be, arren: eguerdi-aurrean goxetik elduko naz zurera: iragarri zuk ari bidera urteten

yoan bear daben gizonik gurenen eta andikiak.

ESKAL'ek.—Neuk egingo dot ori, yaun: ondo ta onik ibili. (Alde dagie).

ANGERU'k.—Gau on...

Nire egite zantarrak osoan aldatu nau, antzutu ta edozetarako moteldu egin nau. Neskato bat izortuta! eta olangorik egin dauena olangoen egilleen aurka legea ezarriazo dauen goiko agintaria berbera!... Baña zelan salatzeko ak ni, bere lotsa minbereak berak bere neskatasunaren galtzea aldarrikatu barik? Baña sentzunak atzera eragingo dautsio eta izan be, nire sinisgarritasuna andi baño andiago data, ixileko okerrerik ezin eragin leio zirkinik, ukutuaz bat olangorik egin gurako leukeana nastuta itxi barik. Ak bizi izan bear eukean, bildur izan ezpa'nintz gazte iskanbillatsu-oldarti ak, bizia laido gorriz erosi izan dauela ikusirik, nire aurka egunen baten eta orretarako erarik etorkonean apena artuko ebala. Eta orraitino be bizi al litz! Ai ene! Bein errukiari ta on-indarrari baztarrera eragin eta bizkara emonazkero, dana doa oker; gura geunke, ta eztoqu gura (Alde dagi).

V AGERLEKU.—Uritik landako larra ta soloak.

DUKEA, bere soñekoz, eta KEPA lekaidea aurrera.

DUKEAK.—Tertzio egokian emon idazkiok. (Idazkiak damotsoz). Baitegiburuari ezagun yakoz gure asmoa ta gure burubidea. Gure egitekoa asi dogunazkero, yarra gure esanari, ta gure berarizko asmoari intsigi-intsigita ibili; arazoak eskatu-ala, bein onetara, bein bestera yokatuarren. Zoaz, Palbi'nean dei egin eta esaiozu ni non nagon: barri berbera emon Balendin, Erro-

landa, ta Karasu'ri, eta esaiozue turutak ekarteko uri-atetara; baña lenen, Palbi bidai egidazu.

KEPA L.'ak.—Beingoan egingo dot zure agindua. (Lekaideak alde).

BARRI aurrera.

DUKEAK. Eskerrik asko, Barri; arin ibili az orraitio: tiruk, ibili egin bear yoagu. Gure adiskideetarik beste bat elduko yakuk ona laster guri txera egiten, ene Barri zintzo. (Alde dagie).

VI AGERLEKU.—Uri-atetik urreko etxartebide.

ELIXABETE ta MARENE aurrera.

ELIX.—Zearretara ta kakomakoka itz egiteko lotsa naz; ni egia artez esatera eginda nago; zuri dagotzu a olan salatzea: baña orrako ori neuk egiteko onua emon izan daust, ak diñonez, elburu onuragarri-rako. MARENE'k.—Aren agindura ibili zadiz.

ELIX.—Ganera, ak esan daust, berak alan-bearrez nire aurka ta bestearen aldo itz egitekotan, nik orrako orri andi ez eristeko; bere yokera ori elburu gozorako osakai mingots langotsu izango dala-ta.

MARENE'k.—Kepa lekaidea gura neunke...

ELIX.—Ene! Ixi! lekaidea etorri da.

KEPA lekaidea aurrera.

KEPA L.'ak. Erdu, dukea aurrera etorri-ala aren bidean aurkituko zarien tokia idoro dautzuet. Birritan yo dabe turutak; uritarrik zindoen eta urtenak euren tokitan yarri dira uriko atetan, eta dukea laster da uri-barruan; orrazkero, goazen, alde emendik. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.—Uriko atetatik urreko guztien enparantza.

MARENE (mosua estalita), ELIXABETE, ta KEPA, au urrinago. Aurrez-aurreko ateak zear sartzen dira DUKEA, BARRI, Yaunak; ANGERU, ESKAL, LUKI, BAITEGIBURUA, Erri-otseinak eta Uritarrak.

DUKEAK.—Ondo aurkitua, ene lengusu begiragarri-begiragarri ori; gure adiskide zar eta zintzo, pozkarri yaku zu ikustea.

ANGERU'k. eta ESKAL'ek.—Zori ontsu atzera etorrera au naqusi maitagarri orri!

DUKEAK.—Eskerrik asko ta biotz-biotzetik zuoi bioi. Zuon yokabidea aztertzen ibiliak gara; zuon zuzentzeaz entzun izan doguzan gorapenak anditan be andi izan dira-ta, gure biotzak ezin dau besterik, erriaren esker onak artzeko zuok aren aurreratu baño, gero geuk zuoi sari oberik emon arteño.

ANGERU'k.—Zuganako nire zorra geitu baño eztozu egiten zuk.

DUKEAK.—Ene! zure irabazia zarataka dago;

eta oker nengoke zure irabazia nire biotz-barruan gorde ta ostondu ba'nei, ori, borontzeko izkiz idatzita, geroaren aginek eta aztutearen igurtzik manatu ta deuseztu eztagian, arresiz inguratuko tokian gordegarri da-ta. Ekazu zure eskua, eta bendeoak ikusi ta yakin dagiela agiriko txerak barruko biotz ona iragarten dabela... Erdu, Eskal; zuk gure aldamenen ibili bear dozu nire beste eskutik: irozka onak zarie zuok.

KEPA ta ELIXABETE aurrera.

KEPAL'ak.—Orain da zure eretia; gedarrez, zarataka itz egin eta belaubiko yarri aren aurrean.

ELIX.—Zuzentza, Duke yakal ori! Zuzendu zure begiak laidotu oneqana, enintzake azarriko esaten neskato iraindugana! Agintari lain ori, ez loitu zure begirik nire alaka egiazkora baño lenago beste ezetara zuzen-

- duta, ta niri zuzena, zuzena, zuzena, zuzena egin arte!
- DUKEAK.—Azaldu zuri egindako okerreriak. Zetan? Nork? Labur esan: amen Angeru yauna, zuzena emongo dautzuna. Ustu egiozu zure barrua.
- ELIX.—Ene! Duke aingarri ori, zuk txerrenagana bidaltzen nozu yareikuntza-billa: zeuk entzun egidazu; eta izan be, nik esango dodanak, edo zigorra ekarriko daust, nire esanik sinistu ez-ta, edo zugandik zuzena lortu; entzun egidazu, bai, entzun egidazu emen bertan.
- ANGERU'k.—Ene yaun, nire ustez, ori burutik eginda dago: ori berorren nebearen alde eske ibilia yat, zuzenez burua moztu yakonaren alde.
- ELIX.—Zuzenez izan be!
- ANGERU'k.—Eta orrek garratz, zorrotz eta inñondiko eraz itz egingo dau.
- ELIX.—Inñondiko eraz, baña orraitño be egi utsa esanez itz egingo dot nik: eta izan be, ez ete da inñondiko Angeru'k zina ausi izana? Ez ete inñondiko Angeru giza-iltzalle izatea? Angeru lapur ezkontza kutsatzalla azaluts, neskato-izortzalla izatea, ez ete da inñondiko baño inñondikoago?
- DUKEAK.—Bai, ori inñondikori inñondikoen da.
- ELIX.—Nik esan dodan guzti-guztia egi ta inñondiko dan baño egiago ezta ori Angeru dala; bai, amaika bider egi da, egi guztian azken-epaialdiraño egi da-ta.
- DUKEAK.—Ken neskato ori ortik!... Orren errukari! Orri burua makaldu egin yako.
- ELIX.—Nagusi ori, Yaungoikoarren, zuk mundu onetako poz eta nasaialdiaz besterik badagola sinisten dozunazkero, ez al dautsazu nire auziari yaramonik egin ez egingo, ni burutik eginda nagolakotan: ez etsi ezintzat, ezin-antza dauelako bakarrik; zer bat bakarrik da ezina, zera, lurrean dan zital-gezorik andienak yarri, ben, zuzen, oso-antza eukitea, Angeru'k lez; ori ta guzti be, bere edergallu, ezaugarri, eskubide, andiki-agiri, era-mera ta guzti be Angeru izan dateke zitalik zitalena, gizonik zirtzilena; sinis egizu, nagusi yaual orrek, ori olangorik baño gitxiago ba'da, ori ezer be ezta; baña ori olangorik baño geiago da, orrena lango gaiztakeriarentzako izenik ba'neu izan.
- DUKEAK.—Nire zindotasunarren, ori burutik eginda ba'dago, nik uste dodanez, orren zorakeriak sentzunaren antzik andiena dau. Zorori eztautsat entzun eguño zerak olan urrengorik urrengo arira datozala esaten-eta.
- ELIX.—Duke txeratsu ori, ez ekin lelo orri; ez uste izan ni burutik eginda nagonik nasai enagolako; baña zure adimenari lan eragiozu egiak argi egin dagian, guzurra egizat agertzerano ezkutauta ta ostonduta dagola dirudian egiak.
- DUKEAK.—Egia esateko, burutik eginda eztagozanetatik amaika ba-dago orrek baño buru-argitasun gitxiago dauenik... Zer esan gura dozu?
- ELIX.—Izortze-okerreriagaitik burua moztu dakion epaitu izan daben Kauldi'n arrebea nozu ni; Angeru'k epaitu dauenarena; lekai-melxen angu aiztagotarako aztertzen nengoan au nire nebeagana bidali ninduen: Luki dalako bat izan zan aldi atan geznari...
- LUKI'k.—Neu naz urlu ori, zuri txeratsu orri eder ba'yatsu; Kauldi'n aldetik yoan nintakon orri, eta orren neba errukariaren askespena Angeru yaunagandik iristeko aleginak egiteko eskatu neuntson.
- ELIX.—Ori da arako a izan be.
- DUKEAK.—Iri etxak esan itz egitekorik.
- LUKI'k.—Ez, ene yaun on; baña eztoz ixilik egon gura izan.
- DUKEAK.—Orrazkero, neuk gura yoat orain; ez egik aztu, gero; eta eure buruaren alde itz egin bear dokanetan, Yaungoikoarren, ez al dok bear eztanik esango.
- LUKI'k.—Seguru zagoz olantxe egingo dodala.
- DUKEAK.—Seguranta ori euretzaiko gorde egik; gero.
- ELIX.—Gizazindo onek nire esatekotik zerbait esan dau.
- LUKI'k.—Ori ondo.
- DUKEAK.—Ba-datekek ori ondo egotea; baña i eu ez abil ondo, ire aldiz aurretik itz eginda... Ekiozu.
- ELIX.—Yoan nintzan ni ordezeko kaltegarri zital-askarri orregana.
- DUKEAK.—Burutik zerbait eginaren esakerea da orrako ori.
- ELIX.—Parka egizu, esakerea eztoakio gizonari, gizonak eginari baño.
- DUKEAK.—Ondo dago; gizonak eginari... Ekin.
- ELIX.—Labur esango dot... Bear ez diran zerak baztarrean itxiko dodaz: zelan alegindu nintzan orri buruan sartzen, zelan arren egin neban, eta belaunbikotu nintxakon, zelan orrek gogor egin eustan, eta zelan nik erantzun neuntsan... zer guztiok banan-banan eta zeatz esatea luze yoango litzake-ta. Orrako guztiaren azken askarria esaten asten naz orain naibagez eta lotsaz; orrek ez eban askatu gura izan nire nebea, nik orren neurri bagako lizunkeriarri nire soin garbia ez opatzekotan; eta aiko-maikorik

askoren ondoren, nire zindotasunak burua makurtu eban nire nebeaganako errukiak benderatuta; orren gurarira yari nintzan. Baña urrengo goxaldean, bere leia zantarra asebeteta, nire nebearen buruaren eske agindua bidali eban.

DUKEAK.—Egi-antzik izan be orrek. Ut, ut!

ELIX.—Egia dan besteko antzik al leu onek!

DUKEAK.—Yaungoikoarren, zori txarreko errukarri orrek, zuk eztakizu zer diñozun be, edo ostantxean norbaitek irakaspen gorrotagarritz erosi izan zauz gizon onen omenaren aurka. Lenen, onen zindotasunak ezta ezetariko akatsik... urren, iñori ezin etorri lelikio burura bere be ba-diran okerreriakaitik iñori gogor egiterik; beronek olangorik egin izan ba'leu, astakinaren ontzi batean beronen gaiztakeria ta bestean zure nebearena imini izango ebazan, eta biak bardin astun agertuaz, zure nebeari ez eutsen burua moztu izango. Norbaitek eragin zauz zu orretara: egia autor egizu, eta esaizu non onuz etorri zarea onak alaka.

ELIX.—Onetan gelditzeko, ala? Orrazkero, zeruko gotzonok, Yaungoikoaren osein zori ontsuok, epe emon egidazue; eta, orretarako aldia eldu dadinean, iragarri ta atera argitara orain batu-batu eginik dagon gaiztakeria!... Yaungoikoak yagongo al zauz zu, txeratsu ori, zori txarretik. Ni, onenbesteko iraina ta laidoa artu izan dodazan au, ba-noa emendik, iñok sinisten eztaustala!

DUKEAK.—Izan be, zuk besterik eztozula gura be uste dot... Betor erri-otseinik! baitegira! eroan neskato ori. Olango axe erre-bolada! aidotzallerik gure ur-urreko danaren ganera yausten itxiko dogu, ala? Onako au, ezinbestez, ondo asmatuko marroren bat dogu. Nor da zure asmoaren eta zure onak etortean yakitun?

ELIX.—A emen egotea gurako neunkeana, Koldobika lekaidea.

DUKEAK.—Aba zindoren bat, ezta? Nok dau ezagun Koldobika dalako ori?

LUKI'k.—Ene yaun, neuk dot ezagun; iñoren arazotan musturra sartzea gogoko yakon lekaide yatzu a. Gizon ori etxat egiten bape gogoko: erri-gizon izan ba'litz, eta ez lekaide, ene yaun, zu agintzatik alde eginik zintzazanean ak zure aurka esan ebazan itz batzukaitik astinaldi ederrik emon izango neuntsan.

DUKEAK.—Nire aurkako itzak? Lekaide ederra yoaqu, urrean, orrako ori! eta emakume erukarri au gure ordezkoaren aurka ekitera yari izan ba'dau!... Billa egidazue lekaide ori.

LUKI'k.—Oraindik antxinarik ezta, bari, ens yaun, emakume ori ta a lekaidea ikusi ne bazan baitegian; lekaide lotsabage yatzu a, zirtzil-zirtzila.

KEPA L'ak.—Onetsia zadiz, nagusi yaukal txeratsu ori! Ni or bazterrean egon naz, ene yaun, eta zuri guzurak esaten eragoioela oarrtu naz. Lenen, emakume onek oker salatu dau zure ordezkoa; eta izan be, gizon ori eztago loituago emakume orri ukutu naiz ori orbanduta, emakume ori oraindik yaiteko dan gizonek loituta dagon baño.

DUKEAK.—Orrez besterik aztoqu sinistu be egin. Ezagun dozu zuk neskato orrek aiatu dauen Koldobika abea, ala?

KEPA L'ak.—Nik a gizon yaungoikoakozko ta gurentzat dazagut eta daukat; ez gizon zirtzil eta mundu onetako zeretan sartzen dakiantzat, gizon onek iragarri dauenez; eta neuk dirautzut, gero... a ezta, gizon onek guzurrez besterik esanarren, zu txeratsu-maitagarri orretaz okerreko zerik esan izan dauena.

LUKI'k.—Ene yaun, zitalik zitelenak bestean erago dautso ak zure aurka txakurrenak esaten; sinis egidazu.

KEPA L'ak.—Tira ba, a garaiz etorri leiteke bere burua zuritzeko; baña une onetan a gexorik dago, iñondiko sukarez. Angeru yanaren aurkako alaketaren bat bidean zala ak entzunda, aren eskariz nator ni onak, ak dakiana, egia ta guzurra, bere agotik bailitzan esateko; eta noz-gura deitu dakionean, bere esanok zin-bidez eta beste edo-zetariko hidez argituko ei dauz. Lenen, emakume onegazko... gizon zindo aingarri au orren zakar eta artez-arte salata zuritzeko, emakume orri entzun bear dautsazu, bere salakuntzea iñok aintzakotzat eztauela artzen berorrek be ikusiaz ganera, guzurra dala berorrek autortu arteño.

DUKEAK.—Lekaide on, dantzugun, ba orrek zer diñon. (ELIXABETE eroan daroe, zainduta; eta MARENE dator aurrera). Yazoten dan onek ez ete dautzu eragiten irribarrik, Angeru yaun?... Yaungoikoarren! Noragiño eltzen dan zirtzil errukarri batzuen euren burua erakusgurea! Ekazuez yezar-leku batzuk... Tiruk, Angeru lengusu; arazo onetan ni enok izango alderdikeritirik; eu izan ire arazoaren ebazle... Lekaide, au dogu autorlea, ala? Bere arpegia erakutsi dagiala lenen, eta gero itz egin.

MARENE'k.—Parka, ene yaun; nik eztoz erakutsiko nire arpegia nire senarrak agindu arteño.

DUKEAK.—Ostera! ezkondua zauguz, ala?

MARENE'k.—Ez, ene yaun.

DUKEAK.—Neska zara, ala?

MARENE'k.—Ez, ene yaun.

DUKEAK.—Orrazkero, alargun, ala?

MARENE'k.—Ezta, ene yaun.

DUKEAK.—Ba, orrazkero, zu etzara deusik be; ez neska, ez alargun, ez ezkondurik?

LUKI'k.—Ene yaun, zirilda dateke; eta izan be, euretaiko asko ez dira ez neska, ez alargun, ez emazte.

DUKEAK.—Ixilduazo egizue urli ori: berorren alde itz egiteko auzirik al leu orrek.

LUKI'k.—Ondo dago, ene yaun.

MARENE'k.—Ene yaun, ba-dautort ni eguño enazale ezkondu; eta neskarik be enazala dautort: nik ezagutu dot nire senarra; eta orraitño nire senarrak eztaki ni eguña ezagutu nauenik.

LUKI'k.—Orrazkero, ene yaun, a mozkortuta egoan; ezin izan leiteke bestetara.

DUKEAK.—Ixilaren onerako, i eu be olantxe al engo.

LUKI'k.—Tira ba, ene yaun.

DUKEAK.—Autortza au ezta Angeru'n aldekorik.

MARENE'k.—Orain noa orretara, ene yaun: izortzeaz Angeru salatzen dauen emakumeak salakuntza berbera egiten dautso nire senarrari be; ak diñonez, a nire senarrak nik nire senarra nire besartean neban aldi berean izortu eban; nik nire senarra nire besartean euki ta ortiko mañtasun-ondorena etorren bitarte berean.

ANGERU'k.—Niaz besterik salatzen ete dau ak?

MARENE'k.—Ez nik dakidala.

DUKEAK.—Ez? Zuk diñozunez, zure senarra be bai.

MARENE'k.—Bai, egin-eginean, ene yaun, eta orrako ori Angeru da, berorren ustez nire soña eguño ezagutu dauenik eztakiala, baña Elixabete'na ezagutu dauelakotan dagona.

ANGERU'k.—Iñondiko iraina da au... Dakusgun zure arpegia.

MARENE'k.—Nire senarrak agintzen daust; orain bai erakutsiko dot nire arpegia.

(Kentzen dau arpegiko estalgia)

Angeru biotz-gogor, au yatzu zuk bein begiragarri zala zin egin zeban arpegia; au dozu zuk zin-bidezko eginez zureagaz estutu izan zeban eskua; au da Elixabete'nagaz batzeko zan zure soñagaz batu zan soña, eta baratz-etxean arena zalakotan nik opatu neuntzun soña.

DUKEAK.—Ezagun dozu emekume au, ala?

LUKI'k.—Soñez, emakume orrek diñonez.

DUKEAK.—I, yauntxo, bego; ixilik ago.

LUKI'k.—Ixilduko naz, ene yaun.

ANGERU'k.—Ene yaun, bai, autortu bear dot emakume ori ezagun dodala; eta zazpi urte da gu alkarrekin ezkontzea aiatu izan neuntsala; baña ezkontza ori ausita gelditu zan, alde batetik, orrek agindutako ezkon-saria egiunean itundua baño gitxiagora etorri zalako; baña batez be, orren entzute ona, orren buru-arinkeriz, arinagotu zalako; eta azkenengo bost urteotan nik orreri eztautsat itzik egin, ori eztot ikusi, ezta orren barririk izan be, nire omen eta zindotasunaren zin dagidanaz.

MARENE'k.—Duke zindo, argia ortzetik, eta itzak agotik datorkuzan bestean, egia sinisgarri ta on-ndarra egi-iturri dan bestean, ni gizon orri emaztegai-bidez itzez zinik biribildu leitekean bestean edo gogorrago nago lotuta; eta, ene yaun, lengo egunez baño eztala, orren baratz-etxean, emaztea ezagutzen danez ezagutu nindun orrek. Au egia danazkero, itxi egidazu nire belauganetik nasai yaigten, ostantxean ementxe goiditu nadilla lurrari yosita, arrizurizko oroitallu bainintzan!

ANGERU'k.—Orain arte irribarre baño eztot egin izan; orain, ene yaun on, zuzentzearen eskubide guztiak emoidazuz; nire epea agortu da. Orain oartzen naz, emakume zirtzil-eyakinok gautxori zitelen batek eraginda dabiltzanak baño eztirala. Emoidazu, ene yaun, orrako ori nor dan idoroteko biderik.

DUKEAK.—Bai, eta biotz-biotzez emongo be; eta zure biotza asazkau arteño zigortu egizuz... Zuk, lekaide tentel orrek, eta zuk asmo dongako emakume orrek, emendik yoan danakin bat eginda, uste ete dozue zuon zinak, deun guztien izenez eginak izanarren be, gizon onen lain eta sinisgarritasunaren aurka, guzlien oneretxiz ikurraztuta dagon onen sinisgarritasunaren aurka zuon autorpenak ezetariko indarrak daukien?... Zu, Eskal yaun, nire lengusuakin yezarri zadiz; zure nekeaz lagun zakioz irain au nondik datorren idoroteko; ba-dago beste lekaiderik be orrek bultza dauzanik: bidali norbait aren billa.

KEPA L.'ak.—Emen al lego a, ene yaun; eta izan be, a izan da emakumeok datzera yarri izan dauzana; zure baitegiburuak daki a non dagon, eta a yoan leiteke aren billa.

DUKEAK.—Zoaz, egizu egikizun ori lenbaitlen. (BAITEGIBURUAK alde). Eta zuk, nire len-

gusu zindo ta ondo baitu orrek, auzi au entzutea zuri dagotzu-ta, zuri egindako irainetaz zeuk zer-gura, zeuri deretxatzunez egizu edozein zigorbidez. Nik apur baterako emendik alde egin eta emen izten zauedaz: baña ez egin emendik zirkinik, iraintzalleozkako erabagiak ondo artu arteño.

ESKAL'ek.—Ene yaun, zeatz aztertuko dogu arazoa. (DUKEAK alde). Luki yaun, ik ez ete dok esan ik ba-datikala Koldobika lekaide ori gizon zitzil-lotsabako dala?

LUKI'k.—Cucullus non facit monachum: ak ez-tau zindorenik ezer soñekoez besterik; eta dukearen aurka txakurrenenik txakurrenenak esan izan dauzana da a.

ESKAL'ek.—Ago emen, arren, a etorri arte, eta esan dokana arpegira egotzi egioi: urli argi dala aurkituko dogu lekaide ori.

LUKI'k.—Biena osoan eztago orretan ari geiago egitekorik, ezta a bardintzekorik be. Nire omenarren.

ESKAL'ek.—Dei egiozu ona beste bein arako Elixabete'ri. (Otsein bati dirautso). Akin itz egin gura neunke. Arren, ene yaun, itxi egidazu ari itanduten: zeuk ikusiko dozu zelan estutuko dodan nik a.

LUKI'k.—Ez beste orrek baño obeto, neskato orren autorpenez.

ESKAL'ek.—Zer diñok?

LUKI'k.—Ba, yaun, nire ustez, zuk bakarrean artu ta erabili ba'dagizu, ak lenago autortuko dautzu: ba-leiteke agirian autortzeko lotsa izatea.

Erri-otseinak aurrera, ELIXABETE'kin.

ESKAL'ek.—Erdi ilunetan ekingo dautsat neskato orri.

LUKI'k.—Ori ,ori; emakumek gaberdiz buruarin dirata.

ESKAL'ek.—(ELIXABETE'ri) Tira, neskato: zuk esaneko dan-dana ukatzen dauen emakume zindorik ba-dago emen.

DUKEA, lekaidez yantzita, ta BAITEGIBURUA aurrera ostera be.

LUKI'k.—Ene yaun, or dator baitegiburuckin nik esan dautzudan zital-malmutza.

EKAL'ek.—Tertziorik onenean dator:... zuk ez egin orri itzik geuk zuri dei egin arteraño.

LUKI'k.—Ixilik.

ESKAL'ek.—Ator ona, yaun: ik bultzau dozak emakumeok Angeru yauna laidotzera, ala? Ik bultzau dozakala autortu yoek oneik.

DUKEAK.—Guzurra da ori.

ESKAL'ek.—Ostera! eztafik non agon, ala?

DUKEAK.—Zure leku gurenari lotsa izan egiozu! eta txerrenak nozik-bein omenik izan dagiala bere yezarleku goriagaatik!... Non-dik da dukea? Ak entzun bear leusbidaz nire esatekoak.

ESKAL'ek.—Geu gara Dukea; eta geuk entzun gura doguz zuk esatekoak: zuzenez itz egin, gero.

DUKEAK.—Azarri ta adoretzu bai beintzat egingo dot. Baña, ene! gaxo-errukarriok, ezeriagana zatoze asuri-eske? Agur zuon zuzentza-eskakizuna! Dukea yoanik da, ala? Orrazkero, zuan auzia be yoanik da. Dukea ezta zuzen beraganako zuon deia olan bazarrtuta, zuok aztertzea zeuok salatu bear dozuen zital berberaren agoan itxi dau-ta.

LUKI'k.—Au da arako zitala, alangoa; au da nik esan dautzuedana.

ESKAL'ek.—Lekaide ezbeagirarri ta ezguren ori! Gizon lain au salatzeok emakumeok erostea ez ete da asko, orrez ganera ago lotsabakoz eta zure itzen autorla bere belarriak dirala, orri zital deitzeko? Eta gero orregandik duke beraren arpegia begiratu, zuzentzarik-ezaz a salatzeok? Ken ori emendik; zildaietara ori... An luzatuko zauguz azur-giltzarik azur-giltza zuri egia atera arteño. Onangorik! zuzentzabaga dala?

DUKEAK.—Ez berotu orrenbesteraño: dukeak eztau gurago zildaian nire atzik luzatzea bererik luzatzea baño; ni enaz aren ben-dekorik, ezta erri onetakorik be. Lege-erri onetako nire egikizunak emen Biena'n begiak zabalik euki izan nabe, eta ustelkeria emen irakiten eta bor-borka, ganezka egiten ikusi izan dot; legeak eginda guztitariko utsentzako, ori bai, baña utsai iñok yaramonik egin ez-eta, agindu gogor-gordinak bizartegikoen antzeko dira, yaramongarri bestean irrigarri...

ESKAL'ek.—Lege-erriari laido ezarten! baitegira ori!

ANGERU'k.—Luki yaun, zuk ezin ete dozu salatu ori ezetan? Ori da zuk agotan erabili izan dozun urlia, ala?

LUKI'k.—Bai, orixe da, ene yaun. Ator ona, aba buru-soil ori. Enok ezagun, ala?

DUKEAK.—Ire abotsez ezagun aut, yaun. Baitegian egin naioan ikin trikix dukea emendik landa zanean.

LUKI'k.—Bai ete? Eta gogoan ete dok ik dukeaz esan euana?

DUKEAK.—Ondo baño obeto, yaun.

LUKI'k.—Bai ete, yaun? Eta dukea lizunke-ribera, buru-arin, eta dollor ete dok, ik aldi atan iragarri euanez?

DUKEAK.—Ik olangorik iragarri baño len nire lekuan besterik imini bear dok: ik euk bai esan euan olangorik dukeaz; eta ori ta asko geiago ta txarragorik be bai.

LUKI'k.—Askarri-askarri ta gaiztetsi-gaiztetsi ori! ez ete neuskau surretatik tenk egin i xil-duazoteko ik olango txakurrenak esaten eragoioanean? (OARRA. Zezen naiz beste abereen bat surretatik estuta dogunean, bear eztan biderik artu ba'dagi, bide zuzeneratzeko lokarritik tenk egiten dautsagu).

DUKEAK.—Dukea neure burua bestean maite dodala dautort nik bein eta ostera be.

ANGERU'k.—Begira zelan orain argi egin gura leukean zital orrek, bere salkeri-irain-laidoen ostein, gau ilun-baltzaren ostein egun argi-argi egin-guraka!

ESKAL'ek.—Olango gizonik ezta iñok itzik egiteko lain be. Baitegira! eroan ori... Nondik da baitegiburua?... Eroaizu ori baitegira! morrollorik asko ezarri ateari: eztagiala geiago itzik egin... Emakume itzontziok be eroan, baita euren beste kidea be! (BAITEGIBURUAK eskuak ezarten dautsoz DUKEA'ri).

DUKEAK.—Etixon, yaun; etixon apur baten.

ANGERU'k.—Onangorik! gogor egiten dau, ala?... Lagun akio,Luki.

LUKI'k.—Tira, yaun; tira, yaun! goazen, yaun: u! Buru-soil ori, zital guzurti ori! ik buruan txotinoa, estalgia bear dok, eztok? Erakutsik, zital orrek, ire arpegia, eskegita eukiko al aue! eztok kendu gura, ala? (Lekaide-xtotinoa kendu, ta DUKEA agirian yarten dau).

DUKEAK.—I az eguño lenen dukerik egin izan dauen zitala... --Lenen, baitegiburu, itxi egidazu iru yatorrok baitegiratzen... --Ez alde egin, yaun (LUKI'ri); lekaideak eta ik beingoan alkarrekin itz egin bear yoek-eta: eldu ori.

LUKI'k.—Onako au eskegitea baño txarrago izan dateke.

DUKEAK.—Ik txarto esana parkatuta yagok; (ESKAL'i) yezarri zu.-- Beste orren lekua geuk artuko dogu.-- (ANGERU'ri) Yaun, zure ederragaz: ete dozu oraindik gauz izan lekikizun itzik, burubiderik, naiz lotsarik-ezik? Olangorik ba'dozu izan, ori bekizu itxarogari ta esaizu esateko dozuna nik nire esatekoak esan baño len.

ANGERU'k.—Ene yaun bildurgarri ori, zu, maitagarri ori, Yaungoiko altsuaren begiak letgetxe nire oinkada ta oñatzen yarra ibili izan zareanazkero, nire gaiztakeria baño be errudunago izan bearlo neunke nik nire barrua ezin-ikusia dala uste izateko. Orraz-

kero, nagusi on, ez ekin luzaroago lotsarizko nire auziari; nire autorpena bedi nire epaibide: gero, bertatiko epaia ta orri darrakion erioztea dira nik zuri, maitagarri orri, eskatzen dautzudan zer bakarra.

DUKEAK.—Erdi ona, Marene... --Esaizu, emon izan ete dautsazu emakume oni ezkontzeko itzik?

ANGERU'k.—Bai, ene yaun.

DUKEAK.—Zoaz, eroan egizu au emendik eta ezkondu zadiz onekin bertatik.--Lekaide, zuk ezkondu orreik: eta ori egindakoan, erdu ona ostera be, Zoaz orreikin, baitegiburu. (ANGERU'k, MARENE'k, KEPA'k eta BAITEGIBURUAK alde).

ESKAL'ek.—Ene yaun, yazokune onen iñondikotasunak baño arritzenago nau ni gizon ori zindo ez izateak.

DUKEAK.—Erdi ona, Elixabete: zure nagusi da orain zure lekaide. Len zure arazoan onulari zintzo izan ba'naiatza, yantzia aldatuz nire biotza ezta aldatu-ta, emen nozu oraindik zure alde zure otseintzarako.

ELIX.—Asketsi, porka egidazu, ezyakinez, nik zure bendeko onek, zu, nagusien ori, nire otseintzan erabili ta nekatu izana.

DUKEAK.—Asketsi, parkatu yatzu, Elizabete. Eta orain, neskatu maite, len bestean nasai yoka egizu gutaz. Ba-dakit zure nebearen erioztek zure biotza mindu-mindurik dauena; eta ba-dateke zu andi eretxita egotea, besterik nazalakotan nire burua ostonduta zure nebearen bizia yagoteko ainbeste alegindurik, zegaitik nire burua ta nire ala baitauean erakutsi ezlodazan a ilten itxi baño len. Neska txeratsu-txeratsu ori, nik uste baño lenago etorri dan aren erioztek nire asmoak alperrik galdu izan dauz. Baña bego a betiko bakean! bizitza a au baño bizitza oberik da; geiago bildurrik eztauen erioztea, bildur izateko bizi dan bizitza baño ohea: zure nebea orren zori ontsu dala yakitea bedi zure poz eta nesagarri.

ELIX.—Olantxe da izan be, ene yaun.

ANGERU, MARENE, KEPA ta BAITEGIBURUA aurrera ostera be.

DUKEAK.—Zuk adoretzu yagon izan dozun omenari irudimen lizunez irain eta laido egin izan dautsan or datorren gizon ezkonbarria asketsi, parkatu egin bear dozu, Elixabete, Marene'arren: baño orrek zure nebea eriozgarri etsi dauenazkero... berori errudun izanik, birritan errudun izan be, zure garbitasun gurena ausiz eta zure nebea yarsitelo agindua ausiz... legea bea,

berorren agotik be, gedarrez dago "Angeru Kauldi'n orde, eriotzea eriotzearen orde". Bai, arin eta itsumustuan ibili izanaren ordaina arin eta itsumustuan ibiltea da; astiro ibiliarena, astiro ibiltea; kidekoa, kidekoz kitututen da, eta neurri neurria betorko. Orrazkero, Angeru, ire gaiztakeria orren agri danazkero... eta ukatuko ba'eu ukatu, alperrik litzalik... Kauldi'k aren ganean bere burua makurtu eban zubilera epaitzen augu i, an ilteko, eta bizkortasun berberagaz ilteko... --Ken ori emendik.

MARENE'k.—Ene yaun maitagarri-maitagarri ori! eztoz uste niri irri egiteko senarrik emon izan daustazunik!

DUKEAK.—Zure senarra da zuri irri egin dauzuna, zure senar egitez. Zure ezkontzea zure omenaren alde egoki zala uste izan dot nik; ostantxean, orrek zu aragiz ezagutu zauzala or yakiteak okerrik ekarri eiskion zure geroari; orren ondasunak, orreri kenduz, gure izanarren, zeuri damotzuz, eurrekaz senar oberik erosi dagiketzun.

MARENE'k.—Ene yaun maite ori, nik eztoz besteren amesik, ezta oberenik be.

DNKEAK.—Ez izan orren amesik; azkenengo itza esanda gagoz.

MARENE'k.—Ene yaun txeratsu ori... (Belaunikotu egiten da).

DUKEAK.—Astia alperrik galdu ta alperrik nekatuz besterik eztozu egiten... Eroan ori ortik eriotzara... --(LUKI'ri) Orain, yaun, igazkoa.

MARENE'k.—Ene yaun on ori... Elixabete ezti, nire alde yarri zadiz; ekazuz zure belau-nak, eta geroko nire bizitza guztian nire bizitza osoa zure olseintzarako emongo dautzut.

DUKEAK.—Senzun barik, buru barik eragiten dautsazu orri: zure arazoarren belaunikotu ba'ledi, neskato orren nebearen gogoak bere ilobi-estalgia ausi, ta andik urtenda, ikaratuaren ikaratu, bere arrebea artu ta emendik eroan egingo leuke.

MARENE'k.—Elixabete, Elixabete ezti ori, orraitio be belaunikotu zadiz nire aldamenean: ez esan ezer, baña eragi zure eskuak, --neuk esango dot esateko dana. Or diñoenez, gizonik onenak len gaizto izanak dira: eta, geien baten, askozaz obe dira len arean geizto izanak: olangorik izan dateke nire senarra be. Elixabete ori, ez ete zara belaunikotuko nire alde?

DUKEAK.—Kauldi'n eriotzeagaitik ilten da a.

ELIX.—(Belaunikotu) Yaun eskuzabal-eskuzabal ori, eder ba'yatzu, gizon eriotz-epaitu

ori nire nebea bizirik ba'litz legetxe begiratu egizu: ni ikusi arteño orrek zindo yokatzen ebalakoaren susmorik ba-dot izan, eta olangorik sinistu be egiten dot: orrazkero, ez al da ilgo. Nire nebeari zuzena baño etxakon egin, berak eginagaitik ilzan-eta: Angerugazko bere egitea elzan eldu bere asmoa bestean urrin, eta elbururabidean ildako asmotz eortzi bear da: gogapenak gogapen, asmoak asmo dira: eztabe mamirik; gogapen uts dira asmoak.

MARENE'k.—Orixte dira, ez besterik, ene yaun.

DUKEAK.—Alperriko da zure eskaria: zutundu, gero... Beste gaiztakeririk etorri yat burura... --Baitegiburu, zelan yazo zan Kauldi'n burua ekanduz besterako orduan moztutea?

BAIT.—Olanitze agindu eustelako.

DUKEAK.—Orretarako beren-beregiko agindurik izan zeban, ala?

BAIT.—Idatzizko agindurik ez, ene yaun; ixileko geznariz iragarri eusten.

DUKEAK.—Orregaitik zure ogibidetik alde eragiten dautzut: emon zure giltzak.

BAIT.—Asketsi, parkatu, yaun zindo: ba-nen-kian txarto eginda egoana, baña enintzan oartu: gogotan erabili-erabiliaz, damutu egin yatan egin izana: eta onako onen agiritzat, ostean ixileko aginduz il bear eukean baitegian dagon bat, bizirik daukat.

DUKEAK.—Nor da orrako ori?

BAIT.—Bernardin dalako bat.

DUKEAK.—Kauldi'gaz egin al zeuan olangorik... Zoaz eta ekazu a ona: ikusi egin gura dot (BAITEGIBURUAK alde).

ESKAL'ek.—Tamal andia dot, Angeru, zu lango gizon yakitun eta zurrek olango zirrist eta laparastada itzalik egin izanaz, zuri odola orrenbesteraño berotu bearraz eta gero orren sentzun eta neurri gitxiz epairik emon-bearraz.

ANGERU'k.—Nik be ba-dot tamalik zuri olango naibagerik ekarri izanaz: eta tamal au biotzean barru-barruan dot-eta, gurago dot il, iñoak niri errukirik izan baño: eriotzea da nik irabazi dodana, eta orrexen eske nago.

Aurrera barriro BAITEGIBURUA, BERNARDIN, KAULDI (arpegia esalitza), eta YULETXU.

DUKEAK.—Zein da orreatatik Bernardin?

BAIT.—Au, ene yaun.

DUKEAK.—Lekaide batek erago eustan gizon orretaz... --I, yauntxo, ik biotz gogorra ei dok, ik mundu onez besterik ez ei dok gogotan, eta eretxi orren arauz bizi ei az. I

eriotzara epaituta ago egon: baña, munduko utsok gora-bera, guziak askesten daukadaz. Eta nire erruki au dala-ta, gerorako bide oberik artuko al dok... --lekai-de, emociozu zuk orri onu onik: zure ben-dean eta zure eskuetan izten dot ori... --Nor dogu arpegia estalita dagon urli ori?

BAIT.—Nik yarei dodan beste atxilorik dogu au. Kauldi il zanean ilteko zan au: eta Kauldi langoxe-langoxea da. (Arpegi-estalkia kentzen dautso KAULDI'ri).

DUKEAK.—(ELIXABETE'ri) Zure nebearen antzekorik ba'da, asketsita, parkatuta dago: eta, maitagarri orrek, zeure onerako, ekazu zure eskue, ta neure izango zareala esaidazu: ori be nire anai da: baña izango da aldi oberik orretaz eragoteko. Onazkero Angeru yaunak bere burua segurutzat dau; begia argituaz doakola uste dot... Tira ba, Angeru, zure gaiztakeria bide obarik artzen asia da: zure emaztea maite izango al dozu; zure emaztearen lainak laindu begi zurea... Errukibera nazala oartzen dot nire kitean, eta orraitño be ezin asketsi dodanik ba-dakust emen. (LUKI'ri) I, yauntxo, ni zorotzat, dollortzat, lizunbera- lizunberatztat, astotzat, burutik egindakotzat nindukan ori; noz eta non irabazi izan yoat nik ik nitaz olango gorapenak egiterik?

LUKI'k.—Benetan, ene yaun, nik orrako guzti ori txantxetan esan izan dot. Orregaitik eskegi gura ba'nozu, eskegi baño eztozu; baña orraitño be, zuri eder izatekotan, nik gurago neunke orren ordez bizkarra berotuko ba'zeunskit.

DUKEAK.—Beinen bizkarra berotu, gero eskegi... --Baitegiburu, aldarrikatu erria zear, gizon zantar onek emakumeri okerrik egin izan ba'dautso... --eta neuk daukat oni zinez entzunda bat beintzat ba-dagola onek

seindun egina--., olango emakumerik ba'dago, agertu dadilla, akin ezkonduko dala: ezkondata ara, bizkarra berotu ta eskegi dagiela.

LUKI'k.—Nagusien ori, arren bai arren, enagizu ezkondu zirildakin! Zuk, nagusien orrek, oraintsu esan dozu nik duke egin zaudazala: ene yaun on, ez egidazu ordaindu emakume ustelen senar eraginda.

DUKEAK.—Neure omenarren, arexeekin ezkonduko az. Nik askesten, parkatzen yodaz ire esan laidogarriak; eta orregaz batera ire beste apen-zigorak be.--Eroan ori baitegira: eta an gure guraria bete dadilla.

LUKI'k.—Zirildakin ezkontzea, ene yaun, ni eriotzara, txibitara ta eskegitera bultzatea da.

DUKEAK.—Nagusienik esate laidotsuz baitzitu-teak orenbestekorik irabazita yaukak.

(Erri-otseinak alde LUKI daroele).--Kauldi, zuk oker egin zeuntson neskeari osatu egiozu egin zeuntson kaltea....--Poza zuretako, Marene!... --Maite egizu ori, Angeru; orren autorpena entzunda nago, eta ezagun yat orren on-indarra... --Eskerrik asko, Eskal adiskide on orri; ire ontasan andiarentzako eskerrak baño zer mamitsuagorik yagok gerorako begira.--Eskerrik asko, Baitegiburu, zure ardura ta ixilkizuna ixilik euki izanagaitik; aurrerantzean ogibide oberik emongo daukagu.--Asketsi, parka egizu, Angeru, zurera Kauldi'n buruaren ordez Erragozin'ena ekarri izana; irain ori berez dago asketsita... --Elixabete maite, zuzaz zer-ikusi andia dauen asmoa dot nik; eta nire asmo au zuri eder izatekotan, nire dan oro zure da, eta zure dan oro nire... orrazkero, goazen gure yauregira; an erakutsiko yatzue ostonduta dagona eta zuoi guztio yakitea egoki yatzuena. (Alde dagie).

AMAI

Salta'n 1960 VIII 3'gnean.

ITZ BARRI NAIZ GITXI EZAGUN BATZUK

GILLORI.—Erderazko "mirto" landarea iragar-
teko, Ibinagabeitia'tar Andima'k itz au da-
rabil bere Birgili'ren UNAI-KANTAK lanean.

LILI-UBEL.—Erderazko "violeta" bedar usain-
tsu-usaintsua iragar-teko darabil Ibinagabei-
tia'tar A.'k itz au.

SORI.—Ezatariko legek galazota eztagona.

Itz onek eta zillegi'k esan-gura berbera da-
be.

YAKINKIDETZA.—Euskellgaiztoz "kontzentzi"
esaten yakona.

YAINKONO.—Yainko eme.

YAURESPIDE.—Euskell-gaiztoz "erlejiño".

**OKERREKO USTEETATIKO
BARRE - ANTZERKIA**

(THE COMEDY OF ERRORS)

OKERREKO USTEETATIKO BARRE - ANTZERKIA (THE COMEDY OF ERRORS)

ANTZERKI ONETAKO NOTINAK

SOLIN, Epeso'ko Duke.
EGEON, Sirakusa'ko Salerosla.
ANTIPOLO EPESO'KO, { Anai birkiak, Egeon eta Emile'ren
ANTIPOLO SIRAKUSA'KO, { seme, alkarri ezezagunak.
DORMI SIRAKUSA'KO, { Anai birki Antipol anayen Otsenak.
DORMI EPESO'KO, {
BALTASAR, Salerosla.
ANGERU, Urre-arotz.
Salerosla, Antipol Sirakusako'aren adiskide.
PINTX, Irakastegi-irakasla ta Zinkidetzalla.
EMILE, Egeon'en Emazte, lekaimeburu Epeso'n.
ADIRANE, Antipol Epeso'koren Emazte.
LUKENE, aurrekoaren Aizta.
LUKE, Adirane'ren neskame.
Emagaldu.

Baitegizain, Ertzañak, eta Laguntzako beste batzuk.

AGERLEKU.--EPESO

I EKITALDI

I AGERLEKU.--Dukearen Yauregiko Beharru.

DUKEA, EGEON, BAITEGIZAIN, ERTZAÑAK,
eta beste Otsein batzuk aurrera.

EGEON.—Aurrera yo, Solin, niri yausi eragiteko bidean, eta eriotz-epaiz bein betiko emaitu nire naibage-lorrek eta ganetikoa.

DUK.—Sirakusar salerosla, eskatu be ez egik egin orrexez besterik; enago ni gure legeak austera itzulirik; gorrotoak eraginda, zuon dukeak gure erriko salerosleai oraintsu eginiko bidebagekeri-irainetatik sorturiko areriak eta auziak gure begi-biozetatik zeatz uxatu ta ayenatu dau erreakia. Eta izan be, gure salerosla zindoak euren odolez ikurraztu ta bayeztu dabez zuon dukeak emondako lege-agindu gordinak, euren buruak birrerosi ta yaregiteko urrerik nok emonik izan ez dabelako. Izan be, ire aberkide lege-ausle ta gure arteko etzabaida gorriakazkero, bai Sirakusarrek eta bai geuk be gure erri arerioak alkarregaz ar-emonik ez izateko erabagia ar-

tu dogu batzar nagusietan; areago, Epeso'n yayorik inok Sirakusa'ko zein ta perietan ikustekotan, naiz Sirakusa'n yayorik Epeso soko Itsas-kolkoratutekotan, il egingo dala olangoa, baitu egingo yakozala bere ondasunak, eurakaz dukeak berak zer-gura egiteko, orrako orrek bere galenaren alde-rako ta bere burua birrerosstekoa milla marko (1) ez izatekotan.

Goitik yota be, ire ondasunak ez dozak eltzen eun markoraño be; au dala-ta, eriotz-epa-ya emoten dauk legeak.

EGEON.—Orraitiño be auxe dot pozkarritzat: zuk esana bete daitenean nire naibagelorrak be amaituko dirala iluntzen eguzkia sartuaz bat.

(1) Eri batzuetako diru-izen yatsu "marko"; esaterako, Doitxerri edo Alemani'kora-rena.

DUK.—Tirok, Sirakusar, iretik zegaitik alde egin euan eta zer dala-ta etorri azan Epe-so'ra labur esan egiskuk.

EGEON.—Nire atsekabe-lor esan-ezinak esanazoteko ezarten daustazuna baño zeregin latzago ta astunagorik ezin ezarri leyo iñori. Orraitiño be, nire atzenen errudun eta ekarle irain zirtzilik ez dala izan, bezekoa bera baño, mundua lekuko izan daiten, nire naibageak esaten itxi dagistana esango dautsut. Sirakusa'n yayoa nozu, eta neugaitik ezik zori ontsu litzateken emakumegaz ezkondu nintzan, eta ni gora-bera be izan eitekean, gure zoria txarretariko izan ezpa'litz. Pozik bizi gintzazan alkarregaz; geituaz geituaz yoyazan gure ondasunak, sarritan nik Epidamo'ra egiten nebazan yoan-etorri zori ontsuai eskerrak, ango nire ordekoaren eriotzararte eta, izan be, bertanbera itxita dagozan ondasunak edonor yarten dabe urdiri ta artega-ta, eriotza orrek aldendu nindun nire emazte maitearen besartetik; eta nik alde eginda sei ilebete baño len, emakumek pozik eroaten daben zamapecan larril-larri meko egiteko egoalarik, nire emaztea, nire yarrai etorteko gertakuntzak eginda, laster eldu zan onik ni nengoan lekura. An luzaro egon baño len seme osasuntsu biren ama egin zan pozik; eta iñondiko zera, biak ziran alkarren antz-antzeko-ta, izenez ezik ezin berezi eitekezan alkarregandik. Ordu berean eta ostatu berean emakume txiro-sorkitsu batek be seme bi argitaratu ebazan, mutiko birkiak, eta aik be alkarren antz-antzekoak; onako onein gurasoak txiro utsak ziran-eta, neuk erosi ta azi nebazan arein birkiak nireen otseintzarako. Nire emaztea, alango seme biren ama zalako arro baño arroago, egunoro ebilkidan etxera yoan bear gebala eske ta eske; atara yarrri nintzan gogoaz bestera; ai ene, arinegi! Ontziratu gintzazan; Epidamo'tik legoa bateko bidea-edo egin izango gendun beti axeen esanera dagon itsasoak galbiderik ba-gendula iragarri-aurretik, andik ara ba ez gendun izan itxaro andirik; izan be, ortzetik etorkun argi motel apurrak bertatiko eriotzea iragarten eutsen ziurtzat gure biotz bildurtuati; eta nik neuk eriotza ori gogoz besarkatuko neukeanarren, bai nire emaztearen etenik bagako negarrak (etorteko zala ikusten eban zerak eraginak), bai ezer bildurgarririk etorteko zanik ez ekiela ekandu utsez zinkurin errukarriz negarrez eragoyoen ume lirainak euren eta nire eriotzea geroagotutera beartu ninduen. Eta onan yazo zan yazotekoa

(ez egoan ba beste biderik); ontzigizonak eurak artu eban gure ontzitxoak euren buruak yareiteko, eta urperatu-aginik egoan ontzia itxi gutzako. Ontzigizonak ekatxetarako beren-beregi eukiten daben ontzi-abetxoari estu eutsan nire emazteak atzenen yayoriko bere semetxoa, a maiteago izan edo-ta; beste birki bietatik bata be ari eutso-la estu eban; beste orrenbeste egin neban nik beste biakaz; umeakazkoa olan eginik, nire emazteak eta nik, gure biotzak non egozan gure begiak an yarririk, arako ontzi-abetxoaren ertz bietatik banari estu geuntezatan geure soñak, eta uraren agindura ur-ganean giñoyazala, Korinto'rantza eroan ginduzan urak, guk alan uste beintzat. Alango baten, lurrari argi eginik, eguzkiak ondatu ebazan gure kalterako izan ziran erlañoak; bera noz etorriko irrikiturik gengoazan oskarbia agertu zanean baretu zan itsasoa, eta an urrinean ontzi bi ikusi genduzan guganantza arin etozala, Korinto'koa bata, Epidauro'koa bestea, baño aik gugana eldu baño len... Ui! geyagorik ez al dot esango! Len esanetik atera egi-zu esateko geldituten dana.

DUK.—Ez, ekin, aurrera, agure; ez eten olan, zuri partatu ezarren, zutzako errukirik izan geike-ta.

EGEON.—Ene! yainkoak izan ba'lebe gutzako errukirik, ez neuke orain eskubiderik ai gutzako errukirik eza arpegira botateko! Izan be, oindokoarren arako ontzietatik gugana amar bat legoako bidea egoalarik, atx andi bategaz topo egin gendun, eta alango zartadatzarragaz erdibiturik gelditu zan gure itxaro zan ontzia; eta onan, zuzenaz bestera gu alkarregandik banandurik, erdi bana egin-egina itxi euskun zoriak, bai gure pozerako, bai gure naibage-rako. Emaztearen erdikina (gaxoa!) zori txarrez ez baño pixuz bai beste erdikina baño arinago izan edo-ta, bizkorrago eroan eban axeak bere aurrean, eta geure begien aurrean Korinto'ko arrantzaleak artu ebazan aik euren ontzian, gure ustez. Nozbaiten beste ontziak artu ginduzan gu; eta zori onez ontzi urperatutik yarei ebezanak nortzuk ziran yakin ebenean ontzikoak, arrera argiz artu ginduezan euren ontzian, eta beste ontziko arrantzaleai kenduko euskioen aik goatu ebena, euren ontzia bestearen aldean geldo izan ezpa'litz. Alan ba, etxerako bidea artu eben... Ikusi dozu ba, zelan itxi eustiezan nire zori onerako bide ta ateak; zori txarrez luzatu egin da-

la nire bizia, nire zori txarrean nire gora-berak eta atzera-aurreak inñori eralteko.

DUK.—Eurakaitik naibageturik agonakarren zeatz ezaldu egistak, arren, arrazkero zer yazo yatsuen ai eta euri.

EGEON.—Nire semerik gazteenari (2), baña orraitño be nire arduretan zarrenari, amazortzi urtera eldu zanean, bere anayearen yoan-etorrien yakingurea sortu yakon, eta ekin eta ekin eraqoidan, aren otseinari be berari yazoq berbera yazo yakola-ta, axe eroan eikela laguntzak, aren izena be bakiekiala-ta. Galdu neban semea billatu ta idoroteko ustetan, maite nebana galtzeko zorian yarri naz. Bost urte igaro dodaz Elade'ko bazarririk urrinekoenak be arakatu-ten, Asia osoa zear be billa ibilirik, eta etxerako bidean itsas-ertzik itsas-ertz Epeso'ra eldu naz; idoroko dodala etsirik, baña orraitño be leku au naiz gizonik bizi dan besterik arakatu bagarik izteko lotsaturik. Baña emen amaitu bear dot nire bizitzeaqazko nire eralkizuna; orraitño be pozik ilgo

nintzake nire ibilteotatik aik bizirik dirala ba'nenki.

DUK.—Zori txarreko Egeon, alanbearrak zori txarrik txarrenak yasatera beartu auen ori, sinistu egidak, gure legeen, nire burestanaren, nire zinaren, nire agintzearen aurkakorik ezpa'litzok (eta etxaqok onakook ezereztu leikezan agintaririk), neu nintzatekek ire alde itz egingo leukena; baña i ilteko epaya arturik egonarren i, eta gure agintzea zearo orbandu ta kakaztu bagarik epai ori ezin ezereztu izanarren, al dodana egingo yoat ire alde; au dala-ta, salerosla, egun au emoten dauksat, lagungarri izan leiskikana billatu dagikan; Epeso'ko ire adiskideak kiñatu egizak; eskatu egiek, naiz yasan egik, zorrean artu egik, arako dirumordoa osotu dagikan eta olan, bizi aiten; ostantxean ireak egin yok.—Baitegizain, yagon gizon au!

BAIT.—Yagongo dot, ene yaun.

EGEON.—Itxaro bagarik eta laguntza bagarik doa Egeon, bere eriotzea apurbaten atzerratuteko. (Alde dagie).

II AGERLEKU.—Uri-zelai.

ANTIPOL, SIRAKUSA'KO DORMI ta SALEROSLA bat aurrera.

SAL.—Au dala-ta, Epidamotar azala zabaldu egik, ire ondasunak baitutzat arinegi artu ez dagiezan. Gaur bereon atxilotu yoek Sirakusar salerosla bat ona eldu dalako; eta bere bizia zegaz berrerosiñik izan ez dauelako, uri onetako legeen arauz, eguzki nekatua sarkaldean sartu baño len il egingo yoek. Eutso gordetako neban ire dirua.

ANT. S.—Dormi, ostatuz an gagozan Kentaur'era eroan egik diru au, ta an agoke ni ara arteño. Bazkaitordu dok ordubete-baruru; bitartean, erriarrak eta salerosleak zelangor diran ikusi ta uriko etzeak ikuskatu egingo yoadaz, eta ori eginazkero atzera ostatura yoan eta lo egingo yoat; eta izan be, gure ibilte luzeak nekatu ta eiorik naiaqok... Oa.

DORMI.—Amaitatzok, itzetik elduta, onango eskuarte bikainik izanazkero, benetan yoan eta alde egingo leuke. (Alde Dormi'k).

ANT. S.—Yaun, mutil oker zindo yatsu orrako ori ta, sarri-sarritan, ardureak eta gogo yausiak ni motel naukienean gogaldia argitu egiten daust bere urteera ta izkirimierikaz. Urian nigaz batera-besteraka ibili gura ete dozu, ta gero nire ostatuan biok batera bazkaldu?

SAL.—Salerosla batzuk dei egin dauste, ta aikandik etekin onik aterateko usterik badot; asketsi, parkatu ba, orrazkero. Ondo ba'deretxatsu, oraindik laster, bostetan, zedian billatuko zaudaz eta andik ara, etzarterarteño, lagun zingano nozu; bein-beinean nire arazoak zugandik alde eragiten daust.

ANT. S.—Agur ararteño; ortik zear noa ni astia emoten, gora-beraka ta atzera-aurreka uria ikusten.

SAL.—Zeure gogara ibili, yaun. (Salerosleak alde).

ANT. S.—Nik ezin iritxi dodana opa daust nire gogara ibiltea opa daustanak. Itsasoan beste ur-tantan baten billa dabilen ur-tantana langoxe nozu ni munduarentzako; ur-tantan ori itsasora bere lagunaren billa yausten danean, inok ikusteka, bere laguna norago dan yakin-gurarik, nastuta gelditzen da; olantxe geldituten naz ni emen nire ama ta anayearen billa.

(2) Aurreratxoago Shakespeare'k Egeon'eri esanazo dauksanez, bere seme bietatik zarrena artu eban onek urperatu-aginik egoan ontziko ontzi-abearen ganean, gazteena amak arturik. Agiri danez, Orati'k diñon arako "Quandoque bonus dormitat Homerus" edo olangoren bat yazo yakon emen Shakespeare'ri.

DORMI Epeso'koa aurrera.

Emen dator nire urteak zeatz iragarten daustazan egutegia.-- Ze barri dok? Zer yazo dok irren arin atzera etorteko?

DORMI E.—Onen arin atzera etorri ta etorri bako! Obeto esan, beranduegi urreratu; kiskelduten dago ollar irendua, burduntziik yausten dago txarrikia, errearen errez; amabiak yo dauz erloyuak; amabiakaz ordu bat-ak egin dauz nire mosuan nire etzandereak; bero be bero da a okelea otzitu yakolako; okelea otzitu egin da zu etxeratu ez zarea-lako; zu ez zara eldu etxera yangarrik ez dozulako; yangalerik ez dozu zuk barausi dozulako; guk, ostera, barau eta arren egi-tea zer dan dakigunok, zure erruz oben-ne-kea yasaten daragoyogu gaur.

ANT. S.—Ixildu adi, mutil; au esaidak, non itxi dok nik iri emoniko dirua?

DORMI E.—Ostera! elrain bat neban aldean lengo eguastenez nire etzanderearen zal-diaren buztanpeko edea ordainduteko; zal-di-bastaginari emon neutsan; ez neban gor-de neutzako.

ANT. S.—Olgetarako gogaldirik ez yoat gaur; esaidak eta ez al au loak artuko, non dok nire dirua? Gu emen erbestetar izanik, zegaitik itxi dok alango dirutzarik eureetan ez besteren eskutan?

DORMI E.—Yaun, arren-bai-arren, yosta-gu-ra ba'zara, mairako itxi egizu yostaketea; zalpurdiz bidali nau ni ona nire etzandere-ak zure billa; atzera yoan ba'nadi, orduan bai izango nazala ni benetan ipurdi, ez burdi, zure okerra ak nire atzoko laukoe-tan ondo agirian iminiko dau-ta. Nire us-tez zure matrallak izan bear leukie zure er-loiu, nireak lez, eta zuri etxerako yo gez-nari-bear bagarik.

ANT. S.—Tirok, Dormi, tirok, aroz bestera-ko dozak yostaketok; au baño tertzio ego-kiago ta argigorako gorde egizak. Non dok ik yagoteko nik emondako urrea?

DORMI E.—Niri zuk emon, yaun? Ba! zuk ez daustazu emon urrerik!

ANT. S.—Tirok, zital, alde batera eragiok ire

ergelkeriari, ta esaidak zer egin izan do-kan nik iri emoniko diruaz.

DORMI E.—Niri agindu daustiena ez da izan besterik zure billa zeira etorri ta zure etxe "Pointitz" erako zuri dei egitea baño, bazkaiten ara yoan zadizan; zure begira dagoz nire etzanderea ta aren aiztea.

ANT. S.—Aiko, Kistar nok ni, eta nongo leku seguruan itxi dokan nire dirua erantzun egidak; ostantxean, nik orretarako gogal-dirik ez-eta, izkirimirietan eta txantxetan eragon gura dauen ire kaskar ori ausi ta birrinduko dauskat; non dozak nigandik ar-turiko milla markoak?

DORMI E.—Nire buruan bai ba-dodaz zuk emoniko "marka" (atz) batzuk, nire sorbalde-tan nire etzandereak ezarririko batzuk, ba-ña zuon bion artean be ez daustazue emon milla markorik. Nik atzera ordaindu bear ba' neuskizue, ba-lediko zuok epez ez ar-tzea.

ANT. S.—Ire etzandereagandiko markak! Ze etzandera dok ik, yopu orrek?

DORMI E.—Zu yaun orren emaztea, Pointitz' eko nire etzanderea; zu bazkaltzen yoan arte baraurik dagona, etxera arin yoate-ko arrenka dagotsuna.

ANT. S.—Zer? Arpegi-arpegitan irri egingo ete daustak nik olangorik iri galazota? Eutso au, dollor.

DORMI E.—Zer dala-ta yoten nozu, yaun? Yaungoikoarren, geldi zure eskuak, ostean, yaun, oñok bizkortuko dodaz. (Alde Dormi E.'ak).

ANT. S.—Nire bizia yokatuko neuke, zelan edo alan, dollor orreri nire diru guztia ba-yetz ostu dautsoela. Diñoenez, ziri-sartzallez beterik dago uri au; esaterako, eskuyoko arinez begia iruzur egiten dautsenez; illu-netan lan egin eta gogoá aldatu eragiten daben etorkizun-igarlez; gogoá il eta soña antz-aldatzen dakien sorginez; iruzurla ko-komarrotuz beterik; agin-ateratzalle lotsa-bako itz-ontziz, eta olango beste gaiztake-rietara itzuliz; au onan izatekotan, lenago alde egingo dot emendik. Kentaur'era noa yopu orren billa; bildur be bildur naz nire dirua ez dagola seguru. (Alde dagi).

II EKITALDI

I AGERLEKU.--Uri-elai.

ADIRANE ta LUKENE aurrera.

ADIR.—Ez nire senarra ez yopua, ez bata ez bestea ez dira etorri, onako au nik bere ugazabaren billa iradu-iraduz bidali izanaren! Ordu biak dira, Lukene.

LUK.—Bear bada scleroslaren batek yateko dei egin dautso ta zeitik nonbaitera yoa da bazkaien. Aizta on, bazkaldu dagigun bai, ta ez artegatu orregaitik; bere buruaren yabe yatsu edonor; aldia yatsu euren yaun eta yabe; eta aldia ikusi dagienean yoa naiz etorri egingo yatsuz. Epe artu, ba, aizta.

ADIR.—Zegaitik izan bear ete dabe eurak gu baño euren buruaren yabeago?

LUK.—Euren arazoak beti etxetik at dagozailako.

ADIR.—Ara, beste ainbeste egingo ba'neu nik, asarratu egingo litzake a.

LUK.—Ene! yakizu zure gurariai atzera ten egiteko ugela dala a.

ADIR.—Astoz besteri etxago ezarten ten-uge-lik.

LUK.—Ba, buru-yabetza geyegiak izaten dau zori txarrak bere zigortzat. Eguzkipean ez dago ezer esi bagarik ez lurlean, ez eguratsean, ez ortzian be; euretari-ko arren bendeko dira abereak, arraňak eta egaztiak, arein bendeko ta begipeko; gizonak, Yaungoikoaren antzekoago izan-eta, zer guttion ugazaba dira, ludi zabalaren eta itsaso ezigearen yaun; adimendun izanik, arraňak eta egaztiak baño yaukalago dira-ta, euretari-ko emean yaun eta yabe dira. Orrazkero, euren naieren zai egon zadiz.

ADIR.—Bendekotasun orrek auna i neskazar.

LUK.—Ez orrek, ezkontza-oeko neke-lor-rik ba-ño.

ADIR.—Arraitiño, ezkondu- ta ba'zengoz, zelan edo alan, zetan edo atan aginduko zeu-ke zuk.

LUK.—Maite izaten ikasi baño len, iñoren esana egiten ikasten aleginduko naz ni.

ADIR.—Zer egingo zenduke zure senarrek beste nonbaiterako biderik artuko ba'leu?

LUK.—Epe artuko neuke a atzera etxeratu ar- teño.

ADIR.—Ez da zer andirik ez iñok ez ezek zirikatu bagako epea ez artegatzea; otzan izan datekez ez izateko biderik ez dabenak. Zer erraza da zori txarrak erpaka lorrin- durik negarrez dagon gaxori ixilik egon dai-

tela guk agindutea; baña gu geu beste ain- beste atsekabe naiz andiagoren zamapean iztenak egin-aginik ba'gengoz, gu geu be alatuko gintzakez; olan zuk, zu naibagetu- teko lagunik izan ez-eta, ezetarako gauz ez dan epea aginduta nire naibagea arindu gura dautazu; baña ni lez nire eskubideak kenduta, zure burua onan ikusterarteño bi- zi ba'zadiz, baztarrera eragingo dautazu zoro-antzera eskatuten dautazun epe orre- ri.

LUK.—Tira ba, nozbait neu be ezkonduko naz, zelango dan ikusteko... Emen dator zure otseina, ur dozu orain zure senarra.

DORMI Epesokoa aurrera.

ADIR.—Esaik, ur ete dok ire ugazaba geldoa?

DORMI E.—Ez, esku biekaz ekin daut ak, eta nire belarri biak izan datekez orrako orren lekuko.

ADIR.—Esaik, itzik egin dok agaz ala? Eza- gun ete dok aren asmaoa?

DORMI E.—Bai, bai, nire belarriai iragarri dautse ak bere asmaoa. Izurriak eroango al dau aren eskua; nik nekez aitu al izan dautsat.

LUK.—Ik aitu-ezinezko eraz itz egin yok ala?

DORMI E.—Bai zera! garbi be garbi yo nau- ta, ondoegi oartu natxake aren zaplate- koai; eta a ta guzi be eurak esan gura dabenaz zalantzan gelditu naz.

ADIR.—Baña esaik, arren-bai-arren, ete yatok a etxera? Dirudinez, bere emazteari atse- ginik emoteko ardurarik ba-yok ak.

DORMI E.—Ba, andera, zoro baño zoroago da- go nire ugazaba.

ADIR.—Zoro baño zoroago, dollor?

DORMI E.—Ez dot esan gura emazte ezkon- tza-orbantzallaren bat dauena bestean zoro dagonik, baña bai zoro uts eginik dagola. Bazkaien etxera etorteko dei egin dautsa- danean urrezko milla marko eskatu daut- taz; bazkaitordu da esan dautsat nik; eta ak, nire urrea; nik, kiskaltzen dago zure okelea; eta ak, nire urrea; nik, ba-zatuz etxera ala?; eta ak, nire urrea; non dozak, dollor, nik iri emoniko milla markoak?; nik, kiskalita dago txarrikia; eta ak, nire urrea; nik, Nire etzanderea, yaun... eta ak, Ze ire etzandera ta metzandera; nik ez yoc etza- gun ire etzanderea; eperdian... mun egio- k ire etzandera orrerri!

LUK.—Esan nok?

DORMI E.—Nire ugazabak esan dau; Nik etxoat ezagun ez etxerik, ez emazterik, ez etzanderarik. Orrazkero, nire miñak ari emonbearreko geznea, ari eskerrak, nire sorbaldaganean atzera dakart etxera; eta izan be, garbi esateko, an yo nau.

ADIR.—Atzera oa, yopu ori, eta etxera da torrela esaiok.

DORMI E.—Atzera yoañ! Barrien barri belarriak berotuta etorteko? Yaungoikoarren, beste geznarrien bat bidali egizu.

ADIR.—Atzera oa, yopu, ostein buru ori birrinduko dauskat zearretarakoz.

DORMI E.—Eta ak goitik berakoa emonda, bion artean nire buruan kurutzea egingo daustazue ta, olan, buru onetsi izango dot nik.

ADIR.—Alde, baserritar barritsu ori; ire ugazabari etxerako dei egiko.

DORMI E.—Zuk niri lez, nik zuri egi biribilak esaten eite dautsudaz, zuk ni ostiko-pelotaren bat ba'nintz lez ortik zear ostikoka bidalten nozu zuk emendik, eta ak andik bidaliko nau. Onan yarraitzekotan narruzko zorreen baten sartu bear nindukezue. (Alde dagi).

LUK.—Tira, ezagun da zure arpegian zure epebakotasuna gixxituaz doala!

ADIR.—Aren lagun izatea begiko yake, urrean, aren kutunai, ni emen etxean begirakune samur-gose nazan bitartean. Liraintasun lilurakorra kendu eite dauste ba urteak nire mosutik? Olan ba'da, ak muskildu dau; motel eite da nire itzaroa? Yoa-na nire gatzatza? Izketa atsegin-irabazkorrik

ezpa'dot, atxurdina baño gogorrago dan aren maitatasunik ezak amustu ta lorrindu dau; arein yantzi argi-txairoak eratorren eite dabez aren biotz-leieak? Ori ez da nire erurik, aren da nik dodana; ze lorrin dago nigan ak lorrindua ez danik? Beraz, nire edertasuna lorrindu ta muskildu ba'da, ak muskildu ta lorrindu dau; aren begirakune argi-txeratsuak leneratu daikie nire liraintasun zimeldua; baña, bein-beinean arein uxo eziga ak, esiak ausita, bere larritik yaten daragoyo; aren ondakin baño ez naz ni.

LUK.—Bere buruari oker egiten dautsan maitatasun mindu baño ez yatsu ori! uxa, ortik zear bidali egizu.

ADIR.—Minbera ez diran ergelak bai aye-natu ta uxatu leiez olango irainak. Ba-dakit nik aren begia beste nonbaitera makurtzen dala; ostein, zegaitik ez legoke a emen? Aizta, zuk ba-dakizu ak idun-estuntzatxo bat agindu eustala:... baña estuntza (kate) orregaitik ez leuskit ainbeste ardura, bere oagazko zintzo ba'litz! Ba-dakit nik pitxirik azal-ederrenak be bere edertasuna galduko dauena; eta urrea bestek ukutu ta eskuztatuaren urre izanarren, orraitioño be ukutuaren ukutuz, urrea bera be ezereztu egiten da; eta, olan, izen oneko gizona be zintzo ez izanak eta ustelkeriak lotsaritan yarten dau. Nire edertasunak aren begiari atsegin-pozik ezin emon dautsanazkero, ondakinai negar egin eta negarrez ilgo naz.

LUK.—Amaikatxo ergel-zoro maitatasun minduaren otsein dira! (Alde dagie).

II AGERLEKU.—Lengoxea.

ANTIPOL Sirakusakoa aurrera.

ANT. S.—Seguru dago Kentaur'en nik Dormi'ri emondako dirua, eta yapu zoli-arduraisua ortik zear da aldarra ta artega nire bila. Kontuak eginda ta nire ostatarik diño-netik ateraten danaz, nik ezin egin neikean agaz itz'k nik a lenengoz zeitik bidali do-danazkero. Ara! or dator bera.

DORMI Sirakusakoa aurrera.

Ze barri dok, mutil? Aldean eite dok oindiño be ire gogaldi argia? Belarrondorik artzea gura ba'dok, atorkit txantxetan ostera be. Ez dakik non dan Kentaur? Ez dok artu nigandik urrerik? Ire etzandereak bidali au niri bazkaitera dei egiteko? Poinitz'ekoa eite dok nire etxea? Burutik

eginda egon eite az niri orren zoro erantzun daustakanean?

DORMI S.—Erantzun zer, yaun? Noz esan dot nik olangorik?

ANT. S.—Oraintxe-oraintxe, emen berton, ordu-erdirik be ez dok oindiño.

DORMI S.—Nik ez zaudaz ikusi zuk emendik bidali nozunazkero, zuk emondako diruagaz Kentaur'era bidali nozunazkero.

ANT. S.—Kaiku, urrerik artu dokala ukatu egin daustak ik, eta etzandera ta bazkariagazko erago dautsak ik; eta orregaitik, nire ustez, nire gogaldi txarrari oartu atxako.

DORMI S.—Ondo pozik nago zu olango gogaldi argigaz ikusirik; zer esan gura dozu yostaketa edo txantxa orregaz? Arren-bai-arren, esaidazu, ugazaba.

- ANT. S.—Irri ta barre egiten daustak nire aurre-aurrean? Yostaketan nabilela uste dok ala? Eulso, artu egik au, ta bai beste au be. (Yo egiten dau).
- DORMI S.—Geldi, yaun, Yaungoikoarren; bentasunera yo dau orain zure yostaketeak; zer dala-ta yoten nozu?
- ANT. S.—Batzuetan nik etxetiarkiro i nire ergeltzat artu ta igaz itz egiten dodala-ta besterik baga ire lotsabakokeriak iganako nire maitatasunari irri egin eta ni benetan nagonean ik edonortzat artzen nokalako. Eguzki-bero danean eltxo ergelak yolas egin daqiela baña eguzkia sartu daiteanean, tatarrez eta geldo yoanda, irristu ta itzekarroetan ostendu daitezala. Olgetako gogorik datorkikanean, nire arpegia begiratu, eta nire arpegiaren erara yokatu, ostean zaplatekoka irakatsiko dauskat bide au ire kaskarrean.
- DORMI S.—Kaskar eresten dautsazu? Buru, ez kaskar, litxakit zuk yoko ezpa'ninduz; luzaro erabili ba'dagizuz zartadok, koskolbarruan sartu bearko dot nire burua, eta koskol orren ganean beste koskolen bat imini; ostantxean nire sorbaldetan billatu bearko dot nire adimena... Baña, Arren-bai-arren, yaun, zer dala-ta yoten nozu?
- ANT. S.—Ez dakik ala?
- DORMI S.—Yo egiten nozulaz besterik tautik bez yaun.
- ANT. S.—Neuk esan bearko ete dauskat, ba?
- DORMI S.—Bai, yaun, eta zegaitik eta zetarako voten nozun; eta izan be, or diñoenez, zegaitiak bere zetarakoa dau-ta...
- ANT. S.—Aiko ba, lenen eta beinen, ik niri irri eginagaitik; eta urren, ostera be ik niri irri eginagaitik.
- DORMI S.—Iñok iñor iñoz yo ete dau orren biderik bagarik eta tertzioz bestera, zegaiti guztioz zegaitiren sundarik be izan ez-eta?... Tira, yaun, eskerrik asko.
- ANT. S.—Eskerrik asko niri, txotxo? Zegaitik?
- DORMI S.—Arrano, yaun, zuk utsean emon daustazan zer orregaitik.
- ANT. S.—Gero bardinduko yoadaz zerak, zerbaitegaitik iri utsa emonda. Baña esan egik, txotxo, bazkaitordu ete dok?
- DORMI S.—Ez, yaun; nik ba-dodana bear dau okeleak, nire ustez.
- ANT. S.—Tertzioz diñok, txotxo; zer dok orra-ko ori?
- DORMI S.—Samurtutea.
- ANT. S.—Ba, orrazkero, txotxo, gogor eta zal egongo dok.
- DORMI S.—Gogor eta zal ba'dago, yaun, ez egizu yan arean be.
- ANT. S.—Zer dala-ta?
- DORMI S.—Asarratu ez zagizan eta beste astinaldiz samurtu ta beratu ez nagizun.
- ANT. S.—Tirok, txotxo, eretiz yostatuten ikasi egik; zer guztiak yoek euren aldia.
- DORMI S.—Zu asarratu-aurretik ukatu egingo neukean nik ori.
- ANT. S.—Nongo arauen bidez, txotxo?
- DORMI S.—Ba, Aita Aldiaren buru soil laua baxen arau lauz.
- ANT. S.—Entzun dagigun arau ori.
- DORMI S.—Berez buru-soil gelditzen dan gizonaren burua ostera be uleak estaltzeko aldirik ez dago.
- ANT. S.—Ezin ete ledike odol-eskubidez eta berreskuratzez be? (3).
- DORMI S.—Bai, ule-ordekoren bat erosi ta berearen ordez iñoren ulea bereturik.
- ANT. S.—Zegaitik ete dok Aldia orren ule-urri, orren ugari azten dan sasi-txara izan-ik ulea?
- DORMI S.—Aldiak pizti-abereai ulea ugari emon izana gutzako onespen dalako, eta ulea urri emonaren alderako gizonai adimena emon izan dautselako.
- ANT. S.—Bai, baña amaikatxo gizonak ule-rik geyago dabe adimenik baño.
- DORMI S.—Orraitiño be orra-ko orreik adimenik asko dabe ulea galtzeko.
- ANT. S.—Ostera! Ez dok esan ala oindiño ointxe bururik bagako tentel dirala gizon uletsuak?
- DORMI S.—Tentelago dan eta lenago galtzen dau gizonak ulea, baña orraitiño be pozik-samar galtzen dau.
- ANT. S.—Zegaitik?
- DORMI S.—Zio edo zegaiti bigaitik, eta biak dira zindo gero.
- ANT. S.—Ez, zindo ez; ez orixe.
- DORMI S.—Zindo ezpa'dira, seguru bai beintzat.
- ANT. S.—Ezta seguru be, segurantzarik etxagok or-eta.
- DORMI S.—Ba, orrazkero, yakinak dirala esango dot.
- ANT. S.—Aitatu egizak.
- DORMI S.—Zio bata, burua apainduten eralgiko leuken dirua currearratu egiten dauela-

(3) Oker ezpa'nago, Bizkaiko legez, salgai ba'dago etxaguntzaren bat, bera eroste-ko eskubidedunago de etxaguntza orretakoen edozein senide, senitarteko ez danik baño. Onango eskubideren bat ei eben lenagoko Beretararak (Irlandararak) be. Onako eskubide au ukututen dau emen Shakespeare'k.

ko; beste zioa, yatorduetan ez yakozala yausiko yatekoa dauen ontzira.

ANT. S.—Edozetarako astirik ez dagola erakusteko intzan i aspaldi onetan.

DORMI S.—Ez dot ori erakutsi be egin ala? Esaterako, ez dala astirik, ez aldirik bein berez iñok galdu dauen ulexik barriro aldean eukitekorik?

ANT. S.—Baña ule galdurik barriro ezin norberaganatzeko ire zioa ez dok zio sendorik.

DORMI S.—Izan be, adabau ta osotu egingo dot orrexegaitik; Aldia bera da buru-soil, eta, heraz, mundua mundu dan bitartean yarrai yoango yakoz buru-soilak.

ANT. S.—Ba-nenkian nik buru-soil izango zana atzena; baña ixil! nor dator or emeki-emeki gure billa?

Adirane ta Lukene aurrera.

ADIR.—Bai, bai, Antipol, iñondiko begirakune ta mosuak egin eta betozkoa erakutsi; beste emakumeren batenzat dozuz zuk zure begirakune samurrak; Adirane ez naz ni, ezta zure emazte be. Beñola zuk, iñok orretara eragiteka, zin egiten zendun, eresirik ez yatsula egiten ezli, zure begiak ikusten ebenik ez yatsula atsegin, zure eskuak ukututen ebenik ez yatsula bigun eta apitz, yaten zendun okelarik ez yatsula egiten gozo, nik itzik egin ezik, nik begiratu ezik, nik ukutu ezik, eta okelea zuri neuk ebagi ta emon ezik. Zer yazo da orain, ene senar, ene! zer yazo da orain, zu len ziñana ez izateko? Zu zeu diñot nik zu nire etzaralako; izan be ba, ni zugaridik bananduezina, zure soñagaz bat egin, zure kite mailtean dagon zerik onena baño be oba nozu. Ene! zure burua ez egizu urrutu niñandik; izan be ba, yakizu itsaso asarrera ur-tantan bat egotzi ta tantan ori berori, ez geyagorik ez gixiagorik artuta, zeureganatzea baño errazago ez yatsula izango zeugaz batera eroan bagarik zure burua niñandik urrututea. Arañi bizi-bizian yota geldituko zintzatekez zu nasa! eta likitsik ba'nintz ni, ta zuri opaturiko soin au lotsabako zantarrek kutsatu dauela ba' zenki! Ez ete zeunskit txurik yarlingo arpegira, ez ete nindukezu akulukera erabiliko ta zure senar-izena arpegira egotziko? Ez ete zeunskit zure atzazalez nire arpegiko emagaldunarrua urrutu ta eratsiko, nire esku guzuritik ezkon-erastuna ebagiko ta ezkontzea manaturik gelditzen dala zin-ka ausi ta birrinduko? Ba-dakit nik zuk orrenbesterik egin daitezuna, eta orrazke-ro egin be egizu; ezkontza-kutsaketa-orba-

nik ba-dot nik aldean; likiskeri-obenez nastaurik dago nire odola; eta izan be, gu biok bat ba'gara, ta zu aspikeriz ba' zabiltz, neugan austen dot nik zure soñeko edena, eta zuk kutsaturik emagaldutu egiten naz ni. Au dala-ta, zintzo intsigi zakioz zure egiuneari ta zintzo izan zakioz zure oekide zintzoari; orbandurik bizi naz ni, lotsea galdurik zu.

ANT. S.—Niri arrenka daragoyozu, andera lirain? Ez zaudaz ezagun nik; ordu bi baño ez dira ni Epeso'n nazalarik, zure esanmesana! ta zure urriari bitzuei nayake erbesteko; eta zure itzak banan-banan ezterturik, bat bera be ezin dot aitu, nire buruari egin-alak eraginda be.

LUK. Onangorik, neba! oso aldaturik zauguz zu; noz eguño erabili izan dozu zuk olan nire aiztea? Bazkaiten etorteko dei egin dautsu orrek Dormi'ren bitartez.

ANT. S.—Dormi'ren bitartez?

DORMI S.—Nire bitartez?

ADIR.—Bai, ire bitartez; eta au dok ik orregandik ekarri dokan erantzuna, zera, orrek ukabilkadak emon daukazala, eta iri belarrondokoak emon-ala nire etxea bere etxetizat eta ni bere emaztetzat ukatu egin gauzala.

ANT. S.—Itzik egin izan dok ik, txotxo, anderra onegaz ala? Zer darabilk ik astako orrek?

DORMI S. Nik, yaun? Nik ori eguño ikusi be ez dot egin oraintxe arteño.

ANT. S.—Kaiku, guzurra dariola ago i; eta izan be, orren itz berberak esan daustazak ik zeyan.

DORMI S.—Nik nire bizian ez dot egin itzik orregaz.

ANT. S.—Ori olan izatekotan, zelan deitu gauz orrek geure izenez, Yaungoikoz espa' dok?

ADIR.—Txarto baño txartoago datorko zure bentasunari zure otseñagaz batera eztanarena egin eta ori ni asarratzera zirikatzea! Nire bedi errua, ez zurerik, baña erru ori ez ezarri zure zapuzketarik geyago. Erduna, zure besoala deusala iminiko dot nik nire burua; ene senar, zumar zatxataz zu, matsondo natxatsu ni, eta ni makal izanarren ta sendo zara-ta, nire makaltasunak zure sendotasunari deusala neuretu egiten dot zure sendotasuna; nik bagarik, beste ezek ba'zaukaz, zaborrea da orrako ori, iñonetik bizi dan untz, sasi, naiz oroldi alper; eta orrako orreik iñausi ezagaitik zure odola kutsatu ta zure nastean eta nastetik bizi baño ez dabe egiten.

ANT. S.—Niri itz egiten daragoyo orrek; bere arlora eroan gura nau. Zer ba? Amesetan ezkondu ete naz orregaz? Ala loak artu ete nau eta dan au entzuten dodala uste ete dot? Ze uste okerre bidekatu ete dauz gure begi-belarriak? Bidera etorri yatan uste okerrari men eta amore egingo dautsat zalanza onetatik urten arteño.

LUK.—Dormi, oa, ta bazkaria maira atera dagiela esan egiek otseñai.

DORMI S.—Emen al neu nire agurtzea (erro-sarioa)! Obendi naz-eta Aitearen egiten dot. Maitagarrien lurraldea da au, urrean; asmo txarraren asmo txar! maitagarri, mozo-llo ta kokoa itz egiten daragoyogu guk; eurak gura dabenik egin ezpa'dagigu, au izango da gure ondorena, zera, arnasea kenduko dauskue, edo-ta kiñeka erabili guri balzituek eta ubeluneak atera arteño.

LUK.—Zegaitik ago eure kitan marmarka ta txutxuputxuka ta ez dok erantzuten? Dormi, erlanagi, barakullo, barakarro, kedar ori!

DORMI S.—Antzaldaturik nago ni, ugazaba, ez ete nago?

ANT. S. Alan uste yoat, gogoz antzaldaturik, eta neu be olantxe nayagok.

DORMI S.—Ez, ugazaba, gogoz bakarrik ez, soin-antzez be bai.

ANT. S. Aldean dok ik eure antza.

DORMI S.—Ez, matxango nozu ni.

LUK.—Ezetan aldatu ba'az, astotu egin az i. DORMI S.—Orixe, orixe! ganean yarri yat no ori, eta bedar-gose naz ni. Bai, orixe, asto nozu ni, ostantxean no orrek ba-nazauen bestean ezagun izan bear neuke nik ori.

ADIR.—Tira, tira, oraindik ara ez naz izango ergelik, nire atzak begietara eroan eta negar egiteko, nire naibageai barre egiten dautsen bitartean nire otseñak eta ugazabak niri irri egiteko.—Tira, yaun, bazkaiten goazen; —Dormi, atea yagoik ik—; senar, goitegian bazkalduko dot gaur zuzagaz, eta amaikatxo yolas zoro egin eta izkirimiri barregarririk eralgi bear dautsut; —i, txotxo, ire ugazabaz iñok itandu ba'dagisk, bazkaiten dagola esan egio, eta sarzen ez egio, itxi iñortxori be. Erdu, aizta; —Dormi, ondo egin egik atezainarena.

ANT. S.—Lurrean, zeruan, ala sulezan ete nago? Lo ala atzarrik? Burutik eginda ala burua zindo dodala? Oneintzat ezagun, eta neutzako kokomarroturik? Eurak zer esango, axe esango dot, eta bide orrerri yarrai, eta erlaño onetan zer yazoko, aurrera yo.

DORMI S.—Atezainarena egingo ete dot, ugazaba?

ADIR.—Bai; eta iñori be ez itxi sartzen, ostean kaskarra birrinduko dauskat-eta.

LUK.—Goazen, goazen, Antipol, beluegi bazkaltzen dogu gaur. (Alde dagie).

III EKITALDI

I AGERLEKU.—Lengoxea.

Antipol Epesoko, Dormi Epesoko, Angeru, ta Baltasar aurrera.

ANT. E.—Angeru yaun on, onein aurrean ga guztiok zuritu-bear gozuz. Asarrebera da nire emaztea nik orduak yagoten ez dodazanean; esaizu zure lantegian etxonazo dautsazula bere idunerako ketetxo egin ten zu ikusteko ta biar ekarriko dautsazula, —Emen dozun kaiku onek bereagaz urten gura dau; zeyan beronegaz topo egin ei dot; yo egin ei dot nik, urretan milla marko emon ei dautsadayogoteko, eta nik nire emaztea ta etkea ukatu egin ei dodaz; —ik, moskor orrek, zer esan gura izan dok arako agaz?

DORMI E.—Yaun, gogora datorkizuna esan egizu zuk, baña nik ba-dakit dakidana; zeyan zuk yo nozula erakusteko emen dot nik zure esku-atza edonori erakusteko; idaznarurik ba'litz nire narrua, eta zuk

emondako ukabilkadak idazkurik ba'lira, zure eskuz idatziak bayeztuko leuke nik diñodana.

ANT. E. Asto az i, nire ustez.

DORMI E.—Arrano! izan be, olantxe dirudi nik yasaten dodazan irainetatik eta nik daroadazan zartadetatik. Ostikoa ostikoz erantzun bear neuskle nik; eta, bide ori artu ba'negi, nire ostikaden ardurarik bai izan eta ostikoagandik alde egingo zeuke.

ANT. E. Gotilun zauguz, Baltasar; Yaungoikoak gurako al dau gure bazkaria gure gogo onari erantzuteko ta zuri txera onik iragarteko lain izatea.

BALT.—Yaun, zure mizkeriak baño aintzakoa-gotzat dot zure abegi-txerea.

ANT. E.—O! Baltasar yaun, ondo-etorritz berteriko mailk nekez egiten dau mizkerizko azpil (platel) bat bera be, okelazko naiz arrainezko izan.

- BALT.—Yaun, egunoroko yatsu okela ona; eta edozein beserritarrek emongo dautsu ori.
- ANT. E.—Ondo-etorria yatsu egunoroko; ilz utsa da-ta.
- BALT.—Oturuntza txikiak eta txera andiak egiten dabe yaia alai eta argi.
- ANT. E.—Bai, ostatari zekenentzako ta yateitu zikotzagorentzako. Baña nire yaki gu-riak inoren arrokizun izan ezarren, ontzat artu egizuz; abegi obarik izan zengike, baña ez biotz obaz eginik. Baña ixill; giltzea emonda dago nire etxeko atea; oa ta atea idigi dagiela esan egiek.
- DORMI E.—Miren, Birgite, Marene, Koikile, Gullelme, Yone!
- DORMI S.—(Barrutik) Astaburu, kirten, astako, mandako, tentel, adabaki! edo alde egik atetatik, edo lurreean yezarri adi; bat asko izan-eta, mordoka dei egiten dautsekan emagalduen izenez zinkidetuten nok ala?
- DORMI E.—Ze adabaki egin da gure atezaina? Nire ugazaba begira dago atetan.
- DORMI S.—Oñez doala etorri dan lekura, berotuteko.
- ANT. E.—Nor da or barruan itz dagina? Eee! idigik atea.
- DORMI S.—Ondo dago, yaun, zetarako idigi bear dodan esan dagistazunean idigiko dautsut.
- ANT. E.—Zetarako! Nik bazkaltzeko; gaur etxoat bazkaldu ondiño.
- DORMI S.—Gaur ez dogu emen bazkaririk izan be; beste bein zatoz, zeuk noz gura.
- ANT. E.—Nor augu i neure etxetik at naukakan ori?
- DORMI S.—Bein-beinean atezain nazan au, yaun, eta Dormi yat izena.
- DORMI E.—Kaiku ori, nire izena ta egikizuna biak ostu daustazak ik; batak eguño ez yauatak emon artuen andirik, besteak barriz lotsaritan ugari. Gaur i nire ordez Dormi izan ba'intz, izen ordez ire arpegia aldatuko eukean, edo-ta ire izena asto'ra aldatu.
- LUKE.—(BARRUTIK) Ze zarata ta zaparrada darabilk or, Dormi? Nortzuk dozak or atetan dagozanak?
- DORMI E.—Luke, barrura sartzen itxi egiozu nire ugazabari.
- LUKE.—Arrano, ez orixe! beluegi dator; auxe esaiok ire ugazabari.
- DORMI E.—Ene Yaungoikoa, barre egin bear-ko dot; Bizarrak erakutsiko ete dodaz?
- LUKE.—Auxe dok ire arrokierentzako erantzuna: Noz? esaiok, noz?
- DORMI S.—Luke ba'da zure izena, ederto erantzun dautsazu, Luke.
- ANT. E.—Entzuten dok, astako orrek? Ez ete daustak barrura sartzen itxiko?
- LUKE.—Erantzun dautsadalakotan nago.
- DORMI S.—Eta ezetz erantzun dozu zuk.
- DORMI E.—Ederto! ondo esanda; urteereari urteereaz erantzuten yako.
- ANT. E.—Kirten orrek, barrura sartzen itxi egistan.
- LUKE.—Noren ederrarren aterik idigiteko?
- DORMI E.—Ugazaba, gogor yo egizu atea.
- LUKE.—Yo baño ez dau atea min artu arteño.
- ANT. E.—Txaldan orrek negar egingo don onako onegaitik, sarladaka atea lurreratu ba'dagit.
- LUKE.—Eta orregaz zer? Ez ete dago uri onetan egolatzik?
- ADIR.—(BARRUTIK) Nor da atetan orrenbeste zarata ateraten dauena?
- DORMI S.—Andera, benetan mutil asaldariz beterik dago zuon uri au.
- ANT. E.—Or zauquz zu, emazte? Lenago etorri zeintekezan.
- ADIR.—Ire emazte izan be, zistrin ori! oa, alde egik atetatik.
- DORMI E.—Mindurik alde egingo ba'zendu zuk, pozitu egingo litzake zital au.
- ANGERU.—Yaun, emen ez dogu ez oturuntzarik, ez ondo-etorririk; nekez izango dogu bata naiz besterik.
- BALT.—Bietatik zein dan oba eztabaidaka ibili ondoren, ez bata ez bestea dogula yoango gara.
- DORMI E.—Atetan dagoz, yaun, ondo-etorria emon egiezu.
- ANT. E.—Guri barrura sartzen ez izteko zerbaiten usaina artzen dot.
- DORMI E.—Ugazaba, usainik artzen ba'dozu, surrak idigirik dozuz. Zure opila bero dago or barruan, otzik zu emen; edozein gizoneri burutik eragingo leuskio bere burua onan erosi-saldurik ikusiak.
- ANT. E.—Oa, zerbait billatu egistak; zartadaka lurrera eratsiko yoat atea.
- DORMI S.—Ausi egik emen ezer bai, eta neuk ausiko dauskat ire zital-buru ori.
- DORMI E.—Gizonek ausi lei zuri emondako itzik, yaun; eta axeak daroaz itzak; bai, eta ire arpegian ausi, ire atzean ausi ezik.
- DORMI S.—Austea gura dokala ik dirudi; ortik zear oa, orein!
- DORMI E.—Asko ta gelegi gozak emen atetan iri ekiteko; arren-bai-arren, barrura sartzen itxi egistak.

DORMI S.—Bai, egaztiak egakirik eta arrainak egatik ez dabenean itxiko dauskat.

ANT. E.—Tira ba, atea apurtuta sartuko naz; yesanda, zorrean artuta burdin-agaren bat ekadak.

DORMI E.—Me ala lodi, burrunzti ala palanka?

ANT. E.—Oa, igi adi; burdin-aga lodiren bat ekarri egik.

BALT.—Epe artu, yaun! ez egin olangorik; zure entzute ona gaitzen daragozozu emen, ta susmotan yarten dozu zure emaztearen orbanik bagako izen ona. Au entzun egizu: ondo ta sarritan ikusirik dozu zuk aren zurtasuna, aren ekandu on-garbiak, aren urteak eta aren neurrikotasunak ba-dabe euren alde zuk ezagun ez dozun zerbait; eta seguru zagoz, yaun, ak bere burua zurituko dauela zegaitik isten dautsuzan orain etxeko atekak. Nire onuari zarrakioz; epez alde egizu emendik, eta KATAMOTZ'enera goazen guztiok bazkaien; eta iluntzerantza zeu bakarrik etorri ona, etxetik at zegaitik euki zabezan yakiten. Egun-argitan eta yentea batera ta bestera dobilen tertzio onetan zure etxera indarrez sartzen alegindu ba'zadiz, edonoren agotan ibiliko zara; eta ba-ledike bein-beinean ezetariko orbanek lausotzen ez dauen zure izen onaren ganera erriak,

bape lotsa barik, inondiko susmo txarrak egozte, eta orban ori zeugaz yoango da zure ilobira bertara be; eta izan be, bein sartu dan etxeik ez dau alde egiten laidoak, belaunik belauan an yarraí baño.

ANT. E.—Irabazi daustazu. Bakez alde egingu dot, eta pozik ezean pozarena egin. Ba-dazagut itz egiten ondo dakian neska lirain-burutsu bat; garagarrik irabazten be yakinarren, zindo da; arenean bazkalduko dogu; orrako emakume ori dala-ta, bide bagarik izanarren, nire emazteak sarritan egin daust asarre ta akar; arenera yoango gara bazkaien.-- Etxera zoaz zu ta arako idun-katetxoa ekarri egistazu; badakit onazkero eginda egongo dana; arren-bai-arren, Kirikiñolatz'enera ekarri egistazu, arako etxea axe data; ango emakume ostarariari emongo dautsat idun-katetxoa, esku-erakutsizat, nire emazteari irri egitearren baño ezpa'da be; yaun on orrek arin egizu yoan-etorria; neure etxeko atetatik irainez uxatuten nabenezkero, beste etxeko atek yoko dodaz, an be beste aibeste egiten daaustenentz ikusi dagidan.

ANGERU.—An nozu zugaz oracainanik ordu-ren bat barru.

ANT. E.—Orixe egizu; diru-zatiren bat eralgiazoko daust olgeta onek. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--Lengoxea.

LUKENE ta ANTIPOL SIRAKUSAKOA aurrera.

LUK.—Zelan izan ete ledike senarraren egitekoak zuk aztutea? Antipol, zure maitatasun-iturriak maitatasunaren iturburu-iturburuan ustelduko ete dauz, ba, gorrotoak? Maitatasunak, bere etxea eragiten daragoyola, eratsiko ete dau lurrera etxe ori? Ondasunakaitik artu ba'zendun nire aiztea zure ezkonkidetzat, txeratsua go izan zakioz ondasunokaitik; naiz, beste nonbaiten ba'dozu zure kutuna, ixil-muxilka zoakez ara; guzurrezkorik ba'da zure maitatasuna, zelanbait estali egizu ori, nire aizteak zure begietan irakurri ez dagian; zure mukerkeri ta lotsariaren iragarle ez bedi izan zure miña; txeratsua erakutsi zure arpegia, maitakor itz egin eta olangoak dagokoz zintzotasunik ezari; ekandu txarra apaindu ta ekandu onaren irudia ezarri egiozu; biotza loi ba'dago be, argi-txerakor erakutsi egizu mosua; deun-ibilkeria erabilten irakatsi egio-

zu obenari; sabeltzuri ta luki zadiz, baña olangorik iragarteka; zetarako iragarri? Nongo lapurrek aldarrikatzen dau bere lapurretarik? Irain bi dira zure oarentzako zintzo ez izatea ta ori zure oekideari zure begiz iragartea; lotseak ba-dau izen onik, sasikume-izen izanda be, trebez erabiliazkero; diran lango bi egiten dira egite txarrek itz txarrez. Ai ene! emakumearen garxo-errukarri! Artzeko dozunarena ta zintzoarena eginda, maite maite gozuzala erakutsi eiguazu; izan be, zuok garabiltzuez gu, eta zuok nora ara yoatekoak gara gu. Beraz, neba zindo, barrura zoaz ostera be; poztu, alaitu, argitu egizu nire aiztea, zure emazte dei egiozu; yolas garagarri da azalutsamar izatea zurikeriaren anasa gozoak asarrea benderatuten dauenean.

ANT. S.—Andera maitagarri, zer beste izenik dozun ez dakit, gixtiago dakit nondik

eta zelan dakizun nirea... arriturik izten gozuz zure yakituri ta txerakortasunagaz; lur au baño yaungoikozkoagoren bat zairean orrek zelan oldoztu ta zelan itz egin irakaskuzu; lurreko nire oldozpen zakar, uste okerrez itoriko, mengel, azal, makalari agirian imini egiezu zure itzak euren izurren bitartean ostondurik daben esangurea. Zegaitik lan eragiten dautsazu nire gogo izurgeari, ezagun ez dauen arloan aldarrai erabilita? Yainkonoen bat ete zauzuz zu? Barrien-barri egin gura ete nozu? Olan ba' da, antzaldatu nagizu, ta men egingo dautsat nik zure alari. Baña len nintzana ba'naz ni, ba-dakit nik nire emazte ez dala negarrez daragoyon zure aiztea, ta nik ez dautsadala ezer zor aren oeari; areago, askoz be areago itzultzen naz ni zure aldeara. Arrain-emakume (4) maite, nire burua zure aiztearen negar-urioletan itoten ez egidazu irakatsi zure abotsez; zeure alde abestu egizu, emakume-egazti (5), ta kuttunkeriz erantzungo dautsut nik; zabaldu urrezko zure adatsak zidarrezko urutuen ganean, eta ni, zu oelzat arturik, an etzango naz; eta irudipen atsegingarri orretan, olango bidez ilten danak eriotzeaz irabazi egiten dauela uste izango dot. Arin izanarren ondarrera boa maitatasuna, arako arrain-emakumea ondarreratu ba'dadi!

LUK.—Zer? Olangorik esateko burutik egin yatsu ala?

ANT. S.—Ez burutik egin, zu nire ezkontidetu baño; ez dakit nik zelanik.

LUK.—Zure begien erru da ori.

ANT. S.—Eguzki zoragarri, zure dirdaiai urregitiek begiratzetik.

LUK.—Bear dozuna begiratu, ta garbitu ta argituko da zure begia.

ANT. S.—Maite ezti, gaua begiratzea da begiak istea.

LUK.—Zegaitik eresten nozu zure maite? Nire aiztea deitu egizu olan.

ANT. S.—Zure aiztearen aiztea.

LUK.—Nire aiztea da orrako ori.

ANT. S.—Ez; zeu zara orrako ori, nik dodan zerik onena, nire begiaren begi argi, nire biotzaren biotz maite, nirate yanari, nire zori on, eta nire itxaro gozoaren elburu; lurreko nire zeru bakar, eta nire zeruaren lekitizun.

LUK.—Nire aiztea yatsu orrako dan-dan ori, edo izan bear leuke beintzat.

ANT. S.—Maite, zeure burua deitu zure aizta, zeu nozu ni-ta; zu maite izango zaudaz nik, eta zugaz bizi; oindokoarren zuk ez

dozu senarririk, ez nik be emazterik; ekadazu esku ori.

LUK.—Ene! geldi, yaun, geldi ta ixilik egon; nire aiztearen billa noa ni, aren eder-etsiaren eske. (Alde Lukene'k).

DORMI SIRAKUSAKOA aurrera, ANTIPOL
EPESOKOA'renetik

ANT. S.—Ara! ze barri dok, Dormi? Nora oa igesi orren arin?

DORMI S.—Ezagun nozu ala, yaun? Dormi ete naz? Eta zure otsena? Neu ete naz?

ANT. S.—Dormi az i, nire otsena az, i eu az.

DORMI S.—Asto nozu ni, emakumeren otsein nozu, eta neu ez, besteren bat baño.

ANT. S.—Zein emakumeren otsein? Eta zelan eu ez, besteren bat baño?

DORMI S.—Arrano, yaun, neu ez, besteren bat baño, emakumeri zor natxako ni; bere nauela diño emakume orrek, sarritan datorkit ni ikusten eta beretzat euki gura nau.

ANT. S.—Ze eskubide aitatuten yok bere alde?

DORMI S.—Ba, yaun, egin-eginean be zuk zure zaldiaren alde aitatuko zendukena bera; eta ak bere abere ba'nintz legetxe beretzat euki gura nau, ez abere ba'nintz ak euki gurako nindulako; a bera abereantz-antzeko izanik, ni zor natxakola diñolako baño.

ANT. S.—Nor dok orrako no ori?

DORMI S.—Soin eskarga uts yatsu; bai, zuk aiatatu bearko ba'zendu, ez zeuke aiatatuko esan bagarik "Ori dok sointzarra"; zori

(4) "Arrain-emakume". Izakiok, iñoz eta iñon izan ba'da olangorik, buztanez arrain ziran; buztanez arrain, andik gorakoa, bular-buruak, emakumerena.

(5) "Emakume-egazti". Erdi-emakume erdi-egazti ziran izakiok eta bai gizonentzako bildurgarri be, etoi eta azpiyale utsak ziran-eta. Eladeraz "siren" deretxe, eta izkuntzarik geyenetan "siren". Euretaz zerbait geyago yakin gura ba'dozu Oduseuren XII irakurri egizu. Kirke'k irakatsi eutsan aurreztik Oduseu maltzurari sirenen izaroa zear igaro bearko zala ta zur ibili eitela, sirenok euren abots ezti-lilurakorrez galdue ez egien. Izaro orretara urreratzeko zanean bere ontzi-lagunai belarri-zulook argizagi urtu edo beratuz itxi eutsezan eta bera ontzi-abeari gogor estu egiela arei agindu, eta azkatzekorik agindu ba'egian gogorrako lotu egiela agindu be, sirenen abots gozo-lilurakorrek eraginda ontzitik alderik ez egiteko. Bai ba, berak entzun gura sirenak.

giarratsuz beste zoririk ez dot nik ezkontza orretan, baña a ta guzti be itzalez koipatuko leuke no orrek ezkontza ori.

ANT. S.—Zer esan gura dok?... Ezkontzarik koipatu?

DORMI S.—Arranotan, yaun, sukalde-neskame yatsu orrako ori, dana koipe uts; eta nik ez dakit beragaz zer besterik egin kurtzulu baño, eta berak argi egin-ala igesi baño. Sinistu egidazu, aren sorkiak eta euretako koipeak Polon-erriko negu gordina uda gori egingo leukie; epai orokarreragiño bizi ba'dadi be, ludi osoa baño astebete luzarago egongo da erretan.

ANT. S.—Zelango soin-eraketa yok?

DORMI S.—Nire oñetako oskiak baxen baltz da; baña aren mosua oneik baño zikinago da; eta izan be, areri darion izerdiaren izerdiz, gizonik ba'lebil aren zikinkeritan oskiak baño gorago sartuko litzake.

ANT. S.—Ba! urak zuzendu leikena dok oker ori.

DORMI S.—Ez, yaun, aritiko yatsu akats ori; Noa'ren uriola be ez litzake asko orretarako.

ANT. S.—Zer yakok izena?

DORMI S.—Nell yako, yaun, baña aren izenak eta izenaren iru laurenak (ell (6) esan gura dot) batek eta iru laurenak be ez leukie neurtuko a eper-mokorretik epermokorre-ra.

ANT. S.—Olan ba'dok, ez dok neurri-urri!

DORMI S.—Ezta luzeago be burutik oñetara eper-mokorretik eper-mokorrera baño; bola langoxe, borobil-borobil da; mundu onetako lur-arloak norago dagozan eta zelango diran aztertzeke beren-beregiko da aren soña.

ANT. S.—Aren soñeko zein aldetan yagok Eire? (7).

DORMI S.—Ene bada! non egoteko aren eper-mamiez beste lekutan? Iztinga-sakostabidez idoro dautsut.

ANT. S.—Non yagok Eskolanda?

DORMI S.—Larra elkor-billutsez idoro dautsut ori be; gogor eta latz, esku-barruan.

ANT. S.—Non Pantze?

DORMI S.—Aren bekokian; izkilloakaz atzeraka doala ikusi dot, beti bere uleai gudu egiten (8).

ANT. S.—Norago aurkitu dok Ingelanda?

DORMI S.—Igeltzozko izpazterretako atx zuri-billa ibilirik nozu, baña arein zuriunerik iñon be ezin idoro izan dot; orraitño be, aren okotzean daqolakoaren susmoa dot, okotzaren eta Pantze'ren bitartean darion ur gaziak (gezalak) orretara bultzaurik.

ANT. S.—Non yagok España?

DORMI S.—Ene bada! iñon be ez dot ikusi; baña aren arnasa beroan somatu dot.

ANT. S.—Non Amerikak... Indiek?

DORMI S.—Ba! errubiz, arrigorri-pitxiz, zapiroz apain-apaindurik dagon aren sur-ganean dago arein irudi aberatsa, aik geldibaketan eukiteko "galerazko" ontzidi osoak bidaliriko España'ren arnasa berorantza itzulirik.

ANT. S.—Non idoro dok Belgierria... Nederlanda, Be-erria?

DORMI S.—Lotsa izan natxatsu orren beera begiratzen, yaun.-Labur esateko, beretzat bear nauela ni erago dautso neskame naiz igarla orrek; Dormi izenez deitu nau; se-guru-seguru bere nauela zin egiten izan dau; nire soñean, agirian bagarik, zelango ezaugarriak dodazan esan daut, esaterako, nire sorbaldan dodan atza, nire iduneko orañena, nire beso ezkerreko gari andia, eta olango zerakaz arritu ta ikaraturik, agandik arin igesi dot nik, a sorgintzat arturik; eta siniste sendorik eta galtzaiduzko biotzik ezpa'neu, txakur alla-motxotu egingo nindukeala eta txirrinkan bira eragin-go euskidala uste dot.

ANT. S.—Oa, arin be arin eldu adi itsasatera, eta axeak legorretik itsasorantza ezetariko putzik egitekotan uri onetan ez yot egingo gau au. Ontzirik ba'dok itsasoratze-korik, nigana ator zeira, an ibiliko nok ni gora-beraka i ara arteño-ta. Geuk iñor ezautzeka, edonori ezagun ba' gatrakozak, tertzio dok nire ustez bizkor ibili, gure zertxoak zorroetaratu ta emendik alde egiteko.

DORMI S.—Bizia yagotearren artzagandik igesiko leuken gizonaren antzera igesten dot nik nire emazte izan gurako leukenagandik. (Alde daqi).

ANT. S.—Sorginez besterik ez dago emen; eta orrazkero ordu larria da nik emendik alde egiteko. Biotz-biotzez gorrotagarri yat ni bere senar deituten nauena; baña bere solas eta berbaroan iñondiko gatz eta mo-

(6) Ingelanda'ko neurri yatsu "ell", eta berrogei ta bost atzondo egiten dauz.

(7) "Eere" eresten dautsoe Irlandarrak euren aberriari, baña idatzi "Eire" idazten da-be.

(8) Ilun agiri da emen Shakespeare'k Pantze'z idazten dauena. Dama dala, adoretsegi ez dira agiri Pantzetarrek, izkulluekaz atzerako egiten dabenezkero.

su eder-zoragarria dauen aren aizteak nire buruaren saltzalle egin nau larri-larri; orraitio, nire oker-kalteen errudun neu izan ez nadin, itxi egingo dautsadaz nire belarriak emakume-arrainaren abesti ezti-go-zoari.

ANGERU aurrera.

ANGERU.—Antipol yauna ala?

ANT. S.—Bai, olan ereisten dauste.

ANGERU.—Neuk be ondo dakit ori, yaun. Amen, emen dozu 'dun-katetxoaz; au zuri Kirikiñolatz'enera eroateko asmo izon dot nik. katetxoaz amaitzeko eukita, orain arte egon bear izan dot.

ANT. S.—Eta zer egin bear dot nik onegaz?

ANGERU.—Zeuri gogoko yatsuna, yaun; zutzako egin dot.

ANT. S.—Nitzako egin dozula! Nik ez dautsut agindu olangorik.

ANGERU. Ez bein eta birritan, ogei bider be

agindu daustazu; etxe-barrura zoaz eta pozaldi lango pozaldia emon egiozu zure emazteari; laster nozu emen aparitorduan, eta orduan artuko dautsut katearen dirua.

ANT. S.—Arren-bai-arren, oraintxe artu egizu dirua, ostean inoz geyago ez dirurik ez katerik ikusi ez dagizun.

ANGERU.—Gizon txixari zauguz, yaun; agur. (Alde dagi).

ANT. S.—Onako onegazko zer esan be ez dakit; baña auxe da nik uste dodana, ez dala inon gizonik orrenbesteraño arro dani onango txeraz emondako onango katetxo ederrik artu gurako ez leukenik. Dakustanez, gizonek ez dau ibili bear emen diru-billa larri, onango esku-erakutsirik etxartebideetan aurkitzen dauenzkero. Zeira yoango naz, eta Dormi'ren begira egon an; ontzik itsasora egin ba'dagi, bertatik alde egingo dot emendik. (Alde dagi).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.—Lengoxea.

SALEROSLA bat, ANGERU, ta ERTZAIN bat aurrera.

SALER.—Ba-dakizu, Pentekosteazkero zor daustazu diru-mordo ori, ta arrazkero ez dautsut emon neke andirik eske; eta orain be ez neuskizu emongo Persi'ra yotateko ezpa'nintz, eta nire yon-eterorirako urrerik bear ezpa'neu; orrazkero, ordaindu egidazu zure zorra, ostean zuri eskuak ezarri dagituzuala aginduko dautsat ertzain oneri.

ANGERU.—Egin-eginean zuri zor dautsudan diru-mordoa zor daust Antipol'ek; zugaz trikitxi egin dodan une berean emon dautsat katetxo bat; bostetan artuko dot aren dirua; nigaz batera arenera etortea gogoko ba'dakizu, an ordainduko dautsut nire zorra ta, ganera, eskerrak be emongo dautsuz.

ANTIPOL EPESOKO ta DORMI EPESOKO aurrera.

ERTZAINA.—Aurreratu daikezu neke ori; ara non datorren bera.

ANT. E.—Ni soka-musturren bat erosi egik; nire emazte ta bere kideentzako bearko yot orrako ori, gaur egunez etxetik at euki nabelako... Baña geldi or; ba-dakust urre-

arotza; oa i; erosi egik ik txibitea, eta etxera ekarri egistak.

DORMI E.—Sokea erosten noa-ta, sokea erosiz urteko milla libera erosten dodaz (9). (Alde dagi).

ANT. E.—Egotekoa yagok igan uste onik yarten dauen gizona! i etorriko intzala ta katea biak agindu dodaz nik, baña ez katerik, ez urre-arotzik ez yatak etorri; bear bada, gu alkarrerik katez estuazkero, gure maitatasunak luzaroeqi iraungo dauela uste izan dok, eta orregaitik ez az etorri.

ANGERU.—Ire gogaldi argia alde batera, aiko emen zor-agiria, emen agiri dok argi, garbi ta zeatz, atzenengo kilateraño (10) ze as-

(9) "Sokea erosiz urteko milla libera erosten dodaz". Zalantzarik baga, atsotitzen bat dogu esakera au Ingelandarren artean.

(10) "Kilat", naiz "kilate" urrearen zindotasuna neurtzeko neurria yatsu, irakurla. Urrezko zerbaiz urre utsezko ba'da, ogei ta lau kilateko urrea dala esaten da; ogei ta lau zatitik ogei ta laurak urre. Urrezko zeren batek amazortzi kilat ba'dauz, esaterako, zer orren ogei ta lau zatitik amazortzi bakarrik dira urre, beste sei zatitak beste mearen batezkoak dirala.

- tuntasun dauen ire kateak, urrearen zindotasuna ta oi dan ordainkizuna; eta ire zorra iru bat duket dok nik gizon yator oneri zor dausadanaz ganera; aiko ba, arren-bai-arren, len baño len ordaindu egiok; itsasoratzeko dok au, eta dagoneko itsasoratu ezpa'dok, orrexegaitik dok.
- ANT. E.—Ez yoat dirurik orain aldean; orrez ganera, egikizun batzuk yoadaz egiteko urian; yaun on, nireara eroan egik atzerri-tar ori, katea be aldean eroan egik, eta nire emazteari esan egiok bein katea arturikoan dirua emon dagiskala; ba-ledikek ni i bestean arin an izatea.
- ANGERU.—Katea euk eroango dautsak, ez dok?
- ANT. E.—Ez; euk eroan egik, bear bada ni enok elduko tertzioz-eta.
- ANGERU.—Ori ondo, yaun, orrenbesterik egin-go yoat; aldean dok katea ala?
- ANT. E.—Nik ez yoat-eta, euk izango al dok, ostean dirurik baga atzera yoan baño ez daukak.
- ANGERU.—Ez, tiruk, yaun, arren; ekadak katea; bai axea, bai izkorea, yaun yator, onen aldeko dozak-eta, nik nire erruz luzaroeqi euki yoat au begira.
- ANT. E.—Yostaketan abil i orain, agindua ausita ik Kirikiñolatz'enera ekarri-eza zuri-tzearren; akar egin bear neuskikan nik ik ara ekarri ezaqaitik, baño ik, sorgin-antze-ra, aurreak artu daustazak allegorako.
- SALER.—Orduak aurrera doaz ixilkka; arren, yaun, egizu egitekoa.
- ANGERU.—Entzuten dok orrek zelan estutu-ten nauen; katea...
- ANT. E.—Ba, nire emazteari emon egiok, eta ekarri egik dirua.
- ANGERU.—Tiruk, tiruk, ondo dakik ik oindo oraintxe emon dauskadala; edo bidalik ka-tea, edo emoidak arentzako ire agindutzat artuko dauen zerbait.
- ANT. E.—Bego! aldi egokiagoen baterako itxik ire gogaldi ori; tiruk, non dok katea? Erakutsi agistak, arren.
- SALER.—Nire egitekoak ez dau astirik olan-go yostaketarako, yaun on, esaidazu non ordainduko daustazun ala ez daustazun; ostean ertzainaren eskuetan itxiko dot gizon ori.
- ANT. E.—Nik erantzun zuri! zer da nik eran-tzun bear dautsudana?
- ANGERU.—Kateagaitik zor daustazun dirua.
- ANT. E.—Nik ez dauskat ezer zor katea artu arteño.
- ANGERU.—Ba-dakik orain ordu-erdi dala emon dauskadala katea.
- ANT. E.—Ik ez daustak ezer emon; irain an-dirik egiten daustak ori esanaz.
- ANGERU.—Andiagorik egiten daustak euk ezetz esanaz; olan, ire dirua artzeko da-nari egiten dautsakan kalteaz ausmer egik.
- SALER.—Tira, ertzain, eskuak ezarri orreri ni-re eskariz.
- ERTZ.—Orixe egin be egiten dot, eta dukearen aginduz nire esanera yarri adila agin-duten dauskat.
- ANGERU.—Nire izen ona ukutu ta loituten dauena da orrako ori; edo yarri zadiz di-ru-mordo ori nire orde z ordaindutera, edo atxilotuten zaudaz ertzain onen bitartez.
- ANT. E.—Eguño artu ez dodanik ordaindu-tera yarri ni yarri be! estu nagik, lagun ergel orrek, orretara azarri, atomau ba'adi.
- ANGERU.—Emen yagok sal-erosi-agiria; --es-tu egizu ori, ertzain; onango kinkan (larri-aldian) neure anairi be ez neuskio parka-tuko, ni onan agiri-agirian zapuztuko ba'nindu.
- ERTZ.—Atxilo egiten zaudaz, yaun; entzun do-zu orren eskalkizuna.
- ANT. E.—Zure esanera yarten naz zuri ba-ien bat emon arteño... --baña, yauntxo, ire lantegiko metal guztiak erantzun-alako izango yak yostaketa au.
- ANGERU.—Yaun, yaun, Epeso'ko legeak iri ezarriazoko dauskadaz, i ondo lotsaturik izteko; bai orixe.
- DORMI SIRAKUSAKOA aurrera.
- DORMI S.—Ugazaba, Epidamo'tiko ontzi bat dago ontzi-yabea noz elduko begira, ta bein a eldutakoan, itsasora egingo dau; eta erosi dodaz orioa, usaburkia ta ugor-kia. Gertu-gertu dago ontzia; bel-axeak ederto putz egiten dau legorretik; euren ugazabaren eta zure begira bakar-baka-rik dagoz aik.
- ANT. E.—Zer dok au! burutik eginen bat augu ala? Esaik, tenteltzar orrek, Epidamo'tiko ze ontzi yagok nire begira?

DORMI S.—Arako txantelak erosteko bidali nozun ontzia.

ANT. E.—Yopu moskor ori, txibitea erosten bidali aut nik, eta zetarako dodan be esan dauskat.

DORMI S.—Lendik daustazu emonda txibitea; itsas-atera bidali nozu zuk ontzi-billa.

ANT. E.—Astirik geyago dodanean aztertuko dot arazo au, eta arduratsugoa entzuten irakatsiko ire belarriai. Adirane' gana oa artez, zital ori; giltza au emoyok, eta esan egioek Turkar oyalez estalita dagon maiko kutxan dagola duket-zizkua; a zizkua bida-

li dagistala; etxarte bidean goatu ta estu nabela ta diru ori nire baitzat emoteko dotala esan egioek; egaz oa, yopu; oa, oa. Aurrera, ertzain, zizkua baitegira etorri arteño. (Alde dagie SALEROSLEAK, ANGERU'k, ERTZAINAK eta ANT. E.'koak).

DORMI S.—Adirane' gana! arenean bazkaldu dogu guk, eta an Dausabel'ek bere senartzat bear nauela ekin eta ekin dautso; ara yoa bear dot nire gogoz bestera, otseinak euren ugazaben gogara egin bear dabe-ta. (Alde dagi).

II AGERLEKU.—Lengoxea.

ADIRANE ta LUKENE aurrera.

ADIR.—Ene! Lukene, olan zirikatu zauz ak? Benetan gura zauzala oartu ete dozu aren begietan, bai ala ez? Mosua gorri, zuri, ilun ala argi izan dau? Zer atera dozu aren mosura agertuten izan diran aren biotza-ren zirraretatik?

LUK.—Lenen, zuk agan eskubiderik dozunik argi ta garbi ukatu dau.

ADIR.—Ari loturik ez nagola esan gura izan dau ak; zapuztuago ta ezetsiago ni orregaz.

LUK.—Gero, bera emen atzerritar dala zin egin dau.

ADIR.—Eta egia zin egin dau, zinausle lendik izanarren.

LUK.—Eta gero ni eskatu nau zure orde.

ADIR.—Eta zer esan dau?

LUK.—Zutzako eskatu dautsadan maitatasuna niri eskatu daust.

ADIR.—Zer dala-ta zirikatu dau zure maitatasuna?

LUK.—Zuzen izan ba'litiz eskakizuna, edonori eragiteko itzez. Lenen, nire edertasuna goratuten erago dautso, gero nire itzak goratzen.

ADIR.—Onez itz egin ete dautsazu?

LUK.—Epe artu egizu, arren.

ADIR.—Ezin dot, eta ez dot ixilik egon gura be; nire biotzak ezean, berak gura daue-na egingo dau nire miñak. Itsusi yatsu a, makur, oker, zar eta zimel, mosu-motz, soñez okerrago, edonon azkorakadaka landua; ekandu txarreko, muker, tentel, amutz, irritu, astegun-arpegi; soñez, pinportaz yosia; gogoz, txaragoa.

LUK.—Olangorik izanazkero a, nor ibili ledike aren maitatasun-billa bekatzez? Yoandako txarri ez yako egiten iletarik bein yoanazkero.

ADIR.—Ene! baña diñodan baño obatzat dot nik a, eta guragoko neuke besteen begietzat nik esana baño txarago ba'litiz a; egabereak etentzaka negar egiten dau bere abitik urrin; nire miñak aren aurka esan-alak esanarren, aren alde arrenka daragoyo nire biotzak.

DORMI SIRAKUSAKOIA aurrera.

DORMI S.—Eutsi, arin; maia, zizkua; arin egizu, maite orrek.

LUK.—Zelan ago arnasa bagarik?

DORMI S.—Ariñeketan etorri nazalako.

ADIR.—Non dok ire ugazaba, Dormi? Onik ete dok?

DORMI S.—Ez, Tartar'en linboan dago a, suleza baño leku txaragoan; txerrenek, betiko soñekodun txerrenek goatu dau a; bere biotz gogorra galtzaiduzko botoiz esturik dauenak; txerren, maitagarri, errukirik bagako ta traketsak; otso da a goatu dauena, are txarago; bupalo-narruz yantzitako urlik goatu dau; a ixileko arerio, sorbaldan zartadtxoa emoten dautsuna, enparanzetako bideetan, itsas-ateetan eta leku estuetan beste biderik arrazoten dautsuna yatsu; eiza-usaina galduarren atzera laster idorothen dauen eiza-txakur yatsu a, eta gogo errukarriak epai-aurretik suleza-erooten dauzana.

ADIR.—Ostera! zer yazo dok, gizon?

DORMI S.—Nik ez dakit zer yazo danik; zer-baitegaitik atxilotu egin dabela da nik dakidana.

ADIR.—Zer? Atxilotu ta ilunberatu egin yoe? Esaidak noren eskariz.

DORMI S.—Nik ez dakit noren eskariz goatu ta lotu dabenik, baña bupalo-narruzko yantzia dau a lotu dauenak, eta orrenbeste esan daiket sut; bidaliko ete dautsazu, an-

dera, bere burua azkatuteko, mai-kutxako dirua?

ADIR.—Zoz etz ekarri diru ori, aizta (LUKE-NE'k alde dagi). Andi eresten dautsada-na da onako au, nik ez-yakinean a zorretan egotea.—Esaidak, bere zorraitik lotu yoek ala?

DORMI S.—Zorrogaitik diñozu? Ez zorrogaitik, zorrerik baño zer obagaitik baño; kategaitik, kategaitik; ez ete dozu entzuten aren txintxinik?

ADIR.—Zer? Katea?

DORMI S.—Ez, ez, yoalea; ni yoateko tertzioa da. Ordu biak izan dira nik andik alde egin baño len, ta ordu batak yo dauz orain erloiuak.

ADIR.—Atzeraka datoz orduak! eguño ez dot entzun olangorik.

DORMI S.—Ezetz? Bai. Ertzainegaz trikitix egin

ba'dagi orduak, atzera egingo dau bilduraren bildurrez.

ADIR.—Ordua be zorrean yagok ala? Irea be ba-dok gogoeta!

DORMI S.—Zuk uste dozun baño porrot eginago yatsu aldia, eta emon al dauen baño geiago zor dau. Areago, lapur be ba-da aldia; ez dozu iñoz entzun ixilka, gau ta egun, lapurretan etorten dala aldia? Zorrean ba'da ta lapurretan egin, ta bidean ertzainegaz trikitix egin, ez ete dau bide-rik eguneko ordubete atzeraka egiteko?

Lukene aurrera.

ADIR.—Oa, Dormi; or dok dirua, artez eroan egik; eta ugazaba elxera ekarri egik bertatik.—Erdi, aizta; irudipenak azpian artu ta sakatu-sakaturik nago, nire poz eta irain-irudipenak azpian artu ta sakaturik. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Lengoxea.

Antipol Sirakusakoa aurrera.

ANT. S. Agur eta txera argia egiten daust bidean aurkituten nauen edonok, bere adiskiderik ezagunena ba'nintz legetze; eta neure izenez deituten nabe guztiak. Dirua eskeintzen dauste batzuk, eurenako dei egiten dauste beste batzuk; eskerrak emoten daustez beste batzuk, niri onaren alde; sal-eroskaiak opatuten daustez beste batzuk, erosi dagidazan; arrazkero unetxo bat baño ez dala, bere lantegira dei egin daust yostunak, nitzako erosi dauzan sedak era-kutsi daustaz, eta gero nire soñaren neurriak artu daustaz. Ziur baño ziurrago, onako zerok buruak emondako iruzurbideak yatsuz, eta Laponderriko igarleak bizi dira emen.

Dormi Sirakusakoa aurrera.

DORMI S. Ugazaba, emen dozu bere billa bidali nozun urrea. Zer? Yantzi barridun Adan Zarraren irudiagandik alde egin dozu ala?

ANT. S.—Ze urre dok au? Nongo Adan esan gura dok?

DORMI S.—Ez arako atsegin-baratza zaintzen eban Adan, baitegia yagoten dauena baño; Seme Ondatzallearentzako il eben txalaren narruz yantzita dabilena; yaun, zure atzetik ara etorri, angeru gaiztoaren antzera, ta zure askatasunari baztarrera eragiteko agindu dautsuna.

ANT. S.—Ezertxo be ez dauskat aituten.

DORMI S.—Ezetz? ba, zera ondo argi ta izu-

rik bagako yatsu; arako bibolina narruzko zorroan lez batu-baturik yoan dana; gizonik arnas-estuka unaturik ba'dago, arnasea artu dagian lotu egiten dauen gizona; yaun, gizon galduen errukiz soñeko iraunkorrek emoten dautsezana; bere poza ta atsedena bere makila buru-lodiaz aztamakileaz baño egitada arro geiago egitean yarten dauena.

ANT. S.—Ba! ertzainaz daragoyok ik, ez dok?

DORMI S. Bai izan be, yaun..., galartzudun ertzainaz; aren galartzua urratu dagiana irain orri erantzuteko eroaten dauenaz; gizona beti oera doalakotan Yaungoikoak atsedean ona emongo al dautsu esaten dautsanaz.

ANT. S. Tiruk, yaun, agortu egik ire tentelkeri-iturri ori. Bai ete yagok gaur itsasoratuten dan ontzirik? Yoan ete geintezak?

DORMI S.—Ba, yaun, ordubete ba-da orako orren barri nik emon dautsudala, gaur itsasoratuteko dala BIZKOR ontzia, eta orduan ertzainak atxiloturik egon zara zu, ETXON ontzitxoaren begira; emen dozuz zu askatuteko arein billa ni bidalitako angeruak.

ANT. S.—Buru beste zeren baten dauela dago urli au, eta alantxe nago ni neu be; eta liluraturik gabiltz emen; zori oneko alen batek aterako al gauz emendik!

Emagaldu bat aurrera.

EMAG.—Ondo egin trikitix au, ondo egin trikitix au, Antipol yaun. Orain ba-dakust

- noz baiten urre-arolta idoro dozula; ori ete da gaur agindu daustazun katea?
- ANT. S.—Txerren, ortik zear oa! Agindu egiten dausnat, ez nagin zirikatu!
- DORMI S.—Ugazaba, txerren-andera ete da au?
- ANT. S.—Txerrena bera dok ori.
- DORMI S.—Ez, a baño txarrago da ori..., txerrenaren andera da ori, eta neska buru-arinaren soñekoz yantzirik dator emen; eta ortik dator neskak esaten dabena, Neska arin egingo al nau Yaungoikoak. Idatzita dago argi-angeru-antzez agertzen yakezala olangoak gizonai; suak dakarren zera da argia, eta erre egiten dau suak; ergo (beraz) erre egingo zaeuz neska argiarinak; ez zakioz urreratu.
- EMAG.—Yaun, zure otseina ta zu zeu be itzalez argi zagoze. Nire lagun izan gura ete dozue? Emen osotuko dogu gure lengo bazkaria.
- DORMI S.—Ugazaba, yoan ba'zadiz yoan, yaki saldatsuak aterako dautsuzala ziur zagoz-eta, txali luzeren bat zuzendu egizu nonbaiten.
- ANT. S.—Zegaitik, Dormi?
- DORMI S.—Arrano! txerenagaz yan bear dauenak txali luzerik bearko dauelako.
- ANT. S.—Olan ba'da, ortik zear zoaz, txerren! zetarako aitatuten daustazu aparirik? Zuok guztiok lez, igarla zara zu; ni itxi ta alde egin dagizun zinkidetu egiten zaudaz.
- EMAG.—Bazkaitorduan artu dozun nire elastuna ekadazu, naiz ikatzarrizko nire pitxiaren alderako zuk agindu daustazun katea, ta alde egingo dot nik, eta zuri ez emon ez zereginik, ez buruko minik.

- DORMI S.—Atzazal-epaiti, ii, ule, odol-tantan, orratz, intxaur, kerexa-azurren bat baño ez dabe eskatuten txerren batzuk; baño orrek, ase-gatxago izanik, kateren bat gura leuke. Ugazaba, zur izan zadiz; katea emon ba'dagiozu orreri, eragin egingo dautso orrek, ta gu ikaratu olan.
- EMAG.—Arren, yaun, ekadazu edo nire elastuna edo katea; ez dot uste nik zuk olan niri irri egiteko asmorik dozunik.
- ANT. S.—Alde, sorgin orrek! Tiruk, Dormi, gayoazan.
- DORMI S.—Alde, arrokeri, diño indiollarrak; zeuk be ba-dakizu au, andera.

- (Alde dagie Antipol eta Dormi Sirakusakoak)
- EMAG.—Ezpairik бага, burutik eginda dago Antipol au, ostean olan ez eukean yokatuko-ta; berrogei duket lain dan nire elastuna dau berak, eta kate bat agindu daust ak orren alderako; biak ukatuten daustaz orain; oraingo orren asarreaz ganera gaur bazkaitorduan belarrira eralgi daustan txutu-putxua da gizon ori burutik eginda dagola uste izateko argibidea; bere etxeko atea itxi egin dautsoezala eralgi daust belarrira ixil-muxilka. Ba-ledike orren emazteak, orren aldikaden barri yakinik, eta barrura sartu ez dakion, beren-beregi bere etxeko atea itxi izatea... orrenera arin yoan eta ori burutik eginda nireta arrapaladan sartu ta nire elastuna indarrez arturik igesi egin dauela orren emazteari esatea da orain nire egikizuna; au da biderik onena nire ustez, eta izan be berrogei duket ez dira auntzaren gaberdiko eztlilik. (Alde daji).

IV AGERLEKU.—Lengoxea.

- Antipol Epesokoa ta Ertzaina aurrera.
- ANT. E.—Nire bildurrik ez izan, gizon; ez dot igesiko nik; ziur egon, zugandik alde egin baño len emongo dautsut agaitik lotu nabena lain diru. Inõndiko gogaldiagaz dot gaur nire emaztea, eta, orregaitik, ni Epeson atxiloturik aurkitu neindekenik ez dautso sinistu gurako ak geznariri; olangorik gogor egingo yake aren belarriai, bai orixe.
- Dormi Epesokoa aurrera, txibita bategaz
- Emen dator nire otseina; diruagaz datorrela uste dot. Ara, txotxo! ete dakak nik ekarteko esan dauskadana?
- DORMI E.—Or dozu arako a, guztiena egingo dau orrek; bai orixe.
- ANT. E.—Baña non dok dirua?
- DORMI E.—Dirua? Txibiteagaitik emon dot dirua.
- ANT. E.—Bosteun duket, dollor, txibiteagaitik?
- DORMI E.—Bosteun txibita emongo dautsudaz nik bosteun duketegaitik.
- ANT. E.—Zetarako bidali aut ariñeketan gurera?
- DORMI E.—Txibita-billa, yaun, eta txibiteagaz natortsu atzera.
- ANT. E.—Eta orregaitik emongo dauskat ondo-etorri au. (yo egiten dau).
- ERTZ.—Epe artu, yaun on.
- DORMI E.—Ez, neu naz epe-bearrean nagona; ni nago ezbearrean.
- ERTZ.—Tiruk, eutsiok ire miñari.

DORMI E.—Ez, eskuak gelditu eukitera eragin egiozu.

ANT. E.—Senzunik bagako zirrilda-kume kaitu ori!

DORMI E.—Somenik ez al neu, yaun, zure zartadarik so ez dagidan.

ANT. E.—Zartadaz beste ezeri ez atxako oartuten i, eta astoa dok olangoxe.

DORMI E.—Izan be, asto nozu ni; nire belarri luzeetatik atera zengike ori. Orren otsein izan naz ni yaio nintzan une unetik ara, eta orren eskutik zartadaz besterik ez dot artu nire otseintzearen alderako; ni otz nazanean, zartadaka berotuten nau orrek; bero nazanean, zartadaka ozkirrituten nau; olan iratzarten nau lotan nagonean; olan eragi, yezarrita nagonean; olan atera etxetik, ni atetara noanean; olan emon niri ondo-etorria, ni ostera be etxeritzen nazanean; areago, bizkarrean daroaz nik zartadak, emakume eskekoak bere seña lepoan erotaten dauenez; eta, nire usiez, zartadaka orrek meikitu nagiane, zartadak bizkarren dodazala ibili bearko dot atetik ate eskean.

ANT. E.—Tiruk, bidera urten akio; nire emaztea yatok andik aragotik.

Adirane, Lukene ta Emagaldia aurrera, Pintx eta beste batzukaz.

DORMI E.—Andera, respice finem, zure atzena begiratu; edo, obeto esan, iragarpena begiratu, loraok lez, kontu txibiteaz.

ANT. E.—Ez ete az ixilduko? (Yo egiten dau).

EMAG.—Zer deretxatsu? Burutik eginda ez ete dago zure senarra?

ADIR.—Besterik ez dau iragarten orren zakarkeriak.—Pintx Irakasla on, zinkidetzalle zara zu; bere seneratu egizu ori ostera be, ta zuk zer-gura emongo dautsu nik.

LUK.—Ene! orren begirakuneen asarre ta zorrotz!

EMAG.—Begira, begira zelan ikarutzen dan zoro-aldikadea datorkonean!

PINTX.—Zure esku-musturra ekadazu, zantaupadak so dagidazan.

ANT. E.—Eutso nire eskua, ta ire belarriak so egingo al yok. (Yo egiten dau).

PINTX.—Txerren, neuk aginduten dauskat; nire arren gurenakarren, alde egik gizon onen soñetik, eta tximistea baxen arin oia ilunbeto ire etxera; zorientegiko guren guztien izenez zinkidetuten aut.

ANT. E.—Ixil, sorgin papao, ixil; burutik eginda ez nayagok ni.

ADIR.—Ez al zengoz, gaxo ori!

ANT. E.—Zu, kutun, oneik ete dira zure yolaskideak? azaparan-mosudun lagun onegaz ibili ete zara gaur oturuntzetan eta olgetan, ate obendiak itxi ta etxera sartzen galazo daustazan bitartean?

ADIR.—Ene senar ori, Yaungoikoak ba-daki zuk gurean bazkaldu dozula, eta une onetaraño an egon al zintzazan, lotsari onetatik azke ta urrin!

ANT. E.—Zurean bazkaldu be nik! zer diñozu ziztrin orrek?

DORMI E.—Yaun, egia diñozu, zurean ez dozu bazkaldu zuk.

ANT. E.—Ez dira egon nire etxeko atek itxita, ta ni ez naz egon etxetik at ala?

DORMI E.—Yaungoikoarren, itxita egon dira zure etxeko atek, ta zu atetan.

ANT. E.—Eta orrek ez nau zapuztu ta iraindu etxe-barrutik ala?

DORMI E.—Eguzkia baño argiago dagotsu ori; orrexek zapuztu ta iraindu zauz an.

ANT. E.—Txakurrenak ez ete daustaz esan orren sukalde-neskameak, lotsabakokeriak arpegira egotzi ta ni ezebeztat artu?

DORMI E.—Benetan, orixe egin dautsu; zapuztu egin zauz sukalde-bestalak.

ANT. E.—Eta ez ete dot suak artuta alde egin andik?

DORMI E.—Egi-egiz orixe egin dozu egin be; nire azurrak dira lekuko, arrazkero zure asarre gordina ondo so egin dabe-ta.

ADIR.—Berera yotea ez ete da izango egoikiago ori otzanduteko?

PINTX.—Lotsagarririk ez da beintzat ori egitea; urli orrexek be bere ugazabaren arira yo dau, eta orren arira yota, orren gogaldi zoroari indarra emoten dautso.

...ANT. E.—Urre-arotza erosi egin dozu zuk, ni atxilotuazo nagian.

ADIR.—Ostera! ariñeketan eta arnas-estu gorrian etorri yatan Dormi onen eskuz eta bitartez bidali dautsut dirua zure burua bererrosi dagizun.

DORMI E.—Dirurik nire bitartez? Biotza ta gurari onik bidali izango dozu, baño, uga-zaba (egia diñot), dirurik arean bez.

ANT. E.—Ez atxako yon duket-zizku-eske ala?

ADIR.—Bai, etorri yat ori, eta emon dautsat nik.

LUK.—Eta ori ta ni biok gara lekuko onek emon dautsala zizku.

DORMI E.—Yaungoikoa ta txibitagina beki-daz lekuko, ni ez nozula bidali txibita-eske baño!

PINTX.—Andera, otseina ta ugazaba orreik biok dagoz txerrena barruan dabelarik;

euren arpegi zurbil-larriak diragarste ori; estu ta leku ilunen baten imini bear dira orreik.

ANT. E.—Esaizu, zer dala-ta itxi dozuz zuk gaur gureko ateak, ni etxetik at itxita? Eta zegaitik ukatu dozu urre-zizkua?

ADIR.—Senar maitagarri, nik ez dautsut itxi aterik.

DORMI E.—Eta, ugazaba maitagarri, nik ez dot artu ezetariko urrerik; baña nik autor-tuten dot gure etxeko ateak giltzez itxi dauskuezala.

ADIR.—Zerak diranaz bestera iminten dokazan kaiku ori, zer bietaz diñok ik guzura.

ANT. E.—Emagaldu guzurti, zu zeu zara edo-zetan guzurti, eta lagun-mordo galdugaz kideu zara ni lotsagarriro ta zantarkiro zapuztuteko; eta atzazalokaz aterako dautsudaz guzurra dariola dagozan zure begiak, ni yostaketa lotsagarri onetan ikusi gura izan naben zure begiak. (PINTX'ek eta bere lagunak estu egiten dabez ANTIPOL eta DORMI EPESOKOAK).

ADIR.—Ene! estu egizue, estu egizue; ez al yat urreratuko.

PINTX.—Lagunik geiago betor; indartsu da onen txerrena.

LUK.—Ene! gizonaren errukarri! orren zurbil eta larri!

ANT. E.—Zer? Il eragin bear ete daustazue? Zu, baitegizain, zure atxilo nozu ni; ni azkatuten itxiko ete dautsazue?

ERTZ.—Yaunak, yarei egizue; nire atxilo da ori, eta zuontzat ez dozue artu bear ori.

PINTX.—Tira, estu gizon au, au be zoro da-ta.
ADIR.—Zer egiteko zara, ertzain muker? Gozo ta gogoko ete yatsu gizon errukarrik bere buruari bear ez danik egitea?

ERTZ.—Nire atxilo da ori; nik yarei ba'dagit ori, niri ordainduazoko dauste orrek zor dauena.

ADIR.—Zugandik alde egin banõ len neuk kenduko dautsut kezka ori; orren artzeko-dunagana eroan nagizu bertatik eta zorra zeinbat dan yakin dagidanean, neuk ordainduko dot. Yaun Irakasla on, nirera eroan egizue ori, ezetariko okerrik orri egiteka. Egun onen zori txarreko!

ANT. E.—Zori ezin txarragoko emagaldu ori!

DORMI E.—Ugazaba, emen nozu ni zure baitzat atxiloturik.

ANT. E.—Ortik zear oa, kaiku ori! zer dala-ta burutik eragin bear daustak?

DORMI E.—Utsagaitik estu zagiezala gura ete dozu, ugazaba? Zoroarena egizu, uga-

zaba on; eztarriak emon-alean gedar egizu; txerren ba'zintza legetxe.

LUK.—Yaungoikoa lagun bekie; errukarriok! orreik bai ba-daragoyoela tentelkeriak esaten.

ADIR.—Tira, eroan egizue emendik.— Aizta, neugaz zatoz zu.

(PINTX'ek eta bere lagunak alde ANTIPOL eta DORMI EPESOKOAK'az)

Esan egidazu orain, noren eskariz atxilotu dabe ori?

ERTZ.—Ängeru dalako urre-arotzaren eskariz; ezagun ete dozu urli ori?

ADIR.—Ezagun yat orrako gizon ori; zeinbat zor yako?

ERTZ.—Berreun duket.

ADIR.—Esaizu, nondik dator zor ori?

ERTZ.—Äk zure otseinari emondako kateagaitik zor yako.

ADIR.—Nitzako eragin eban orrako kate ori, baña ez dau artu.

EMAG.—Gaur zure senarrak, asarrearen asarrez suak arturik nireta etorri danean nire elastuna eroan dau, orain aren atzean ikusi dodan elastuna, eta geroxeago katea aldean dauela egin dot trikitix agaz.

ADIR.—Ba-ledike zera olan izatea, baña nik ez dot ikusi; tira, ertzain, urre-arotzarenera eroan nagizu; egia argi ta garbi ta zeatz yakin-guraz erreten nago.

(ANTIPOL SIRAKUSAKOAK, ezpatea aterata, ta DORMI SIRAKUSAKOAK aurrera).

LUK.—Yaungoikoa, erriki zakidaz! ostera be aske ta yarei dira.

ADIR.—Eta ezpatak billusturik datoz; lagun-tza geiago eskatu dagigun, ostera be oneik estuteko.

ERTZ.—Alde, alde, eran egingo gabez!

(Alde dagie ERTZAINAK, ADIRANE'k eta LUKENE'K)

ANT. S.—Dakustanez, ezpaten bildur dozak sorginok.

DORMI S.—Zure emazte izateko zanak igesi egin dau orain.

ANT. S.—Kentaur'era oa; gure zorro ta par-delak ekarri egizak andik; ontzian onik eta ondo noz izangoari luze eretxita nayagok.

DORMI S.—Yaungoikoarren, emen zagoz gau onetan; ez izan bildurrik; gatxik ez dauskue egingo; ikusi dozu txeratsu egiten dauskuela herba, urrerik be emoten dauskuela; maitagarri ta txeratsu da uri au nire us-tez, eta nigaz ezkondu-bear gorria iragarri daustan aragi itsusizko mendiagaitik ez-

pa'litz, ni emen gelditu ta sorgindu be egin-go nintzateke.

ANT. S.—Nik, ostera, ez yoat gelditu gura

gau onetan uri oso onegaitik be; au dala-ta, gure zorro-pardelen billa gayoazan. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.—Lengoxea.

SALEROSLA bat eta ANGERU aurrera.

ANGERU.—Zuri oztoporik yarri izanaren ta-malik ba-dot, yaun; baña nik bein eta barri-ro diñot nire katea artu dauela ak, ak ezetariko lotsa bagarik ukatu izanarren.

SALER.—Ze eretxi yoek uri onetan gizon orretaz?

ANGERU.—Aintzako-aintzakotzat, ezin oba-tzat dabe, yaun; erantzutekotzat dabe, neu-rriz gora maite-maite dabe; uri onetakori ezer ez dautso zor; ez da iñor baño gitxia-gorik; edonoz emon negikez nik nire onda-sunak aren itzera.

SALER.—Ixiltxoago itz egizu; andik aragotik dator bera, nire ustez.

ANTIPOL eta DORMI SIRAKUSAKOAK au-rerra.

ANGERU.—Bai, olantxe da; eta egin-eginean be idunetik dingilizka dakar berak dauenik bape lotsa bagarik ukatu ta zinez ukatu dauen katea. Yaun on, yarrai zakidaz, itz egin bear dautsat.—Antipol yaun, andi be andi da zuk ni onango lotsaritan eta onan-go egikizunetan yartea; eta zu zeutzako be zer-esan-bide zuk zin-bidez ukatutea zuk orain idunean agiri-agirian daroazun ka-tea; salakuntza, lotsari ta baitegiratzeaz ganera, gizon zindo oneri be kalte egin dautsazu; eta izan be, gure eztabaideagaitik izan ezpa'litz, nire adiskide au gaur, axe-oyala zabaldurik, itsasoratu izango zan; nik emon dautsut kate ori; ukatuko ete dozu ori?

ANT. S.—Bayetz uste dot, eta nik ez dot ukatu ori eguño.

SALER.—Bai, ukatu dozu, yaun; eta zin be egin dozu.

ANT. S.—Nok entzun nau ukatuten eta zin egi-ten?

SALER.—Zeuk be ba-dakizunez, oneik nire belarriok entzun zauez. Ken akit begien aurretik, zori txarreko ori! Lotsagarri dok i lango gizonak bizi ta gizon zindoak ba-tuten diran lekura etortea.

ANT. S.—Dollor zara zu niri olangorik arpe-gira egozteko; oraintxe erakutsiko dodaz

nire omena ta nire zindotasuna, etxon gura ba'daustazu.

SALER.—Iri etxoteko bildurrik ez yoat, eta eupada egiten dauskat dollortzat.

(EZPATAK ateraten dabez)

ADIRANE, LUKENA, EMAGALDUA, ta beste batzuk aurrera.

ADIR.—Eutsin, ez egin gatxik, Yaungoikoa-rren; burutik eginda dago ori; baten batzuk urreratu zakioez, kendu ezpatea eskueta-tik; Dormi be estu, ta nirera eroan biak.

DORMI S.—Igesi, ugazaba, igesi; Yaungoikoa-rren, etxeren batera sartu. Lekaimetxeren bat da onako au; barrura, ostean galduak gara-ta.

(Alde dagie ANTIPOL eta DORMI SIRAKUSA-KOAK, eta lekaimetxean sartzen dira).

LEKAIMEBURUA aurrera.

LEKAIM.—Geldi ta ixil, lagunak. Zer dala-ta zatoze ona taldean?

ADIR.—Nire senar errukarri burutik egina emendik atera ta eroateko; barrura sartzen itxi eiguza, a sendo estu ta etxera eroan daigun, an osatu dadin.

ANGERU.—Ba-nenkian nik orren burua bere senean ez egoana.

SALER.—Tamalik ba-dot orain orreri ezpa-taz ekin izanaz.

LEKAIM.—Aspalditik ete dau txerrenak gizon au bere bendea?

ADIR.—Motel, asarrebera, gotilun, eta len-goaz osoan bestera ibili da aste onetan; baña orren mukerkeria ta asarreca gaur arrastirarte bein be ez dira eldu orrenbes-teraño.

LEKAIM.—Ez ete dau galdu ondasuntzaren bat, ontzia itsasoan ondarreraturik-edo? Eortzi-barri ete da orren adiskide mamiren bat? Zillegi ez dan maitatasunen bategan ez ete dau yosi bere begia? Oben au, alan be gizon gazteen artean, eurrez da-biltzu, euren begiai zer-gura begiratzeko askatasuna emoten dautse-ta; onako zori txarrotatik zeñen bendea ete dago?

ADIR.—Orreitatik batenean bez, atzenengoaren bendea ez izatekotan; etxean bagarik beste nonbaiten izan eikean maitakerien bat esan gura dot.

LEKAIM.—Olangorik izatekotan, zuk agirika ta akar egin bear zeuskion.

ADIR.—Ba! egin be egin dausat.

LEKAIM.—Bai, baña ez bear aña gogor.

ADIR.—Nire lotsortasunak itxi-ala bai beintzat.

LEKAIM.—Bakarrean, zeun artean, ezta?

ADIR.—Bai lagun-talderen aurrean be.

LEKAIM.—Bai, baña ez bear aña.

ADIR.—Amen gure arteko gora-beren barri labor au: oyan nire agirikak ez dautsoe lorik egiten izten izan; maian, ez dautsoe yaten izten izan; bakarrean, beti orretaz tematuten izan dausat; lagun artean zipladarik esko egotzi dausat orretaz; eta edonon be zistrin eta gaizto dala esaten izan dausat.

LEKAIM.—Bai ba, egin-eginean be orrexegaitik gelditu da gizona burutik eginda; txakur amurrutuaren aginak baño be eden, geiago dabe emakume maiteminduren edenez beteriko gedarrak. Dirudinez, lorik egiten galazo egin dautsoe orreri zure gedarrak; eta orlik dator orren burua arin egotea Zeuk diñozu orren yataldien gozagarri guztia zure agirikak izan dirala; yan-auste txarrak izaten dabez yataldi artegak, eta orlik artzen dau indarra sukarraren su itzalak; eta zer yatsu sukarra zorotasun-aldikadaz besterik? Zeuk diñozu zure asarraldiz eragotzi dautsazuzala orreri bere yolalak; yalas gozagarririk eragotziatzkero, zer besterik etorteko gogaldi txar eta gotiluntasan motela, etsipen baltz eta artegearen senidea, eta orren yarrai datorren talde galgarri ta kutsukor, biziaren arerio diran urduritasunak baño? Yataldietan, yolasetan eta biziari iraunazoten dausan atsedenean artegatuatzkero, gizona ezeze aberea be zoratuko litzake; beraz, zure orrako orren ondorena da zure maitemin-aldikadak zure senarra burua galduazoteraño bildurrikaratu izatea.

LUK.—Eguño ez dautso egin orrek asarrerik bigun ezik, a latz, zakar eta gordin izaten izan danean. Aizta, zegaitik entzuten dozuz agirikok, erantzun bagarik?

ADIR.—Saldu egin nau ni orrek, ni lotsaturik izteko.—Lagunok, barrura sartu ta eskuak ezarri nire senarrari.

LEKAIM.—Ez, ez da sartuko iñor nire etxera.

ADIR.—Orrazkero, zure otseinek atera dagie-la nire senarra.

LEKAIM.—Ezta; leku au Yaungoikoaren etxetzat artu dau ak, eta leku onek yagongo dau a, nik a bere seneratu, naiz orretan nire aleginak alperrik galdu arteño.

ADIR.—Neuk begiratuko dot nire senarra, neu izango naixako gexozain, neuk emongo dausat aren gaxxari dagokona, ori nire egikizuna da-ta; beraz, etxera eroaten itxi egidazu.

LEKAIM.—Epe artu; eta izan be, ez dausat itxiko emendik zirkinik egiten ontzat emonda dagozan osapideak erabili arteño, barru-bigungarri osasuntsu, ganetiko beste osakai ta arren gurenak, a ostera be gizon zindo ta benetako egiteko; nik Yaungoikoari egindako zinen atal eta zati baño ez da ori, nire lekaimetzearen errikizko egite; beraz, alde zuok emendik, eta emen itxi egistazue gizon ori.

ADIR.—Ez dot alde egingo emendik nire senarra emen itxita; eta ez da zure gurentasunari dagokonik be senar-emazteak alkarregantik banandutea.

LEKAIM.—Ixillik zagoz, eta alde egizu emendik; ez dozu eroango. (Alde dagi LEKAIMEBURUAK).

LUK.—Irañ onen barri dukeari emon egiozu.

ADIR.—Tira, goazen; belaunbiko yarriko naixako oñetan, eta andik yagi ez arik eta nire negar eta arrenen bidez a bera ona etortera yarri ta nire senarra lekaimeburuari indarrez kendu arteño.

SALER.—Bostak dira orain, nire ustez; laster etorriko da dukea, urrean, emendik zear ibar motelera yoteko; lekaimetxe-osteko lubakien atzekaldean aurkitzen dan eriotza ta lege-erate-lekura yoteko.

ANGERU.—Zer dala-ta da a orra etorteko?

SALER.—Uri onetako lege ta aginduen aurka zori txarrez izpaster onetara etorri dan Sirakusar salerosla agureari bere irainaren alderako burua moztuten ikusteko.

ANGERU.—Ara non datozan etorri be; aren eriotzea ikusi bear dogu.

LUK.—Aurrean belaunbikotu zakioz dukeari, lekaimetxea zear igaro-aurretik.

DUKEA currea, lagundurik; EGEON, burutisik; BURU-MOZTZALEA ta beste ERTZAIN batzuk be bai.

DUK.—Beste bein aldarrikatu egik erriaren aurrean, adiskidek ordaindu ba'dagi orren zorra, ez dala ilgo ori; orrenbesteraño begirapen eta ardurea dautsaguz.

ADIR.—Duke begiragarri-begiragarri ori, lekaimeburuaren aurka zuzentza-eske nagotsu!

DUK.—Andera onindartsu ta lotsakizun da orrako no ori; orrek ezin egin eiketsun ezetarikok okerrik, ez irainik.

ADIR.—Eder eta gogoko izango al yatsu, Antipol nire senarra, zuk idazki begiragarri ni atara itzulirik, nik nire ta nire ondau guztien yaun eta yabe egindako Antipol zori txarreko egun onetan inondiko zoro-aldi zakarrak yo dau; ori dalata, etsita, arin egin-alean etxartebideak zear yoan da, beragaz batera yoan da aren otseina be, a bera be ugazaba baxen zoro... erri-tarrai bape gogoko ez yakezan zerak egiten erago dautso; arein etxeetara itsumustuan sarturik, areitatik elastunak, pitxiak eta gogoko yakon edozer eroan dau. Bein estu al izan dot, eta etxera bidali dot, ni emen ak bere asarrean egindako okerrak zuzenduten gelditu nazan bitartean. Andik laster, nik ez dakidan lango indarren bat eginda, etxera eroenai eskuetatik igesi yake; eta bere otsein zoroa laguntzat dauela, bata ta bestea asarre gorrian, ezpatak aterata, gugaz trikitx egin dabe, ta guganantz bete-betean etorrira, igesi eragin daukue; geroago, lagun geiago baturik, aik estuten yoan gara; orduan, gu atzetik ara goakiezala, lekaimetxe onetara igesi daukue; eta emen lekaimeburuak, gure musturretan ateak itxita, ez dauku izten ez aren billa sartzen, ezta berak atera gura be a guri, guk emendik eroan dagigun, Beroz, duke maitagarri-on, a emendik atera dagiela agindu egizu, etxean zaindu dagigun.

DUK.—Antxina baten lagun izan yatan zure senarra nire gudueta, eta zuk a zure oeyau eta yabe egin zendunean, nire itza emon neutsan ari al neban lain on eta esku-erakutsi egingo neutsala.-- Zuoatiko batzuk zoaze, lekaimetxeo atea yo egizue, ta nigana datorrela esan egiozue lekaimeburu andereari; emendik zirkinik egin-aurretik erabagi gura dot egiteko au.

(OTSEIN bat aurrera).

OTSEIN.—Ugazabandera, ugazabandera, alde ortik eta yarei zure burua. Nire ugazaba ta oren otseina biak askatu dira, ukabilka darabillez neskameak, eta osagilea estu ta areri bizarrak ilintiekaz erre-muskildu dautsoez; eta bizarrak suak artzen izan dauen bakotxean kantinkada ur loiak egozten izan dautsoez, uleetako sua itzaliteko; epe artu dagiala esaten izan dautso nire ugazabak, aren otseinak artaziekaz ulea saskil maztuten erago dautsan bitartean;

eta laguntzarik arin be arin bidali ezpa' dagiozu, bien artean garbituko dabe zure zinkidetzallea.

ADIR.—Ixilik ago, zoro ori, ire ugazaba ta aren otseina emen yagozak, eta guzur utsa dok ik dakarkan barrira.

OTSEIN.—Ugazabandera, neure biziarren, egia dirautsut nik; orrako ori ikusiazkero, ozta-ozta artu dot arnasarik. Zutaz gedarka ta añenka dago a, gedarrez eta zinka, goatu ba'zagiz goatu, zure arpegia erre ta zu antz itsusiz itxiko zauzala; (Gedar barruan). Adi, adi, ba-dantzut; ugazabandera, arin igesi; zoaz.

DUK.—Erdi ona, nire aldamenean zagoz; ez izan bildurrik.-- Yagolak, gertau zuon azta-makilak.

ADIR.—Ene! Ene! nire senarra bera da! Zeu zara lekuko zelan darabilen ori batetik bestera inok ikusteka. Oraintxe-oraintxe sartuazo dautsagu lekaimetxe onetara; eta orain an dago, ez emen; gizonen buruk aska-ezineko korapilloa da au.

(ANTIPOL eta DORMI EPESOKOAK aurrera).

ANT. E.—Zuzentza, duke maitagarri; zuzena emon egistazu! bestegaitik ezik aspaldi nik, zuri gudueta lagun eginez eta zure bizia yagotearren zauri sakanak artuaz, egindako otseintzarren; areago, nik aldi areitan zure alde galdu neban odolarren, zuzena egistazu.

EGEON.—Eriotzearen bildurak txakildu ezpa' nau, nire seme Antipol eta Dormi dakustaz.

ANT. E.—Zuzentza, Nagusi maitagarri, aren ango emakumearen aurka, Zuk nire emaztetzat emon zeustanaren aurka; txarto erabili ta laidotu egin nau orrek, eta laido ta irainik andiena egin be! Lotsea bazarturik, orrek gaur egin daustana lango okerrik nori otu be egiteko?

DUK.—Azaldu ta iragarri egistak bai, ta ikusikok ni zuzen nazala.

ANT. E.—Duke andi, atetan euki nau gaur orrek, nire etreko atei giltzea emonda, berori barruan gizon emagalduzaleakaz yan-edanean egon dan bitartean.

DUK.—Izan be, uts eta irain baltz eta garratz dok orrako ori. Esazizu, emakume, orretan ibili ete zatxakuz?

ADIR.—Ez, ene yaun on; nik, orrek eta nire aizteak irurok batera bazkaldu dogu gaur. Guzurra ezpa'da orrek ezarten daustana, nire gogoak (arimeak) erantzun begi!

LUK.—Ez al dot sekula be egun-argirik ikusiko, naiz gabaz lorik egingo, orrek zure na-

gusitasunari dirautsona egi uts-utsa ezpa'da!

ANGERU.—Emakume zinausle ori! orreik biok dira zinausle. Gizon burutik egindako ori zuzen dago orrei erru ezartean.

ANT. E.—Ene yaun, burua argi dodalarik dirautsut diñodana; ez nago ni ez ardaoareen lurrunik nastaurik, ezta itsumustuan asarre biziak erasota, nik yasan dodazan irainak gizon zurragorik be zoratuteko lain izanarren. Emakume orrek gaur nire etxeko atek itxi daustaz, bazkaltzera sartu ez nadin; orrako urre-arotz ori emakume orreikaz bat eginda ezpa'lego, lekuko izan ledike, ori be orduan nigaz egon da-ta; nigaz batera yoa da ori urre-kate-billa. Arako katetxoa ni ta Baltasar biok batera bazkaltzen egon garean Kirikiñolatz'enera ekarriko eusta la esan daust. Bein bazkaria amaaturikoan, eta ori ez dala agiri ikusirik, orren billa yoa naz ni. Etxarte-bidean trikitx egin dot orregaz eta or dagon yaun yator orregaz. Urre-arotz zinausle orrek zin egin daust an arako katetxoa gaur emon daustala, eta, Yaungoikoak ba-daki, katerik ikusi be ez dot egin nik; kate ori dala-ta, ni atxilotu nagiala eskatu dausto orrek ertzainari. Nik, burua makurturik, men egin dot, eta nire otseina etxera bidali dot duket batzuen eske; bape bagarik etorri da a. Orduan onez eskatu daust nik ertzainari nigaz batera nirera yoa daitela. Bidean yoa goazala, nire emazte, aren aizta, ta euren lagunkide-zaborra zirtzilegaz trikitx egin dogu; eurekaz batera ekarren Pintx dalako bat be; gizon kaiku, goseak-il, mosu-zimel, azur-uts, mai-ganetikio itzontzietariko, ziri-sartzalle amuts, eta zori-igarla yatsu onako au; beartsu, begi-sakon, begirada-zorroitz, ondakin uts; gorpu bizi. Entzun orain entzutekoa; zinkidetzallearena egiten yarri izan yat yopu galgarri ori; nire begietan bereak yosi-yosi, nire biotz-taupadai so egin eta, lotsea orlik egolzaita, ni txerrenak artuta nagela gedar egin dau; orretan guztiak ganera etorri yataz eta estuta eroan nabe emendik; eta ni ta nire otseina biok itxi gabez estu-esturik nire etxeko zulorik ilunen eta ezoenean; nik aginka nire lokarriak apurtu-birindu ta nire burua yarei arte ta, orrazkero, bertatik etorri naz ona zure laguntza-eske; niri egin-dako irain, laido ta lotsabagekeri baltzentzako zigor-eske natortsu.

ANGERU.—Ene yaun, egiz, orren lekuko nozu orain artekoan, orrek ez dauela berean baz-

kaldu, atek itxita atetan itxi dabela baño.

DUK.—Baña ik emon dautsak arako katea, ala ez?

ANGERU.—Bai, emon daustat, ene yaun; eta ona ariñeketan etorri danean oneik ikusi daustoe katea idunetik dingilizka.

SALER.—Ganera, zin egingo dot nire belarriok entzun daustuela esaten artu dozula zuk katea orregandik, ez dozula artu zeian niri zin eginda gero, eta orduan atera dot nik ezpatea zuri erasoteko; eta orduan lekaimekte onetara igesi dozu-ta, Yaungoikoz urten zara zu orlik, urrean.

ANT. E.—Eguño ez naz sartu ni lekaimetxe onetako orma-barrura, eta zuk zeuk be ez dozu atera zure ezpatarik niri erasoteko; eguño ez dot ikusi nik arako katerik; Yaungoikoa bedi orretan nire lekuko! eta guzurrta da niri ezarten daustazuen zer au.

DUK.—Kirimildu ta nastu baño kirimildu ta nastuago da auzi au! Nire ustez zuok guztiok edan dozue Kirke'ren edalontzitik (11). Etxe onetan sartu ba'zindue zuok ori, or legoke ori; burutik eginda ba'lego ori ta zoro ba'ledi, orrek ez leuke eskatuko zuzentzarik orren otzik: --orrek etxean bazkaldu dauela diñozu zuk; emen dagon urre-arotzak, ostera, ukatu egiten dau zure esana-; i, txotxo, zer diñoik ik?

DORMI E.—Yaun, Kirikiñolatz'anean bazkaldu dau orrek emakumeetatiko bategaz.

EMAG.—Bai, olantxe da; eta elastuna kendu daust nire atzetik.

ANT. E.—Egia da, ene yaun, orrek emon daust elastun au.

(11) Oduseurena'ren X atalean azaltzen yatsu ederto Kirke izeneko ifondiko emakume au. Berau bizi zan izarora Oduseu'ren lagun batzuk itsasontzitik yatsi ta izaroa arakatzen yoa ziranean, alan-bearrez Kirke'ren etxera yo eben. Yo ba'eben yo eben. Kirke'k erbestetarrai txera argia egin eta barrura sartu ta yaten eta edaten emon eutsen, baña yan-edanari zer lilurakorren bat erantsita, lagunok bertatik txarri-antza artu eben; orraitio, adimena aldean eta argi eben-eta, etentzaka negar-arrantzaka eragoyoen txarritzian Kirke'k sartu ta an yakitzat txarrientzako anabaka utsa emoten eutsela. Geroago baten eldu zan ara Oduseu maltzur-adoretza, ezpatea eskuan ebala ta, Kirke'ren adiskide ta adiskideegi eginik, txarrituriko bere lagunak atzera gizonduazo egin eutsazan Kirke'ri.

DUK.—Ikusi ete dozu zuk ori lekaimetxe onetara sartzen?

EMAG.—Zu yaun maitagarri ori ba-zakustazan bestean ziur ikusi dot.

DUK.—Ba, ñondiko baño ñondikoago dogu zer au: --oa i ta ona etorri dadilla esan egioi lekaimburuari; edo alkar arturik, edo osoan burutik eginda zagoze zuok, nire ustez. (OTSEIN batek alde dagi).

EGEON.—Duke altsu-altsu ori, itz bat esaten itxi egistazu; zori onez, bizia yagon-go daustan adiskiderik ba-dakust, bizia yagon eta nire zorra ordaindu ta ni yarei nagikarik.

DUK.—Kezka bagarik itz egin, Sirakusar, eta gura dozuna esan.

EGEON.—Yaun, Antipol ez ete yaitsu izena? Eta Dormi ez ete da zure otseina?

DORMI E.—Orain ordubete baño ez dala orren bendeko izan naz ni, orain zu zagozanez loturik egon gara oraintsu. Zu ez zara Pintx'en ardurapeko gexorik, ez ezta?

EGEON.—Zegaitik egiten dozu ezagun ez nozunarena? Ezagun-ezagun nozue zuok.

ANT. E.—Eguño nire bizian ez zaudaz ikusi nik.

EGEON.—Ene! naibageak aldatu nau seguru be zuok oraintsuengoz ikusi ninduzuenazkero; eta Aldiaren esku traketsez, ñondiko antz itsusiak idatzi ta irarri dabez nire arpegian ordu larririk; baño beste bein esaidazue, ez ete dozue ezagun nire abotsa?

ANT. E.—Ezta.

EGEON.—Dormi, ik be ez ete dok ezagun?

DORMI E.—Ez, yaun, eta sinetsi egistazu, nik bez.

EGEON.—Nik ez dot ezpairik, zuok ezagun nozuela.

DORMI E.—Ez, yaun, ez dozu; baño nik be ez dot ezpairik, nik ez zaudazala ezagun; eta gizonak ukatuten dauena sinetsi-bearrean zagoz ez orain.

EGEON.—Nire abotsa ezagutu ez! Onangorik! Aldiaren gordin! Orrenbesteraño itze-karrota ta brintzatu ete dozu nire miñ gaxoa emen nire seme bakarrak ereskidetasunik bagako nire arduren ari makala ez ezagutzeko? Nire arpegi latz au odola edoskiten dauen negu latzeko edurpean egonarren orain, edurpean ostondurik, eta nire odolbide guztiak leiturik egonarren, nire biziaren gauak ba-dau ondiño oroimenik; amaitu ta agortu-aginik dagozan nire argiak argi-izpitxorik egiten dabe oindiño; nire belarri motelduak be zerbit entzuten dabe oindokoarren; zar guztiak lekuko...

ezin dot utsik egin, --zu nire seme Antipol zareala dirauste.

ANT. E.—Nire bizi guztian eguño ez dot ikusi nik nire aita.

EGEON.—Ondo dakik ik, mutil, orain zazpi urte dirala banandu gintzazala alkarregandik, Sirakusa'n; baño, bear bada, lotsa az i ire aita autortuten, a onango ezbearrean ikusirik.

ANT. E.—Dukea ta ni ezagun nabem uri onetako guztiak izan datekez lekuko nire alde; nik nire bizian eguño ez dot ikusi Sirakusa.

DUK.—Sirakusar, neuk dirautsut ogei urtean izan natxakola lagun eta aldeko Antipol'eri, eta aldi orretan orrek bein be ez dau ikusi Sirakusa; dakustanez, urteak eta zure galdideak burua arinduz ta txakildu egin datusue.

LEKAIMEBURUA aurrera, ANTIPOL eta DORMI SIRAKUSAKOAKAZ.

LEKAIM. Duke altsu-altsu ori, amen okerandia egin dautsoen gizon au.

(Guztiak batuten dira ikusteko)

ADIR.—Ene! senar bi dakustaz nik, ostean iruzur egin eta ziri ederra sartzen dauste begiok.

DU.—Gizonotatik bata bestearen itzal edo maitagarri da; baita beste biotatik bata be. Zein da benetako gizon, eta zein itzal? Nok askatuko dau poronpil au?

DORMI S.—Ene! yaun, ni naz Dormi; alde egin dagiala agindu egiozu orreri.

DORMI E.—Yaun, neu naz Dormi; emen itxi nagizu, arren.

ANT. S.—Egeon ez ete zara zu? Ala aren mamu ete zara?

DORMI S.—Ene; nire ugazaba zarra, nok es-tu dau ori emen?

LEKAIM.—Estu dauenak estu dauela, neuk askatuko dautsadaez orreri lokarriak, eta ori askaturik senarra irabazi.-- Itz egizu, Egeon zar orrek; iñoz izan ba'dozu zuk Emille izeneko emazterik, umaldi baten seme eder bi emon eutsuzanik; ene! zu ba'zara arako Egeon, itz egizu, ta itz egiozu arako Emile'ri!

EGEON.—Amesetan ezpa'nago, Emille zara zu; zu ba'zara a , asaidazu nondik dan zugaz batera arako zori txarrean abean uger egin eban semea.

LEKAIM.—Epidamo'ko gizonak eragi ginduezan a ta ni, ta Dormi birtia; baño andik laster Korinto'ko arrantzale zakarrak indarrez kendu etsezan Dormi ta nire semea,

ni, barriz, Epidamo'koakaz itxi ninduen; arrazkeroko arein barririk ez dot; ni zertara eldu nazan zeuk dakusazu emen.

DUK.—Ostera! emen asten da ostera be gaur goxeko edespen edo ipuñā; Antipol biok, alkarren antz-antzeko biok, eta Dormi biok, antzeker biok bat... ganera, lekaimeburu onek itsas-ontzi-urperatzeaz diñona... Oneik biok dira semeon gurasoak, eta oneik emen alan-bear utsez egin dabe trikitx alkarregaz. Antipol, Korinto'tik etorri intzan i lenengoz, ezto?

ANT. S.—Ez, yaun, ni ez; Sirakusa'tik etorri nintzan ni.

DUK.—Geldi or eta banazean yarri zadize; nik ez dakit nor zein danik.

ANT. E.—Ni naz Korinto'tik etorri nintzana, nire yaun maita-maitagarri.

DORMI E. Eta ni orregaz.

ANT. E.—Zure osaba Menapon, entzute andiko gudari ospatsuak ekarri ginduzan uri onetara.

ADIR.—Zuotatik zein izan da gaur nigaz bazkaltzen?

ANT. S.—Neu, andera maitagarri.

ADIR. Eta ez zara zu nire senarra?

ANT. E.—Ez; orreri neuk dirautsot ezetz.

ANT. S.—Neuk be beste orrenbeste diñot, orrek niri bere senar deituarren, eta emen dagon emakume lirain, beste orren aizteak, ni bere nebatzat artu ta deitu izanarren. An esan dautsudana sendesteko lain asti izango al dot, nik dakustana ta dantzudana ames uts ezpa'da.

ANGERU.—Aor, yaun, nik emon dautsudana katea.

ANT. S.—Atakotzat nago, ez dot ukatuten.

ANT. E.—Eta zuk, yaun, kate orregaitik atxilotuazo nozu.

ANGERU.—Neuk be orixe uste dot, yaun, ez dot ukatuten.

ADIR.—Dormi'ren bitartez eta eskuz bidali dautsut dirua zure baitzat; baña ak ez dautsula eroan uste dot.

DORMI E.—Ez, nire eskuz eta bitartez ez dozu bidali ezetarik dirurik.

ANT. S.—Zugandik artu dot duketdun zizku au, eta Dormi nire otseinak ekarri daust; batlak bestearen otseinagaz egin dogu guk trikitx eta, bata bestetzat arturik, orlik sortu dira okerreko gure usteak, niri deretxatanez.

ANT. E.—Duketok emen iminten dodaz nire aitaren baitzat.

DUK.—Orrein bearrik ez da izango, bere bizizaren yabe da zure aita.

EMAG.—Yaun, atzera emon bear daustazu

arako pitxia.

ANT. E.—Eutsi; or dozu; eta eskarrik asko emon daustazun bazkari yoriagaitik.

LEKAIM.—Duke ospatsu, neke apur bat artu egizu, arren, lekaimeixe onetara zatoz gugaz ta entzun gure zoriagazko itz-mordo luze-luze bat; betoz leku onetan baturik dagozan guztiak be, zori oneko egun onetako okerreko usteak izan dirala-ta, okerrik izan dabenak lagun bekiguz, zerak euren gogara yarteko aleginak egiteko gara-ta... Ogei ta bost urte luze igaro dodaz nik zuokaitik neke-kezkatan, ene semeok; eta une auxe arte ez da arindu nire zama astuna; dukea, nire senarra, nire seme biak, eta zuok nire semeen egutegiok, zatoze emen izango dogun barriketa gozoa entzuten; erdue; orren luzaroko neke-lorren ostean yaiotzearen eder!

DUK.—Biotz-biotzez izango natxatsue lagun eta kide olango yaitan.

(Alde dagie DUKE, LEKAIMEBURU, EGEON, EMAGALDU, SALEROSLA, ANGERU ta LA-GUNTZAKOAK)

DORMI S. Ugazaba, zure zeren billa yoango ete naz itsas-ontzira?

ANT. E.—Dormi, ninerik ezer eroan dok itsas-ontzira ala?

DORMI S.—Kentaur'enaren ostatuan egozan zure ondasunak.

ANT. S.—Niri itz egiten daragoyo orrek; ni nok ire ugazaba, Dormi; tiruk, gugaz ator; geuk artuko yoagu zer orrein ardurea gesu baten; besartean estutu egik ire ancia ori; poztu adi orregaz. (Alde dagie ANTI-POL biak, ADIRANE ta LUKENE'k).

DORMI S.—Adiskide gizen-gizen bat yoat ire ugazabarenean; ak ni, i nazalakotan, sukaldera eroan nayok bazkaltzen; nire arraba izango dok orain a, ez nire emazte.

DORMI E.—Nire izpillu (antzukur) az i, nire ustez, ez nire anairik; ire bitartez, ni gazte, mosu-ezli nazala ikusten yoat. Orrein txutxu-putxuketea ikusten eta entzuten etorri gura ete dok?

DORMI S.—Nik ez; eu sartu adi lenen, i az zarren.

DORMI E.—Erabakikizun dok ori; zelan ebatziko yoagu?

DORMI S.—Zotz egingo yoagu zein zarrago; bitartean i oa aurretik.

DORMI E.—Ez, orrazkero zera egingo yoagu, anaitzat etorri gintzoazan mundu onetara-ta, alkarri eskua emonda gayoazan orain barrura, ez bata bestearen aurretik. (Alde dagie).

ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

ALLEGRO.—Arratia'ko itza, eta auzi, eztabaida, matraka edo olango zeren bat esan gura dau. Erderazko "alegato"tik ete dator?

AUSI, YANA AUSI.—Bere ikur ezagunago ta zabalagoaz ganera, Arratia'n "urdallako yana egosi edo ixegosi" be esan gura dau, "afarie ausi barik eukan, urrean" esakera ta antzekoetan, esaterako.

ZEL.—Solo, baso ta itsasotik arako yakiak salgai dagozan lekua, "merkatu".

ZINKIDETU.—Geyen baten beste mundukoan bat bitarteko iminita agindutea; erderaz "conjurar". Neuk asmaua da itz au. Gura ba'dozu, artu, ezpa'dozu, itxi.

ERAN.—Itz zar onek "il eragin", "ilazo" esan gura dau.

ERATE.—Aurreko "eran" zer dan ba'dakizu, "erate" zer dan be ba-dakizu.

ERLAIN.—"Ereal" biko esan gura dau dirutan. Oraingo dirutan ez dago erlainik, bañā bai ni mutiko nintzanean; zidarrezkoak ziran erlainak.

BAITEGI, ESPETXE.—Gaizkinak, gaizkin diralakoak eta, gizonen gaiztakeriz sarriegi zindoak be ango orma-barruan eukiten diran etxe motela, "kartzela".

ETOI.—Azpiyale, saltzalle; olango bat yatsun Yuda Yosua saldu ebana.

GALEN.—Euskal-gaiztoz "multa" deretxona.

IDAZNARRU.—Zerbait idazteko papel-ordez ebaltan dan narru uldua.

IDAZKUR.—Zerbait idazteko ebaltan dan ur baltz, gorri, naiz beste kolore edo margoen bateko ura.

IKURRATZ.—Euskal-gaiztoz "sillu" ta "silluak" izten dauen atz edo marka.

IRADU.—Zerbait arin egin-bearra, "prisa" euskal-gaiztoz.

LEKAIME.—Iru zinen bidez Yaungoikoari zintzoago ta zeatzago yarraitzeko bizibidea artzen dauen emakume, "monja" naiz "monja" euskal-gaiztoz. Barrietariko dogu itz au.

LOTSORTASUN.—Nobere gaitasun edo lantasanagazko ereti apala.

OREIN.—Basauntz.

TXIRO.—Beartsu, ezeuki, lander.

UGER EGIN.—Beste euskalgietako "igeri egin".

UGORKI.—"Espiritu"; beste zer batzuen artean ardaoak ba-dau ugorkirik.

USABURKI.—Soñā usainduteko erabilten diran urai deretxe usaburki.

YAREI, YAREGI.—Azkatu, gaizkatu; "libre" euskal-gaiztoz. "Yarei" itza osasuntsu bizi da Oñati'n beintzat.

UTSAGAITIK OTSAK OTS

(MUCH ADO ABOUT NOTHING)

UTSAGAITIK OTSAK OTS

(MUCH ADO ABOUT NOTHING)

LAGUN ANTZEZTUAK

DON PEDRO, Aragoe'ko errege-seme.
YON, Aurrekoaren anai sasikume.
KAULDI, Firentze'ko Andiki gazte, Don Pedro'n adiskide mami.
BEDITA(BENEDICK), Padoba'ko Andiki gazte, au be D. Pedro'n adiskide mami.

LONATA, Mesina'ko yaurla.

ANDONI, aurrekoaren anai.

BALTAZAR, L. PEDRO'n otsein.

MOZKORTI (BORACHIO),

KONARTA (CONRADE),

DOBERRI (DOGBERRY),

BERGETS (VERGES),

} Biak YON'en Lagunak.

} Ertzain ergel bi.

YAURETXEZAIN.

LEKAIDE.

ESKU-MUTIL.

ERE (HERO), LONATA'n alaba.

BATIRKE (BEATRICE), LONATA'n illoba.

MARGARITE,

URSULE,

} Ere'n laguntzako emakume aiton-alabak.

Geznariak, Gauzainak, eta Leguntzakoak.

AGERLEKU.--Mesina.

I E KITALDI

I AGERLEKU.--LONATA'n etxe-aurrea.

LONATA, ERE, BATIRKE ta beste batzuk aurrera Geznarilin.

LON.—Kutun onetan dakustanez, arratseon Mesina'ra eltzeko da Aragoe'ko D. Pedro.

GEZN.—Ur-ur da onazkero a: nik a itxi dodan lekutik ona eztago iru legoako biderik be.

LON.—Zenbat aiton-seme galdu dozuez ekitete orretan?

GEZN.—Guztitarikorik be gitxi baño ez, eta aitatugarririk bat bez.

LON.—Gurendea, garaitia, bera lango bi da, irabazi dauenak bere gizon guztiak atzera osorik dakazanean. Emen dakustanez, D. Pedro'k omen andia ezarri dautso Kauldi deretxon Firentze'tar gazteari.

GEZN.—Ondo irabazita gaztearen aldetik, eta D. Pedro'netik be ondo gogoratuta. Gazte orrek egina orren adinari dagokona baño

geiago da, bildots-irudipean leoiari dagokona egin izan dau-ta: izan be, gazte orrek nik azaldu daikedan baño obeto geitu dau berorregandik uste zana.

LON.—Ba-dau gazte orrek osabarik emen Mesina'n, eta a ezta gitxi be poztuko bere illoba orrek egin dauenaz.

GEZN.—Dagoneko emon dautsat ari idazkirik, eta asko poztu dala dirudi; ain poztu be poztu da-ta, neurriz gorako pozez naibagerik be arean iragarri dau.

LON.—Negar egin dau, ala?

GEZN.—Bai, eta ez gitxi be.

LON.—Maitetasunak ganaz egitea edo olangoitsu yatsu ori. Eztozu arpegi zintzoagorik olan ikusten diranak baño. Ez ete da ederrago poza-arren negar egitea, iñoren negarrez poztutea baño?

BATIRKE. Arren, Montano yauna guda-ketatik etorri ete da, ala ez?

GEZN.—Eztot ezagun olango izendunik, andera; olangorik ezta egon gudarostean.

LON.—Illoba, nor eta nolango da zuk itandu dozun ori?

ERE.—Padoba'ko Bedita yauna da nire lenguinak esan gura dauena.

GEZN.—Ba, orrako ori etorri da atzera, eta eguñoko txitxarien etorri be.

BAT.—Ak emen Mesina'n eupada egin dautso Kupida'ri, geziak zeñek obeto yaurtin, eta nire osaba ergelak, aren eupadea irakurriaz, Kupida'ren alde izenpetu dau, eta txoriak illeko eupada egin dautso.-- Arren, zenbat il eta yan dautz ak gudaketaotan? Baña, zenbat il dautz? Eta izan be, ak ilak neuk yango neukezala agindu neutsan.

LON.—Egia esateko, Illoba, zuk zakarregi darabiltzu Bedita yauna; baña ak berea emonago dautzu, bai orixe.

GEZNA.—Ak, andera, otseintza onik egin dau gudaketaotan...

BAT.—Yaki urdinuak zeunkiezan zuok, eta a orrako orreik yaten lagun izan yatzue: yatan itzala da a eta mizkekeribakoa.

GEZN.—Gudari on be ba-yatzu a, andera.

BAT.—Emakumeren aldean bai ba-da a gudari on, baña zer da a benetako gizonen aldean?

GEZN.—Yaun andiki da a yaun andirentzako, eta gizon gizonentzako: guztitariko onindarez onidua ta betea.

BAT.—Olanxe da izan be; gizon bete baño gitxiagorik ezta, baña ortxe betetasunean... tira, guztiok gara ilkor.

LON.—Yaun, eztozu oker etsi bear nire illobea; gudu-antzeko zertxo olgetaria yasu orren eta Bedita'n artekoa; eguño eztera batu orreik alkarrekin, euron arteko buruzorroztasunezko burrukarik izateka.

BAT.—Ene! ak eztau ezer lortzen ortik. Orainsuengo gure burrukan aren bost sentzuetaik lau, nire ustez, ortik zear yoañ ziran, eta orain gizon zar ak eztau sentzu bat baño bere burua yaurteko edo erabilteko: orrazkero ba, sentsurik asko ba'dau ak bere burua epeletan eukiteko, ori bedi aren eta aren zaldiaren arteko aldetzat; eta izan be, orixe bakarrik gelditzen yako ari a adimendun izaki edo zertzat esteko. --Nor dau ak orain bere lagun? Ile bakoiteko kutun barririk dau ak izan be.

GEZN. Bai ete?

BAT.—Bai orixe: bere buruko txapela lez aldatzen dau ak adiskidetasuna; lenen datorken kirtenari emoten dautso.

GEZN.—Andera, dakustanez aitonen seme ori eztago zure izen-lerro edo erreskadana.

BAT.—Ez izan be; an ba'lego, erre egingo neuke nire idazlittegia. Baña, arren, nor da aren lagun? Ez ete dago akin txerrenagana yoañ-etorrien bat egin gurako leuken eztabidazale gazterik?

GEZN.—Geien baten Kauldi zindo zindoa izaten da aren lagun.

BAT.—Yaungoikoa-arren! Izurria legetxe intsigiko yako a ari: izurria baño lenago intsigiko yatzu a, eta a intsigiten yakona bertatik gelditzen da burutik eginda. Yaungoikoa lagun bekio Kauldi zindoari! Beditagatxa intsigi ba'yako, gitxienez milla libera eralgi bearko dautz osatu orduko.

GEZN.—Zure adiskideetariko izan gura neuke, andera.

BAT.—Zadiz, bai, adiskide on.

LON.—Zuk eztozu bururik galduko bein be, illoba.

BAT.—Ez, ez urtarrik beroren baterarte.

GEZN.—Urreratu da D. Pedro.

D. PEDRO aurrera, BALTAZAR eta beste batzuk lagun dauzala, YON, KAULDI eta BEDITA.

D. PEDRO.—Lonata yaun on, zure lor-billa etorri zara zu: eralteari igesi egiten dautso munduak, zu, ostera, bere billa zatoz.

LON.—Lorrak eztau ekarri eguño nireira zure antzik, yaun maitagarri; eta izan be, lora yoañ doanean nasaitasunak gelditu bear leuke, baña zu nagandik zoazanean, naibagea gelditzen yat, eta zori onak alde egiten daust.

D. PED.—Zuk gogozegi besarkatzen dozuz zure lora ta zamea.--Neskato au zure alaba da, ezta?

LON.—Bein baño geiagotan esan dausti orren amak baietz.

BEDITA.—Ezbairik ba-zendun, ala ,yaun, ari olango itaunik egiteko?

LON.—Ez, Bedita yaun; olango itaunik umeez bestek eztau egiten-eta.

D. PED.—Beste biderik artu egik, Bedita: ortik igarten dogu nor zarean, orain gizonduzareanean. Egia esateko, neskeak berak diño nor dan bere aita.-- Zori ontsu zadiz, neskatu! zure aita zindoaren antzeko zara-ta.

BED.—Lonata izatekotan orren aita, orrek eleuke eroan gurako aren burua bere sorbalden ganean aren orren antzeko izan-arren Mesina osoagaitik be.

BAT.—Andia da zuk oraindik be itz egiten eragotea, Bedita yaun; inok be eztautzu yaramonik egiten.

BED.—Zer diñozu, nire andera Zaputz orrek? Ondiño be bizi zara, ala?

BAT.—Zelan ilteko zapuzkeria Bedita lango yaki egokirik ak izatekotan? Era-meratatsuna bera be zapuzkeritu egingo litzake zu aren aurrera agertuazkero.

BED.—Orrazkero, era-meratatsuna eguzkia nora zapiak ara eroaten dakiana da, aldakor.—Baña yakizu zuez beste emakume guztiak maite nabela: eta ez al litz nire biotza biotz gogorretarikorik: egiz, bat be eztoi maite-ta.

BAT.—Zori on andi yake ori emakumeai; ostantxean, lor astuna litzake orren kaltegarri dan gizona euren yarrari ibiltea. Eskerrak Yaungoikoari ta nire odol otzari, orretan zure erizkide nazalako: guraço neuke txakurra beleari ausika entzun, gizonik ni maite nauela zinka entzun baño.

BED.—Oraindik be Yaungoikoak asmo orretan euki zagizala! olan aitonen seme batetik edo bestek alde egingo dau arpegia atzazalez urratuak eukitetik.

BAT.—Atzazalez urratzeak eleuke itsusiagotuko zurea lango arpegirik.

BED.—Tira ba, lora baño irakasla itzontziago zara zu.

BAT.—Nirea lango miñik leuken txoririk oba litzake, zurea langorik leuken abererik baño.

BED.—Nire zaldia zure miña bestean bizkor al litz ibilten asteko ta ekiteko. Baña zuk ekiozu zure bideari, Yaungoikoa lagun; esan dot nik esatekoa.

BAT.—Zuk beti amaitzen dozu zaldizarraren marroen bategaz; aspaldidanik zaudaz ezagun.

D. PED.—Argi ta garbi onetaratsu da gauzea: Kauldi ta Bedita yaunok, Lonata'k, nire adiskide maite Lonata'k, dei egin dauzue guztiok. Gitienez ilebete egingo dogula emen diratsat nik; eta onek gu emen alanbearen batek luzaroago eukitea gura dau biotz biotzetik: Lonata azalutsik ezta zin egingo neuke-ta, orren opea zintoztat etsi bear dogu.

LON.—Ene yaun, zin ba'dagizu, eztozu zinik ausiko.—Zuri ondo etorria emoten itxi egidazu, ene yaun: zure anai errege-semeekin onezkoak egin dozuzanazkero, omen osoa zor dautzut.

YON.—Eskerrik asko zuri; enozu ni itz-dariorik, itz-ontzirik, baña orraitño be eskerrik asko zuri.

LON.—Aurrea artuko dozu, arren, maitagarri orrek, ala?

D. PED.—Ekazu eskua, Lonata; biok batera yoango gara.

(BEDITA ta KAULDI'z beste guztiak alde)

KAUL.—Bedita, yaramonik egin ete dautsak Lonata'ren alabeari?

BED.—Yaramonik etxautsat egin, baña begiratu bai egin yoat.

KAUL.—Ez ete dok a neska lotsor?

BED.—Nire uste zintzo, lau eta izurbakoari dagokionez erantzuteko asmoz itanduten dautsak orrako ori, ala emakumeen zirikari ta lor nazanez eta nik oi dodanez erantzuteko?

KAUL.—Arren, artez eta argi erantzun egidak.

BED.—Ba, egia esateko, goi-gorapenerako bekoegitatz yoat, balizeranegi gorapen lirainerako, eta motxorregi gorapen andirako: auxe bakarrik esan negike aren alde: dan lango ezpa'litzok, itsusi ledikela; eta dan langoxe baño ezalako, etxatala gogoko.

KAUL.—Nik txantxetan daraçoiodala uste dok ik, benetan esaidak, arren, ik ze eretxi dokan neskato orretaz.

BED.—Erosi egin gura dok, ala, niri orretaz olango itaunik egiteko?

KAUL.—Mundu osoaz be erosi ledikek olango pitxirik, ala?

BED.—Bai, eta bai bera eukiteko ontzia be. Baña betozko ilunez diñok ori? Ala txantxetan abil, gero Kupida erbi-eiztari on eta Bulkan burdin-arotz bakan dala esateko? Tiruk, ze doñu yoko ete daskagu i eratorteko?

KAUL.—Nire begien eretxiz, neskato ori nik eguño ikusi dodanik maitagarriena dok.

BED.—Betaurrekorik etxoat bear ikusteko, eta nik etxoat ikusten olangorik; or dok orren lengusiña eta a muker eta asarreak arturik ezpa'litzok, a beste ori baño askozaz be lirainago litzakik, Orrilaren lenengo eguna Lotzilaren azkenengoa baño lirainago danez. Baña nire ustez, ik eztoz ezkontzeko asmorik; eztoz olan, ala?

KAULDI.—Bestera zin eginda egon-arren, etxoat nire buruaz entziterik edo konpianzarrik, Ere'k nire emazte izan gura izatekotan.

BED.—Orretara eldu az benetan? Bere txape-la tuku-estalgitatz eroan gura dauenaz beste gizonik etxok munduak., ala? Inoz be ez ete yoat ikusiko barrero irurogei urteko mutilzarrik? Ekiok, bai, ekiok; ire burua buztartu gura ba'dok, orren ezaugarri-

izat iduna ulduta erabili egik, eta igandeak intzirika igaro egizak. Begira, D. Pedro etorri dok atzera, ire billa.

(D. PEDRO aurrera ostera be).

D. PED.—Ze ixilkizunek euki zauez emen, Lonata'ren yarra ez yotateko?

BED.—Zuk, maitagarri orrek, esanazoko al daustazu.

D. PED.—Ire bendekotasuna-arren agintzen daukat.

BED.—Ba-dantzuk, Kauldi konde orrek; nik etxoat izkeak, mutuak bestean ixilkizunik gorde-ezinik, eta ori uste izango al dok euk be; baña nire bendekotasuna-arren, --oar akio oni--, nire bendekotasuna-arren!... maiteminduta doqu au. Norekin? Au da orain zuk, maitagarri orrek, itandu bear daustazuna; eta oar zakioz orren erantzun laburrari: --Ere'kin, Lonata'ren alabarik gazteanakin.

KAUL.—Olan ba'litz, olan esango neukean.

BED.—Beñolako ipuinak diñonez, ene yaun: "Etza olan, eta etza izan olan; baña, benetan, Yaungoikoz ez al da izango olan".

KAUL.—Nire lerea laster aldatu ezpa'dadi, Yaungoikoz ez al da yazoko besterik.

D. PED.—Olanixe bedi, ik a maite ba'dok; eta izan be, neskatoa aintzakogarri be aintzakogarri dok.

KAUL.—Ni aztetu ta arakatze-arren diñozu ori, ala, ene yaun?

D. PED.—Sinis egidak, nik nire eretxia iragarten yoa.

KAUL.—Eta, benetan, ene yaun, nik be nire iragarri dot.

BED.—Eta nire omen eta siniste biak-arren, ene yaun, nik be nirea iragarri dot.

KAUL.—Nik a maite dodala da nik nigan somatzen dodana.

D. PED.—A aintzakogarri dala dok nik dakidana.

BED.—Nik eztodala somatzen a inok maite bear leukenik eta eztafidala zegaitik ak izan bear dauen aintzakogarri; eretxi au eztaust inok kenduko su goritan imini ba'nagi be; eretxi oni deusadala, eta eretxi onen alde taketari estuta ilteko be gertu nago.

D. PED.—Edertasunari muzin egiten i beti izan augu zin-ausle setatsu ta buru-gogor.

KAUL.—Eta bereari eusteko orrek eztau erabili eguño bere gurariaz besterik.

BED.—Sortu nindun emakumeari esker oneko naiako; emakumek azi nindulako, orregaitik be nire eskerrik apalenak arentzako; baña nire balarrietan eiza-txakurrak ba-

itzeko adar-otsen durundua ontzun gura ba'dagit, naiz nire turuta garri-ede ikus-ezinetik dingilizka erabili ba'dagit, emakumek asketsiko, parkatuko al nabe. Eta izan be, nik eztaustet irainik egingo euretari-koen bategan naiz bestegan usterik ez izanaz; euretari-ko bategan be usterik ez izateko eskubideari intsigiko naiako; eta, azkenez, eta au izango yat egokien, mutilzar iraua gura dot.

D. PED.—Ni il baño len ikusiko aut i maitasuna-arren zurbil eta kolorga.

BED.—Asarrez, gexoz, naiz gosez bai, ene yaun; ez maitasunez: inoz erakutsi ba'dagizu edariz atzera irabazi daikedan baño odol geiago galdu dodala maitasunez, atzera egidazuz begiak bertsogilleren idazkortzaz, eta zirrildategiko atetan eskegi nagizu, Kupida'ren ezaugarritzat.

D. PED.—Tiruk ba, uste orretatik bein be alde azpa'dagit, zer-esanik asko emongo dok.

BED.—Alde ba'dagit, katu legetxe leiar-ontzian sartu nagizu ta niri tiroka ekiozu; eta ni yo nagiana zuk sorbaldan yota, "gizon az i, Adan az i" esan dagiozula.

D. PED.—Tiruk ba, aldiak esango yok egia danentz onako au: "Nozbaiten zezen uxoak be ba-daroa buztarria".

BED.—Zezen uxoak eroan lei; baña Bedita zurrak inoz eroan ba'dagi, kendu, erauzi zezenari adarrak eta nire buruan imini; zakar margoztu naguela, eta "Zorrea artze-ko emen dozu zaldi on" iragarteko idazten dabanak lango iklitzarrez idatzi daguela arako nire irudipean: "Au dozue Bedita gizon ezkondua".

KAUL.—Olangorik inoz yazotekotan, adarduna bestean burutik eginda geldituko intzake.

D. PED.—Bai, Kupida'k bere gezi-ontzia Binxan guziz uste ezpa'yok, laster asiko az i be dardaraka.

BED.—Orrazkero lur-ikararik be etorteko da.

D. PED.—Bitartean Lonata'nera oa Bedita yaun on; nire gorantziek emon eta esaiok aparitara eztodala utsik egingo; izan be, gertakuntza andiak egin yozak ak.

BED.—Olango geznarik ari eroateko neuk dot neure geirik asko; eta orrazkero, zure geznea zeuk eroatea oba izango yatzu...

KAUL.—Yaungoikoa lagun bekik; nire etxean babestuko induket, nire etxerik ba'ñok...

D. PED.—Garagarriren seigarrenean. Zure adiskide maite, Bedita.

BED.—Ez yo adarrik niri, ez yo adarrik.. Zure itzaldien euna batzuetan txatalez yosita

agertzen da, adabakiz yosita, eta ariak meatz agiri dirala; lenagoko zerakaz niri adarra yoten ibilteka zeure yakinkidetzear zertu ta arakatu egizu: eta orrazkero, agur. (BEDITA'k alde).

KAUL.—Ene nagusi ori, zu lagun izan zaki-daz.

D. PED.—Nire maitetasuna or dok iri irakaste-ko; esaidak zetan lagun izan naitekean iretzat bai- eta or ikusikok zenbaterano dan egoki itzako lagunari izan lediken edozein ikaskizun zail ikastea.

KAUL.—Semerik ete dau Lonata'k, ene yaun?

D. PED.—Ere'z beste seme-alabarik bat be etxok ak, Ere dok aren ondorengo edo yarusle bakarra; maite dok orrako ori, Kauldi, ala?

KAUL.—Ene yaun on, orain amaitu dogun guda-egikizunerako urten zintzazanean, neska ori nik gudari-begiz begiratzen neban eta begiari gogoko yakon, baña gogoko izate-tik maite izateraño eltzeko gogoko izateak egikizun gogorragorik eukan orduan esku aritean; orain baña andik etorri nazanaz-kerro, guda-gogaketak utsik itxi daben leku-rra moltsoka ta taldeka etorri dira gurari bigun eta samurrak, danak esaka Ere li-rain be lirain dala, eta gudaketara yoa-n-aurretik Ere gogoko yatala gedarrez.

D. PED.—Gesu baten i maitemindu-antzeko

izango az, eta aurrekoari gogait eragingo dautsak ontzi bete itzez; Ere lerdena maite ba'dok, kutundu egik maitetasun ori, eta neuk ezi ta bigunduko yoadaz a bera ta aren aita, eta ire izango dok a. Ez ete dok au i eralten asi azan ipuin politaren elburua?

KAUL.—Zuk bai ba-dakizula maitetasuna bi-gun eta ezikiro erabilten, maiteminduren lor eta naibageak bere arpegitik igarten dakizu-ta! Baña nire lerea ta leiea arinegi sor-tu dirala uste ez zengian itzaldi luzeagorik egiteko asmoa izan dot.

D. PED.—Zetarako egin ibaia baño zubi zaba-lagorik! esku-erakutsirik onena bearreko yatzuna da. Aiko, zerbaiterako dana egoki dok; argi ta garbi ta labur esateko, maite dok ik; eta neuk emongo dauskat osakaia. Ba-yakiat arratseon yai zaratatsurik izango dogula; zelan edo alan irea egite-ko kokomarrotu egingo nok eta Ere lirai-nari Kauldi nazala esango yautsat; eta aren biotzera ustuko yoat nirea, eta aren be-larriak atxilotu; baitu egingo yoadaz nire maite-ipuinaren oldar edo eraso indartsuz; gero, urren, aren aitagana yoko yoat; eta orrako guzti orren atzen eta ondorentzat ire izango dok neskatoa; len baño len da-gigun egikizuna. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--DONATA'neko Gela.

Banazean aurrera LONATA ta ANDONI.

LON.—Kaxo, anai! nodik dok nire illobea, ire semea? Gertau ete yok eresi-aldi ori?

AND.—Orretan daragoio aperturirik askogaz. Baña, anai, ik olangoren amesik be egin estokan lango zerak esan neikez ire belarrietara, or entzunda.

LON.—Barri onak ete dozak?

AND.—Geroak esango yok ori: azal eta estalgi ona yoeak izan; arpegiz atsegingarri dozak. Errege-semeak eta Kauldi kondeak nire baratzekeo zugatz-artean, ango oian-txoan ara ta onaka eragoiela, nire otseine-tariko batek, aik oartzeka, zer au entzun yautsela: ire alaba, nire illobea maite daue-la esan ei yautsak errege-semeak Kauldi'ri, eta arratseon, yantzan daragoioen artean iragarriko ei yautsak orrako ori ire alabea-ri; eta neskatoaren baietza ak lortu ba'

yagik, ereti ori galtzeka, i bertatik yakitun egingo auela.

LON.—Ete yok ezetariko sentzunik orrako ori esan dauskanak?

AND.—Gizon on eta buru-argi dok izan; neuk dei egingo yautsat eta euk itanduko dautsak.

LON.—Ez, ez; amestzat eukiko yoagu ori be-rez argitu-arte: baña nik nire alabea yakitun egingo yoat, orrako ori egia izate-kotan zer erantzun yakiteko gertuago egon dadin. Oa ta esaiok orrako ori (Lagun ba-tzuk antzokira sartu-ala yoa doaz). Seni-deok, ba-dakizue zer egin... --Ene bada! as-ketsi nagik, adiskide; lagun akit, ire ganora ta trebetasunaren bearra yoat-eta... --Len-gusu on, arduraz abil aldi arazotsu onetan. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—LONATA'neko beste Gela.

YON yauna ta KONARTA aurrera.

KON.—Eguraldi txarrari arpegi arrai, ene yaun! zegaitik zagoz orren gotilun?

YON.—Gotiluntasuna dakastan zerak etxok neurririk; orregaitik dok gotiluntasun au atzenbako.

KON.—Sentzunari entzun bear zeuskio.

YON.—Eta ze onik, ze onurarik ekarriko daust, entzun ba'dagiot?

KON.—Bertatik osatu ezpa'dagi gatxa, bai lora epez eroatea.

YON.—Andia dok, euk esaten dokanez i Sa-turna-pean yaioa izan, eta ilten nauen gatxari ik gogozko osakairik ezarri gura izatea. Nik ezin yoat ostondu nazana: gotilun egon bear yoat nik orretarako bide-rik dodanean, eta ez egin irribarrerik inoren izkirimiri ta txantxetai; yan egin bear yoat yangale, gose nazanean, besteri ondo datorkionentz begiratzeka; lo egin bear yoat logura nazanean, besteak euren zereginak noz burutu ta amaituko begira egotea; barre egin pozik nagonean, besteak ze gogaldi daben yaramoteka.

KON.—Bai, ori olan da, baña zuk etzeunke egin bear olango erakusketa oso-beterik inor begira eztozun-arteño; oraintsu izan zara zure anaiearen asarrepean, eta oraintsu egin dauz ak onezkoak zukin; eta orretan ezin zeinke sustarrik emon eguraldi onari dagokion arpegia erakutsi ezpa'dagizu: nai ta nai ez, urtearo ona ekarri bear dozu, uzta onik izan gura ba'dozu.

YON.—Gurago, naiago yoat sasitzako mamarro izan, aren ederra-arren larrosa izan baño, eta nire odolari egokiago yakok guztiak ezetsia, zapuztua, arbuaiatua izatea, inoren ederra-arren eta inoren maite-tasuna niganatzeko azal-eder egitea baño; onetan inok ezin esango dauen-arren gizon zurikerizale zindo nazanik, inok eztau ukatu bear argi yokatzen dakian dollor nazanik. Nigan usterik ba'dabe, niri musturra lotuta dabe; ni yarei ba'nabe, zango-lokariak aldean itxi daustez; orrazkero, nire baitegian ez abestutea erabagi yoat. Agoa estuta ezpa'neu, usika egingo neuke; yarei ba'nengo, neuk zer-gura neqike; bitartean, nazana izaten itxi egidak, eta ez egik aleginik ni aldatzeko.

KON.—Ezin atera ete dozu onik zure gogoaz besteratasunetik?

YON.—Al dodan guztia egiten yoat beragaz, beraz besterik etxoat-eta. Nor yatok or? Ze barri dakak, Mozkorti?

MOZKORTI aurrera.

MOZK.—Apari oparotik nator: zure anai errege-semeari erregeri lango txerea egin dauso Lonata'k; eta egikizun dan ezkontzearen barri emon negiketzu.

YON.—On izango ete dok bere ganean gaiztakeririk eratu ta eragiteko? Nor ete dok artegatasunez bere kitetik buztartu ta ezkontzen dan ergela?

MOZK.—Ba! Ire anaiearen esku oskoia dok orrako ori.

YON.—Nor esan dok! Kauldi bardinbakoa, ala?

MOZK.—Bai, axe.

YON.—A bai ba-dala benetako ikurdidun! eta nokin? Nokin? Norako bidea artu yok aren begiak?

MOZK.—Ba! Ere'ganakoa, Lonata'n alaba ta yarausleaganakoa.

YON.—Ollanda goiztar dok a! Zelan yakin dok ori?

MOZK.—Lurrun gozogillearena egiten eta gela ezoan lurrun gozoak egiten neragoiola, an datoz alkarrari eskutik elduta errege-semea ta Kauldi, alkarrekin autu benean. Errezelaren ostein ostondu naz eta andik entzun daustet esaten eta alkarrekin ituntzen errege-semeak beretzat egingo eutsala maiteminduarena Ere'ti, eta bein a irabaziakero, Kauldi kondeari emongo eutsala.

YON.—Erdi, erdu, goazen ara; or idoro daiket nik nire mukerraldiaerentzako yakirik: gora igoten asi dan gazte orrek daroa nik nire itzulketaz galduta dodan omen eta dedu guztia. Okerrik egin al ba'dagiot, zori ontsutat etsiko dot edozelan be nire burua. Or zauedaz zuok biok, lagun izango ete zaizate?

KON.—Eriotza-arteraño, ene yaun.

YON.—Goazen apari lango apari orretara: ni beerago ta andiago da arein poza. Nire asmoko al litz sukaldaria! Zer egin ledikean ikusten yoango ete gara?

MOZK.—Zuk zer aginduko begira gagotzugu. (Alde dagie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.-LONATA'neko Bebarru.

LONATA, ANDONI, ERE, BATIRKE ta beste batzuk aurrera.

LON. Yon kondea eztok izan emen apartatan, ala?

AND.—Etxoat ikusi.

BAT.—Aitonen seme ori bai ba-dala erre-min-gots! Bera ikusten dodan baktotxean andik ordubeteko biotz-errea izaten dot.

ERE.—Izakera goitiluneko da a.

BAT.—Gizon bikain ledike a. egin-eginean be-
ra ta Bedita'ren bide-erdian ba'lego; bata irudiren antzekoegi da ta eztauz ezer esaten; bestea, barriz, nire anderearen seme-
rik zarrenaren antzekoegi, beti txortxor da-
ragoiona.

LON.—Orrazkero, Bedita yaunaren miñaren erdikina bear litzake Yon kondearen agoan, eta Yon kondearen gotiluntasunaren erdia Bedita'ren arpegian.

BAT.—Osaba, zango ta oin onakaz eta sa-
kelean txanponik askogaz, alango gizonek edozein emakumen biotza irabaziko leuke munduan... ak emakumeren eder etsirik iri-
ti al izanazkero.

LON.—Benetan, illoba, bein be eztozu iritxiko senarrik, zure miña orren zorrotz ba'dadi...

AND.—Zirikariegi da, benetan; zorrotzegi da.

BAT.—Zorrotzegi zorrotz baño geiago da. Al-
de orretatik Yaungoikoak emona gitxiago-
tu egingo dot; eta izan be, or diñoenez,
"Adar motzak emoten dauzaz Yaungoikoak
bei adarkariari; baña bei adartiegiari eze-
tarikorik be eztautso emoten.

LON.—Orregaitik, adarkariegi zarealako,
Yaungoikoak eztautzu emongo ezetarik
adarrik.

BAT. Bidezko da Yaungoikoak niri senar-
rik ez emotea; izan be, orixe da goizoro ta
egunoro nire belanuen ganean Ari eska-
tzen dauzadana: Yauna, nik ezin yasan
izango neuke arpegian bizarrik dauen se-
narrik; gurago dot arlletan etzan.

LON.—Ba-ledike zuk bizarbako senarrik iris-
tea.

BAT.—Zer egiteko nik alangoaz? Nire yan-
tziak ari yantzi eta nire yarraigoko aiton-
alaba egin, ala? Bizarrik dauena mutiko
baño areago da; eta bizarrik eztauena ez-
ta gizon; eta mutiko baño areago danik
ezta nitzako; eta ni enaz gizon baño gi-
txiago danarentzako be: orrazkero, beine-
go dot artz-yagoleagandik sei txakurrandi

baiztat artu be ta aren matxango guztiak
su-lezara eroan.

LON.—Tira ba, orrazkero su-lezara yoango
zara, ala?

BAT.—Ez; su-lezako atetaragiño baño ez; an
egin-go dau trikitx nikin txerrenak, adardun
zarrari dagokonez buruan adarrak dauzala,
eta ak esango daust: "Zerura zoaz zu, Ba-
tirke; zerura zoaz; ezta go lekurik emen
zuok neskontzako": alan ba, emongo dau-
tsadaz nik nire matxangoak eta Kepa Deu-
nagana yoko dot, zeruan sartzeko; ak era-
kutsiko daust non bizi diran mutilzarrak,
eta an biziko gara pozik egun osoan.

AND.—ERE'ri) Tira, illoba, zu zure aitaren
esaneko izango zareala uste dot.

BAT.—Bai orixe; nire lengusinarene egikizuna
burua makurtu ta aitari "aita, zeuk zer-gu-
ra" esatea da; baña, ori guzti ori gora-be-
ra, lengusin, dalako ori mutil lerden izan
dadilla, ostantxean beste aldera makurtu
zure burua ta "aita, neuk zer-gura" esan.

LON.—Tira ba, illoba, egunen baten senarre-
kin ikusiko zaudazala ditxarot.

BAT.—Ez, Yaungoikoak gizonak lurrezko
besterik egin-arte. Ez ete litzake nekagari
ta lotsagarri emakumerentzat lupetz-zati
arro-adoretsuren bendekoegi izatea? Naiz,
bere biziaren gora-bera ta atzera-aurreen
garbitasunak buztin-zoi berekoiri emonbea-
rra? Ez, osaba, nik eztot egingo olangorik:
senide yataz Adan'en semeak, eta oben-
tzat dot senitartekokin ezkontzea.

LON.—Alaba, gogoratu egizu nik esan dau-
tzudana: errege-semeak olango eskaririk
egin ba'dagituz, ba-dakizu zer erantzun.

BAT.—Eresia izango da errudun, lengusin,
tertzioz erakutsi ezpa'dagituzue maitetasuna:
errege-semea andikiegi, arroegi agertu ba'
dadi, esazioz, edozetan dagola neurria,
eta yantzan egin erantzute-ordez. Eta izan
be, entzun nagizu, Ere, maitemindutea, ez-
kontzea ta garbai izatea Eskolandarren
arin-arin yantzatzea langoxe yatzuz: mai-
temindute-lenak bero ta iraduzko dira, Es-
kolandarren arin-arina legetxe eta a bes-
tean zoro; ezkontzea, ben eta lotsor, neu-
rri lez, bentasunez eta lenagotiko arauz be-
tea; eta garbaia dator gero, eta bere zan-
go baldarrez yantza geldora alde egiten
dau, geroago ta bizkorrago, illobira yausi-
arteño.

LON.—Illoba, zuk edozetan edozeren alde itsusia bakarrik ikusten dozu.

BAT.—Begi on dot nik, osaba; egunez yaurteririk ikusi-ezinik ezto.

LON.—Yantzariak ba-yatozak, anai; leku da-giegun.

D. PEDRO, KAULDI, BEDITA, BALTAZAR; YON, MOZKORRTI, MARGARITE, URSULE ta beste batzuk aurrera, kokomarroturik.

D. PED. Andera, ibili gura ete dozu zure adiskideakin?

ERE.—Bigun ibili, samur begiratu ta itzik ezpa'dagizu, emen nozu zukin ibilteko; alan be urriner a yoterik ba'da.

D. PED.—Zuon laguntzat neu nozuela, ala?

ERE.—Neuri eder dakidanean erantzungo dautzu.

D. PED.—Eta noz eder izango yatsu?

ERE.—Zure arpegia eder dakidanean; eta izan be, Yaungoikoak ez al dau gurako kitarra ori bere ontzia langorik izatea!

D. PED.—Pilemon'en tellatua da nire mosukoskola; Yupiter dago etxe-barruan.

ERE.—Orazkero, zure mosu-koskolak zoiak bear leukez ganean.

D. PED.—Ixilago itz egizu, maitetasunez itz ba'dagizu. (Banazean artzen dau).

BALT.—Tira ba, zure gogoko al nintz.

MARG. Ez al nintzakizu zeure onerako, nik lera okerrik asko dot-eta.

BALT.—Euretariko bat, arren?

MARG.—Gedarrez egiten dodaz nire ototzak.

BALT.—Maiteago zaudaz orrexegaitik; olan, entzuleak "olantxe" erantzun legikie.

MARG.—Yantzari onekin ezkonduko al nau Yaungoikoak!

BALT.—Olantxe bedi.

MARG.—Eta Yaungoikoak alde eragingo al dautso nire begien aurretik bein yantzaldia amaituazkero. Erantzun, eleiz-gizon.

BALT.—Itzik asko dogu: erantzun dau eleiz-gizonak.

URS.—Ezagunik asko zaudaz nik; Andoni zara zu.

AND.—Itz batez dirautzut, enaz.

URS.—Zure buru-eragikeretatik zaudaz ezagun.

AND.—Egia esateko, arena egiten daragoiot.

URS.—Etzeunke egin al izango txarto ain ondo, a bera ezpa'zintzaz. Amen aren esku legorra gora-beraka; a zara zu; bai, axe zara zu.

AND.—Itz batez esateko, enozu.

URS.—Tira, tira; ez ete dozu susmatzen zure adimen zorrotzetik ezagun zaudazala? Be-

re burua ostondu ete legike on-indarrak? Tira; ixilik; a zara zu! Euren burua erakusten dabe zer onak, aor.

BAT.—Ez ete daustazu iragarriko ori nok esan dautzun?

BED.—Ez, eta asketsi, parkatu nagizu.

BAT.—Ez ete daustazu esango nor zarean be?

BED.—Orain ez.

BAT.—Zapuztzalle, arbuizatzaile izan nazala! --Eta nire buru-zorroztasuna "Eun Ipuin Gogargietatik" dodala! --Tira ba, Bedita yauna da ori esan dauena.

BED.—Nor da orrako ori?

BAT.—Seguru nago zuk ezagun be ezagun dozula orrako ori.

BED.—Ez nik, sinis egidazu.

BAT.—Eguño eztautzu barre eragin, ala?

BED.—Arren, nor da orrako ori?

BAT.—Ba, errege-semearen izkirimirilari yatzu orrako ori; gatz-bako ergel; aren ganora ta trebetasun bakarra zakarrkeri ezinak asmatzea da; dollorrez bestek eztau artzen atseginik eta pozik aren zakarrkerietan; eta ak bere alde dauena ezta buru-zorroztasuna, dollorkeria baño, eta izan be, ak gizonai atsegin emon eta gizonak asarratu biak batera egiten dauz, eta orregaitik aik ari barre egin eta a yo egiten dabe. Seguru nago ni a talde onetan dagola, itxas-ontzi talde onetan; bere ontziratu al nau ak.

BED.—Aitonen seme ori ezagun dagidanean iragarriko dautsat aretzaz esan dozuna.

BAT.—Esaiozu, bai, esaiozu; ziplada bat edo beste, eztenkada bat edo beste esango dau ak nitzaz, besterik ez; eta oren oiango urteerai iñok yaramonik egin ez, naiz barrerik egin ezpa'dagio, motel eta arpegiluze gelditzen da a; eta, olan, eper-ego bat aurreratzen da, gau atan ergel ak eztau aparirik yan gurako-ta. (Eresi da barruan) Aurrelariai yarra bear dautsegu.

BED.—Onerako ba'da bai.

BAT.—Bai izan be, edozetariko zer txarrerako ba'garoez, urrengo bide-kurutzean itxiko dodaz. (Yantzan daragoioe. Gero YON, MOZKORRTI ta KAULDI'z beste guztiak alde).

YON.—Seguru be seguru nire anaiea Ere'z maitemindurik dago, eta neskatoaren aita banazean artu dau arazo orrez itz egiteko. Neskatoaren yarra doaz emakumek, eta mosukoskol bat bakarrik gelditu da.

MOZK.—Eta Kauldi da mosu-koskoldun ori. Bere igikunetatik, ereikeretatik dot ezagun.

YON.—Bedita etzara zu, ala?

KAUL.—Igarri dozu; axe naz izan be.

YON.—Yaun, nire anciearen kutun zara zu: Ere'z maitemindu da a; arren, atera egiozu burutik orrako ori; neskato ori bekoegi da aren yaiotzeari dagokionaren aldean: gizon zindorena egin zeinke arazo orretan.

KAUL.—Nolan dakizu a neskato orrez maiteminduta dagonik?

YON.—Neuk entzun dot maite dauela neskeari esaten.

MOZK.—Neuk be orixe entzun dauatsat; eta arratseon ezkonduko dirala zin egiten entzun dauatsat.

YON.—Tira, goazen oturuntzara. (YON eta MOZKORRTI'k alde).

KAUL.—Bedita'n izenez erantzun dot nik onan, baña barri txarrok Kauldi'n belarriz dantzudaz. Egia da; errege-semea bera maitemindu da. Maitasun-arloaz beste edozetan zintzo da adiskidetasuna: orrazkero, biotz-maiteminduak euren miñez azaltzen dabe euren burua: begi bakotzak bere egizkizuna berak begi, eta ez erabili bitartekorik, ez izan bestegan ustetik: izan be, sorgin da edertasuna eta aren lilurapenak odoldu egiten dau zintzotasuna. Egunoro yazozen danak darakusku onako au egia da-la, eta orretan eztoz ezpairik: agur, ba Ere!

BEDITA aurrera ostera be.

BED.—Kauldi kondea, ala?

KAUL.—Bai, bera.

BED.—Goazen, etorri gurozu nikin, ala?

KAUL.—Nora?

BED.—Urren dagon saraspera, konde, zure arazoaz eragoteko. Nolan erabili gurozu sarats-txortea? Zure idunean, zikotzaren katea legetxe, ala? Ala zure besapean, gudalburu-ordekoaren zerrendearen antzera? Batera, naiz bestera, erabili erabili bearko dozu, zure Ere'z errege-semea yabetu da-la.

KAUL.—Pozik izango al dau arekin.

BED.—Ba! abereak saltzera doroazan gizon zindok esango leukena da ori; olan saltzen dabez or idiak. Baña uste izan ete dozu errege-semeak olangorik egingo eutzuunik?

KAUL.—Itxi nagik, arren.

BED.—Ba! itsuaren ukabilkadak emoten dara-goiok ik orain; mutikoa izan dok okelea ostu dauskana, eta ik ageari ukabilka dara-goiok.

KAUL.—Ik alde egin gura ezpa'dok, neuk egingo yoa. (Alde dagi).

BED.—Ene! egazti zauritu orren errukarri! iiartera yoango da narraz... Baña, nire ande-

ra Batirke'k ezagun al nindu, eta ez al nindu! Errege-semearen ergel!... Ja! ba-leiteke izen ori nire be izatea, txixtari ta txortxorti nazazlako... --Bai, baña olan okerrik egin neio nire buruari: goregi eztago nire entzutea: Batirke'n lera zakarmingots-latza da munda bere alde ta nire aurka iminten dauena. Tira ba, ordea emongo dauatsat, al do-daño.

D. PEDRO aurrera beste bein.

D. PED.—I, yaun, nondik dok kondea? Ikusi ete dok?

BED.—Egia esateko, ene yaun, Andera Entzute'rena egin dot nik. Kuitegiko kuzaiaren txabolea baño buru-yausiago, adoregeago ta gotilunago idoro dot a emen; neskato gazte orren biotza zuk irabazi dozula esan dauatsat, eta egia esan dautsadala uste dot; eta sarspera yoteko nire laguntzea opatu dauatsat, an, bertan-bera itxiari dagokionez, sarets-abarrezko txortaren bat egiteko, naiz a adakiren bati, taketen bateri estuteko, zigorgarri dala iragarteko.

D. PED.—Bizkarra berotzeko! Ze oker egin yok, ba?

BED.—Irakastegi-mutikoa egiten dauen oker argia, txori-abirik ikasiaren pozez bere lagunei erakutsi abia, eta lagunak aren abia ostu.

D. PED.—Inogan ustea imintea okertzat dok ik, ala? Lapurretan egitea dok okerra.

BED.—Orraitiño be elitzakean alperrik izango taketa gertatzea, ezta orrollo-sortea egitea be; eta izan be, orrollo-sortea berak erabili eikean; eta taketa zuri emon eiketzun, nire ustez txori-abia zuk ostu dautsazu-la.

D. PED.—Nik txori-kumei abestuten irakatsi baño etxoat egingo, eta gero atzera euren yabeari emon.

BED.—Aren abestia zure esanari dagokiona ba'dadi, egia esateko ondo esan dozu.

D. PED.—Itaz asarre dok Batirke anderañoa; akin yantzan egin dauen aitonen semeak ik a iraindu egiten dokala esan yautsak.

BED.—Ene! morkola baño zakarrago erabili nau neskeak; aldean orri bizi bakarra leukaken aretxak be erantzungo leuskion ari: nire mosu-koskola bera be biztuten asi yat, biztuten eta ari agirika egiten: ak esan daust, ni enazalakoa, ni errege-semearen barre-eragille, ergel nazala; edur-moltsorik baño motelago nazala; irriren yarra irri-yaurtika ekin daust, ni aren aurrean gudaroste osoak tiroka egiten dauksan elburu izan ba'nintz legetxe. Ezpatakadak, aiaz-

kadak izan dira arenak, itzetan aña zartada; aren arnasea aren itzak bestean ikaragarri ba'litz, elegoke ezer bizirik aren urrean; ipar-izarra bera be izurrituko leuke ak. Oben egin-aurretik Adan'ek ebazan emaitz eta on guztiak ba'leuz be ak, enintzake ezkonduko akin; ak Erkul be burduntziari bira eragitera beartuko leuke; baita aren makiltzarraz sua eragitera be. Tira, ez egidazu aitatu be No ori; No ori su-lezako Ate (1) berbera dala oartuko zara, bai, Ate berbera txairo yantzita. Yaungoikoa-arren, azti yakitunen batek araatuko al dau No ori; eta izan be, ori emen dan artean gizona su-lezan yauretxean bestean nasai bizi dateke; eta gizadiak beren-beregi oben egiten daragoio emendik ara yote-arren: ori dala-ta, izan be, No orren yarra doaz artegatasun, ikara ta naste guztiak.

D. PED.—Begira, or yatok bera.

KAULDI, BATIRKE, LONATA ta ERE aurrera.

BED.—Ez ete daustazu emongo yaun maitagarri orrek ludiaren azkenengo ertzerako egikizunen bat? Egikizunik zirtzilena asmau ba'dagizu be nitzako, oraintxe yoango naz, zuk aginduta, gure oinazpikoetarako be; Yon Abadearen (2) oñaren neurria ekarriko neuskitzu; Kan Andiaaren (3) bizarreko ule bat nekarkitzu; Pimi'entzako (4) gezna eroango neuskitzu; arpi (5) onekin iru itzezko itzaldirik be izan baño lenago. Ez ete dozu ni zetan erabilirik?

D. PED.—Zelango danik be etxoat, iri laguntza on opa izatea baño.

BED.—Ene Yaungoikoa! yaun, aurrean dodan yaki au etxat bape gogoko; ezin dot yasan nire Min Anderea. (Alde dagi).

D. PED.—Erdi, andera, erdu; galdu dozu Bedita yaunaren biotza.

BAT.—Izan be, yaun, apur baterako baño eztaust emon izan; eta irabaziaz emon daustat atzera... bionz bikotza aren bakararren orde; baño, kontxo! beste bein ditera us-telez irabazi eustan. Orregaitik, yaun maitagarri orrek ondo esan zengike galdu egin dodala.

D. PED.—Lur yota dago a, andera, lur yota.

BAT.—Orregaitik nik eztoz gura ak ni itzuli, lurreratu nagianik, ene yaun, lurgelen ama izan enadin. Kauldi kondea dakartzut, aren billa bidali nozu-ta.

D. PED.—Tira ba, kaxo konde! Zegaitik ago motel eta gotilun?

KAUL.—Enago gotilun, ene yaun.

D. PED.—Zelan ba? Gexorik, ala?

KAUL.—Ezta gexorik be, ene yaun.

BAT.—Kondea eztago ez gotilun, ez gexorik, ez alai, ez onik; era-meratsu ta txerakor baño, konde; urresagarra bestean txerakor, eta aren margo edo koloreko tukuekaz, gitxi-asko.

D. PED.—Egia esateko, andera, egia dago gona dala uste dot zure azalpena; orraitioño be, ori olan ba'da, zin egin daiket uste okerrean dagola ori.— Tiruk, Kauldi, ire izenez egin yot nik maitemindurena eta Ere liraina irabazita yagok. Aren aitakin itz egina nok, eta iritxi yot aren ederretsia be; izentau egik eztagu-eguna eta Yaungoikoak poztuko al au!

(1) ATE dalako au Elendarren mituetariko dogu, emakume, Tzeus eta Eris'en alaba. Elade'tarren odol-antzerkietatik agiri denez, yainkono onen egikizun zantarra gaizkinak oker gelago ta andiagorik egitera bultzatzea zan, gero gaizkinok zigortzen egur-ots andiagok erabilteko.

(2) Yon Abade, naiz Indietako Yon Abade au 12'gn. gizaldiko errege-abade yatsu. Amalkatxo ipuin sortu izan da berau dala-ta. Tartariko errian yaioztat dabe geienak. Bere izena Iorkhan edo Koirkhan zan eta, or diñoe-nez, Buda-sinistetik Kistar sinisterra biurtu zan, Errege egin zanean artu ei eban Abade izengoitia; Medi ta Iran'go Nagusiak eta erriak benderatuazkero Ierosolima'rako bidea artu eban, Kristarrai lagun izateko, baño Tigris ibairario bakarrik eldu al izan zan, ez aurre-rago.

(3) KAN Andia, edo Ienghiz Kan (1.162-1.227), Tartari'ko Mongol-erriko buruzagiren seme izan zan, eta bere aberriko erki edo lurralde batzuetako buruzagitxoak aurretik bere benderatuaz iritxi eban ospe ta entzutearen ostean errege esan gura duen Kan izengoitia beretu eban 1.206'gn. urtean. Geroa, bere agintzea sortalde-sartaldeetara urrin zabaldu eban, erririk asko bere benderaturik. Europa larri yarei izan zan aren ostikopera yaustetik.

(4) "Pimi", edo Epo izena Omer eta Herodotos'ek erabili izan eban Etiopi ta India'ko gizaseme merro-koskorak izentatzeko, eta orretariko gizakume ta euren erria esan gura dau emen Shakespeare'k.

(5) "ARPI" diralakoak Elade'tarren mituen arauz mamu edo bidutzi ingugarri ziran: soña egazti zantarrera, eta burua emakumena ei eban, eta beti ei egozan atzetik zirin zantar-nazkagarria erioela; ofietan erpa luze-zorrotzak ei ebezan.

LON.—Konde, artuk nire alabea nire esku-tik, eta berakin batera nire ondasunak; yaun maitagarri orrek atondu yok ezkontza au, eta esker oneko danek "olantxe" esan dagiala!

BAT.—Itz egizu, konde, zure aldia da.

KAUL.—Ixiltasuna da pozaren aldarrikaririk oso-beteena: gitxi baño enintzake zori ontsu, zenbateraño nazan esan al ba'negi. Andera, zu nire zaranez, zure nozu ni: nire burua damot zure alderako, eta kutun dot nire buru-emote au.

BAT.—Itz egizu, lengusin; ezin ba'dozu, berriz, mosuz agoa itxi egiozu, eta ez egiozu itxi orri be itzik egiten.

D. PED.—Egia esateko, andera, biotz argia dozu zuk.

BAT.—Bai, ene yaun; eta esker oneko naiako biotz ergel errukarri oni kezkaen axebegitan dagolako.—Nire lengusinak belarrira dirautso biotzean daukala.

KAUL.—Eta orixe dagi egin be, lengusin.

BAT.—Ezkontzara, yaun on! Orretara doa ludi onetan niz beste edonor, eta orraitño ederrik asko naz ni; bide-kurutzen yarrita gedar eta oio egin negike: Eee! emen nozue ni ezkontzeko gertu.

D. PED.—Batirke anderaño, neuk billatuko dautsut senar.

BAT.—Gurago neuke nik zure aitagandikorik, zure aitaren semerik ba'litz. Ez ete dozu izan eguño zu lango anairik? Senargei bikain-gallanak egin ebazan zure aitak, emaztegeirik ba'lebe.

D. PED.—Neu artu gura nozu, ala, anderaño?

BAT.—Ez, ene yaun, astegunetarako besterik ez izatekotan; geiegi, karuegi zara zu egunoro erabilteko. Baña, maitagarri orrek asketsiko, parkatuko al nozu, arren; zer alai eta aletzak esateko yaioa nozu ni.

D. PED.—Zure ixiltasuna da ni geien minduten nauena, eta alaitasuna dagokitzu zuri ondoen; eta izan be, ezetariko expaibarik, aldi alaietz yaioa zara zu.

BAT.—Ez, ez olangorik, neqar egin eban nire amak; baña aldi atan ba-zan yantzaz era-goion izarririk, aren bendeaz yaio nintzan ni.—Lengusu-lengusinok, zori ona ta poza bekitsuez lagun.

LON.—Illoba, yaramongo ete dautsezu nik zuri esaneko zera?

BAT.—Askespen-eske, parkeske nagotzu, osaba.—Zure baimenaz, (Alde dagi).

D. PED.—Sinis egidazue, atsegingarri da neska ori.

LON.—Gotiluntasunarenik zer gitxi dau orrek, ene yaun; lotan dagoneanez, bestetan eztago ori gotilun eta motel; eta orduan be ez gotilun bein be; eta izan be, nire alabeari entzunik dot esaten orrek sarritan izan dauzala eldarnio edo zori txarrezko amesak, baña barreka atzarten izan dala.

D. PED.—Senarririk aitatzerik be eztau entzun gura orrek.

LON.—Ene! ezetara bez: irri egiten dautse maiteminduai.

D. PED.—Kauldi konde ori, yauretxera noz yocateko asmoa dok?

KAUL.—Biar, ene yaun, Makulu-ganean doa aldia maitasunak bere egitarau guztiak be-te-arteño.

LON.—Astelenerarte ez, ene seme maite, eta egun ori egin-eginean gaur zortzi da; eta bitarte ori aldi laburregi be bai nik gogotan dodazan zer guztiak egiteko.

D. PED.—Tira, ik buruari daragiok olango arnasa luzeagaitik; baña, nire baia emoten dauskat, bitarteko aldi ori atxakula egingo aspergarri. Bitartean nik Erkul'en nekeetatik bat neureganatuko yoa; zera, Bedita yauna ta Batirke anderañoa alkarreganako lerearen mendi-gallurreratzea. Aik alkarrekin ezkontzea dok nire gogoa; eta seguru naiagok orrako ori iritxiko dodala zuok irurok nik iragarriko dautzuedana eginaz nire lagun izanazkero.

LON.—Ene yaun, zure alde nozu, amar gauz atzarrik egon bear ba'dagit be.

KAUL.—Bai ni be, ene yaun.

ERE.—Nire egitekotxo a egingo dot nik be, ene yaun, nire lengusiñari senar onik iristen lagun izan nakion.

D. PED.—Eta Bedita ezta, nik ezagun dodazanetarik, senar izateko etsiena: onenbesteko gorapenik ari egin-ezinik ezto; ba-dau ak zindotasun-sundatxorik, adorerik erakutsia da, eta zuzentasun sendoko da. Neuk irakatsiko dautzut zelan imini zure lengusiña Bedita-ganeko maitasun-gogaldian: --eta nik, zuok biok lagun zaitezala, Bedita'z aleginak alegin egingo dodaz, aren adimen zorrotz eta aren urdalla naskaberea gora-bera, a Batirke'z maitemindu dadin. Au egin al ba'dagigu, Kupida ezta gaurdanik ara arranbelaririk; aren entzutea geure izango da, maitasun-yaingo geure bakarrik gara-ta. Barrura zatoze nikin, eta neuk iragarriko dautzuet nire egipidea (Alde dagie).

II AGERLEKU.--LONATA'neko beste Gela.

YON eta MOZKORTI aurrera.

YON. Bai, olantxe dok: Kauldi kondea Lonata'n alabeakin ezkontzeko dok.

MOZK.—Bai, ene yaun, baña nik okertu negike orrako ori.

YON.—Edozein lata, edozein esi, edozein kurutze, edozein eragozpen litzakidak osagarri: okadaka naiagok ni aganako gogo txarrez; eta nirea bardintzeko litzakek aren lereaz bestera letorken oro. Zelan iminteko ik eragozpenik, naiz oztoporik ezkontza oni?

MOZK.—Zindotasun-bidez ez, ene yaun; baña ain estalirik egingo dot-eta, gaiztakeririk ezta agertuko nigan.

YON.—Labur erakutsi egidak zer eta zelan egingo dokan.

MOZK.—Esanik dautzudala uste dot, urtebe-teazkero Ere'n laguntzako aiton-alaba Margarite'n adiskide nazala.

YON.—Bai, gogoan yoat ori.

MOZK.—Nik izentau neio ari gabeko ordu ez-egokirik, ak bere etzanderearen gelako leiolik landea begiratzeko.

YON.—Zer yagok orrako orretan orrako etzanderearen eriotzea lekarkerenik?

MOZK.—Zeure eskuetan dago orrako zer orren edena gixitu-geitutea. Zoaz zure anai errege-semeagana: eztakizula aztu, gero, ari esatea ak bere entzute onari kalte egin dautsala Kauldi otsandikoa ezkontzeagaz, Kauldi zuk ainbestean esten dozuna, Ere lango neska ustelekin ezkontzeaz.

YON.—Ze argibide ekarriko yoat orrako orren alde?

MOZK.—Argibiderik asko errege-semea txarto erabilteko, Kauldi naibagetzeko, Ere'na egi-

teko, ta Lonata ilteko. Ondoren geiagorik gurozu, ala?

YON.—Orreik zapuztu, arbuaiatu, ta ezeste-arren edozer egiten aleginduko nok.

MOZK.—Aurrera ba; billatu egidazu aldi ego-
kia nik D. Pedro ta Kauldi eurak euretara ikusteko; Ere'k ni maite nauela esaciozue; zure biotzean artegasuna dozulakoarena egizu, ezkontza ori atondu dauen zure anaiearen dedua ta aren adiskidearen entzute ona galduko diranaren bildurrez, neska zindorenik antzaz besterik eztauenakin ezkondu gura izateaz. Zer guztiok eta gei-ago argitaratu dauzanena egizu. Argibide-barrik, aik nekez sinistuko dautzue olangorik: erakutsi egiezuz argibideak; eta argibideok sinisgarri egingo yakez, neska-toaren gela-leioan neu ikusiko nabe-ta; neu entzungo nabe Margarite'ri Ere-izenez deiez; entzungo dabe Margarite niri Mozkorti-izenez deiez; eta eztegu-aurreko gau berean ekarri egizuz aik onako au ikusten: izan be, ara-artean neuk atonduko dodaz gauzak gau atan Ere bere gelan izan ez dadin; eta an agertuko dan antzak Ere'n azpikeri ta zintzotasunik-ezaren ain antz andia izango dau-ta, segurutasun deituko dautsoe tukuari, ta egindako gertakuntza guztiak ankanz gora yoango dira.

YON.—Edozein kaltegarri dakarrela asmo orrek, aurrera eroango yoat. Maltzur, luki ta zur izan adi egikizun orretan bai, eta ire nekeen alderako milla duket emongo daukazat.

MOZK.—Gogor egon zadiz zu salakuntzan bai, eta ni enaz lotsatuko nire lukikeriaz

Yon.—Bertatik yoango nok arein ezteguak noz diran yakiten. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--LONATA'n Baratza.

BEDITA ta MUTIKO aurrera.

BED.—I, mutiko.

MUTIKO.—Yaun.

BED.—Nire lo-gelako leioan yagok idazti bat; ekarri egidak ona igali-baratzera.

MUT.—Emen nozu, yaun.

BED.—Ba-yakiat ori; baña nik gura neukena dok ik emendik alde egin eta atzera i emen egotea. (Mutikoak alde). Arritu-arriturik nago, besteak euren ardura ta kezka maitasun-arloan iminten dabezanean ain ergel dirala ikusirik, eta besteak orretan egin da-

roezan ergelkeritxoai ainbeste barre ta irri egin-ostean, zelan olango gizonik arein zapuzkeri-gei egin leiteken, bera be maitasunpera yausirik. Eta Kauldi da orrako gizona. Ezagun izan dot arentzako danbor eta turutat beste eresirik etzan aldia; eta orain gurago dauz danbolina ta txistua; ezagutu dot aldia ak oñez amar millako bidea egingo eukeana, guda-koskol onik ikuste-arren; eta orain amar gau egingo leukez atzarrik, yantzi-barriaren irudia egite-arren; gauzak argi ta garbi ta artez esa-

teko ekandua eban ak, gudari ta gizon zindori dagokionez; eta orain ondo ta txairo idaztara yari da; aren itz irudipentsuak eurak dira oturuntza pitxi, egin-eginean ilzetan aña inondiko yakizkoak. Neu be olangu ete nendike, ta begiokaz ikusi? Ezin esan; ezetz uste dot; ezin dot zinik egin Maitasunak enauela ispelduko; baña bai egingo dot zin enauela egingo olango erge-lik, aurreztik ispeldu ezpa'naqi. Eder da emakume bat; orraitioño be ondo nago ni; zur da beste bat; orraitioño ondo nago ni; on-indartsu da beste bat; orraitioño ondo nago ni; baña edertasun guztiak emakume bategan batu-arte, eztoz eder etsiko emakumerik. Aberats izan bearko dau, bai orixe; zur, ostantxean eztoz gura emakumerik bat be; on-indartsu, ostein eztoz egingo a artzeko aleginik; lirain, bestelan eztoz bein be begiratu; otzan, ostantxean ez-takidala urreratu be; zindo, ostein eztoz artuko nik, angeru ba'da be; itz ondo egiten dakiana, eresi-arloan gellen, eta aren adatsaren margo edo kolorea Yaungoikoari eder dakiona bedi. Ara! Errege-semea ta Maitasun yauna! Or zugatz-artean ostonduko naz. (Alde daqi).

D. PEDRO, LONATA ta KAULDI aurrera.

D. PED. Tira, eresia entzungo dogu.

KAUL.—Bai, ene yaun on. —Gauaren ixil, eresia ederragotzeko beren beregi ba'litz les!

D. PED.—Bedita non ostondu dan ikusi ete dok?

KAUL.—Bai eta ondo, ene yaun: bein eresia ixilduazkero, luputzar orri txakurrandi bat emongo dautsaqu.

BALTAZAR aurrera eresiagaz.

D. PED.—Tiruk, Baltazar, beste bein entzun gura yoagu abesti ori.

BALT.—Ene! yaun on, ez egizu beartu onango abots zakarrrik, eresiari beste bein irainik egitera.

D. PED.—Gurentasunaren zurtasuna dok bere osotasunari mosuak egitea: abestu egik, arren, eta ez al nok beartuko beste bein eskatzera.

BALT.—Maitemindua yatzu eske ibiltan dana, eta maiteminduaenik egiten zu ez beartzeko, abestuko dot: eta izan be, kutuntzalle bat baño geiago asten da berak aintzakotzat eztauenik kutuntzen; eta orraitioño be kutuntzen daragoio, eta maitasun dala esango dau.

D. PED.—Bai, baña, tiruk, arren, eta ireari

luzarago ekin gura ba'dautsak, eresia yoala eresi-otsez ekiok.

BALT.—Onako ots oneri oar zakioz, nire otsetan bat be oargari ezjala ikusi dagizun.

D. PED.—Tiruk, eresi-ots bikorrez itz egik! Benetako eresi-otsak bez yoaguz, ez besterik! (Ba-daragoio eresiak).

BED.—Orain bai, doñuaren yaungoikozko! Oraingoxean bai ostu dauela orrek orren biotza, ta bai orren gogoa be! Ez ete da inondiko ta arrigarri arden esteak gizonen gogoak gizonon soñetatik ateratea? —Tira ba, amaitu dadinean, ekarri egidak ire adarra nire diru-eske.

Abes dabe BALTAZAR'ek.

I

Ez geiago intziririk, emakumeok,
ez geiago intziririk:
Beti izan dira gizonak zirisartzeko:
Oin bata itxasoan, eta bestea legorrean.
Bein be ez zer bateri lotuak;
Orrazkero, ez egin olan intziri.
Doazala gizonok ortik zear
Eta zori ontsu ta alai izan zuok;
Zuon naibage guztiak uxaturik
Ut. ut! ez etorri nigana geiagotan.

II

Ez abestu geiago iletarik, ez geiago,
Negarrez eta motelkeriz beterik:
Gizonen iruzurra beti izango da olango
Udea orritsu lenen izan zanazkero.
Orrazkero, ez egin olan intziri, e. a.

D. PED.—Abesti on orixe, egia esateko.

BALT.—Eta abeslari zakar, ene yaun.

KAUL.—Bai, zera! ez olangorik, ez benetan; ire bizibidea ortik aterateko be ondorik asko abesten dok ik.

BED.—(Bere kitean) Txakurrrik izan ba'litz olan ausi egin izan dautsena, eskegiko eukien: eta Yaungoikoari eske nagoko orren abots zakarrak ondoren txarrik ekarri ezlagion orri! Orri bestean pozik entzungo neuskion mosolloari be, izuririk okerrena iragarri izan ba'leu be.

D. PED.—(KAULDI'ri) Bai, arranotan.— Entzun dok, Baltazar! Eresi bikainik lortu egiskuk, arren, biar gabaz Ere anderañoaren lo-gelako leiorako gura geunke-ta.

BALT.—Al dodanik onena ekarriko dautzut, ene yaun.

D. PED.—Bai, olan egik: agur (BALTAZAR'ek eta Ereslariak alde), Erdu ona, Lonata. Zertaz itz egin daustazu gaur... zure illoba Ba-

- tirke Bedita yaunaz maitemindurik dala-koaz, ala?
- KAUL.—Ene! bai... (D. PEDRO'ri banazean) ostondu zadiz, ostondu zadiz; otaratu da egaztia. Eguño eztoz uste izan emakume orrek gizonik maite egikeanik.
- LON.—Ez, ez nik be; baña zera da arrigarriena, antez eta irudiz beintzat emakume orrek ain iguin izan dauen Bedita bera orain orren kutun izatea.
- BED.—(Bere kitean) Ete ledike olangorik? Alde orretatik putz egiten ete dausku axeak?
- LON.—Egia esateko, ene yaun, eztaikit ze uste izan orrez; baña neskato ak leia itzalez maite dau Bedita... iñok uste eikean baña geiago da ori.
- D. PED.—Ba-ledike 'ak olangorena egitea.
- KAUL.—Egia esateko, orrako orren antzik asko dogu.
- LON.—Ene Yaungoikoa! Orrako orrena! Eguño iñok eztau egin egiazko leiearenik orren ondo, orrena benetako leiatzat ez eukiteko.
- D. PED.—Ba! leiearen ze agiri erakusten dau ba?
- KAUL.—(Bere kitean) Amua yakiz ondo ornidu egizu, bai, eta arrain orrek usigiko dautso.
- LON.—Ze agiri diñozu, ene yaun? An egongo yatzu a yezarrita, (KAULDI'ri) zuk entzun dautsazu nire alabeari zelan.
- KAUL.—Bai, izan be.
- D. PED.—Zelan, zelan, arren? Arriturik nozu; aren gogoaz maitasunaren oldar guztiak be azpiratu-ezintzat neban nik a.
- LON.—Neuk be zin egingo neukean olangoxe zala, ene yaun; alan be Bedita azpiratzeko.
- BED.—(Bere kitean) Guzuz anditzat neukake orrako ori, gizon bizar-zuria ezpa'litz ori diñona; zitalkeririk ezin ostondu ledike olango gizon begiragarriagan.
- KAUL.—(Bere kitean) Usigi dautso amuari; eutsin egiozu.
- D. PED.—Iragarri ete dautso bere maitasuna Bedita'ri?
- LON.—Ez; eta zin dagi eztautsala iragarriko be; orretan dago neska orren elorria.
- KAUL.—Egia da, izan be; ori dala-ta esaten dau zure alabeak: "Ainbeste aldiz irri ta barre egin izan dautsadanari, maite dodala idatziko dautsat, ala?"
- LON.—Ori esaten dau ak Bedita'ri idazten asten danean: eta izan be, gau bakotzez ogei bider bai yagiten da; eta an egoten da yezarrita, lo-atorrea aldean dauela, orri bat edo olangotsurik idatzi-arte: dan dana eralden dausku nire alabeak.
- KAUL.—Ingi-orria aitatu dozunazkero, oraintxe datorkit burua zure alabeak eralden dauskun txantxa bat.
- LON.—Onangorik! Ak orrako ori idatzi ta idatzia irakurten eragoiola, Bedita ta Batirke izara-arteaz idatzi ebazala, ezta?
- KAUL.—Bai, orixe.
- LON.—Ene! idazkia txiki-txiki zeatu eban ak; bere buruari agirika ta asarre egin eutsen, adarra yoko eutsanari olango arinkeriz idazten eutsalako. "Neure buruaz neurtzen dot nik a" diño No ak; "ak idatziko ba'leust, neuk adarra yoko neuskio-ta; bai, a nik maite izan-arren, ori egingo neuskio".
- KAUL.—Bein orretara elduazkero, belaunbikotu egiten da a, negarrez, intzirika daragoi, bularra yoten dau, buruko uleai tiraka; bein arrenka, bein birao-yaurtika... "Bedita ezti ori! Eperik emongo al daust Yaungoikoa".
- LON.—Orixegiten dau egin be; ori diño nire alabeak; eta aren beretik landa yartea, aren bere burua galtzea ainbesterañoko ei da-ta, nire alabea bildur da ak, etsita, bere buruari okerren bat egingo ez ete dautsan. Egi egia da ori.
- D. PED.—On litzake norbaitek Bedita orrako orren yakitun egitea, neskatoak berak iragarri gura ezpa'dautso.
- KAUL.—Zetarako? Irri egingo leuskio ak, eta andera erurakarriari lengo lorrez ganera barririk ekarri.
- D. PED.—Olangorik ba'legi, ukar emotea litzake a eskegitea. Neskato ezti-bikain da Batirke: eta on-indartsu be bai, ezetarik susmo-barik.
- KAUL.—Edozetan, Bedita maite izateaz bestetan.
- LON.—Ene yaun ori, zurtasunak eta odolak olango soin samurrean alkarri erasoka ba'daragoie, baten aurka amar yokatu geinke odolarena izango dala garaitea, odola urtengo dala buru ta nagusi. Erruki dautsat neskato orri, osaba ta yagola naiakozkero bidezko be ba-da-ta.
- D. PED.—Kutunkerori neskato orrek neuri iragarri al leust; beste begirapen guztiai baztarrera eraginda, neskato ori neure buruaren erdikin egingo neukean. Arren, iragarri egiozu Bedita'ri zer yazoten dan, eta ak zer diñon entzun egizu.
- LON.—Orrako ori egiteak onik ba-lekarkela uste dozu, ala?
- KAUL.—Ere'n ustez, Batirke il egingo da seguru-seguru; eta izan be, Batirke'k ei diño bera il egingo dala Bedita'k maite ezpa'dagi; eta a bera maitasuna iragarri ba-

- ño len ilgo da: eta Bedita'k kutundu ba' dagi be ilgo da bere oi dauen mukerkeria itxi baño len.
- D. PED.—Ondo egiten dau neskato orrek; neskato orrek bere maitasunean samurtasunik iragarri ba'legi, Bedita'k olango samurtasunari irri egitea yazo ledike; eta izan be, gizon orrek inor zapuztu ta ezesteko lerea dau.
- KAUL.—Benetako gizon da a gero izan be.
- D. PED.—Izan be, azalez zori ontsu agiri dok a beti.
- KAUL.—Yaungoikoak entzuten nauela ta biotzez diñot; gizon zurretariko da a.
- D. PED.—Izan be, buru-zorrotzaren txatartxo batzuk emoten yozak.
- LON.—Eta adoretutzat dot nik a.
- D. PED.—Arako Ektor bestean, bai orixe: eta zur da asarreak atontzen; eta izan be, edo asarrerik izan ez burubide andiz, edo-ta asarretan sartzekotan kistareri dagokion Yaungoikoaren bildurrez burutzen dauz asarreok.
- LON.—Yaungoikoaren bildurrik ba'dau, nai ta nai ez izan bear dau baketsu; eta bakea austekotan, bildurrez eta ikaraz sartu bear leuke burrukan.
- D. PED.—Eta olantxe egin be egingo dau; izan be, gizon orrek ba-dau Yaungoikoaren bildurrik bere txantxa ta ziplada batzuk besterakoaren antzik izan-arren. Tira, eruki dauatsat zure illobeari. Bedita'gana yongo ete gara, Batirke'n aganako maitasunaren barri emoten?
- KAUL.—Ez esan bein be ari olangorik, ene yaun; neskatoak bere lera ta leiea epez yasan, eroan dagizala, ari orretarako onu onik emonda.
- LON.—Ez, olangorik ezin ledike; epez eroan baño len aren biotzak eztanda egingo dau.
- D. PED.—Tira ba, zure alabeari geigarrik entzun bear dauetsagu arazo onetzaz: otzitu dadilla bitartean. Bedita'n ona gura dot nik; eta ak arrokeri-barik aztertuko al dau bere burua, olango neskato onik argarri izatetik urrin dagola ikusi dagian.
- LON.—Ene yaun, barrura sartu gura dozu? Gertu dago bazkaria.
- KAUL.—(Bere kitean) Onako zer guzti au dala-ta, ak neskatoa kutundu ezpa'dagi, nire itxarotan ezto izango usterik bein be.
- D. PED.—Sare berbera zabaldu daitela neska-toarentzak; eta ori zure alabeak eta bere lagun aiton-alabeak egin eta burutu bear dabe. Bataren eta bestearen alkarreganako leiearen barri yakin dagigunean izango da gure yolasa, olangorik ezala; ori da,

ori nik ikusi gura neuken ikuskizuna, eta erakusketa ixiletariko izango da. (Bere kitean) Bidali dagigun Batirke Bedita'ri bazkarirako dei egiten. (D. PEDRO, KAULDI ta LONATA'k alde).

BEDITA aurrera dator zugutzen arteik.

BED. Ezin izan ledike marrorik onako au. Gotilunik asko izan da autua: Ere'gandik artu dabe onako onen egia. Anderañoari erruki dausoela dirudi; aren lerak beste aldera osoan itzuli dirala dirudi. Ni maite ak! ba erantzun egin bear yako, entzun dot zelan etsi naben: nik arroarena egingo dodala esan dabe, neskatoaren niganako maitasunari oar ba'nakio; baita esan dabe orreik il egingo dala a, niri bere maitasunik iragarri baño len. Eguño ezto izan ezkontzeko asmorik; ezto erakusi bear arrokeririk... Zori ontsu dira euren akatsak entzun eta artezta al dabezanak. Andera ori lerdan dala diño; egia da ori eta neu naz orren lekuko ta autorla; eta bai onindartsu be... Egia ori be, ta nik ezin ukatu; eta bai zur be, ni maite izatean-barik beste edozetan... Egia esateko, onako au ezta neska-toaren zurtasunaren geigarririk; ezta aren tentelkeriaren agiri andirik be, ni maite itzalez maitemindurik nagoketa... Ba-ledike nigan nik nire buru-zorrotzasunaren ondakin, txatalt, urteeratxoan batzuk oraindik bizirik eukitea, ezkontzearen aurka orren luzaro ekin dauzadanazkero; baño yangarra ezta batetik bestera aldatzen dakiana, ala? Gaztetan okela-zale izan dan gizonak zartzaroen ikusi be eztau gura okelarik. Zipladak, eta itzezko eztenkadak, papelezko firook, beraren gogaldiak emoten dauson bidetik alde eragiterañoako bildurrik sartuko ete dausoe gizoni? Ez; gizakumez bete bear da ludia, mundua. Mutilzar ilgo nintzala esan nebanean nik nebanean uste ezkontzerarte biziko nintzanik... Or dator Batirke. Egun au-arren, lirain da anderaño ori; maitasun-agiri batzui oartzen naiake orreagan.

BATIRKE aurrera.

- BAT. Nire goqoz bestera agindu nabe bazkaltzeko zuri dei egiten.
- BED.—Batirke lirain, eskerrik asko artu dozuzan nekeakaitik.
- BAT.—Zure eskerrotarako nik ezto artu neke geiago zuk eurak emoteko artu dozuna baño; nekagarri izan ba'litxat enintzakean etorriko.
- BED.—Gezna orretan poz artzen dozu, ala?

BAT.—Bai, egin-eginean eskuetan belamikea ilteko zeukaken aitzoaren mokoak emongo leuskizuna langoxe poza... Zuk eztozu yateko gogorik; onik eta ondo ibili. (Alde dagi).

BED.—Ja, ja! "Nire gogoaz bestera bidali nabe bazkaltzeko zuri dei egiten"... Esangura biko da esakera ori. "Zure eskerrotarako nik eztoz artu neke geiago, zuk eurak emo-

teko artu dozuna baño"... Ori esatea ta beste au esatea "zure alde artzen dodan edozein neke eskerrak emotea bestean arin eta errez yat", bardin da... Erruki izan ezpa'dagiot, dollor naz; neskato ori maite ezpa'dagiti, Yudar naz: orren irudiren bat lortu bear dot. (Alde dagi).

III EKITALDI

I AGERLEKU.—LONATA'n Barazta.

ERE, MARGARITE ta URSULE aurrera.

ERE.—Margarite on ori, zoaz aringa etxeko areto nagusira; an idoroko dozu nire lengusin Batirke errege-seme ta Kauldi'kin asmoak asmaka: txutxuputxuka itz egiozu belarrira, eta esaiouzu ni ta Ursule igali-baraztean gabiltzala ara-onaka ta gure autumautu guztia beratzazko dala; esaiouzu guk zu ikusteka entzun dauskuzula: baita esaiouzu ixil-ixilik lora-aterpera datorrela, eguzkiak eldutako auntz-orriak ara sartzen eguzkiari galazoten dautsoen leku atara; auntz-orriok errege-semeen maite diran neska arroen antzeko dira, euren arrokeria eurak azi dauzan indarraren aurka aurrera eroaten dabe-ta: an ostondu daitela, gure asmoak entzuteko. Au da zure egikizuna. Ondo bete egizu egiteko ori, eta gu geure-tara itxi gagizuz.

MARG.—Eratorriko dot a, bai orixe, eta arin eratorri be. (Alde dagi).

ERE.—Orain, Ursule, bide onetan gora-beraka gabiltzala, Batirke eldu dadinean, gure autuaren gei bakarra Bedita'k izan bear dau: nik a aitatu dagidanean, zure egitekoa a gizonek irabazi dauen baño goragotzea bedi: zutzako nire solasa, nire itzaldia, Bedita Batirke'ganako maitasunaren maitasunez burutik eginda eta gexorik dagola azaltzeko izango da. Onetariko geiezko da Kupida mutikoaren arranbel trebetsua, eta belarriak entzunez bakarrik zauritzen dau andiko geziak. Asi orain;

BATIRKE aurrera besteen atzekaldetik.

eta izan be, begira nolán datorren Batirke, txindorra legetxe, aringa, makurturik eta ia lurrari deusala, gure autua entzuten.

URS.—Arrainketarik atsegingarriena yatzu arraina bere urrezko arraunez zidarrezko urak ebaten eta amuko yaki azpikeritsua salo irunsten dakusazuna: olan daragoio-gu guk arrantzun, Batirke goatzen; onazke-

ro makurturik dago a auntzorriean: nire egitekoaren bildurrik ez izan autu onetan.

ERE.—Urreratu gakiozan, ba, ari, guk esan daginuetik aren belarriak ezartxo be galdu eztagien guk orretarako ezarriko dautsagun guzurrezko amu-yakitik. (Lora-estalperantzaz doaz). Ez, Ursule, benetan Batirke mukerregi, latzegi, zaputzalleegi da; badakit nik aren urteerak uxu ta latzak dirala, atxetako aztoeren igikuneak legetxe.

URS.—Baña seguru ete zagoz, gero, Bedita'k Batirke orrenbesteraño maite dauela?

ERE.—Olan diñoere errege-semeak eta nire senarrei barriak.

URS.—Eta Batirke'ri zuk orrako orren barri emoteko agindurik emon dautzue, ala?

ERE.—Eske ta arrenka ibili yataz nik ori dagidan; baña nik sartu dautset buruan aiki Bedita maite ba'dabe, ari esan dagioela bere lera ta leia biziaz burruka egin dagiala ta bein be eztagiola iragarri Batirke'ri.

URS.—Zegaitik egin dozu olangorik? Ez ete dau irabazita aiton-seme ak, gizon osobete danazkero, Batirke'k eguño zapaldu dauen eta aurrerentzean zapalduko dauena besteko oe zori onsurik, ala?

ERE.—Maitasun Yaungoiko ori! Ba-dakit nik a gizoni emon lekikeon besterengarri badana: baña izateak eztau eratu eguño biotzik Batirke'na baño gei arroagoz; zapuzkeri ta ezesprenaren txatarrak darioz ari begietatik, aren begiak dakusen oro ezetsiaz; eta aren buru-zorroztasunak bere burua ain aintzakotzat dau-ta, beste edozer uskeri ta aletz ustzat dau: neskato orrek ezin dau inor maite, ete bere burua ain maite dau-ta, ezta maitasunik asmau eta iruditu be.

URS.—Izan be, neuk be orixe uste dot: eta orrazkero, elitzake egoki orrek Bedita'ren maitasunaren barririk yakitea, ari iririk eztagion.

ERE.—Izan be, egia diñozu: oraindik eztoz eza-gutu gizonik, naiz eta gizon ori zur, zindo, gazte ta edertasun bakaneke izan, neska-to orrek atzera eragin eztautsanik; lirain ba'zan, zin egiten eban gizon orrek bere aizta izan bear eukela; baltz ba'zan, ba, Izateak, zer itxusiren bat egiten eragoionean, orban zakar egin ebala; garratz edo luze ba'zan, aztamakil buru-motel zala; txiki ta merro ba'zan, agata-arri zakar ebagin bat zala esango euzun: itz-egikerearen aldetik ba'zan, gizon a guztitariko axeak putz egiten dauzonen axe-orratza dala esango euzun; ixila ba'zan, ba, ezek ezin eragin dauzsan armol zala. Olan, edozein gizon itzulietera iminten dau; eta bein be eztautso emoten egari ta on-indariari izurbakotasunetik eta irabazitik datorrenik.

URS.—Ori, ori! olan aurrekoaren akats-billa ibilte ori ezta bape goragarri.

ERE.—Ez; Batirke lez olan bakan izatea eta besteen bidetik orren alde eginda ibiltea ezta bape goragarri; ezin izan ledike; baño nok esan ari olangorik? Nik esan ba'negio olangorik, muxinka, erremuskadaka ta irrika ortik zear bidaliko ninduke; ene! burutik eragingo leuskit barreka, eta bere esakera zorrotzez erail egingo ninduke. Orrazkero, Bedita, auspeko suaren antzera, iristu ta deuseztu daitela intzirika, bere barruan alperrik galdu daitela: iñoren irri ta barez iltea baño oba da olan iltea; eta ori gili-giliz iltea bestean txar da.

URS.—Orraitiño be iragarri bear dauzazu; entzuizu ak esan dagian oro.

ERE.—Ez: gurago dot Bedita'gana yoan eta bere maitasunari gogor egiteko onua emon ari; eta izan be, asmauko dodaz gaitz-bako balzkerien batzuk eurakaz nire lengusina baltzituteko. Eztakizu zelango indarra dauen itz zakarrak leiea moteldu ta arintzeko.

II AGERLEKU.—LONATA'neko beste Gela.

D. PEDRO, KAULDI, BEDITA eta LONATA aurrera.

D. PED.—Zuok ezkondu-arteño bakar-bakarrik nagoke emen eta gero Aragoe'ra yoango nok.

KAUL.—Eder ba'deretxatzu, ene yaun, neuk eroango zaudaz ara.

D. PED.—Ez, olangorik egitea zuon ezkontzako dizdiz barria orbantzea litzakek, umeri soñeko barririk erakutsi ta a erabilten galazotea litzakenez. Bedita'ri nire bidelaqun izan dakidala eskatzeraiño bakarrik elduko

URS.—Olangorik! arren, ez egiozu olango okerrik zure lengusinari. Ain buru-zorrotz eta ain zur danazkero, berak ain arro esaten dauenez, a ezin izan ledike ain buru gitxikorik Bedita lango aiton-seme bakanik artu gura ez izateko.

ERE.—Itali'ko gizon bakarra da a, beti be nire Kauldi maitearen urren.

URS.—Etzakidaz asarratu, andera, nire ertxia iragarri izanagaitik; bere arpegi, yadukera, sentzun eta adoreaigaitik, a beñen eta lenengotzat dago Italin.

ERE.—Izan be, entzute ezin obea dau ak.

URS.—Aren gallentasunak iritxi baño len irabazi eban izen ori. Noz ezkontzeko zara, andera?

ERE.—Ba, edozein egunetan... biar. Tira, barrura zatoz; yantzi batzuk erakutsiko dauzudaz, eta zure onua emongo dauzazu, zein dan onena nik biar yazteko.

URS.—(Eurak euretara) Meiki dago neskato ori, bai orixe; goatu dogu, andera.

ERE.—Ori olan izatekotan, alambearrezko da maitasuna; geziz ilten dauz batzuk Kupida'k, sareetan goaturik beste batzuk. (ERE ta URSULE'k alde).

BATIRKE aurrera.

BAT.—Zetariko dogu nire belarrietako su au? Egiazko ete da au? Orrenbestean ete naz errudun eta gaiztetsia nire arrokeri ta zapuzkeriagaitik? Agur, zapuzkeri ori! eta agur, neska-arrokeri ori, i be! olangoren atzean osparik etxaqon-eta. Eta ik, Bedita, elkiok ik maite izaten; erantzungo daukat nik; ire esku maitakorrak nire biotz uxobasatia ezita; maite ba'nok maite, ire maitagarritasunak zirikatatu ta bultzauko au gure biotzak alkarrekin batu ta lokarri gurenez alkarri lotzera; eta izan be, ik ori irabazita dokala yinoek besteak, nik, barriz, sinisten yoa ori eta bai or diñoena baño oba azala be (Alde dagi).

nok; eta izan be, poz eta alaitasun utsa dok ori buruko ertzetik oñen aspiraño; bi edo iru aldiz ebagi dau orrek Kupida'ren arranbela, eta gizon-eskegitzalletxo a eztoz azartzen ori gezirik yaurtiten: orren biotza arrana bestean zoli dok, eta orren miñak arranaren miñarena egiten yok; orren biotzak diñoena orren miñak diragar-eta.

BED.—Ezkontzalleok, enozue ni len izan naganik.

LON.—Orixe diñot neuk be; len baño gotilunago zagozala uste dot.

- KAUL.—Ori maitemindurik dagola uste dot.
- D. PED.—Ixilik ago, olangorik esateka: orren barruan eztago odol-tantan zindorik, maitasunak benetan yotekorik; gotilun eta motel ba'dago ori, dirurik eztauelako da.
- BED.—Aginetako mina dot.
- D. PED.—Atera egik agin ori.
- BED.—Bai, eskegi egingo dot!
- KAUL.—Ienen eskegi; eta urren atera.
- D. PED.—Onangorik! agineko minagaitik in-tzirika!
- LON.—Odol galdu, naiz txantxarregaitik!
- BED.—Bai ba, eztauenak errez benderatzen dau elorrioa.
- KAUL.—Orraitiño be, maitasuna dala orrena diñot nik.
- D. PED.—Eztago orrek gogaldirik dauenaren antzik, iñondiko yantziatarako ez izatekotan; esaterako, gaur Nederlanda'tar eta biar Pantze'tarren eraz yazteko, naiz aldi berean erri bietakoen eraz yazteko, esaterako, Alemani'tarren eraz garritik bera, parka nasai-nasai belauetarañokez, eta garritik gora España'tarren antzez, gorantxa-barik. Orretariko uskerietarako gogaldirik ez izatekotan, eta dirudienez ba-dau, eztago ori gogaldiak burutik eraginda, zuok uste izango zeukienez.
- KAUL.—Emakumerik maite ezpa'dau orrek, eztago zetan sinistu lenagotiko maitasun-agiriari; goxetan iñarratxoaz garbitzen dau txapela: zer esan gura dau orrako orrek? Zer diragar?
- D. PED.—Iñok ikusi ete yok ori bizartegian?
- KAUL.—Ez, bizarginaren otseina bakarrik ikusi izan dabe orrekin; eta orren arpegiko beñolako apaingarria onazkero "tenis" erako pelotan baten barruan da.
- LON.—Izan be, bizarra kendu dauenazkero len baño gazteago dirudi.
- D. PED.—Ez, kataki-sundaz igurzten dau orrek bere burua. Eztautsazu artzen olangoren usainik, ala?
- KAUL.—Ori esatea ta gazte ezli ori maiteminduta dagola esatea bat da.
- D. PED.—Orrakoren ezaugarririk andiena orren moteltasuna dok.
- KAUL.—Eta noz izan dau orrek arpegia ikuzteko, garbitzeko elkandurik?
- D. PED.—Olangorik, naiz bere burua margoztutekorik? Eta ori dala-ta or zer esaten daben entzunda nago.
- KAUL.—Bai, eta orren gogo txitxari-txantxazalea? Orrako ori orain kitarrearen arietara yoa da, eta aren zotzen bendeko da.
- D. PED.—Bai izan be, eta orrako orrek diraga-

rrenez zer aztunik yazo yako orri; bai, bai, maiteminduta yagok ori.

- KAUL.—Bai, baña neuk dakit ori nok maite dauen.
- D. PED.—Neuk be yakin dura neuke nor dan orrako ori; ori ezagun eztauenen batek izan bear, bai orixe.
- KAUL.—Bai, ba-dazau ak ori eta bai orren akats guztiak be; eta, ori gora-bera, il egingo litzake a orren alde ta orregaitik.
- D. PED.—Aratirik eortziko, obiratuko dogu, emakume ori.
- BED.—Orraitiño be zuok diñozuena ezta lurapenik agineko minarentzako. Agure yaun on, erdu nikin banazean; zortzi-bederatzi itz ikasi dodaz zuri esateko, eta oneik txuxook eztabez entzun bear. (BEDITA'k eta LONATA'k alde).
- D. PED. Nire bizia egingo neuke Batirke'z itz egiteko eroan dauela agurea.
- KAUL.—Bai, orixe dogu: onazkero burutu dabe Ere'k eta Margarite'k Batirke'z euren egitekoa; eta gaurdanik ara artz biok eztautse usigiko alkarri alkarrekin batu daitezanean.

YON aurrera.

- YON.—Yaungoikoa lagun bekik, ene yaun eta anai.
- D. PED.—Egun on, anai.
- YON.—Astirik izatekotan ik, ikin itz egiteko gogoia yoa.
- D. PED.—Biok biotara, ala?
- YON.—Bai, eder ba'yak; orraitiño be Kauldi kondeak entzun lei; nik esatekoa orregaz zer-ikusirik dauena dok-eta.
- D. PED.—Zer yazoten dok?
- YON.—KAULDI'ri) Yaun orrek biar ezkontzeko asmoa dok, ala?
- D. PED.—Ba-dakik ba-dauela.
- YON.—Etixakiat olango asmorik izango dauentz nik dakidana orrek yakin dagianean.
- KAUL.—Eragozpenik ba'dago, iragarri egidazu, arren.
- YON.—Ba-ledikek ik uste izatea nik ez audala maite; gero ikusiko dok ori, eta nitzaz uste oberik izango dok orain nik azalduko dauskatanagaz. Nire anaeaz, onek i maite audala uste yoa, eta biotzik onenaz lagun izan yakala ik egiteko dokan ezkontzan; egia esateko, bidebako izan dok ire kutunketea, eta orko nekeak alperrik ar-tuak!
- D. PED.—Onangorik! Zer yazoten dok, ba?
- YON.—Ori esateko etorri nok ona: eta labur esateko... eta izan be, neskatooz esamesa luzeegiak yabiltzak or... ustel dok neskatoo.

KAUL.—Nor? Ere, ala?

YON.—Bai, bera; Lonata'n Ere, ire Ere, edozein gizonen Ere.

KAUL.—Ustel? Edozein gizonen mutxikin?

YON.—Makalegi, bigunegi dok itz ori aren gaizakeria iragarteko; ori baño gaiztoago dala nesake nik; itz zakarragorik asmau egik, bai? eta neuk erakutsiko dauskat a eztala gitxiagorik, eztala oberik, Ez akit arri-tu argibide geiago-barik; ator neukin arratseon, euk ikusiko dok zelan sartzen dan norbait aren lo-gelako leioa zear bere eztegu-aurreko gau berberean be; ori ikusiazkeroko be maite ba'dagik a, biar ezkondu aite akin, baña ire omenari ire asmoa aldatzea oba litzakiok.

KAUL.—Izan ete leiteke olangorik?

D. PED.—Nik etxoat uste olangorik.

YON.—Dakusakanik sinistu gura ezpa'dok, ez autortu ik dokikanik; nire yarra etorri gu-

ra ba'dozue, askorik erakutsiko dautzuet; eta geiago ikusi ta geiago entzun dagi-zuenean, ortik ebatzi zetara yokatu.

KAUL.—Arratseon nik ezer ikustekotan, biar ezkontzeko aldi ta unean esango dot ango batzarraren aurrean, neskatoa lotsaturik, zegaitik eztodan ezkondu gura.

D. PED.—Eta aren ezkontzea ikin atontzen ni ire lagun izan nazanazkero, ire lagun izango nok a iraintzen be.

YON.—Etxoat balzagotuko neskatu a zuok nire lekuko izan-arteño; nasai egon gaber-arte eta etorkizunak berak erakutsi dagiala bere burua.

D. PED.—Egunaren zori txarreko!

KAUL.—Gauzak inondiko eraz okertzen dauzan gaiztakeriarena!

YON.—Aurreak ondo artu yakozan izurriarena! Au esango dok ik orren ondorena dakusakenean.

III AGERLEKU.--Etxartebide.

DOBERRI ta BERGETS aurrera Gauzaiak.

DOB.—Gizon on eta zintzo zarie, ala?

BERG.—Bai, ostantxean tamalgarri litzake orreik, soñez eta gogoz, betiko yareitea ez iristea.

DOB.—Ez, orrako zigor ori onegi litzakiek orrei, ezetarik zintzotasunik izatekotan, errege-semearen yagola diranzkero.

BERG.—Tira ba, emoiak euren egikizuna, auzoko Doberrri.

DOB.—Lenen, nor dala uste dozue gitxien ertzaingarri?

I GAUZAIA.—Uga Olo-opil, yaun, naiz Gorka ltxas-ikatz, idazten eta irakurten dakielako.

DOB.—Erdi ona, auzoko ltxas-ikatz; izen ona emon dauska Yaungoikoak Bere onespezez; mosu oneko gizon izatea alanbearraren esku-erakutsietariko dok; baña irakurri ta idazten yakitea yaiotzaz datorrena dok.

II GAUZ.—Eta orrako zer biak, ertzain yaun...

DOB.—Bai, biak dozak ik; ba-naiekian ik ori erantzungo endukala. Tira ba, ire mosu, arpegi edo begitarte ederragaitik, yaun, esker oneko akio Yaungoikoari, eta ez adi arrotu ta puztu orregaitik; eta ik idazten eta irakurten yakiteaz, ire trebetasun ori olango uskeriren bearrik eztanean agertu daitela. I ago emen gizonik sentzunbakoentzat buru izateko egokientzat; orrazkero, ik eroango dok argia. Au dok ire egikizuna; goatu egizak arlote guztiak; geldituazogingoa dautsak edozein gizoni, erregeren izenez.

II GAUZ.—Eta zer egiteko gelditu gura ez-tauean?

DOB.—Ba! yaramonik be ez egin olangori, aurrera yoaten itxi baño; eta bertatik dei egin beste gauzaiak eta eskerrak emon Yaungoikoari zital batek alde egin dauelako.

BERG.—Agindu dakionean gelditu gura ez-tauean ezta erregeren bendekoetariko.

DOB.—Olanxe dok izan be, eta orreik etxoek zer-ikusirik erregeren bendekoekin izan-ezik... --Ez egin zaratarik be etxartebide-tan; eta izan be, ezin yasan leitekena dok gauzaiak itz eta pitz egitea.

II GAUZ.—Itzik egin baño lenago lo egingo dogu guk; ondo dakigu guk gauzaiari dagokiona.

DOB.—Ba! gauzai zar eta nasairi dagokionez itz dagik ik; eta izan be, eztaikit zegaitik minik egin bear dautsan inñori aurrekoak lo egiteak; bakar bakarrik arduraz ibili zuon ziskuak ustu eztagitzuezan... --Tira ba, garardotegi guztietara eldu bear dozue, eta mozkortuta dagozanai oera yoateko agindu.

II GAUZ.—Eta yoan gurako ezpa'lebe, zer egiteko?

DOB.—Ba! olangorik yazotekotan, dagozala an mozkorra yoan dakien-arte; orduan erantzun oberik emon ezpa'dagituzue, zuok esan zeinkie aik eztirala zuok uste zenduen gizonak.

II GAUZ.—Ori ondo, yaun.

DOB.—Lapurrekin trikitxik ba'dagituzue, zuon

ogibidez igarri ziñeie a eztala benetako gizonik, gizon yatorrik; eta olango gizonekin artu-emon eta zer-ikusi gitxiago, zuok gizonago ta zintzoago.

II GAUZ.—Lapur dala yakin ba'dagigu, ez ete dautsagu ezarriko eskurik?

DOB.—Benetan, zuon ogibideari dagokionez, ezarri ziñeioez: baña, nire ustez, uia ukutu dagienak intsigitu, lotuta geldituko dira: zuontzako biderik baketsuena, lapurrrik goatu ba'dagizue, ari zer dan erakusten iztea da, bere burua zuon artetik ostuten iztea.

BERG.—Lagun, beti izan dok ik gizon errukior entzutea.

DOB.—Bai izan be, nik neure kitetik txakurrrik be enaieukak eskegiko; askoz gitxiago zindotasunaren izperrrik dauen gizonik.

BERG.—Ume-negarrik entzun ba' dagizue gabaz, deitu sentzaña ta umea ixilduazoteko agindu bear dautsazue.

II GAUZ.—Eta sentzaña lotan ba'lego ta entzungo ezpa'leusku, zer egiteko guk?

DOB.—Ba, orrazkerokoan, alde egin bazez, eta umeak iratzarri dagiala negarrez bere sentzaña; izan be, beeka daragoion artxo, asuria, entzun gura eztauen ardiak bein be eztautso egingo yaramonik orroaka daragoion txaleri.

BERG.—Egi uts utsa da ori.

DOB.—Au da zuon egikizunaz agintzen yatzuen guztia. Ik, ertzai, erriko nagusiarena egingo dok ik; gabaz erriko nagusiarekin trikitx ba'dagik, ik geldituazo einke a.

BERG.—Ez, Andera Miren-arren, ba-yakiat olangorik ezin negikela.

DOB.—Bost laurleko baten aurka legeen bari dakianeri, baietz geldituazo legikela: arrano! ez erriko nagusiaren ederretsi-barik; eta izan be, gauzaiak eztau iraindu bear inor; eta irain da gizonik bere gurariaz bestera geldituazotea.

BERG.—Andera Miren-arren, orretantxe naigok neu be.

DOB.—Ja, ja, ja! Tira ba, gau on, yaunak: zer astunik yazo ba'ledi, niri dei egin: yagon ire lagunaren eta eure onuak, eta gau on... Aitor, auzoko.

II GAUZ.—Tira ba, yaunak, entzun dogu guri aginduriko egikizuna: yezarri gaitzean emen yauretze-aulkian ordu bietararte, eta gero guztiok oera yoango gara.

DOB.—Itz bat geiago, auzoko zindook: arren Lonata'n ateta-inguruan egon zadize zai; izan be, ezteguak biar diranazkero iskanbillarik asko da an arratseon. Agur, atza-

rrik eta zai egon, arren. (DOBERRI ta BERGETS'ek alde).

MOZKORTI ta KONARTA aurrera.

MOZK.—Ara! Konarta!

GAUZ.—(Bere kitean) Ixilik, ez egin zirkinik.

MOZK.—Konarta, gero!

KON.—Emen nok, gizon, ire ukondoari deusdala.

MOZK.—Kontxo! eta azkura izan yoat ukondoan; legena datorkidala uste izan yoat.

KON.—Orrako orren erantzunaren zorrean geldituko nok; eta orain ekiok ire ipuinari.

MOZK.—Orrazkero, ator nikin aterpe onetara, euri-lanparra dok-eta; eta nazan mozkorrekin lez dan dana eralgiko dauskat.

GAUZ.—(Bere kitean) Azpikerien bat dogu emen, lagunak; ez egin zirkinik orraitio.

MOZK.—Yakik, orrazkero, Yon yaunagandik milla duket irabazi dodazala.

KON.—Orrenbestegarri izan ete ledikek zitalkeririk?

MOZK.—Ik itandu bear unkeana zitalkeririk orren aberats izan ledikeanentz dok; eta izan be, zital aberatsak beartsuen bearrean aurkitzen diranean, beartsuak eurak gura daben ordaina izentau legikie.

KON.—Andia dok ori.

MOZK.—Ik eztaik ezer. Ba-dakik ik gorantxazko, txapelazko, naiz txartasazko gaurkokeri edo barrikeria utsa dala gizonarentzat.

KON.—Bai, soñekoagazko dok orrako ori.

MOZK.—Nik esan gura dodana gaurkokeri edo barrikeria bera dok.

KON.—Bai, gaurkokeria gaurkokeri dok.

MOZK.—Ixilik ago! Ori esatea ta ergela ergel dala esatea bat dok. Baña eztoz ikusten zelangoa lapur lapur-antza galdua dan gaurkokeri au?

GAUZ.—Ezagun dot Antzagaldu ori; lapur zital izan da zazpi urteotan; aitonen seme baitiltzan dabil or: gogotan dot orren izena.

MOZK.—Eztoz entzun norbait, ala?

KON.—Ez; etxe-ganeko axe-orratza izan dok.

MOZK.—Eztakusak, entzuik, eztakusak zelangoa lapur lapur-antza galdua dan gaurkokeri au? Zelan inondiko lera ta griñaz eragin eta irabiatzen dauen amasei urte-lik ogei ta amabost urterakoan odol bero guztia? Batzuetan irudi keatutako Paraon'en gudarien antza emoten yautesk; batzuetan yauretze zarreko leioetako Bel sasi-yainkoaren yauparien, abadeen antza; batzuetan sitsak yandako soru-estalgi loieta-

ko Erkul bizarra kenduaren parka-atakako moltsoa aren burumakil edo porrea beste-ko aqiri danaren antzera?

KON.—Orrako guzti ori neuk be ba-yakusat; eta ba-yakusat gaurkokeriak gizonak ba-ño apaingarri gelago darabilela be. Baña ez ete au eroan eu be gaurkokeri leratsuak, ire ipuinetik alde eginda gaurkokeriaz niri ekiteko?

MOZK.—Ez olangorik; baña yakik gaur arratseon maiteminduarena egin dautsadala Margarite'ri, Ere anderearen aiton-alabeari, Ere'n izenez; bere ugazabanderearen logelako leioa zear makurtu yatak, eta amaika bider esan yaustak gau on... alperrik dirauskat ipuin au: beinen esan bear neuskan errege-semea, Kauldi, ta nire ugazabak, nire ugazaba Yon yaunak aik an landatu, imini ta aikaz a yabeturik, baratzean urri- netik ikusi izan dabela gure arteko kuntketea.

KON.—Eta aik Margarite Ere'tzat artu yoeak, ezto?

MOZK.—Euretatik bik, errege-semeak eta Kauldi'k bai; baña ugazaba txerrenak bayekian Margarite zala; eta batetik, aik lendik benderaturik ebazan aren ziñakaitik, eta bestetik, gauaren ilunagaitik, or yazoak

Yon yaunaren guzurrezko esanak sendetsi ta baiezta egin yozak-eta, Kauldi'k asarre bizian alde egin yok andik; zin egin yok ak, izentau yakonez, biar goxean yauretxean aurkituko dala Ere'kin eta an, batzar osoaren aurrean, lotsariz betarik itxiko dauela arratseon ikusi izan dauenagaz, eta atzera aren gurasoenera bidaliko dauela Ere senar-barik.

I GAUZ.—Errege-semearen izenez agintzen dauskagu, geldi or.

II GAUZ.—Dei egiok Ertzain negusiarri: lege-erri onetan eguño izan danik eta lizunke- rizarlerik kaltegarriena idoro ta goatu yoa- gu.

I GAUZ. Eta Antzagaldu dalako bat dok e- ron artean; ezagun yoa a, buruan kizku- rra erabilten yok-eta.

KON.—Lagunok, lagunok!...

I GAUZ.—Itzik ez emen; geuk agintzen dau- skagu, gure esana egik eta ator gukin.

MOZK.—Ba-leiteke gu ondasun onko izatea, gizonon agintza-makilez erosiak garean-az- kero.

KON.—Ondasun danentz ikusteko yagok, bai orixe.—Erdi, zuon esanera gagoz (Alde da- gie).

IV AGERLEKU.—LONATA'neko Gela.

ERE, MARGARITE ta URSULE aurrera.

ERE.—Ursule on, iratzarri egina nire lengusin Batirke, eta yagi daitela eskatu egiona.

URS.—Bai, andera.

ERE.—Eta ona datorrela agindu egion.

URS.—Ori ondo. (URSULE'k alde).

MARG.—Beste idun-apaingarria obeto letor- kizula uste dot, askozaz be.

ERE.—Ez, arren, Margarite on, auxe erabili- ko dot.

MARG.—Nire ustez, ori ezta ain on; eta zu- re lengusinak be bardin esango dautzu, bai orixe.

ERE.—Ergel don nire lengusina, eta beste ain- beste i; auxe yantziko yonat, ez besterik.

MARG.—Buru-apainketa barri ori itzalez eder litzakizu, zure adatsa apurtxo bat baltzera- nago ba'litz; eta zure yantzia iñondikorik iñondikoen da, bai orixe. Ikusirik dot nik Milano'ko Dukenoaren yantzia, or orrenbes- te goratzen dabena.

ERE.—Ene! or diñoenez, a goragarri baño goragarriago ei don.

MARG.—Nire ustez, zurearen aldean arena gau-yantzi baño ezta. Tarteka urrez sarotu-

riko euna, ebagiakin, ertzetan zidarra edo urrezuria dauela; pitxiz apaindurik, bera- ko ta alboatarako besoak, eta gona-ba- rren borobilak, ertz urdizkaz: baña era li- rain, iñondiko, zoragarri ta bikainez zurea arena lango amar da.

ERE.—Pozik emongo al daust Yaungoikoak ori erabilteko, nire biotza artega ta astun yagon-eta!

MARG.—Astunago egongo yatzu gesu baten gizonaren astuntasunagaz.

ERE.—Ut, ut! ezton lotsarik, ala?

MARG.—Zeren lotsarik, andera? Zindoro itz eginaren lotsa, ala? Ezta ezkontzea dedu ta omengarri eskekogan be, ala? Ez ete da zure yauna dedu ta omengarri ezkondu- aurretik be? Au esan dodala uste dot, zera, "lotsarik andienaz, senarra"; buruan gatxik ezpa'dago, eztago itzetan be, eta eztoz iñor iraindu. Ete dago gatxik "senarragaitik as- tunago" esatean? Bapez, nire ustez, legez- ko senar eta legezko emazte ba'dira; os- tantxean astuntasuna arin litzake, ez astun. Itandu ezpabe Batirke anderañoiari, or da- tor-eta.

BATIRKE aurrera.

- ERE.—Egun on, lengusin.
 BAT.—Egun on, Ere ezti.
 ERE.—Ostera! Onangorik! Gexo-otsez dagizu itz?
 BAT.—Nire ustez, ni enon gauz bestetariko otsik egiteko.
 HARG.—“Maitasun-argia” dalakoa abesten asi zakiguz, bir-abestekorik eztau ak: zuk abestu egizu, bai? eta yantzan egingo dot nik.
 BAT.—Bai, “Maitasun-argia” ire orpoz!... orduan ikusiko don ire senarrak itoirik asko ba'yon, beiak eukiteko, aren biitegia ezatala motxorrik izango.
 MARG.—Ondorenaren bidebako! orrako ori nire orpoz zapuztuko dot.
 BAT.—Bostak dozan ia, lengusin; gertu egoteko tertziua yana dagoneko. Egia esateko, txarto be txarto naiagon ni... ai, ene!
 MARG.—Astiro; zaldirik, ala senarrik bear dogu?
 BAT.—Euren asierako H izkia (6).
 MARG.—Tira ba, Turkar egin ezpa'zara, itxas-aldia Ipar-izarrez egitea baño eztozu
 BAT.—Zer esan gura don, zoro orrek?
 MARG.—Ezebez nik; baño Yaungoikoak ba-kotxari eurak zer-gura bidaltzen dautso!
 ERE.—Kondeak bidali daustaz esku-zorrook; sunda gozo darioe.
 BAT.—Bete-beterik non ni, lengusin; ezin yonak usainik artu.
 MARG.—Neska izan eta beterik! ez ete dozu izor-otzen bat artu?
 BAT.—Ene! lagun zakidaz, Yaungoikoa, lagun zakidaz! Noiztik ona augu orren zorrozt?
 MARG.—Zorrozt izatea zeuk itxi zendunazke-ro; ez ete yat bakan egiten zorrotasuna?
 BAT.—Ezton agiri or bear añarik; txapelean

- eroan bear endukena. Benetan, ni enago onik; larri naz ni.
 MARG.—Artu egizu “Cardus Benedictus” onetatik arean eta zure biotzari ezarri egiozu; eztago beste osakarik larritasunarentzako.
 ERE.—Orrako ori egitea arantzea sartzea don.
 BAT.—“Benedictus”! zegaitik “Benedictus”? Esan-guraren bat don ik “Benedictus” orretan, ekanduekazko esan-guræen bat.
 MARG.—Ekanduekazko esan-gurarik? Ez, egia esateko, nik esanak etxon izan olango esan-gurarik; nik esan gura izan dodana kar-du gurenak berak berez esan gura dauena izan da. Ba-ledike zuk uste izan izatea zu maitemindurik zagozala uste dodala nik; ez, gure Andera Miren-arren, dirautzut, ni enozu entzuten dodana uste izateko bestean ergel; eta entzun-bearrik be eztoz neuk al dodana uste izateko; eta ezin uste izan negike, burutik eginda ba'nengo be, zu maiteminduta zagozanik, naiz zu maiteminduta egon zeintezkanik be; orraitioño, Bedita be zu langoxe izana da, eta orain a be gizon dala agertu da: iñoz be etzala ezkonduko zin egin ebanak orain, bere biotza gora-berra, maitasun-ogia iguin-barik yaten dau; eta zu zelan aldatu zeintezkan ezlakit nik; baño orraitioño be zure begiak beste emakumeenen antzeko dira.
 BAT.—Ze oinkada, ze bide artu dau zure miñak?
 MARG.—Ez taka-taka ustelik.

URSULE aurrera oster a be.

- URS.—Urten zadiz, andera; errege-semea, kondea, Bedita, Yon, eta uriko andiki guztiak etorri dira zu yauretsera eroateko.
 ERE.—Yazten lagun zakidaze, lengusin on, Margarite, ta Ursule. (Alde dagie).

V AGERLEKU.—LONATA'neko beste Gela.

LONATA, DOBERRI ta BERGETS aurrera.

- LON.—Ze arazo dakadazu, lagun on?
 DOB.—Kontxo! zu urretik ukutzen zauzan zer-baiten barri emon gura neuskizu.
 LON.—Labur esan, arren; zeregintsu nagola ba-dakusazu-ta.
 DOB.—Kontxo! orrako ori auxe dozu, yaun.
 BERG.—Bai, benetan, orixe da.
 LON.—Zer dogu orrako ori, adiskide onok?
 DOB.—Bergets gizon ona gure arlotik apur bat alde eginik dabil: gizon zar yatzu, bai? ori, eta orren adimena eztago nik gurako neukean bestean motel, Yaungoikoari eske-

- rrak; baño zintzotasunez bere betarteko narua bestean zintzo da.
 BERG.—Bai, Yaungoikoari eskerrak, bizirik dan gizonik zintzoena bestean zintzo nozu, ni lez zar eta ni baño zintzoago espa'da.
 DOB.—Usaintsu dira zein zeragotzeak: “pala-bras”, Bergets lagun.
 LON.—Aspergarri zarie, lagunak.
 DOB.—Eder yatzu zuri, nagusi orri, ori esa-

(6) Bai ba, Ingelanderaz Horse (Zaldi) ta Husband (Senar) itzak, biak asten dira H izkiz.

tea, baña gu Dukearen otsein gara: orraitio be, benetan, errege bestean aspergarri ba'nintz ni, nire biotzak bere asperra za yaun orren alde erabiliko leuke.

LON.—Ire asper guztia nitzako! etxagok txar-to orixe! ja, ja!

DOB.—Bai, dana lango milla ba'litz be: eta izan be, zu yaun orregandik erriko beste edozein gizonandik entzungo neuken añoko esarrea entzun dot, eta ni gizon gaxo izan-arren, pozik entzun dot.

BERG.—Bai neuk be.

LON. Zuok esateko dozuena entzun gura neuke.

BERG.—Kontxo! yaun, gure gauzai-taldeak, zu yaun ori eurretario etzareala, gure gauzai-taldeak arratseon Mesina'n diran zitilik zitelenak besteko bi goatu dauz.

DOB.—Agure on yatzu ori, yaun; eten-barik legoke ori itz eta pitz; or diñoenez, adeia etxera sartzen danean, zurtasunak alde egiten dau; lagun bekigu Yaungoikoa! Ikusteko yatzu mundu au!... -Ondo esanda, benetan, Bergets lagun: tira ba, gizon on yatzu Yaungoikoa; gizon bi zaldi baten ganean yoatekotan, bietarik batak atzean yoan bear... -gizon zintzo yatzu ori, yaun, bene-benetan; izan be, olangoxe da ori, ogia yaten dauen edonor bestean; baña gurgarri da Yaungoikoa. Ez dira bardinak gizon guztiak... Ene! auzoko on yatzu ori!

LON.—Izan be, lagun, labur gelditu az ori goraketan.

DOB.—Yaungoikoaren emaitzak yatzuz.

LON.—Alde egin bear yoat zuokandik.

DOB.—Itz bat bakarrik, yaun; izan be, gure gauzaiak zori oneko gizon bi goatu dabez, eta eguerdi-aurre onetan aik zure aurrera ekarteko asmoa izan dogu.

LON.—Zeuok aztertu egizue eta agiri dana ekarri egidazue; eztoz ezetarik astirik orain, ikusi dagikezuenez.

DOB.—Asko idazgo da ori.

LON.—Ardao apur bana edan egizue yoan-aurreitik: agur.

Geznari aurrera.

GEZN.—Ene yaun, zure begira dagoz zuk zure alabea aren senarrari emoteko.

LON.—Euren esanera naço: beingoan noake. (LONATA'k eta Geznariak alde).

DOB.—Oa, lagun on, oa Pantzeska Itxasikatz' egana; idazkortza ta idazkurontzia baitegira ekarri dagistazala esaioak; gizonak aztertu bear yoaguz orain.

BERG.—Eta zurtasunez egin bear yoagu orrako ori.

DOB.—Etxoagu itxi bear erabilteka buru-argitasunaren bilderrik be, ez orixe; emen yagok (bekokira eskua eroanez) eurretario batzuk "non com" dalakora eroango dauzana, autorrazoko dauksena; ik bakar bakarrik arako idazle yakituna ekarri egik gure birakotea (billaketea esan gura dau) idatzi dagian, eta baitegira ator nire billa. (Alde dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.—Yauretxe-barrua.

D. PEDRO, YON, LONATA, LEKAIDE, KAULDI, BEDITA, ERE, BATIRKE t. a. aurrera.

LON.—Tira, Pantzeska Lekaide, labur izan, arin egin egiteko; ezkontzako bear-bearrekoak bakarrik bein-beinean, eta euren bakotxaren egitekoak gero azalduko dautsezuz.

LEK.—Ene yaun, neskato onekin ezkontzeko zatoz on, ala?

KAUL. Ez,

LON.—Neskato orrekin ezkontzeko, lekaide: orrekin ezkontzeko zatoz zu.

LEK.—Andera, konde onekin ezkontzeko zatoz zu, ala?

ERE.—Bai, orrekin ezkontzeko.

LEK. Zuok alkarrekin ezkontzeko ezatariko eragozpenik ba'dakizue, zuon gogoen al-

detik agintzen dautzuet iragarri dagistazue la.

KAUL.—Ete dakizu ezetarikorik, Ere?

ERE.—Bat bera bez, ene yaun.

LEK.—Ete dakizu zuk ezetarikorik, konde?

LON.—Orren izenez erantzuten azarriko naz, ezetz.

KAUL. Ostera! Gizonak zetara ez diran azartzen! Gizonak egin legikeena! Gizonak egunoro esaten dabenarena! Zer egiten daben eztakiela!

BED.—Onangorik! gedarka? Ba, orrazkero, barre eragitekoak bediz batzuk, esaterako, ja, ja! eup!

KAUL.—Baztartu zadiz, lekaide: --Zure ederretsiz, aita; gogo nasaiz eta inok beartubarik emoten ete daustazu neskato au, zure alaba au?

LON.—Yaungoikoak beratu emon eustan bes-tean gogoz eta esku zabalez.

KAUL.—Eta zer emon ete neiketzu orren ordeazkotzat, emaitz eder eta yori ori bar-dindu legikeanik?

D. PED.—Ezebez, ik berori atzera emon-ezik.

KAUL.—Errege-seme maitagarri, zuk irakas-ten daustazu zelan izan esker oneko zindo. Eutsi, Lonata, artuizu au atzera; ez emon zure adiskideari urresagar ustel au; nes-kato ori dedu ta omenaren atz eta antz ba-ño ezta... Begira, ba-datorkoz mosuetara neskatoren gorriak Ene! oben maltzurak bai ba-dakiala bere burua errugetasun-agi-riz estaltzen! Ez ete da etorten odol ori on-indar xalo ta lauaren lekukotzat, iragarle lotsortzat? Ori dakusazuen guztiok ez ete zendukie zin egingo, agiriko erakusteok di-rala-ta, neskato ori neska garbi dala? Ba-ña ezta ori neska garbirik: ba-dazau orrek lizunkeriaren beroga: errua diragarre orren mosuetako gorriak, ez lotsortasuna.

LON.—Zer esan gura dozu, ene yaun?

KAUL.—Enazala ezkonduko orrekin; ezto-da-la lotuko nire biotza zirrilda ezagunekin.

LON.—Ene! ene yaun, zuk, zeure argibidez, gazte onen mukertasuna benderaturik, onen neskatasuna be benderatu ba'dozu...

KAUL.—Ba-dakit nik zuk zer esan gura do-zun: nik ezagutu izan ba'dot ori, esango dozu zuk, senartzat estutu nauela besar-tean eta, olan, aldiz aurretiko oben orrek ba-dauela aringarririk bere alde; ez, Lo-nata, nik eztoz zirrikatu izan ori itz nasae-giz; bai, ostera, nebak bere arrebari lez, erakutsi zintzotasun lotsorra ta maitasun egokia.

ERE.—Eta olangoxez besterik agertu ete nai-tzu iñoz?

KAUL.—Zoaz ortik zear, ken ortik zure agiri ta antokaz! Neuk salatuko zaudaz: Dine bera bere zer borobilean zirudikidaz zu; za-baldu-aurretik lora-pipila aña garbi ta aratz; baña zure odola Benuts'ena baño be lizunago da, naiz lizunkeri basatira itzu-liak diran abereena baño be lizunago.

ERE.—Onik ete dago nire yauna orren nasai eta lotsa-barik itz egiteko?

KAUL.—Errege-seme ezti, zegaitik eztozu zuk itzik egiten?

D. PED.—Zegaitik eta zetarako itzik egiteko nik? Lotsariz beterik nago ni, nire adiskide mamia guztien mutxikin dan neska ustele-ri lotu-aginik egon izan naz-eta.

LON.—Esana ete da nik entzuna? Ala, ame-setan egon ete naz?

YON.—Yaun, esanak dira itzok, eta egiazko dira zerok.

BED.—Onako onek ezituzi eztegurik.

ERE.—Egia dala! Ene Yaungoikoak!

KAUL.—Lonata, emen ete nago ni? Errege-seme ete da au? Errege-semearen anaiea ete da beste au? Ere'n arpegia ete da au? Geure ete dira begiok?

LON.—Olan da orrako guzti ori; baña ortik zer ene yaun?

KAUL.—Itxi egitazu orain zure alabeari itaun bat egiten; eta zuk orregan dozun aitaren eskubide ta al maitekorrez egia esateko agindu egiozu.

LON.—Nire alaba zarean aldetik egia esan dagizula agintzen dautzut.

ERE.—Yaungoikoak lagun bekiti! ni bai estutu ta orma-alderatzen nabela! --Zetariko itaunketa dogu au, eta zetarako?

KAUL.—Zure izena esanazoteko.

ERE.—Ezta Ere, ala? Nok orbantzeko nire izena ezetariko egiazko akatsez?

KAUL.—Andera Miren-arren,nok? orrako ori Ere'k berak egin dagike; Ere'k berak or-bandu dagike Ere'n on-indarra. Zein gizon zan bart zure leioaren landa-aldetik zukin itz egin ebana, amabietatik ordu batetara-bitartean? Erantzun oni, neska garbi ba'za-ra.

ERE.—Ordu orretan, ene yaun, nik eztoz itzik egin iñongo gizonekin.

D. PED.—Ba, orrazkero, etzara zu neska gar-bi. --Lonata, naibage dot zuk entzun-bea-rraz: neure dedua-arren,neuk, nire anaieak, eta konde iraindu onek ikusi dogu ori, ent-zun dautsagu orri bart, arako orduz, zita-lekin itz egiten orren lo-gelako leioan; izan be, ak, zital utseri dagokionez, autorru izan dauz orreik ixilean milla bider alkarrekin izan dabezan batzararak.

YON.—Uf, uf! ene yaun, orren izenik aitatu be elitzake egin bear; olangoxez itzik bez; iñor iraintzeka, orreik aitatzeke itz garbi-rik asko eztago. Onan, ba, anderaño li-rain, tamalik asko dot zure ibilera txarra-kaitik.

KAUL.—Ere ori! Ere ori! Zu bai izango zintza-kezan Ere lango Ere zure biotza zure azale ko edertasunen neurriko izan ba'litz! Ba-ña, agur, zantar ori, lirain lirain ori! Agur, gaiztakeri uts eta garbitasun zantar ori! Ate guztiak itxiko dautsodaz maitasunari zugaik ete susmoa egongo da nire betaza-letik dingilizka, edertasun oro kalte-goga-pen izan dakidan, eta bein be geitago mai-tagarri izan eztakidan.

LON.—Ez ete dau emen gizonen baten saskakia agorik eta mokorik nitzako? (ERE larritu ta konorgatu egiten da).

BAT.—Ene! Onangorik! lengusin? Zegaitik larritu ta lurrena yausi zara?

YON.—Tira, goazen; onan, zerok argitaratu dira, ta orren arnasea ito dabe.

(D. PEDRO, YON eta KAULDI'k alde)

BED.—Zelan dago anderea?

BAT.—Ilik, nire ustez; --lagun zakioz, osoba: --Ere! Onangorik! Ere! --osaba!... --Bedita yaun!... --Lekaide!

LON.—Alanbear ori, ez egizu eragi zure esku astuna orren ganetik! Orren lotsariarentzako opa leitekean estalgirik onena eriotzea da.

BAT.—Onangorik! Ere lengusin?

LEK.—Nasai zadiz, andera.

LON.—Gora begira zagoz?

LEK.—Bai; eta zegaitik eztau egon bear?

LON.—Zegaitik! Ba! Munduko zer guztiak eztagoz neskato orrentzako lotsari-eske gedarrez, ala? Ukatu ete lei orrek bere odolean irarrita daukan ipuina, ala? --Ez diz bizi, Ere; ez idigi zure begiak; eta izan be, arin etzareala ilgo yakin izan ba'neu, zure bizia zure lotsariak baño sendago zala yakin izan b'neu, neuk yo ta ilgo zindudazan, zure damuaren saritzat. Seme-alaba bat bakarra nebalako naibageturik nintzala? Asarrerik, alaketarik egin neutsala orregaitik izamen esku-itxiari? Ene! bat bera be lar zukin! Zegaitik izan dot bat bakarrik? Zegaitik izan zara beti maitagarri nire begientzat? Zegaitik eneban artu, esku errukiorrez, atetara etortan eskekoren ondoren-gorik, alangoa onango lotsariz estalirik eta loiturik ikusiazkero, "Orrenik deusik ezta nire; kuntzurrun-alde ezzagunetatiko da lotsari au' nik esan al izateko? Baña, nire da, nik maite izan dodan nire, nik goratu izan dodan nire, eta nire arrokizun izan dan nire; ain nire izan da-ta, neu be enaz izan nitzako nire, ori maite izan dot-eta; ba! ori... Ene! idazkur-oxinera yausi da ori, eta itxaso zabalak be eztau ur-tantanik asko ori atzera zuritzeko, ezta gatzik asko be, orren aragi ustel orbandua onduteko!

BED.—Yaun, yaun, epe artu egizu: nigazko, nirekiko, arrituaren arrituz, nik eztakit zer esan be.

BAT.—Ene! nire gogoia bera egingo neuke, nire lengusina guzurrez iraindu dabela!

BED.—Andera, zure lengusinaren oe-lagun izan zara bart, ala ez?

BAT.—Ez, ez benetan: igaroko arratserarte amabi ilebeteotan orren oe-lagun izan-arren.

LON.—Agirian dago, agirian! Ene! lendik burdiñazko agaz segurururik egoana segurua-go yagonik dago orain! Errege-seme biak guzurrik esan? Guzurrik esateko Kauldi'k, ak ain maite eban neskato onen ustelkeriaz itz egiterakoan ustelkeri ori bere negarez ikuzi, garbitu dauenak? Alde dagigun onegandik! il daitela.

LEK.—Entzuidazo apur baten; eta izan be, birtarte onetan neu bakarrik egon naz onen luzaro ixilik, eta alandebarraren iturriko ural bidea egiten itxi dautset, neskatoari oartuaz; lotsazko milla gorri ikusi izan dodaz orren arpegira kirika egiten; amaika lotsa erruga, angeru-zuritasunez, gorriok ortik zear eroaten; eta sua agertu da orren begietan, errege-semeok orren neska-garbitasun benetakoaren aurka dabezan okerreko usteak erretako. Ergeltzat euki nagizue; ez izan usterik nire irakurrian, ezta ni oar naiakonean be, nik oarrez ikusiaren mamia erakutsi-arren; ez izan uste onik nire adinean, nire urteetan be, nire begiragarritasunean, nire Yaungoikoak deitua izatean, nire Yaungoiko-otsein izatean, anderaño maitagarri ezti au, emen datzan au, erruge ezpa'da, okerreko uste zorrotz eta usikariren baten bendeen.

LON.—Lekaide, ezin izan ledike olangorik; orri gelditu yakon edertasun bakarra bere gaitzespenari zinauste-obenik eztautsala erantsi gura, orixe da; eztau ukatzen orrek arpegiratu dautsoena; orrazkero, zegaitik estali gura dozu zuk aringarriz, berez agiri agirian dagona?

LEK.—Andera, zetariko da zu akin egontzat salatzen zabezan gizona?

ERE.—Ni salatzen nabenak dakie ori; nik eztazagut bat be; nik ba'dazagut gizon bizirik, nire neska-lotsortasunak baiezten dauenaz besterik, nire oben guztiak ez al dabe izango errukirik!... Ene aita ori, ordu ez-egokitan gizonetzokoin itz egin dodala, naiz bart inortxokin, ezekin be itzik aldatu izan dodala erakutsi ba'dagizu, zapuzta nagiztu, arbiatu nagizu, ortik zear bidali nagizu, gorrotatu nagizu, elorrio gorritz il nagizu!

LEK.—Errege-semeak inondiko okerreko usteak dabez.

BED.—Areitarik bi dedu ta zintzotasuna bera dira; eta arein zurtasunak onetan okerreko bidea artu ba'dau, Yon sasikumea da oker orren errudun, aren yokabidea zitalkeria da-ta.

LON.—Eztakit. Aik neskato onetaz diñoena egia izatekotan, neure eskuok urratu ta zeatuko dabe ori; aik orren omenari irain egin ba'dautsoe, euretarik arroenak be entzun bearko daustaz entzutekoak. Urteak eztabe oraindik orrenbesteraño legortu nire odol au, ezta adinak orrenbesteraño iruntsi asmatzeko nire indarra, ez alambearrak nire ondasunetan orrenbesteraño triskantzarik egin izan, ezta nire bizitza txarrak orrenbeste adiskide galduazo; ez, bestera, or aurkituko dabe itzalez atzari dirala zer biak, nire soñeko indarra ta nire gogoko asmamena; bideak artzeko trebetasuna eta adiskideak aututeko antzea, nire arerioak zeatz garbitzeko.

LEK.—Etixon apur baten eta nire onuak erakutsi dagitzula bidea arazo onetan. Emen dagon zure alaba au iltzat itxi dabe errege-semeak; aldikada baten ixilik gordeta egon daitea au, eta benetan il dala zabaldu egizu or; illetearena agirian egizu, zure sendiaren ilobian naibage-idazkunak irarri egizuz, eta gorpu-lorrari dagokiozan egikizun guztiak egizuz.

LON.—Zetarako ori guzti ori? Zer etorteko ortik?

LEK.—Ba! Onako onek, ondo eginazkero, neskeaz txarto ta guzurrez esana aren aldeko biurtuko dau iraintzalleak garbaituaz; eta zerbait onik dogu ori; baña bide au artzerakoan enarora ni orrako ontxo orren amesak; zer andiagok naragi neke au artzera. Neskato ori salatu eben une berean ilazkero, --eta ori yazotzat sinisazotera goaz--, orren eriotzea dala-ta negar egingo dabe ori salatu ebenak, erruki izango dautsoe, eta zuritu egingo dabe aik eta au dantzuen guztiak; eta izan be, yazo oi danez, daukaguna eztozu artzen aintzaketzat, daukagun artean; baña bein galdu ba'dagigu ta aren utsa somatu, orduan bai orduan yaramoten dautsago, oartzen gaiakoz aren gaitasunari, aren balioari; orduan idoroten dogu guk genduan artean oartzen ez gintxakozan on-indarra. Ori yazoko yako Kaurdi'ri; bere itzakaitik il dala neskatu au entzun dagianean, orren irudia ixilka, narraz eta gozoro sartuko yako aren irudimenera; eta neskato onen soin-atal bakotxa berau bizi zanean baño zoraqarria goyantzita, ibilkera samurragoz eta bizitasunez osotuago ta beteago agertuko aren gogoko begi ta ikuskizunaren aurrean: negar eta intziri egingo dau orduan... iñoz aren biotzean maitasunak benetan lekuri izan ba'dau..., eta ez al leu alan salatu izan

gurako dau; bere salakuntzea bidezko zala uste izanda be. Bete dagigun, aurrera eroan dagigun nire asmo au, eta ez izan ezetarikoz expairik gure aldeko ondorena nik emen azaldu ta iruditu negiekan baño ohea izango dala. Baña elburu orretarako gure asmoak porrot ba'legie, orraitio be neskato au ilik dalakoak onegazko entzute txar eta lotsarizko zurrumuru ta esames guztiak ito ta itzali egingo leukez; eta, olangorik ez iristekotan, neskato au ostonduta euki-ezirik eztozue... onen entzute orbanduari ondoen dagokionez... orma-barruan bizi diran lekaimeen batzuen artean, iñozen begi, min, gogo ta irainetatik urrin.

BED.—Lonata yaun, yarrai zakiez lekaidearen onuai; errege-seme ta Kauldi'ganako nire adiskidetasun eta maitasunaren barri zuk yakin-arren, arazo onetan nik, neure dedua-arren, ixiltasunik eta zindotasunik andienaz yokatuko dot, zure gogoak zure soñaz yokatuko leukeamez.

LON.—Naibagetan uger, igeri nabilenazkero, ari bat da asko ni edonora ta edozetara eroateko.

LEK.—Ondo eder etsita; alde dagigun bertatik; iñondiko lor eta minak iñondiko osapide-billa garoez-eta. --Tira, neskato, il zadiz, bizi zaitezcan: ba-leiteke ezteguok ge-roagoratzea baño ez izatea; epe artu ta yasan egizu. (LEKAIDEAK, ERE'k eta LONATA'k alde).

BED.—Batirke anderaño, negarrez egon zara bitarte guzti onetan, ala?

BAT.—Bai, eta luzarago be negar egingo dot.

BED.—Ez al dozu egingo olangorik.

BAT.—Zuk eztozu orretarako biderik; neurribarik dagit nik negar.

BED.—Benetan, zure lengusina iraindu egin dabela uste dot.

BAT.—Ene! Nire lengusinari zuzena egingo leuskionak bai irabaziko leukela nire biotzean, eta ez gitxi be!

BED.—Ete dago olango adiskidetasunik erakusteko biderik?

BAT.—Bidea erreza da, baña bide ori artzereko adiskiderik ez.

BED.—Gizonek egin ete legike orrako ori?

BAT.—Gizonaren egiteko da izan, baña ez zure.

BED.—Zeu zara nik mundu onetan maitteen dodana. Ez ete da iñondiko zer au?

BAT.—Nik eztakidan zera bestean iñondiko. Ain bardin litzakit esatea eztodala ezer zu bestean maitte: baña ez sinistu niri; eta orraitio eztiñot guzurrik; eztoz ezer autor-

izen, ezta ukatzen be... Erruki dauatsat nire lengusinari.

BED.—Nire ezpatea-arren, Batirke, maite no zuzuk.

BAT.—Ez egin zinik orrako ori-arren, eta yan egizu ori.

BED.—Zin egingo dot au-arren zuk maite nozula; eta nik etzaudazela maite esan da-gianari ezpata au yanazoko dauatsat.

BAT.—Ez ete dozu yango zure itza?

BED.—Ez asmau leitekean gozagarrigaz be: maite zaudazala dautort.

BAT.—Ba, orrazkero Yaungoikoak asketsi, par-katu nagiala!

BED.—Zein oben, Batirke ezti?

BAT.—Tertzioz gelditu nozu: maite zaudazala autortu-aginik nintzan.

BED.—Ala zure biotz osoz autortzeko, ala?

BAT.—Orren biotz osoz maite zindudazan-eta, etxat arean gelditu autortzeko.

BED.—Tira, edozer agindu egistazu zure alde.

BAT.—Il egizu Kauldi.

BED.—Ja! ez ludi zabalagaitik be.

BAT.—Ori ukatzeaz neu ilten nozu. Agur.

BED.—Geldi or, Batirke ezti.

BAT.—Emen gelditu-arren yoana nozu ni; eztago maitasunik zugan: ez, alde egiten itxi egistazu arren.

BED.—Batirke!

BAT.—Benetan, ba-noa.

BED.—Onezkoak egin bear doguz lenago.

BAT.—Errezagotzat dozu zuk nigaz onezkoak egitea, nire arerioakin burruka egitea ba-ño.

BED.—Zure arerio da Kauldi, ala?

BAT.—Ez ete da zitalik agiriaren eta andiena nire senidea laidotu, ezetsi, orbandu daue-na? Gizon al nintzi!... Onangorik! Eskutik elduta ekarri a eskuak alkarri emotera eldu-arte, eta bein orrazkero guztien aurrean

salatuta, irain agiria, gorroto gordina... Ene Yaungoikoa, gizon al nintzi! Azokan yango neuke aren biotza!

BED.—Entzun egistazu Batirke...

BAT.—Gizonekin itz egin dauela leiotik!... Ori, ori gizonek esatekoa!

BED.—Eztago ondo ori, baña Batirke...

BAT.—Ere kutun!... iraindu egin dabe nire lengusina, iraindu egin dabe; arenak egin dau.

BED.—Batir...

BAT.—Errege-semeak eta kondeak! Benetan, errege-semeen autorra, ondo asmauriko gu-zurra; maitale bikain eta ezti a, oba ez! Gizon al nintzi ari bereak eta erdi emoteko! adiskiderik al neu nigaitik ari bereak emo-teko gizon izan gurako leukenik! Baña gi-zatasuna era-mera ta labankerietan urtu da, adorea era-meretan, eta gizonak min eta apainkeri uts egin dira: aldiotan Erkul aña-ko adoretsu esten da guzurak esan eta guzurren alde zin egiten dauen gizona... Ni ezin gizondu gura-izan utsez, eta orraz-keru emakume ilgo naz naibagearen naiba-gez.

BED.—Geldi or, etxon, Batirke on, maite zau-daz, esku au-arren.

BAT.—Zin egiteaz bestetan erabili egizu ori nire maitasuna-arren.

BED.—Bene-benetan uste ete dozu zure bio-tzean Kauldi'k oker egin dauatsala Ere'ri?

BAT.—Bai, nik gogopenik naiz gogorik do-dan bestean seguru.

BED.—Bego, asko da; emen nozu itza emon-da; neuk egingo dauatsat ari eupada; eta banao, zure eskuari mun eginik. Esku au-arren, ondo ordaindu bearke daust Kaul-di'k. Niri zer entzuten daustazun, alango-tzat etsi nagizu. Zoaz eta nasaitu egizu zu-re lengusina: a ilik dala esan bearke dot nik, eta orrazkero, agur. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Baitegi

DOBERRI, BERGETS eta YAURETXYZALA (7) ebazle-yantzi luzeakaz; eta GAUZAIKAK, KO-NARTA ta MOZKORTI'kin.

DOB.—Gerturik ete dago gure batzar osoa?

BERG.—Ene bada! Aulki ta eperdipeko bat ekarri yauretzeziarentzako!

YAUR.—Zeintzuk dira gaizkinak?

DOB.—Ba! ni ta nire laguna gozuz orrakook.

BERG.—Bai, izan be! gu gara azterketa-egi-tekoa gugan artu dogunak.

YAUR.—Baña zaintzuk dira aztertu bear di-ran okerrak? Datozala ertzainburuaren aurrera.

DOB.—Bai, arrano, datozala nire aurrera.--Zer yak izena, adiskide?

MOZK.—Mozkorti.

DOB.—Idatzi egizu, arren, Mozkorti.-- Eta iri, yauntxo?

KON.—Aiton-seme nozu ni, yaun, eta Konarta yat izena.

DOB.—Idatzi or... Aiton-eseme Konarta yau-

(7) Yauretzezai, edo sankristau ori bide ba-tez eskribau edo latzindari be ba-zan, eta emen ebazlearena be ba-dagi.

na. Yaunok, Yaungoikoaren otsein zarie, ala?

KON. eta MOZK.'k.—Bai, yaun, orretan gagoz.
 DOB.—Idatzi or... Yaungoikoaren otsein dirala uste dabela: --eta Yaungoikoa idatzi lenen, eta Yaungoikoak parkatuko al dausku Bera onango zitalen aurretik doalaketan imini dogulako!... --Yaunak, dagoneko dago erakutsita ta agirian zuok guzurrezko zitalak baño arean obeagorik zariela!, eta olango zariela sinistu-aginik gagoz. Zelan zuritzen dozuez zuon buruak?

KON.—Ba, yaun, gu ezkareala zital diñogu guk.

DOB.—Auxe bai itzalez gizon zur, bai orixe; baño astinduko dot.-- Aitor ona, yauntox: itz bat ire belarrira, yaun; neuk dirauskat zuok zital ustel zariela uste dodala.

MOZK.—Yaun, neuk dirautzut, gu ezkareala olangorik.

BOB.—Tira ba, alde egik ortik.-- Yaungoikoaren aurrean diñot, orreik biok alkar artuta dagoz.— Idatzi ete dozu orreik eztirala olangorik?

YAU.—Ertzain-buru yaun, zuk daroazuna ezta azterketarako biderik; orrein salatzalle diran Gauzaia dei egin bear dautsezu.

DOB.—Bai, izan be, ori da biderik onena.-- Datozala Gauzaiak.-- Yaunak, errege-semearen izenez agintzen dautzuet salatu dagiezala gizonok.

I GAUZAIA.—Gizon onek esan dau Yon, errege-semearen anaia, zital eta dollor dala.

DOB.—Idatzi "Yon, errege-semea, zital eta dollor da". --Ba! Errege-semeren anairik zital eta dollor dala esate au zin-auste eta guzurrezko zin da agiri agirian.

MOZK.—Ertzainburu yaun...

DOB.—Arren, lagun, ixilik ago; etxatak begiko ire begirakunea, ez orixe.

YAU.—Zer besterik esaten entzun dozuez?
 II GAUZ.—Ba! milla duket artu dauzala Yon yaunaqandik Ere anderañoa guzurrez salatzearren.

DOB.—Eguño izan dan gau-lapurretarik agi-riena.

BERG.—Bai, yaupea-arren, bai izan be.

YAU.—Zer besterik, lagun?

I GAUZ.—Eta orren itzak entzundakoan Kaul-

di kondeak Ere batzar osoaren aurrean laidotu ta akin ez ezkontzeko erabagia artu ebala.

DOB.—Zital ori, alango ori! Orrako orregaitik i betiko yaregitera (8) gaitzetsia izango az.

YAU.—Zer besterik?

II GAUZ.—Ori da dana.

YAU.—Eta onako au, yaunak, zuok ezin ukatuko dozuena da. Yon errege-semeak alde egin dau ixilka gaur goxean; onan salatu eben Ere, onan zapuztu eben, eta bapatean il zan a orrako guzi orregaitik... --Ertzainburu yaun, estu ta Lonata'gana eroan dagiezala gizonok; neu yoango naz aurretik, eta onein azterketea erakutsilko dautsat. (Alde dagi).

DOB.—Tira, kasket-gogor agiri dira, gero, eurok!

BERG.—Estu egizuz.

KON.—Alde egik, ergel orrek!

DOB.—Yaungoikoa-arren! nondik dogu yaurretxezaina? Idatzi dagiala "Ergel da errege-semeren otseina". --Tira, estu egizuez--. Zital txarri ori!

KON.—Ken akit emendik! asto az i, bai astotzar.

DOB.—Eztautsak lotsarik, eztautsak susmorik nire lekuari, ala? Eztautsek susmorik nire urteai, ala? --Ene! emen al lego a, ni astotzar nazala idazteko! Baña, yaunak, gogoratu egizue, asto nazala ni; idatzita egon ez-arren, zuoi etxatsue aztuko asto nazala ni.-- Bai, zital ori, yainkozaletasunez beterik ago i, autorla onak erakutsiko dabenez. Gizon zur nok ni; eta areago dana, erri-otsein; eta areago dana, etxe-yaun; eta areago dana, Mesina'dan gizatorik gizatoena besteko; eta legearen barri dakiana, ik yakin dagikan; eta aberatsik asko, eta yakik ori be; eta bere galtzeak be izan dauzan gizona; eta aldagarri bi ta ainbat gauza eder yazteko dauzana.-- Eroan egizue ori ortik. Asto nazala idatzi al litz! (Alde dagie).

(8) Ertzain ergel utsok, beste askotan lez, emen be itzak okerretara darabitez: "betiko yaregitera" diño, "betiko gaitzestera", betiko su-lezara esan bearrean.

V EKITALDI

I AGERLEKU.-LONATA'n etxe-aurrea.

LONATA ta ANDONI aurrera.

AND.—Olan yarraitzekotan, il egingo az; eta eztok bape zur olan nobere burua ire kalterako naibagearen bendea iztea.

LON.—Arren, ez egioik ekin onuak emoten, ire onuak sastegira doan ura bestean alperrik yalten dozak nire belarrietara-ta; ez egidak emon onurik; eta niri yazo yatazanak lango okerrik izan eztauen nasai-gilek be eztagizala gozatu nire belarriak. Ekak nik aña bere seme-alabarik maite izan dauen aita, bere alabeak pozez ganezka imini izan dauena, eta epe artez itz egiteko agindu egioik; aren lorra nirea lango izan daitela luzetara ta zabaletara, intziariak intziari erantzuten dautsala, onako oni onetara, orrako orri orretara, lorrari lorrez, edozein aldetatik alkarrekin bardin dirala; olangok iribarrerik ba'dagi, eta bizarrik batu ta kutundu, gedar egik eta esaik, naibage, eragiok alleari pozarren! poz-etzula egik ak urrume dagianeana eta naibagea adabakitu, nozipein atosifit batzok eralgiz; zori txarra mozkortu ta edaritan ito egik gabetako argizai-erretzalleakin. --Ekak olangorik, eta olangogandik ikasiko yoaat epea artzen. Baña etxagok olango gizonik: eta izan be, anai, gizonak eurak eztaben, eurai minik egiten eztautsen naibageatarako nasaitasun-onuak emoten eta olangoz itz egiten bai ba-yakiek; baña naibagea bera zer dan eurekan ikusiazkero, len asarrerako osakai eta osapi-deak euki ta opatzen ebezanak eurak dozak orain alaketa utsaren aldeko; orrakook zorakeri sendoa sedazko ariz estu gura yoen, mina puzka arindu gura yoen, eta iltamua, itez; ez, ez, gizonen egitekoa, naibagearen zamapean opilduta dagozanai epeaz itz egitea dok; baña etxagok gizonik, on-inda eta gaitasunik asko dauenik, besteak yasaten dauena bera berak be yasaten dauenean olan epe-onurik emoteko; orrazkero, ez egidak emon onurik; ire onuak baño garratzago gedar egiten yok nire naibageak.

AND.—Gizonak eta umeak bardin dozak orretan.

LON.—Ixilik ago, arren; aragi ta odolezko gizon izan gura yoaat nik; izan be, eguño ez-tok izan yakintzazalerik aginetako mina

epez eroan al izan dauenik, yainkoen eraz idatzi izan-arren, eta alanbear eta elorriok aletz utsat etsi izan-arren.

AND.—Orraitiño be, ez egik ezarri eure ganean kalle gutzia; okerreriak egiten dabezana be yasanazo egiek.

LON.—Zuzen ago orretan; bai, orixe egin be egingo yoaat. Nire biotzak diraustanez, Ere'z guzurra esan yoeik; eta yakingo yok ori Kauldi'k; bai errege-semeak be, eta bai aren izen ona orbandu daben guztiak be.

AND.—Emen yatozak errege-semea ta Kauldi aringa ta iraduz.

D. PEDRO ta KAULDI aurrera.

D. PED.—Egun on, egun on.

KAUL.—Egun on zuoi bioi.

LON.—Entzun, ene yaunak...

D. PED.—Asti gitxi dogu, Lonata.

LON.—Asti gitxi, ene yaun! --Tira ba, onik eta ondo ibili, ene yaun: --orren asti gitxi ete dozu? --Tira ba, bardin da.

D. PED.—Ez, etzakiguz asarratu, agure on.

AND.—Asarratuz bere buruari zuzenik egin al ba'legio, gutarikoen batzuk lurrean zerraldo egon bearko leukie.

KAUL.—Nok egin dautso okerrik eta irainik?

LON.—Arrano, arrano, zeuk iraindu nozu: zeuk, azaluts orrek, bai, zeuk: ez egiozu eldu zure ezpateari. Eztot zure bildurrik.

KAUL.—Ba! zori txarreko bedi nire eskua, zure adinari bildur- biderik emon ba'dagiot; egia esateko, nire eskuak eztau artu ezpartarako biderik.

LON.—Ixilik, ixilik, gizon; ez egin irrik eta barrerik; ni enago urteak erasoaren, naiz ergelen antzez itz egiten; urteak emoten daben eskubidez eta arrokeriz nik gazetan eginaz, naiz gazte ba'nintz orain egingo neukenaz itz egiten ibilteko. Zeure buruagaitik yakizu, Kauldi, zuk nire alaba errugea ta ni ainbesteraño iraindu gozuz-eta, begirapen eta lotseari bazterrera eragitera beartu nozula, eta ule urdindu ta ainbeste egunek nigan egin dabezana egitekoakaz eupada egiten dautzut ni gizon au nolango nazan ikusi dagizun. Zuk nire alaba errugea guzurrez salatu dozula diñot nik; zure laidoak biotza erdi erditik zulatu ta itzekarroitu dautso ari, eta bere asaba edo arrekoeikin batera eortzita datza a ilobian...

Onangorik! eguño ara laidoturik sartu ez-tan llobian, zure zitalkeri ta dollorkeriak asmau ta eraturiko laidoaz besterik ara eguño sartu ez-tan llobian!

KAUL.—Nire zitalkeri ta dollorkeriak!

LON.—Bai, zureak, Kauldi, zureak; ori da nik diñodana.

D. PED.—Ezta zuzen zuk diñozuna, agure.

LON.—Ene yaun ,ene yaun, orren gorpua-ren ganean erakutsiko dot ori, ori azarri ba' badi, ori bere burua yagoten trebe ta burrukan oiturik izan-arren, orren soin-gaztetasuna ta orren guritasuna-arren.

KAUL.—Ken, alde! eztot gura zukin zer-iku-sirik.

LON.—Olan baztatu ete naqikezu? Nire ala-bea erail dozu zuk; ni erail ba' nagizu, gizonik erailgo dozu.

AND.—Biok erailgo gauz orrek, eta gizonak erail be; baña orrek ez-tau ardura; bata erail daqiala lenen; niri irabazi ta nigazkoa egin... erantzun daqistala.— Erdu, erdu nire yarra, mutil; erdu, erdu nire yarra, mutil; mutil yaun, zigorka erantzungo dausat zure ezpataketeari; bai, aitonen seme naza-zakero, orixe egingo dot.

LON.—Anai...

AND.—Nasai zagoz, Yaungoikoak ba-daki nik maite be maite nebala nire illobea; eta ilik da a zitalek eriotzaraño guzurrez laidoturik, gizoni erantzuteko nik sugeri miñetik eltzeko lain iguin dautsan gizon zitak: mutikook, matxangook, astook, kikulok!

LON.—Andoni anai...

AND.—Nasaitu zadiz, bego. Onangorik, gizon! Ba-dazaqudaz orreik, bai, zeatz azkenengo bilderreraño dakit orreik noragiño-ko diran... mutil arropuz, buru-yagi, ezti-ranarena egitekoak, guzurra esan, zurikerietan ibili, arropuzarena egin, iñor baltzitu ta laidotu, eurentzat mundu guztia gitxi dala esten dabe, eta itzalarena egiten dau-tzue, amar-amabi bat itz arro egotziko dau-tzuez zu bildurtu zadizantzat, eta euren arerioak txiki txiki egingo leukiezalarena egin, eurekin aik azartzekotan; eta au dok dana.

LON.—Baña, Andoni anai...

AND.—Tiruk, etxok ardura; ez akít sartu bi-tartean; neurea egiten itxi egidak.

D. PED.—Aitonen semeek, ezkoaz gu zuon asarrea geitzen. Naibagerik asko dot bio-tzean zure alabearen erioztea dala-ta; ba-ña nire dedua-arren, ari ezarri ta buru-ga-nera egotzi yakona egia baño ezta, bere alde argibiderik asko dauen egia.

LON.—Ene yaun, ene yaun...

D. PED.—Eztot entzun gura zure esatekorik.
LON.—Ez ete? Erdu, anai, goazen. -entzun bearko yaustak.

AND.—Bai, entzun bearko yok; ostantxean gutarikoan batzuk min artu bearko yoe-k.

(LONATA'k eta ANDONI'k alde)

D. PED.—Aiko, aiko; emen yatok billa ibili gaiakozan gizona.

BEDITA aurrera.

KAUL.—Kaxo, yaun! ze barri?

BED.—Egun on, ene yaun.

D. PED.—Ondo etorria, yaun; larri larri iskan-billa ta burrukatan sartzeko tertzioan eldu az!

KAUL.—Gure surrak galdu-aginik egon go-zak agin-bako agure bikin burruka.

D. PED.—Lonata ta aren anaiakin. Zer us-te dok ik? Burruka egin izan ba'gendu, enaiagok seguru areintzako gazteegi gin-tzakezanik.

BED.—Guzurraren aldeko burrukan ezin era-kutsi benetako adorerik. Zuon bion billa nator.

KAUL.—Or ibili gozak batera ta bestera ire billa; izan be motel be motel gaqozak eta moteltasuna uxatu-gurarik. Ire txitxaritasu-nari bear apur bat ez ete dautsak era-gingo?

BED.—Nire ezpata-zorroan yagok orrako ori: aterako ete yoat, ba?

D. PED.—Ire aldamenean darabilik ire txitxar-itasuna, ala?

KAUL.—Iñok etxok egin eguño olangorik, amaika gizon txitxaritasunetik alde eginda egon izan-arren. Atera egik, guk ergelai agintzen dautsegunez; atera egik, gu poz-tuteko.

D. PED.—Gizon zindo ba'nok ni, zurbildu egin dok ori. -Gexorik, ala asarre az?

KAUL.—Onangorik! adoretu adi, gizon! ardu-reak katurik be erail-arren, odolik eta ya-sarik asko dok ik ardurea bera erailteko be.

BED.—Yaun, bidean erailgo dot zure txitxari-tasuna, niganantza bultzau ba'dagizu. Arren, beste zerbaitei ekiok.

KAUL.—Orrazkero, beste makillarik emoiok nire txitxaritasunari; azkenengo au ausi yakok-eta.

D. PED.—Argi au-arren, geroago ta aldatua-go, geroago ta zurbilago egiten dok; bene-tan asarre dok, nire ustez.

KAUL.—Asarre ba'da, berorrek daki kirtenari bestera zelan eragin.

BED.—Ire belarrira nik zertxobait esatea gurok, ala?

KAUL.—Yaungoikoz, ez al dot izango eupadarik!

BED.—Zital az i, dollor; enaciabilk txantxetan ni; beteko yocat nik eupadea, i zelan azartu, zegaz azartu ta noz azartu. Erantzun egiok nire ezpateari, ostantxean dollor azala aldarrikatuko yot. Emakume maitagarri erail dok ik, eta aren eriotzeak gogor sakatuko dausk. Erantzun egidak.

KAUL.—Tiruk ba, yoango nok ire billa, bakari onik izatekotan.

D. PED.—Ostera! oturuntzaren bat, ala? Oturuntzarik?

KAUL.—Bai, izan be, eta eskerrak dagitodaz; txal-burua ta ollar irendua yan dagidazan dei egin daust, eta ondo ebagi ezpa'dagidaz, aizto txarra dodala esan egizu. Ez ete dok idoroko ollagorrik be?

BED.—Yaun, errez botaten dok oinkadea; bai, errez yoaik ire txitaritasuna.

D. PED.—Neuk esango dauskat zelan goratu eban Batirke'k ire txitaritasuna lengo egunean; i buru argiko intzala esan naieuntzan nik; "Egia.- esan yestuan ak, -buru-argitasun polita, baña txikia". "Ez, -erantzun naieuntzan nik.- andia"; eta ak, "Bai, izan be, zakarrez andia"; eta nik, "Ez, buru-argitasun ona"; eta ak, "Egineginean, ak eztautso iñori minik egiten". Nik, "Bai, zur yatzu aitonen seme a". Eta ak, "Bai, izan be, aiton-seme zur yatzu a". Nik, ostera, "Ez, ori ez, izkuntzen yabe da a". Eta ak, "Bai, neu be orretan nago, astelen-gabaz zinez esan eustana, astearte goxean zimbidez ukatu egin eustan- eta; or dozuz izkuntza bi, izkuntza bikotxa dozu or". Olan ak, ordu betean, ire on-indariak itzulieta imini yoazan; orraitio, atzenez, intziri eginez eta ondorentzat, Itali'n dan gizonik gizonena gizala i esan yoaan ak.

KAUL.—Eta orregaitik negar egin yoan ak biotzetik, eta etxakola ardura esan yoan.

D. PED.—Bai, ori egin yoan ak; baña orraitio be, guzti ori gora-bera, ak Bedita biotz biotzez gorroto ezpa'leu, biotz biotzez maitte izango leuke; agurearen alabeak esan euskun guzti guztia.

KAUL.—Bai, guzti guztia; eta, orrez ganera, "Yaungoikoak ba-ekusan a baratzean ostondu zanean".

D. PED.—Baña noz iminiko ete doguz zekor uxo-adarkariren adarrak Bedita minberearen buruan?

KAUL.—Bai, eta idazkune au azpian, "Emen bizi da Bedita gizon ezkondua"?

BED.—Onik eta ondo abil, mutil; ba-dakik nire asmoren barri. Emen itxiko sut orain ire itzontzi gogaldi orregaz; txantxak austen dozak ik arropuzak euren ezpatak austen dabezanez, eta Yaungoikoari eskerrak, olango ezpatak etxoek minik egiten. Ene yaun, eskerrik asko zure begirapen ugariakaitik; zure laguntzea itxi-bearean nago; zure anai sasikumeak igesi egin dau Mesina'tik; zuok il dozue zuon artean neskato errugea. Nire Yaun Bizar-gea'gazko, orrek eta nik burruka egingo dogu; eta bakean bego ordurarte (BEDITA'k alde).

D. PED.—Benetan yagok ori.

KAUL. Benetan baño benetanago; eta seguru zagoz Batirke maite dauela orrek.

D. PED.—Eta eupada egin dauska iri?

KAUL.—Bene-benetan, gero.

D. PED.—Iñondiko zera dok gero gizona bere zurtasuna bazterrean itxita, ortik zear gorantzez eta zango-zorroz yantzita urteten danean!

KAUL.—Gizatzar, erraldoi da matxangorentzako olango aldietan; baña yazo leiteke olango aldietan matxangoa orren aldean osagille izatea.

D. PED.—Baña, ixilik, bego; igi adi, atzarri adi eta moteldu akit, ene biotz! Ez ete yok esan orrek nire anaieak igesi egin dauela?

DOBERRI, BERGETS eta GAUZAIK aurre-ra, KONARTA ta MOZKORTI dakarrezala.

DOB.—Aitor, yaun; zuzentzeak ezin ezi ta otzandu ba'au, ez al yok bein be astatu edo pixetuko argibiderik bere astakinean; bai, azaluts biraoti izan ba'az, yagoteko az i.

D. PED.—Onangorik! nire anaiearen otsein bi baiturik, atxiloturik! Mozkorti, bata!

KAUL.—Ze okerreri egin daben itandu egizu, yaun.

D. PED.—Ertzainok, ze okerreri egin dabe gizonok?

DOB.—Kontxo, yaun, guzurrezko barriak emon izan dabez; orrez ganera, guzurak esan dabez; urren, izen on balztizutza dira; seigarrenez eta azkenez, guzurta egin dabe andera bat, guzurra esan dabe aren aurka; irugarrenez, guzurra saldu dabe egizat; eta amaitzeko, zital guzurti dira.

D. PED.—Lenen, orreik zer egin daben itantzen dauskat; irugarren aldiz, orrein okerreria zetariko dan; seigarren eta azkenengo aldiz, zer egintzat dagozan; eta amaitzeko, zeren erru ezarten dautsazue zuok?

KAUL.—Ondo esanda, eta orren atalai ya-

- rrairik; eta bai orixe, argi ta garbi.
- D. PED.—Nor iraindu doze, mutilak, olan loturik erantzuten ekarri zagiezan? Ertzain au maltzurregi dok oni ezer inok aitu al izateko. Ze okerreri egin doze?
- MOZK.—Errege-seme ezli, nigazko itaunak ez al dira yoango aurrerago; zuk niri entzun, eta konde onek erail nagiala. Zure begiai eurai be nik iruzur egin dautset; zuon zurtasunak ezin argitaratu izan dabena, gizon azal eta xalo-izurribakoak argitaratu dabe; gabaz entzun dauste oneik gizon oni esaten eta aurtizen nolan Yon zure anaeiak zirikatu ta berotu nindun Ere anderea guzurrez baltzuteko; nolan eroan zinduezan ak baratza ta nolan ikusi ninduzuen an Margarite'ri kutunkeriak egiten Margarite Ere'n yantziz yantzita egoala; nolan zuk iraindu ta zapuztu ta baztatu zendun a zuk akin ezkondu bear zendunean: idatzita dabe oneik nire zitalkeria; eta gura neuke zitalkeri ori nire eriotzeaz ixildu, nire lotsakizunerako barrien barri aldarrikatu dagien baño. Ilik da arako anderea, nire ta nire ugazabaren guzurrezko salakuntzeagaitik; eta, labur esateko, nik ezto gura beste saririk zitalaria dagokiona baño.
- D. PED.—Itzok ez ete yoek alderik alde zulatzen ire biotza, burrunzi gorriak legetxe?
- KAUL.—Edena irunsi dot orrek orrako ori eralten izan dauen bitartean.
- D. PED.—Baña nire anaeiak imini ete yozak oneik orretarako bidean?
- MOZK.—Bai, eta orrako ori egite-arren ondoko ordaindu nau.
- D. PED.—Azpikeriz osotu ta eratua da a; eta zitalkeri au egindakoan igesi egin dau.
- KAUL.—Ere ezti! Orain agiri yat zure irudia, nik lenen maite izan nebanean langoxe antz bakanez.
- DOB.—Tira, eroan emendik alaketariok; onazkero gure yauretxezaiak igarri (iragarri esan gura dau) dautso Lonata'ri arazo au; eta, lagunok, ez aztu, gero, aldiz eta lekuz, ni asto nazala aitatuteaz.
- BERG.—Aor, or dator Lonata yauna ta bai yauretxezaia be.
- LONATA ta ANDONI aurrera oster a be, Yauretxezai edo latzindariakin.
- LON.—Zein da arako zitala? Dakusadazan orren begiak, beste olangorik ikusi dagidanean olangogandik iges egiteko: orreitaitik zein da orrako ori?
- MOZK.—Zuri kalte egin dautzuna ezagutu gura ba' dozu, begiratu nagizu.

LON.—I az ire arnasaz nire alaba errugea erail dauen yopua, ala?

MOZK.—Bai, neu bakarrik.

LON.—Ez, eztok olan, zital, zirtzil; guzurra diñoik; emen yagok gizon zindo bikotea (irugarrenak igesi egin yok) orretan tarteko izan dana. —Eskerririk asko zui, errege-semeoi, nire alabearen eriotzeagaitik; zuon egite andi ta goragarrien artean idatzi ta zenbatu egizue ori; gogotan erabili gura ba' doze ori, egite adoretu ba-dala ikusiko doze.

KAUL.—Eztakit zelan eskatu zuri epe artu dagizula, baña itz egin bear dot. Zeuk autu niri ezarriko daustazun asperkunea; zeuk asmau dagikezun oben-neke ezarri egiozu nire obenari; baña orraitioño be, gaurzak okerretara artuaz eta aituaz oben egin izan dot.

D. PED.—Neure bizia-arren, neuk be olantxe egin dot; eta orraitioño be agure orrek ganean azarri legiskedan edozein zama-pean makurtuko dot nire bizkarra.

LON.—Nik ezin agindu zui nire alabeari berbizu daitela agindu dagiozuenik. Ezina litzake orrako ori; baña bioi eske nagotzue, Mesina erri onetan iragarri dagizuela a erruge il zala; eta zuon nekeak arazo motel eta gotilun-negargarri onetan ezer asmau al ba'dabe, aren ilobian idazkuneren bat eskegi egizue, eta abestu aren azur eta ondakinen aurrean; arratseon abestu egiozue; biar goxean erdu nireta; eta i nire suin ezin izan azanazkero, nire illoba izan akit; ba-yok nire anaeiak alabarik, ia ia nire alabea zana langoxerik. Eta bera dok gu bion ondarearen yabe; an emoiazak ari nire alabeari emetoko intzan eskubideak, eta olan nire asperkunea agorturik dok.

KAUL.—Ene! yaun zindo ori, negar eragiten daut zure ontasunaren ontasunak. Ontzat artzen dot zure eskeintzea; eta gaurdanik ara zeuk zer-gura egizu Kauldi errukarriaz.

LON.—Orrazkero, zure begira egongo naz biar; arratseon alde egingo dot nik. —Gizon oker au Margarite'gana eroango dogu ta an biak alkar arpegiz arpegi begira imini, a be, nire ustez, zure anaeiak alogerean artuta, okerreri orretan tarteko izan da-ta.

MOZK.—Ez, neure bizia-arren, Margarite etzan tarteko ta kide; ak ez ekian zer egiten eban be nikin itz egin ebanean; bestera, a beti izan da zindo ta on-indartsu, nik arenik dakidan edozetan.

DOB.—Orrez ganera, yaun... onako au zuri baltzes idatzita egon ez-arren, alaketari

onek, oker egile onek asto deitu nindun: arren, oni zigorra ezarterakoan au be gogotan euki bear da. Baita gauzaiak itsusi dalakoaz itz egiten be entzun eutsoela: aik diñoenez, orrako Itsusi orrek belarrian giltzea ei darabil eta andik dingilizka morrolloa eta dirua zorroan Yaungoikoaren izenez eskatzen ei dau; eta bide ori ain luzaroan artuta, eguño ez ei dau ezer ordaindu-ta, gizonak aspertu ta biotz-gogor egin yakoz eta eztabe emon gura dirurik Yaungoikoaren izenez: arren, arlo orretan be aztertu egizue ori.

LON.—Eskerrik asko ire ardura ta nekeen alderako.

DOB.—Zuk yaun orrek gazte begiragarri ta esker onekok legetxe dagizu, eta nik Yaungoikoa goratzen dot zure alde.

LON.—Eutso ire nekeen alderako.

DOB.—Yaungoikoak yareiko al dau aurkitzea (idorotea esan gura dau)!

LON.—Oa; ire baituaren, atxiloaren ardurea kentzen daukat; eta eskerrik asko iri.

DOB.—Zuri, yaun orri, zital utsa izten dautzut emen; eta, arren, zuk, yaun orrek, zigortu egizu ori, besteak ikasi dagien. Lagun bekizu Yaungoikoa, yaun orri; biotzik onena dautzut, yaun; Yaungoikoak osatuko al zauz; alde egiteko eske nagotzu apalik; eta alkarrekin batzeko erarik izan ba'da-gizu, Yaungoikoak galazoko al dau. —Gaioazan, lagun. (DOBERRI, BERGETS eta GAUZAIK alde).

LON.—Biar goxerarte agur, yaunak.

AND.—Agur, ene yaunak; zuon begira gagokez biar goxean.

D. PED.—Eztoqu utsik egingo.

KAUL.—Iletak egingo dautsada azratseon Ere'ri. D. PEDRO'k eta KAULDI'k alde).

LON.—Aurrera eroan egizak urliok; Margarite'kin itz egingo doqu guk, nondik eta zelan ezagutu izan dauen lagun zantar au. (Alde dagie).

II AGERLEKU.--LONATA'n Baratza.

BEDITA ta MARGARITE aurrera, alkarrekin trikitix egiten.

BED.—Arren, Margarite anderaño ezti, lagun-tza onik izan zakidaz, nik Batirke'ri itz egin al dagiodan.

MARG.—Orrazkero, amalaukorik idatziko ete daustazu nire edertasuna goratuaz?

BED.—Era ain garratz-yagiz idatziko dot-eta.. bizi dan gizonik ezta elduko ain gora, Margarite; eta izan be, egia argi ta garbi esateko, irabazita dozu zuk orrenbesterik.

MARG.—Nire ganera gizonik etorri eztaiten, ala? Zer ba? Beti euki bear ete dot bean, zurubipean?

BED.—Zure buru-bizkortasuna eiza-txakurra-ren agoa baño bizkorrago da; goatu egiten dau orrek.

MARG.—Zurea, ostera, ezpata-burrukarien ezpata motza bestean amutsa, yo bai, baño minik egiten eztauena.

BED.—Guztiz be gizoni dagokan buru-zorroztasuna da zurea, Margarite; emakumeri eztautso minik egingo; eta, orrazkero, arren, Batirke'ri dei egiozu; emon damotzudaz ikurditxoak.

MARG.—Ezpatak ekaquzuz; ikurditxoak geuk doguz-eta.

BED.—Olangorik erabili ba'dagizue, Margarite, esku-lekutik elduta erabili bear douez; eta iskillu bildurgarri dira neskentzako.

MARG.—Tira ba, dei egingo dautsat Batirke'ri zuganako, nik uste dodanez zuk zeuk be zangorik izan-arren. (MARGARITE'k alde).

BED.—Eta etorriko da orrazkero. (Abestuaz).

Goian yezarrita dagon

Maitasun-yainkoa,

Maitasun-yainkoa,

Ni errukarri nazala

Ondo dakiana...

Abeslari errukarri nazala esan gura dot; maitasun-arloan, ostera, Lander ugerlari bikaina, Toroil eguño lenengoz maitemindubitartekorik erabili ebana, eta idaztiak artuala onetaiko aretozale, euren izenak oraindik be oskidetasun-bako olerkietako bide leuna zear leun eta eroso doazanak, ba! maitasunak aik ni errukarri au bestean ez ebazan eguño itzulka ta itzulka erabili. Kontxo! Ezin dot olerkitan imini; alegin onik bai egin dot orretarako; baño "andera"ren oskidetzat "gaztanbera" baño ezatorkit, eta ori oskidetze erruge, ume-oskidetze litzake; "eder" entzako "aker" bakarrik otuten yat, eta oskidetze au sunda txarreko litake; "mengel" entzako "ergel", eta ergelkeri litzake au; guztiak adu txarreko itz-azkenak. Ez, ni enintzan yaio oskidetzako izarpean, eta ezin dot egin kutunketarik olerki argi-txairoz.

BATIRKE aurrera.

Batirke ezti ori, deitu-bearrrik dozu nigana etorteko, ala?

BAT.—Bai, yaun, eta bai zuk agindu-bearrrik be nik alde egiteko.

BED.—Ene! zagoz ba emen ordurarteño!

BAT.—Esan dozu "ordurarteño"; agur ba; eta orraitño ni yoan baño len, yakin dagidala zure ta Kauldi'n artean yazo dana, orretarako etorri naz-eta.

BED.—Itz zakar batzuk bakarrik eta, orrazkero, mun egingo dautzut.

BAT.—Itz zakarrak axe zakarrak besterik ez dira, axe zakarra barriz arnasa zakar baño ezta, eta arnasa zakarra iguingarri da; orrazkero, zuk niri munik egiteka alde egingo dot.

BED.—Itza ikaratu egin dozu zuk, bere esangurea kenduaz; orren indartsu da zure zurtasuna. Baña argi ta garbi esan bear dautzut Kauldi nire ezpatapean dagola; eta, edo laster dot aren erantzuna, edo kilil eta dollortzat aldarrikatuko dot a. Eta, aren, esaidazu orain nire zein akatsegaitik lenen eta geien maitemindu zarean nitzat.

BAT.—Guztiak bateragaitik; izan be, zure akatsak alkar ain arduraz yagoten dabeta, zer oni eztautsoe izten euren artera sartzen. Baña nire zein zer ongaitik yausi zintzazan niganako maiteminpean?

BED.—"Maiteminpean yausi"! ori bai esatekoa! Maiteminpean yausitik nago egon be, nire gogoaz bestera maite zaudaz-eta.

BAT.—Zure biotzaz bestera, nik uste. Ene! Biotz orren errukarri! biotz ori zapuztu ta naibagetu ba'dagizu nigaitik, zure dalako zapuztuko dot nik; eta izan be, nik eztoz inoiz maite izango nire adiskidek iguin dautsanik.

BED.—Zu ta ni zurregi gara ta bakez darakusgu alkarreganako maitasuna.

BAT.—Aurorpen orretan ezta agiri olangorik; ogei gizonetik bat be ezta zur, bere burua goratu ba'dagi.

BED.—Lenagoko, lenagoko da ori, Batirke; gizon onak ba-ziran aldiko: aldiotan gizonak berak bere ilobia il-aurretik eragi ezpa'dagi, il-obi orrek ezta iraungo il-yoaleak, il-kanpak yoten eta alargunak negarez dirauen baño luzarago.

BAT.—Eta noz yazo zala orrako ori, uste dozu?

BED.—Ori itauna!... Ba! ordu betez yoaleak yoten eta ordu-lauren negarrez: orrazkero, gizon zurrari egoki be egoki yako (Ar yaunak, bere yakinkidetzak eragozpenik ezarri ezpa'dagio) bere on-indarren turuta be-razatez, ni nireena nazanez, Orregaitik daragoiot nire burua goratzen, dautortanez goragarri da-ta; eta esaidazu orain, zelan dago zure lengusina?

BAT.—Txarto be txarto.

BED.—Eta zelan zagoz zeu?

BAT.—Txarto be txarto ni be.

BED.—Yaungoikoaren otsein zadiz, maite nagizu ta osatuko al zara: emen itxiko zaudaz zu be, norbait iraduz dator emen-eta.

URSULE aurrera.

URS.—Andera, zure osabeagana etorri bear dozu. Lendiko zaratarik asko da zure etxean; erakutsirik dago zure lengusin Ere guzurrez salatua izan dala, eta errege-semeari ta Kauldi'ri bear ezтана egin izan dautsela; eta igesi ta yoana dan Yon'ek izan dauela orrako orren erru guztia. Bertatik etorriko zara, ala?

BAT.—Barri au entzuten yoan gurozu, yaun, ala?

BED.—Zure biotzean biziko naz ni, zure al-tzoan il, eta zure begietan eortzi: eta, orrez ganera, zure osabearenera yoango naz zukin. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--Yaurretze-barrua.

D. PEDRO, KAULDI ta Laguntzakoak, eresi ta argizaiakaz.

KAUL. Au da Lonata'n ilobia, ala?

LAGUN.—Bai, au da, ene yaun.

KAUL.—Irakurri dirakur ingi biribildutik)

Min guzurti gaiztoak erail eben
Emen datzan Ere;
Eriotzeak, aren obenen alderako
Entzute on il-ezina damotso:
Olan, lotsariz il zan bizia,
Entzute goretsiz bizi da eriotzan.

Agó or eskegita ilobi-ganean
Ni ixil nadinean a goratzeko.
(Idazkunea yosi-ala)

Eresi, ots egin orain, eta yo ereserki benez.

ABESTI

Asketsi, gau-yainkono orrek,
Zure neska zalduna erail ebenaz;
Orregaitik dabiz abesti iletariz
Aren ilobiari inguru-inguruka.
Gaberdi, lagun zakioz gure ileteari!

Lagun zakiguz, intziri ta negar dagigun,
Gotilun, bai, gotilun;
Ilobiok, idigi zuon agoak, yarei zuon ilak,
Eriotzea agertu arteño,
Gotilun, bai, gotilun.

KAUL.—Orain gau on azurrai; urtero egingo dot egiteko au.

D. PED.—Egun on, lagunak; itzali zuon argiak; ibilirik dira otsoak euren yanarieren billa; eta begira egun maitagarria Poi-

ba'ren txirinken aurrean; eguzki-alde lo-guratsua nabar agiri da inguruan urdi-nez. Eskerrik asko guztioi eta bakarrik itxi gagizuez; agur eta onik eta ondo ibili.

KAUL.—Egun on, lagunak; bako txak bere bi-dea artu begi.

D. PED.—Tira, goazen emendik, eta beste lo-ra batzuk imini ganean; eta bein ori eginaz-kerro Lonata'nera yoango gara. (Alde da-gie).

IV AGERLEKU.--LONATA'neko Gela.

LONATA, ANDONI, BEDITA, BATIRKE, MAR-GARITE, URSULE, LEKAIDEA, ta ERE aurrera.

LEK.—Eneuzun esan neskato a erruge zala, ala?

LON.—Olangoxe dira a salatu eben errege-se-mea ta Kauldi be, zuk entzun dozunez, oke-rreko ustez egin eben-eta: baña Margari-te'k ba-eban orretan bere errutxoá, bere gogoaz bestera izan-arren, arazo guzti on-tan agiri denez.

AND.—Tira ba, pozik nago zer guztiak onen ondo urten diranean.

BED.—Bai, neu be, ostantxean nire zinez Kauldi gazteari arazo onetan bere burua zu-rituzotera bearturik nago-ta.

LON.—Tira ba, zu, ene alaba, ta zuok, aiton-alaba guztiok, alde egizue gelaen batera, zuok zeutara; eta kokomarroturik erdu ona nik dei egingo dautzuedanean; errege-semeak eta Kauldi'k tertzio onetan ona ni-gana etorriko zirala agindu dauste.-- Ik ba-datik ire egikizuna, anai; ire anaiearen alabearen aitarena egin bear dok ik, ire anaiearen alaba ori Kauldi gazteari emo-teko. (Emakumeak alde).

AND.—Arpegia aldatzeka egingo dot orrako ori.

BED.—Lekaide, nik be neke apur bat eskatu bear dautzut, urrean.

LEK.—Zetarako ta zetan, yaun?

BED. Ni lotu edo nireak egiteko, bata edo bestea.-- Lonata yaun, egia da, yaun on, zure illobeak begi onez nakusala.

LON.—Nire alabeak emon yautsak begi ori. Egitan be egia dok.

BED.—Eta nik begi maitakorrez ordaintzen dautsat.

LON.—Eta zure begi orretako ikusmena, nire ustez, niri, Kauldi'ri ta errege-semeari zor dautsazu. Baña zer da zuk gura dozuna?

BED.—Zure erantzuna, yaun, igarkizun da: baña, nire gurari azko, nire guraria zure gurari onak zure gurari az batera yotea da,

gu gaur ezkontza begirapengarriz alkarre-kin lotzea da; --eta orretarako, lekaide on, zu lagun izatea gura dot.

LON.—Ire gurari az bat egiten yok nire bio-tzak.

LEK.—Bai nire laguntzeak be; emen datoz errege-semea ta Kauldi.

D. PEDRO, KAULDI ta Laguntzakoak aurrera.

D. PED.—Egun on batzar eder oni.

LON.—Egun on, errege-seme; egun on, Kaul-di; begira gozuez emen. Oraindik be ete deutzazu nire anaiearen alabearekin ez-kontzeko zure asmoari?

KAUL.—Etiopi'tar ba-da be eutsi deutzat nire asmo edo erabagiari.

LON.—Dei egioak ari, nire anai orrek; emen yagok gertu gerturik lekaidea. (ANDONI'k alde).

D. PED.—Egun on, Bedita, Onangorik! Zer yazoten dok ik olango zezeil-arpegi-rik, orren-beste lei, ekatx eta odei baltzez estalirik eukiteko?

KAUL.—Orrek arako zezen uxoa darabilela buruan uste dot nik.-- Nasai adi; ez egik izan bildurrik, gizon; urrez estaliko yogu-zak ire adar-mokoak, eta Europa osoa poz-tuko dok ik, beñola Europe Yupiter zan-tar-lizun beroakin poztu zanez, ak Euro-pe'kin abere zindoarena egin gura izan ebanean.

BED.—Yupiter zezanak, yaun, adiskide orroea egiten yoan; eta olango iñondiko zezenen bat yoan yakoan ganera ire aitarenen beari ta zezen zindo axegandik ire antzantzeko txal zekorra izan yoan ire amak, egin-egi-nean ik zezen aren orroea dok-eta.

ANDONI aurrera osterá be, emakume koko-marrotuekin.

KAUL.—Zorrean nagotzu onako onegaittik; emen dator beste egitekorik. Zein da nik eldu bear dautsadan anderea?

AND.—Auxe da ta neuk damotzut.

KAUL.—Ba, orrazkero, nire da ori. Ezti ori, zure arpegia ikusi dagidan itxi egidazu.

LON.—Ez, olangorik eziozu egin bear, lekaide onen aurrean ori eskutik artu ta orrekin ezkonduko zareala zin egin-arte.

KAUL.—Ekazu zure eskua lekaide onen aurrean; aintzakotzat gura ba'nozu, zure senar nozu.

ERE.—Eta bizirik nintzanean zure beste emazte nintzan (Marroa kenduaz), eta maite ninduzanean nire beste senar zintzazan zu.

KAUL.—Beste Ererik, ala?

ERE.—Ezebez ori baño segurua gorik: laido-turik il zan Ere bat; baña ni bizi naz, eta bizi nazala bestean seguru, neska garbi naz.

D. PED.—Lengoxe Ere! Ere ila bera!

LON.—Ilk zana, ene yaun, baña bere laidoa bizirik zan artean.

LEK.—Ikaragarri ta arrikizun au zeatz azaldu dagiket nik; egikizun guren guztiak bete daitezanean eralgiko dautzuet luze ta zabal Ere'n eriotzea; bitartean egin zaitez arriagarri ta goazen bertatik yauretxera.

BED.—Astiro ta arduraz, lekaide.-- Zein da Batirke?

BAT.—Neuk erantzuten dot izen orretara; (Marroa erantziaz) Zer gura dozu?

BED.—Enozu maite, ala?

BAT.—Ez, ez bidezko dan baño areago.

BED.—Ba, orrazkero, zure osabea, ta errege-semea ta Kauldi iruzur eginik egon dira, orreik zuk maite nozula zin egin dabe-ta.

BAT.—Enozu maite, ala?

BED.—Ez, ez bidezko dan baño areago.

BAT.—Ba, orrazkero, nire lengusina, Margarite eta Ursule ziri ederrik sartuta dagoz, zuk maite nozula zin egin dabe-ta.

BED.—Nigaitik ia gexorik zagozala zin egin dabe aik.

BAT.—Nigaitik il-aginik zengozala zin egin dabe aik.

BED.—Eztago olangorik. --Orrazkero, enozu maite, ala?

BAT.—Ez, benetan, adiskidetasunez erantzuteko baño.

LON.—Tira, loba, seguru nago ni zuk maite dozula aiton-seme ori.

KAUL.—Eta nik be zin egingo neuke orrek maite dauela neskatu ori: eta izan be, emen dot orren eskuz idatziko ingi... amalauko meiki, orren burutiko ta Batirke'gazko.

ERE.—Eta emen beste bat, nire lengusinaren

eskuz idatzia, orren sakeletik ostua, ta Bedita'ganako leia edo irrisa dariona.

BED.—Euxe bai andia!... --eta emen dagoz gure eskuak alkarri deusela gure biotzez bestera!... Tira, nire izango zara zu; baña, argi au-arren, erurik artzen zaudaz.

BAT.—Eztazudaz ukatuko; --baña, egun lirain au-arren, eragite andiz dagit amore; eta batetik zure bizia yareite-arren, il-aginik zengozala esan izan dauste-ta.

BED.—Ixilik; itxi egingo dautzut agoa. (Mun dagitso).

D. PED.—Nolan ago, Bedita, gizon ezkondu ori?

BED.—Esango dautzut nolan nagon, errege-seme; adar-yotzalle pilorik ba'letorkit be enindukie aterako nire gogaldi onetatik. Ziplada-bertsok ardura daustala uste dozu, ala? Ez ba: ziri-zirika gizonik benderatu ba'dagie, gizon orrek eztau izango ezer ederrik aldean. Labur esan aurka nik esan dodanagaz; eta izan be, zer aldakor da gizona, orixe da dana. --Igazko, Kauldi, azpiratutzat, benderatutzat euki aut nik; baña nire senide izango az urreaneta, minik artzeka bizi adi ta maite egik nire lengusina.

KAUL.—Ba-naioan nik itxarorik ik Batirke'ri ukatuko euntsala nik atera audala zigorka ire mutilzar-bizitzatik, i arpegi biko gizon egitoko; eta olangoxe izan be izango az i, nire lengusinak i ondo be ondo ez yagotekotan.

BED.—Tiruk, tiruk, adiskide gozak: dagigun yantzaz ezkondu-aurretik, gure biotzak argitu ta gure emaztegaian oñak arintzeko.

LON.—Gero egingo dogu yantzaz.

BED.—Aurrezilik, nire itza-arren; orrazkero, yo zuok ereslariok. --Errege-seme, motel zagoz zu; emazterik iritxi egizu zutzako, emazterik iritxi egizu: eztago makilla begiragarriagorik adarrezko mokoduna baño.

GEZNARI aurrera.

GEZN.—Ene yaun, zure anai Yon igesi doala goatu ta iskillodun gizonekin atzera Mesina'ra ekarri dabe.

BED.—Ez egin ari yaramonik be biar-arte; neuk asmauko dautzudaz zigor ederrak arentzako.-- Yo ereslariok. (Yantzaz, alde dagie).

AMAIA

Perico de San Antonio'n 1962-I-28'ganean.

ITZ AZALGARRI BATZUK

GUDAROSTE.—Gudari edo "soldadu"-talde andi.

GEZI.—Arranbel edo makoaz yaurtiten dan makiltxo buru-zorrotza.

YAURRI.—Nor bait, naiz nor baitzuk euren elburura eroteko ardurea artu; euskal-gaiztoz, "gubernau".

EDEN.—Euskal-gaiztoz, "pozoi", "bereno".

MEIKI.—"Erren", "koxo". Napparroa'ko Arbizu' arrak parra-parra darabile itz au.

BIITEGI.—Mandio, galtegi, artategi, naiz beste azitegi.

**GALDURIK
MAITAKETA - NEKEAK**

(LOVE'S LABOURS LOST)

GALDURIK MAITAKETA - NEKEAK

(LOVE'S LABOURS LOST)

ANTZERKI ONETAKO LAGUN ANTZEZTUAK:

PERDINANDA, Naparroa'ko Errege.

BIRON.

DUMEN (Dumain).

LONGABIL (Longaville).

} Erregeren otseintzako Andiki.

MERKAT (Mercade).

BOYET.

DON ADRIANO DE ARMADO, Espānar txoraska.

NATANEL (Nathaniel) yauna, abade-buru lagun.

OLOPERNA (Holofernes), ume-irakasle.

MOTEL (Dull), ertzain.

KIRTEN (Costard), Ergel.

ZITZ (Moth), ARMADO'ren esku-mutil.

Basazain bat.

PANTZE'ko ERREGE-ALABA.

ERROSALINE.

MIREN

KATARINE

YAGOBETXU (Jaquenetta), Baserri-neska.

} ERREGE-ALABEA'ren otseintzako anderak.

Agintza-gudari ta beste batzuk, Errege ta Errege-alabearen otseintzako.

AGERLEKU.--NAPARROA.

I EKITALDI

I AGERLEKU.--NAPARROA. Baso berezi, barruan Yauregi dauela.

ERREGEA, BIRON, LONGABIL eta DUMEN aurrera.

ERREGE.—Borontzeko gure ilobietan irarrita bizi bedi guztiak euren bizitzan bere billa dabilkiozan entzute ona, gure eriotzako zori txarrean an zori on izan dakigun; sai salobera dan aldia gora-bera, amasea aldean dogun aldi onetako aleginen aleginaz erioztearen sega zorrotzaren agoa amustu ta betikotasunaren ondorengo egingo gauzan omena erosi dagigunean. Orrazkero ba, benderatzalle adoretuok, --eta benderatzalle zarie izan be, zeuon biotzaldien aurka ta ludi onetako gurarizko gudaroste itzalaren aurka gudu egiten dozue-ta--, orrazkero ba, bere indar osoaz iraungo dau oraintsuko gure aginduak: arrigarri izango da ludian Naparroa: Akademitxo izango da gure errege-yauregia, xiltsu ta oldozkor bizi-

tzako trebetasunean. Zuok irurok, Biron, Longabil eta Dumen, zin eginik zagoze iru urteren epe-barruan nire ikaskidetzat nikin biziteko, eta ingitxo edo papeltxo onetan idatzita dagozan arauak beteteko: eginda dagoz egon zuon zinak: eta azpian idatzi egizuez orain zuon izenak, agindu ta arauotatik atalik eta txatalik txikiena ausi dagianak bere dedu ta omena bere eskuz yo ta lurreratu dagiazan: itza emon dozuenez, zin egina betetzera erabagita ba' zagoze, izenpetu zuon zin sakonok, eta zeatz bete egizuez.

LONG.—Atara ebatzita nagotsu ni; dana be iru urteko barau baño ezta: soña makaldu ta iristu-arren, oturuntza baten biziko da gogo: buru-arin dira sabel-gizenak; eta agokada mizkez saiets-arte a gizendu

- bai, baña buru-bizkortasunak porrot egiten dau.
- DUM.—Ene yaun maite, latz darabil bere burua Dumen'ek: ludi zakar onetako yopu zakarrentzat izten dauz ludi onetako atsegin zakarrak: makaldurik, iristurik eta ilik nago maitasunarentzako, ondasunentzako ta aundi-maundikeriarentzako, yakintzazaletasunerako bizi diranokin batera.
- BIR.—Orrein autortzak eurak barriro egitea da niri dagokidan guztia. Onako au da, ene yaun, nik zinez agindurik dodana, zera, iru urte egingo dodazala emen ikasten. Baña orrez ganera, ba-dagoz beste arau edo agindu estu batzuk be: esaterako, aldikada orretan emakumerik ez ikustea; eta ba-dot nik itxarorik ingi orretan eztdala egongo olangorik idatzita; eta astean bein eztoquila ukutuko yanaririk, eta ganetikko egunetan yataldi bakarra izango dogula! eta ba-dixarot olangorik be eztdala egongo or idatzita: gero, gabaz iru orduko loaz besterik eztoquila egingo, eta egunez loak eztauskula bururik makurtuzako, eta olangorik be ez al dago or idatzita; ba! alperriko litzakez nekeok, alperriko ta yasan-ezinegi; emakumerik ez ikusi..., ikasten eragon..., barau egin..., lorik ez egin.
- ERREGE.—Zin eginik zara orrako zer guztiai baztarreara eragiteko.
- BIR.—Eder ba'dakizu, orrako orri ezetz esaten itxi egidazu, ene yaun; zu yaun orrekin ikasten eragoteko ta emen zure yauregian iru urtean egoteko bakarrik egin dot nik zin, ene yaun.
- LONG.—Orrako ori ta ganetikoa egingo dozula egin dozu zuk zin, Biron.
- BIR.—Dana dala, yaun, olan izan ba'da, txantxetan egin dot zin. Zetarako da ikasten eragotea? Au da nik yakin gura neukena.
- ERREGE.—Ba! ostantxean yakingo ezkeunke-na yakiteko, ez bestetarako.
- BIR.—Geienen oarbidetik ostonduta, berezirik, dagozan zerak esan gura dozuz, ezta?
- ERREGE.—Bai, ori dok izan be, ikasketearen Yaungoikoagandiko lango saria.
- BIR.—Tira ba, orrazkero, egingo dot olango zinik, yakitea galazota dodan zerak ikasi dagidazan: esaterako, ezer yaterik berenberegiz galazota dodanean, ederto non bazkaldu dagikedan ikasi; naiz, ikasi non egin negiken trikix emakume lirainen batekin, geienen oarbideari olangorik otu ta agertzen etxakonean: naiz, zin betegatxegirik egin izan ba'dot, zin ori zelan ausi ikasi, nik sinistua austeka. Onangorik ba'da ikas-

ketearen irabazia, eta eztagikuna yakitea ba'da ikasketea, zin eragidazu orretarako, bai, eta eztausut ezetzik esango nik.

ERREGE.—Egin-eginean be, orrako zerak dira ikasketarako ostoporik aundienak, eta adimenari atsegin ero-utsetarako bidea erakusten eta irakasten dautsoenak.

BIR.—Ba! atsegin guztiak dira ero ta uts, baña nekez iritxi ta nekea dakarrena da atseginik eroen eta utsena: esaterako, idaztiak dakarrenari adi-adi egonaz nekatzea, egia- ren argi-billa; eta bitartean egjak, azpikeriz, itsutu egiten dau adi ta begira dago-konaren begietako argia: argi bagarrik izten dau argiak argi-billa dabilena. Olan, ilu-netan dagon argirik zuk idoro baño len, geroago ilunago egiten da zure argia, zuk zure begiak orretan galdurik. Nire begiari egitez atseginik emoteko bidea irakatsi egidazu, bera baño begi ederragotan yosiaz; eta argiaren argiz itsututen dauen begia izango da aren ikuskizun, eta itsutu dauen begia bera izango da aren argi. Ortzeko eguzki dizdiratsua langoxe da ikasketea, begirakune zakarrek sakon ezin aztertu dauen eguzkia langoxe; entzute zirtzil-mengelen bat izan ezik irabazi uririk baño ez-tabe atera inoren idaztien artean baldar eta astiro etentzaka dabiltzanak, zeruko argien lurreko aitabitxiok; ortziko izar geldiai izen bana emonaz, euren gau argitsuetaatik ezta-be ateraten irabazi oberik, ibiliarren eurak zer diran eztakienak baño. Geiegi yakitea, entzuteaz besterik ezer ez yakite da; eta izenik emoteko edozein aitabitxi da asko.

ERREGE.—Orrek bai ba-dau yakituririk yakituraren aurka ekiteko!

DUM.—Ondo aurreratuetako da ori, aurrerapen on guztiai geldituazoteko!

LONG.—Garia atera, ta bedar txarrai azten izten dautse orrek.

BIR.—Ur da udabarria, antzar eme gazteak arrautzen ganean dagozanean.

DUM.—Eta ortik zer?

BIR.—Edozek dauela bere lekurik eta aldirik.

DUM.—Eztator ori arira.

BIR.—Arira ezpa'dator, oskidetasunerako ondo dator.

LONG.—Udabarriko lenengo kimuai usika egiten dautsen lei txibixa langoxe da Biron.

BIR.—Tira ba, esan olangorik nitaz; zegaitik arrotu ta ilarraindu bear dau udeak txoriak oraindik zegaitik abesturik eztaben artean? Zegaitik poztu bear nau aldiz aurretiko yaiozak, zazpilik? Ezot gurago Gabonetan larrosarik, Orril aginak urten-barri-

ko ikuskizun zoragarrian edurrik gurago neuken baño; baña gogoko yat bere garrian, bere tertzioan azten dan edozer. Olan zuok, ikasteko beranduegi da orain-eta, etxeko tellatura igoten zarie, etxeko atetxo idigiteko.

ERREGE.—Tira ba, alde egik ik gugandik: oa etxera, Biron: agur.

BIR.—Ez, ene yaun on; zuokin egoteko zin eginik nozu: eta ez-yakitearen alde nik zuk angeru-yakitearen alde esan zegiken baño geiago esan izan-arren, ustetsu iraungo dot egin dodan zinari deusadala eta yasangot dot, eroango dot iru urteotako egun bakotxari dagokon oben- nekea. Ekadatsu ingi edo papal ori, irakurri dagidan; eta agindurik zorrotzenen azpian be ezarriko dot nire izena.

ERREGE.—Buru-makurtze edo amore egite orregaz ederto be ederto zuritzen dok ik ire burua lotsaririk!

BIR.—(Ba-dirakur) Baita, "Emakumerik eztala urreratuko nire yauregitik milla baten barrura..." Aldarrikatu izan da onako au, ala?

LONG.—Orain lau egun dirala.

BIR.—Dakusagun zetarik obene-kepean. (Ba-dirakur) "Miña galtzeko oben-kepean". Nori otu yako onako au?

LONG.—Andera Miren-arren, neuri otu yatak.

BIR.—Eta zegaitik, yaun maitte?

LONG.—Bildurra sartzeko ai, olango oben-keke itzalaren bildurrez ona eldu ezatidizan.

BIR.—Txerakortasunaz besterako lege kaltegarri. (Ba-dirakur) Baita, "Gizonik ikusi ba'dadi iru urteko epe-barruan emakume-kin itz egiten, errege-yauregiko enparauak asmau legikeen guztien aurreko lotsaririk audiena yasan bearrko dau orrako orrek. ..." Aital au, ene yaun, zeuk ausi bearko dozu. Eta izan be, zeuk ondo dakizunez, or dator erri-ordeazkotzat Pantze'ko erregeren alabea, zukin itz egiteko-neska eder eta nagusiagotza osoko bera, -zuk aren aita zar, gexo ta oeratuari Akis-aldea emon bear dautsazula-ta: alperriko da, orrazkero, legetxatal au, ostantxean alperrik dator ona errege-alaba arrigarri ori.

ERREGE.—Zer diñozue, yaunok? Ba, zeatz aztu yaku onako au.

BIR.—Beti da gelegi orrenbeste aperturi: gura dauena iristeko alegintzen dan bitartean, aztu egiten yako egin bear litzakena egitea; eta ainbeste yoran eta aperturiz bilatu izan dana iristen danean, suak arturiko uria irabaztea legetxe da..., irabazi-ala galdu da.

ERREGE.—Nai ta nai ez, ez emontzat itxi

bearko dogu lege au: errege-alabeak nai ta nai ez egon bearrko dau emen.

BIR.—Milla bider egingo gauz zin-ause bearrak iru urteon barruan; eta izan be, bere leiak dauz gizon bakotxak yaioztatik ara; eta leiaok ezlira benderatzen nobere indarrez, goitiko berarizko eskerrez baño: nire itzik, nire zinik ausi ba'dagit, bearrak oraginda ausi dodala esango dot... Olan, ba, osoan izenpetuko dodaz legeok: (Izenpetzen dauz) eta betiko lotsariaren begira bego zerik txikienean ausi dagizana! Nik legetxe izango dabez zirikaldiak besteak be, baña zuok besterik uste izan-arren, sinisten dot nik, neu izango nazala zina luzaroen beteko dauena. Baña ez ete dogu izango yolas-alditxorik, nasa-alditxorik be?

ERREGE.—Bai orixe, izango da olangorik: dakizunez, España'tiko bidegin, ibiltari landu-leundu bat etorten da gure yauregira sarritan, munduko era-merarik barriena ondo orndutako gizona, esakerak asmatzeko tramankuluen bat bere garaunetan dauena; bere min uts-arroaren eresiak begiatako zuria agirian iminten dautsana, ereskidetza lilurakorrek eraginda legetxe: gizon osoa, zuzenak eta okerrak euren eztabaiden ebazletzat autu dabena: irudimenaren seme onek, izentzat Armado dauenak eralgiko dausku gure ikasketa-bitartean España baltzeraneko ainbat zaldunen aintzakotasuna, itz arro ta puztuz, orrako zaldunen munduko eztabaidetan galduriko aintzakotasuna. Eztaikik nik, yaunak, zenbaterainoko emongo dauskun; baña ba-dautort gogoz entzuten dodazala aren guzurak, eta nire bertsolari egingo dot.

BIR.—Gizon argi-argi yatsu Armado, labatik arako itzak erabilten dauzana, gaurkotasunaren beraren zaldun.

LONG.—Kirten zakarra ta a izango dira gure yolas-bide; eta, orrazkero, eldu dagiogun ikasteari..., aldi laburr da iru urtekoa.

MOTEL, idazki bategaz, eta KIRTEN aurrera.

MOT.—Zein da dukea bera?

BIR.—Onako au, lagun; zer gurok?

MOT.—Aren ordeko naz ni, aren ertzain naz-eta: baña a bera ikusi gura neuke, bere aragi, odol eta gutzi.

BIR.—Au dok orrako ori.

MOT.—Gorantziak bidaltzen dautsuz Arma yaunak, Arma'k. Zakarkeririk asko dozu or: idazki onek esango dautsu geiagorik.

KIRT.—Yaun, nigazko dira idazki orrek dakazan zerak.

ERREGE.—Armado argiaren idazki dogu au.

BIR.—Zirtzilik zirtzilen ba'da be geia, itz arropuztik asko izango dauela ditxarot Yaun-koikoa-arren.

LONG.—Itxaro aundi dok ori, orren beeko zerurako: eperik emongo al dausku Yaungoi koak!

BIR.—Entzuteko, ala barreari eusteko?

LONG.—Otzan entzuteko, yaun, eta barre neurritz egiteko; naiz bata be ez egiteko.

BIR.—Tira ba, yaun, bedi aren esakereak alaitasunera igoteko biderik emongo daus-kunez.

KIRT.—Nigazko geia dau, yaun, niri ta Ya-gobetxu'ri dagokiguna. Dana be egitetan bertan goatu nabela da.

BIR.—Zetariko egitetan?

KIRT.—Urrengo egite ta eratan, urrengo iru zerotan: yauregian ikusi nau No akin ba-tera, akin aulkian yezarrita, eta akin ba-tera, aren atzetik, basora noala somatu izan nau. Egiteaz, yaun, orain..., ba, egitea etxa-tsu besterik, gizonak emakumekin itz egi-tea baño: ereaz, ba, ereaz...

BIR.—Yarrai zatxakozala, ala?

KIRT.—Bai, zera! Yarraiako yatan zigorra: eta Yaungoikoak yagongo al dau zuzena!

ERREGE.—Adi entzun gura ete dozue idazki au?

BIR.—Yaungoikoaren itza entzungo geuken legetxe.

KIRT.—Gizonak aragiaren deia entzun daroan bakuntasun berberagaz.

ERREGE.—(Ba-dirakur) "Ordeazko aundi, ze-ruaren ordeazko, ta Naparroa'ko agintari bakar ori, nire gogoaren lureko Yaungoi-ko, eta nire soñaren zaindari aitordeko ori

KIRT.—Itzik bez oraindik Kirten'az.

ERREGE.—(Ba-dirakur) "Ona emen zelan izan dan..."

KIRT.—Ba-leiteke olan izatea; baño olan ba' diño be, egia esaten bada-epadako baño ezta a.

ERREGE.—Bakean ago!

KIRT.—Bai, bakea bedi nitzako, ta burruka-rako adorerik eztauen edozein gilzontzako!

ERREGE.—Ixilik ago!

KIRT.—Besteen ixilkizunak bai euki egizuez ixilik, arren.

ERREGE.—(Ba-dirakur) "Onan yazo da; on-dar-koloreko goituntasunez esitu ta ingu-raturik nengola, zure egurats osasun-emo-llidaren osakaiari gorantzi dausat nire go-galdi baltz, sakakor, astuna: eta aiton-se-me nazanazkero, ibilteari emon dausat nire burua. Ze ordutan? Or seirak inguruan, abereak zolien yaten dabenean, txoriak mo-

koka gogatsuen ekiten dauzenean, eta gi-zonak apari deretxon yatordua egiteko ye-zarten diranean. Onenbesterik, aldiaz. Orain, orrako ori zein lur-arlotan izan dan, ni ibili izan nazan lur-arloaz daragoiot: zu-re basa-berezi deretxo orrako orri; leku-a-gazko orain: zuk emen dakusazun, begira-tzen dozun, begia zuzentzen dautsazun, be-gira zagokiozan, begiz yoten dozun, ebano bestean baltz dan idazkura nire idazkortz edurra baxen zuriari atera dautsan yazo-kune ez-egoki, zantar eta zakarragaz trilitx egin dodan lekuaz daragoiot; baño leku ori norago dagonaz... zure igali-baratz po-ronpil-bakanaren eguzki-sarrerako okolutik ipar-ipar-eguzki-alderatik eguzki-aldera da-gona da. An ikusi dot nik artzai goga-zir-tzil ori, zure barreeragille kutun ori..."

KIRT.—Ni.

ERREGE.—"...bendeko azal ori..."

KIRT.—Oindo be ni.

ERREGE.—"...nik oroitzen dodanez, Kirten de-retxona..."

KIRT.—Ene! neu.

ERREGE.—"...baturik eta kideturik urlikin, zuk egin eta iragarririko legeaz eta legearen arauz bestera... Ene! urlikin... burruka lan-go burrukea dot barraun urli orren izenik ez esango, bai esango..."

KIRT.—Neska batekin.

ERREGE.—"...gure amama Ebe'ren umekin, emekin; edo, zuk obeto aitu dagizun, emakumekin. Beti aintzakotzat dodan zuganako nire bearrak eragin eta zirikataturik, zugana bidali dot To a, irabazi dauen zigorra zure esker gozoaren aldunak, entzute, yardun-bide, yokabide, ta entzute oneko gizon, Andoni Motel'ek ezarrita artu dagian".

MOT.—Nik, eder ba'dakizu; ni naz Andoni Motel.

ERREGE.—(Ba-dirakur) "Yagobetxu'gazko, eta izan be olan deretxo nik len aituatu dodan artzainakin goatu dodan ontzi makalagoari, neuk daukat emen No au, zure legearen asarre gorriaren ontzizat; eta epaitegira eroango dot, zuk zure agindu gozorik txi-kiena eginaz bat. Zure nozu, bendekota-sunik intsigienez, eta biotza kiskaltzen daustan bearrik beroenez. DON ADRIANO DE ARMADO".

BIR.—Ori baño oberik uste neban nik, baño orraitliño be eguño entzun dodanik onena da.

ERREGE.—Bai, txarretik onena. Baña, yaun-txo, zer diñoik ik orrako orretzaz?

KIRT.—Ba-dautori neskeagazkoa, yaun.

ERREGE.—Ez tok entzun iragarri doguna, ala?

KIRT.—Ba-dautort entzun egin dodala, baña yaramon aundirik eztautsadala egin be bai.
 ERREGE.—Urte beterako baitegia yagok iragarrik, neskakin goatu dadinarentzat.
 KIRT.—Enabe goatu ni neskakin, anderañokin baño.
 ERREGE.—Ba, egin-eginean be iragarri dana, "anderañokin goatu dadina" dok.
 KIRT.—Anderañorik be ezta izan a, yaun; neskagarbi izan da a.
 ERREGE.—Zer ori be ba-yakak iragarri danak, neskagarbikin be ba-yiñok-eta.
 KIRT.—Olan izatekotan, ukatu egingo dot aren neskagarbitasuna; neskamekin goatu nau.
 ERREGE.—A neskame izatetik ez yak onik etorriko.
 KIRT.—Bai, ekarriko daust onik a neskame izateak, yaun.
 ERREGE.—Ire epaia emon bear yoat, yaun: barau egin bearko dok aste betean, zaiez eta urez.

KIRT.—Ori baño gurago neuke ile betean arren egin, ardikia ta lapikokoa yanda.
 ERREGE.—Eta Armado izango yak ire yagola. -Ene yaun Biron, zure edurpean au aren eskuetan imintea. -Eta goazen gu, yaunak, ain gogor eta zin-bidez agindu doguna egitez egitera. (Alde ERREGE, LONG, eta DUM'ek).
 BIR.—Neure burua egingo neuskio edozein gizon onen txapelari. Alperrik irri eginik geldituko dira zinok eta legeok. -Gaiozan, yauntxo.
 KIRT.—Egiagaitik min artzen dot nik, yaun; eta izan be, egia da Yagobetu'kin goatu nabela, eta neska yator, egiazko neska da a: eta, orrazkero, ondo etorria bedi, ba, zori onerako edalontzikada mingotsa! Balleiteke naibageak ostera be egunen baten niri irribarre egitea, baña ordurarte, naibage, yezarri adi! (Alde dagie).

II AGERLEKU.—Baso bereziko beste arlo.

ARMADO ta ZITZ aurrera.

ARM.—I, mutil, zeren atz, zeren ezaugarri dok gizon biotz-aundirik gotiluntzea?
 ZITZ.—Ak arpegi motelik izango dauelaren atz edo ezaugarri aundi da orrako ori.
 ARM.—Ba! moteltasuna ta gotiluntasuna biak dozak zer bat bera, txerrentxo maite.
 ZITZ.—Ez, ez; ez olangorik, ene aundiki yaun ori.
 ARM.—Zelan bereziko dozak ik moteltasuna ta gotiluntasuna, ene gazte samur?
 ZITZ.—Euren ondorenen erakuste etxetiarrez, ene agure zal.
 ARM.—Zegaitik agure zal? Zegaitik agure zal?
 ZITZ.—Zegaitik gazte samur? Zegaitik gazte samur?
 ARM.—Ire adin gazteari dagokan izengoiti dalako esan yoat orrako ori, gazte samur, samur deitzen yauntsaguk olango adinartata.
 ZITZ.—Eta nik, agure zal, zure adin zarrari dagokan zal izengoitia ezarri dautsat, zure adina zaltzat etsi daikegu-ta.
 ARM.—Polito ta egoki esanda.
 ZITZ.—Zer esan gura dozu, yaun, ni polit nazala ta nire esakerea egoki dala, ala? Ala, ni egoki nazala, ta nire esakerea polit dala?
 ARM.—Polit azala i, txiki azalako.
 ZITZ.—Gixi polit, txiki nazalako. Zegaitik egoki?
 ARM.—Bizi azalako, egoki.

ZITZ.—Ni goratze-arren diñozu orrako ori, ugazaba?
 ARM.—Irabazita dokan gorapenez.
 ZITZ.—Angileari be egin neio olango gorapenik.
 ARM.—Ostera! burutsu dok angilea be, ala?
 ZITZ.—Angilea be zer bizirik dalako.
 ARM.—Nik esan gura dodana zera dok, erantzuten azala i bizi ta bizkor: berotu egiten daustak ik odola.
 ZITZ.—Aitu dautsat, yaun.
 ARM.—Etxatak begiko niri iñok bestera ekiterik.
 ZITZ.—(Bere kitean) Okerretara itz egiten dau orrek: txintxinak, dirua da ori maite eztaue-na.
 ARM.—Dukeakin iru urtean ikasten eragotea agindu yoat nik.
 ZITZ.—Ordu baten be egin zegike orrako ori, yaun.
 ARM.—Ezin dok olangorik.
 ZITZ.—Zenbat dira iru bateko?
 ARM.—Zenbaki-arloan enok mutil aundirik; edaltegi-otseineri dagokona dok ori.
 ZITZ.—Aiton- seme ta yokalari zara zu, yaun.
 ARM.—Ba-dautort bata ta bestea be ba-nazala... zer biok dozak gizon osoren edergarri.
 ZITZ.—Orrazkero, seguru nago ni, ba-dakizula zuk zenbat egiten daben biko batek eta bateko batek.
 ARM.—Bi baño bat geiago egiten yoeak.

ZITZ.—Eta erri ze zirtzilak iru deitzen dausta orrako orri.

ARM.—Egia.

ZITZ.—Ba, yaun, eta orretarako orrenbeste ikasi-bearrik, yaun? Emen dozu iru zenbakia ikasirik, zuk iru bider begi itxi-idigirik egin baño len; eta errez be errez da iru zenbakia irteak erastea, eta zaldi yantzariak (1) irakatsiko dautsu itz bitan iru urte ikasten.

ARM.—Irudi bikain be bikain orixe!

ZITZ.—(Bere kitean) Zu uts eta ezebeze zareala erakusteko.

ARM.—Maitemindurik nagola iragarri bear dauskat; eta maitemindutea gudariri zirtzil yakonez, neska zirtzilekin maitemindurik nok. Leia ta irritsezko gogalditik expateak alde eragin al ba'leust, olango gurari askarririk yarei al ba'nindu, expatea aterateak, atxilotu egingo neuke guraria, eta Pantze'ko edozein yauregitarreri salduko neuskio orratzetik arako era-mera barriren baten orde. Irrizat yoat intziri egitea: nire ustez, nik agur egin bear neuskio Kupida'ri. Nasaitu nagik, mutil. Gizon aundiarik zeintzuk egon dozak maitemindurik?

ZITZ.—Erkul, ugazaba.

ARM.—Erkul maitagarria!... yarraigarri geagorik izentau egidak, mutil maite; eta, ene seme kutun, orrakook entzute oneko, yardukera oneko gizon izan dadizala.

ZITZ.—Santson, ugazaba: yardukera oneko gizon izan yatsun a, bai orixe, yardukera ta iragokera oneko, iragotzalleak langoxe, ak uriko atek bere bizkarrean iragoten yardun eban-eta; eta maiteminduetariko zan a be.

ARM.—Santson sendoarena! Santson'en zantsu ta errotsu! I baño trebeago ta aundia go nok ni expatea erabilten, atek iragoten i ni baño geiago izan azan bestean. Maitemindurik naiagok ni be: --nor zozan Santson'en maitea, ene Zitz maite?

ZITZ.—Emakume bat, ugazaba.

ARM.—Ze koloretako?

ZITZ.—Lauretako, naiz iruretako, naiz bieta-ko: naiz, lauretatik bateko.

ARM.—Egin-eginean esaidak zetariko koloreko zan.

ZITZ.—Itsas-orlegi, itsas-uraren koloreko, yaun.

ARM.—Lau koloretaiko dok orrako ori, ala?

ZITZ.—Olangorik irakurri dot, yaun: eta lauretatik onena be bai.

ARM.—Izan be, orlegi, berde dok maiteminduen kolorea: baña, nire ustez, Santson'ek bide edo zegaiti gitxi yoan olango kolore-

rik maite izateko. Seguru be seguru, ak No a. No aren buru-bizkortasuna-arren maite izan yoan.

ZITZ.—Olantxe izan zan, yaun: No ak buru-bizkortasun orlegia eban-eta.

ARM.—Orban bagako zuri-gorri dok nire maitea.

ZITZ.—Ugazaba, gogaketa zikin-zikinak estaltzen dira olango kolorepean.

ARM.—Egin-egineratu adi, egin-egineratu adi, ume ondo ikasi ori.

ZITZ.—Nire aitaren buru-bizkortasuna ta nire amaren miña lagun izango al yataz!

ARM.—Gurari bikain, umek izateko: lirain be lirain, eta biotzalditsu!

ZITZ.—Zuri-gorri ba'da, aren akatsik ezta bein be agertuko; mosuetako gorriak utsetik sortzen diramak dira-ta, eta mosu zurbilak bildurraren agiri dira-ta; orrazkero, ortik eztozu yakingo bildur danik, naiz utsik egin izan dauenik; olangorik dauenean be berezkoaz beste kolorerik ezta izango-ta. Zuri-gorriaren aldeko izateko bide gitxi emoten dautsue itzneurtuok, ugazaba.

ARM.—Etzagok or, mutil, Errege ta Eskekoak'zko ipuinik, ala?

ZITZ.—Iru bat gizaldiazkero izan da "balata" orren errudun mundua: baña orain, nire ustez, ezin idoro leiteke; eta idoroko ba'litz be, ezin birridatzi al izango leiteke, ezta zetariko doñurik eban igarriko be.

ARM.—Neuk birridatzi azoko yoat gei ori, nire obenaren ikaskizun eta eredu aundirik izan dagidan, I, mutil, arako baso berezian Kirten orein adimendunakin batera nik aurkituriko baserri-neskatoa maite yoat: maitagarri be maitagarri dok neskatoa.

ZITZ.—Bizkarra berogarri bai ba-da a, eta bai nire ugazaba baño maitale obagarri be. (Bere kitean diño onako au).

ARM.—Abestu egidak, mutil; maltasunez astun yoat biotza.

ZITZ.—Aundia da orrako ori, zuk maite arina maite izan-eta.

ARM.—Abestu egidak, gero.

ZITZ.—Etixon egizu, lagun-mordo au igaro-arte.

MOTEL, KIRTEN, eta YAGOBETXU aurrera.

MOT.—Yaun, dukearen ederra da zuk Kirten seguru yagotea: eta eztautsazu itxi bear

(1) Bankes'en zaldiari deretxo emen "zaldi yantzari". Bankes dalako onek ainbat trebetasun irakatsi eutsazan bere zaldiari eta, orrexegaitik, entzutetsu egin ziran Bankes eta bere zaldia. London'en bizi ziran biak.

ez atseginik artzen, ezta minik artzen be: baña astean iru egunean barau egin bear dau. Neska onegazko, neuk yagongo dot au baso berezian: ba-dau onek baimenik esnedunarenik egiteko. Onik eta ondo ibili.

ARM.—Neure burua salatzen dot arpegia gorrituaz. —Neskato.

YAGOB.—Gizon.

ARM.—Zeurera yoango natratsu zu ikusten.

YAGOB.—Emendik ur dago.

ARM.—Ba-dakit norago dagon leku ori.

YAGOB.—Yakitun be yakitun zara zu, yaun!

ARM.—Zer arrigarrik eralgiko dautsut nik.

YAGOB.—Mosu orretan, ala?

ARM.—Maite zaudaz.

YAGOB.—Entzunik zaudaz olangorik esaten.

ARM.—Eta agur, orrazkero.

YAGOB. Eguraldi onik ekarriko al dozu zure atzetik!

MOT.—Tira, Yagobetxu, goazen. Alde MOTEL'ek eta YAGOBETXU'k).

ARM.—Barau egin bear daustak zital orrek, ire obenak asketsi, parkatu baño len.

KIRT.—Tira, ba, yaun, ba-dot itzarorik, olangorik egin dagidanean, sabela beterik egingo dodala.

ARM.—Zigor lango zigorra izango dok, zigor astuna.

KIRT.—Zure otseinak baño zorreanago gelditzen natratsu, ai sari arinik baño etxake emoten-eta.

ARM.—Ken egik emendik zital au; giltzaperatu egik.

ZITZ.—Ater, yopu oker ori; gaoazan.

KIRT.—Enagik giltzaperatu, yaun; yareirik egingo yot barau.

ZITZ.—Ez, yaun; gogor ta nasai lotuta egotea litzakek orrako ori: baitegira yoa bear dok.

KIRT.—Nire zori txarreko egun argi-pozkarrik inoz barriro ikusi ba'dagit, norbaitek ikusiko dau...

ZITZ. Zer ikusiko yok norbaitek?

KIRT.—Ezebez. Zitz yaun, begiratu dagianaz besterik. Atxilock eztabe izan bear nasaien.

gi euren itzetan, eta orrazkero ezto esango ezer be: Yaungoikoari eskerrak, beste edonok bestean epe gitxi dot; eta, orrazkero, ezto nasai egon-ezinik. (Alde ZITZ'ek eta KIRTEN'ek).

ARM.—Maite dot nik lurra bera be, zirtzil izanarren, zirtzilago dan No orren oskiak zapaltzen dauen lurra, zirtzilen dan orren oñak zuzendurik zapaltzen dauelako. Zinausle izango naz, maite ba'dagit, eta ustelkeriren agiri aundi da zin-ausle izatea. Eta zelan izan leiteke maitasun zindorik, ustelkeriz iritxi gura danik? Iratxo gezto da maitasuna; txerren da maitasuna; maitasunaz beste angeru gaiztorik eztago. Orraitiño Santon be olantxe zirikatua izan zan... eta orraitiño indarrtsu be indarrtsu zan a; orraitiño, Salomon be olan itzuli eben... eta buru-argi be buru-argi zan a. Erkul'en buruaga edo porratat be astunegi da Kupidaren gezia eta, orrazkero, ezbardinegi Españaren ezpatearentzako. Eztaoz arira nire arazoan bigarren eta irugarren zegaitiak (2); eztao artzen ointzakotzat "passado" rik, eta eztautsa yaramonik be egiten biak-bietarako; iraintzat dau ak inok mutiko deitzea; (3) baño gizonak benderatzea da aren ilarrainbide edo arrokizuna. Agur, adore! ugertu akik. ezpata! ixilik ago, danbor! maitaminurik dok i erabili bear indukena-ta: bai, maitaminurik yagok a. Izneurten yainkoen bat lagun izango al yat, seguru be seguru amalaukugin egingo naz-eta. Asmau, irulimen; idatz! idazkortz; "foliu" (4) neurriko idatzi osoak egiteko gogotan nago-ta. (Alde dagi)

(2) Bik-bietarako burrakara norbaiteri esku-bidez eupada egiteko, ainbat zegaiti agiri ziran beñolako araudian.

(3) Bik-bietarako burrukako yokera bat yatsu "Passado" dalakoa.

(4) "Foliu" dalakoa etxatsu besterik bein bekarrik tolesturiko ingi edo papel-izarea baño, olan, izara bakotxagez orri bi bakarrik eginik. Beraz, idatzi luze-zebalak dira "foliu" neurriko idaztiak.

II EKITALDI

I AGERLEKU.—Baso bereziko beste arlo. Txozna gora-zorrotz bat, eta ostantzeko txoznak agiri dira urrinean.

Aurrera PANTZE'ko, ERREGE-ALABEA, ERRO-SALINE, MIREN, KATARINE, BOYET, Andikiak, eta beste Otsein batzuk.

BOY.—Dei egiezu orain, andera, zure buruko ganorarik, antzerik onenai: gogoratu egizu nor dan zu bidali zauzan zure aita errege; nogana bidali zauzan; eta zer dan zuk dakazun arazoa: munduaren etsiz gai-gai zarean ori, zeu bidaltzen zauz, gizonak izan leikeazan osotasun guztien ondorengo bakar dan Naparroa'ko bardin bagako erregekin itz egiteko: erregenorentzako ezkontsarizat be on lediken Akis-arloa baño bape gitiagiarik ezta zuk dakazun auzia (5). Beste mundu guztia ainbarik itxita, izatealac ain eskuzabalez emon eutsuzan gutitariko esker on guztiak zuri emon eutsuzanez, zeuk be esku zabalez erakutsi egizuz esker edo emaitz on gutiak.

ERREGE-al.—Boyot andiki on, aundirik izan ez-arren nire edertasuna, ezta zure gorapen arro ta gelegien bearrik; begiak ebazten dau noragiñoko dan edertasuna, ez salgei zirtzilic iragarten dabenen miñak; gitiagi arrotzen nau zure agotik nire aingarritasunaren barririk entzuteak, nire buruzorrotzatasunaren gorapenak egiteaz zeure buruzorrotzatasuna erakutsi-gurarik zabilzan baño. Baña onu batzuk emon dagioguzan gure onulariari... dana diñon entzuteak mundo guztira zabaldu izan dau onako auita, ba-dakizu zuk, Boyet on, zin egin dauela Naparroa'ko erregek, emakumerik ezin ureratu leitekela aren yauregi ixilera ikaske-ta nekorretan iru urte igarotzte: orrazke-ro, bear-bearreko bidetzat dogu aren ederraren barri yakitea, andik aurrera sartzea galazota dagon aren ateetatik sartu baño len; eta, orretarako, zure burua aunditzat esteak azarri ta lotsabako egiten zauz-eta, zu auiten zauguz gure bitartekorik eraginen eta ganoratsuentzat. Esaiozu Pantze'ko errege-alabea dagola emen arazo benegaz, eta arazo au len baño len ebazteko, akin berakin itz egiteko eske ta eske dagokola, arren, bai, arren. Zoaz arin, eta iragarri egiozu onako au; bitartean gu, aren gurari goiaren begira egongo gara, arpegia apal apal daben eskaleak legetxe.

BOY.—Egikizunak arroturik, gogoz yoango naz.

ERREGE-AL.—Edozein arrokeri da eragikor, eta olangoxe da zurea ba. (BOYET'ek alde) Ene yaun maiteak, nortzuk dira duke on-indarritsu onen zinkideak, zin-lagunak?

I AUND.—Longabil da euretarik bat.

ERREGE-AL.—Ezagun ete yatsu gizon ori?

MIR.—Ezagun dot, andera; Normandi'n, Perigort Aundikiaren eta Yagoba Falconbridge'n alaba lirain eta onordekoaren ezteguetan ikusi neban Longabil au: geitasunik gorengoduntzat esten dabe or gizon au; antze edo ganoretan ondo ornidutzat, eta gudu-arloan, ospatsutzat: mutil yatsu okerrak artezuten. Bere on-indar bikainen dizizaren orban bakarra, --on-indarren dizizak orbanik izan al ba'dagi--, buruzorrotzatasun zorrotza da, guramen amutsegia laguntzat dauela; ba-dau ebateko pairirik aren buru bizkor-zorrotzak, eta aren guramenak eleuskio parkatu gurako bere bendera letorkin ezeri.

ERREGE-AL.—Yaun irilari argien bat yaku, urrean, orrako ori; olango ete da?

MIR.—Ori diñoe geien baten aren gogaldia ondoen dazaguenak.

ERREGE-AL.—Azi-ala zimeldu egiten dira olango buru-bizkor bizi-laburrak.-- Nortzuk dira enpaduak?

KAT.—Dumen gaztea dozu euretaiko bat, ondo orniduriko gaztea, ta on-indarra on-indarra-aren maite daben guztiak maite dabena. Ba-dau ak okerrik aundienak egiteko alik, baña okerrik egitea zer dan be eztaki; izan be, ba-dau ak okerrari onantzta emoteko buru-bizkorrtasunik, eta bes-teen ederra irabazteko ganorarik, buru-bizkortasunik ezpa' leu be. Bein ikusi neban a Alenson'go Dukearenean; eta aren aintzakotasunetik orren gitxiegi ikusia da aren alde esan daikedane.

ERROS.—Aldi atan ikasle oneitatik beste bat be ba-egoan an orrekin: nik entzuna egia izatekotan, Biron deretxo orrako orri; baña eguño ezto igaro ordu beteko autu-mautu txixariagorik, txixaritasun egokiaren neu-

(5) Akis deretxoe euskaldunak oraingo Dax'eri. Ikusirik dot uri au, baita bertan Erromarrak arlanduz egindako ikuztegi ederzarrak be, ni Ameriketarako bidea artzeko nintzanean.

rri-barruan, a baño gizon txixariagokin: aren begiak dira aren buru-bizkortasunari eragiten dautsoenak; izan be, begiak zer ikusi, besteak andik izkiri-miri barregarritren bat ateraten dau; eta buruko bulkoen iragarle dan aren min yatorretik itz ain egoki ta lirainak yalten dira-ta, kalba egiten dautse zarrak beste egikizunai, aren ipuinak entzute-arren, eta gazteen belarriak zorabiauta gelditzen dira ari entzunaz: orren atsegingarri ta orren aldakor-bizi da aren itz-darioa.

ERREGE-AL.—Yaungoikoak onetsiko al dauz nire anderok! Guztiok ete dagoz maitamin-durik, bakotxak berea olango gorapenez orrenbestean apaintzeko?

MIR.—Emen dator Boyet.

BOYET aurrera ostera be.

ERREGE-AL.—Eta? Nolan artu abe, yaun?

BOY.—Izan dau Naparroa'ko erregek zu ur zintzazanaren barririk: eta bai a bera, bai aren zinkideak, gerturik egon dira zuri bidera urteteko, ni aratu baño len, andera txerakor. Andera Miren-arren, zer bat yakin dot... aren errege-yauregia inguratu ta esitzen ba'zentoz legetxe, gurago leukela ak zure bizi-lekua yauregitik at, yauregitik landa eragi, bere yauregi utsean zu artzeko, zina askatzerik billatu baño. Emen dator Naparroa'ko errege. (Kokomarotu egiten dira anderak).

Aurrera ERREGE, LONGABIL, DUMEN, BIRON, eta Otseintzakook.

ERREGE.—Errege-alaba lirain, ondo etorria Naparroa'ko gure errege-urira.

ERREGE-AL.—Zeutzako bedi orrako "lirain" ori; eta oraindik eztoz "ondo etorririk": guregi da yauregi onen tellatua zure izateko; eta zelai zabaletarako ondo etorria zirtzilegi da, nire izateko.

ERREGE.—Nire errege-yauregira izango zara ondo etorria, andera.

ERREGE-AL.—Orduan izango naz ondo etorria; ara eroan nagizu.

ERREGE.—Entzun egidazu, andera maite... zin eginda nago.

ERREGE-AL.—Gure Anderea lagun bekio nire yaunari! ausi egingo dau orrek bere zina.

ERREGE.—Ez mundu guztiagaitik be nire kitetik, andera lirain.

ERREGE-AL.—Ba, zeure kitetik ausiko dozu: zeure kitetik, ez bestek eraginda.

ERREGE.—Zure anderatasunak eztaki zetariko dan nire zina.

ERREGE-AL.—Nire yaunak berak ezpa'leki, yakituri litxakio bere ez-yakitea; orain, barriz, ez-yakitea erakutsi-bearrean aurkitzen da aren yakitea. Etxean egoteko zin egin dau zure ederrak; oben astun eta eraikior da zin ori betetzea, ene yaun, eta oben da ori auste be; baña asketsi, parkatu nagizu, azarriegi be azarriegi nazalako; ez-teritxat eder, ezta egoki be irakasleri iraksterik. Ontzat artu egizu nire etorrerearen zegaitia irakurtea, eta arin ebatzi egizu nire eskariagazkoa. (Ingi edo papel bat damotso).

ERREGE.—Andera, arin egingo dot, al ba' dot.

ERREGE-AL. Al danik eta arinen egizu, nik alde egin dagidan, emen egonazo ba'dagistazu, zin-ausle egingo zara-ta.

BIR.—Ez ete neban nik bein yantzan egin zukin Brabant'en?

ERROS.—Ez ete neban nik bein yantzan egin zukin Brabant'en?

BIR.—Ba-dakit egin zendula.

ERROS.—Alper-alperriko izan da, beraz, olango itaunik egitea!

BIR.—Eztozu izan bear orren bizirik.

ERROS.—Zeure da errua, olango itaunez zirikatu nozulako.

BIR.—Beroegi da zure buru-bizkortasuna, bizkorregi doa-ta, unatu, ebaindu egingo da.

ERROS.—Ez ganean doakona lupetzara egotzi-arte.

BIR.—Ze ordu da?

ERROS.—Ergelak itanduteko ordua.

BIR.—Onik eta ondo bebil zure mosu-marroa!

ERROS.—Estaltzen dauen mosua bebil onik eta ondo!

BIR.—Eta maitale asko bidaliko al dautsuz Yaungoikoak!

ERROS.—Olanixe, eta zeu ez al zara izango eurentarikorik.

BIR.—Ba, orrazkero, alde egingo dot.

ERREGE.—Andera, eun milla burestunen ordainketea aitatzen dau zure aitak; baña diru-moltso ori, nire aitak ari aren guduetarako aurreratu eutsanaren erdia baño ezta. Ez nire aitak, ez nik eztozu artu izan diru ori, baña artu izatekotan be, beste eun millak legokez oraindik ordaintzeko: orrako zor orren baitzat dago gure ben-

- dean Akis-aldearen zati bat, zor yakun dirua bestean gai izan ez-arren. Orrazkero ba, zure aita erregek atzera emon ba'da-gisku zor dauen arako erdia, gogoz emongo dautsagu atzera Akis'gazko eskubidea, eta adiskidetasun zintzoan biziko gara aren nagusiagotzeakin. Baña eztirudi ak olango asmorik dauenik, eun milla burestunen eske datorku, ba, a emen, eta ez eun milla burestun ordaintzen, Akis-alderako eskubidea bere izateko: guk ostera, olan moztutako Akis-alderik euki baño gurago geuke gure aitak aurreraturiko dirua artu. Errege-alaba maite, orren zuzenaz besterako ezpa'litz aren eskabidea, zeuk eder orrek eragingo zeuskion nire biotzari, nik zerbait galduta be itunbenen bat egiteko, eta asko be asko etsita yoan zeintezkan atzera Pantze'ra.
- ERREGE-AL.—Okerrik asko ta geiegi egiten dautsazu nire aita erregeri, eta oker dagiozu zeure entzute onari be, ordaindu yatsuna artu dozula olan autortu ezagaz.
- ERREGE.—Autortu be autor egiten dot ezto-dala izan eguño olangoren barririk; eta zuk erakutsi ba dagistazu naiz artua atzera emon, naiz Akis-aldea ari yareiko dautsat.
- ERREGE-AL.—Zeure itzelik goatzen zauguz: --Boyet, zuk ekarri ta erakutsi daikezuz orrako diru-moltsoaren ordainketa-agiriak, aren aita Karla'ren berarizko otseinengandikoak.
- ERREGE.—Olantxe erakutsirik asko etsita itxi nagizu, arren.
- BOY.—Eder izango al yako zure ederrari, baña orrako zerdun pardelik eztoqu emen, orrako zer ori ta beste berarizko zer batzuk dauzan pardelik; biar ikusi al izango dozuz zerok.
- ERREGE.—Askotzat etsiko dot orrako ori. Alkarrekin batze orretan makurtuko dot nire burua ta men egingo dot zuzenik asko dadinaren aurrean. Bitartean, ondo etorririk onena artuizu nire eskutik, omenaren kalte bagarik zure aintzakotasun yatorrari emon leion ondo etorririk onena; zeu ezin sartu zeindekez nire ate-barrura, erregealaba maite; baña emen atetan ain ondo artuko zauguz-eta, nire biotzean dozula zure arroztegia uste izango dozu, nire etxean zuri arroztegirik emon ez-arren. Zure biotzei gogaketa onak zuriutuko al nabe, eta agur; biar etorriko gara barriro zu ikusten.
- ERREGE-AL.—Osasunik onena ta guariririk zuzenenak lagun izango al yakoz zure ederrari!
- ERREGE.—Zeuk zer-gura opa dautsut nik edonon! (ERRE'k eta YARRAIGOKOAK alde)
- BIR. Andera, nire biotzari gorantziko zaustadaz.
- ERROS.—Arren, emoiozuz nire gorantziak: gogoko litxakit ori ikustea.
- BIR.—Entzungo al zenduz onen intziriak.
- ERROS.—Gexorik dago ergel ori, ala?
- BIR.—Biotz-min dau.
- ERROS.—Ai ene, odola ixuriazio egiozu.
- BIR.—Onik egingo leuskio, ala?
- ERROS.—Baietz diño nire osapideak.
- BIR.—Zure begiak emongo dautsaz zautadak, ala?
- ERROS.—Begiak eztau mokorrik, nire aiztoak emongo dautsaz.
- BIR.—Ba! Yaungoikoak yagongo al dau zure bizia!
- ERROS.—Bai zurea be luzaro bizitetik!
- BIR.—Ezto astirik eskerrik asko esateko. (Alde dagi).
- DUM.—Itz bat, arren, yaun! Nor da ori andera ori?
- BOY.—Alenson'go etzandera-geia, Katarine izenez.
- DUM.—Ondera lirain, benetan! Onik eta ondo ibili, yaun. (Alde dagi).
- LONG.—Itz bat, arren: nor da zuriz yantzita dagon No ori?
- BOY.—Emakume iruditu legiketsu, argitan ikusiko ba'zendu.
- LONG.—Argitan argi, ala? Zer yakon izena yakin gura neuke.
- BOY.—Beretzat baño eztau orrek izenik; azarikeri, lotsabakokeri litxake orren izena yakin-gurea.
- LONG.—Arren, yaun, noren alaba da?
- BOY.—Bere amarena, antzun dodanez.
- LONG.—Yaungoikoak onetsiko al dau zure bizarra!
- BOY.—Etzakidaz asarratu, yaun on: Falconbridge'n ondorengogai da.
- LONG.—Yoan yat nire asarrea. Andera zoragarri da ori.
- BOY.—Egi-antzik ba-dau orrako orrek: ba-leiteke orrako ori. (LONG'ek alde).
- BIR.—Zer yako izena txapeldunari?
- BOY.—Errosaline, zori onez.
- BIR.—Ezkondu, ala ezkongu da?
- BOY.—Bere gogoaz ezkondu, edo olangotsu, yaun.

BIR.—Ondo etorria, yaun: agur!

BOY.—Nitzako agurra, yaun, eta zeutzako ondo etorria, (BIRON'ek alde. Arpegia agertu anderak).

MIR.—Azkenen ori da Biron, yaun ergel arrai: txantxetan ezik, itzik bez orri.

BOY.—Eta itz uts dira orren txantxa guztiak.

ERREGE-AL.—Ondo egin dozu bere bidea artuaz.

BOY.—Ak nire ontziratzea bestean gura izan dot nik aren ontziari kakoa ezartea.

MIR.—Aari heroegi bi izan zarie, bai orixe!

BOY.—Eta zegaitik ez ontzi bi? Enozu ni aaririk, asuri ezti, zure ezpanetan yaten itxi ezpa'dagidazu.

MIR.—Aari zu, ta yanari ni: onetan amaituko ete da txantxea?

BOY.—Yanaria zuk emon ba'dagidazu bai. (Mun egingorena dagi).

MIR.—Ez olangorik, abere txerakor ori; ez tira edonoren nire ezpanak, bat baño geiago izan-arren.

BOY.—Noren dira ba?

MIR.—Nire zoriaren eta neure.

ERREGE-AL.—Maite dabe eztabaidea buru argi onak: baña eriskide dira txerakorrak: arri-barruko buru-bizkortasun gudu au Naparroa'ko erregeri ta aren idazti-kideai egitea oba litzake, alperriko ta kaltegarri da emen-eta.

BOY.—Utsik nekez egiten daustan nire oarikiak, biotzean zer dagon begiz ikusiazoten daustan nire oarikiak oker ikusiazoten ezpa'daust orain, ukuturik eta eragirik dago Naparroa'ko erregea.

ERREGE-AL.—Zek ukutu ta eragirik?

BOY.—Guk maitaleok eragin esaten dautsagunak.

ERREGE-AL.—Ze zegaiti dozu olangorik esateko?

BOY.—Ba! bere begiko yauregira alde egin dabe bere biotzaldi guztiak eta andik kirika dagoz, leiearen leieaz: arro dago bere biotza, an zure irudia agata-arrian legetxe irarrita dauelako, eta bere begiz diragar arrotasun ori: bere miñak, dana urduri ta artega itz egiteko, baña ez ikusteko... ostopo egin eta dana aurrean eroaten izan dau len baño len bere begira eltzeko estu ta larri; bere oarmen guztiak ikus-menera alde egin dabe, lirainik lirainena dakusalaz bakar bakarrik oartzeko errege-semeren batek erosi dagizan, pitxiak leiar-ontzian egoten diranez, aren oarmen guztiak be aren begian egon izan dira, nire ustez; eta euren leiarrezko ontzitik euren gaitasun aundia erakutsirik, zuri luzatzen eutsuen euren atza, zu andik igaro-ala, zuk ikusi ta erosi zengizan. Aren betertzetan be zer ain arrigarriak agiri izan dira-ta, begi guztiak ikusi izan dabez arenak liluraz heterik eta arriturik: mun maitakor bat emon ba'dagidazu, Akis-aldea ta aren oro emongo dautsudaz.

ERREGE-AL.—Erdi gure txozna-barrura: gertu dago Boyet...

BOY.—Bere begiak idoro ta argitaratu dabena itzez esateko bakarrik: nik egin dodan zer bakarra aren begia agotutea izan da, ondo dakidanez, guzurrik esango eztauen min bat erantsita.

ERROS.—Maitale-bitarteko zar zauguz zu, eta ganoraz itz egiten dozu.

MIR.—Kupida'ren aitaita yatsu ori, eta agandik dakiz barriak.

ERROS.—Olan izatekotan, bere amaren antzeko zan Benuts, itsusi zan aren aita-ta.

BOY.—Entzuten daustazue, neska zorook?

MIR.—Ez.

BOY.—Zer, ba, ikusi dakusazue, ala?

ERROS.—Bai, alde egiteko bidea dakusagu.

BOY.—Gogorregi zatxataze. (Alde dagie).

III EKITALDI

I AGERLEKU.--Baso bereziko arlo bat.

ARMADO ta ZITZ aurrera.

ARM.—Txorrotxio batzuk egidazak, mutil, eta ma-
taberatu egistazak belarriak.

ZITZ.—"Concolinel"... (Abestuaz) (6).

ARM.—Doñuaren atsegingarri! Oa, gazte sa-
mur ori! auso giltza au, eta askatu egik
artzai, eta arin ekarrik ona, nire maiteari
idazki bat erotan erabili bear yoat a-eta.

ZITZ.—Ugazaba, Pantzetar yantzaz irabaziko
dozu zure maitea, ala? (7).

ARM.—Zer esan gurok? Pantzeraz asarre egi-
tea, ala?

ZITZ.—Ez, ene ugazaba oso: olangorik baga-
rik, zera egin bear dozu: zure min-mokoan
atarako doñu bizi-eragina dozula, zure oin
eta zangoai "kanari" (8) dalako yantzea
yantzazo, orrako orren gata geitzeko be-
talalari gora eraginda: bein abestu, bein
intziri egin; batzuetan eztarriz abestu, abes-
tu-ala maitasuna irusten ba'zeragoio lez;
beste batzuetan surrez, maitasun-sundeari
surrak-gora eragiten ba'zeragoio lez; olla-
tegi-tellatuaren antzeko zure txapela zure
begien denda-ganean dozula; zure besoak
zure sabel uzkuraren ganeko gorantxa-
ganean, burruntzian dagon kuia legetxe,
aume eginda dozuzala; naiz, zure eskuak
zure saketan dozuzala, beñolako margo-
kietako gizonak legetxe (9); eta bein be ez
ekin luzaro doñu bateri, ari zirrist egin
eta besteri eldu baño: oneik dira egitekoak,
oneik yatsuz gogaldiak; onango zerakaz
iruzur egiten yake neska lirainai... onango
bagarik be ai iruzur egin al izan-arren;
onangoz iragarriten da nor dan gizon... adi
ete zagotaz, gero? Bai, nor dan benetako
gizon.

ARM.—Nondik arraio batu dok ik, nondik eu-
retu dok orrako oar-ikasari ori?

ZITZ.—Txakurtxiki baten nire oar-ikasiz.

ARM.—Baña ene!... baña ene!

ZITZ.—(Abestuaz... "ezta oroitzen zurezko zal-
diaz".

ARM.—Zurezko zaldi ereisten dautsak nire
maiteari, ala?

ZITZ.—Ez, ugazaba; moxal edo zaldizko ba-
ño ezta zurezko zaldia, eta ba-ledike zure
maitea bear baño ez itatea. Baña aztu ete
yatsu zure maitea?

ARM.—Aztu be egin yatak ia.

ZITZ.—Ardura bagako ikasle ori! buruz ikasi
egizu zure maitea.

ARM.—Buruz eta biotzez, mutil, eta biotzean
be bai.

ZITZ.—Eta biotzetik landa, biotzetik kanpora be
bai, ugazaba: neuk erakutsiko dautsudz
iru bideok.

ARM.—Zer erakutsiko daustakala?

ZITZ.—Gizon izango nazala, bizi ba'nadi; eta
au beingoan erakutsiko dautsut -z, -an eta
at. naiz, landa bidez: biotzez maite dozu
zuk No a, zure biotza a beraganaño ezin
eldu dalako: biotzean maite dozu zuk a,
aren maitasuna zure biotzean dozulako; eta
biotzetik at edo landa maite dozu a, goza-
tzeko zure biotzean etozulako.

ARM.—Orrako iru zerak nok ni.

ZITZ.—Bai orrako ori lango iru be, eta orrai-
tiño be etzara ezer zu.

ARM.—Oa ta ekarrik ona artzai; idazki bat
eroan bear yaustak.

ZITZ.—Geznari argi be argi! zaldia astoaga-
nako geznaritzat!

ARM.—Ja, ja! zer diñok?

ZITZ.—Andera Miren-arren, yaun, astoa bi-
dali bear zeuskio zalditari, geldiro ibiltan
da astoa-ta. Orraitiño be ba-noa.

ARM.—Labur dok bidea: alde, oa.

ZITZ.—Beruna bestean arin yoango naz, yaun.

(6) Aldi atako abesti baten lenengo itza
da au; abesti osoa birridatzi bagarik, lenen-
go itza bakarrik damosku emen gure idaz-
leak.

(7) Onetara egiten zan Pantzetar yantza
au (French brawl); yantzan daragoioe gizon-
emakume eta alango baten, lenengo edo au-
renengo bikoteak alde dagi bere lekutik, bes-
teen erdira sartzen dira, an alkarri mun egi-
ten dauise ta, bein ori egindakoan, azkenen-
go lekuan yarten dira biak. Orain aurrenen-
go lekuan yarti dan bikoteak aurrekoak egin
dauena bera egiten dau; eta olan, urrengo-
rik urrengora, bikote guztiak, ostera be guz-
tiak lenengotan legetxe yarri-arte.

(8) Kanari dalako yantzea Kanari izaroeta-
tiko españar yantza bizi-bizkor da.

(9) Beñola margolari edo pintore batzuk eu-
ren margozkietako lagunak eskuak saketan
ebezala margoztuten ebezan, eskuak margoz-
tau-bearrik ez izateko, eskuak margoztutea
zail dala-ta.

ARM.—Zer esan gurok, buru-argitxo orrek?
Ez tok beruna metal astun, ilun eta geldo.
ala?

ZITZ.—“Minime” (10), ugazaba zindo; edo,
obeto esateko, beste bagarik, ez, ugazaba.

ARM.—Beruna geldo dala yinoat nik.

ZITZ.—Arinegi esan dozu orrako ori: geldo
da suodiaren agotik yaurtiten dan beru-
na, ala?

ARM.—Izlaritzaren ke orren pitxi! suoditzat
etsi nau orrek, eta balatzat dau bere bu-
rua: -tiroa legetxe bidaltzen aut artzaia-
gana.

ZITZ.—Daunba ba, ta or noa egaz (Alde dagi).

ARM.—Gazte orren buru-argi, itz-dario ta yos-
tari! Zure emaitze eta eskerrez, zeru mai-
tagarri, intziri egin bear dot zure aurrean:
gotiluntasun zakar ori, leku egiten dau sk
adorea: etorri da atzera nire geznaria.

Barrero aurrera ZITZ, KIRTEN'ekin.

ZITZ.—Ba-dogu arrigarririk, ugazaba; emen
dogu Kirten dalako bat zangazurra ausirik.

ARM.—Igarbizunen bategaz, ezetz igarriren
bategaz atorrkit i: tiruk, esaiguzak ire
“agur-itzak” (11); asi adi.

KIRT.—Eza igarbizunik, ez ezetz igarririk, ez-
ta “agur-itzik” be, ezta soin sare-laban-
garririk be, yaun: ba! zanbedarra yatsu,
yaun, zanbedarra, argi ta garbi (12); ez
aguritzik, ez agur itzik, ez labankairik,
yaun, zanbedar bat baño!

ARM.—On-indarra-arren, barre eragiten dau-
tak; argitu egiten naioek ire gogaketa er-
gelak: irribarre barregarririk eragiten yaus-
tek nire birien gora-berak: ene! asketsi,
parkatu nagizue, ene izarrok! labankaia
agur-itztat, eta agur-itza labankaitzat ar-
tzen dau ergel uts onek, ala?

ZITZ.—Yakintsuak eurak be bestetzat dabez,
ala? Agur-itza ezta labankairik, ala?

ARM.—Ez, esku-mutil: itzaldi-ondoko erago
dok agur-itza, len ilun esandako zeren bat
argitzeko. Orretariko eredu bat ekarriko
daukat:

Azeria, matxangoa ta erlanagia
Bakoiti ziran, iru baño etziran-eta.

Or dok eredu, or dok ikaskizuna. Beto z
orain ire agur-itzak.

ZITZ.—Erantsiko dodaz nik nire agur-itzak.
Esan zuk ikaskizuna barrero.

ARM.—Azeria, matxangoa ta erlanagia
Bakoiti ziran, iru baño etziran-eta.

ZITZ.—Antzarra atetara urten-arte bai
A laugarren izanik, batoi egin-arte.

Orain asiko dot zure ikaskizuna, eta lagun
izango zatxataz zure agurritzakaz

Azeria, matxangoa ta erlanagia
Bakoiti ziran, iru baño etziran-eta:

ARM.—Antzarra atetara urten-arte bai.

A laugarren izanik, batoi egin-arte.

ZITZ.—Agur-itx on dira antzarrean amaizen
diranak: geiagorik gurozu, ala?

KIRT.—Antzar bat erosi dau to esku-mutilak,
antzar gizona, gero: -yaun, eroste ona egin
dozu zure txakurrandiaz, gizen ba'da zure
antzarra. -Sal-eroste onik egiteko ganorea
bear da, bein nasaitu, bein tenka ibilteko:
ikusiko al dot agur-itx gizen bat; bai, an-
tzar gizen bat.

ARM.—Aitor ona, aitor ona. Nondik asi dok
eragoketa au?

ZITZ.—Kirten dalakok zangazurra ausi dau-
la esatetik, eta zuk orduan “agur-itza”
eskatu dozu.

KIRT.—Eta zanbedarra eskatu dot nik; orlik
asi da eragoketa-bidea; gero mutikoaren
“agur-itx” gizona, zuk erosi dozun antza-
rra: eta ori da dana.

ARM.—Baña esaidak; nolau ausi yok Kirten
dalakok zangazurra?

ZITZ.—Neuk esango dau sut adigarriro.

KIRT.—Ik ez tok aditu, ik ez tok minik artu,
zitz; neuk esango dodaz orko “agur-itzak”
Barruan seguru nengon Kirten onek atetara
arin egin neban,

Atalasean zoztor egin, yausi, zangazurra
ausi yatan.

ARM.—Arazo oni eztagiogun ekin luzarago.

KIRT.—Zangazurrean beste okerrik izan-ar-
teño.

ARM.—I, yauntxo, Kirten, yarei, askatu egin
gura aut.

(10) “Ez”.

(11) Euskeraz “agur-itx”, azkenitz” imini
dodan lekuetan gure idazleak Pantzerazko
“l'envoy” dakar, eta bai emen, bai lan one-
tako ainbat eta ainbat lekutan zimardika da-
ragoio gure idazleak eta, orrexegaitik, lan au
euskerara, naiz beste edozein izkuntzatar
aldatzea lan zail be zail da, etsigarri, bene-
tan. Onek yatsuz Ingelanderaz “l'envoy” da-
lakoaren esan-gurak: 1) “balata” dalako abes-
tiren azkenengo itzak, naiz lerroak; 2) bidali,
geznari. Zur egon, ba, irakurle, ta ez aztu one-
ko au, emen idazleak diñona aitu al izateko.

(12) Gure baserritarrak be zanbedarra, su-
tan berotu ta ganeko mintza kenduta, erabil-
ten dabe ebagietarako; ebagia garbitu ta ezo-
rik eukiteko.

KIRT.—Ba! Askazubi'ko neskeakin ezkondu nagizu... "agur-itx" en baten sundea arizen dot nik emen, antzar gizenen bate-na.

ARM.—Nire gogo kutuna-arren, i aske, eure eskuko iminteko, ire buruaren yaun eta ya-be egiteko gogotan nok; orma-barruraturik, eutsinik, atxiloturik, esturik egon az i.

KIRT.—Egia, egi utsa; eta zu izango zara orain nire barru-garbigarri, eta nasaiturik, askaturik itxiko nozu.

ARM.—Ire askatasuna emoten dauskat, baitegitik yareiten aut; eta orrako orren alderako bear au bakarrik ezarten daukat, zera: berea diragarren zer au eroan egio!k Ya gobetxu baserri-neskatoari: autso eskupekotzat (dirua damotso); izan be, nire omenak dauen ya golarik onena nire bendekoak saritzea da. Arraikit, Zitz. (Alde dagi).

ZITZ.—Eragoaren ondorena ba'nintz legetxe. Agur, Kirten.

KIRT.—Giza-aragizko ene ontza ezti ori! ene pitxi bakan ori! (ZITZ'ek alde) (13). Dakusadan orain zer emon daustan eskupeko-tzat. Eskupeko! ene! erderazko semaiko itzaren ordeko yatsu ori... eskupeko... "Zenbateko ete da galartzu au? --Txakurrandi bateko.-- Ez, eskupeko bat emongo dautsut orren alderako"; bai, eta egiunea eginda dago. --Eskupeko...! Ba! Pantze'ko burestunarena baño itz politago yatsu onako au. Aurrerantzean eztoz ezer erosi, naiz salduko, zori oneko itz au erabili bagarik.

BIRON aurrera.

BIR.—Ene! Kirten ene zital on ori! zori onez baño zori obeagoz txikitx egin yoat ikin.

KIRT.—Arren, yaun, zenbat galartzu gorri erosi daikez gizonek eskupeko bategaz?

BIR.—Zer dok orrako eskupeko ori?

KIRT.—Andera Miren-arren, txakurtxiki ta erdi.

BIR.—Ba! txakurtxiki ta erdiko seda-ari.

KIRT.—Eskerrik asko zure aingarritasunari: Yaungoikoa lagun izango al yatsu!

BIR.—Ene! etxoik, yopu orrek; egikizun bat ezarri bear daukat: nire ederra iritxi gu-ra ba'dok, ene zital on orrek, eskatuko daukatana egistak.

KIRT.—Noz egitea gurozo orrako ori, yaun?

BIR.—Ba! arrasti onetan.

KIRT.—Ori ondo, egingo dautsut orrako ori, yaun: onik eta ondo ibili.

BIR.—Ba, ba! ik estakik zer dan orrako ori.

KIRT.—Egin dagidanean yakingo dot zer dan, yaun.

BIR.—Ba! zital, lenen yakin bear dok zer dan.

KIRT.—Biar goxean etorriko natxatsu zuri aingarri orri.

BIR.—Gaur arrastian egiteko dok orrako zera. Entzun, yopu, auxe baño eztok; baso berezi onetara eizean etorteko dok errege-alabea, eta andera aitonalaba bat yagok aren yarraigoan: bigun eta ezti itz egiten dabenak aitatzen yoek aren izena, eta Errosaline deitzen yoek: a eskatu egik; eta aren esku zurian imini egik ingi edo papeltxo ikurratzez itxi au; autso au ire saritzat (Dirua damotso); oa.

KIRT.—Sari... sari onen gozo! Arako eskupeko baño oba da au; a baño amaika txakurrandi geiago; sari onen gozo! --Zeatz beteko dot zure agindua, yaun. --Sari... eskupeko. (Alde dagi).

BIR.—Onangorik! nor, eta ni maitamindurik! maitasunaren txibita izan nazan au; maitasun-intzirien erruki bagako arerio au; ni, esla zorrotz au; bai, gauzai begi-zoli izan nazan au; gizon ilkorrik gizonenak baño gogorra go mutiko ori erabilten izan dodana; Don Kupida mutikoa, mutiko mosu-estali, negarti, erdi-itsu, gogalditsu-aldakor, zar-gazte, epo-gizatza au; maitasun-izneur-tuen eragile au, beso aume eginen yaun au, intziri ta zotinen bakaldun igurtzi au; geldo ta muker guztien nagusi au, goncaen errege-seme bildurgarri au, iztarbitarteen bakaldun au, inberadore bakar, eta auzirra-deitxalle ibiltarien gudalburu aundi au... --Nire biozxoaren errukarri!... eta nik aren bendeko gudalburu-otsein izan bear, eta bularrean aren ikurrina eroan bear, loryantzarien uztaiaeren antzean! Onangorik! Ni! maitamindurik ni! maitasun-eske ni! emazte-billa nabil ni! emakume-billa ni, Germani'tiko erloiuaren antzeko emakume-billa, sarritan atondu ta adabau-bearrik izango dauenaren billa; beti atondu ta adabatzen, eta bein be ondo eztabilenaren billa; ondo ibilteko beti be arduraz yagon bear ko danaren billa! Eta, okerren dana, zin-ausle izan bear orretarako; eta irutik txarrena maite izateko: izaki zuri txori-buru, bepuru azin, eta arpegian begitza bolatxo baltz bi yosita dauzana; bai eta zerua-arren, yaqola ta irendutzat Ar-

(13) Zer aunditatz dau emen Kirten'ek Armado'ren mutiko txixtari ta buru-argia; "aragi-ontza" deretxo, motxor-txiki dalako; eta "pitxi bakan", txiki bai, baño pitxi lez, gaitso dalako. Begiko egin yako mutiko ori Kirten'eri.

gos bera ba'leu be bere zera egingo leu-
kena; eta nik intziri egin bear No agai-
tik! Bai ete?... Kupida'k ezarten daust izu-
rri au, bere al itzala makaltzat etsi ta
aintzakotzat artu eztodalako... Tira, ba, mai-

te izango dot, idatzi, intziri ta arren egin,
maitasun-eske ibili, atzarrik egon, eta zo-
tinka biziko naz; andera da gizon batzuk
maite dabena, marimutil, beste batzuen.
(Alde dagi).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.--Baso bereziko arlo bat.

Aurrera ERREGE-ALABEA, ERROSALINE,
MIREN, KATARINE, BOYET, ANDIKIAK,
OTSEINAK eta BASAZAINA

ERREGE-AL.—Errege izan da mendi aldapea
gora zaldiari aztalak orren gogor sartu
dautsazana, ala?

BOY.—Eztakit, baña a ezta izan, nire ustez.

ERREGE-AL.—Izan dana dala, igoteko gogo
bizirik iragarri dau. Tira, ba, andikiok, gaur
emongo dauskue erantzuna: larunbatez
yoango gara atzera Pantze'ra. Orrazkero,
basazain, nire adiskide, non dago gu os-
tondu ta an giza-erailleena egin bear dogun
sasitzea?

BAS.—Emen urrean, an aragoko berezi-er-
tzean: andik egin daikezu eizaketarik bi-
kainena.

ERREGE-AL.—Esker oneko natxako nire eder-
tasun bikainari, eder naz eta eizean nabil,
eta orregaitik diñozu zuk eizaketa bikainik
egin daikedala.

BAS.—Parkatu, asketsi nagizu, andera, nik
eztot izan olangorik esateko asmorik-eta.

ERREGE-AL.—Zer? Zer? Lenen goratu, ta gero
ukatu? Labur be labur bizi izan da gorapen
ori! Enazala eder? Au zori txarraren zori
txar!

BAS.—Bai, andera, eder zara.

ERREGE-AL.—Ez, enagizu edertu orain; berez-
ko edertasunik eztagonean, gorapenek ezin
edertu betarterik. Auto, nire ispillu on ori,
artuik au egia esate-arren (Dirua damotso):
itz zakarren alderako ordain ona, zorra
baño audiago dok.

BASAZ.—Eder baño ezta zuk ondorengotzat
artu dozuna.

ERREGE-AL.—Ara, ara! nire emaitzak irau-
nazoko dautsoe nire edertasunari. Au bai
bada edertasunazko siniste-auste, ta aldio-
tarako egoki! Zantar izan-arren emoten dau-
en eskuia, izango dau ak gorapenik, eta bai
gorapen ederrik be.—Baña, tira, betor
arrambela: --erailten doa orain erurkia, eta
txartzat etsiko dabe ganoraz yaurtitea. Onan
izango dot yaurtzalle onaren entzutea: zau-
ritu epra'dagit, errukiak eztaustala itxi esan-

go dabe; zauritu ba'dagit, nire ganorea era-
kuste-arren egin dodala, erailteko gogoak
baño, gorapen-zaletasunak eraginago naue-
la. Eta seguru be seguru olantxe yazoten da
batzuetan... okerreri askarriren errudun da
entzute edo aintza, dana be geuz atako
zera dan entzute ta gorapenak lortze-arren
gure biotza okerreri askarrietarako bidean
iminten dogunean: esaterako, orain nik,
goratu nagientzat bakarrik, orein erugea-
ren odola ixuri gura dodanez, nire biotzak
oreinarentzat gogo txarrik izan ez-arren.

BOY.—Emazte askarriak be ez ete dautsoe
eutsin gura euren nagusitasunari, entzutea-
arren, euren senar yaunen yaun eta yabe
izateko alegintzen diranean?

ERREGE-ALA.—Entzute-arren bakarrik: eta
goragarriztat etsi bear guk bere yauna ben-
deratzen dauen anderea, dana dala andera
ori. Emen dator lege-erri onetako bat.

KIRTEN aurrera.

KIRT.—Arrasti on guztioi! Arren, zein da
emen anderarik gorena?

ERREGE-AL.—Euk ezagutuko dok orrako No
ori bera baño txikiago diranen artean.

KIRT.—Zein da anderarik aundiena, goiena?

ERREGE-AL.—Goiena ta luzeena.

KIRT.—Goiena ta luzeena! olantxe da, bai;
egi da egia. Zure garria nire buru-argitasa-
na bestean estu-bedar ba'litz, zure garrira-
ko egoki ta asko litzake neskatoon garri-
koetarik bat. Ez ete zara zu emakumerik
nagusiena? Zu zara emen sendoena.

ERREGE-AL.—Zer gura dok, yaun? Zer gura
dok?

KIRT.—Biron yaunagandiko idazki bat dakat
Errosaline Andera dalakoarentzako.

ERREGE-AL.—Ba! ekak ire idazki ori, ekak;
nire adiskide on dok a: alde egik apur bat,
ekarla on orrek. —Boyet, ba-dakik ik oka-
lea zatitzen: idigik ollar irendu au (14).

(14) Shakespears'n aldiari Ingelandarrak,
txantxetan, "ollar irendu" deitzen eben idaz-
kia.

BOY.—Zure agindura nagotsu.— Okerreko lekura dator idazki au, ezta emengo inorenzatzat; Yagobetxu'ri idatzia da.

ERREGE-AL.—Irakurri egingo dogu, bai orixe: ausi egik idazkiaren argizagizko ikurratza, ta entzun zuotariko bakotzak.

BOY.—(Ba-dirakur) "Zerua-arren, eder zara ezpai bagarik; egia da lirain zareala; egia bera, maitagarri zareala. Eder baño ederrago, zoragarri baño zoragarriago, egia bera baño be egiazkoago: erruki zakioz zure bendeko gizagurenari! "Kaphetua" errege eskuzabal eta argi-argiak "Zenelophon" oker eta agiri-agirian beartsuagan yosi ebazan bere begiak; eta ak bai ba-eban biderik arako "veni, vidi, vici" esateko; eta orrako ori erriaren izkuntzan txatalka esateko, --erri-izkuntzaren zirtzil eta ilun!—zera, etorri zan a, ikusi eban ak, eta buru urten zan: etorri zan, bat; ikusi eban, bi; eta buru urten zan, iru. Nor etorri zan? Erregea: zegaitik etorri zan? Ikusteko; zegaitik ikusi eban? Buru urteko, benderatzeko: nogana etorri zan? Eskekoagana: zer ikusi eban? Eskekoa: nor benderatu eban ak? Eskekoa. Gurenda, garaite da ondorena; zeñen aldeko gurenda? Erregearen aldeko: aberasturik gelditzen da atxilotua; zeñen alderako? Eskekoaren alderako: ezkontzea da orrako orren azkena: zeñen alderako? Erregeren alderako, ala?... Bien alderako, naiz bitan batentzako. Ni nozu errege, alkarren alderatzeak ori eskatzen dau-ta; zu, eskeko, zure beeko izateak ori eskatzen dau-ta. Neuk aginduko ete dot zure maitasunean? Alik ba-dot orretarako: beartu egingo ete zaudaz ni maite nagizun? Ba-dot orretarako be alik: eskatu egingo ete dautsut maitasuna? Orixe egingo dot. Zer aruko ete dozu zure sorkien ordez? Yantziaz: zer, izengoitiien ordez? Izengoitiak: zer zeure ordez? Neu. Zure erantzunaren begira onan naçon-artean zure oñetan loitzen dodaz nire ezpanak, zure irudian, nire begiak, eta zure atal guztietan, nire biotza.

Maitasun-arloko asmorik onenagaz, zure DON ADRIANO DE ARMADO". Ba-dantzuru zuk, aren goakaitzat zagozan bildots orrek, Nemea'ko leia zuri orroaka; apal etzan zakioz aren errege-oñetan, eta ak, zu iruntsi bagarik, zukin olgetara yoko dau: baña gogor egin ba'dagizu, zer izango da zurea? Aren asarrearen yanari, aren elzategirako yaki ta biryaki.

ERREGE-AL.—Nongo antzar-lumak idatzi dau idazki au? Zein axe-orratzek? Zein axeollarek? Entzun ete dozu eguño olangorik?

BOY.—Oker ete oker ezpa'nago, ezagun yat idazkera ori.

ERREGE-AL.—Oroimen txarra dozu ostantxean, lenago be olangorik irakurri izan ba'dozu.

BOY.—Españar bat yatsu onako Armado au, emen errege-yauregian bizi dan Españar bat; arropuz, txoriburu, irudimen uts, Monar-ko bat, erregeri ta aren idazti-lagunai astia igaroazoten dautsena.

ERREGE-AL.—I, txotxo, itz bat: nok emon dausk idazki au?

KIRT.—Esan dautsut: nire yaunak.

ERREGE-AL.—Nori emoteko intzan?

KIRT.—Nire andeari, nire yaunagandik.

ERREGE-AL.—Nor yaungandik nor anderari?

KIRT.—Nire yaun Biron'gandik, nire ugazaba onagandik, Errosaline deretxon Pantze'ko anderarentzako.

ERREGE-AL.—Okerreko lekura ekarri dok idazki au.— Tira, yaunak, alde dagigun emendik. Auto, maite, artuin au; beste egunen baten etorriko don iretzakoa. (ERREGE-ALABEAK eta Yarraigokoak alde).

BOY.—Nor ete da zure eizean dabilena? Nor?

ERROS.—Neuk esan bearko ete dautsut, ala?

BOY.—Bai, nire edertasun-ontzi orrek.

ERROS.—Ba! arrambela daroan No ori. Politoz zirrist egin dot, gero!

BOY.—Adardun abereak erailten doa nire anderea; baña zu ezkondu ba'zadiz, eskegi nagiela, urte atan adarrik agertu ezpa'dadi. Politoz zirrist egin dot nik be, ezta?

ERROS.—Tira ba, ni naz eizean dabilena.

BOY.—Eta nor da zure oreina? Nor zure basautza?

ERROS.—Zeu, adarretatik autu ba'dagigu: urreratu zakidaz. Politoz be politoz zirrist egin da!...

MIR.—Zu oraindik eztaboidaka zabilzan artean, bekanean yo zauz orrek, Boyet.

BOY.—Bera be yo dot beragoan: ez ete dot yo orain?

ERROS.—Esakune zar bat ekarriko ete dautsut, Pantze'ko Errege Pepin oraindik mutiko zanean gizon egina zan esakune zar bat, orrako "yo dot" eri dagokona?

BOY.—Ori bestean zar dan beste bategaz erantzun neiketsu nik, Biritani'ko Genobebere Erregea oraindik neskatu baño etzanean emakume egina zanagaz, orrako "yo dot" eri dagokona gazkoagaz. (Abestuaz).

ERROS.—"Zuk ezin dozu yo, ezin yo ezin yo. Ezin dozu yo, ezin, ene gizon on."

BOY.— Nik ezin ba'dot, ezin ba'dot, ezin ba'dot.

Ezin ba'dot, bestek yo daike, bestek daike yo. (ERROS.'ek eta KAT.'ek alde).

KIRT.—Atsegingarri be atsegingarri, bene-benetan! Biak yo dabe elburu-elburuan.

MIR.—Elburua egin-eginean baño egineanago yota! biak yo dabe-ta.

BOY.—Elburua, marra! ene! adi zakioz elburu orri! aor elburua yota, diño nire andreak! marratxo bat imini dagigun elburuan, axe yo dagigun, al ba'da.

MIR.—Urrindu egin zara elburutik! eztozu imini bere lekuan zure eskua.

KIRT.—Bai, izan be, urrerago yaurtin bear dau, ostantxean bein be eztau yoko elburua.

BOY.—Bere lekuan ezpa'dago nire eskua, ba-ledike irea an egotea.

KIRT.—Orduan yoko dau egin-eginean, orratzari tarrat eraginaz.

MIR.—Tira, tira, zakar itz egiten dozue, loirik dagoz zuon ezpanak.

KIRT.—Gatxegi da zuretzako No ori arranbelketan; bolaka egiteko eupada egiozu.

BOY.—Latzegi yagok bolalekua; gau on, ene mosollo on ori. (BOYET'ek eta MIREN'ek alde).

KIRT.—Nire gogo-a-arren, ori bai ba-da kirten lango kirtena! ergel uts! Ene Yaungoikoa, ene Yaungoikoa! zapal-zapal egin doqu ori anderok eta nik? Nire sinistea-arren, txantxa bikain be bikain izan dira gureak! Erriaren buru-bizkortasuna bai bada samur, orren berezko, orren lizun, orren laban, orren egoki datorrenean! Armado alde batetik... ene! au bai ba-da txeretan iñondiko gizon! Ikusteko da, gero, a emakumeren aurrean yoaten, emakumearen axetallua berak daroala! Ikusteko da zelan eskuan mun egiten dautsan! eta ak bai ezlikiro zin egiten dautsa!... eta aren esku-mutila beste aldetik, buru-argitasun eskutada a! Ene! Zeruok, a da izateko bikotea! Axa, axa! (Gedarrak baruan. Arin-ga urteten da Kirten).

II AGERLEKU.—Baso bereziko beste arlo.

OLOPERNA, NATANEL yauna, ta MOTEL aurrera.

NAT.—Begiragarri da, benetan, yolas au, bere alde dau yakinkidetzat onaren autorra be-ta.

OLOP.—"Sanguis" etan... odoletan egon da oreina, dakizunez; eta elduta egon da, mada-ri urtsua legetxe, eguratsaren, odeien, ortzearen, zeruaren, "coelo"ren belarririk dingilizka dagon pitxia legetxe, len zugatze-tik dingilizka egon, eta baso-sagarra lez bertatik "terra"ren azalera, lurrera, azpira, azpiko lurrera yalten dana legetxe.

NAT.—Benetan, Oloperna irakasla, ganoraz erabili dozuz izengoitiok, bikain aldaturik, gitxienez be yakituni dagokionez! Baña, yaun, seguru be seguru nago ederrenetarik izan dala orein ori.

OLOP.—Natanel yaun, "haud credo".

MOT.—Ezta izan "haud credo"rik, urte biko giberri baño.

OLOP.—Ostera-esate orren oker be oker! Orraitiño be, zearretara ukutzerik agiri da or, "in via" ba'litz legetxe, azalpen-bidez esanta, erantzun "facere" (egiteko, edo obeto esateko, "ostentare" egiteko, bere burua erakusteko; bere era zakar, latz, ezibako, iñausibako, edo obeto esateko, ikasibako, naiz are obeto esateko, burukerizko ereari

dagokionez... oreintzat artzeko nire "haud credo".

MOT.—Nik esan dodana da, oreina ezta "haud credo"rik; urte biko giberri dala baño.

OLOP.—Birritan umekeri zakar, "bis coctus"! Ez-yakinkeri mamu ori, ik bai ba-dok mosu zakarra!

NAT.—Yaun, orrek eztau yan eguño idaztietan aurkitzen dan mizkekeririk; orrek eztau yan papelik, eztau egin papelyate dala-lakorik; eztau edan orrek idazkurik; ezta-go ornidurik eta beterik orren adimena; abere baño etxatsu ori, oartzerik soin-atilik zakarrenetan bakarrik dauena; gure aurrean olango landara antzurik ikusi ba' dagigu, gu esker oneko izan gadizan, guk gauzak etsi ta eurai oartu al gakiezalako ta olangok sortu ezin dauena sortu al dogulako. Eta izan be, niri egoki elitxakidan legetxe ergel, bereztebako naiz zoro izaterik, olantxe, kirten ori be kirten litzake irakastegira ibili-arren: baña "omne bene" diñot nik, lenagoko aita baten eretxiko nazala: "Euriagaitik eztautse ardura batzui, axerik yasan ezinarren".

MOT.—Biok zarie zuok idazti-gizon; baña zuon yakituri ta guzti be, ezetz igarri nor zan ile beteko Kain yaio zanean, orain bost asteko be eztaua.

OLOP.—Ditine (Dictynna) dok orrako ori, Motel gizon on; Ditine dok, Motel gizon on.
MOT.—Zer da Ditine dalako ori?

NAT.—Poibe'n, iretargiaren, illargiaren izen-goitia.

OLOP.—Ile beteko zoran iretargia, Adan bape zarrago ezanean, eta etzooan eltzen bost asterak, Adan bost ogeiko zanean: izenak aldatu-arren, bat bera dok izana.

MOT.—Egia da izan be: uzana beti uzan.

OLOP.—Lagun izango al yakok Yaungoikoa ire geitasunari: nik diñodana dok izana bera dala.

MOT.—Eta nik diñodana da uzana beti dala uzan; eta izan be, iretargiak estau bein be ile bete baño; eta, orrez ganera, errege-alabeak erail dauen oreina urte biko giberri dala.

OLOP.—Natanel yaun, oraintxe bereon asmatuko oreinaren eriotzeagazko ilobi-idazkunea entzun gura ete dozu? Eta ez-yakin onen ederragaitik, errege-alabeak erail dauen oreinari giberri deituko dautsat.

NAT.—"Perge", Oloperna irakasla on, "perge", baño ez al dozu esango zakarkeririk.

OLOP.—Aldakuntza batzuk egin dodaz itzetan, errezasunaren agiri da orreko ori-ta.

Errege-alaba erale-eraleak alderik alde zalatu ta giberri bat erail dau:

"Sore" deretxoe batzuk, baño ezta "sore" rik, zauriz "sore" tu-arte (15).

Ausika eragoioen txakurrak; erantsi L bat "sore" ri, ta orduan "sorel" ek yauzi egiten dau sastrakatik;

Orein giberriak, "sore" k, naiz "sorel" ek; oioka asten da yentea.

"Sore" "sore" ba'da, "sore" ri L erantsiazkero, berrogei ta amar "sore" doguz; Zori txarreko L ori!

"Sore" bategaz eun egiten dodaz, beste L bat erantsiaz bakarrik.

NAT.—Zure buruargitasunaren bakan!

MOT.—Erpa ba'da buru-argitasuna, begira zelan erpaka egiten dauen bere buru-argitasunagaz (16).

OLOP.—Geitasun au dot emaitzat, bakun be bakun; iñondiko gogo zoro, eraz betea, eraz, antzez, irudiz, zerez, gogaiz, otuketaz, igikune, irabiaketaz betea; oroimenaren sabeltxoan sortzen dira onakook, "pia mater" en sabelean bazkatzen dira, eta eretia umatu dadinean datoz argitara. Baña emaitz au buru-argitasun zorrotzekoai yake on, eta esker oneko natxako buru-argitasun orri.

NAT.—Yaun, eskerrak dagiodaz Yaungoikoari zure aldetik, eta nire eleizarrak be egingo al dautsoez, arein semeak yaqola ta bide-

erakusla onik ba-dabe, ba, zugan eta arein alabak aurrerakada aundiak egiten dabez zure bendean; urkide on zauguz zu.

OLOP.—"Mehercle", burutsu ta asmotsu ba' dira arein semeak, eztabe izango iñok be irakatsi-bearrik; arein alabak gei ba'dira, neuk emongo dautset buru-argitasuna, ta gaitasuna erabiliazoko dautset; baño "vir sapit qui pauce loquitur" (17); emakumegogoa dogu or guri agurka.

YAGOBETXU ta KIRTEN aurrera.

YAG.—Egun on, aita abade yaun.

OLOP.—Aita abade... bata, ala bestea aita-go?

KIRT.—Andera Miren-arren, bietarik upel-antzekoago dana, ume-irakasla.

OLOP.—Upel-zulatzallearen antzekoago dana bai! mokilaren buru-argitasuna dauenarena lango urteera argi orixe; surik asko suarriarentzako, pitxirik asko kirtententzako; bulko polita orixe; ori ondo.

YAG.—Abade yaun, idazki au irakurteko lain ederrik egingo ete daustazu? Kirten'ek emon daut, eta Armado'gandiko ei da; irakurri egidazu, arren.

OLOP.—"Fauste, precor gelida quando pecus omne sub umbra ruminat" (18)..., eta abar. Ba! Mantoba'tar zar on ori! Itzaz itz egin negike nik, bidaztiak Binixa'z itz egin da-roenez!

Vinegia, Vinegia

Chi non te vede, non te pregia (19).

Mantoba'tar zar ori! Mantoba'tar zar ori!

(15) "Sore" itzak, Ingelanderaz, "mindu, minberatu, minbera, zauritu" esan-gurak dauz; "sorel", naiz, "Sorrel" ek, barriz "iru urteko orein-giberri, baño .sorel" en ordez errian batzuk "sore" be erabilten eben, urrean; ortik dator emen gure idazle zimardikazale, edo itz-yokozaleak darabilen itz-yokoa.

(16) "Talent" da Ingelanderaz buru-argitasuna, baño Motel'ek itz orren ordez "talon" aitu dau, eta itz onek ollarrak bere zangoaren atzealdean dauen orkatz edo erpa zorrotza esan gura dau. Ba-leiteke aldi ataka Ingelanderaz itz biak otsez bardin izatea, idatziz biak bardin izan ez-arren.

(17) "Itz-urri da gizon yakintsua".

(18) "Pausta, arren, abere guztiak keizpe ozkiritan ausmer daragoioenean...". Iz-neurtuko eztria, gero, Birgili'renak, Mantoba'ko Yon Bautista karmeldar olerkariarenak baño.

(19) "Binixa, Binixa, etzauz goratzen ikusi etzauzanek".

aituten abenetatik nok ez au maite? Ut, re, sol, la, mi, fa... Zure eder etsiaz, yaun, zer dakar idazki onek? Naiz, obeto esateko, gogoar-arren, izneurtuak doguz emen, ala?

NAT.—Bai, yaun, eta yakintsurenak alan be.

OLOP.—Entzun eragin egidazu aapaldi bat, olerki bat; "lege, domine" (20).

NAT.—(Ba-dirakur)

Zinausletu ba'nagi maitasunak, nolan zin egingo nik, maite dodala?

Ene! bein be ezin irauin zinek, edertasunari zin egin ezik!

Neutzako zin-ausle izan-arren, zintzo izango natxatsu zuri;

Areiz langoxe gogaketok nitzako, mimenak legetxe zuga itzuliak.

Ikasketeak bere bidea itxita, zure begiak yakoz bere idazti;

Orreitan dagoz, ba, antzeak billatzen dauzan atsegin guztiak:

Yakitea ba'da ikastearen elburu, asko izango da zu ezagutzea:

Zu ondo goratu zagikezan miña da yakintsu be yakintsu;

Ez-yakitun uts da zu, arritzeka, ikusi zagi-kezan gogoar...

Beraz, zelanbait goragarri ni, zure soinkiak arritzen nabelako...

Yupiter'en tximista zure begia, aren ostots ikaragarri zure abotsa,

Asarre ezitanean, eresi ta gar gozo dan zure abotsa.

Zerutar zara-ta, asketsi, arren, maite orrek, irain au,

Zerutarren gorapena onango lureko miñez dagidalako.

OLOP.—Dei larririk non egin ezta kizu zuket, gatz guztia galdu dau zuk irakurriak: itxi egidazu abestitxo arakatzen eta aztertzen. Ondo doa emen itz-itxatalen zenbakia; baña olerkariaren txarrotasun, errez-tasun, eta urrezko ereskidetasunaz... "caret" ezta agiri olangorik (21). Obidi Nason yatsun orretan gizon; eta zegaitik zan, izan be, Naso (22), irudimenaren lora usaintsuen sundea artu, ta asmamenaren eraginari men egiten eutsalako baño? Utsa yatsu "imitari" (23); txakurrak be egiten dau bere ugazabak egiten dauena, ma-xangoak, bere yagolearena, zaldi unatuak, bere ganekoarena. Baña neskato garbi, zuri zuzendu ete dautsue onako au?

YAG.—Bai, yaun, Biron yaun dalako bategan-dik, erbestetar erregenoaren aundiki bate-gandik (24).

OLOP.—Begirakune bat egingo dautsat zu-zenbideari.

"Edurra aña zuri dan Andera Erro-saline eder-ederraren eskurako".

Barriro dakusagun idazkiaren esan-gurea, idatzi dauenak idatzi dautsanari ze izen emoten dautsan ikusteko: "Zure Anderata-sunaren, zeuk zer-gurarako, BIRON". Natanel yaun, erregekingo zinkidetuatarik bat yatsu Biron au, eta emen idazki bat eratu ta ondu dau ak erbestetar erregenoaren yarraigoko batentzako, eta alanbearrez, naiz aurreak artu-guraz, okerreko bidea artu dau idazki onek.—Zoaz txaka-txaka, pol-it ori; erregeren errege-eskuratu egizu idazki au; ba-ledike aregazkorik izatea idazki onek, eta ez gitxi be. Ez galdu astirik aiko-maikotan; parkatzen dautsut olango zere-kazkoa: agur.

YAG.—Kirten on, zatoz zu nikin.— Yaun, Yaungoikoak gordeko al dautsu bizia!

KIRT.—Zukin noa neu be, neskato. (YAG.'k eta KIRT.'ek alde).

NAT.—Yaun, Yaungoikoaren bildurra-arren, orrako ori yaungoikozaletasunaren arauz be arauz egin dozu; eta aita batek diño...

OLOP.—Yaun, ez egidazu aiatatu aitarenik; bildur izan bear dautsadanari dautsat nik bildur. Baña ostera be izneurtuetara yoteko, gogoko izan ete yatsuz, Natanel yaun?

NAT.—Itzalez ederto dagoz idatzita.

OLOP.—Nire ikasleatariko baten aitarenean bazkaltzeko naz gaur; eta an, bazkalau-rrerik maia onetsi ba' dagizu, len esandako ume edo ikaslearen gurasoakazko dodan berarizko eskubidez, neuk artuko dot zuri "ben venutto" (25) emoteko ardurea; an erakut-siko dautsut orrako izneurtuak ez-yakin ez-yakin, olerki-sundabako, buru-argi-aldi-bako, ta asmamenbako dirala; lagun izan zakidez, arren.

NAT.—Bai, eta eskerrik asko; ganera, atso-tzak diñonez, lagunak dira bizia zori ontsu egiten dabena.

(20) "Irakurri, yaun".

(21) "Caret" = ezta.

(22) Sur-aundi esan gura dau "Naso" k.

(23) "Besterena egin, iruditu".

(24) Uts egin dau emen Shakespeare'k; beste bein yatzoten da arako "Quandoque ba-nus dormitat Homerus"; Biron ezta erbestetar erregenoaren yarraigorik, Naparroa'ko erre-gearen yarraigoko baño.

(25) "Ondo etorria".

OLOP.—Eta, seguru be seguru, egi utsa da atsolitzak diñona. (MOTEL'eri) Yaun, dei egiten daukat iri be; eztaustak esango ezetzik, gero: "pauca verba" (26). Aurre-

ra! eizean daragoioe aiton-semeak, eta gure gogoko atsedenean egongo gara gu. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--Baso bereziko beste arlo.

BIRON aurrera, ingi edo papel bategaz.

BIR.—Orein-eizean daragoio erregek; neure buruaren eizean nabil ni; sareta imini dabe aik; uitatik urten-ezinik nabil ni... loitzen dauen uitatik; loitu! itz au bai zantzar. Tira ba, yezarri adi, naibage ori! ergelak ori esan ebala diñoe, ba, eta olan diñot nik be, nik zoro, ergel onek. Berez datorren ondorena da au, au buru-bizkortasuna! Yaungoikoa-arren! arako Ajax bestean zoro da maitasun au: erail egiten dauz ardiak; erail egiten nau, ni ardi au: amen beste zer bat ederto asmauta nire alderako! Eztot maite izango; eskegi nagie, maite ba'dagiti; nire sinistea-arren, ezlot maite izango. Ene! baña No aren begiarena... argi au-arren, No aren begiagaitik ezpa'litiz, eneuke maite izango a; aren begiagaitik? Aren begi biakaitik. Tira ba, guzorra esan baño besterik ezto egiten ludi onetan, eta aqo bete guzur esan be. Zerua-arren, maite dot nik, eta izneurtuak egiten eta gotilun egoten irakatsi daust maitasunak; eta eginda dagoz emen nire izneurtu batzuk, eta emen dago nire gotilunzeria be. Tira ba, lendik dau nire amalauko bat No ak; ergelak eroan dau, zoroak bidali dau, eta andereak dau; ergel maite ori! zoro are maiteago ori! anderarik maiteen ori! Ludia-arren, eleuskit bilderrik be ardura beste irurak be maitemindurik ba'legoz. Emen dator bat ingi bategaz; intziri ta txoten egiteko eskerrik emongo al dauza Yaungoikoa. (Zugatzer a igoten da).

ERREGE aurrera, ingi bategaz.

ERREGE.—Nirearena, nirearena!

BIR.—(Bere kitean) Zauriturik ori be, zerua-arren! Aurrera, Kupida maite; ire txori-be-runbilez ezkerreko itzipean yota lurreratu dok ik ori; ixilkizunen batzuk, seguru be!

ERREGE.—(Ba-dirakur)

Olango mosu gozorik urrezko eguzkiak ez emoten

Larrosa-ganeko goxeko iñontz-tantana be. Zure begi-argi-brintzak, nire mosuak bera datozen

Gau-inontzai emoten dauksena langorik:

Zidarrezko ilargiak be eztaun egiten uretan

Nire negar baktxean zure arpegiak egiten dauen

Argiaren erdirik be, ez alango erdirik be, Ak ur gardenetan argi egin-arren.

Eztago tantanik, bere burdian etzaroazanik;

Olan zoaz zu burdian garaile nire naibagean.

Begira egizuz nire negar-uginak, eta aik Erakutsiko dabe zure aintza nire oñazeen; Baña ez maite zeure burua; orduan izango yatsuz

Ispillu nire negarrak, eta negar eraginago egingo daustazu.

Erregenoen erregeno ori, zu bai ba-zara gallen!

Ustek uste baño, min ilkorrek azal al baño gallenago.

Zelan yakiteko No ak nire naibageak? Boa lurrera ingi au;

Orri maitagarriok, itzal egin zorakeriari. Nor dator emen? (Bazartu egiten da).

LONGABIL aurrera, ingi edo papel bategaz.

Ba! Longabil; eta irakurten! entzun, belarri.

BIR.—(Bere kitean) Or agiri dok beste zoro bat, ire antzean!

LONG.—Nirearena, nirearena! ausi egin dot zina.

BIR.—(Bere kitean) Ba! zin-ausle lez dator, ingiak dakazala.

ERREGE.—(Bere kitean) Maitamindurik, seguru be seguru: laguntza lango laguntzea lotsarian!

BIR.—(Bere kitean) Mozkorti maite dau mozkorriak.

LONG.—Onan zin-ausle egin danik lenengoa ete naz?

BIR.—(Bere kitean) Nasaitu engiket nik; bi baño eztozak ire aurretikoak, nik dakidala: ik osotzen dok giza-irukotxa, i az gure batzarraren okolu-aria, maitasunaren Tyburn (27) dalakoa, gure ergelkeria andik dilin-dalan dagona.

(26) "Itz gitxi".

(27) Elixabete erregenoaren aldiaren eta, beraz, Shakespeare'nean, Tyburn eretxon tokian eskegiten ebezan orretarako epairik izaten ebenak.

LONG.—Miren maite, nire maitasunaren inberadoreno ori! bildur naz lerro saskiltra-ketsok eztabela indarririk zuri eragiteko... Urratu egingo dodaz izneurtuok, eta yarei idatzi.

BIR.—(Bere kitean) Ba! izneurtuak eztira besterik Kupida lotsabakoaren parka nasaien lokarri baño; parka-dario dagola.

LONG.—Beronek egingo dau beronena... (Ba-dirakur amalaukoa)

Ez ete dau zure begiaren argi-bideak, Orren aurka munduko erakusketarik gauz eztanak,

Nire biotza etsi, zin-auste ustel onetarako? Zugañatik ausiriko zinik ezta zigogarrri. Emakumegazko zin egin neban nik, ez zuzgako;

Lurreko maitasunazko zan nire zina, zeruko da zurea:

Zure ederra irabazirik, osaturik da nire zoritxarra.

Ats baño eztira zinak, eta lurrun uts da atsa:

Orrazkero zu, eguzki eder, nire lurrari argi dagiozun ori,

Zuk ateraten daustazu zin-lurrun au; zuk dozu orain:

Ausi ba'dadi, nik eztoz orren errurik:

Nik ausi ba'dagit, nongo ergelik ezta zurrik asko

Zoriontegia irabazte-arren zin austeko?

BIR.—(Bere kitean) Gibela da or daragoiona, aragia yainkotzen dauena, antzar gaztea yainkonotzen dauena: yainko-aizunketa uts. Yaungoikoak arteztuko al gauz, Yaungoikoak arteztuko al gauz! Bidetik urrin gara.

LONG.—Noren bitartez bidaliko ete dot au?—Lagunak datoz! alde dagidan emendik (Bazartu egiten da).

BIR.—(Bere kitean) Ostondu! Ostondu! ume-olgeta zar da oston-ostekea. Erdi-yainko legetxe nago ni emen goian yezarrita, eta adi-adi nagoke ergel zori txarrekoen ixillkinuzai. Zorro geiago doa errotara! Zeruko, betetzera doaz nire gurariak!

DUMEN aurrera, ingi bategaz.

Dumen antzaldaturik: lau ollagor mai-ontzi baten!

DUM.—Yainkozko be yainkozko Katarinetxu!

BIR.—(Bere kitean) ergel biratzi be biratzi ori!

DUM.—Zerrua-arren, begi ilkorren arrigarrri ori!

BIR.—(Bere kitean) Lurra-arren, soindun baño eztok No ori: guzurra diñok ik or.

DUM.—Zakar da anbarra, aren anbar-uleen aldean.

BIR.—(Bere kitean) Itzala egin be egin dok beleari anbar-koloreko dala esateaz!

DUM.—Izaia bestean artez ori!

BIR.—(Bere kitean) Makur bai ba-dok, gero; konkorra yok bizkarrean.

DUM.—Eguna baxen eder ori!

BIR.—(Bere kitean) Bai, egun batzuk langoxe: eguzkibako egunak langoxe.

DUM.—Iritxirik al neu nire guraria!

LONG.—(Bere kitean) Eta nik nirea!

ERREGE. (Bere kitean) Eta nik be nirea, ene Yaungoiko on!

BIR.—(Bere kitean) Olantxe, olantxe al neu nik be nirea: ez ete da itz on onako au?

DUM.—Aztu egin gura neuke No a; baño, sukarra legetxe, nire odolaren bakaldun da a, eta oroitu dagidala gura dau.

BIR.—(Bere kitean) Ire odoleko sukar? Ba, epai bat egik, eta katillura artu egik: oker aitute orren ezti!

DUM.—Bein barrero irakurriko dot idatzi dodan oda au.

BIR.—(Bere kitean) Beste bein oartuko natzako maitasunak buru-argitasuna aldatzeari.

DUM.—(Ba-dirakur)

Bein baten..., egunaren zori txarreko!

Bere iltzat beti Orrila dauen Maitasunak

Egurats mizketan kuika ikusi eban

Lora bat, andik zear bera igaro-ala:

Aren orri apitzak zear, iñok ikusteka,

Bidea egin-ezinik eztau, eztau axeak;

Il-aginik egoan maitaleak zeruko axe

Izan gura eban berak, urduri ta larri.

Aide, diño, putz egin legie ire mosuak:

Aide, i lez gurendari ni be al nintzok!

Baña, ai ene! zin egina dok nire eskua

Ire arantzatik i iñoz be ez erausteko:

Gaztentzako ez-egoki dan zinez, ai ene!

Zer gozoki erausteko ain egoki dan gaztentzako.

Enagizu etsi obentizat zugaitik.

Zugaitik zinik nik ausi ba'dagit:

Yupiter'ek berak zin egingo leuke

Zugaitik, Etiopi'tar baño eztaba Yune;

Eta Yupiter'tzat bere burua ukatuko

Leuke, zure maitasuna-arren ilkorturik...

Au bidaliko dautsat, eta zerbait agiriago-

rik, lauagorik be bai, nire maitasun zintzoak

bere barau-aldian dauen mina iragarteko.

Ene! Errege, Biron, eta Longabil be maita-

mindurik al legoz! Iñoren okerra gura dot

nik, okerrerako eredurik izateko! Besteen

okerrak kendu ta ezabatuko leuke nire arpe-

gitik zin-auslaren atza; eta, izan be, ñor be ezta errudun, guztiak burutik eginda dagozanean.

LONG.—(Aurreratu-ala) Dumen, maitasunetik urrin yagok ire maitasuna, maitasunaren naibagean lagunak gura dozak-eta; zurbildu egingo az i, bear ba'da, baña gorritu egingo nintzakek ni, bai orixe, iñok olango lo-zorroan otoz-otoan goatuko ba' nindu.

ERREGE.—Aurreratu-ala) Tira ba, gorritu adi i be; iri yazoa orreri yazoa langoxe dok-eta; asarre dagoik ik orri, eure obena orrena lango bi izanik; ik eztok maite Miren; Longabil'ek etxok ondu eguño amalaukorik aren alde; bere besorik be etxok imini eguño bular-ganean, besoak aume eginda, biotzari bere lekuan eusteko; emen sasitzan, txarakapean ostondu-ostondurik egon nok, eta zuoi bioi oartu natxatzue, eta biokaitik gorritu izan nok. Entzun dodaz zuon izneurtu errudunak, oartu natxake zuon mosu ta aieruaci; entzun dodaz zuoi eriotseuan intziriak, ondo yabetu naz zuon biotzaldiaz; ai ene! esaten izan dau bataik; Yupiter ori! gedar egiten izan dau besteak; urregorizko ziran batarenaren uleak, leiarra bestean garden bestearenaren begiak; (LONGABIL'eri) gerturik egon az i lurreko zorientegiagaitik ire zinak austeko, ire sinisteari agur egiteko; (DUMEN'eri) eta ire maitea-arren, Yupiter'ek be ausiko ei leuke zinik. Zer esango yok Biron'ek, orren gogatsu egindako zina ausi dozuela entzun dagianean? Ak bai egingo dauzala barre ta irri lango irri ta barreak! ak bai egotziko dauzala erruki bagarik bere zipladak! ak bai egingo dauela gurendaketa lango gurendaketea, ak bai egingo dau ikutika, ta barrearen barreak egingo dautsazala zuok eginari! eguño ikusi izan dodan ondasuntzeagaitik be enueke gurako ak olan-gorik yakin dagiala nire bitartez.

BIR. Agertu egingo naz orain azaluskierari txibita-otsean narrua berotzeko. (Yatsi egiten da zugatzetik). Ene! ene yaun on ori, parkatu, asketsi nagizu, arren. Biotz-on orrek, ze onberatasun dozu zuk, mamarrook olan txarresteko, maite dabelako, zeu izan maitamindurik maitaminduena-ta? Eztira burdirik zeure begiak; ezta agiri zure negarretan urli errege-alabarik; zer inguingarri ta itzal da-ta, zuk eztozu izan gura zin-auslerik; ba, ba! bertsolariak bakarrik dira amalaukozale. Baña ez ete zara lotsa, gero? Areago, irurok ez ete zagoze lotsaturik,

onan otoz-otoan goatu zaudazalako? Bestearen begiko bilderra idoro dozu zuk; bilderra ikusi dau erregek zuon begietan; baña nik abea dakust zuon iruron begietan. Ene! nik ikusi izan dodan ikuskizunaren erregel; intziri, txoten, naibage, ta lorrezko ikuskizun! nirearena! nik bai izan dot epe lango epea, errege bat eltxoturik ikusteko yezarrita egon nazan artean! Erkul aundia ziba-yokoan ikusteko, eta Salomon sarkona arin-arin yanzea egiten, Nestor mutikoakin apo-apoka yokatzen, eta Timon eslea barrreka, uskerietan astia emoten! Ene, ene! esaidak, Dumen on, non yagok ire naibage-bidea? Eta, Longabil maitagarri, non dok ire lor-bidea? Eta non nire yaunarena? Guztiok dozue biotza mindurik... betor edari nasaigarrien bat, betor!

ERREGE.—Zorrotzegi, mingotsegi dok ire adarra yotea. Onan salaturik gagozak ire begietan, ala?

BIR.—Neuk saldu dot nire burua, ez zuok; neuk, zindo nazan onek; neuk, zin-austea obentzat dodan onek, neuk ausi dot neuk egindako zina; neuk saldu dot nire burua, iretargiaren antzeko iñondiko aldakorkeridun lagunakin batu izanagaz. Noz ikusiko nozue ni izneurtuz ezer idazten? Naiz, Yone' gaitik urrumeka ta negarrez? Naiz, nire burua apaintzen unetxorik galtzen? Noz ikusiko nozue eskurik, oñik, mosurik, begirik, ibilkerarik, bekokirik, bularrik, garririk, zangorik, azpegirik goratzen?

ERREGE.—Geldi or! Nora oa orren arin? Gizon zindo, ala lapur az orren arin, lauon-ean yoateko?

BIR.—Maitasunagandik igesi noa ni; maitamindu on orrek, itxi egidazu alde egiten.

YAGOBETXU ta KIRTEN aurrera.

YAG.—Yaungoikoak onetsiko al dau errege.

ERREGE. Ze emaitz dozu or?

KIRT.—Azpikeri segurua bat.

ERREGE.—Zetarako dator ona azpikeria?

KIRT.—Ezer egiteko ezator, yaun.

ERREGE.—Ezer galtzeko ta banatzeko be ezpa'yatok, yoan baño eztozue ik eta azpikeriak.

YAG.—Arren, yaun on, irakurri egizu idazki au; ba-dau goganbearrik gure abadeak, ba-dau ak susmo txarririk orretaz; azpikeri dala esan dau ak.

ERREGE.—Irakurri egik, Biron. (Idazkia emon-ala) Nogandik artu don?

YAG.—Kirten'gandik.

ERREGE.—Eta nogandik artu dok ik?

KIRT.—Dun Adramadio'gandik, Dun Adramadio'gandik.

ERREGE.—Onangorik! zer yazoten yak? Ze-gaitik urratu ta zeatzen dok?

BIR.—Yostallu da, ene yaun, yostallu; zuk, yaun orrek, eztozu zetan izan onako onen bildurrik.

LONG.—Asarratuazo egin dautso-ta, dantzugun zer dakarren.

DUM.—Biron'ena da idazkerea, eta amen bere izena. (Eragi egiten dauz txatalak)

BIR.—(KIRTEN'i) Ba! sasikume kirten ori, alango ori! ni lotsariz beteteko yaiio intzan i. Errudun naz, ene yaun, errudun; ba-dautort, ba dautort.

ERREGE.—Zer?

BIR.—Ni bear ninduzuela maikidetzat zuok iru ergelok; ori, beste ori, zu ene yaun ori, eta ni, gu laurok gara maitasunaren ziskuballa, ta iltea irabazi dogu. Ene! Bidali egizuz emendik entzuleok, bai, eta zeatza-go azalduko dautsut.

DUM.—Bikotx, batoi da orain zenbakia.

BIR.—Bai, izan be: lau gara-ta... Yoango ete dira galeperrok?

ERREGE.—Alde zuok, alde, ospa ortik.

KIRT.—Alde egin dagiala yente zindoak, eta azpiyalak gelditu dadizala. (KIRTEN'ek eta YAGOBETXU'k alde).

BIR.—Yaun maiteok, maitamindu maiteak, ene! alkar estutu dagigun besartean! Aragia ta odola izan leitekezan bestean yator gara; izkorarik eta izperarik izango dau itsasoak, zeruak erakusten dau bere arpegia; odol gaztek eztautsa menik egingo lege zarrerri: ezin gara okertu ta alboratu yaiotzatik dakargun bidetik; orrazkero, nai ta nai ez izan bear gendun zin-ause.

ERREGE.—Ostera! ik urratu ta zeaturiko le-rook ire maitasunik erakutsi izan yoeok, ala?

BIR.—Erakutsi dabenez itanduten dozu, ala? Zerutar Errosaline ikusi dagianek, zelan ez makurtzeko bendekoren bere burua, Indietako gizon zakar basatiak eguzkialdetik goxeko argi zoragarria agertu-ala makurtzen dauen legetxe? Eta, itsuturik, zelan mun ez egingo lur zakar-zirtzilari biotz esanginez? Arrano-begidun izan-arren be, zelan azartzeko No aren bekokiko zerua begiraten, aren nagusiagotzeak bertatik itsutu bagarik?

ERREGE.—Ze aperturik, ze oldarrek putz egin dauk orain? Nire maitea, irearen anderea, iretargi eder dok: irea eztok nirearen otseintzako izartxo bat baño, argirik osta-osta ikusten yakon izartxo baño.

BIR.—Orrazkero, nire begiak eztira begirik, eta ni be enaz Biron; ene! nire maitea-gaitik ezpa'litz, gautu egingo litzake eguna! nagusientasunik nagusienari dagokiozan edergarri ta apaingarri guztiak batzen dira aren mosuetan, saltegian legetxe; zeri- ederrena egiten dabe an zer ederrak: eztago an bearrak billatuazoten dauen ezereen ezik. Zeuk barrio artzeko, emoidazuz izkuntza lirainen pitxirik onenak... Ken, Ken, ken, alde, alde, itz-terbetasun irudituri ori! Ba! ezta No ak olangoren bearrrik: salgaiak dira saltzallearen gorapen-bearrrik dabenak; gorapenak baño goragoko da a; ganera, orbandu egiten dau gorapen urriegiak. Bost ogeiko negu igaro izan dauzan lekaro edo eremutar zimel-igarrak bere urteotatik berrogei ta amar galdu egingo leukez. No aren begiak begiratuaz: azalbarritu egiten dau edertasunik adina, yaioparri ba'litz legetxe, eta seaska-umetasuna damotse makuluai. Ene! eguzki da a, zer guztiak argitan iminten dauzana!

ERREGE. Zerua-arren, ebanoa bestean baltz dok ire maitea.

BIR.—Aren antzeko da ebanoa, ala? Itz orren yainkozko! Zori on litzake olango zurezko emaztea. Ene! nok artuko dau nire zina? Nondik da orretarako idaztia? Idaztia bear dot, zin egin al dagidan, edertasunik eza-gaz dagola edertasuna, No aren begian ikasi ezpa'dagi zelan begiratu; eztago arpegi ederrik, arena langoxe baltz-baltz ez pa'dadi.

ERREGE.—Usteaz besterako, orren usteaz besterako! Su-lezearen ezaugarri dok baltza, baitegiatako kolore, gauaren betozko; zerutiko dok, barriz, adertasunik gorengoa.

BIR.—Arinago ta errezagoz zirikatzen dabe txerrenak, argi-gogo edo angeru-antzez. Ene! baltzez apaundurik ba'dago nire andearen arpegia, antz ustelak, margoztatzeak, eta besteri artutako adatsak iruzur eginik, liluratuta gelditzen diran maitalekatiak negar eta ileta egiteko dago: eta orretarakoxe yaioa da a, baltza edertzeko. Aldatu egiten dabe aren apaingarriak oraingo gau:kotasuna; eta, izan be, margoztutakotzat artzen dabe egunotan kolore yatorra, berezkoa; eta orregaitik, berez mosu-gorri danak, ezetsi, arbuaitu eztagien, baztu egiten dau mosua, No aren antzeko izate-arren.

DUM.—Aren antzeko izate-arren ke-zulo garbitzalleak baztuten yoeok euren burua.

LONG.—Eta No aren aldiazkero, zurizat artzen yoguzak ikazginak eta ikaztunak.

ERREGE.—Eta gorengotzat yoeck Etiopi'tarrak euren margo ederra.

DUM.—Ilunak etxok bear argirik orain, iluna bera argi dok-eta.

BIR.—Zuan anderak etozak azarten bein be euritara urteten, euren margoak urak ezabatuko dautsezanaren bildurrez.

ERREGE.—On litxakiok ireari euritara urtetea; eta, izan be, yaun, ikuzibako arpegiatan be arena baño ederragorik idoroko yoaat gaur, egia argi ta garbi esateko.

BIR.—Erakutsiko dot eder dala No a, ostantxean erago ta erago ekingo dautsat azken-epaiegunaño, emenixe.

ERREGE.—Egun atan ez eunke idoroko No a baño txerren ikaragarriagorik.

DUM.—Eguño etxoat ikusi orren zer zirtzilik orren maite izan dauenik.

LONG.—Begira, aiko amen ire maitea; (Bere oskia erakusten dautso) ikusi nire oña ta No aren mosua.

BIR.—Ba! ire begizko azala ba'lebe etxartebideak, samurregi litzatekezak No aren begiak, olango biderik zapaltzeko be!

DUM.—Ez egik esan olango zantarkeririk! Olan izatekotan, No a dabilela, No aren oñetatik gorakoa be ikusi egingo leuke etxartebideak, No a buruz bera ba'lebil legetxe.

ERREGE.—Baña ortik zer? Ez ete gagoz guztiok maitamindurik?

BIR.—Ba! ezebez ori baño seguruagorik; eta, orrexegaitik, guztiok gara zin-ausle.

ERREGE.—Itxi, dagigun, beraz, bertanbera autu-mautu au: eta, Biron on, erakutsi egik orain legezko, sori dala gure maitaketea, ta eztozula urratu gure zintzotasuna.

DUM.—Bai, Andera Miren-arren, ori, ori...; zurikerien bat oker au zuritzeko.

LONG.—Ene! eredu yarraigarrien bat, zer egin yakiteko; marroen batzuk, berezte meen batzuk, txerrenari iruzur egiteko.

DUM.—Igorzkairan bat, zin-austearentzako.

BIR.—Ba! bear dogun baño geiagorik dogu olangotan! --Gogor egin, ba, zeuon buruoi, maitasunaren gudariok! gogoan erabili, lenengotan zetariko zin egin dozuen...: barau egingo zendueta... ikasiko zendueta... etzendueta ikusiko emakumerik: gaztetasunaren erregetar egotearen aurkako azpikeri argi ta garbia auxe. Esan ezpabere, baraurik egin ete daikezue? Gazteegi dira orretarako zuon biusturiak, eta gatxak sortzen dauz yan-ezak. Eta ikasteko zin egin dozuenean, yaunak, zuotarik bekotxak zin-ausi dau bere idaztia... Oraindik be gauz ete zarie ames egiteko, ausmer egiteko, eta etentzaka zer-

bait buruan erabilteko? Ba! etenbako ekitearen ekiteak geldotu ta gelditu egiten dau odol-bideak zear bizkor dabilen odola, ibil-

liaren ibiliak ibiltariaren indarrak eta kemena nekaten eta unatzen dauzan legetxe, Orain, emakumeri arpegira ez begiratzeazko, uko egin dautsazue begiak erabilteari, eta bai ikasteari be, zin eragin dautsuen ikasteari be: eta, izan be, begira-begira egote astun-gogaikarrian noz idoro izango zeukiezan zuk, ene yaun orrek, eta ik, eta ik, edertasunaren irakasleak euren begietan emoten dautsuezan beste izar argitsu? Buruan egoten yatsuz alperrik beste antze geldoak eta, beraz, egitez erabilten eztiralak, euren alegin astunetik nekez artzen dabe ezetariko utzarik; baña maitasuna, lenen emakumeren begietan ikasitako maitasuna, garaunen orma-barruan bakarrik ezta bizi, lengai guztien igikuneaz almen guztietara egiten dau bidea, gogaketeak baxen arin, eta almen baktzari berez dauena lango bi indar emoten dautsa, aren egikizun eta egin-bearretarako. Begiari berari be ikusmen bikainik erasten dautsa maitasunak: maitaminduaren begirakuneak itsutu egingo dautsu arranoa bera be: otsik ixilena be entzugo dautsu maitaminduaren belarriak, lapur susmotsuaren belarriak ezin entzun daben otsik be; ontzidun marraskillo samurraren adarrak baño be bigunago ta oarkorrago da maitaminduaren oarmena; maitaminduaren min dastakor-dastakorraren aldean zakar da Baka'ren ago-sapaia, onako au berez on-on izanarren: adoreazko, Erkul ez ete da maitasuna, oraindik be Esperideen zugatzen gainera igoten dana? Emakume-leoi (Sphinx) bestean burutsu; Apolon argiaren kitarrea bestean ezti ta eresitsu, Apolon beraren uleak arizat dauzan kitarrea bestean ezti ta eresitsu? Eta maitasunak iketan dara-goionean, aren ereskidetasunaren aldean yaunko guztien ago-otsak lo-gurea emoteko baño eztera. Eguño ezta azarri, ezta ausartu olerkaririk idazkortza ukutzen, idazteko, aurrezük bere idazkura maitasunaren intziriz nastu ta ondu bagarik: ene! orduan bai, orduan arritu-arriturik izten dauz uxo ta basatien belarriak be, eta apaltasun otzana sartzen dautse gogorkeritsuai. Emakumeen begietatik atera dot nik irakaskizun au: oraindik be Pormeteu'ren dauz yatorraren txatarrak urteten dira emakumeen begietatik, Emakumeen begiak dira mundu guztia erakutsi, euki ta bazkatzen daben idazti, antze ta akademi edo irakastegi, os-

lantxean danik ezer be ezta bikain. Orre-
gaitik, ergel izan zarie emakumeoi uko ta
gaur egin dautsezuenean: naiz, ergel izan-
go zarie, zuon zinari eutsi ba'dagiozue. Ya-
kituria-arren, --eta itz au gizon guztiai ya-
ke eder eta begiko--, naiz, maitasuna-arren,
--eta gizon guztiak maite dabe itz au--, naiz,
gizonak-arren, emakumeon egile diran gizo-
nak-arren, --naiz, emakumeak-arren, euren
bitartez gu gizonok gizon gareanak-arren,
bein betiko askatu ta yarei dagiguzan gu-
re buruak zinatatik, geure burua idoro da-
gigun; ostantxean geure buruak gaitzen
doguz gure zinai euste-arren; yaungoikoza-
letasun da onan zin-austea; izan be, goi-
maitasunak beteten dau legea, eta nok
bananduko maitasuna goimaitasunetik?

ERREGE.—Kupida Deunaren alde, orrazkero!
eta gudategira, gudariok!

BIR.—Aurreratu zuon ikurrinak, eta goazen
areikana, yaunok! ia, erruki bagarik yo ta
lurreratu dagiguzan! baña aurretik ontzat
artu, burrukan aik eguzkia aurrez-aurre izan
dagiela.

LONG.—Argi ta garbi itz dagigun orain. Al-
de batera itxi dagiguzan zorrozkeri ta be-

rezkeriak: gerturik eta eginik ete gagoz
Pantze'ko neskokana maitasun-billa yoa-
telko?

ERREGE.—Bai aik irabazteko be: orrazkero,
yolasen batzuk asmau bearko dautseguz
euren txoznetan.

BIR.—Lenen, baso berezitik ara eroan dagigu-
zan, Gero, etxera-bidean, gizon bakotxak
eskutik artu dagiela bere andera liraina:
eguerdi-ostean, biotz-nasaigarritzat, aldi la-
bur onetan asmau daikegun inondiko yo-
lasen bat edo beste gertau dagigun; eta
izan be, yan-edanak, yantzak, marroak, eta
ordu argiak dira Maitasun lirainaren bidea
loraz estaltzen dabenak.

ERREGE.—Goazen, goazen! eztoqu galdu bear
astirik, asti dan astirik, eta egoki izan
dadikegunik.

BIR.—"Allons!" "Allons!" --Yebena erein da-
gianak, ezta batuko garirik; eta neurri
bardina iminten dau zuzentzeak alde ba-
tean eta bestean; gizon zin-ausleen izurri
izan leitekez emakume aldakorrak; olan
izatekotan, gure diruak eztau erosiko onda-
suntza oberik. (Alde dagie) (28).

V EKITALDI

I AGERLEKU.--Baso bereziko beste arlo.

OLOPERNA, NATANEL yauna, ta MOTEL
aurrera.

OLOP.—"Satis quod sufficit" (29).

NAT.—Yaungoikoa goratzen dot zugaitik,
yaun; zorrotz eta esakunetsu izan dira baz-
karitako zure zegaitiak: atsegingarri, zakar-
keri bagarik, buru-bizkorretiko, erakuskeri
bagarik, azarri, lotsabakokeri bagarik, ika-
sirenak, alangorik iragarteka, eta inondiko,
sinistean utsik egiteka. "Quondam" (30)
onetaz itz egina nozu erageren lagun
dan eta izen-izengoitizat Don Adriano de
Armado dauzanakin.

OLOP.—"Novi hominem tanquam te" (31);
goizale da aren gogaldia, azkenen, aren
itza, zorrotz, aren miña, geiagokeritsu, aren
begia, nagusiagoren, aren ibilkerea, eta
ero, barregarri, arropuztaren, aren yardu-
kerea, guztira yota. Zorrozkeritsu, txai-
roegi, berezkoezegi, bakanegi eta, zelanbait
esateko, inondikoegi.

NAT.—Bakan eta autu-autu izengoiti ori,
(Idazliñoa ateraten dau, an idazteko).

OLOP.—Aren itz-geia baño meago da aren
itz-ontzitik ari. Iguin be iguin dautset nik

alango burukerien burukerai, alango la-
gun lagun-arterako eziran eta akatsbilla
dabiltzanen laguntzeari; ak lez zuzen-idaz-
kerea tenka ta tenka darabilenak, esatera-
ko, "dout" esaten dautsu, "doubt" esan-bea-
rrean: "det", "debt" esan bear leukenean,
d, e, b, t, ez, d, e, t; "cauf" deitzen dautso
"cauf"eri; "neighbour" vocatur "nebour",
eta "neigh" "ne"ra laburtzen dautsue olan-
goak. "Abominable" yatsu au (eta ak
"abominable" esango leuke), zoratu-agi
nik nauka: "Ne intelligis, domine?" (32),
bai, burutik eragingo dauts.

NAT.—"Laud Deo, bene intelligo" (33).

OLOP.—"Bone!"... "bene" ordez, "bone": bai,
Priscianus' ena, garagarra irabazten be

(28) "Allons! Allons!", euskeraz, goazen!
goazen!

(29) "Asko da asko dana".

(30) "Beñola".

(31) "Eu aña ezagun yatak gizon ori".

(32) "Aituten dautsazu, yaun?".

(33) "Goratua bedi Yaungoikoa, ondo ai-
tuten dautsut".

apur bat eragota (34); baña eztau ardura.
 NAT.—“Videsne quia venit?” (35).
 OLOP.—“Video et gaudeo” (36).

ARMADO, ZITZ eta KIRTEN aurrera.

ARM.—(ZITZ'eri) Chirra! (37).
 OLOP.—“Quare” (38) Chirra, eta ez “sirrah”?
 ARM.—Ondo trikitx eginak, bake-gizonok.
 OLOP.—Osasuna, guda-gizonik guda-gizone-
 nari!
 ZITZ.—(KIRTEN'eri) Izkuntza-oturuntzan izan
 dozak eta ondakinak ostu yoezak.
 KIRT.—Ba! aspaldi onetan itzeko ukarrez bi-
 zi dozak orreik! andi erekita naiagok ni
 i zelan ez auen yan ire ugazabak itzen
 bat azalakotan, i ez az burutik oñetara
 “honorificabilitudinitatibus” (39) baño bape
 luzeago-ta; errezago dok i irustea, “flap-
 dragon” ik irustea baño (40).
 ZITZ.—Ixilik; asi dozak txatarrak urteten.
 ARM.—(OLOP'ri) “Monsieur”, etzara zu gizon
 irakurzalerik, ala?
 ZITZ.—Bai, bai; agakea irakasten dautse
 umeai: --Zer da α , b, atzeraka irakurrita, ta
 buruan aderrak dauzana? (41).
 OLOP.—Ba dok, “pueritia” (41 bis), adar bat
 erantsiazkero.
 ZITZ.—Ba da, aari tentel-tentel ori, adar bate-
 gaz.--Ba-dakusazue onen yakituria.
 OLOP.—“Quis, quis” (42), nor dok aari igidin
 ori, birresale ori?
 ZITZ.—Bost gedinetik irugarrena, zuk esan
 ba' dagizuz; naiz, boskarrena, nik esan ba'
 dagidaz (43).
 OLOP.—Neuk esango yoadaz, α , e, i...
 ZITZ.—Zu zara aari: beste bietatik dator ori,
 o, u (44).
 ARM.—Ederto, itzalez ederto! Lur-arteko itsa-
 soko ugin gezalak-arren; urteera, otual, bu-
 ru-bizkorraldi lango buru-bizkorraldia izan
 dok irea: zirti-zarta, aragi bizian yo dok
 ik; poztuten yok orrako orrek nire adime-
 na: buru-bizkortasun yator dok irea.
 ZITZ.—Mutikok agureri erakutsia; eta zartu-
 rik dau agure onek bere buru-bizkortasu-
 na.
 OLOP.—Zeren irudi dok orrako ori? Zeren iru-
 di?
 ZITZ.—Adarren irudi.
 OLOP.—Umeak legetxe daragoiok ik ezta-
 baidan: ziba-yokoan ekiok.
 ZITZ.—Ekadazu zure adarra ziba bat egiteko,
 bai, eta zure lotsariaren “circum circa” (45)
 eragoko dautsat ziban: ziba bat egingo dot
 adardunaren adarragaz.
 KIRT.—Txakurraundi bat baño ezpa'neu ludi
 onetan, itzako litzakek, ik txitxiparrea eros-

teko: auto, ire ugazabagandik artu neban
 “eskupekoa” bera dok, txakurtxiki bateko
 buru-bizkortasun-zisku dan ire ugazabagan-
 dik artua; uso-arrautzea besteko berezte-
 txoa dauen ire ugazabagandik artua. Ene!
 ik bai egingo nindukek arro ta gogargi, i
 nire sasikume beintzat izatea zeruai eder
 ba'litxakek! Ekiok: “ad dunghill” (46) dau-
 kak ik ori, ire erpurueta, or esaten dabe-
 nez.
 OLOP.—Ba, ba! Latera ustelaren sundea so-
 matzen dot orrako orretan; “dunghill”, “un-
 quem” esan-bearrez.
 ARM.—“Præambula” (47), trebetasun-gizon,
 antze-gizon; banandu gadizan ez-yakin za-
 karrokandik. Eztozu eziten zuk gazteria men-
 di-buruko irakastegian, ala?

(34) Erromar eliztilari ospatsu yatsu Pris-
 cianus dalako au, seigarren gizaldikoa.

(35) “Bai ete dakusak nor datorren?”.

(36) “Ba-yakusat, eta pozik, gero”.

(37) “Yauntxo!”.

(38) “Zagaitik?”.

(39) Itz au Latereak dauenik luzeentzat da-
 kar emen gure idazleak.

(40) “Flap-dragon” onetzaz burutan aña
 aburu edo eretxi dogu Shakespeare'n azal-
 zalleen artean. Craig'en uustez, sua emon eta
 garretan edaten zan edari ei zan.

(41) Ba da α , b, atzeraka irakurriazkero,
 eta Ingelandarrak ba idatzita dagona be ira-
 kurten dabe; eta be ardi, naiz aari da bai
 Ingelanderaz, bai euskeraz.

(41 bis) “Umearo”. Umearo diño, ume esan-
 bearrez.

(42) “Nor, nor?”.

(43) Bost gedin edo bokaletatik irugarrena
 i da; i barriz, Ingelanderaz gure ni da ta
 ai irakurten dabe. Au dala-ta, Oloperna'k
 esan ba'dagiz iru gedinak, “ni naz aari”
 esango dau.

(44) Itzen otsaren aldetik, Ingelanderaz
 bardin dira u, you ta ewe; irurak irakurten
 dira iu; irurretatik lenengoa boskarren gedi-
 na da, bigarrena gure zu, eta irugarrena
 gure ardi, baña ez kiputak arkakuxo esaten
 dautsoena. Olan, ba, itunbenaren arauz, Olo-
 perna'k i esan ba'dagi, bera dala aari diño;
 Zitz'ek u esan ba'dagi, “zu zara aari” diño;
 eta batak, naiz besteak esan gedinak itun-
 benaren arauz, Oloperna da beti be aari.

(45) “Inguruan”.

(46) “Ad dunghill”, sastegian, diño, Latera-
 Ingelanderaz nastez, erpurueta, atzetan daue-
 la esan-bearrez.

(47) “Aurretik zoaz”.

OLOP.—Edo "mons"ean, mendian.

ARM.—Zeuk zelan-gura, mendi-gallurrean.

OLOP.—Bai, an ezten dodaz, seguru be se-guru.

ARM.—Yaun, erregeri eder be eder yako egun onen atzenetan edo atzealdean, erri ze za-karrak arrasti deretxonean, errege-alabeari aren atsegina bere txoznan iragartea.

OLOP.—Yaun eskuzabal ori, esakera egoki, erara datorrena, beren-beregiko ta egin-egina yatsu egunaren atzenalde edo atzealdean, arrastia iragarteko; ondo ta egoki autu ta biribildua yatsu itz ori; ganera, ezti ta egoki be bai, bai orixe.

ARM.—Yaun, aitonseme zindo ta nire etxetiar da errege, bai orixe, eta bai adiskide on be, adiskide onik izatekotan... Gure barukotasunazko... bego ori, tautik bez orretzaz... "Arren, bai, arren, baztatu egizak era-mera ta zurikeriok: ... estali egik, arren, buru ori". Onako au da ak beste zer garantzitsu, ben, eta benetan astunagoen artean esaten daustana, baña bego geldi au be: eta izan be, zuri esan-bearrean nago, eder izaten yako aren Eskerrari, eta ludia-arren zin dagit, batzuetan esku batagaz nire sorbaldan gaxoari deusala, bestegaz nire surpeko landara ta sasiagaz olgetan eragoten dausala, nire surpeko bizarragaz esan gura dot: onan, onan ibilten yat a: baña, maite ori, asko da esana be. Ludia-arren, eztautsut eralten ipuinik: eder yako aren aunditasunari Armado'ri, gudari, gizon ibiltari, ta mundurik asko ikusi izan dauenari berarizko omen eta goratsarre batzuk egitea, baña eztaigun aitatu olangorik be. Au yatsu onako zer guztia... baña, maite ori, onako onetzaz ez aitatu ezertxo be inñori, gero, arren. Erregek gura dau nik opatu, eskeñi dagiodala errege-alabeari, kutun ezti ari, ikuskizun atsegingarriren bat, erakusketa, ibilte arro-txairo, kokomarro, naiz su-zirien batzuk. Orain, yakinik abadea ta zu zeu be on zariela onango otzotoko urteeretan eta barre eragiteko zerak bertatik asmatzen, zelanbait esateko, danaren yakitun egin zauegaz, zuon laguntzea gura neukela zuoi iragarteko.

OLOP.—Yaun bederatzi gizon aundiak opatu zineioz No ari bere aurean. --Natanel yaun, gure laguntzeaz, eta erregeren aginduz, eta aiton-seme txairo be txairo, argi-

tsu ta ikasi onen eskariz, aldiari dagokona egiteko gara gaurko egunaren atzealdean, errege-alabearen aurean; nik diñodana da, eztagola ezebe egokiagorik, bederatzi gizon aundiak aren aurreratzea baño.

NAT.—Non idoroteko olango gizon aundirena egiteko lain diran gizonak?

OLOP.—Zeuk egingo dozu Yosua'rena; neuk, naiz aitonseme adoretu onek Yuda Makabai'rena; artzai azurraundi onek egingo dau Ponpei Aundia'rena; esku-mutilak, Erkul'ena.

ARM.—Asketsi, parkatu, yaun: oker zagoz: onek eztau mamirik eta azurrik asko aren atzorkoroarena egiteko be: au ezta aren esku-makilearen burua añako be.

OLOP.—Itz egiten itxiko ete daustazu? Erkul mutilko zanekoarena egingo dau orrek; orren aurreratze ta alde egiteak, orren "enter" eta "exit" sugeari idunetik eldu ta sugeari itotea izango dira, eta neuk zurutuko dot orrako zer orreitan.

ZITZ.—Asmo eder baño ederrago orixe! Olan, ikusleatarik inñok txisturik egin ba'dagi, zuk gedar egin zinei: "Ori ondo, Erkul, gora Erkul! ito orain sugeari, idunetik elduta!", ori da, izan be, irainari eder-antza emoteko bidea, orretarako gei gitxi izan-arren.

ARM.—Eta nok egiteko beste gizon aundirena?

OLOP.—Neuk egingo dot iruena.

ZITZ.—Iru gizon aundi añako aitonseme!

ARM.—Zertxo bat esaten itxiko ete daustazu?

OLOP.—Añi gagotsuz.

ARM.—Onako au egoki ezpa'ledi, antzezki irrigarriren bat irudituko geuke. Ekin, arren.

OLOP.—"Via" (48), Motel adoretu! bitarte guzti onetan ik itzik be eztoz egin.

MOT.—Aitu be eztoz egin deusik, yaun.

OLOP.—"Allons" (49), ik be izango dok egitekorik.

MOT.—Batena egingo dot nik yantzan, naiz beste olangotsutan; naiz, danborra yoko dautset gizon aundiai, eta yantzazo egingo dautset.

OLOP.—Motel be motel, Motel zindo ori!... goazen gure yolasera, alde (Alde dagie).

(48) "Ja".

(49) "Gaiocazan".

II AGERLEKU.—Baso bereziko beste arlo.

Errege-alabearen Txoznearen aurrean.

Aurrera ERREGE-ALABEA, KATARINE, ERROSALINE, ta MIREN.

ERREGE-AL.—Adiskide maiteok, aberastuko gara emendik alde egin baño len, onen ugari ba'datorriguz esku-erakutsiak: amen andera bat ikatz-arrizko ormaz inguratutrik! Begira zer artu dodan errege maitamindugandik.

ERROS.—Andera, orrako orregaz batera ez ete da etorri besterik ezer?

ERREGE-AL.—Au baño besterik ezer ez? Bai, idazki-orri baten alde bietatik estu-estu idatzi leiteken beste izneurtu be bai, ertzetan eta guzti idatzita; eta Kupida'ren izenez izenpetzeko ta ikurrazteko egon ei da.

ERROS.—Azi eitekean olan yainkotxo ori, bost milla urteotan mutiko izan da-ta.

KAT.—Bai, eta bai marrotsu ta zori txarreko eskegiarri egin be.

ERROS.—I ez az izango bein be aren adiskide, ire aiztea erail yonan ak-eta.

KAT.—Ak gotilun, motel, astun egin yonan nire aiztea; eta olan, il egin zonan a: i lez gogargi izan ba'litzon a, eta irea lango gogaldi alai, arin, eta eraginik izan ba' leu ak, amama izan edikean a il-aurretik; eta i eu be izan eindeke orrenbesterik, biotz-argia luzaro biziten da-ta.

ERROS.—Ze esan-gura baltzik dona ik, sagutxo orrek, gogargi itz orretan?

KAT.—Izakera argi, edertasun ilunean.

ERROS.—Argi geiago bear yonagu ire esan-gurea idoroteko.

KAT.—Muskildu, lorrindu egingo dona ik argia, asare-putz eginda; orrazkero, ilunetan amaituko dot itz-gai au.

ERROS.—Bai, ba; dana egiten don ik ilunetan.

KAT.—Ik ezin don olangorik, neskato argi-arin az i-ta.

ERROS.—Ez ba, i bestean astun enon-eta, argi-arin izan bear nik.

KAT.—Ez azala ni bestean astun? Enonala astatu? Ba! ik esan gura donana zera don, ni enonala aintzakotzat artzen.

ERROS.—Ori ondo, gero; eta izan be, osapiderik izan eztauenak oraindik be eztau ospiderik.

ERREGE-AL.—Bardinduta zagoze zuon eztabaidan; buru-bizkorraldi ederto erabilia. Baña, Errosaline, zuk be izan dozu esku-er-

kutsirik: nok bidali dautsu? Eta zer da bidali dautsuena?

ERROS.—Al zenki zeuk! zurea bestean lirain ba'litz nire mosua, nire esku-erakutsia be zurea bestean aundi litzatekean. Onako au lekuko edo autorla. Bai, izneurturik be artu dot, eta eskerrak zor dautsada Biron'i; egin-egineko da neurria; eta neurtua be alangorik ba'litz, lurreko yainkonorik ederrera nintzake ni: ogei milla ederren aldean iminten nau. Ene! nire irudia egin dau ak bere idazkian!

ERREGE-AL.—Ba-dau zure antzik, ala?

ERROS.—Izkietan bai, baña deusik bez goraketetan.

ERREGE-AL.—Idazkura bestean eder; ori bai ondoren lango ondorena.

KAT.—Idaztiñoko B nagusia bestean eder!

ERROS.—Zur kolore-idazkortzakaz, gero! ez al naz ilgo zutzako zorretan, nire igande-izki gorri, nire urregorritzko izki ori: ene! ez al lego zure arpegia orrenbeste O'z beterik! (50).

KAT.—Izurriak eroango al dau narrita ori, adarra yote ori! eta ondatuko al dira ezkaiz guztiak!

ERREGE-AL.—Baña, Katarine, zer bidali dautsu Dumen lerdanak?

KAT.—Esku-zorro au, andera.

ERREGE-AL.—Bi eztautsuz bidali, ala?

KAT.—Bai, andera; eta orrez ganera, maitale zintzoren milla bat izneurtu; azaluskeriak egindako meta itzala, izurbakotasun lango izurbakotasuna.

MIR.—Onako au, eta pitxiok bidali daustaz niri Longabil'ek; gitxienez, milla-erdi luzee-gi da idazkia.

ERREGE-AL.—Orixe uste dot neuk be. Ez ete zendun biotz biotzez gurako katea luzeago izatea, eta idazkia labor?

MIR.—Bai, ostantxean nire eskuok ez al dira alkarregandik bananduko.

ERREGE-AL.—Neska zur gara maitaleoi onan irri egin al izateko.

ERROS.—Ainbat zoroago dira aik gure irriak onan erosteko. Elorriok ikusi bear daustaz Biron'ek berak, nik emendik alde egin baño

(50) Sakute edo naparrerria izan dabena izaten dabe arpegia O'z beterik, sakostatxoz beterik. Orrazkero, ba, arpegia sakute-zulotxoz beterik dauela dirautso Errosaline'k Katarine'ri.

len. Aste betean nire bendea egongo da la al nenki! Nik bai eragingo neusko ari kutunkeririk eta eskaririk; nik bai erabiliko neuke a nire billa, eta tertzio, ereti ta aldi egokien billa, eta izneurtustarako aren buru-bizkortasun ondatzaillea agortuazoko neusko, eta aren otseintza osoa nire agindura legoke, eta ilarraindu, arrotu egingo neuke a, ni ilarraindu-ala, ari irri egiteaz ilarraintzen nazan onek! Ainbesteraño benderatuko neuke-ta, nire ergel eta yostallu litzake a, eta ni neu aren alanbear.

ERREGE-AL.—Ergelten dan buru-bizkortasuna baño segurago goaturik eztozu, bein goatuazkero: yakituriaren baia dau yakituri-tiko ergelkeriak, eta bai ikasiaren laguntzea ta buru-bizkortasunaren ederra, ergel ikasiaren edergarritzat.

ERROS.—Lotsabakokerirako yagi ta asaldatzen dan bentasunak aña geiegikeri eztau izaten gazteen odol beroak.

MIR.—Yakintsuen ergelkeria bestean bizi ezta agertzen ergelen ergelkeria, burubizkortasunak kutunkerira yoten dauenean, buru-bizkorrok euren aperturi guztia aintzako ez-tana aintzakotzat erakusten erabilten dabe-ta.

ERREGE-AL.—Emen dator Bayet, eta poza agiri da orren arpegi-an.

BOYET aurrera.

BOY.—Ene! barreka iztenak eginda nago! Nondik da No aren ederra?

ERREGE-AL.—Ze barri dogu, Boyet?

BOY.—Gertau zadiz, andera, gertau zadiz!... --Artu iskilloak, neskok, artu iskilloak! zuon bakeari gudu egiteko datoz; kokomarro-turik dator Maitasuna, Zegaitiak dakarrez iskillotzat; otoz-otoan erasoko dautsue; bat- tu egizue zuon buru-bizkortasunak: zuon buruak yagotera yarri zadize; ostantxean, dollorak legetxe zuon buruak ostondut a alde egizue emendik.

ERREGE-AL.—Dunixi Deunak yagongo al gauz Kupida Deunagandik! Nortzuk dira guri itezko gudu egiten datozanak? Esan, barrandari, esan.

BOY.—Iko-ondo bateko keizpe ozkirritan ordu- erdi bateko loaditxo-a egiteko nengoala, ara! an dakusadaz errege ta aren lagunak arako ketzpetara datozala, atsedan artze- ko nire asmoak alperrik galtzeko: andik urreko sasitza baten ostondut naz zurkiro, eta andik entzun al izan dot zuok orain entzungo dozuena, zera, emen izango dira- la gesu baten, marroturik. Euren aurrenda- ri ta iragarle esku-mutil lirain pospolin

bat da, bere geznea buruz ikasi dauena: an irakatsi dautsoe zer egin, eta zer eta zelan esan: "Onan itz egingo dok, eta onan euki bear dok ire soña"; eta goganbearrik eta susmorik izan dabe nozipein, nagusia- gotzea aurrean izateak kikildu ta xilduko ete dauen; "izan be", --dirautsa erregek--, "angeru bat ikusiko dok, baña orraitio be, ez adi bildur izan, oldartsu ta adoretu itz egin baño". Mutikoak erantzun dautsa: Angeruk ezta gatzik; No aren bildur izan bear nintzake, txerrenik ba'ltiz a". Guztiak egin dautse barre orrako orri, eta sorbal- dan zartadatoak be emon dautsoez, len- dik be urtenik, oldartsurik, eta azarrik asko zan txotxo-a azarriagoturik. Txaloka erago dautsa batek, eta zin egiten izan dau eguño eztauela entzun izan erantzun oba- rik; beste batek, bere atz eta atzarkoagaz ots eginda, gedar egin dau: "Ba! orixe egin- go dogu, yazoko dana yazo": irugarrenak, beatz-mokoen ganean yagita, gedar egin dau: "Ondo doa guztia": laugarrenak bea- tzen ganean soñari bira eragin, eta lurre- ra yausi da. Ori ikusiaz, guztiak itzuli ya- tsuz lurrera barre ain irrigarri, eutsin-ezin eta zaratatsuz -eta, euren zorakeriari euste- ko, negar batzuk eginbearrean aurkitu di- ra.

ERREGE-AL.—Baña, baña, gu ikusten datoz, ala?

BOY.—Ba-datoz, bai, ba-datoz; eta onetara yantzirik... susmo dodanez, Errusitarren ant- zez yantzirik: arein asmoa zuokin itz egin, zuoi kutunketak egin, eta zuokin yantzan egitea da; eta euretirik baktoka maitasun- billa yoango yako zuatoriko baktokari; zua- tarik zein zeinen dan zuoi lendik egindako esku-erakutsien bidez ezagutuko dabe.

ERREGE-AL.—Olangorik egingo dabela uste dozu, ala? Bearrik emongo yake maitaleoi; eta izan be, anderek, kokomarro-tu egingo gara guztiok; eta maitasun-billa etorri-arren, gizonotariko batek be eztau izango ande- raren arpegi-rik ikusteko zori onik. --Autsi, Errosaline, zuk erabiliko dozu esku-eraku- tsi au; eta zuri egingo dautsu erregek mai- takedea, bere maitea zu zareakotan; au- tsi, artu au, zuk nire maite orrek, eta eka- dazu zurea; auk nara, Errosaline'tzat artuko nau Biron'ek... eta zuok, besteok be alka- rrekin aldatu zuon esku-erakutsiak; olan, zuon maiteak okerrekori egingo dautse eu- ren maitakedea, esku-erakutsiok eskuz al- datuaz ai iruzur eginik.

ERROS.—Tira ba; al danik eta agirien imini esku-erakutsiok.

KAT.—Baña ze asmo dozu aldakuntza orretan?

ERREGE.AL.—Nire asmoaren elburu edo ondorena, areinari bestera eragitea da; guri irri eginaz poztuteko dagie eurak euren; eta nire asmo bakarra, irriari irriz erantzutea; euren maitetzat oker artuati iragarri ta ustuko dautsez aik euren asmoak; eta olan, orrako orretzaz, irri egingo dautsegu, arpegiak agirian doguzala urren aikin irikitx egin dagigunean, aikin itz egiten eta ai eskerrak egiten goakiezanean.

ERROS.—Baña yantzarik egingo ete dogu, olangorik eskatu ba' dagiskue?

ERREGE.AL.—Ez; il bear ba-dogu be, eztausat nik oni zirkinik eragingo; ezta arein itz orraztu-apainai yaramonik egingo be, eurak itz egiten daragoioen bitartean arpegia beste aldera biurtu baño.

BOY.—Ba, ezesper orrek erail egingo dau izketan daragoionaren biotza, eta egiteko tik alboratu aren oroimena.

ERREGE.AL.—Orrexegaitik dagit egin be dagidana; eta ezto ezbairik, ezetarikorik be, bein bateri olangorik eginazkero, besterik ezdala azartuko itzik be egiten. Yolasa yolasez itzultea baño yolas oberik eztozu; eta ori egingo dogu guk, adarra yoteari adarra yotez erantzunda; eta aik, irri lango irria arturik, lotsaturik alde egingo dabe. (Turuten otsa barruan).

BOY.—Turuten ots da; yantzi zuon marroak; ba-datoz kokomarroak Marroak iminten dabez anderak).

Aurrera ERREGE, BIRON, LONGABIL, eta DUMEN, ERRUSITAR eraz yantzirik eta kokomarroaturik; ZITZ, Ereslariak, eta OTSEINAK.

ZITZ.—Gora lurreko edertasunik ederrenak!

BOY.—Edertasunik ez tira euron mosuetako marro-tapetana baño bape ederrago ta aberatsago.

ZITZ.—Anderarik ederrenezko eskutada guren ori! (Aitza emoten dautsoe Anderak). Eguño euren... atzeak... ilkorren begiai emon izan dautsezanik ederrenak!

BIR.—Euren begiak, zital, euren begiak.

ZITZ.—Eguño euren begiak begi ilkorrai itzuli izan dautsezanik ederrenak! Alde.

BOY.—Bai, izan be; alde.

ZITZ.—Zuon esku-erakutsizat, zuok ez ikustea emoiguzue, zerutar gogook!

BIR.—Bein zuok ikustea, zital.

ZITZ.—Bein zuon eguzki-brintzadun begiz begiratu gakizuezala... zuon eguzki-brintzadun begiz.

BOY.—Eztautsoe erantzungo izengoiti orri; emakume-begiz begiratzeko orrei esatea oba litxakik.

ZITZ.—Eztauste egiten yaramonik, eta nastuta, zer egin eztakidala nago.

BIR.—Ori dok ire trebetasuna, ire osotasuna, ala? Oa ortik zear, zital ori. ZITZ'ek alde).

ERROS.—Zer gura ete dabe erbestetarrok? Yarikizu ze asmo daben, Boyet: gure izkuntzea yakitekotan, euretatik norbaitek argi ta garbi azalduko al dauku ze asmo dakarren: yakizu orrein asmoa, Boyet.

BOY.—Zer gura dozue errege-alabeaz?

BIR.—Bakeaz eta ikustaldi txerakorraz besterik ezer bez.

ERROS.—Ba, izango dabe orrenbesterik; eta, orrazkero, alde egin dagiela agindu egiezu.

BOY.—No orrek diño orrenbesterik izango dozuela eta alde egin zeinkiela.

ERREGE.—Esaciozu milla asko neurtu doguzala, No orrekin bedartza onetan neurritz yantzian egiteko.

ERROS.—Eztogu aituten. Milla batek zeinbat atzondo dauzan itandu egiozu: asko neurtu ba' dabez, errez da batek ze neurri dauen esatea.

BOY.—Ona etorteko millarik asko neurtu ba' dozue, eske dagotsu errege-alabea esan dagiozula zenbat atzondok egiten daben milla bat.

BIR.—Esaciozu oinkada nekorrez neurtzen doguzala millak.

BOY.—Bera dagotsu entzuten.

ERROS.—Egin dozuzan milla nekor askotatik, zeinbat oinkada nekor dagoz milla bateko bidean?

BIR.—Eztogu zenbatzen guk zure alde egiten dogunik, ain azkenbako da gure eginbearra-ta, oraindik be egin geinke, zenbatzerik bago. Zure arpegitiko eguzki-argia erakutsiko al daukuzu, basatien antzera, guk gurtu dagigun.

ERROS.—Iretargi baño ezta nire arpegia, eta odeiz estalia bera.

ERREGE.—Onetsi ta zori ontsu dira orreik dagiena lango egikizunik dagien odeiak! Ederretsi egizu, iretargi argitsu orrek, eta onako izarrok, odeioi baztarrera eraginik, gure begi ezoi argi egitea.

ERROS.—Alperriko eskale ori! zer aundiagorik eskatu egizu; iretargiak uretan argi egitea da zuk orain eskatzen dozun zer bakarra.

ERREGE.—Orrazkero, aldakuntzatxo bat ederretsi egizu gure neurrian: eskatu dagidala agintzen daustazu: ezta inñondikorik eskakizun au.

- ERROS.—Eresi yo egizu, orrazkero: bai, laster eta beingoan egin bear dozu orrako ori. (Eresia yoten) Ez bein...: yantzarik ez...: onan aldatzen naz ni, iretagia legetxe.
- ERREGE.—Eztozula yantzarik egin gura? Zelan inñondikotu zara onenbestean?
- ERROS.—Ilargi bete zan zu etorri zareanean; baña orain aldatu egin da.
- ERREGE.—Orraitiño be oindo ilargi da, eta ilargiko gizon ni. Yoten daragoio eresiak; ederetsi egizu orren neurri zangoai apur bat eragitea.
- ERROS.—Gure belarriak ederresten dabe.
- ERREGE.—Baña zure zangoak ederetsi bear leukie.
- ERROS.—Erbestetar, eta ona alabearrez etorriak zarienzakero, ezkatxatsuez izango txerakor...; Autsiez gure eskuak... Eztoqu egin gura yantzarik.
- ERREGE.—Zetarako emon eskurik, orrazkero?
- ERROS.—Adiskidetasunez alde egiteko bakarrik.—Buru-makurtze bat egin, maiteok; eta onan amaitzen da neurria.
- ERREGE.—Neurri geiagorik neurri enetatik! Ez izan biotz-gogor!
- ERROS.—Ezin geike emon geiagorik sal-neurri orretan.
- ERREGE.—Zeuk iminten dautsazu sal-naurria zure buruari, ala? zeinbat eskatzen dozu zure laqun izate-arren?
- ERROS.—Zuk alde egitea bakarrik.
- ERREGE.—Ezin izan ledike olangorik, innoz be.
- ERROS.—Ba, orrazkero, ezin gaikeuz erosi; agur, ba; agur bi zure mosu-estalgiarentzako, ta baten erdia zeutzako!
- ERREGE.—Yantzan egiterik gura ezpa'dozu, autu-mautuka eragon dagiogun luzarago.
- ERROS.—Baztatu gadizan, orrazkero.
- ERREGE.—Neuk be gurago dot baztaturik. (Baztaturik biak bietara itz dagie).
- BIR.—Andera esku-zuri, itz ezti bat zukin.
- ERREGE-AL.—Ezti, esne, ta gozo: or dozuz iru.
- BIR.—Orrazkero, beste iru, orren gozozale zareanzakero: ezti-ura, garardo-ura ta mami-ura: ondo yausi da diterea! or dozuz amabiko-erdi zer ezti.
- ERREGE-AL.—Agur, zazpigarren ezti ori! Diterai zeure aldera eragiten dautseuzenazkero, eztoi yokatu gura zukin.
- BIR.—Itz bat ixilpean.
- ERREGE-AL.—Ez al da izango ezirik.
- BIR.—Asarratuago egiten daustazu nire beaztuna.
- ERREGE-AL.—Beaztuna? Mingots da beaztuna.
- BIR.—Egoki, beraz. (Biak bietara itz dagie).
- DUM.—Itz bana egingo ete dautsagu alkarri?
- MIR.—Izentau egizu orrako itz ori.
- DUM.—Andera lirain...
- MIR.—Ori da zure itza? Yaun lerdan da nirea. Au artuizu zure andera lirain'en alderako.
- DUM.—Eder ba'dakizu, beste ainbeste biok biotara, eta agur egingo dautsut. (Biak bietara itz egiten dabe).
- KAT.—Ostera! ez ete dau miñik zure mosu-estalgiak?
- LONG.—Ba-dakit nik, andera, zegaitik itanduten dozun.
- KAT.—Tira ba, betor zure zegaiti ori! arin, yaun; luze erelxita nagotsu.
- LONG.—Min bi dozuz zuk zure marro-barruan, eta minbako nire marroari emon gura zeuskio zuk bien erdia.
- KAT.—"Veal", Nederlandatarrak esango leukeanez; ez ete da txala "veal"? (51).
- LONG.—Bai, txala, andera lirain.
- KAT.—Ez; txal zekor lirain.
- LONG.—Erdibanatu dagigun itza.
- KAT.—Ez, eztoi izan gura zure erdikinik; zeuk osorik artu ta esnetik alde eragioz; idi izan ledike.
- LONG.—Begira zeuk be zelan daragoiozun topeka ta adarka irri zorrotzakaz! Adarrak emon gura ete daustazuz, andera garbi? Ez egin olangorik.
- KAT.—Orrazkero, txal zarean artean il zadiz, zure adarrak azi baño len.
- LONG.—Biok biotara itz bat dagigun, ni il baño len.
- KAT.—Olan izatekotan, ixilik egizu orroa; zure orroak entzuten dago arakina. (Biak bietara autu-mautuka).
- BOY.—Labañearen ago bedar-ikusgatxa lain zorrotz eta bizi dira neska irrilarien miñak, ikusi leiteken baño txikiago dan ulea be ebaten dauen labañearen agoa lain zorrotz; oarmenen oartzaren ganeko; orren oarkor dirudi euren autu-mautuak, zer arin dira euren bulkoen egoak, gezi, bala, axe, ta gogaketak baño be arinago ta bizkorrago dira.

(51) Min biren erdia min bat da; bietatik bata bere minbako marroari emon gura leuskiola dirautso Longabil'ek Katarine'ri. "Half" esaten da Ingelanderaz "erdia", "txala", barriz, "calf"; "txalki, edo txal-okelea", barriz, "veal". Katarine'k "well" (tira, ba,) esan gura izan dau, baña beren-beregi, ta Nederlandatarrak esango leukenez, "veal" esan dau, "veal" etik "calf"era, ta "calf"etik "half"era yoteko ta, olan, zimardika ekiteko.

ERROS.—Itz bat bez geiago, ene neskatook: eten, eten autua.

BIR.—Zerua-arren, itzalak emon dauskuez ezespeneren ezespenez!

ERREGE.—Onik eta ondo ibili, burutik egindako neskak: buru-bizkortasun uts zarie. (Alde ERREGE'k, Aundikiak, Ereslariak, eta Otseinak).

ERREGE-AL.—Ogei agur, ene Errusitar leituok. Orrako ori ete da ainbeste goratzen euskuen buru-bizkortasuna?

BOY.—Argi-taketak dira orreik, eta puzka itxungi, itzali dozuez zuok.

ERROS.—Antz eta irudi ederreko buru-bizkortasuna dabe orreik: lodi-lodia, gizen-gizena.

ERREGE-AL.—Orrein buru-bizkortasunaren beatsu, orrein erantzunen beartsuen beartsu! Ez ete dozue uste gau onetantxe eskegiko dabezala euren buruak? Naiz, oin-dik ara, ezabela erakutsiko arpegirik, mar-roz estalirik izan ezik? Begiak nora itzuli ezaliala gelditu da Biron urten au.

ERROS.—Ene! guztiak egon dira larrialdi errukarritan! Negar egin-eginik, itz on baten eske egon da erregea.

ERREGE-AL.—Zinka ta biraoka ekin dauza Biron'ek, maitasun-itxoarok galdurik.

MIR.—Nire otseintzan imini dauz Dumen'ek bere burua ta ezpatea: tutik bez, erantzun dauzat nik, eta bertatik gelditu da izka, itz bagarik, nire otseina.

KAT.—Biotza zapaltzen dauzadala esan daust Longabil yaunak; ezetz igarri ze izen ezarri daustan.

ERREGE-AL.—Biotz-larri, biotz-min, edo olan-goren bat.

KAT.—Orixe, izan be.

ERREGE-AL.—Olangorik! gexorik iz egon be!

ERROS.—Ba! orreina baño buru-bizkortasun oberik ba-legoke edozein txapelpean be. Baña entzun gura ete daustazu? Errege da nire maite zin egina.

ERREGE-AL.—Eta niganako zintzotasunera beartu da Biron bizia.

KAT.—Eta nire otseintzarako yaio ei da Longabil.

MIR.—Nire da Dumen, azala zugatzen dan bestean seguru.

BOY.—Andera, ta emakume lirainok, entzun egidazue: bertatik izango dira emen euren yantzi yatorrakaz, eta euren arpegi yatorrakaz: inoz be ezin iruntsi izango dabe ezepen latz au-ta.

ERREGE-AL.—Atzera etorriko ete dira, ba?

BOY.—Bai, etorriko dira, etorriko dira, ba-daki Yaungoikoak, eta pozarren ikutika etor-

iko dira, artu dabezan zartadaz eta taka-tekoz meikiturik egon-arren; aldatu egizuez, orrazker, zuon esku-erakutsiak; udaldi onetan lorak legetxe garatu zadize, aik atzera eldu dadizanean.

ERREGE-AL.—Zelan garatu? Zelan garatu? Argiago itz egiskuzo aitu dagitsugun.

BOY.—Lorak pipilean langoxe dira andera kokomarrotuak; marroa bendurik, oster, euren damasko-kolore naste atsegingarria darakusela, odeietatik yasten diran angeruak langoxe, naiz lora idigiak langoxe dira.

ERREGE-AL.—Oraindik be zalantzan! zer egin-go dogu euren antz yatorrean ba'datorkuz maitasun-billa?

ERROS.—Andera on, nik onurik emotea gura ba'dozu, irri egin dagiegun, oindiño be orretara ba'datoz, marroturik egin dautsegun lez, ezagun gabezala be: alakatu gakiezan Errusitarren antzera yantzi zakarrez yantzita ona etorri diran ergelakaitik; itandu dagiegun nortzuk izan diran, eta zegaitik egin izan daben alango antzerki sustarbakorik, alango sarrera zirtzilkiro idatzirik, eta alango marro barreagaririk ekarrela gure aurrera agertu bear ebenik gure txoznan.

BOY.—Ostondo zadize, anderok; ur dira, or dato z maitaleok.

ERREGE-AL.—Ain gure txoznetara, orein emeak zelaietan arin egiten dabenez. (Alde ERREGE-ALABEA'k, ERROS.'k, KAT.'ek, eta MIR.'ek).

Barrien barri aurrera ERREGE, BIRON, LONGABIL eta DUMEN, euren yantzi yatorrez.

ERREGE.—Yaungoikoak yagongo al zauz, yaun lelden! Nondik da errege-alabea?

BOY.—Bere txoznara yoa da. Eder ete yako zure nagusiagotzeari arako ta arentzako zerbait niri agintzea?

ERREGE.—Ari itz bat esateko, bere aurrera artu nagiala eskatu egiozu.

BOY.—Egingo dot orrako ori: eta ak be egin-go dauzo orrenbestetik, ondo dakidanez, ene yaun. (Alde dagi).

BIR.—Urli orrek iruntsi egiten dau bere buru-bizkortasuna, usoak idarrak irusten dabezanez, eta Yaungoikoak gura dauenean egozten dau atzera: buru-bizkortasuna aterik-ate gau-yaietan, erri-yaietan, batzarrietan eta perietan apurka saltzen dauena da ori; eta askoka saltzen dogunok, ba-daki au Yaungoikoak, guk eztoqu gatzik, arena lango gatzez erakutsi ta opatzeko. Bere soñekoaren besoari orratzez deutoela daukaz maitale orrek neskak... Adan izan ba'litz ori, orrek berorrek zirikatuko eukean Ebe: okelea zatitzen eta totelka itz egiten

daki orrek! era-mera on agiritzat, bere eskuari mun egiten dautsa orrek: azalkei ta era-meraren matxango yatsu ori, monsieur txairo, eta maietan diteretara yokatzen dauenean, diterai asarre be itz txairoz egiten dautse; ba-daki abetzoliarena abesten, baña lagunabartxo bat bakarrik; baña era-meretan, al dauenak geiago egin dagiola: "ezli ori, kutun ori" deitzen dautsoe anderak; mun egiten dautsoe oñetan orrek zapaltzen dauzan zurubiak; guztiai irribarre egiten dautsen lora yatsu ori, belearen agoko goitegiko mintzak bestean zuri diran bere aginak erakusteko; eta zorean il gura eztaben yakinkidetzak, Boyet "ago-laban" izena ezarriaz ordaintzen dautsoe zorra.

ERREGE.—Baba-zorroz, igorzirinez beteko al yako bere min labana, eta biotz biotzez opa dautsat onako au, Armado'ren esku-mutilla nasturik itxi dauelako aren egitekoan!

BIR.—Ara non datorren bera! Era-mera ori, zer intzan i gizon orrek i erakutsi-arte? Eta zer az orain?

Barriro aurrera ERREGE-ALABEA, BOYET aurretik datorrela; ERROSALINE, MIREN, KATARINE, ta OTSEINAK

ERREGE.—Gora, andera ezli, eta beti eguraldi ona dakazun ori!

ERREGE-AL.—Eguraldi ona, ta txingor-zaparradea, eztira alkarrekin ezkontzekorik, nire ustez.

ERREGE.—Obeto aitu egizuz nire itzak, al ba' dozu.

ERREGE-AL.—Orrazkero, zer oberik opa egidazu, orretarako ba-dozu nire ederretsia-ta.

ERREGE.—Zu ikusten, zu ikertzen etorri gaxtatsuz; eta orain zu gure yauregira eroateko asmoa dogu: eder etsi egizu, beraz, onako au.

ERREGE-AL.—Zelai onek be lekuri asko dau nitzako-ta, eutsin egiozu zure zinari: ez Yaungoikoari, ez niri, etxaku begiko gizon zin-auslerik.

ERREGE.—Enagizu gaitzetsi zeuk eragiten daustazunagaitik; ausi bear zure begitiko on-indarrak nire zina.

ERREGE-AL.—Gaitz-izena ezarri dautsazu zuk on-indarrari: gaitz-indarra da orrako ori, on-indarraren egitekorik eguño ezta izan gizonai zinik ausiazoterik-eta. Orban bagako lilia lain garbi dan nire nesagarbi omena-arren, autor be autortzen dot orain, mundu bete elorrio igaro ta yasan bear ba'neu be enukela egingo obenik zure etxeko arrotz izate-arren: ainbesteko gorrotoa

dautsat nik, Yaungoikoa-arren zintzo egin-dako zinik inok austeko bide ni izateari.

ERREGE.—Ene! bakartasunean bizi izan zara zu emen, guk ikusteka, guk ikertzeka, gure lotsari aundirako.

ERREGE-AL.—Ez olangorik, ene yaun; ez olangorik, zin dagit ezta izan olangorik; asti-emongaririk izan dogu emen, eta bai eizaketa atsegingaririk be; oraintsu alde egin dau emendik Errusitar mordo batek be.

ERREGE.—Ostera, andera! Errusitarrik!

ERREGE-AL.—Bai, bai orixe, ene yaun; maitale txairoak, era-meratsuak, eta gallenak.

ERROS.—Egia esatuz, andera.— Ezta olangorik, yaun; gelegi goratzen dauz nire andreak, gaurko era-meren arauz eta yarrai. Izan be, guk laurok, emen gure aurrean izan doguz lau, Errusitar yantzirik; ordu bete egin dabe emen eta astirik asko izan dabe guri itz egiteko; eta ordu orretan, ene yaun, eztauskue txerarik egin, itz txerakor eta atsegingarri bategaz be. Enaz azartzen ai ergel-izenik ezarten, baña nik uste dodana da, egarri diranean ergelak edan egin gurako leukiola.

BIR.—Legorregi ta gogorregi egiten yat adarra yote au.— Lirain ori, maite ezli ori, ergeldu egiten dauz zer zurrak zure buru-bizkortasunak; ondoen dakusan oartziko begi sutuari begiratuz txera egiten dautsagunean, argiaren argiz galdu egiten dogu gure argia; orretarikoxe da zuon gaitasuna-ta, zuon aberastasun itzalaren aldean ergel iruditzen yatsuez zer yakintsuak, eta bear-tsu baño ez zer aberatsak.

ERROS.—Yakintsu ta aberats zareala erakusten dau orrako orrek, izan be, nire begitan.

BIR.—Ergel naz ni, eta bearrez betea.

ERROS.—Zeure dana artu ezpa'dagizu, uts eta oben izango yatsu nire miñetik itzik ateraten ibiltea.

BIR.—Ba! zure nozu ni, ni ta nire oro.

ERROS.—Ergela osorik nire?

BIR.—Ezin dautsat emon gitxiagorik.

ERROS.—Zein mosu-estalgia izan da zuk erabili dozuna?

BIR.—Non? Noz? Ze mosu-estalgia? Zegaitik egiten dozu itaun ori?

ERROS.—Ortxe, ointsu, arako mosu-estalgia; aren bearrik etzan ontzia, arpegi zakarra-koa ostondo, ta obea erakutsi izan dauena.

ERREGE.—Ikasi gabez; irri egingo dauskue orain burutik bera.

DUM.—Autortu ta gure adarra yotea iragarri dagigun.

ERREGE-AL.—Arriturik, ene yaun? Zegaitik dago gotilun zure goitasuna?

ERROS.—Lagun, eutsin erregeri! yausi egin-go da larriturik! zegaitik gagoz zurbil? Itsas-gatxagaz, nire ustez, Moskou'tik etorrita.

BIR.—Izarrak onan ixuritzen dauksuez izurriak gure zin-austeagaitik. Borontzeko arpegik be yasan ete lei luzaroago onangorik? Emen nozu ni, andera; zure trebelasun guztiaz yaurtin egidazuz zure geziak; ezespe- nez zauritu nagizu, irriz nastu ta ondatu nagiu; alderik alde zulatu egizu nire ez-yakinkeria zure buru-bizkortasunaz; txiki-txikitu, zeatu nagizu zure bulko zorrotza-gaz; eta oraindik ara eztautsut eskatuko nilkin yantzun egiterik, ezta enaz bein geiagotan Errusitar yantzitan zure lagun izango be. Ba! oraindik ara eztoz izango uste onik eta itxarorik idatzitako itzalditan, ezta irakastegi-mulikoren miñaren eragitean; ezta etorriko be inoz nire adiskidegana mosu-estalgitan; ezta izneurtuz maitasun-billa etorriko be, itsu abeslarien antzera; tapeta-nezko esakeraz, sedazko itz egin-eginak, geiegikeri puztuak, erakuskeri txairo, yakitunkeri-irudiak..., betiko agurra zuoi; oso-osorik uxatu dauste uda-euliok irudimen-erakuskeri au; agur dagituzte orrako zer guztioi, eta emen autortu ta iragarten dot esku-zorro zuri au-arren. —Yaungoikoak bakarrik daki eskua bera noragiño dan zuri!- autortu ta diragart oraindik ara nire maitasun-billatze gogoa bai etxetiarez, eta ez argi ta garbiz iragarriko dodala; eta asteko, neskato... Yaungoikoa lagun izango al yat, gero!... zindo da zuganako nire maitasuna, brintza bagako, uts bagako.

ERROS.—Orrako bagako'ak kendu egizuz, arren.

BIR.—Ba-dot oraindik lengo marrokeriaren ondakinik: epe artu egizu, gexorik nago-ta: apurka yoango da. Etxon apur baten, daku-sagun: "Gure erruki izango al dau Yaunak" (52) idatzi egiezu orrei iruroi, izurriak yota dagoz-eta; euren biotzetan dabe izurria; izurriak yota dagoz, eta zuon begiak izan dira gaitz ori erantsi dautsenak: etorri yake gatxa yaunoi, eta zuok zeuok be etzagoze gatxak arean yo bagarik, Yaungoikoaren eskuaren ukutu-agiririk zeuokan be ba-dakust-eta.

ERREGE-AL.—Ez, agiriok emon dauksuezanak dira zindorik eta osasunez dagozanak

BIR.—Baiturik dagoz gure ondasunak: etzadize ibili gure ondamentiaren billa.

ERROS.—Ezta olangorik; eta izan be, zelan

egon zeintekeze zuok baiturik, zeuok zarie maitasun-billa zabilzenak-eta?

BIR.—Ixilik zu, zukin zer-ikusirik eztoz izan gura-ta.

ERROS.—Neuk be eztoz izango zukin, asmo doudana egin ba' dagit.

BIR.—(ERREGE, LONG., eta DUM.'ri) Zeuok itz egizue, nire buru-bizkortasuna atzenetan dago-ta.

ERREGE.—Zurigarri politen bat irakatsi egiguzu gure uts zakarren zurigarritzat, andera ezii orrek.

ERREGE-AL.—Autorpena bera da politena. Etxarie izan emen kokomarroturik oraintsu-oraintsu, ala?

ERREGE.—Bai, andera, izan naz.

ERREGE-AL.—Eta yakitun eta oarturik izan ete zara?

ERREGE.—Bai, andera lirain.

ERREGE-AL.—Emen izan zareanean zer esan dautsazu ixilpean belarrira zure andeari?

ERREGE.—Mundu guztiari baño lotsa ta begirapen geiagu dautsadala esan dautsat. ERREGE-AL.—No ak orretzaz eupada egin dautsunean zapuztu egingo dozu zuk a.

ERREGE.—Ez orixe, nire omena-arren.

ERREGE-AL.—Ixilik, ixilik, arteak artu; bein zin bat ausiazkero, eztoz inok beartubearrik besterik austeko.

ERREGE.—Zapuztu, ezetsi nagizu zin au ausi ba'dagit.

ERREGE-AL.—Zapuztuko zindukedaz, eta, orrazkero, yagon eta bete egizu: —Errosaline, zer esan dautsu belarrira ixilka Errusitarak?

ERROS.—Andera, bere begietako argia bestean maita nauela zin egin dautsat; eta mundu au baño obelat etsi nau; eta, orrez ganera, nilkin ezkonduko dala, ostantxean nire maitaletzat ilgo dala.

ERREGE-AL.—Zori ontsu izango al az orrekin, neskato! zintzo deutso bere itzari yaun zindo-zindo onek.

ERREGE.—Zer esan gura dozu, andera? Nire bizia-arren, nire zintzotasuna-arren, nik eztautsat egin andera orri olango zinik.

ERROS.—Egin dozu, zerua-arren; eta orrako orren sendagarritzat onako au emon dautsazu: baña artuizu atzera, yaun.

ERREGE.—Nire zintzotasuna ta au errege-ala-beari emon dautsada nik; aren besoan piti au izanetik ezagutu dot nik a.

(52) Legenardunen eta osteango gaitz intsigikordunen etxeko ate-buruan idazten ziran itzok.

ERREGE-AL.—Asketsi nagizu, yaun; orrek erabili dau pitxi au; eta Biron yauna izan da nire maitea, eta eskerak dagiodaz; eta? Gura nozu zuretzat, ala atzera artu gura dozu zure pitxia?

BIR.—Ez bata, ez bestea; biai agur dagiet.—Ba-dakust or izan dan marroa: gure olgeta-aren barri aurreztiak yakinda, itundu egin zarie zuok emen, Gabonetako antzerki legetxe birrindurik izteko: txutxuputxulari, barritsu, zurikeritsu, adar-yole merke txoriburu, barri-ontziren batek, mai-zaldunen batek, Dick'en batek (53), urteetan irribarre baten bizi danen batek, atarako gogorik dauen anderari barre eragiteko marroak dakizanen batek emon dautsue aurreztiak gure asmoen barri; bein gure asmoen yakitun, alkarrekin aldatu egin dabez anderok gure esku-erakutsiak; eta orduan guk, ezau-garriaren yarra, urli emakumea bera bagarik, aren ezaguarria artu dogu gure maitetzat. Gure zin-austea itzalago ta ikaragarriago izan dadin, barrien barri zinausten dogu orain, geure kitetik lenengoz, oker airtuta, bigarrenez. Bego au, asko da esana be: (BOYET'eri) eta zuk, gu onan zintzo-ez egiteko, iragarri dozu aurreztiak gure olgeta, gure yolasa? Aiton-semeri dagokionez, zuk ezta kizu nire Anderearen oñak begiratzen-eta, beti zagoz No aren begi-bolai irrika? Eta aren bizkarraren eta sutegiaren bitartean, ontzia eskuetan dozula, etzara egoten zu izkirimiri barregarriak eralten, ala? Zuk nastu dozu gure esku-mutila: ekiozu, ekiozu, ba-dozu orretarako gure ederre-tsirik; zeuk noz-gura il zadiz, gorpu-yantzizat gona bat iminiko dautsugu-ta. Zearretara begiratzen dozu uxo ta gorrotz, ez ete? Berunezko ezpateak legetxe zauritzen dau zure begiak.

BOY.—Zaldun adoretu onek bai ariñeketa lango ariñeketea, atzetik ara yarra yakozanean: ariñeketalari lango ariñeketalaria dogu au!

BIR.—Ara! oraindik be zaldunketan daragoio! Bego; amaitu dot.

KIRTEN aurrera.

Ondo etorria, buru-bizkortasun uts ori! garraiz, mugaz, tertzioz ator, burrukari lango burrukari bi bananduteko.

KIRT.—Ene Yaun ori, yakin egin gura dabe aik iru gizon aundiak barrura sartuko diranentz.

BIR.—Ostera! iru baño eztozak, ala?

KIRT.—Ez, yaun; baña edertosko egingo da

egitekoa, baktokak iruena egingo dau-ta. BIR.—Eta bederatzi dozak iru iruko.

KIRT.—Ez olangorik, yaun; oker ezpa'nago, eztoi uste olan danik; ez etorri gugana eske, ez orixe; ba-dakigu guk dakiguna; nire ustez, yaun, iru bider iru baño ezlira.

BIR.—Bederatzi eztozak, ala?

KIRT.—Oker ezpa'nago, yaun, ba-dakigu guk zenbat diran.

BIR.—Yupiter-arren, beti izan yoadaz nik bederatzitza iru iruko.

KIRT.—Ene Yaungoikoa! yaun, galdua zintzakez zenbatzetik irabazi bear ba'zendu bizibidea.

BIR.—Zenbat dok, ba?

KIRT.—Ene Yaungoikoa! yaun, ekitaldiak eurarak, antzezlarriak erakutsiko dautsue zenbat diran; nire aldetik, aik diñoenez, gizon batena egin bear dot nik, gizon beartsu onek: Ponpei Aundia'rena, yaun.

BIR.—Gizon aundietariko az i be, ala?

KIRT.—Eder etsi dabe aik Ponpei Aundia'rena egiteko ni gai nazala uste izatea; nigazko, nik ezta kiz gizon aundi a zetariko izan zan, baña arena egin bear dot.

BIR.—Oa, ta esaiak gertau dadizala.

KIRT.—Bikain egingo dogu gure egitekoa, yaun; ardurarik iminiko dogu orretan. (KIRTEN'ek alde).

ERREGE.—Biron, lotsaturik itxiko gabez aik; ez al dozak etorriko.

BIR.—Lotsatu-ezindurik gagoz gu, ene yaun; eta bide ontzat dot erregearena ta aren lagunena baño ikuskizun txaragarrik erakustea.

ERREGE.—Ez al dozak etorriko, gero.

ERREGE-AL.—Bai, ene yaun on, ederreysi egizu orain zuri neuk agintzea; ederreysi egizu; gitxien uste dan yolasa izaten da sarritan atsegingarriena, zegaitik ezta kigula; atsegin emoteko aperturirik aundiena erabili, eta zer atsegingarria, emoten dagoen eskuetan ilten danean, erakuskizunen antza aldatuago ta pozago egiten dira ikusleak, egin-eginean be zer aundiak yaioteko ziran aldi berean ilten diranean.

BIR.—Arako gure yolasaren egin-egineko azalbena yatsu ori, ene yaun.

(53) Nor dogu "Dick" au? Irakurri egizu Henry Chettle'n "Kind Harts Dreame" bai, ta ortik yakingo dozu Dick au Essex'eko Baintre uriko perietan egunean ogei xilin irabazten ebazan abeslari entzutetsu dala.

ARMADO aurrera.

ARM.—Igartzi ori, eske ta eske nagotsu itz bi esateko lain errege-arnasa ezli eralgi dagizula. (ERREGE'kin izketan daragoio ARMADO'k, eta ingi bat eskuratzen dau-
tsu).

ERREGE.—al.—Yaungoikoaren otseinetariko ete da gero, gizon ori?

BIR.—Zegaitik itanduten dozu?

ERREGE.—al.—Yaungoikoak egindako gizon-
nek lez eztau itz egiten orrek.

ARM.—Bardin da, ene bakaldun lerden, go-
zo, ezli; eta izan be, ume-irakaslea irudi-
mentsuegi da, ero be eroegi, bai, ero be
eroegi; baña orraitino be guk, or diñoenez,
"fortuna della guerra" ren eskuetan imini-
ko dogu gure egitekoa (54). Gogoko bakea
opa dauzuet errege-bikote orreri. (Alde
ARMADO'k).

ERREGE.—Toroi'ko Etor'ena egiteko da ori;
Ponpei Aundia'rena egiteko, Kirten; Ale-
sander'ena egiteko, abadea; Erkul'ena, Ar-
mado'ren esku-mutila; Yuda Makaba'rena,
ume-irakaslea. Eta lau gizon aundiok euren
lenengo agertaldian ondo egin ba'dagie eu-
ren egikizuna, yantziak aldaturik, beste bos-
tena be egingo dabe.

BIR.—Lenengo agertaldian sartzen dira bost.
ERREGE.—Oker ago; eztok olangorik.

BIR.—Ume-irakaslea, arroputza, auzo-abadea,
ergela ta esku-mutila; "novum" yokaldi ba-
tegaz 55) baztatu egizuz besteak, bai, eta
mundu osoak be eztauz batuko olango bes-
te bost, baktotxa bere egitekoan, eta bere
gogaldi ta etorrian.

ERREGE.—Egin dau itsasora ontziak, eta or
dator arin-arin. (Yezarlekuak dakarrez
ERREGE, ERREGE-ALABA, ta besteentzako).

Bederatzi Gizon Aundien erakusketa.

KIRTEN aurrera, iskillioakaz, Ponpei'rena egi-
teko

KIRT.—Ponpei nozue ni...

BOY.—Guzurra diñok, i ez az a.

KIRT.—Ponpei nozue ni...

BOY.—Leoi nabarraren burua belaunetan do-
kala.

BIR.—Ondo esanda, irrilari zar! Nai ta nai
ez izan bear yoat ire adiskide.

KIRT.—Ponpei nozue ni, Ponpei, izengotiz
Asarrea...

DUM.—Aundia.

KIRT.—Aundi da, bai, yaun...; Ponpei, izen-
gotiz Aundia Gudategian, ikurdi ta ikur-
ditxoaz, nire areriotari izerdituaz ontsana;
Eta itsasegi au zear alanbearrez ona etorri-

ta, Nire iskillioak emen Pantze'ko neska ez-
ti onen onetan iminten dodazana, Zure an-
deratasunak esan ba'dagi, "Eskerrik asko,
Ponpei", eginik dot nire egitekoa.

ERREGE.—al.—Esker aundiak, Ponpei Aundi.

KIRT.—Ezozu orrenbestegarririk; baña bikain
egin dodala uste dot; uts txiki bat egin dot
arako "Asarre" tan.

BIR.—Nire txapela egiten dauzat txakurtxi-
kiari, baietz izan Ponpei gizon aundirik
aundiena.

NATANEL aurrera, iskillioakaz, Alesander'tzat.

NAT.—Munduaren agintari nintzan ni mundu
onetan bizi nintzanean; Eguzki-alde, sar-
kalde, iparralde ta egoaldera zabaldu ne-
ban nire benderatzalle ala.

Argiro diragar nire ezpateak Alesander na-
zala ni.

BOY.—Ezetz diño zure surrak; ez, etzara vu
olangorik; artezegi da zure surra.

BIR.—Ezetzaren suneak artzen dau emen zu-
re surrak, sur oarkordun zaldun.

ERREGE.—al.—Larritu egin da benderatzallea,
Aurrera, ekin, Alesander adoretzu.

NAT.—Munduaren agintari nintzan ni, mundu
onetan bizi nintzanean...

BOY.—Bai, izan be, egi-egia; olangoxe zin-
tzazan, Alesander.

BIR.—Ponpei Aundia...

KIRT.—Zure otsein, eta Kirten.

BIR.—Atera egik ortik benderatzallea, atera
egik ortik Alesander.

KIRT.—(NATANEL'i) Ba! yaun, lurrera eratsi
dozu zuk Alesander benderatzallea! eza-
batu egingo zabez zapi margoztutik orre-
gaitik; Aiax'eri emongo yako bere alda-
meneko aukian aizkorea dauen zure leioa:
a izango da bederatzigarren gizon aundia.
Benderatzalle izan, eta itz egiteko bildur!
Igesi lotsea-arren, Alesander. (NATANEL
yaunak alde) Aor, eta txartzat ez al do-
zue artuko; aor gizon ergel samar eta otza-
na, gaitz bagakoa, gizon zindoa, bai orixe,
eta bertatik gelditu da porrot eginik! itza-
lez da ori auzoko on, bai orixe; bolari bi-
kain da: baña Alesander'tzarako... ai ene!
ikusi dozue zelan gelditu dan... benderatue-

(54) "Fortuna della guerra" Itatera itzok
"guduko alanbearra" esan gura dabe.

(55) "Novum" au ditera edo dado yoko bat
yatsu; yoko-era orretan bederatzi ta bost ebe-
zan lenengo biak besteak baztarririk izten
ebezan.

gi... baña ba-datozane artean ba-dago gizon aundirik bere gogoaren orrenaz bestera iragarriko dauenik. bat baño geiago be.
ERREGE.—AL.—Baztartu zadiz, Pospel adoretzu.

OLOPERNA aurrera, YUDA'tzat iskilloz yantzirik; eta ZITZ, Erkul'tzat, iskillokaz.

OLOP.—Mutiko oker onek egiten dau Erkul Aundia'rena.

Onen makileak erail eban Kerber izeneko iru burudun txakurra;

Eta ume, mutiko, txotxo, kakanarru zanean, Sugeak bere "manus"ez (56), samea bihurturik, onan erailten ebazana:

"Quoniam" "57) umezaroan dagola dirudi, "Ergo" (58) zuriketa onegaz natortzue ni... Ben-benarena egin, bai, eta ondatu adi.

(ZITZ'ek alde)

Yuda nozue ni...

DUM.—Yuda, Yudas!

OLOP.—Ez Iskariot, gero, yaun...

Yuda, Yudas nozue ni, izengoitizat Makabai dauena.

DUM.—Makabai moztu, kenduazkero, Yuda baño eixatsu Yuda Makabai.

BIR.—Saltzalle mosugina. Zelan Yuda'tu zara?

OLOP.—Yuda, Yudas nozue ni...

DUM.—Ainbat aundiago zure lotsaria, Yuda.

OLOP.—Zer esan gurozu, yaun?

BOY.—Yuda'ri bere burua eskegiatzotea.

OLOP.—Zeu asi, yaun; ni baño zarrago zara zu.

BIR.—Ondo ateratako ondorena: intxusa bate-tik eskeri eban bere burua Yuda'k (59).

OLOP.—Ni enozue nastuko, enaz lotsatuko be.

BIR.—Arpegirik etozzulako.

OLOP.—Zer da, ba, au?

BOY.—Kitarra-burua.

DUM.—Albadorratz-burua.

BIR.—Erastuneko buru-azurra.

LONG.—Erroma'ko beñolako diru-arpegia, nekez agiri dana.

BOY.—Kaisar'en ezpatearen esku-lekua.

DUM.—Ontziaren arpegian irarritako azurra.

BIR.—Yantzi-kakoko Gorka Deunaren mosu-erdikina.

DUM.—Bai, eta berunezko yantzi-kakokoa.

BIR.—Bai, eta agin-ateratzalleak bere txapelean daroana: eta yarra orain, agirian imini augu-ta.

OLOP.—Arpegia ostonduzo bai egin daustazue zuok.

BIR.—Guzurra: mosuak egin bai, egin dauskaguz guk.

OLOP.—Baña guztiak ezabatu dozuez zuok.

BIR.—Leorik ba'intz be, orixe egingo geuke.

BOY.—Orrazkero, asto dalako, doala. Agur,

ba, Yudas kutun! Ostera! zegaitik ago or?

DUM.—Bere izenaren atzenaren begira dago ori.

BIR.—Yudas'en atzeneko as'aren, astoaren begira (60); emoiozue; alde egik, Yudas.

OLOP.—Ezta ori bape eskuzabal izaterik, ezta txerakor eta begirapentsu izaterik be.

BOY.—Argi bat ekarriozue Monsieur Yuda'ri! ilunduten asirik da, eta ostoporik egin legike.

ERREGE-AL.—Ai ene! Makabai gaxoa, orri bai eraso dautsoe!

ARMADO aurrera, iskilloz yantzirik, Etor'ena egiteko.

BIR.—Ostondu egik ire burua, Akileu: emen yatok Etor iskilloz yantzita.

DUM.—Nire adarra yoteak atzera nire ganera etorri ba'dadiz be, gogargi ta txikari izango naz orain.

ERREGE.—Toroi'tar bat baño etzoan Etor, onen aldean.

BOY.—Etor da au, ala?

DUM.—Nire ustez Etor etzan orren garratzarik.

LONG.—Mamitsuégi dok orren zangoa, Etor'ena izateko.

DUM.—Zanga-mami geiago arenak baño, bai orixe.

BOY.—Ez; zer txikiirik geiago dau orrek, aundirik baño.

BIR.—Au ezin izan dateke Etor'ik.

DUM.—Edo yainkoren bat, edo margolarien bat yatsu ori, mosuak egiten dauz-eta.

ARM.—Esku-erakutsi bat emon eutsan Etor'i Marte iskillu-sendoak, alorodun astamakildunak...

DUM.—Bai, intxaur usaintsu urreztau bat.

(56) Lateraz "manus" itzak "esku, eskuak" esan gura dau.

(57) -lako. "Quoniam umezaroan dagola dirudi" = Umezaroan dagola dirudilako.

(58) "Beraz, orrazkero" esan gura dau Laterazko "ergo"k.

(59) Itz bat bera, "elder", da Ingelanderraz "zarrago" ta "intxusa" zer biak diragarzana. Ortik dator Ingelanderaz eztabaida onen gatz guztia.

(60) "Asto" esan gura dau Ingelanderazko "ass" itzak, irakurritz "as" danak.

BIP.—Limoi bat.

LONG.—Sundakiz betea.

DUM.—Ez, ausia, itzekarrotua.

ARM.—Ixilik! "Esku-erakutsi bat emon eutsan Etor'i, Ilion' en ondorengoari

Marte iskillio-sendoak, alorodun astamakiladunak;

Gizon ain adoretzu izan-eta, eraso ta ekingo leuke seguru

Goxetik gabearate, bere txoznatik landa.

Ni nozue arako lorea...

DUM.—Arako patana bai i.

LONG.—Arako usa-lora bat.

ARM.—Longabil yaun ezti, ten egiezu zure miñaren ago-ugalai.

LONG.—Lokatu, nasaitu egin bear yauntsazat ugalak, Etor'i erasotera yoak-eta.

DUM.—Eta xarlango bizkor dok Etor.

ARM.—Ilik eta usteldurik dago gudari adoretzu a; kutunok, ez egiezu eragin ilobiratuaren azurrari; gizon izan zan a, arnasarik eban artean.-- Baña aurrera noa ni nire asmoagaz. (ERREGÉ-ALABEA'ri) Erregentasan ezli ori, adi zakidaz zure entzumen-armenagaz. (Bellarrira dirautso zerbeit BIRON'ek KIRTEN'ri).

ERREGÉ-AL.—Itz egizu, Etor adoretzu: poz-eztitan gagoz gu.

ARM.—Gur egiten dautsat zure eder eztiaren oskiari.

BOY.—Oñagaitik maite dau orrek No ori.

DUM.—Oñagaitik ezeze, kaneagaitik be maite legike.

ARM.—Anibal baño askozaz be aundiago izan zan Etor au.

KIRT.—Etor lagun, seindun yagok ire laguna; bai, seindun dok No a; ernari dok a, ile biatzero.

ARM.—Zer esan gura dok?

KIRT.—Nire sinistea-arren, Toroitarr zindorena egin ezpa' dagizu; egin dau neska gaxoarenak; seindun dago a; ikutika daragoio señak aren sabelean; eta zure da a seña.

ARM.—Nausi-mausien aurrean baztuten nok, ala? Il egin bear dok.

KIRT.—Olangorik egin ba'dagizu, narrua berotuko dautsoe Etor'i, Yagobetxu seindun egin dauelako, eta eskegi egingo dabe gero, Ponpei erail dauelako.

DUM.—Inondiko be inondiko az i, Ponpei!

BOY.—Entzute aundiko Ponpei, Ponpei ospatsu!

BIR.—Aundi baño aundiago, Ponpei aundi, aundi, aundi! Ponpei Asarrea!

DUM.—Dardara baten, ikaraz dago Etor.

BIR.—Eragin yako Ponpei'ri, suak artu dau. Ate (61) geiago. Ate geiago! Eragiok, ekiok, orri, orri!

DUM.—Eupada egingo dautso orri Etor'ek.

BIR.—Eulik edoski daiken beste gizon-odolik ba'dau bere sabelean bai.

ARM.—Ipar lur-ertza-arren, eupada egiten dauskat.

KIRT.—Abegaz, adakigaz eztoz egingo nik burrukarik (62), iparraldeko gizonak egin daroenez; ebagi egingo dot nik, zirti-zarta; ezpataz egingo dot orrako ori.-- Arren, nire iskillioak atzera artzen itxi egidazue.

DUM.—Leku egin gizon aundi asarratuai.

KIRT.—Mangutsik egingo dot nire egitekoa.

DUM.—Ori, ori, Ponpei adoretzu!

ZITZ.—Ugazaba, zure yakea askatzen itxi egidazu. Eztakusazu Ponpei'k burrukarako bilustuten daragoiola, ala? Yantziak erazten daragoiola, ala? Zetan yagoz? Galdue egingo dozu zuk zure entzute ona.

ARM.—Aitonseme ta gudariok, asketsi, parkatu nagizue; ni enoa mangutsean burrukarik egiten.

DUM.—Ezin zeinke ezetzik esan; eupada egin dautsu Ponpei'k.

ARM.—Aitonseme maiteok, esan daiket, eta esan be esango dot.

BIR.—Ze zuri-bide, ze zegaiti dozu orretarako?

ARM.—Argi ta garbi esateko, eztoz nik atorrarik; artillezko bat erabili bear dot obeneketa artzeko.

BOY.—Egia, eta Erroma'n ezarri dautsoe obeneketa ori, eunik ezagaitik; eta arrazkero, eta zin egingo neuke egia dala au, arrazkero eztau erabili orrek Yagobetxu'ren ontzi-sorki bat baño, eta biotz-ondoan daro orrako ori, esku-erakutsizat.

(61) "Ate" ez da emen atakarrik, sartu-urteko biderik, gero. Eladetarren mitu-iztiko yainkono baño. Ate dalako au Tzeu, naiz Eris'en alaba ei zan, eta bere egikizuna gaiztoai gaiztakeri geiago eragitea ei zan, gaiztakerion neurria bete-arteño. Orrazkero, ba, emen Biron'ek esan gura dauena zera da: Kirten'ek ekin dagoiela Armado zirikatzen, Armado beretzen, sumintzen.

(62) Ingelanderaz "pole" itzak "ludi-ertz, ludi-buru, ta abe edo adaki" zer biak esan gura dauz, eta ortik sortzen da emen Armado'k eta Kirten'ek euren artean darabilen zimardika edo itz-yokoa, itz ori batuk esangura batean, besteak bestean arturik eta erabilirik.

MERKAT aurrera.

MER.—Yaungoikoak yagongo al zauz, andera!

ERREGE-AL.—Ondo etorria, Merkát; gure yolasá etenez beste edozegaitik.

MER.—Tamalik asko dot, andera; nik dakadazan barriak astun dira nire miñarentzako-ta. Zure aita errege...

ERREGE-AL.—Il egin da, ezta?

MER.—Bai, orixe; esan dot nik esatekoa.

BIR.—Álde egizue, gizon aundiok; odeiak agertu dira agerlekuaren ganean.

ARM.—Nigazko, oraintxe asten naz arnasea nasai arzen; ikusi dot laido-eguna nire bereztearen zulotxoá zear, eta zuzena egingo dautsat nire buruari gudariri dagokonez. (Álde gizon aundiak).

ERREGE.—Nolan dago zure nagusiagotzea?

ERREGE-AL.—Boyet, gertakuntzak egizuz; arratseon alde egingo dot.

ERREGE.—Ez olangorik, andera; emen gelditu zadiz, arren.

ERREGE-AL.—Egin gertakuntzak, gero.— Eskerrik asko zuoi, yaun txerakorroi, zuon alegin atsegingarri guztiakaitik; eta barri etorbarriz gexorik dagon biotzez eskatzen dautsuet, zuon yakituri ta zurtasun aundiaz zuritu, naiz aintzakotzat artu ez, egin dagizuela gure gogaldiak eraginda zuon guriariz bestera egin izan doguna; azarriegi, lotsabakoegi izan ba'gara gure auluetan, zuon txerakortasunak izan dau orren erru. Agur, aintzako yaun ori; min astunek eztau izaten miñ bizkorrik; zuritu nagizu, nire eskaria ain errez iritxi izanik, eskerrak emoten onen labor nazalako.

ERREGE.—Aldiaren azkenetan, asti gitxi gelditzen dala-ta, dana beingoan gertatzen dau aldiak, iraduari erantzuteko; eta alde egiterakoan erabagiten dau sarritan, luzaroan erabagi ezin izan dauena; eta iletea dauen alabearen arpegiak maitasunari irribarrezko txerarik ezin egin ba'dautso, bere laguntzako begiragarriak atara itzuli gura izanarren, orraitño be, lenen sortu izan dan gaia maitasuna izan da-ta, naibage-odeiak ez al dautso iminiko eragozpenik bere asmoen elburura eltzeko; izan be, adiskide egin-barriakin poztutea bestean onuragarri ezta galduriko adiskideai, maiteai negar egitea.

ERREGE-AL.—Eztautsut aituten; adi-gogor, sogor dira nire naibageak.

BIR.—Izurbako itz zindoak sartzen dira ondoen eta errezen belarrira-ta, bide orretatik aitu egizu erregea. Zuokanako maitasuna-arren asti ederrik asko, galdu dogu

guk, ta ustel izan gatzakez gure zinai. Anderok, lengoaz beste gizonik egin gauz zuokanako maitasunak, eta eurenaz besterako bidea arrazo dautse gure gogaldi ta asmoai. Barregarri iruditu ba'gatzatsuez, maitasuna gogaldi ta urteera ez-egokiz beterik egoten dalako da, ikutika ta zorakerietan dabiltzan umeen antzeko dalako. Begiz sortua dalako, begiaren antzeko da maitasuna, irudiz, apaingarriz eta iñondiko antzez beteá. Aldakor da berak dakusana, begiak bira egin-ala, ak dakusana be aldatzen dan legetxe; eta zuok gure zinai eta gure bentasunari eztagokiezantzat artu ba'dozuez gure arinkeri ta umekeriak, gure utsok dakusezan zuon begiak izan dira utsok egiteko gu zirikatu gabezanak. Orrazkero, anderek, gure maitasuna zuona, zuok zeuok sortua danazkero, maitasunak egiten dauzan okerrak be zuonak dira, zuok zarie onein errudun; geutzako ustel izan ba'gara, zuontzako beti zintzo izateko izan gara; geutzako bein ustel izan ba'gara, zuontzako betiko zintzo izateko izan da, zer biok eragin dauskuzuezanentzako, zuontzako, anderek. Orrazkero, ba, berez oben dan ustelkeri au garbiturik, ikuzirik gelditzen da, ta bai ederturik be.

ERREGE-AL.—Maitasunez bete-beteriko idazkiak artu doguz zuokandik; zuon esku-erakutsiak, maitasunaren geznari edo iragarleak; eta gure neska-batzarrean, txerakortasuntzat, adarra yote atsegingarritzat, eta labankeritzat, puzkeritzat, eta asti-emongarritzat etsi izan doguz; gure aldetik ori baño geiagorik eztozu uste izan; eta orregaitik, zuon maitasunai eurái egokienez erantzun izan dautsegu, adarre yote ta olgetatzat artuta.

DUM.—Olgetarik baño geiago iragarriten eben gure idazkiak, andera.

LONG.—Bai gure begirakuneak be.

ERROS.—Eztozuz artu guk olangotzat.

ERREGE.—Orain, orduaren azkenengo minitoan emoiguzuez zuon maitasunak.

ERREGE-AL.—Áldi laburregi da au, nire ustez, beti-betirako egiumerik egiteko. Ez, ez, ene yaun, zin-austez beteegi dago zure ederra, errurik geiegiagaz; eta, orrazkero, au dirautsun... nire maitasuna-arren, -baña eztago olangorik-, ezer egin gura ba'dozu, au egin bear dozu nigaitik; ezlot uste onik zure zinean; baña zoaz arin be in lekaro bakar eta gorria, munduko atsegin guztielatik urrin dagonera; eta an egon zadiz ortziko amabi ezaugarri edo atzak euren urteko zenbaki osoa biribildu arte.

Zure odolaren bero-aldian egindako zure eskeintzea bizitza latz eta laguntza bagako orrek aldatu expaidagi; leiak eta barauteak, eztegi gororak eta bedar mengelak erre expa'dagiez zure maitasunaren lora txai-roak, orduan, urte-buruan, erdu ona, eupada ta eupada egidazu irabaziokaitik, orain zureari mun egiten dautsan esku-barru au-arren, zure izango naz-eta; eta, une atararte, negar egiteko etxeren baten sartu ta an egongo naz lorrez bete au, nire aitaren eriotzearen oroimenaz negarrezko euri-zaparradak ixurita. Onako au ukatu ba'dagizu, banandu dagiguzan gure eskuak, bat onek be bestearen biotzerako eskubiderik eztauela.

ERREGE.—Orrako ori, naiz geiagorik, ukatu ba'dagit, atsedenez nire buruari eder egite-arren, bapateko eriotzearen eskuak itxiko al dauz nire begiak! Beraz, oindik ara zure bularrean dago nire biotza.

BIR.—Eta zuk, nire maite orrek, zer diraustazu zuk? Zer diraustazu zuk?

ERROS.—Zuk be ba'ozu garbitu-bearrik: zarren zarrez urdinduta dagoz zure obenak; utsez eta zin-austez orbandurik zagoz zu: orrazkero, ba, nire esku-erakutsirik lortu gura ba'ozu, amabi ilebete igaro bear dozuz, bein be atsendenik artzeka eta gexoak billatu bear dozuz euren oe nekatuetan.

DUM.—Zer diraustazu niri, ene maite? Zer niri?

KAT.—Zuri, emakume orri!... bizarra, osasun ona, ta zintzotasuna; iru zerok eta maitasun irukotxa opa dautzudaz zuri.

DUM.—Ene! eskerrak emongo ete dautsudaz, emazte maitagarri orri?

KAT.—Ez olangorik, ene yaun: amabi ilebete ta egun bat, eztautset nik yaramonik egin-go maitale arpegi-leunen itzai: zatoz zu be erregea nire andereagana etorri dadinean, eta orduan, maitasun aundirik ba'dot, arean emongo dautsut andik.

DUM.—Otsen yator eta zintzo izango natxatsu ararte.

KAT.—Orraitiño be ez egin zinik, bariro be zinik ausi eztagizun.

LONG.—Zer diño Miren'ek?

MIR.—Amabi ilebeteen buruan aldatuko dot nire soñeko baltza, adiskide zintzo bat artzeko.

LONG.—Epez etxongo dautsut! baña luze da aldi ori.

MIR.—Zure antzekoago orrexegaitik: zu baño luzeago gitxi dira orren gazterik.

BIR.—Ikasten daragoio nire andereak, ala?

Andera, begiratu nagizu: begira nire biotzaren leioa, nire begia, begira zelan zure erantzunaren begira dagon an nire eskari apala! Otsentzaren bat ezarri egidazu zure maitasuna-arren.

ERROS.—Sarritan entzun dot zutzaz, ene yaun Biron, zu ikusi-aurretik; eta munduaren min luzeak irriz beteriko gizontzat, alderatze ta ezespén mingorrez asetzat autotzen zauz, eta zuk zure buru-bizkortasunaren barruan yausten dan edonori egiten dautsazu orrako ori, bape erruki bagarik. Atera egizu zeden ori zure buru mardul-emokorretik, eta eder ba'dakitsu, esango dautsudanz ni irabazteko, --eta ori bagarik ni enozu irabaziko--, amabi ilebeteotan itz bagarik dagozan gexoak ikusten, eta autumautuka ibiliko zara intzirika daragoioen orretariko gexoakin; eta zure buru-bizkortasunak emon leiketsuzan zure alegin guztiak orretaike gexoai irribarre eragiten erabiltea izango da zure egikizuna.

BIR.—Eriotzearen ezarriari barreen barreak eragitea! Ezina da orrako ori; ezina baño ezinago da ori: pozek ezin eragin leio ilagirik dagoneri.

ERROS.—Ba, orixe yatsu gogo irilaria, entzula azal barreberak euren ederretsiz ergelai atarako irritsa edo leiea emoten dautsenai, irri-gogoia kentzeko ta itoteko bidea; dantzunaren belarrian dago, an datza izkirimirren bizi mardula, eguño bez esan, naiz asmau dauenaren miñean; orrazkero, ba, belarri gexoak, euren intziri ta negar mingorrez gorturik dagozanak entzun ba'dagiez zure irri alperrak, ekiozu orretan, eta nik artuko zaudedaz zeu eta zure utsak: baña aik entzun expa'dagitsuez, orlik zear egotzi egizu zure gogaldi ori, ta uts ori bagarik utsik idoroko zaudaz, arteztu zarea-lagaz pozik.

BIR.—Amabi ilebete! tira ba, yazotekoa yazo, amabi ilebetean elingo dautsat izkirimirka gexoteji edo eritegiren baten.

ERREGE-AL.—(ERREGE'ri) Bai, ene yaun maite; eta onan, agur dagitsut.

ERREGE.—Ez, andera; geu lagun izango gaxatsuz bidean.

BIR.—Gure kutunketea ezta amaitzen beñolako antzerkia legetxe; Yon ezta ezkontzen Yone'kin; anderon txerakortasunak egin eikean, ba, antzerkirik gure olgeteaz.

ERREGE.—Tiruk, yaun, amabi ilebete ta egun baten irauñ bear yok, eta orduan amaituko dok antzerki au.

BIR.—Aldi luzeegi da antzerkirentzako.

ARMADO aurrera.

ARM.—Nagusia gotza maite, emoidazu, arren.

ERREGE-AL.—Etor ezta izan ori, ala?

DUM.—Toroï'ko aintzako zalduna.

ARM.—Zure erregeno-atzari mun eginda, alde egingo dot: zin eginetariko nozu ni; Yagobetu'ri zin egin dau tsat iru urtean goldaketan ibiliko nazala, aren maitasungarri izateko. Baña, nagusitza etsi-etsi orrek, entzungo ete dozu gizon yakintsu biak mosollo ta kukuaren goragarritzat ondu ta atondu daben bien arteko autua? Gure antzerkiaren atzenezan etorteko zan orrako ori.

ERREGE.—Arin dotozala esaiak, entzungo yautseguk-eta.

ARM.—Eee! erduzue.

OLOPERNA, NATANEL, ZITZ, KIRTEN eta beste batzuk aurrera.

Emendiko alde au da "Hiems", Negu: andiko alde, "Ver", Udabarri; mosolloaren irudi da bata, kukuarena, bestea, Asi, Udabarri.

ABESTI

I

UDAB.—

Lora zuri-bellegiak, eta bioleta ubelak,
Kuku-lora zillar-zuriak eta
Kuku-parka laru-bellegiak,
Zelaiak txairo apaintzen dabezanean,
Kukuak orduan, zugatz bakotxaren ganean,
Irri dagitse gizon ezkonduai, onan abestuz:

Kuku:

Kuku, kuku. Ene! itz orren bildurgarri,
Iguingarri ezkunduren belarriri!

II

Artzaiak lastozko txistua yoten dabenean
Eta larratxori argiak goldalarien erloiu diranean,
Galeperak, belatxingak eta eskillasoak aragizkoa daginean,

Eta neskak euren uda-yantziak eguzkitaraten dabezanean,
Kukuak orduan zugatz bakotxaren ganean
Irri dagitse gizon ezkonduai, onan abestuz:

Kuku:

Kuku, kuku. Ene! Itz orren bildurgarri,
Iguingarri ezkunduren belarriri!

III

NEGU.—Lei-txintxirriak ormatik dingilizka dagozanean

Eta "Yon" artzaiak atzazalai putz dagitsienean,

Eta "Lon"ek aldorrek bebarrura daroazanean,

Eta esnea abats edo kaikuan etxera leiturik datorrenean,

Odola gogortu danean eta bideak zakar diranean,

Gau oro abesten dau mosollo begi-zabalak...

Ujuu:

Uju, uju, ots atsegingarria.

"Yone" gizenak lapikoa goikoaz bera ustuten dauen bitartean.

IV

Axeak irrirtzeka putz daginean,

Eta eztularen eztulak abade-itzaldia itoten daunean,

Eta txoriak otatzat edurtzea dabenean,

Eta Marene'en surra gorri-gordin daginean,

Baso-sagar erreak ontzian putz daginean,

Gau oro abesten dau mosollo begi-zabalak.

Ujuu:

Uju, uju, ots atsegingarria,

"Yone" gizenak lapikoa goikoaz bera ustuten dauen bitartean.

ARM.—Latz dira Merkuri'ren itzak Apolon'en abestien ostean. Bide ori artu zuok, au artuko dogu guk. (Alde dagie).

AMAIÀ.

Salta'n 1962-IX-12'garrenean.

LAN ONETAKO ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

- AIZTO.—Matxeta baño bedarrago dan ebatalu; euskalgaiztoz "kutxilo".
- APERTURI.—Yoran edo zolitasun aundia zer baitetan. Arratia'n bizi da beintzat.
- ARAKIN.—Aragi-gin, abereak euren okelea saltzeko erailten dauzana.
- ARRANBEL.—Lenagoko gudu ta eizaketako iskilloa; zurezko, naiz galtzaiduzko izan ledike; moko edo punta bietatik zura, naiz galtzaidu-adakia idizilez estu ta makurtuazozkero, eginik dozu arranbela, beragaz geziak yaurtiteko. Ten egiozu idizilari, gezia alde batetik idizilari deusola dagola, naitu egizu orain, eta an doa egaz gezia, bere moko zorrotzagaz edozer zultzeko.
- ARROZTEGI.—Arrotzak, erbestetarrak artzeko etxea; euskalgaiztoz "ostatu".
- ASARRE.—Itz onek, Arraitia'n beintzat, suminduz ganera "aundi, itzal" esangurea be badau. Esaterako, gizon asarre, mutil asarre ta gizon aundi, mutil aundi, esangura bereko esakerak yatzuz.
- ATS.—Arnasa. Bizkaieraz ez orain, baña beste euskalkietan ezagun da itz au.
- ATXILO.—Iñoren benderaturik, eta geien baten baiturik dana.
- BALATA.—Itz au ezta euskerazkorik, baña gurean be artu egin bearko dogu, erriak erabiltekorik ezta-ta. Ingelanderazko iztegiak onan azaltzen dau itz au: "Abesti lau, batez be biotzalditsu ta izneurtu gitxi batzuk dauzana; izneurtu guztiak doñu berberagaz abesten dirana".
- BERUNBIL.—Berunezko bolatxo, su-iskilloz txoriak, naiz beste zerbaite erailteko.
- BIUSTURI.—Urdail. Zeanuri'n beintzat bizi da itz au. "Biusturiko miña"="urdallako miña.
- GARRAZTA.—1) Zugatz edo arbola luze. 2) Luze, esateko, "mutil garrazia yatsu ori" =mutil luze-luze yatsu ori.
- GEZI.—Ikusi "Arranbel".
- GOATU.—Beste euskalgietako "atzeman", arra-pau. Axular'ek be ba-darabil "goratu" eratan.
- GOAKAL.—Goakizun, goatu leitekena; bai goatua bera be, len goakai izana.
- IKURRATZ.—Euskalgaiztoz, "sillu".
- IKURDI.—Besoan erabilten zan guduko yagon-iskilla biribil-luzangea.
- ILARRAINDU.—Bidez arrotu.
- IRATXO.—Begiz dakusagun izadi onez ganetiko ta al aundia dabela uste dan zer ikusezin txikiak dira iratxoak. Orretariko yatsuz "maitagarriak" eta "Anboto'ko Andereak" be euskeldunen siniskeriz.
- ITSASEGI.—Itsaso-bazarreko lurra.
- IZAI.—Ler edo "piñu" antzeko zugatza.
- LEKARO.—Basamaurtu, iñor bizi eztan leku.
- MEIKI.—Euskalgaiztoz "koxo, erren". Naparroat'ko itza dogu au.
- MOKO.—"Punta" euskalgaiztoz, Bizkaia'n ezta bizi itz au, "mokatx" itzean baño.
- NARRITA.—Txantxa, adarra yote.
- OSKI.—Erderaz "zapato" daritxon oñetako; geien baten narruko.
- TXIBIZ.—Besteen ona begi onez eztakusana.
- TXIBIZKERI.—Besteen ona begi onez ez ikus-tea, on ori beretzako gura izatea.
- UKAR.—Norbaiteri errukiz emoten yakona.
- YAKINKIDETZA.—Euskalgaiztoz "kontzentzia".
- KALBA.—Sasi-eskola; irakastegira uts egitea. Zeanurin darabille itz au.
- YAINKONO.—Yainko eme.
- YAINKOAIZUN.—Guzurrezko yainko.
- ZIBA.—Mutiko-yoko ta yoko ori egiteko yostallua; "tronpea" deretxoe Bizñaia'n.
- ZUGATZ.—"Arbola" euskalgaiztoz, "Gernika'ko Arbola da bedeinkatua" idatzi ta abestu eban gure Iparragirre geldigor-ibiltariak.

UDERDIKO GAU - AMES

(A MIDSUMMER NIGHT'S DREAM)

UDERDIKO GAU - AMES

(A MIDSUMMER NIGHT'S DREAM)

ANTZERKI ONETAKO LAGUNAK

TESEU, Azenai'ko Duke.

EGEU, ERME'n aita.

LISANDER, }

DIMITIR, }

ERME'n maitaleak.

PILOSTARTA, TESEU'n Yolaz-arduradun.

IRASAGAR, Zur-arotz,

ALASOKO, Erredizgin,

ONDAR, Eule,

TXISTU, Auspo-adabatzalle,

MUSTUR, Estañugin,

GOSEAKIL, Yostun

} Bostok burua gitxi landuko aketo edo traketsak.

IPOLITE, Mari-mutil edo AMAZON'en Erregeno, TESEU'n emaztegai.

ERME, EGEU'n alaba, LISANDER'ekin maiteminduta.

ELENE, DIMITIR maite dauen neska.

OBERON, Iratxoen errege.

TITANE, Irantxoen erregeno.

IKER, Iratxo; beste izenez, Puck, naiz Robin Goodfellow.

IDARGARA, }

AMARAUN, }

SITS, }

YEBENAZI }

Iratxoak.

PIRAMA, }

TISBE, }

ORMA, }

IRETARGI, }

LEOI.

} Antzerkitartean eurona aketoak egiten daberen lagunak.

Beste iratxo batzuk euren Errege ta Erregenoaren lagungoan.
TESEU ta IPOLITE'n lagunak.

AGERLEKU.--AZENAI, ta andik urreko Baso.

I EKITALDI

I AGERLEKU.--AZENAI, TESEU'n Yauregiko Gela.

TESEU, IPOLITE, PILOSTARTA, ta lagunak aurrera.

TESEU'k.—Ara, Ipolite lirain, arin datozen gure ezteguak; lau egun zori ontsu-barru ilbarri dogu; baña, ene! ilbera au ondo luze egiten yate gero! Iretargi geldo onek nire leieak burutzea atzeratu egiten daust, gizon gazteari bere ondasunak lekarkiozana aren amordekoak atzeratzen dauson legetxe.

IPOLITE'k.—Lau egun beingoan gautuko di-

ra; lau gau aide baten yoango dira amesetan; eta orrazkero, zidarrezko mako ortzian makurtu-barriaren antzean, begiratuko dau iretargiak gure eztegu-yaietako gaua.

TESEU'k.—Oa, Pilostarta, ta eragiek Azenai'ko gazteai yolasetarako; iratzarri egik alaitasunaren gogo bizkor-lotsabakoa; bidali egik ortik zear kotilunberakeria, lagun motel-belegi ori eztok gure yai argietarako-ta... (PILOSTARTA'k alde).—Ipolite, ni zuri maitake

tak ezpatatz egina nozu, ta zure maitasuna zu irainduz irabazi neban; baña zukin ezkondu beste bidez ezkonduko naz, yai arroz, gurenda-yaiz, eta zarata-yolasez.

EGEU, ERME, LISANDER, eta DIMITIR aurrera.

EGEU'k.—Zori ontsu izango al zara, Teseu, otsandiko gure duke ori!

TESEU'k.—Eskerrik asko, Egeu on: ze barri dakak?

EGEU'k.—Naibage-naibageturik natortzu, zin-kurinka nire alaba Erme'gaitik.—Erdi ona aurrera, Dimitir.—Ene yaun yator, gizon onek dau nire ederretsia nire alabeekin ezkontzeko: —erdi ona aurrera, Lisander, i be: eta, ene yaun maitagarri, onek nire alabea liluratu ta aren biotza sorginkeriz beretu dau. Ik, ik, Lisander, ik orri olerkiak egin eta emon dautsozak; eta ik eta nire alabeak alkarri maitasun-agiriak egin izan dautsazuez; i iretargitan aren leio-aurrean abesten ibili az, guzarrezko abotsez guzarrezko maitasuna iragarten daben olerkiak abestuta; aren oldeari eragiteko ta aren biotza ostuteko, ik ari ire ule-txortak, erastunak, pitxiak, edergalluak, belarrietakoak, uskeriak, gara-sortak, eta gozok emon izan dautsozak, eta olango zerak gazte-biotz samurrari errez eragitekoak dozak; —ik ire marrokeriz nire alabeari biotza ostu dautsok; ak niri zor daustan bendekotasuna ik seta gogortu egin dok. Eta, ene duke maitagarri, nire alabeak emen zure aurrean Dimitir'ekin ezkonduko dala ez agintzekotan, Azenai'ko lege zarrak emoten daustan eskubidearen eske nagotzu ni, —neska ori nire da-ta, nik orrekin neuk zer-gura egin nengike: eta orrazkero, edo neska au gizon yator onekin ezkonduko da, edo, ori ezean, il egingo da, eta bertatik ilgo be, legeak ori agintzen dau-ta.

TESEU'k.—Zer diñon ik, Erme? zur adi nes-kato lirain; ik ire aita yainkotzat etsi bear enduken; ori don ire edertasuna atondu dauena; bai, ori don ire antz-irudia arazaitan legetxe irarri dauena ta orren eskuko don antz-irudi ori dagonetan itxi, naiz eza-batu ta manatzea. Gizon yator aintzakogari don Dimitir.

ERME'k.—Bai Lisander be, ta ez beste ori ba-ña bape gitxiagorik.

TESEU'k.—Bai, ori be berez ba-da; baña gu-re arlo onetan, orrek zure aitaren ederretsirik eztau-ta, bestea aintzakogarriagotzat etsi bear da.

ERME'k.—Nire aitak nire begiz begiratuko al leu.

TESEU'k.—Eure begiak dozan aren zurtasunez begiratu bear leulienak.

ERME'k.—Arren-bai-arren, zuk maitagarri orrek asketsiko al nozu. Nik eztaikit ni nondiko indarrek adoretzen nauen, ezta nire lotsortasunari zelan yakon egoki emen, onango tokitan, nire asmoen alde eske yarterik: baña eske ta eske nagotzu iragarri dagidazula zer izan leitekean yazo lekikedanik txarrena nik Dimitir'ekin ezkondu gura ez iza-taketan.

TESEU'k.—Edo il, edo gizon artean biziteari betiko agur egitea, Orrazkero, Erme lirain, aztertu ire gurariak, oartu ire gaztetasuna, arakatu ondo ire odola ta ikusi ia ire aitarren gurariari men ez egitekotan, lekaime-yantzirik yasan al izango donan; ire bizi guztirako lekaime-txe itzaltsuan sartu, ta ire bizi guztian lekaime antzu izango azan-nan, iretargi otz-antzuari eresi larriak abes-tuaz. Onetsi ta goragarri goragarriak olan beti neska-bizitea eroan al izateraño euren odola benderatzen dabenak; baña ludi onegazko zori ontsuago don usain gozoa emon izan dauen larrosea, larrosoño aran-tzatsuan azi, bizi, zimeldu ta deuntasun bakarrean ilten dana baño.

ERME'k.—Olan azi, olan bizi, ta olan ilgo naz ni, ene yaun, nire neska garbitasuna-ren giltzak gizon orreri emon baño len, nire gogoak orren buztarperatu ta ori here yabetazt artzeko asmorik eztau-ta.

TESEU'k.—Artu astirik ausmer egiteko; ni ta nire maitea, gu biok, urrengo ilbarriz beti-ko lokariz alkarrekin ezkontzeko gara; ara ba, gertau adi egun atarako, edo ire aitari menik egin ezagaitik ilteko, edo aren gogara, Dimitir'ekin ezkontzeko; edo Dine'n opamai-aurrean bizitza latza ta bakarra beti-ko eroango donala autortu ta agintzeko (1).

DIMITIR'ek.—Bigundu zadiz, Erme ezti ori; eta ik, Lisander, ik be bazartu ta itxi ire buru-bako eskubide dalako ori nire bene-tako eskubidearen alde.

LISANDER'ek.—Dimitir, neska onen aitaren maitasuna dok ik; Erme'na niri itxi egidak; akin ezkondu adi i.

(1) Dine au Apolon'en arreba beti neska izana doqu. Eladetarren artean Artemis eretxon yainkono oneri. Emen Shakespeare'k Erme lekaime edo "monja" edo olangotsu egin gura dau, neskatasuna Dine'ri opatu ta beti olan neska irauteko.

EGEU'k.—Lisander irrizale! egia dok, nire maitasuna yok orrek; eta nire maitasunak nire dana emonga yautsok; eta neska ori nire dok; eta nik orregan dodan eskubide oro Dimitir'eri emoten yautsat.

LISANDER'ek.—Ene yaun, ni ori bestean etxe oneko naz, eta orrek aña ondasun dot; nire maitasuna orrena baño andiago da; nire ondasunak Dimitir'enak bestekoak dira, andiagoak ezpa'dira gero; eta arropuzkeriok baño andiago dana, ni Erme lirain-lirainak maite nau: orrazkero, zegaitik ez ekingo nik nire eskubidearen alde? Dimitir'ek, —eta nik au orri arpegi-arpegira dirautsot—, Dimitir'ek Nedar'en alaba, Elene maitekatu izan dau, ta ari biotza ostu dautso; eta neska ak, neska ezti ak au kutun-kutuntzat dau, oni intsigi-intsigita dago, ta larri-larri gizon orbandu ta aldakor au gurtzeraño maite dau.

TESEU'k.—Orrenbeste neuk be entzun dodala aurtutu-bearrean nago, eta orretzaz Dimitir'ekin itz egiteko asmotan nintzan izan; baño ni neure arazoz bete-beterik egonda, orrako ori burutik yoañ yatan; baño erdu, Dimitir; eta erdu zu be, Egeu; zatoze nikin: zuoi bioi zertxobait bakarrean esan bear dautzuet.— zugazko Erme lirain, zu gertau zaitze zure gogaldi ta aldeai zure aitaren gurarien alde eragiteko, ostein, guk ezin aldatu daiegun Azenai'ko legeak zu erioztara, edo neskar biziteko Yainko-agindura bidaltzen zauz.— Erdu, ene Ipolite: nolan zagoz, ene maite ori? Dimitir eta Egeu, etorri gukin: zuoi ur-urretik ukututen dautzuen zereginean erabili bear zaudedaz gure ezteguetan.

EGEU'k.—Zure yarra goaz gogoz eta bendekotasunez.

(TESEU, IPOLITE, EGEU ta DIMITIR'ek alde; baita Yarraigokoak be)

LISANDER'ek.—Nolan zagoz, ene maite ori? Zegaitik dago zure mosua orren zuri? Zegaitik alde egin dabe ortik orren arin larrosa-margoak?

ERME'k.—Euririk ezagaitik, urrean, baño nik nire begietatik ekatzez ganaz be erreze imini nengikez.

LISANDER'ek.—Nirearena! Nik irakurri izan dodan apurretik, nik irakurriko ipuin naiz edestituk atera dodanez, maiteen gora-berak ez dira izan eguño leunak; baño bata naiz bestea izan, norberagan besterik da.

ERME'k.—Au kurutzarena! Istilluon gorri! Bateko, ni goregiko nazala orren beko mu-

tilekin ezkontzeko ta nire burua aren bendea iminteko!

LISANDER'ek.—Eta orrako ori ezean, zarregia gazteegiri lotu dautsazula.

ERME'k.—Ori ezbardintasuna! Zarregi gazteri buztartzeko!

LISANDER'ek.—Besteko, adiskideen gogara buztartu zara, ez zeurera...

ERME'k.—Au sulezea bera yatzu! Iñoren gogara autu bear zure maitea, ez zeurera!

LISANDER'ek.—Edo ta, zure bizi-laguna zure gogara autetsi ba'dozu, or datortzuz gudu, erioztea ta gatxak zure lagun ori kentzera, eta zuk autetsi ori ota lez beingorako baño ezta, itzala legetxe arin doa, amesa baño aldi laburragorako da; aide bateko bakarrik, gau iluneko tximistargia lez; begi itxi-idigi baten ortzi-lurrak erakusten dautsuz; zer ederrak olantxe aide baten ezereztuten yatzuz.

ERME'k.—Orrazkero, benetako maitaleak euren bidean beti aurkitu izan ba'dabez kurutzak eta gogoaz besterako zerak, orrako ori alan-bearrak erabagia yatzu; eta orrazkero, gure kurutza-lorrai ez artzen irrakitsi dagiegun, irudimen errukarriari darraioen burutapen, ames, intziri, gurari ta negarrak lez, kurutza-lorrok be maitasunari bearrekoak, ezin-bestezkoak yakozala-ta.

LISANDER'ek.—Onu ona orixe: orrazkero, entzun egidazu, Erme. Senar yakonak bere ondasunak itxi eutsozan izeko dot nik, eta ak eztatu seme-alabarik; arenera Azenai'tik zazpi legoako bidea dago; ak ni bere seme bakar bainintz nau. An ezkondu neindeke zukin, Erme maitagarri: eta ara ezin eldu lekikegu gure yarra Azenai'ko arako lege gordina, Orrazkero, ni maite ba'nozu, alde egizu biar gabaz ixil-muxilka zure aitaranetik; eta ni, arako bein zu ta Elene Orrilako lenengo eguneko goiz-gurketak egiteko yoanda nik idoro zinduedazan basoan, uri onetatik legoako basoan izango nozu zure begira.

ERME'k.—Ene Lisander on ori! Kupida'ren makorik sendoenarren, aren urre-mokodun gezirik ederrenarren, Benuts'en uso izurgekarren, biotzak alkarrari yosi ta maitasunak aurrera daroazanarren, Troia'tar ustela itxaroratzen ikusi ebanean Kartago'ko errege-noaren biotza kiskaltzen eban suarren (2);

(2) Troia'tar ustela Enea dogu; Kartago'ko erregeño, ostera, Dide edo Dido. Dide Eneekin maitemindu zan, eta Enea igesi yakolako bere burua il eban. (Ikus ENEARENA I-V.)

emakumek esan-ala baño agindu geiago eguño gizonak ausi izan dabezan agindua-karren zin dagitzut biar uts barik zeuk izentauko toki atantxe zukin trikitx egingo dodala.

LISANDER'ek.—Yagon zure agindua, maite. So, emen dator Elene.

ELENE aurrera.

ERME'k. Egun on, Elene lirain! Nora zoaz? ELENE'k.—Lirain deitzen non? Lirain itz ori guzurtau ta iruntsi egin, Dimitir'ek ire liraintasuna maite yon. I lirain ori bai zori ontsu! Ire begiak ipar-izarrak dozan; eta ire miñaren ots ezia artzaiaren belarrientzako larrazoriaren txorrotxioak baño be gozoago, garitzak musker diranean, elorri-pipilak idigiten diranean. Intsigikor don gatxa; ene! liraintasuna be olangorik ba'litzon, irea intsigiko litzakidan, Erme lirain, nik emendik alde egin baño len; nire abotsari irea intsigiko litzakion, nire begiari irea, nire miñari irearen eresi ezia. Ludia nire ba'litzon, nik Dimitir nire sareetan goatuazkero, gane-tikoa nik atzera emongo neunskin. Ene! Irakatsi egidan i nolango agertzen akion Dimitir'eri, eta nolan yabetuten azan aren biotzaz.

ERME'k.—Nik betozkoa erakusten yautsalat, eta orraitño be ak maite naion.

ELENE'k.—Ire betozkoak olango trebetasunik irakatsiko al yausten nire irribarreai!

ERME'k.—Nik ari biraoka yaurliten yaustanazat, eta ak maitasunez erantzuten yaustana.

ELENE'k.—Nire eskariak aldatuko al yonai a olango biotzaldira!

ERME'k.—Nik a gorrotoago izan, eta a gogozago yarraikinat.

ELENE'k.—Nik maiteago, ta ak gorrotoago naion.

ERME'k.—Ni enon, Elene, aren erokeriaren errudun.

ELENE'k.—Orrako orren errudun ire edertasunaz besterik ezton: orrako orren errudun neu al nintzon!

ERME'k.—Nasai ago; ak etxon ikusiko eguño geiago nire arpegirik; Lisander'ek eta nik toki onetatik igesi egingo yonagu.— Lisander ikusi-aurretik Azenai niri zeru iruditzen yatanan: orrazkero, ene! nire maitearen eder, ak nire zerua sulezatu egin yoneta!

LISANDER'ek.—Elene, guk zuri gure biotzak zabal zabal egingo dautzuguz: biar ga-

bean, iretargiak bedar orri-bedarrak urezko pitxiz estadi ta bere irudia urezko izpilluan ikusi dagianean, maitale igesiak ostonduten dauzan aldi orretan, gu Azenai'ko atreak zear iges egiteko asmotan gara.

ERME'k.—Eta guk biok ainbeste bider ango udabbarri-gara-artean etzanda alkarri gure biotzelako biotzaldi eztiak ustuten geuntsozan baso berean batuko gozan ni ta Lisander; eta andik, Azenai'ri agur eginda, beste nonbaiterako bidea artuko yonagu, adiskide barri ta inondiko lagunen billa. Agur, olgeta-lagun ezli orri: otoi egin gure alde, eta ire Dimitir'ekin zori ona izango al don! Yagon zure itza, Lisander; alkar ikus-gura diran gure begiak goseak ilik euki bear doguz biar gabardi gaberdirate.

LISANDER'ek.—Yagongo dot, ene Erme. (ERME'k alde).

Agur, Elene: zuk a legetxe. Dimitir'ek zu kutun-kutun zauz! (LISANDER'ek alde).

ELENE'k.—Batzuk beste batzun aldean zori ontsu yatuz! Azenai osoan ni a bestean liraintzat nabe. Baña orlik zer? Dimitir ezta uste orretakorik; ak ezta ezagutuko beste edonok dazagunik. Erme'n begiak zorabiatzen dabenean a oker dagon lez, ni be oker nago Dimitir'en zer onak agoa zabalik izten nabenean. Maitasunak badaki mamirik eztaben zer zirtzil eta zatarrak antz onik eta gurentasunik emoten. Maitasunak eztau begirutzen begiz, gogoz baño; eta orregaitik Kupida egoduna itu iruditzen dabe. Maitasunaren gogoak be ezta bereiztea zelango danik be; egorik bai eta begirik-eza buru-bako iradu ta itsumusturen irudi da; eta orregaitik esaten dabe maitasuna ume dala, bere autespenean sarri sarritan okerreko bidea artzen dauelako. Mutiko gogalditsu-aldakorak euren yokoyolasetan euren zinak austen dabezan lez, Maitasun mutikoari be nainon austen dautsoez zinak: eta izan be, Dimitir'ek Erme'n begiai so egin-aurretik, aren zinak txirgorea baxen sarriak ziran a nire bakarrik zala esaka; eta Erme'gandiko beroak ukutu-orduko, txirgora ori manatu, ta zin-zaparradak urtu egin ziran. A gana yonanda, Erme'n igesiaren barri emongo dautsat; orrazkero a Erme'n yarra yonago da biar gabeen basora; eta barri onegaitik nik eskerrik askorik artzekotan, ori ondo karu erosi izango dot; baña nik orrako orren bidez nire nabagea geitu baño ezto egingo, a ikusi ta atzera ona etorriaz. (Alde dagi).

II AGERLEKU.--Lengoxea. Basetxeko gela.

- ALASOKO, ONDAR, TXISTU, MUSTUR, IRASAGAR, eta GOSEAKIL aurrera.
- IRASAGAR'ek.—Emen ete da gure laguntalde guztia?
- ONDAR'ek.—Oba litzakik izendegitik banan-banan dei egitea.
- IRASAGAR'ek.—Aiko amen eztegu-gabaz duke ta dukenoaren aurrean gure antzerkitartekoa egiteko Azenai osoak egokitaz dauzan gizonen izen-erreskadea.
- ONDAR'ek.—Lenen, Kepa Irasagar on orrek esak antzerkia zertaz izango dan; gero, irakurri egizak antzerki-lagunen izenak; eta bakotzak norena egingo dauen.
- IRASAKAR'ek.—Ba, gure antzerkia... gure antzerkia antzerkirik negargarriena da, ta Pirama ta Tisbe'n eriotzarik gordinena.
- ONDAR'ek.—Egia esateko, gai ona ta barreirik asko eragitekoa.-- Orain, Kepa Irasagar on, izendegitik dei egin antzerki-lagunai.-- Yauntzook, agertu, banandu zaitze.
- IRASAGAR'ek.—Nik dei egin-ala, erantzun zuok. Nikola Ondar, eulea.
- ONDAR'ek.—Emen nozu. Esan nik norena egin bear dodan, eta yo aurrera.
- IRASAGAR'ek.—Ik, Nikola Ondar, ik Pirama'na egin bear dok.
- ONDAR'ek.—Zer da Pirama? Maitale, ala agintari gordinen bat?
- IRASAGAR'ek.—Maitale, maitasunagaitik bere burua adoretzu il ebana.
- ONDAR'ek.—Orrako ori egiteko orrena dagianak, ondo egitekotan, negar batzuk eragin beariko dauz. Nik olangorik egitekotan, ikusleak yagon dagiezala euren begiak; nik ekatxak eragingo dodaz; eta erruki apurren bat izango dautset. Dei egin besteai; orraitino be nik gogaldirik geien agintari gordinarena egiteko dot: Erkul'ena nik itzelezkorik ondoen egingo neuke; baita katura zati-zati egitekorik ba'litz be, ta guztiai biotz-larritasunez eztanda eragin.
- Aitz gogor asarreak,
Ikaran ikareaz,
Zatitu ta arrika
Zeatu ilunbe-ateak.
Eta Peba-burdiak,
Argi urrin yaurtinaz,
Egin-manatu azkar
Alan-bear zoroak.
- Onako au guren eta arro yatzu!.. Aipatu orain beste antzerki-lagunak; au Erkul'en
- gogaldia da, agintari gordinaren gogaldia; maitalea negarberago izaten da.
- IRASAGAR'ek.—Pantzeska Txistu, auspo-ada-batzallea.
- TXISTU'k.—Emen nozu, Kepa Irasagar.
- IRASAGAR'ek.—Ik Tisbe'na egingo dok.
- TXISTU'k.—Eta zer dogu Tisbe dalako ori? Aldarra dabilen zaldunen bat ala?
- IRASAGAR'ek.—Orrako ori Pirama'k maitebear dauen neskea dok.
- TXISTU'k.—Ez, arren, ez al dot egingo nik emakumerenik; nik urtenik dot bizarra.
- IRASAGAR'ek.—Orrek etxok ardura; ik marroaz egingo dok arena, eta or dok euk gura bestean bigun eta zoli itz egiteko nire ederra.
- ONDAR'ek.—Nik nire arpegia estali al izatekotan, Tisbe'na egiten be itxi egidazu; neuk egingo dot itz itzalezkorik meen: --"Tisne, Tisne.-- Ene! Pirama, ene maitale kutun ori; zure Tisbe maitale! ta andera maitale!".
- IRASAGAR'ek.—Ez, ez, ik Pirama'na egin bear dok; eta Txistu'k egingo yok Tisbe'na.
- ONDAR'ek.—Ori ondo, yo aurrera.
- IRASAGAR'ek.—Errobin Goseakil, yostuna.
- GOSEAKIL'ek.—Emen nozu, Kepa Irasagar.
- IRASAGAR'ek.—Errobin Goseakil, ik Tisbe'na amarena egingo dok.-- Toma Mustur, estanugina.
- MUSTUR'ek.—Emen nozu, Kepa Irasagar.
- IRASAGAR'ek.—Ik Pirama'n aitarena egin bear dok; neuk egingo yoat Tisbe'n aitarena: --Alasoko, erredizgina, ik leoiarena egingo dok: --eta nire ustez, emen dogu antzerkia egoki gertaurik.
- ALASOKO'k.—Leoiarena idatzita ete dozu gero? Arren, olan izatekotan, ekazu neuri, ni irakastegira meatz ibilia nozu-ta.
- IRASAGAR'ek.—Orretarako aurreztiak ikastebearrik eztok, orroa egite utsa dok-eta.
- ONDAR'ek.—Itxi egidazu niri leoiarena be egiten: nik orroa egin gura dot; nire orroiak edonori izango yakoz gogoko; nik orroa egin gura dot, dukeari esanazoteko "Ostera be orroa dagiala, ostera be orroa dagiala".
- IRASAGAR'ek.—Itzalegi egingo ba'endu, dukenoa ta anderak bildur-ikaratuko eunkezak eta aik garrazika asiko litzatekezak; eta ori litzatekek asko gu guztiok eskegitoko. Guztiak.-- Bai, orrako orrek gu guztiok eskegiko gindukez.
- ONDAR'ek.—Bai, adiskideok, sinetsi egistazue ra emakumeai burua galdu eragin eta aik garrazika iminiazkero, gureak egin yok, aik

eleukie izango beste biderik gu eskegiteo baño: baño nik nire abotsa orroa emakumeren urrumea bestean bigun egiteraño ezi ta bigunduko yoa; nik egingo dautzuedan orroia urretxindorrena irudituko yatzue.

IRASAGAR'ek.—Ik Pirama'na bakarrik egingo dok; eta izan be, Pirama gizon arpegi-bigun dok; benetako gizona, or udan ikusten diranetarikoa; gizon eder, txairo, ta yator; orrazkero, ik nai ta nai ez Pirama'na egin bear dok.

ONDAR'ek.—Tira ba, arena egingo dot. Ze bizar etorriko ete yat ondoen orretarako?

IRASAGAR'ek.—Ba! euk gura dokana.

ONDAR'ek.—Lasto-margoko bizarra iminiko dot, urresagar-margoko, amusko-margoko, Pantze-buru-margoko, laru-laru.

IRASAGAR'ek.—Ik aipatuko Pantze-buru batzuk (3) etxoek ezetariko ulerik, eta orrazkero ik arpegi-soilik egingo dok ire egite-

koa.—Aor ba, yauntxook, or dozuez zuon egitekoak; eta nik, eskatu, otoi dagitzuet zuon egitekoak biar gaberako buruz ikasi dagizuezala; eta erdu nigana uritik milla bateko bidean dagon yauregiko basora, iretargitan; an egingo dogu aurrezitiko antzerki-ekitaldia; urian bertan batzekotan, laguntaldea etorriko litzakiguk atzetik eta gure asmoak ezagun izango litzakiezak. Bitartean, antzokirako bear doguzan zeren erreskadea idatziko yoa nik. Ez utsik egin gero.

ONDAR'ek.—An batuko gara; eta an antzerkia lotsabakoago ta adoretuago egin al izango dogu; egin aleginak; ondo gertau; agur.

IRASAGAR'ek.—Dukearen aretxean batuko gara.

ONDAR'ek.—Bego; bapo; yazotekoa yazoko, an izango gozuz. (Alde dagie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.—Azena'tik urreko baso.

Iratxo bat ate batetik, eta OKER beste batetik, aurrera.

OKER'ek.—Ostera, iratxo! nondik nora abil? IRATXOAK.—Mendi-ganak zear, sakostak zear,

Txarak zear, sasiak zear,

Zugazti zear, taket-esi zear,

Ura zear, sua zear.

Or nabil ni aldarrai nainon,

Ilargi borobila baño bizkorrago;

Eta ni iratxo-erregenoaren otsein nozu,

Ak landan egin-arlo borobilak ureztetako (4).

Udabarri-lorak bediz bere arrotzak: (5)

Euren urrezko soñekoan ikus orañenak;

errubiek yatzuz, Orrakook iratxo-emaizak;

Orañenotan dagotuz arein sundak;

Emen iñontz-tantan batzuk billa bear nik,

Eta udabarri-lorai belarrietan pitxi bana eskegi bear.

Agur, iratxo zar orri; ni ba-naiakok:

Gure erregenoa ta gure maitagarri oro bertatik yatozak.

OKER'ek.—Gau onetan emen yai zaratatsua egiteko dok Errege; begira egik, erregenoa eztakiola erdu begien aurrera. Erregenoak bere laguntzat Indietako erregeri ostutako mutiko txairo-liraina dauelako, Oberon asarre gorriak artuta yagok-eta; erregenoak

etxok izan eguño iñori ordeazkotzat ostutako olango mutiko ederrik; eta Oberon maitte-bekaizkeritsuak mutiko ori bere zalduntzat gura laieuket baso bildurgarriak arkatzeko; baño erregenoak nai ta nai ez berakin yaukak mutiko maittea, garazko

(3) "Pantze-buru batzuk etxoek ezetariko ulerik". Emakume galduekin aragizko arremona daben askori gaitz ikaragarri intsigiten yake, eta gaitz orren ondoren bildurgarrietatik bat buruko ulea zeatz galtzea da. Gaitz ustelkoriguingarri orreri ainbat erritan Pantzegatxa eresten dautsoe. Bai emen gure Shakespear'ek be.

(4) Landetan, an-or-emenka, bedar-arlotxo biribiltu ta enparaua baño bedar andiago ta balzagodunak agertzen dira ta eurentan, geien baten, perretxikoak be azten dira. Gure Erria'n be erriak bedar-arlotxooi sorginekaz zer-ikusirik ezarten dautse, zelan eresten dautsen nik orain gogotan izan ezarren.

(5) "Udabarri-lorak bediz bere arrotzak" Emen udabarri-loraz iragarri gura dogun landara ta bere lorea udabarriz barruti ta bideertzetan agertzen dan bedar apal lora-bellegia da. Oñati'n "San Jose-lora" deretxoe ta epallaren erdirantza agertzen edo loratzen da.

buruntzea eio ta ezarten yauntsak, eta a dok aren pozbide guztia; eta orain etozak batzen alkargana ez basotan, ez landatan, ez iturri gardenen aldamenetan, ezta ortzi izarrez yosiaren argitan be, alkarrri burrukarako gogoia iragarri baño; orregatik, euren maitagarri guztiak, bildurrez, zirrist egin yoeck ezkur-txapeletara ta an ostondu dozak, okotzak belaurai deutsela batu-batu eginda.

IRATXOAK.—Edo ni oker be oker naiagok, edo ostean i arako iratxo oker-olgetari batzuk Puck eta beste batzuk Robin Goodfellow duxetoena az; uri txikietao neskak bildur-ikaritzen dauzana; esnari gurina kendu ta, batzuetan esku-errotetan sartuta, etzandera errukarriari arnas-estuka ta alperrik esku-erroteari eraginazoten dautsana; eta batzuetan garardoari, artzi ez-taiten, legarra kentzen dautsana; i augu gau-bidezlicai okerreko bidea arrazo ta euren lepotik barretzarrak egiten dauzana? Iri Hobgoblin, eta Puck ezti deitzen dautsanaen lan-arloa ik euk egiten dok, eta aik zori ona izango yoeck; ez ete augu i orra-ko ori?

OKER'ek.—Zuzen ago i: neu nok izan be orra-ko gau-ibiltari txixari-gogagari ori. Izkirimiriak eralgita, nik Oberon'i irribarre eragiten yauntsat. Beoka zantarraren antzera irrintze eginda, nik zaldi gizen babaz lodituari ziri ederra sartzen yauntsat: eta batzuetan zangurru doak karramarro errearen antzez, atso itzontziaren katilluan nagotzu kukuka; eta a edaten doanean, ezpanetan zirri eginda, papar zimela bera ixuri eragiten yauntsat katilluko garardoak. Ipuinik negargarriena eralten daragoion atsorik zurrenak nozipein iru oñeko aulkizat artzen naiok; orduan nik aren eperdipetik zirristez alde egiten yoa, eta a an yoa lurrera ankaz gora, "aulki denganiñoa!" gedar egiten yoa, eta ezulak artzen yoa; eta orrazkero, an dagozan guztiak euren eskuak saiezpeko utsetan iminita barre baten dozak, izlenak egiten, txotenka, ta zin egiten yoeck eguño ezabela igaro a baño asti gozoagorik.—Baña leku egin iratxo, emen yatok Oberon.

IRATXOAK.—Eta emen yatok nire etzanderea be.—Alde egingo al leu Oberon'ek!

II AGERLEKU

OBERON ate batetik bere Yarraigoaz, eta TITANE beste batetik bereaz, aurrera.

OBERON'ek.—Eldu ba'zara eldu zara iretagiz, Titane arro ori.

TITANE'k.—Ara, Oberon maite-bekaizkeritsual Iratxok, zirrist egin emendik: zin-bidez nik agur egin dautsat orren oyari ta laquntzeari.

OBERON'ek.—Etixon, gogalditsu lotsabako orrek; ez ete naz ni zure yaun?

TITANE'k.—Orrazkero, nik zure andera izan bear dot: baña ni yakitun nozu zuk noz alde egin dozun ixilka iratxo-lurraldetik eta egun osoan egon zareala, Korin'en antza artu ta yezarrita, galtzuzko txistua yo ta Pilide maitabereari olerkiak egiten (6). Zegaitik zagoz ta emen, Indierri'ko mendi-burutzik urinenekotik etorrita? Nik ba-dakit: zure ugazabandera oski-luze, zure maite Amazon gudari adoretua Teseu'kin ezkontzeko dalako etorri zara zu: zu arein oeari poza ta zori ona emoten zatoz.

OBERON'ek.—Lotsarren! ze eskubide dozu zuk Ipolite'ganako nire maitasuna niri txarretsi ta arpegira egozteko, zuk Teseu maite dozula nik ondo yakinda? Ak aragizkoa Perigene'kin egin ebanean, ez ete zeuntsan

zuk erakutsi etxera-bidea gabaz izarren argitan? Ez ete zeuntsan zuk irakutsi ari, Aridane ta Antiope'kin arremonak izanda, Aigele lirainagazko ustel izaten eta aginduak austen?

TITANE'k.—Orrako orreik zure maite-bekaizkeriak asmauko zerak yatzuz: eta udako gau-egun-bardinaldiazkero (7) gu ezkara alkarrekin batu mendi, ibar, baso, landa, iturralde, errekatxu iitsu, izpaster makur-on-

(6) Pilide dalako au naiz besteren bat Taraki'ko bakaldun Likurga'n alaba ta Demoponte gaztearen senargia da. Pilide onek, bere senargiak bertan-bera itxi ebalakotan, bere burua il eban. Orraitiño, nire ustez, emen Shakespeare Birgili'n Unai-Kantak buruan darabiltzala agiri yaku, aldai izan bear yaken lotsea galduta, berak bein baño geiagotan oi dauenez. Emengo Pilide ta Korin Birgill'n Pilide ta Koridon ez ete dira gero?

(7) Urtean gau-egun-bardinaldi bi izaten dira: Epallaren 21'gnekoa ta Irallaren 21'gnekoa; egun orreitan eguna amabi ordukoa da, gaba beste ainbestekoa. Udako gau-egun-bardinaldi au udabarrikoa ala udagoienekoa ete da?

dartsutan, an axearen txistura inguruka yantzan egiteko, zuk iskanbilla ta zarataka gure yolasa nastu ta alperrik galtzeka. Eta orregaitik, guri txistua alperrik yoten dauskuela ikusirik, axeak, apen-bidez, itxasotik laño kutsakor-intsigikorrek edoski dabez; eta lañoon ezotasuna lurrera yalgita, ibai asarreak arrotu egin dabez euren ontziai ganaz eragiteraño; orrazkero, ipuztarriak eginiko lana alperriko izan da, ta luginak bere izerdiak galdu dauz; eta garitza muskerra bizarrik agertu-orduko usteldu egin da; ardi-txabolea utsik dago urak itotako larretan, eta bela ta saiek gizentzen dira okela ustelez; bederlatzi gizonen "morris" yokoa egiteko landea lupetzez estalita dago; bedar-zelai gurietako bide-zidor kakomakotsuak ez dira ezagun zek zapaldu-ezagaitik; gizon ilkorrek eztabe negurik be emen: orain ezta onesten gaurik eresiz eta Gabon-abeñstiz: orregaitik, iretargi ur-yabeak, asarrearen asarez zurbil, egurats guztia ezotasunez asetzen dau, guztitariko soin-minak ugaldtu daitezkan; eta giro-aldaketa au dalata, urte-giroak aldatuaz dozala dakusgu: lei buru-zuriak yausten dira larrosa gorriaren altzo samur-gurira; eta Negu zararen okolz eta buru otzean uda ezüko gara-sortatxoia iminten da, irritzat bailitzan; udabarriak, udeak, udazken ozkiriak, negu asarreak, aldatu egiten dabez len oitutako soñekoak; eta ludi arrituak, urtearo bakotxa luzatu dalako, ezaki orain zein zein danik; eta gaitz-umeteri dator: gure arteko asarre ta eztabaidetatik geu gara orrako orreïn guraso ta eredu.

OBERON'ek.—Orrazkero, arteztu egizuz okerrok eta euren errudun diran gure arteko asarreak; zeugan dozu orrako ori: zegaitik asarratuazo bear dautso Titane'k Oberon'i? Nik eztautzut eskatzen besterik, iñori ordeazkotzat ostuko mutikoa baño, nire eskuotsein izan daiten.

TITANE'k.—Zagoz nasai; eztozu burutapen txarra: iratxo-yaurerri osoak be eztau erosiko nire mutikoa, Nire aldeko zan aren ama, zin-bidez; eta Indi'ko egurats lurrin-tsuán, gabaz, sarri-sarritan egoten zan txutxu-putxuka nire aldamenean; eta bein baño geiagotan egon izan zan a nikin Netun' en ondar bellegi-ganean, itxas-ganean ontziaen egozan salerosleak begira; orduan guk barre egiten gendun, ontzi-zapiak sortu ta axe lotsabakoak sabel-andi egiten ebazala ikusita: ordurako ak nire mutiko esku-otseina sabelean eban, eta ontziarena egiten eban; eguratsetan yaqi ta txairo-txai-

ro igeriarena ta ontziaren beste zirkinak, ontziak zelan, ak alan; eta atzera lurrera yatsita, nitzako uskeri-billa yoiánarena egiten eban, eta atzera etorri, txangotik salgaiz beterik bailedorren. Baña a, ilkor izanda, ume a erditzekoan il zan; eta aren ederragaitik azten dot nik aren semea; eta aren ederragaitik nik eztoz alde egingo aren semeagandik.

OBERON'ek.—Baso onetan noz arte egoteko asmoa dozu?

TITANE'k.—Ba-leiteke Teseu'n eztegu-biaramonerarte egotea. Zuk epez yantzan egin gura ba'dozu gure ingurutxoan, eta iretargitako gure yolaz zaratatsuak ikusi, zatoz gukin; ostean, alde egizu niqandik, eta eztozu izango nire billa ibiliterik.

OBERON'ek.—Ekazu a mutikoa ta zukin yoango naz.

TITANE'k.—Bai, zera; ez zure iratxo-yaurerriagaitik be. Iratxook, goazen emendik; bertatik asarratuko gara emen luzaroko irautekotan. (TITANE ta bere Yarraigokoak alde).

OBERON'ek.—Tira ba, zoaz zeure bidea zear; baso onetatik eztozu alde egingo, egin daustazun irainagaitik nik zuri gorriak eta elorriok ikusiaz arte.—Nire Oker maite, ator ona: ik gomutetan dok zelan ni bein itxasora sartzen dan legor-musturrean yezarrita nengoala, izurderen bizkarrean yezarritako itxas-neskari entzun euntsan; ak ots bigun-ezti-leuna yeukan, eta aren abes-tiz itxaso zakar-baldarra ezi ta leundu egin zoon, eta izar batzuk be, burutik eginda, euren lekuak itxi ta buruz-bera yatsi zozan arako itxas-neskearen eresi gozoa entzuten. Ez ete dok gogoan orrako ori?

OKER'ek.—Bai, gogoan dot.

OBERON'ek.—Aldi atan berean nik ikusi naioan, --baña ik ezin ikusi--, Kupida, iski-lloz yantzi-yantziarik, iretargi otzaren eta lurraren bitartean egaz: ak sarkaldean yauralkian yezarrita egoan neska bestalganantzta egaz egin yoan; eta bere makotik maitegezi bat bizkor-bizkor yaurtin yoan, eun milla biotz alderik alde zulatzeo bailitzoan; baña nik ikusi al izan naioan zelan Kupida gaztearen suzko gezia iretargi otzaren argizpi garbitan itzali zan; eta arako neska yaukalak aurrera egin yoan, burutapen garbitan, irudimena aske. Orraitiño nik ikusi naioan non lurreratu zan Kupida'n gezia: sarkaldeko garatxo baten ganera yausi zoon, --len a esnea lain zuri zoon, arrazkero gorri, maitasunak zaurituta--, orrako gara orreri neska gazteak "maite-gara"

ereisten yautsoek: oa orrako gara orren billa; nik bein iri erakutsitako bedarra dok; aren urik betazeletan ixuri dakiona, gizon naiz emakume izan, ak lenen ikusi dagian zer biziā kutun-kutun izanazoko yautsat ari. Ekak orrako bedar ori, eta ator ona ostera be baleak ordu bateko bidean uger egin al izan baño len.

OKER'ek.—Berrogei minutoan batuko dautsat nik lurrari garrion garrikoa. (OKER'ek alde).

OBERON'ek.—Bein arako ura eukiazkero, Titane loak noz artuko begira egongo naz, eta begietara arako uretik arean tantanka ixuriko dautsat; atzarri daitenean ak lenen ikusi dagiana, --leoi, artz, otso, zezen, matxango geldigor, naiz matxango eme zeregintsu izan--, a maitasun itsuz bete-betean yarrai yoango yako. Eta aren begietatik lilurapen au kendu-aurretik, --eta nik beste bedarren bitartez kendu dagiket--, bere esku-mutikoa niri emonazoko dautsat. Baña nor datorku emen? Inok ikus-ezina naz; eta nik orreik diñoena orreik oartzeka entzun egingo dot.

DIMITIR aurrera, ta ELENE aren yarrai.

DIMITIR'ek.—Nik etzaudaz maite, ta orrazkero ez etorri nire yarrai. Non dira Lisander eta Erme liraina? Bata neuk ilgo dot, eta besteak neu ilten nau. Ik baso onetara ixilka etorri ziriala esan eunstanan, eta ni emen natiagon, eta baso onetan ni baso baño enon, Erme ezin idoro yonat-eta. Alde emendik, eta ez etorri nire yarrai.

ELENE'k.—Zugana naratorizu, zuk, zuk iman biotz-gogor orrek; baña ez uste izan burdin zirtzilek zaratorzianik, nire biotza gal-tzaidua lain zindo da-ta. Itxi egizu, yareii egizu eratorreko dozun indar ori, eta nik eztot izango zure yarrai yoateko indarririk.

DIMITIR'ek.—Liluratu egiten zaudaz nik ala? Lirain zareaia esaten dautzu ala? Ala, ez ete dautzu nik argi ta garbi esaten etzau-dazala, ta ezin zaudazala maite?

ELENE'k.—Eta orrexegaitik be nik maiteago zaudaz. Ni zure txakurtxo nozu; eta, Dimitir, zuk ni yoago ta nik labankeri geiago egingo dautzul; zure txakurtxozat artu ta erabili nagizu, zirikatu nagizu, yo nagizu, itxi nagizu, galdu nagizu; ni aintzako garri izan ezarren, zure yarrai ibiltzen bakarrik itxi egidazu. Zure maitasunean ze leku txarrago-rik, kaskarragorik eskatu nengike nik, zuk ni zure txakurra darabiltzunez erabiltea baño? Eta orraitino be ori nitzat toki aintzako-aintzako garri litzateke.

DIMITIR'ek.—Ez zirikatu geiegi nire biotzeko

gorrotoa; zu begiratuak berak gexotu egiten nau-ta.

ELENE'k.—Eta ni zu begiratu-ezak gexotzen nau.

DIMITIR'ek.—Zuk zure lotsortasunari oker andia egiten dautsazu, uritik alde egin, eta zure burua maite etzauzanaren bende ta eskuetan iminita; gabak emoten dauen ereaz eta leku bakarrik zer txarrerako emoten dauen onuaz zuk uste onik izanaz, zuk zure garbitasunaren altxor aberatsa aldean dozula.

ELENE'k.—Zure ekandu onak emoten dauste orretarako adorea. Nik zure arpegia dakustanean ezta gau, eta orrazkero nik ez-tot uste gautan naгонik; eta baso onek be ezta ludiak bete-ala lagunen ezik; nire ustez, zu zeu zara ludi bete-ta; orrazkero, ze-lan esateko ni bakarrik nagola, emen ni begira ludi osoa dagonazkero?

DIMITIR'ek.—Nik zugandik igesi egingo dot, eta sasitzan ostondu, ta zu piztien bendean itxi.

ELENE'k.—Piztirik gordinenak ezta zurea lan-go biotzik. Zeuk noz-gura igesi, ipuina itzulietara yazoko da; Apolon igesi doa, ta Dapene aren yarrai doa; usoa dabil arano-leoiaren yarrai; orein otzana egin-alean arin doa katamotzaren yarrai, --alperriko ariñeketea igesi doan adoreari dollorria ba'darraikio.

DIMITIR'ek.—Ni enaz geldituko zure eztabai-dak entzuten: itxi egidazu yoaten; ostan-txean, zu niri yarraitzekotan etsizat zagoz baso onetan okerren bat egingo dautzu-dala.

ELENE'k.—Bai, yauretxean, urian, landan, zuk oker egiten daustazu. Uf! Dimitir! zure oker-rak nire emetasunarentzako txar-bide lotsa-garri dira: guk ezin dogu egin burrukarik maitasunagaitik gizonak egiten dabenez; guri maitasuna erakutsi egin bear litzaki-gu, ez geu ibili maitasuna erakusten. Ni zure yarrai yoango naz, eta sulezea zerutu egingo dot, ni nik ain maite dodan eskuz il-da.

(DIMITIR eta ELENE'k alde).

OBERON'ek.—Agur eta ondo ibili, ur-neska: baso onetatik alde egin baño len, zuk orre-ri igesi egingo dautsazu, eta ori zure maita-sun-billa ibiliko da.

OKER aurrera beste bein.

Or dakak arako gara ala? Ondo etorria, ibil-tari aldarrai ori.

OKER'ek.—Bai, or dozu.

OBERON'ek.—Ekak, arren. Ba-yakiat nik zein munetan azten diran basa-etzkaia, udabarrigarak eta amusko-bedar (bioleta) burumakurrak: mune a aien guriz estali-estalita, aienez eta asta-larrosa usaintsuz eta asuar zuriz estalita yagok: an lo egiten yotk Titane'k gau-arlo baten, garatian yantzaz eta atseginez lo arrazota: eta an aldatzen yok sugeak bere narru dizdizkorra, bere barruan iratxorik batzeko nasairik asko dana: onako onen uragaz marrak egingo yautsada begietan, eta inondiko irudipen askariz beteko yotat. Artuik ik onetariko apur bat, eta oa billa baso au zear. Azenai'ko

neska gazte ezti batek gizon gazte mukerzapuztzalle bat maite yok: begiak igurtzi egiozak: baña ak lenen ikusi dagian zera arako neskea izan daitela; gizona aldean daroazan here Azenai-soñekoetatik ezagutuko dok. Zeregin orretan ardura apurbat artu egik, gizon gazteak neskea, neskeak gizon gaztea baña maiteago izan dagian: ator atzera nigana ollarrak lenengoz yo baña len.

OKER'ek.—Ez izan bildurrik, ene yaun, zure otseinak orixe ta olantxe egingo dau. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Basoko beste arlo.

TITANE aurrera, bere Yarraigokoakin.

TITANE'k.—Ia ba, yo eresirik eta abestu iratxo-abestirik; gero, minuto-iruren batatzke-ro, alde emendik; zuotariko batzuk, larrosondo usaintsuaren pipiletako mamarroak il-ten: batzuk, saguzarrai gudu egiten narruzko euren egoakaitik, egookaz nire iratxo txikiak soñekoak egiteko; eta beste batzuk eutsin aragoan mosollo gedarti-oiolariari, gabero oioka gure iratxo bakanak bildurikaratu egiten dauz-ta. Abestu egidazue orain niri lo arrazoteko; gero baktotxa bere zereginetara, ta itxi niri lo egiten.

ABESTI

I

I IRATXOAK.—Min binako suge orañentsuok,

Ez ager, gero, kirikiñolatzok;
Ez ein okerrik, sugelindara-ziraunok;
Ez urrera gu-erregenoari:
(Abeslari-taldeak)

Abes eresi gozoz, urretxindor,
Lo-arrazle abesti gozo:
Lala, lala, lala; lala, lala, la:
Ez betor gure erregeno-ondora
Gatzik, lilurapenik, sorginkerik;
Orrazkero, gau on, lala, lalalalaz.

II

II IRATXOAK.—Ez eldu ona, armiarma euleok;

Alde emendik, irule zangaluzeko;
Ez urrera, atzera kakarraldook;
Ez ein okerrik mamarro-barakullo.
(Abeslari-taldeak)

Abes eresi gozoz, urretxindor, e. a.

I IRATXOAK.—Alde emendik; emengo egitekoa eginda dago: bat bakarrik gelditu daitela zaintzat.

(Iratxoak alde. TITANE loak artuta)

OBERON aurrera.

OBERON'ek.—Atzarri zadizanean ikusi dagizuna

(Arako garaea estu-estututa TITANE'ri betazalaz ezatzen dautsaz).

Artu egizu zure benetako kutuntzat;
Maitearen maitez iristu aren alde;
Dala leoi, katu, naiz artz baldar,
Lun nabar, naiz basaurde ule-latz,
Begien aurrean zuri agertu, atzar
Zadizanean, a izango zure laztan;
Atzarri, begitan dozunean zer zantar. (Alde dagi).

LISANDER eta ERME aurrera.

LISANDER'ek.—Maite lirain, zo larritu-aginik zagoz basoan batera ta bestera ibiliz: eta, egia esateko, ni bidea galduta nago; atsedan artuko dogu, Erme, ondo ba'deretxatzu, eta emen etxon eguna argitu arte.

ERME'k.—Olantxe bedi, Lisander; billatu egizu zuk zurezako oea, nik nire burua mune onen ganean iminiko dot-eta.

LISANDER'ek.—Zoi batek egingo dau nire burupekoarena; biotz bat, oe bat, bular bi ta zin bat.

ERME'k.—Ez, Lisander on; neugaitik, ene maite ori, bein-beinean apur bat arago etzan zadiz, ez etzan orren ur.

LISANDER'ek.—Ene! ezti ori, nik erruge esan dodanaren esan-gurea aitu egizu; maite-sunak aituten dau maiteen arteko erausiaren esan-gurea. Nik esan gura dodana da, nire biotza zureari yosita dagola; eta orrazkero, biakaz biotz bat egin dagikegula; biotz bi alkarri zinez lotuta; eta, orrazkero, biotz bi bai, baña egiz bat. Orrazkero,

ez ukatu niri etzategirik zure aldamenean; olan etzanazkero, Erme, nik eztiñot guzurrik-eta.

ERME'k.—Lisander'ek igarkizun politak dakaskuz; --boaz ortik zear nire era-merak eta nire arrokeria, Lisander'ek guzurrik esan dauela Erme'k esan gura izan ba'dau. Baña, adiskide maite-maitagarri, maitasunaren eta lotsarren aragoan etzan zaitez; gizarteko lotsarren, ekandu oneko mutilari ta neskeari dagokien besteko bitartea yagon dagigun bion artean: orrenbestexe alden-du zadiz; eta, gau on, adiskide ezti: zure maitasuna ez al da aldatuko zure bizi ez-tia amaitu arte!

LISANDER'ek.—Olantxe, olantxe, dirautsot nik olango otoi ederrari; eta nire zintzotasuna amaitu daitenean nire bizia be amaitu daitela! Au da nire oea: loak bere atsedean guztia emongo al dautzu!

ERME'k.—Gurari ori dauenaren begiak gurari orren erdiagaz Loak sakatuko al dauz! (Loak artzen dauz).

OKER aurrera.

OKER'ek.—Basoa zear ibilia naz, Baña Azenai'korik nik ez idoro, Maitasunari zirri-zirri egiteko Gara onen indarra norañoiko dan Aren begietan ikusteko. Gauaren ixil! nor dogu emen? Azenai'ko soñekoak onek aldean: Au dogu, nire ugazabak esanez, Azenai'ko neskea zapuztu dauena; Eta amen neskea, lo-zorroan, Lur ezo-zikinaren ganean. Koitana! ez azartu etzaten Maitasunik ez, era onen erale-ondoan. Kirten, boakik ire begietara Lilurapen onen indar guztia; I atzarri-ala maitasunak galazo beio Loari ire betazalean yezarten: Olan atzarri adi ni yoandakoa: Nik Oberon'gana yoan bear yoat. Alde da-gi).

DIMITIR eta ELENE aurrera, ariñeketan.

ELENE'k.—Ilgo ba'nozu be, geldi, Dimitir ezti ori.

DIMITIR'ek.—Alde gero emendik, eta ez ibili onan nire eizean.

ELENE'k.—Ilunetan itxiko ete nozu bertan-be-ra? Ez egin olangorik.

DIMITIR'ek Zeure galtzoriz gelditu bakarrik yoan gura dot nik. (DIMITIR'ek alde).

ELENE'k.—Onangorik! arnasa barik nago eizaketa gogoko onetan! Nik eskatuago ta

gitxiago iristen dot. Zori oneko Erme, dagon lekuan dartzala, aren begiak zori ontsu ta eratorrorrak dira-ta, Zelan egin dira aren begiak ain argitsu? Ez negar gaziz: baña olan izatekotan, nire begiak arenak baño sarriago busti dira. Ez, ez, ni artza bestean itxusi naz; eta izan be, nikin trikitx egiten daben piztiak nigandik alde egiten dabe bildurrez; orrazkero, ezta andi eresteko Dimitir'ek be egitea, eta ni mamu bainintz ak nigandik igesi egitea. Ze ispilluk okertu dau nire antza nik nire begiak Erme'n borobilak langotzat esteko? --Baña nor dogu emen? --Lisander! lurrean! ilik? Ala lotan? Eztakust odolik, ezta zauririk be. Lisander, yaun on, bizi ba'zara, atzarri zadiz.

LISANDER'ek.—Sua zear be yoango naz ni zu ezti orregaitik (Atzarri-ala). Elene garden ori! Izateak bere trebetasuna emen iragarten dau, zure bularra zear zure biotza erakusten daust-eta. Nondik da Dimitir? Onangorik! aren izena bai ba-dala izen zirtzila nire ezpataz ilteko!

ELENE'k.—Ez esan olangorik, Lisander, ez esan olangorik; zer ak zure Erme maite ba'leu be? Yaun, zer a maite ba'leu be? Eta orraitio zure Erme'k oraindik zu maite zauz; orrazkero, nasai zagoz.

LISANDER'ek.—Erme'kin ni nasai egon? Ez; ni garbaituta nago akin igaroko minuto go-gaikarriakaitik. Nik eztot maite Erme, Ele-ne baño: nok ez emongo belea uso-orde? Gizonaren gurari ta leiaen yabe buru-argia da; eta buru-argiak zu neskarik aintzako-garriena zareala diño. Azten dan zerik ez-tago elduta umatu arte: olan, ni be, gazte nazanazkero, oraindik enago bear aña eldurik; eta orain gizonaren trebetasunari ukutu dautsagunazkero, adimenari dagoko biotzaren yabe izatea, eta ak zure begietara nakar, maitasunaren ipuinak or maitasunaren idaztirik ederrenean idatzita ikusteko.

ELENE'k.—Zegaitik yaio nintzan ni niri iñoik onango irri zorrotzik egiteko? Noz irabazi dot nik zuegandik olango zapuzkeririk? Ez ete da asko, ez ete da asko, gazte, nik eguño Dimitir'gandik begirakune samur bat lortu ez eta lortu ezin izana, zuk olan nire ezinari irri ta barre egiteko? Bene-benetan, zuk irain egiten daustazu, --bai, bene-benetan egiten daustazu, --zuk olan zapuzkeriz niri maitaketak eginaz. Baña orraitio on-do ibili; nai ta nai ez autortu bear dot, nik zu yaun yatorragotzat zindudazala. Onangorik! gizon batek zapuztutako neskea bestek txarto erabili bear dauela! Alde da-gi).

LISANDER'ek.—Neska orrek eztakus Erme:

Erme, zagoz zu or lotan; eta inoz be ez al zaiaokz urreratuko Lisander'eri! Eta izan be, zerik gozoenezko betekadeak iguini andiena urdalleari ekarten dautsan lez; edo-ta, siniste okerrai gorrotorik geien siniste okerretatik alde egin daben gizonak dautsen lez; olantxe, zu be, nire betekada ta nire siniste oker ori, guztiak gorrotauko al zaeuz, baña neuk geien! Eta, nire indar guztiok, Elene goratzera ta aren zaldun eta oisein izatera zuzendu zuon maitasun eta al guztiak! (Alde daqi).

ERME'k.—Atzarri ala) Lagun zakidaz, Lisander, lagun zakidaz! egizuz zure aleginik

onenak bularrean narraz dabilkidan suge au emendik kentzeko! Ai ene! errukiarren! Nik egin dodan amesarena! Lisander, begira zelango bildur-ikarea dodan! sugek biotza yaten eustala uste izan dot, eta zuk barre egiten zendula ni ak erruki barik yaten nindun artean! --Lisander! zer, emendik alde eginik? Lisander! zu! zer, ez ete dau entzuten? Yoanik? Ez otsik, ez itzik? Ai ene! non zagoz? Itz egizu, ba'dantzuz; itz egin, daustazun maitasun guztiarren! bildurrez ia larrituta nago. E? --Orrazkero, zu etzagoz emen urrean: edo eriotzea edo zu, bata edo bestea bertatik idoroko zaeudaz. (Alde daqi).

III EKITALDI

I AGERLEKU.--Basoa. Iratxoan Erregeñoa etzanda lo.

IRASAGAR, ALASOKO, ONDAR, TXISTU, MUSTUR, eta GOSEAKIL aurrera.

ONDAR'ek.—Guztiak batu ete gara?

IRASAGAR'ek.—Gertu, gertu; eta emen inondiko leku bikain-egokia gure ikasketea egiteko. Bedartza-arlotxo onek egingo dau gure antzezaritegiarena, elorri-moltso onek gure yaktokiarena; eta dukearen aurrean egin gura dogun legetxe benetan egingo dogu emen.

ONDAR'ek.—Kepa Irasagar...

IRASAGAR'ek.—Zer diñok, Ondar arroputz orrek?

ONDAR'ek.—"Pirama ta Tisbi'n" antzerki onetan ba-dozu eguño gogoko izango eztan gauzarik. Lenen, Pirama'k ezpatea atera ta bere burua il bear dau; eta olangorik anderai etxake gogoko. Zuk zer diñozu orretaz?

MUSTUR'ek.—Ba! sustarbako bildurra.

GOSEAKIL'ek.—Nire ustez, al dala, ilte ori bazartu egin bear dogu.

ONDAR'ek.—Ez orixe; emen dot nik nire asmoa dana ondo egiteko. Idatzi egidazu sarrerako itzaldia; eta sarrerako itzaldia esanazo dagiogun gure ezpatatak eztoquila okerrik egingo, eta Pirama ezala itzala benetan: eta eskierrago egoteko, esaiozue ni Pirama au enazala Pirama'rik, Ondar eulea baño: olan eztabe izango bildurrik.

IRASAGAR'ek. Ondo yagok, sarrerako itzaldia ezarriko yautsaquk antzerkiari; eta zortziko ta seikotan idatziko yoagu.

ONDAR'ek.—Ez, bi geiago emoiouz: zortziko ta zortzikotan idatzi.

MUSTUR'ek.—Emakumeak ez ete dautsoe bildur izango leoiari?

GOSEAKIL'ek.—Bildur naz, bildur izango dautsoela.

ONDAR'ek.—Yaunak, gogoratu ta ausmer egizue zuon kitean: emakume-artera leoirik ekartea, --Yaungoikoak ez al dau gurako olangorik- zer itzala da; eta izan be, eztago leoi bizia baño basa-piziti bildurgarriagorik; eta ori eztoqu aztu bear.

MUSTUR'ek.—Orrazkero, beste sarrera-itzaldiz leoi ta leoirik esan bearoko.

ONDAR'ek.—Ez, etxagok olangoren bearrik; esan leoiarena egingo dauenaren izena, ta leoiaren idunetik gora dagola agirian urli orren arpegiaren erdia; eta bearak esan dagiala onetaratsu: "Anderok, naiz, andera lirainok! otoi dagitzuet, naiz eskatzen dautzuet, naiz eske nagotzue, ez izateko bildurrik, ez ikaratzeko: nire biziak erantzungo dau zuonagaitik. Ni leoi nazala uste ba'dozue, nire erruki. Ez, ni enozue olangorik; ni beste gizonak langoxe gizon nozue": eta, orrazkero, bere izena aipatuta, esan dagiala argi ta garbi Alasoko, zularotza dala.

IRASAGAR'ek.—Tira ba, olantxe egingo yoagu. Baña or zer bi dozak gatzak: zera, iretargia gelara ekartea; eta izan be, zuok dakizuenek, Pirama'k eta Tisbi'k iretargitan egiten yoek alkarrekin trikitx.

ALASOKO'k.—Guk gure antzerkia egingo dogun gabaz iretargiak argirik egingo ete dau?

ONDAR'ek.—Ikarri egutegien bat, egutegi bat! begiratu egutegia; ikusi ia iretargiak argi egingo dauenentz.

IRASAGAR'ek.—Bai, gau atan argi egingo yok.

ONDAR'ek.—Ba, orrazkero, guk antzerkia egingo dogun aretoko leio andi bat zabalik itxi; eta iretargiak leioa zear argi egingo yok.

IRASAGAR'ek.—Bai; naiz, ostean, zuotariko bat datorrela eskutada bat arantza ta kurtzuluagaz eta iretargiko gizona dala esan dagiala. Beste zer bat be ba-dogu: ormea bear dogu areto andian, ipuin naiz edestiak diñonez, Pirama'k eta Tisbi'k alkarri orma-bitarte zear itz egiten eutsen-eta.

ALASOKO'k.—Ormarik ezetara be ezin ekarri izango dogu.—Zer diñok ik, Ondar?

ONDAR'ek.—Bat edo batek ormearena egin bearko dau: eta espaloiz, buztinez, naiz beste olango zerbaitez estali bearko dogu orma-antzik eukiteko: naiz, orrako ori egingo dauen gizonak daukazala bere atzak onan, eta atz-bitarte zear itz dagiela Pirama'k eta Tisbi'k, txutxu-putxuka.

IRASAGAR'ek.—Olangorik egin al izatekotan, ezta asmo txarra, la, yezarri bere amaren seme bakotxa, ta ikasi zuon egitekoa, Pirama, i asiko az: ik ire itzaldia egindakoan, an sasipean sartu adi eta olan bakotxa, bere arloa egindakoan.

OKER aurrera, ostetik.

OKER'ek.—Nortzuk doguz emen iratxoen erregenoaren seaskatik onen ur arropuzkeria dariela dagozan kirten-aketoak? Ostera! antzerki egiteko asmotan! Ikusla izango naiake; eta ba-leiteke egile izatea be, orretarako biderik eldu ba'dakit.

IRASAGAR'ek.—Itz egik, Pirama.— Tisbi, erdu aurrera.

PIRAMA'k.—"Tisbi, arkeria iguingarriko lorak ezti".

IRASAGAR'ek.—Usain iguingarriko, gizon, usain iguingarriko.

PIRAMA'k.—"Usain-arkera ezli: Olangoxea zure arnasa, Tisbi maite-maite, beti. Baña, so, abots! etxon emen bein-bein neri. Eta emen nozu bertatik ostera bere ni". Alde dagi).

OKER'ek.—Pirama inondikoagorik ezta eguño emen antzeztu edo iruditu (Bere kitean. Alde dagi).

TISBE'k.—Orain itz egin bear dot ala?

IRASAGAR'ek.—Bai, arrano, egin bear dozu: entzun dauen itza nondik datorren ikusten yoan da, ta atzera datorke-ta.

TISBE'k.—"Pirama dirdira-dirdiratsu, lilizuri koloreko,

Larrosa gorri koloreko, larrosondo arro-ganeko.

Gaszte bizi-txairo, ez lerdenagorik ire urteko. Nekea zer dan eztakian zaldia baxen sendo, Nine'n ilobian, Pirama, nik i an idoroteko".

IRASAGAR'ek.—Nina'n ilobian, gizon: aiko, olangorik eztoke esan bear oraindik: orrako ori ik Pirama'ri erantzun bear dau sakana dok. Ik dana batera diñok, alla-itzak eta guzi, ire aldia eldu baño len.— Pirama dator aurrera: ire alla-itzak yoanak dozak: oneixek dozak: "zaldia baxen sendo".

OKER ostera be aurrera, eta ONDAR asta-buruagaz.

TISBE'k.—"Ene! —Nekea zer dan eztakian baxen sendo".

PIRAMA'k.—"Zintzo izatekotan, Tisbi, ni zure gaur-gero".

IRASAGAR'ek.—Mamuarena! Inondikoarena! beste ludikoen batzuk yarra dabilkuz. Otoi, gizonok! gaioazan emendik! lagun zakidaze! (Aketoak alde).

OKER'ek.—Atzetik ara yarra noakizue: neuk eroango zaudaz zuok apur baten ortik zear, iztinga zear, txaraka zear, idetza zear, sasitzak zear: aldiz zaldiaarena egingo dot, aldiz eiza-txakur,txarri, buru-bako artzarena, aldiz suarena; eta aldiko irrirtze, ausi, urrume, ta orroa egin eta erre egingo dot. (Alde dagi).

ONDAR'ek.—Zegaitik doaz igesi? marroka dabikidaz orreik bildur-ikaratzeko.

Barrien barri MUSTUR aurrera.

MUSTUR'ek.—Yaungoikoarren, Ondar! ik izan dokan aldakuntzea! zer dok ik aldean?

ONDAR'ek.—Zer dakustak, ba? Euk aldean dokan asta-burua dakusak nigan ala? Bai ete?

IRASAGAR aurrera ostera be.

IRASAGAR'ek.—Yaungoikoarren, Ondar! ene bada! i aldatuta ago. (Alde dagi).

ONDAR'ek.—Ba-dakust orrein marrokeria: orreik ni astotzat artu nabe, niri bildurra sartzeko, olangorik al ba-lebe. Baña orreik egingo dabena egin, nik ezto emendik zirklinik egingo: emen gora-beraka ibili ta abestu egingo dot, nik bildurrik eztodala entzun dagien. (Abesten ekiten dautso).

"Zozo ar, orren baltz.

Moko gorri-bellegi.

Ots ezti birigarroak,

Txepetxak alla motzegi".

TITANE'k.—Ze gotzonek iratzarri nau nire gara-oetik? (Aztarri ala).

ONDAR'ek.—"Otatxori, artatxori, larratxoriak, Kuku baltziska, abots-zakarrak, Bere abotsa askok entzunarren gorostian, Inok ez erantzun, ez orrako landan"; eta izan be, nok erantzun eta yaramonik egiteko olango txori erori? Nok guzurtatzeko txoririk, "kuku" oker esan dauela-ta?

TITANE'k.—Ilkor maitagari, abestu egizu, arren, ostera be: nire belarriai gozo-gozo yake zure eresi ori. Olanxe yake nire begiai zure taiu-antza; eta zure edertasunaren indarrak zu ikusiaz bat, nai ta nai ez esanazo, zin eragiten daust, zu maite zaudazala.

ONDAR'ek.—Nire ustez, andera, zuk bide gitxi dozu orretarako; eta orraitino, egia esateko, aldiotan bidea ta maitasuna ez dira alkarren lagun-lagun; eta benetan tamalgarri da biotz oneko auzorik ez izatea orrako zer biok alkarren adiskide egitekorik, Ba-dakusazu, erarik dodanean nik aurrekoari ziririk sartzen ba-dakit.

TITANE'k.—Zu eder lain zur zara.

ONDAR'ek.—Ezta olangorik be; baña nik baso onetatik urteteko lain zurtasun ba'neu niretzako lain neunkake.

TITANE'k.—Ez izan baso onetatik alde egiteko gogorik; emen gelditu bearko dozu, zuk gura naiz gura ez. Ni enozu edozetariko iratxorik; udea nire bendeko da, ta nik maite zaudaz; orrazkero, zatoz nikin, nik iratxoak emongo dautzudaz zure esaneko izan daitezaz; pitxiak ekarriko dautzuz itxas-ondar ondaretik, eta abestu egingo dautzue zu gara-ganean lotan zagozan artean; eta nik zure ilkor-zakarlasuna garbitu egingo dautzut, iratxoan antezz ibili zadizan.—Idargarra! Amaraun! Sits! eta Yebenazi!

Lau iratxoak aurrera.

I IRATXOAK.—Gertu nozu.

II IRATXOAK.—Bai ni be.

III IRATXOAK.—Ni be bai.

IV IRATXOAK.—Nora yoteko gara?

TITANE'k.—Txeratsu ta adeitsu izan zakioez gizon yator oneri: ikotu orren bideetan, eta eragi ta astindu zuon zangoak orren aurrean; yakitzat mertxika ta masustak emon; mats-mordo gorriak, iko muskerak, eta masusta gorriak; abaiak,erleai ostuta; eta gabetarako argizagitzat, kendu ta batu egizuez erleen argizagizko itzarrak, eta eper-

targiaren suzko begietan ixiotu egizuez, nire maiteari oerakoan eta yagiterakoan argi egiteko; eta kendu egoak pitxileta egonabarrai, lo dagonean orren begietara iretargiaren argirik eldu ezadin: orren aurrean burua mukurtu egizue ta adeiak egin orreri.

I IRATXOAK.—Gora zu, ilkor!

II IRATXOAK.—Gora!

III IRATXOAK.—Gora!

IV IRATXOAK.—Gora!

ONDAR'ek.—Biotz biotzez erruki-eske nago-tzue, yaun aintzakogarriok.—Zuon izenak yakin gura nendukez.

AMARAUN'ek.—Amaraun deretxat.

ONDAR'ek.—Ezagunago al zindudaz, Amaraun yaun on. Inoz nire atzik ebagi ba'dagit, artez artez yoko dot zugana.—Zure izena, gizayator?

IDARGARA'k.—Idargara.

ONDAR'ek.—Emon, arren, nire gorantziak zure ama Idar Andereari, ta zure aita Leka Yaunari. Idargara Yaun on ori, zukin be ar-emon geiago izango al dot.—Zure izena, arren, yaun?

YEBENAZI'k.—Yebenazi.

ONDAR'ek.—Yebenazi yaun on ori, zure epea ondo ezagun yat: abelgorri-saieski erre eskarga dollorak zuotariko amaikatko giza-yator iruntsi izan dau (8); yakizue ondo ta bein beilko, zuon senitarteak negar eragin daustala orain baño lenago ba. Zukin be ar-emon geiagorik izango al dot, Yebenazi yaun on.

TITANE'k.—Ia, bere esanera zagoze; nire etzategira eroan. Nire ustez, iretargia begiak bustirik dagoku begira; eta iretargia negarrez egoten danean, garatxo guztiak be negar egiten dabe, indarrez ausitak garbitasunen bateri illetaka. Lotu egiozue miña nire kutunari, ixilik eroan egizue. (Alde dagi).

(8) Ingelandarrak yaten sciak izan yatzuz eta oraindik be ba-yatzuz, okela-yale itzalak, eta guk euzkotarrok be ba-dogu onetan arein antzik. Ingelandarren maian oraintxe be yebenazi-urunak nekez utsik egingo dau; yebenazi-uruna okela erreari ezarten dautsoe yangalea biztu ta irrikatzeko. Urun baltziska ori begietarazkero, azkura emon eta negar eragiten dau.

II AGERLEKU.--Basoko beste arlo.

OBERON aurrera.

OBERON'ek.—Titane atzarri danentz yakin gura neuke; baita, atzarri danean begien aurrera lenen zer agertu yakon be yakin gura neuke, orrako ori maite ala maite bearko dau-ta.

OKER aurrera.

Emen dator nire geznarria.-- Ze barri dakak, iratxo zoro orrek? Ze poz-bide izango yoagu gau onetan baso liluratu onetan?

OKER'ek.—Nire ugazabanderea mamukin maitemindu da. A bera ilunetan lo egoala, aren lo-gela itxi ta besteri galazoaren aldamenean, Azenai'ko lantegi zirtzil-ganora-bakoetan ogia irabaztearren lan egiten daben adabaki-mordo, aketo zakar batzuk egon dira batuta, Teseu'n ezteguetarako antzerki gertatzen. Euretariko kirtenena, euren antzerkian Pirama'na egiten ebana, antzerkia bertan-bera itxita, sasian sartu da; erea nire alde dodala ikusi dodanekoxe, zirti-zarta,asta-burua ezarri dautsat buruan; bertatik, ak Tisbe'ri erantzun bear-ta, an doa nik astotua besteen aurrera. Basa-atak narraz doakan eiztarria ikusi ala, naiz bela buru-baltzak, su-iskillo-otsa entzun ala, taldeka ta garrankadaka yagi ta alkarregandik bakanduz, ortzia zear sakabanatzen diran legetxe, aren lagunak be, a ikusi ala igesi egin dabe: gure oñen otsera, bein bat bein beste bat yausten izan dira; "giza-eraleok!"gedar egiten izan dabe ta Azenai'ko laguntza eskatu. Euren sentzuna olan makaldu, ta bildurraren bildurrez galduta, sentzun bako zerak be oker egiten izan dautse: sasi ta arantzta-arteau soñekoak urratu ta sorkitu yakez; batzuk soñekoaren besoak, beste batzuk txapelak sasi ta arantzetan itxi dabez bertan-bera. Nik aurrera ta aurrera eroan dodaz bildurrez zoratuta, ta an itxi dabe Pirama ezitia antzez aldaututa: egin-eginean be une atantxe atzarri da Titane, ta berpetatik maitemindu da arako astoagaz.

OBERON'ek.—Nik uste baño be obeto yazo dok. Baña Azenai'tarraren begietara egotzi ete dok nik aginduko maiteasun-urik?

OKER'ek.—Lo dagola idoro dot, --ori be eginik dogu-, ta Azenai'ko emakumea aren aldamentean egon da etzanda; atzarri daitenean nai ta nai ez ikusi bearko dau emakume ori.

DIMITIR eta ERME aurrera.

OBERON'ek.—Urreratu akio; au dok arako Azenai'tarra.

OKER'ek.—Au da arako emakumea, baña ez arako gizona.

DIMITIR'ek.—Onangorik! zegaitik zapuztuten dozu zu maite zauzana? Olango arnasestua zure areriorik andienari igesteko bedi.

ERME'k.—Orain nik agirika dagitzut, baña txarragorik egin neiketsu zuk niri zuri biraoka ekiteko biderik emon daustazu-ta. Lo dagola il ba'dozu Lisander, oin bata odoletan dozunazkero, bestea be sartu egizu, ta il nagizu ni be. Eguzkia bez egunari zintzoago, a niri izan yatan baño; yazo ete eitekean ak, Erme lotan itxita, ixilka alde egiterik? Olangorik baño lenago sinistuko dot ludi au alderik alde zulatu leitekela; eta zulo ori zear iretargiak bestalderako bide egin eta gure oñez beste aldean bizi diranen eguerdian bere neba eguzkiagaz trikitx egin legikela; zuk il egin dozu a; eztago besterik; zurea langoxe antza euki bear leuke giza-eraleak; orren il, orren goibel.

DIMITIR'ek.—Olangoxe antza euki bear leuke iñok ilak eta olangoxea euki bear neu ke nik, zure gordinkeri gogorrek nire biotza alderik alde zulatuta; eta orraitio zu, gizerale ori, an goiko Artizar borobil-dizdikorra bestean argi ta garbi agiri zara.

ERME'k.—Zer da au nire Lisander'en aldean? Non da a? Ai ene! Dimitir on, emongo ete daustazu a?

DIMITIR'ek.—Lenago emongo neunskie aren ilotza nire txakurrei.

ERME'k.—Uf, txakur ori! uf, txakur txatxar ori! nire neska-epetik atera egiten nozu zuk. Orrazkero, zuk il dozu ala? Gaurgero ez al zauz iñok gizontzat etsiko! Olangorik! Esaidazu bein egia, esaidazu egia, nire onerako; atzarrik egoanean etzendun adorerik aren arpegia begiratzeko, eta lotan dagola il dozu ala? Ori bat ba-dala gizonkerria! Orrenbesterik ezin egin ete legikean mamarrok, naiz sugedorrik be? Sugedorrik egin be egin dau; eta izan be, sugedorrik eguño eztau usigi zuk suge orrek baño min bi kotxagogaz.

DIMITIR'ek.—Oker zagoz zu eta alperrik berotzen zara; nik eztoz Lisander'en eriotzearen erurrik; eta nik dakidala, a eztago ilik be.

- ERME'k.—Orrazkero, esaidazu, arren, a onik dala.
- DIMITIR'ek.—Nik ori esan al izatekotan, ze sari emongo zeunskit?
- ERME'k.—Ni eguño geiago ez ikusteko eskubi-dea.- Eta iquin eta gorroto dautzudan zure aurretik olantxe alde dagit nik; enagizu ikusi geiago, a bizirik naiz ilik izan. (Alde dagi).
- DIMITIR'ek.—Gogaldi asarre gori ori dauen artean orren yarraí yoatea alperrik da: orrazkero, emen geldituko naz bein-beinean. Olan naibagea astunago egiten da porrot egindako loak naibageari dautson zorragai-tik; eta loak orain ordainduko dau bere zor orren zatitxo bat, ni emen apur baten gelditu ba'nadi. (Etzan egiten da).
- OKERON'ek.—Zer egin dok ik? Ik dana guz-tiz okerretara egin dok, eta maitasun-ura maitale zintzoen baten begietan ixuri dok; ire okerretik etorri dana zera dok, beneta-ko maitasuna galdu egingo dala, ez ustelik zintzotuko.
- OKER'ek.—Orrazkero, dana da alanbearraren bendeko, gizon zintzo bakoiteko, zina zinaren ganera egin eta austen dabeneta-riko milloa bat ustel dozuz-ta.
- OKERON'ek.—Oa axea baño arinago basoa zear, eta billatu egik Azenai'ko Elene; a iñondiko irudipenez beterik yagok, arpegi-zurbil, maitasun-intzirika, guzti ori aren odol gazteak ondo ordainduta. Asmau egik lilura-penen bat a ona ekarteko; aren aurrera agertuko danaren begiak neuk liluratuko yoazat.
- OKER'ek.—Ba-noa, ba-noa; begira nolán noan, Tartari'tarraren makotiko gezia baño arinago. (Alde dagi).
- OKERON'ek.—Kolare gorri-ilun onetako lora, Kupida'n makotiko geziak yoa, Sar adi aren begiko bola bolan! A bere maileri kirika dagola, Artzarrak goi ortziko bere bolan lez, No'k argi begi aren aurrean. I atzarri ala No egon i-ondoan? Esaiok No'ri: "Ni artega naiagon".
- OKER osterá be aurrera.
- OKER'ek.—Gure iratxoén taldeko Nagusi, Elene emen dozu ur, Buruzagi, Eta nik oker aitu gizon gaztea Maitasun-sarian eske dago bera; Ikusko guk euren maite-erakusketa? Yauñ, ilkorron zorakerian beteá!
- OKERON'ek.—Aldendu akít; orreín zarateak Dimitir iratzarri egingo yok.

OKER'ek.—Orrazkero, bik maitakatuko dabe bertatik bat, eta ori barregarri izango ya-ku; eta niri zer barregarriak yatzaz gogo-koen.

LISANDER eta ELENE aurrera.

- LISANDER'ek.—Zer dala-ta uste dozu zuk nik irriz maitakatzen zaudazala? Irria ta isekoa ez dira negarraren umerik. Begira, nik agin-durik egin ala, negar dagit; eta olan yáio diran aginduak yaiotzatik dira zintzo zin-tzo. Zer dala-ta iruditu bear ete yatzuz ni-re zerok irri ta iseka, zintzo ta benetakoak dirala erakusteko ezaugarri au daroenaz-keró?
- ELENE'k.—Zuk zure marrokeria aurrerago ta aurrerago daroazu. Egiak egia il ba'dagi, ori bai ba-dala era batera zeru-sulezako burru-kea; Orrako zure aginduok Erme'ntzako di-ra: bertan-bera itxiko dozu a ala? Astatu, pixetu egizu agindua aginduagaz, eta zuk eztozu izango astarik (pixurik); imini niri egindako aginduak astakinaren ontzitxo ha-tean, Erme'ri eginak bestean, eta alkar bardinduko dabe: eta bitzuek izango dira ipuin-ak bestean arinak.
- LISANDER'ek.—Nik eneban izan bururik ari zin egin neuntsanean.
- ELENE'k.—Nire ustez, ez geiaigorik orain a bertan-bera itxiáz.
- LISANDER'ek.—Dimitir'ek maite dau a, eta ak etzauz maite zu.
- DIMITIR'en.—(Atzarri ala) Ene Elene, yainko-no, ur-neska, oso, yainkozko ori! Zure be-giak zeren antzeko dirala esango dot? Leia-rra zikina da. Ene! Zure ezpanak bai, orreik kerexa gorri-eldu biok bai mun egiteko zirikaten dabela! Eguzki-alde-tiko axeak putz eginda leitu zan zuria, Taurus mendi garra-tzeko edurra, belea baño baltzago da zu-re eskuaren aldean: ene! mun egingo al dautsat errege-alaba zuri uts oni zori ona-ren betegarritzat!
- ELENE'k.—Gogóaren gaizto! Sulezearena! Da-kustanez, zuok guztiok bat eginda zagoze nire lepotik barre egiteko. Txeratsuk ba' zintzaze, begirunerik ba'zendue, eninduke-zue orrenbeste irainduko. Ba-dakit gorroto daustazuena, baña ezin gorrotau ete nozue ni gorrotatzeko alkarrekin bat egiteka? An-tzez zarien lez, izatez gizon ba'zintzaze, zuok etzeunskioe egingo olangorik emakume ya-torreri; agindu, zin egin, eta ni neurritz go-rra goratu nik dakidan lez, zuok niri gorro-to izanda. Zuok biok zarie nor geiagoka zabilzenak, eta Erme maite dozue; eta orain nor geiagoketari biok zabilzte Elene'ri nok

irri geiago egingoka: ori bai egiteko andi, ori gizonkada, zuon irri ta isekaz neska errukariaren begiai negar eragitea! Etke oneko semek eleuke irainduko olan neskarik, eta biotz naibagueturen eperik agortuko, ta gixtiago yolasbidetatz.

LISANDER'ek.—Dimitir, i zakar, biotz txarreko az; ez adi izan olangorik; ik Erme maite dok-eta; ik ba-dakik nik ori dakidana; eta ementxe, biotz eta gogo osoz damoskat nire atala Erme'gazko maitasunean; euk be ekak ire atala Elene'gazko maitasunean, nik Elene maite yoa et il arteño maite izango yoa et-eta.

ELENE'k.—Eguño irrilarik eztau galdu bere astirik alperrikago.

DIMITIR'ek.—Lisander, euk eukik ire Erme; nik etxoat gura a; eaguño maite izan ba' voa, yoana dola. Nire biota agon izan ba'dok, arrotza ifionean lez egon dok; eta orain Elene'nean ostera be here etxean dok, an aelditzeko.

LISANDER'ek.—Elene, ori ezta olan.

DIMITIR'ek.—Ez egik beeratu ta gixtutu ik ezagun eztokan zintotasunik, ire galdugorde ik irabazia artu eztagikan, gero.—Arc non datorren ire maitea; andik aragotik vatok ire maitea.

ERME aurrera.

ERME'k.—Gau onen ilun, begiari bere egitekoa kendu, ta belarria zoli-zurrago egiten dau-ta; ikusmenari kentzen dau-tonoz birritan saritzen dau entzumena:—Lisander, zu etzauz idoro nire begik; nire belarriak bai, eta orregaitik esker oneko naiako; nire belarriak nakar zure osera. Baña zegaitik itxi nozu ni orren zakar bertan-bera?

LISANDER'ek.—Zegaitik egon bear dau maitasunak daroanak?

ERME'k.—Nongo maitasunek eragin eta estutu leikean Lisander nire albotik alde egiteko?

LISANDER'ek.—Lisander'en maitasunak, Elene liraina barik ezin egon zan nire maitasunak; eta izan be, ak an goitegian agiri diran zer borobil eta begi argitsuak baño ederrago egiten dau gaba. Zegaitik zabiltz nire billa? Ezin yakin al izan eite dozu zuri dautzudan gorrotoak zu bertan-bera itxi-zo daustala?

ERME'k.—Zuk ezitziñozu ori benetan eta biotzez; ezin leiteke olangorik.

ELENE'k.—Ostera! neska ori be orre in zinkide yatzu! Orain oartzen naz orreik irurok alkar artu dabela nire lepotik irri ta barre egiteko asmau daben zer onetan. Erme

gaizto ori! neskarik eskertarrekoen ori! zu orrekin alkartu zara, orre in asmakide egin zara niri irri zantarka ekiteko? Au ete da guk artutako asma, onetan gelditu ete dira gure aizta-aginduak, guk alkarrekin igaroko orduak, alkarregandik banantzen ginduzalako guk aldi zango-arinari egindako agirikak? —Olangorik! dan ori aztu ete dozu? Irakastegira genbiltzaneko adiskidetasun guztia, umearoko errugetasuna; guk, Erme, ya inko trebe bi baigintzaz, guk biok gure orratzez lora bat egin izan dogu, biok eredu baten ganean, biok yezarleku apitz baten ganean yezarrita, biok tararaka abesti bat abestuaz, biok doñu berean: gure eskuak, gure saietsak, abotsak eta gogoak soin batekoak bailitzazan. Olan, gu batera azi gara, kerexa bikotxaren antzera, irudiz bakarrik alkarregandik bananduta; eta orraitioño batuak bakandurik, kerexa eder bi txorten baten eratuta: olan, antzez soin bitan, biotz bat bakarrik. Gurenen bi, mazmarroko lauko bi legetxe; aurenz bi, baña mazmarro batekoak, eta buru ta buruntzatgat gangar bakarra dabela. Eta zu, gure antxiñatiko maitasuna urrututa, zure adiskide errukariari irri ta iseka egiten daragoioen gizonakin batuko ete zara? Ezta ori adiskideri dagokunik, ezta ori neskari dagokunik: nik lez, gure emetasunak be agirika egin dagiketzu orrako orregaitik, irainaren mina nik bakarrik somatuarren.

ERME'k.—Zure itz bero-eragikorrek arrituta nabe: nik eztagituzt irririk; irri zeuk dagitazula dirudit.

ELENE'k.—Zeuk eztozu bidali Lisander, irri egiteko asmoz, nire yarra etorteko ta nire begi-mosunak neurritz gora goratzeko ala? Eta eztozu zuk zeuk bidali zure beste maitale Dimitir be, oraindik oraintsu ostikoka erabili izan nauen Dimitir ori, niri ya inko no, ur-neska, ya inkozko, inñondiko, eder eder eta zerutiko deitzeko ala? Zegaitik dirautso ak olangorik gorroto dautsonari? Eta zegaitik ukatzen dau Lisander'ek zu maite zauzala zu ak maite-maite izanik, eta niri maite-erakusteka ibili, zin ta guzti, zuk orretarako zirikatuta ta zure ederreksi barik? Zer dautzu zuri, ni zu bestean lirain ez izanarren, zu bestean maitagari izan ezarren, zu aña zori ontsu ez izanarren? Zori txar-txarreko, ta noberak maite izan eta inñok maite izan eza baño? Zuk onako onen erruki izan bear zenduke, irririk egiteka.

ERME'k.—Nik eztaikit orrako orregaz zer esan gura dozun.

ELENE'k.—Bai, yarra! zure bidean, iruditu begirakune goibelak, egin mosuak nik arpegiari beste aldera eragiten dautsadanean; kiñu egin alkarrerri; egin iribarretxoak; yakabide au, ondo egin ba'dagizu, egunkarrietan idatziko da. Ezetariko errukirik, ederrik, eta era-mera onik ba'zendu, zuk enindukezu onan erabiliko. Baña onik eta ondo zabiltz; zati bat neure erru da; eta ori erioitzeak, naiz emendik alde eginak laster zuzenduko dau.

LISANDER'ek.—Etxon, Elene maitagarri; entzun nire buru-zuriketea; nire bizi, nire maite, nire biotz, Elene lirain!

ELENE'k.—Bai, itzalez bikain!

ERME'k.—Ezti orrek, ez egizu zapuztu olan neska ori.

DIMITIR'ek.—Zure eskariak olangorik lortu ezin ba'dabe, neuk beartuko dot ori orretara.

LISANDER'ek.—Ik indarrez eztok lortuko orrek eskariz baño geiagorik; ire zema! arroak etxoek orren eskari makalak baño indar geiagorik. —Elene, nik maite zaudaz; nire biziarren, maite zaudaz; nik etzaudazala maite esan dagianak guzurrea diñola erakusteko galduko dodanarren zin dagitzuk nik maite zaudazala.

DIMITIR'ek.—Eta nik diñot orrek maite zagekan baño maiteago zaudazala.

LISANDER'ek.—Olangorik ba'diñok, atera egik ezpatea ta erakutsi egik.

DIMITIR'ek. Bai aterako be ta arin. Ator, gai ba'az.

ERME'k.—Lisander! zetarako orrako zer gutti ori?

LISANDER'ek.—Alde zuk, Etiopi'tar baltz orrek.

DIMITIR'ek.—Ez, ez, yaun; bere burua azkату gura dauenarena egik; yarraik, euk gurako eunkenez; ez adi etorri, ez; ollo az; yarraik or besartean!

LISANDER'ek.—Itxi nagizu, katu orrek, kirikiño orrek; yarei nagizu zirtzil orrek, ostean, sugea legetxe azünduta ortik zear yaurtin-go zaudaz-eta.

ERME'k.—Zegaitik egin zara orren zakar eta baldar? Ze aldakuntza dogu au, maite-ezti?

LISANDER'ek.—Zure maite? Uf, Tartaritar bal-tzeran, uf! Uf, osakai iguingarri ori! Alde emendik edari naskagarri orrek!

ERME'k.—Ez ete zauguz txantzetan?

ELENE'k.—Bai, bai orixe; eta bai zeu be.

LISANDER'ek.—Dimitir, nik beteko yoat iri emoneko itza.

DIMITIR'ek.—Nik ire baia gura naieunke; eta izan be, dakustanez, lokarri mea dok

iri eusten dauskana; nik etxoat usterik ire itzean.

LISANDER'ek.—Ostera! min egin bear ete yausat, ba, neska oneri, yo ta il egin bear ete yoat? Gorroto izanarren, nik etxautsat olango okerrik egingo.

ERME'k.—Ostera! egin ete dagikedazu gorroto izatea baño oker andiagorik? Niri gorroto! Zer dala-ta? Ai ene! ze barri dogu ori, ene laztan? Enaz ni Erme ala? Zu etzara Lisander ala? Ni orain len aña lirain nozu. Arratserarte zuk maite izan nozu; orraitño, arratsazkero bertan-bera itxi nozu; orrazkero, zegaitik itxi nozu?—Ene! Yaungoikoak ez al dau gurako olangorik! —Benetan zagozala esango ete dot?

LISANDER'ek.—Bai, nire biziarren! eta etzau-daz ikusi be egin gura iñoz geiago. Orrazkero, ez izan itxarorik, zelantzarik, ez-bairik seguru, egon ezer bez ori baño benetakogorik; ez da txantzetarik zuri gorroto dautzudala ta Elene maite dodala.

ERME'k.—Ai ene! marrolari ori, zuri-zalale ori! lora ar-yo ori! maitasun-lapurrori! Ostera! gabaz etorrita zuk nire maiteari biotza ostu dautsazu ala?

ELENE'k.—Ederto, bai orixe! Ez ete dozu lotsortasunik, ez neska-lotsarik, ez lotsearen ondakinik be? Onangorik! erantzun latzak aterazo gura ete dautsazuz nire min yatorrari? Uf, uf! ustel ori, irudi uts ori!

ERME'k.—Irudi uts! zegaitik ori? Bai, txantxak aurrera doaz. Orain dakust neska orrek gure soin-garratzasunak alkarren ondoan imini dauzala; soñak emon ala luzatu da; eta bere sointxoagaz, bere sointxo garratzagaz, bai orixe, irabazi dau gizon ori.—Eta ni onen merro ta txiki nazalako egin ete zara zu orren garratz orren etsian? Zeinbesteraño txiki naz ni, orril-aga (9) margoztu ori? Esan; zeinbesteraño txiki naz? Ni txiki ba'naz be enaz nire atzazalak zure begietara ezin eldu besteraño txiki.

ELENE'k.—Arren-bai-arren, gizon yatorrok, zuok niri iri eginarren, ez egiozue itxi neska orreri niri minik egiten. Ni enau iñok eguño biraoka erabili; enaz ni maltzurkeritan gorengorik, ezta urrik be; bildurti naz, ni eta orrexegaitik erako neska; ez itxi orreri ni yoten. Ba-leiteke zuok uste izatea,

(9) "Orril-aga". Gu euzkotarron "zinta-danta" ta Ingelandarren "Orril-aga" (May-pole) alkarren antz-antzeko kirolak dira. Zein ete da lenagoko? Garate'tar Yusta'k askatu begisku korapillo au.

ni ori lain ba-nazala, ori ni baño zerbait txikiago dalako.

ERME'k.—Txikiago! ostera be lenera.

ELENE'k.—Erme on, etzakidaz izan orren gordin. Nik beti maite izan zaudaz Erme; ni beti izan naiztu esaneko; nik eztautuz eguño okerrik egin; bat izan ezik, zera, Dimitir maite nebanean, zu ixilka baso onetara etorri zintazala esan neuntsola: a zure yarra etorri zan: ni be, maitasunak eraginda, ni be yarra yon nintxakon; baña ak, agirika eginda, emendik bidali egin nau, ta yo egingo nauela zemaitu, ta, orrez ganera, ni ilteko iñor zirikatzen be ibili da: eta orain, bakes youten itxi ba'dagistazu, ni nire erokeria bizkarrean dodala Azenai'ra yoango naz, eta ez ibili zure yarra. Itxi egistazu youten: ba-dakusazu ni noraño nazan izurbako ta zure maite.

ERME'k.—Orrazkero, zoaz, zoaz: nok eragozten dautzu?

ELENE'k.—Emen nire atzean izten dodan biotz zoroak.

ERME'k.—Atzean norekin? Lisander'ekin ala?

ELENE'k.—Dimitir'ekin.

LISANDER'ek.—Ez izan bildurrik; neska orrek eztautzu egingo okerrik, Elene.

DIMITIR'ek.—Ez, yaun, etxautsok egingo, i neska orren alde yarriarren.

ELENE'k.—Ene! neska ori asarre danean, zorrotz eta maltzur izaten da: irakastegira ebilenean, ori azeri langoxe zan; eta txiki izanarren, odoltsu ta pirri da.

ERME'k.—Txiki ostera be! Txiki ta laburraz besterik ezebe! --Zegaitik izten dautsazue orri niri irri egiten? Erdu ta eskuak ezarten itxi egidazue.

LISANDER'ek.—Alde ortik zuk, epotx orrek; zuk, zarkume, ota-bedarrez egindako orrek; zuk, kuskubil, zuk, ezkur orrek.

DIMITIR'ek.—Ik geiegi yaramoten dautsak ire laguntzeari irri egiten dautsan neska orri. Geldi; itxi ori ez egio ekin; ez egik Elene'rik aipatu be; ez adi yarri aren alde; eta izan be, ari ire maitasunik txikian ira-garri ba'dagiok, ikustekoa ikusikok.

LISANDER'ek.—Orain etxautak eltzen Erme'k; gai ba'az eta azartzen ba'az, ator orain Elene'gan nok dauen eskubide geiago, ik ala nik, erakusten.

DIMITIR'ek.—Ator! Ez, neu neu yoango nok ikin, masalleak masalleari deusola. (LISANDER eta DIMITIR'ek alde).

ERME'k.—Zu, neska, zu zara burruka onen errudun; ez, ez yon atzeraka.

ELENE'k.—Nik ezot zagan uste onik, ni bildur naz; ezot egon gura be luzarago

zu iguingarri orrekin batera. Asarraldirako zure eskuak nireak baño bizkorrago dira; baña orraitino nire zangoak luzeagoak dira, igesi egiteko. (Alde dagi).

ERME'k.—Arrituta nago ta ezakit zer esan-gorik. (Alde dagi, Elene'ri yarra).

ÖBERON'ek.—Ire ardurarik ezarena dok onako au; oraindiño be i okerreko ustean ago, edo, ostean, ik ire okerrak beren-be-regi egiten dozak.

OKER'ek.—Sinetsi egistazu, itzalen errege, oker ibili naz. Etzeunstan esan zuk, gizona nik ak aldean ebazan Azenai'ko soñekoetatik ezagun izango nebala ala? Eta alde orretatik nik ezot nik eginaren errurik, Azenai'tar baten begiak igurtziarenik; eta bein-beinean pozik nago yazo yazo dalako, orrein zarata ta zaparradak yolatzat dodaz-ta.

ÖBERON'ek.—Ba-dakusak maitale orreik burruka non egingoren billa dabilzala; orrazkero, oa arin, Robin, estali ta ilundu egik gaba; estalik bertatik laño itsuz ortzi izarratua, Akeron lain balz gelditu arte (10); eta aldendu egizak burrukari setatsuok alkarregandik, batak bestearen biderik artu eztagian. Batzuetan Lisander'en antzez itz egik, eta urren Dimitir zirikatatu egik ari irain zorrotzen bat esanda; beste batzuetan abil Dimitir'en antzez txarto esaka; eta onan, batetik bestera erabili egizak, eriotz-antzeko loa bere berunezko zango ta saguzar-egoz arein batazletara ziriztaka etorri arte; orrazkero, bedar au sakatu-sakatu eginda, ixuri egik onen ura Lisander'en begietara; bedar onen urak indar arrigarria yok bere aiez andik oker guztiak kentzeko, ta aren begi-bolai oi dabenez ikusiazoteko. Barriro atzarri daitezanean, orain egiten yaken irri au, ames eta alperriko irudipentzat etsiko yoe; eta maitaleok atzera Azenai'ra yoango dozak, eriotzaraño iñok ausiko eztauen lokarriz estuta. Arazo onetan iri lan eragiten daukadan bitartean, nik, nire errege-noagana yoanda, India'ko bere mutikoa eskatuko yautsat; eta orrazkero, aren begi liluratuai aurretik mamu-ikusizuna kenduko yautset, eta edozer baketan geldiko dok.

OKER'ek.—Ene iratxo-yaun, onako au arin arin egin bear da, gabeko iransuge biz-

(10) Akeron dalako au su-lezako ibaietarik bat dogu, beñolako Elade ta Erroma'tarren ustez. Ikus ENEARENA VI, 295 ta urrengo olerkiak. Akeron ori toki ilun-iluna ei zan, iñon toki ilunik izatekotan.

korrak (11) odeiak arin arin urratzen da bez-ta; eta an aragoan argitan dago egun-sentiaren geznarria, eta a urreratu ala, an-or-emen aldarrai dabilizan gogo gaiztetsi guztiak taldeka ta saldoka doaz zeinek arinago ilobilegiatako euren etxeetara; guztiak gaiztoen gogoak, euren ilobiak bide-kurutzetan eta uretan dabezanak, dagoneko yonak dira euren oe eltxarrez beteetara; egunak euren lotsagarrikeriak ikusikoaren bildurrez, euren kitelik erbestertzen dira argitatik, eta beti-betikoz izan bear da-be euren laguntzat gau betozko-iluna.

OBERON'ek.—Bai, baña gu bestetarikoz gogok gozak; ni sarritan ibili nok goxaren maiteekin yolasean; eta, basatar-antzez, ni basoan ibili naitekek eguzki-aldeko ate gorria, Netun'en ganean (12) izpi dontsu-zuriz idigita, ate orretako ur gazi-muskerrak urbellegitu ta urretu arteño be. Baña, orraitioño be, bizkor abil; ez egik geroratu egitekoa; oraindik ba-yoagu astirik arazo au eguna baño len burutzeko. (OBERON'ek alde).

OKER'ek.—Gora ta bera, gora ta bera:
Nik ebaliko orreik gora-bera:
Niri bildur uri-basoetan;
Iratxo, ebali ok gora-bera.
Emen dator euretariok bat.

LISANDER aurrera.

LISANDER'ek.—Non augu, Dimitir arro ori? itz egik orain.

OKER'ek.—Emen nok, dollor: ezpatea aterata gertu. Non augu?

LISANDER'ek.—Or nok bertatik.

OKER'ek.—Orrazkero, leku zelatagora arraikit (LISANDER'ek alde, abotsari yarraika bai lia).

DIMITIR aurrera.

DIMITIR'ek.—Lisander! Itz egik ostera be. Igeslari ori, bildurti-koldar ori, ollo ori, ige-sirik augu ala? Itz egik. Sasrakuen baten sartu az ala? Non ostondu az?

OKER'ek.—Dollor ori, ollo ori, arropuz ori, burruka-billa abilela izarrai eta sasiai esaka daragoiok eta eztok erdu gura ala? Ator, bildurti uts ori; ator ume ori, kilil ori; bar-deaz narra berotuko dauskat: itzako ezpata-rik atera dagiana orbanduta yagok.

DIMITIR'ek.—Or augu ala?

OKER'ek.—Arraiko nire abotsari; emen etxoagu izango nor dan gizon ikusteko erarik. (Alde dagie).

LISANDER aurrera ostera be.

LISANDER'ek.—Nire aurretik doa, eta orraitio-

ño eupada egiten daust; dei egiten daustan lekura ni eldu orduko, ak alde egiten dau. Dollor orrek nire aldean zango bizkorak dauz: ni arin yarraia naiako, baña ak arinago igesi daust; bide latz-ezbardinean yausi egin naz-ta, lo egingo dot emen. Zatoz, erdu, egun maitagarri! (Etzan egiten da). Eta izan be, bein zuk zure argi nabarra erakutsiazkero, idoroko dot Dimitir, eta nik irainon apena artu. (Loak artzen dau).

DIMITIR aurrera berrero. Bai OKER be.

OKER'ek.—Ja, ja! ja, ja! Ollo ori, zegaitik ez ator?

DIMITIR'ek.—Etxon egidak, adorerik ba'dok; eta izan be, nik ondo yakiat i nire aurrean igesi abilena, lekua aldatu ta aldatu: ik eztok adorerik niri etxoteko ta arpegi emoteko. Non ago?

OKER'ek.—Ator ona; emen nok ni.

DIMITIR'ek.—Orrazkero, i niri irrika abil. Orraitioño artzekoak, Kistonak artu bearko daustazak, i inoz inon egun-argiz ikusi ba'agit; bein, oa ire bidea zear. Bein-heinean yon baño eztaukak. Nekearen nekeak nire soinak estali ala lur otx estaliazoten yausitak.—Egunagaz bat yoango nok i ikusten. (Etzan eta loak artzen dau).

ELENE aurrera.

ELENE'k.—Gau aspergari ori! Gau luze-iguin-garri ori! laburtu egizuz zure orduak! Ekarrri poz-argia sortaldetik, egun-argiz Azenai ratu al nadin, nire lagun izateari iguin dau-tsoenetatik alde eginda: —eta lo orrek, noizipein nire naibagearen begiak isten dozuzan orrek, apur baten alden du nagizu ne-ronen lagun izatetik.

(Loak artzen dau)

OKER'ek.—Oraindik iru baño ez? Betor beste bat:

Bitaioko bi ta bik egiten iru ta bat.

Emen dator No ori, zaputz eta gotilun:—

Kupida mutiko dollor, i okerra nainun,

Neska gaxoai burutik eraiteko edonun.

ERME aurrera.

ERME'k.—Eguño bez onen nekatutik, eguño bez onen erukarri, inontzez busti bustirik, eta ar-arantzak urratu urratuta; ni ezin yon

(1) Gabaz iransuge-izarrok ba'dakusazuz, laster da eguna.

(2) Netun itxas-yainko da izan, baña emen itxasoztat artzen da.

naiteke aurrerago narraz be, ezin yoan aurrerago; nire zangoak eztaulsoe erantzulen nire leieari. Emen atsedean artuko dot eguna argitu arteño. Yaungoikoak yagongo al dau Lisander, burrukarik egin ba'dagie! (Lurrean etzaten da).

OKER'ek.—Lur-ganean

Lo lo bean:
Maitale zintzo.
Neuk ezarriko
Zu-begiri betiko
Osasun-yario.

(LISANDER'en begietara, sakatuz, arako ura dario).

Atzarri zadizanean.

Zuk artuko betean

Atsegin bete-betea

Zuk lengo maitalea

Ikusi dagizunean:

Ta supita zar ezaguna

"Gizon bakotxari berea"

Zu atzarri ala betea:

To'k No izango dau;

Or ondo pozik lau;

Gizonak barrero be bere emea izango dau, eta orra or dana onik eta lau.

(OKER'ek alde. DIMITIR, ELENE, t. a. lo-zorroan)

IV EKITALDI

I AGERLEKU.-Basoa.

TITANE ta ONDAR aurrera. Iratxoak otseinketan; OBERON atzean, inok ikusteka.

TITANE'k.—Erdu, yezarri garazko oe onetan, nik zure masalla maitagarriai zirri egiten dautsedean artean, eta zure buru zelai-leunean larrosa usainsuak yosi, ta zure belarri luzeci mun egin arte, ene poz atsegingarri ori.

ONDAR'ek.—Non da Idargara?

IDARGARA'k.—Emen nozu gertu.

ONDAR'ek.—Atz egidak buruan, Idargara.—Non da Amaraun yauna?

AMARAUN'ek.—Gertu nozu.

ONDAR'ek.—Amaraun yaun; yaun on, artu ire iskilluok eskuan, oa ta il egidak a kar-du latzaren ganean dagon erlanagi atzegoria; eta, yaun on orrek., ekarri egidak aren ezti-abala. Ez egin eragikera larrik zeregin orretan, yaun; eta, yaun on, arduraz abil abaiela ausi eztaiten, i burutik ber ezti dariola etorriko ba'intz, yaun, ni lotsatuta geldituko nintzatekek-eta; --non da Yebenazi yauna?

YEBENAZI'k.—Gertu nozu.

ONDAR'ek.—Ekak ire eskua, Yebenazi yaun.

Ez egin yaramonik era-merari, yauntxo.

YEBENAZI'k.—Zer gurozu, yaun?

ONDAR'ek.—Ezebez, yaun on, Amaraun yaun Zaldunari niri atz egiten ik lagun egitea baño. Bizarginagana yoan bear yoat, yaun; nire ustez, nik arpegi bizartsu-bizartsua yoat-eta; eta ni asto minbera-samur nok-eta, bizarrak gili-gili eginazkero atz egin-bearra izaten yoat nik.

TITANE'k.—Zera, eresirik entzun gura dozu nire maite ezti orrek ala?

ONDAR'ek.—Eresirako alasoko belarri ona dot izan; ekazuez arranak eta arran-miñak.

TITANE'k.—Osterantzean esaziu, maite ezti, zer yango zendukean.

ONDAR'ek.—Egia esateko, imiña bat garagar yango neuke; garagar ona ta igarra izan daitela, gero. Bedar igarra yateko be gogo itzala dot; baña bedar ona, gozoa izan daitela, gero.

TITANE'k.—Ba-dot nik iratxo adoreturik, mixerraren mandiora yoanda andik intxaurrak ekarriko leukezanik.

ONDAR'ek. Intxaurrak baño gurago neuke nik esku batak naiz biak artu ala idiba-ba. Baña zure bendekoatarik batek be ez al daust zirkinik eragingo, arren, logura nazta.

TITANE'k.—Egizu lo, eta nire besoetan eutsingo dautzut. Iratxook, alde egin ta yoan bakotxa bere bidez bide. Onantxe batzen dabe alkar aien zuriaren aienak maitetkero; onantxe estatuten dauz untz emeak besartean lertxun azaltsuaren adarrak. Ene! nik bai maite zaudazala! nik bai kutun zaudazala! (Loak artzen dauz biak).

OBERON aurrerago dator. OKER aurrera.

OBERON'ek.—Ondo etorria i, Robin on. Badakusak ikuskizun atsegingarri au ala? Orren kutunkerari erruki izaten asten nok oraintxe. Eta izan be, oraintsu or basoaren atzelaldean ergel iguingarri onentzako bedar gozo-billa ebilela aurkitu dodanean, agirika egin yauntsat eta alkarrekin asarratu egin gozak; eta izan be, ordurako Titane'k onen loki uletsuetan iminita yeu-

kan gara barri-usaintuzko buruntzea; eta batzuetan gara erdi-idigien ganean tantan borobil eta eguzki-aldeko arri-pitxien antzekoak egiten dauzan ifiontza bera be, orduan garatxoan begien barruan yegoan, negarren antzean, garatxoak euren zori txarrari negar egiteko baillitzoan. Nik, asetu arte, agirika ta asarre egin, eta Titane'k, itz bigunez eta buru-makur, epe artzeko eskatu daustanean, nik aren mutiko ordeazkotua eskatu izan yausat, eta bere iratxoak bidali yozak mutiko ori iratxo-lurraldeko nire gela ezkutura eroateko. Eta orain mutikoa neuretu dodanazkero, orren begietako gaitz gorrotagarri ori manatu egingo yoat. Eta, Oker maitagarri orrek, ik kendu egiok Azenai'ko kirtentzar oni burutik ik ezarriko buru-narru ori: besteakin batera ori be atzarri daitenean, guztiak ostera be Azenai'ra yoan daitezcan, eta gau onetan alan-bearez yazoak ames txartzat bakarrik etsi dagiezan. Baña lenen nik iratxo-erregenoa yarei gura yoat.

Izan orain arte izaten izan zareana;
(Begiak bedarrez ukutzen dautsaz)
Orain arte legetxe ikusi aurrerantza:
Dine'n gareak indar askoz andiago
Kupida'n lora guzti-guztiak baño.

Orain, ene Titane, atzarri zadiz; atzarri zadiz, ene erregeno ezti ori.

TITANE'k.—Ene Oberon! nik ikusi izan dodazanena! Asto maite-maite izan dodala iruditu yat.

OBERON'ek.—Or datza zure maitea.

TITANE'k.—Zelan yazo da olangorik? Ene! orain nire begiak ikuskizun orri dautsoen iguina!

OBERON'ek.—Ixilik egon apur baten.—Robin, ken emendik buru au. Titane, dei egin ereslari; eta boston sentzunai lo oituak baño lo-zorro gogorra goa ezarri dagitsela.

TITANE'k.—Ereslariok, yo, mutilek! Lo lilaratzekoa lango eresikerea yo. gel-begiz egin kirika.

OKER'ek.—Orain, i atzarri aitenean, eure er-

OBERON'ek.—Eresi! yo! (Eresi ixil, lo arrazotekoa). Erdu, ene erregeno, ekazuz eskuak, eta eragin dagiogun oneik ganean etzanda dauzan lurrari. Orain gu biok ostera be adiskide gara, eta biar arratsean, gaberdian, Tesu Dukearenean yaukalkiro egingo doqu yantzan, eta aren etxea onetsi ta seme-alaba ederrez bete daitela eskatu: Tesu'kin batera an ezkonduko dira maitale zintzo bikonde biok be, pozaren pozez.

OKER'ek.—Iratxo-errege, so ta oartu; Goiz-larraxoria dantzut.

OBERON'ek.—Orrazkero, ene erregeno, ixil-gotilun.

Goazen gu gau-ilunbe-yarrai
Goazen gu gau-itzalen yarrai ilun:
Borobilari laster bira guk daikeogu
Ilargi galduek baño lasterrago beogu.

TITANE'k.—Tira, ene yaun; eta guk igesi ala Esan niri zelan yazoa dan bart ni emen lotan egon izan nazan Ilkorrokin batera lurrean etzana. Alde dagie).

(Adar-ots barruan)

TESEU, IPOLITE, EGEU, eta Yarraigokoak aurrera.

TESEU'k.—Boa zuotarik bat basazainaren bila: --eta izan be, gure ezkontza-arauak bete doguz; eta eguna asparrri dogunazkero, nire txakurren ausien eresia entzungen dau; eguzki-sarrerako ibarrean askatu txakurrak; oa; oa arin gero, basazain-billa.-- Gu, erregeno lirain, gu biok mendi-tontorrera igongo gara, ta andik entzun txakur-ausien eta erantzunen eresi nastua.

IPOLITE'k.—Bein Erakel eta Kadma'kin nintzan ni, aik Kerete'ko basoan artzari Esparte-txakurrak ezarri entsoezanean: eguño eztot entzun izan nik alango txakur-ausi entzungaririk; eta izan be, zugaztuez gainera, ortzi, iturri, barano osoa zarata bat zan, alkari erantzuka: eguño eztot entzun izan alango ereskilde-ez ereskidetsurik, alango ostots ezirik.

TESU'k.—Esparte'tikoak dira, nire zakurrak, ezpan-darioak, gorritzak; eta euren belarritzarrakaz inarreagaz lez garbitzen dabe goxeko ifiontza; zango-makurrak dira, ta Tesali'ko zezanak besteko idun-narru-moltsok dabe dingilizka; eizeari yarraitzen astiroak, baño euren ausiak arran-otsak dirudie, bata bestearen urren. Ez Kerete'n, ez Tesali'n adarreke eztau emon arein ausiak baño ots gozoago-eresitsuagorik: zeuk ebatzi entzun dagizunean.-- Baña, ixil, ze ur-neska ete doguz onako oneik?

EGEU'k.—Ene yaun, nire alaba da emen lotan dagon au eta beste au Lisander; beste au Dimitir; eta beste au Elene, Nedar zananen Elene; zer dakit nik oneik zegaitik dagozan emen batera?

TESEU'k.—Oneik Orril-len-egitekoak egiteko yaqi dira, urrean, goxetik; eta, gure asmoaren yakitun, guri eder egitearren etorri dira ona gure ya onetan, Baña esazu, Egeu,

ez ete da au Erme'k bere erabagiaren barri emon bear eutzun eguna berbera?

EGEU'k.—Bai, alantxe da, ene yaun.

TESEU'k.—Oa ta esaiak eiztariei euren adar-otsez iratzarri dagiezala.

(Adar-otsak eta oiok barruan. DIMITIR, LISANDER, ERME, ta ELENE atzarri ta yaqi egiten dira)

TESEU'k.—Egun on, adiskideok. Balendin deun-yaqak (13) yoanak dira; basa-txoriok orain asten ete yakuz bikotzen?

LISANDER'ek.—Asketsi, ene yaun.

(Bera ta enparauak belaunbikotu egiten yakoz TESEU'ri).

TESEU'k.—Zutundu guztiok, arren, zutundu. Bakyakiat nik zuok biok alkarren arerio zariena; zelan arraio yazo da bakuntza maitagarri au, gorrotoak eta bekaizkeriak aikarreganako bildurra galduta alkarren aldamenean lo egiteko?

LISANDER'ek.—Ene yaun, zorabiatu erantzungo dautzut, erdi-atzarrik, erdi-lotan; baña zin dagitzut, bein-beinean ezin esan dagikedala zelan etorri nazan ona; baña nire ustez, --egi utsa esan gura dautzut-eta,-- nire ustez, onan izan da--. Ni Erme'kin etorri naz ona; gure asmoa Azenai'tik alde egitea izan da, ta Azenai'ko legek agintzen eztauen tokira yotea.

EGEU'k.—Asko da, asko da, ene yaun; asko yatsu orrako ori; legearen eske nagotzu ni; datorrela legea orren buruaren ganera. Dimitir, orreik ixil-muxilka alde egin gura yoen, eta olan gu biok azpiratu: iri emaztea ta niri nire ederretsia ostuta, nire alabea itzako izango zalako nire ederretsia.

DIMITIR'ek.—Ene yaun, Elene lirainak emon eustan orrein igesiaren barri, baso onetara etorteko euren asmoaren barri; eta ni asarre gorritan ona yarrai nintxaken, eta Elene be nire leiaz onaxe etorri zan nire yarra. Baña, ene yaun on, al ezezagunen baten bidez, nik eztaکیدan alen baten bidez, Erme'ganako nire maitasuna edurra urtzen dan legetxe urtu da; eta orain maitasun ori umearoan kutun izandako yostalluen antzeko iruditzen yat; Elene da nire begien pozkarri bakarra. Eskontzeko itza ari emona nintzan ni Erme ikusi baño len; baña gexoaren antzera, nik yaki orri iguin artu neuntsan; baña osasuneratu nazanean, nire ago-sapaia be osatu da, ta orain yaki ori gura dot, maite dot, eta noz yango luze eretxita nago, ta beti-beti zintzo izango naiako.

TESEU'k.—Maitale lirainok, zori onez alkar-ganatu zarie; arazo onetaz geroago entzungo dogu areago. Egeu, zure gurariaren ganetik yauzi egingo dot; eta izan be, laster geukin batera yauretzean bikondeok beti-betiko alkarri lotuta geldituko dira. Eta, eguerdi-aurrearen atal ona dagoneko yoana danazkero, gure eizea beste aldirako itxiko dogu.-- Goazen Azenai'ra iru ta iru, yai arrandikoa egin bear dogu ta.-- Erdi, Ipolite.

(Alde TESEU, IPOLITE, EGFU ta Yarraigo-koak).

DIMITIR'ek.—Zerok txiki ta zeindu-ezin dirudie, odei-artean ostonduten diran menditontor garratzak legetxe.

ERME'k.—Yazook begi erdibituz dakustazala dirudit, begi erdibituz zer baten ordez bi ikusten dira-ta.

ELENE'k.—Neuri be orixe dirudit; eta nik Dimitir pitxi legetxe idoro dot. Neure ta ez neure.

DIMITIR'ek.—Nire ustez, gu oraindik lotan gaqoz, amesetan.-- Ez ete dozue uste dukea emen izan dala ta yarraitzeko agindu dauskula?

ERME'k.—Bai, eta nire aita be bai.

ELENE'k.—Eta Ipolite be bai.

LISANDER'ek.—Eta yauretsera yarraitzeko agindu dausku.

DIMITIR'ek.—Ba, orrazkero, atzarrik gaqoz; goazen aren yarra; eta bide batez eralqi dagiguzan gure amesak. (Alde dagie).

Aik yoan ala, ONDAR atzarten da.

ONDAR'ek.—Nitzako itz-allea datorrenean, dei egin niri ta nik erantzungo dot; urrengo nire itz-allea au da: "Pirama lerdlen-lerden". --Eee! eee!--Kepa Irasagar! Txistu, auspoadabatza! Mustur, estañugin! Goseakil! Ene Yaungoikoa! Emendik ixilik yoanda, ni emen lotan itxi nabe! Ikuskizun bakanik izan dot orraitño. Ames egin dot, --ifondiko amesa, gero--, Elitzateke asto txirikik nik izan dodan amesa zer izan dan esaten ortik zear yango litzatekean gizona. Uste izan dot, --eztago gizonik nik ze ames izan

(13) Balendin deunaren eguna Zezeilaren 14'ganean da. Ingelanda'n egun ori zoroeguntzat artzen dabe guk Lotazillaren 28'ganeke Ume Errugeen eguna legetxe, ta egun orretan maiteminduak alkarrerri idazki naiz beste maitasun-agirien bat bidaltzen dautse. Egun ori, beraz, maiteminduen a be ba-da.

dedan etalgiko leukenik-, zera nintzala uste izan dot, eta zera nebala uste izan dot.. Baña ergel utsa da nik nebana esaten azartuko litzateken gizona. Gizonen begik eztau entzun izan, gizonen belarririk eztau ikusi izan; gizonaren eskuk ezin txas-tatu legike, ezta miñek iruditut, ezta biotzek azaldu be zer izan dan nire amesa. Kepa

Irasagar'gana yoko dot, nire ames onetzaz abestuteko olerki barregarrien bat ak idatziz dagian; olerki orrek buru ta izentzat "Ondar'en Amesa" eroango dau, ondarririk izango eztauelako; eta neuk abestuko dot antzerkiaren azkenean, dukearen aurrean: barregarriago egiteko, ba-leiteke Tisbe il daitenean abestutea. (Alde dagi).

II AGERLEKU.--IRASAGAR'eneko gela.

IRASAGAR, TXISTU, MUSTUR, eta GOSEAKIL aurrera.

IRASAGAR'ek.—Inor bidali dozue Ondar'enera ala? Eldu ete da berenera?

GOSEAKIL'ek.—Ezta aren barririk. A beste mundukoak nonbaitera eroan dabe, urrean.

TXISTU'k.—A ezpa'dator, gure antzerkia lorrinduta dago; ezin yo aurrera, bai ala?

IRASAGAR'ek.—Ezetara be ezin; Azenai osoan eztago Pirama'na egingo leukenik aez besterik.

TXISTU'k.—Ez; Azenai'n ogibidetzat esku-lana daben gizonen artean eztago buruan ak beste argi dauenik.

IRASAGAR'ek.—Bai, ori olan da; ta lagunik onena be bera yatzu; eta abots ezti be eztozu a lango "galantik".

TXISTU'k.—A lango gizonik esan bear dozu: "galant", ut, ut! usain txarreko itza yatzu.

ALASOKO aurrera.

ALASOKO'k.—Yaunak, dukea ba-dator yaurtetetik; eta ganera, bi edo iru yaun eta andera be ezkondu dira: gure egitekoa egin izan al ba'gendu, gu dagoneko gengoan aberasturik.

TXISTU'k.—Ondar arroputz eztiarena! Onan ak bere bizi osorako eguneko erlaina galdu dau; gitxienez eguneko erlaina iritxiko eban; Pirama'na egitearren dukeak ari eguneko erlaina ez emotekotan, ni eskegi nagiela; ondo irabazita eukiko leukean euki

be, gero: Pirama'nagaitik eguneko erlaina, edo ezebez.

ONDAR aurrera.

ONDAR'ek.—Non dira mutilok? Non dira mutil adoretsuok?

IRASAGAR'ek.—Kaixo, Ondar! --Egunaren ederra! Ordu onen zori oneko!

ONDAR'ek.—Yaunak, ni zer arrigarriak esateko nago; baña ez itandu zertzuk dirianik, gero: eta izan be, nik esan ba'dagitzedaz, ni enaz Azenai'tar yatorrik. Nik dandana eralgiko dautzuet yazo dan legetxe.

IRASAGAR'ek.—Esaiguk, Ondar ezti orrek.

ONDAR'ek.—Nik neuk itzik bez. Nik esango dautzuedan gutzia dukeak apaldu dauela izango da. Yantzi zaiteze al bait arinen: ondo lotu zuon bizarrak; galartzu barriak ezarri zuon oski arinai; bereala batu yauregian; gizon bakotxak bere egitekoa buruz ondo ikasi dagiala; eta izan be, dana itz gitxitan esateko, gure antzerkia da begikoena. Dana dala, Tisbi'n soñekoak garbi ta orratzetik arakoak izan daitezala; eta leoiarena egingo dauenak eztagizala moztu bere atzazalak, leoiaren erpeena egiteko dira-ta. Eta, antzezla maiteok, ez yan kipularik eta berakatzik, arnasa andurrik ezto-gu egotzi bear-eta; eta ni baitzean nago antzerkia gozo dala esaten entzungo dautsegula. Itzik asko da: alde! goazen; alde! (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.--AZENAI. TESEU'n yauregiko areto.

TESEU, IPOLITE, PILOSTARTA, Yaunak eta Yarraigokoak.

IPOLITE'k.—Inondiko da, Teseu, maitaleok diñoena.

TESEU'k.—Egia izateko inondikoegi. Ni enoatzu olango ipuin zarririk eta iratxo-uskeririk sinisten. Maitaleak eta burutik eginak dau-

tzuez olango garaun bero-goriak. Olango irudimen bizi-irudikorrek, adimenak inoz aitu dagiken baño geiago dakusena. Irudimen utsa yatzuz: Burutik eginak, maitaleak eta olerkariak irudimen utsa yatzuz: bata, sulezeak artu ala baño txerren geiago ikusten dau; orrako ori burutik egin yatzuz:

maitaleak, burutikoaren antz antzera, Ele-
ne'n edertasuna dakus (14) Aigito'tar bal-
tzaren arpegian: olerkariaren begiak, buru
bero-goriak eraginda, ortzitik lurra, lurretik
ortzia begiratzen dau bilin-bolaka, eta iru-
dimenak gauza ezezagunen irudiaz soin
bana emon ala, olerkariaren idazkortzak
euren antza emonda, ezerez utsari bere to-
kia ta izena ezarten dautsaz. Irudimen be-
ro-goriak olangoxe marroak dauz, eta pozik
somatu al izanazkero, poz ori zek naiz nok
dakarren be aituko dautzu; esaterako, ga-
baz bildurrik izanazkero, ez ete da txara-
kea errez artzen artzat?

IPOLITE'k.—Baña osoan eralgitako igaroko
gabeko ipuin orrek, eta orrein buru guztiak
olan batera aldatu izate orrek irudimen-
aren irudiak baño zerbait geiago diragar,
eta orrako orrek ori baño mami geiago dau;
baña, dana dala, orrako zer ori inondiko
ta arrigarri da.

LISANDER, DIMITIR, ERME, ta ELENE
aurrera.

TESEU'k.—Emen datorkuz maitaleak, pozik eta
atseginez.— Poztu, adiskide begikook! Po-
za ta maitasunaren egun argiak bediz
zuen biotzen lagun!

LISANDER'ek.—Gurea baño poz andiagorik
izango al dozu zeuk zure yoa-eterrietan,
zure maian, eta zure oean!

TESEU'k.—Erdi orain; ze kokomarro ta yan-
tza izango dogu iru orduko asti luze au
gure apari ta oerako bitartean emoteko?
Non dogu gure yolas-eratzaldea? Ze yolas
zaratatsu dogu gertaurik? Ez ete dago an-
tzerkirik, ordu luze goaikaarri bat arintze-
ko? Dei egin Pilostarta'ri.

PILOSTARTA'k.—Emen nozu, Teseu altsu.

TESEU'k.—Esaik, ze asti-emongarri dok arrats
onetarako? Ze kokomarro? Ze eresi? Zelan
egingo yautsaguk marro asti geldoari, poz-
karririk ezpa'yoagu?

PILOSTARTA'k.—Gerturik dot zenbat yolas
gerturik dagozan diñon izen-erreskadea;
zeuk, nagusi orrek, zeuk esan zeintzuk iku-
si gura dozuan lenen. (Ingi damotso esku-
ra).

TESEU'k.—(Irakurri dirakur) Zaldi-gizonakingo
Gudua, Azenai'tar gazte irenduak, arpak
lagunduta abestuteko. Guk etxoagu gura
olangorik; orrako ori eraigi yautsat nik nire
maiteari, nire senide Erakel'en aintzarako.

Baka'n mozkorren iskanbillea,
Euren asarre gorrian Taraki'ko abeslaria
zati-zati egiten dabela.

Orrako ori aspaldi asmaua dok, eta ori ni
azkenengoz Zebai'tik garaile etorri nintza-
nean erakutsia dok.

Irutan iru Musak, gosez il-barri dan ya-
kituariari illetan.

Orrako ori ziri-lana, ziplada-agiria dok, zo-
rrotza ta zipladatsua; eta ezlok baje ego-
ki eztegu-yaietarako.

PIRAMA gazte ta bere maite TISBE'n
agerkaldi labor-aspergarria; antzerki era-
gikor-eragikorra.

Txitxari ta odoltsu! aspergarri ta labor!
Zera, lei otza ta inondiko edur arrigarri.
Zelan alkartuko alkar yoka dabiltzan ze-
rok?

PILOSTARTA'k. Nik ezagun dot, yaun, guzti-
ra be amar bat itz baño eztauzan antzerkia,
ta orrako ori nik dazaudanik eta antzerki-
rik laburrena yatu: baña amar itzegaz be
luzeegi da ta orrek egiten dau aspergarri:
eta izan be, antzerki osoan itz bat bera be
ezta egoki; ezta antzezlari egokirik be;
eta gordina, ene yaun yator, ba-da izan,
gero, izan be, antzerki orretan Pirama'k
bere burua ilten dau-ta; eta autor-bearrean
nozu, gertatzen ikusi nebanean begiak ne-
garrez bele eustazala; baña, orraitioño, go-
gotiko barrek eztautsoz atera inori aik ba-
ño negar gozoagorik.

TESEU'k.—Nortzuk dozak antzerki ori egiteko
diranak?

PILOSTARTA'k.—Emen Azenai'n lan egiten
daben gizon esku-latzak, orain arte buru-
lanetan astirik galduta eztabenak; eta orain,
euren oroimen-adimen yaioparriai lan eta
lan eragin dautse orrako antzerki ori zu-
re ezteguetan antzeztuteko.

TESEU'k.—Antzerki ori ikusi egin gura yoa-
gu.

PILOSTARTA'k.—Ez, ene yaun yator, ori ez-
ta zutzakogarri; nik ikusita daukat, eta
utsa da, utsa baño gitxiago, euren asmo
ona yolasbidetzat artu ezpa'dagizu; ori bai,
mutilok eginakal eta lerrenak egin dabez
zure ederragaitik.

TESEU'k. Antzerki ori ikusi ta entzun gura
yoat; eta izan be, ezer be ezin egon leite-

(14) Elene au ezta antzerki onetako Dimitir
maite dauen neskea, Elade'tarrak beragaitik
Troia'tarrai amar urteko gudua egin eutsen
Menela Argos'tarraren emazte liraina baño.
Omer'ek "Argeie Elene" eresten dautsa apa-
tzen dauen bakotxean. Elene au Alesander
Troia'tarrak ostu eutsan Menela'ri. Ikus ILIAS'
ena III.

kek txarto, izurgetasunak, zalotasunak eta egin-bearrak eragina izanazkero. Oa, ta ekarri egizak ona barrura; anderok, yezari zuok zeun lekuetan. (PILOSTARTA'k alde).

IPOLITE'k.—Nik eztoz ikusi gura zori txar geiegirik, ezta egin-bearrik be alperrik galduta. TESEU'k.—Ba! ene maite ezti ori, eztozu ikusiko olangorik!

IPOLITE'k.—Pilostarta'k diñonez, orreik ez dira gai arlo onetan ezer onik egiteko.

TESEU'k.—Ainbat eta obe, guk utsagaitik eskerrak emongo dautseguz-ta. Gure yolasa orrein utsak aintzakotzat artzea izango da; eta oiseintza txiroak ezin dauena, adei yatorrak alegin eta gogo ontzat artzen dau, ez berez irabazi dauentzat. Ni eltzen nazan lekuetan, nire bendeko andikiak aurreztiik gertau ta txukundutako itzaldi arranditsuz artzoko asmotan egon izan dira; eta bein baño geiagotan ikusi izan dodaz ikaraz eta zurbil, esakunearen erdian geldiuoneak egiten, bildurrak eraginda abotsak pot egiten, eta, azkenean, itzik egin-ezinik ixiltzen, eta niri ondo etorririk emonezinik. Sinetsi egidazu, maite, ixiltze ori nik ondo etorritzat artzen neban; oseiintza lotsoretik eta bilurtitlik nik min itz-ontzitik besteko biotz ona igarri izan dot, min itz-dario ta azarritik beste bai beintzat. Orrazkero, maite, orrazkero ixiltasun zintzo ta biotzetikoa dau maiteen nire biotzak.

PILOSTARTA aurrera.

PILOSTARTA'k.—Zure ederretsiaz, yaun, sarrera-itzaldia gerturik dago.

TESEU'k.—Datorrela aurrera. (Adar-ots).

SARRERA-ITZALDI aurrera.

SARRERA-ITZ'k.—“Okerrik ba'dagigu, biotz onez izango da. Zui minik egitera barik, asmorik onenaz gatozala yakin dagizuen. Gu gure trebetasun apainkeri baqekoa erakusten gatoz, eta garbi esanda au da gure elburua. Yakizue guk aurreztiik dakigula zuok gura aña emoteko gai ezkareala; gure benetako asmao dana zuon ederragaitik egitea da; Gu ezkagoz emen zuok ona etorriaz damurik izan dagizuen. Antzezlariak gerturik dagoz. Eurak agertu ala ikusiko dozue emen ikusteko zarien guztia”.

TESEU'k.—Urli onek kulatzak noz eta non erabili geiegirik eztaiki.

LISANDER'ek.—Orrek bere sarrera-itzaldia zaldizko uxok irakurriko leuken legetxe irakurri dau; eztaki non gelditurik. Irakaspide

ederra, yaun; ezta asko itz egitea, egia esatea baño.

IPOLITE'k.—Orrek bere sarrera-itzaldia mutikoak txistua yoten dauen legetxe esan dau: otsak atera bai, baño otsak ereskilde ez dirala.

TESEU'k.—Orren itzaldia kate kirimilduaren antzeko izan da; ezer bez ausita, baño naste-borraste utsa. Nor dator urren?

PIRAMA ta TISBE, ORMA, IRETARGI, ta LEOI aurrera, erakusketa ixilez lez.

SARRERA-ITZ'k.—Yaun yatorrok, ba-leiteke erakusketa au dala-ta zuok arritzea; baño ariturik yarra, egiak gauzak argitu arte. Gizon au Pirama da, nor dan yakin gura ba'dozue; andera lerdan-lirain au Tisbi da, noski. Ganean karea ta espaloia dauzan gizon onek Ormearena egiten dau, maitaleok alkarregandik banandu ebazan Orma zakarrarena; maitale zori txarrekoak orma orren birrintzea zear alkarri txukuputkuka itz egiten eutsen, eta orretaz eztaiteia inor arritu. Argia, txakurra ta arantza-sortea daroazan gizon onek Iretargiarena egiten dau. Eta izan be, maitaleok ez eben uste ezer zontarrik egiten ebenik iretargitan Nina'n ilobian batzarra egin eta an alkarri euren maitasuna erakutsiaz, zuok ori be yakin gura ba'dozue. Pizti uletsu, Leoi arroaren izena daroana, au izan zan Tisbi uste-tsuari, gabaz arako toktira lenen eldu zanari, bildurrez igesi eragin eutsone, edo zeztazago esateko, Tisbi bildur-ikaraturik itxi ebana; eta igesi ala, buru-estalgia lurrera yalgi yakon; eta estalgi ori Leoiak bere mustur odolduaz odol-orbandu egin eban; bertatik dator Pirama, gazte ezti-maitagarri-garratza, ta bere Tisbi zintzoaren buru-estalgia ilik idorotzen dau; orrazkero, ezpata-agoz, ezpata-ago odoltsu zori txarrekoz adoretzu zulatzen dau asarre gorritz dirikian bere bularra; eta Tisbi'k, masusta-zugatzaren azpitik beranduegi urtenda, Pirama'n expatea aren bularetik atera ta arexegaz bere burua ilten dau. Enpaduekazko, Leoiak, Iretargiak, Ormeak eta maitale biak eurak itz egin dagiela zabal zabal emen diran artean.

(Sarrera-itzaldiak, TISBE'k. LEOIAK, eta IRETARGIAK alde dagie).

TESEU'k.—Leoia be itz egiteko ete dogu?

DIMITIR'ek.—Elitzateke arritzekorik, ene yaun; leoiak egin-ezinik ezta, orrenbeste astok eginazkero.

ORMEAK.—Antzerkitarte onetantxe yazoten da, nik, Mustur deretxatan onek, ormearena egin bear dodala; eta nik arena dagidan ormeak arrakal, itzekarro, edo birrintzea dauela uste bear dozue zuok, Pirama ta Tisbi maiteak alkarri olango irristua zear sarritan ixilka itz egiten eutsen-eta. Espaloi latz onek eta arri onek ni arako ormea nazala diragarre: egia ori da; eta ezkerretik eskoatara doan arrakal au da maitalle bildurtiak ori zear alkarri txutxu-putxuka itz egin bear dauksena.

TESEU'k.—Karek eta ulek orrako orrek baño obeto itz egin ete legikie?

DIMITIR'ek.—Ori baño orma burutsuagori ez-tatsat eguño itz egiten entzun, ene yaun.

TESEU'k.—Orma ondora Pirama dator: ix!

PIRAMA aurrera.

PIRAMA'k.—Gau astegun-arpegidun ori! Gau orren baltz-ilun ori! Egun eztanean beti azan gau ori! ene, ene, ene! Bildur naz Tisbi bere aginduaz aztu egin dala! —Eta i, orma ori, ezli ori, orma maitagarri ori, nire kutunaren aitaren eta nire aitaren lurren bitartean agon ori; ik, orma orrek, orma ez-ti-maitagarri orrek erakutsi egidak ire birrintzea, ortik zear nik nire begiz kirika egiteko. (ORMA'k bere atzak gora eragiten dauz).

Eskerrik asko, orma txeratsu orri: Tzeu lagun bekik orregaitik! Baña zer dakust? Ez-takust nik Tisbi'rik. Zori txarreko orma, nik ire bitartea zear zori onik etxoat ikusten-eta: biraoa ire arrientzat, ziria sartu daustakalako!

TESEU'k.—Nire ustez, sentzunik izatekotan, orma orrek berorrek be biraoz erantzun bear leuskio.

PIRAMA'k.—Ez, yaun, benetan, eleuke egin bear olangorik. "Ziria sartu daustakalako" dira Tisbi'ntzako alla-itzak: a da orain aurrera etorteko, eta nik orma-irristua zear kirika egin bear dauksat. Zeuk ikusiko dozu zelan yazoko dan bere tertziokan nik esan dautzudanez.—An dator Tisbi.

TISBE aurrera.

TISBE'k.—Orma ori! ik sarri-sarritan entzun izan dozak nire negar-intzirriak, ni ta nire Pirama lerdena alkarregandik banantzen gozakalako: nire kerexa-epzpanak amaika bidar mun egin izan yautsek ire arriai: ire arri karez eta ulez yosiai.

PIRAMA'k.—Otsik ba-dakust nik; orain orma-birrintzara yoango naz, nire Tisbi'n arpegia entzun al dodanentz ikusteko. Tisbi!

TISBE'k.—Ene maitea! zu zara urrean, nire maitea.

PIRAMA'k.—Zure usteak uste, ni zure maitearen ederra naz: eta Limander (15) lez ni oraindik zintzo naiztu.

TISBE'k.—Bai ni be, Elene legetxe, ni alan-bearrak il arteño. Kepal Porkere'ntzako legetxe, ni zutzako.

PIRAMA'k.—Kepal etzan izan onen zintzo Porkere'ntzako.

TISBE'k.—Ni zintzo naiztu, Kepal Porkere'ri legetxe.

PIRAMA'k.—Ene! mun egidazu orma zirtzil onen zuloa zear.

TISBE'k.—Orma-zuloari mun dagiot, baña zure epanai ezin.

PIRAMA'k.—Gurozu Nini'n ilobian nikin trikitz egin bertatik?

TISBE'k.—Bizi, naiz il, an nozu berpetatik.

ORMA'k.—Orma, nik egin yoat nire egitekoa; eta eginda dagonazkero, ormea ba-doa emendik.

(ORMA, PIRAMA, ta TISBE'k alde)

TESEU'k.—Orain lurreratu da auzoko bien arteko ormea.

DIMITIR'ek.—Eztago beste biderik egon be, yaun, ormak inok igartzeka bear eztana entzutera egiten diranean.

IPOLITE'k.—Au da nik eguño entzun izan dodan zaborrarik burubakoena.

TESEU'k.—Antzerkirik onenak be asmakeri ta itzal utsak yatauz; eta txarrenak ez dira txarrago, irudimenez utsak betezkero.

IPOLITE'k.—Orrazkero, zure irudimenak egin bear dau lan, ez eurenak.

TESEU'k.—Eurek euren buruetaz iruditzen dabena baño txarragorik iruditu ezpa'dagigu, antzezlari bikaintzat etsi dagikeguz. Emen dotoz pizti yator bi, iretargia ta leoia.

LEOIA ta IRETARGIA aurrera.

LEOIAK.—Lurrean narraz doan sagurik txikerrinari, mamu bailitz, bildur dauksazuen anderok, ba-leiteke zuok emen bildur-ikaritzea, leoi zakar-azkarrak orroarik itzalena dagianean: orrazkero, yakizue ni, Alasoko nazalako au, erredizgin au, enazala leoirik, ezta leoi emerik be: eta izan be, toki onetara leoiak lez burruka egiteko ba'nentor, nire biziarena eginda legoke.

TESEU'k.—Leoi txeratsua auxe benetan, eta biotz onekoa.

(15) Aketook ezin dabe izenik artez esan. Olan, Lander ordezkari Limander, Tisbe'n ordezkari Tisbi, Nina'n ordezkari Mini esaten dabe.

DIMITIR'ek.—Piztia berbera piztirea egiten, ene yaun; eguño eztoz ikusi piztiagorik.

LISANDER'ek.—Dauen adorea rentzako, azeriegi da leoi au.

TESEU'k.—Bai izan be; eta bere bereizpenez (zurtasunez) antzarregi.

DIMITIR'ek.—Ez olangorik, ene yaun; orren adorea orren bereizpena ezin eroan dau-ta; azeriak ostera, eroaten dau bere antzarra.

TESEU'k.—Orren bereizpenak ezin eroan dau, urrean, bere adorea; eta izan be, antzarrek eztao eroaten azeririk. Dana dala; ibxi dagigun ori bere bereizpenaz, eta iretargiari so dagiogun.

IRETARGI'k.—Argi onek iretargi adardunarena dagi.

DIMITIR'ek.—Orrek berorren buruan bear leukez adarrak.

TESEU'k.—Eztoz ori ilgorarik, eta orren adarrak ikusi-ezinak dira iretargi-taloaren barruan.

IRETARGI'k.—Argi onek iretargi adardunarena dagi; neronek dagit iretargiko gizonarena.

TESEU'k.—Au dok guztien artean okerrik andiena: gizonak argi-ontziaren barruan egon bear laieuk. Ostean, zelan izateko iretargiko gizona?

DIMITIR'ek.—Argi-ontziaren barrura sartzen ezta azartzen, dakusazunez, argia azken-garretan dago-ta.

IPOLITE'k.—Iretargi onek gogait eraginda nago: aldatuko al litz!

TESEU'k.—Zurtasunak argi gitxi egiten dau-tsanazkero, ilberan sartu dala dirudi: baña orraitioño be, txeratsu izatearren, epe artu ta etxon egin bear dogu.

LISANDER'ek.—Yo aurrera, Iretargi.

IRETARGI'k.—Nik esan bear dautzuedan zer bakarra argiak iretargiarena egiten daue-la da: ni, iretargiko gizona; arantza-txort-a au, nire egur-sendorra; eta txakurra, nire txakurra.

DIMITIR'ek.—Ba! orrako zer guztiak argi-ontzian egon bear laieukiek, guztiak dozak iretargikoak-eta. Baña, ixi! emen datorrku Tisbe.

TISBE aurrera.

TISBE'k.—Au da Nini zanaren ilobia. Non da nire maitea?

LEOIAK.—Oooo! (LEIOA'k orroa dagi.—TISBE'k igesi).

DIMITIR'ek.—Orroa itzelez ederto eginda, leoi.

TESEU'k.—Txairo igesi don, Tisbe.

IPOLITE'k.—Itzalezkorik itzalezkoen argi egin dozu, iretargi. Benetan, iretargiak inongo-rik eta inozkorik edertoen argi dagi.

TESEU'k.—Ederto egin dok ire billaketea, leoi. (Leoiak Tisbe'n buru-estalkia urratuta alde dagi).

DIMITIR'ek.—Eta Pirama dator orain.

LISANDER'ek.—Eta leoi ondatu egiten da.

PIRAMA aurrera.

PIRAMA'k.—Iretargi ezli ori, eskerrik asko iri ire eguzki-izpiakaitik; eskerrik asko, iretargi, orren bizi argi egiten dokalako; eta izan be, ire izpi maitagarri, urrezko, didizkorrai eskerrik, zintzorik zintzoena dan Tisbi'n arpegia ikusteko ustea yoat.

Baña geldi; --au da irriaren irri!

Baña so, --zaldunaren errukarri.

Emen dogun zori txarrarena!

Begiok, zer dakusazuena?

Izan ete leiteke txarrena?

Ata bakan ori! maiteena!

Zure buruko zapi ederra.

Ene! dana odolez lupetza?

Erdu, apentzalle asarreak!

Aztiok! erdu onano, erdu;

Ebagi dana, bai, oro ta neu;

Amaitu arin, gau eta egun!

TESEU'k.—Biotzaldi onek, eta adiskide maitearen eriotzeak, larri larri gizona gotilun yarriko leukie.

IPOLITE'k.—Benetan, gizon orri erruki dau-tsat.

PIRAMA'k.—Ene! izate ori, zegaitik egin dozu leoirik? Leoi zirtzil-zakar-dollorak nire maitea muskildu dau-ta; eta au da... ez, ez... au zan neskarik lirainena, txeratsuen, maitakorrena ta samur begiratzen ebana.

Erdu, negarrok, nastu nagizue;

Ator, bai, ezpata, zauritu zure

Agoz Pirama zalaren bularra;

Bai, ezker ezkerreko aldeik

Biotz-taupaden alderdiük;--

Onan, onan nil ni, onan, onan.

Ilk nago orain,

Orain yoanik nago;

Ni-gogoa goian dago;

Min, gal ire argia!

Illargi, ar igesia!

Il orain, il, begia.

(Il egiten da.—IRETARGI'k alde).

DIMITIR'ek.—(Emen Dimitir'ek diñoa itz-yoko utza da-ta, ez euzkerara, ez beste izkuntzetara, ezin aldatu leiteke. Bego, ba).

LISANDER'ek.—Ori orain ezta ezer, ilik dago-ta.

TESEU'k.—Osagille-bidez, ori oraindik osatuezinik elegoke, ta asto ederra genduke.

IPOLITE'k.—Zelan denganiño alde egin izan dau iretargiak Tisbe'k, atzera etorrita, bere maitea idoro baño len?

TESEU'k.—Izarren argiz idoroko dau.—Emen dator Tisbe etorri be; ta orren biotzaldiaz amaitzen da antzerkia.

TISBE aurrera.

IPOLITE'k. Olango Pirama'gaitik Tisbe'k biotzaldi luzerik eleukela izan bear uste dot nik: bere egitekoa laburra izango dala deretxat.

DIMITIR'ek.—Bildur bat izango da asko, astakianari eraqiteko, Pirama'na ala Tisbe'na dagiana dagon obeto yakiteko.

LISANDER'ek.—Dagoneko ikusi dau Tisbe'k Pirama bere begi ezti.

DIMITIR'ek.—Eta onan dagi negar-intziri, "videlicet".

TISBE'k.—Lotan, ene maite ori?

ilik, ene uso ori?

Pirama, yagi, bai, yagi,

Itz egin, itz egin, Izka? izka?

Ilik? Ilobi eder-zurizke

Estali bear dauz zu-begiek.

Lili-betazalok,

Kerexazko sur au,

Udabarri-garazko masallok,

Yoanak dira, yoanak, danok:

Egin, egin negar, maitaleok!

Bere begik porru-musker ziran.

Erdu, Iru Aiztok,

Erdu, bai, nigana,

Esku esnea lain zuriakaz:

Odol egizuez

Sedazko ari au

Artaziz ebagi dozue-ta.

Min, ez egin itzik:

El, ezpata zintzo;

El, aizto, odoldu ni-bularra:

Agur, aiskideok:...

Onan doa Tisbi:

Agur, agur, betiko ludiri. (Il egiten da).

TESEU'k.—Iretargia ta leoia gelditu dira ila eortziteko.

DIMITIR'ek.—Bai, eta ormea be bai.

ONDAR'ek.—Ez, ez orixe; euren gurasoak banantzen ebazan ormea lurreratu da. Atsegingarri izango al yatzue azken-itzena ikustea, naiz gutariko lagun bien arteko Bergamo-yantzea ikustea.

TESEU'k.—Ez erantsi azken-itzik, arren; eta izan be, zuon antzerkiak ezta u olangoren bearrik. Ez zuritu zuon bururik, antzezlari guztiak il diranean inori errurik ezarrikoaren bildurrik eztago-ta. Benetan, antzerki au idatzi dauenak Pirama'na berak egin, eta bere burua Tisbe'n galtzerdi-lokarriz eskegi izan ba'leu, antzerki au bikain izan leitekean; dana dala, bikain da ta, gainera, ederto antzeztua. Baña betor zuon Bergamo-yantzea, ta dagola or zuon azkenitzaldia. (Yantza barregarri). Gaberdiaren burdinezko miñak amabiak yo dauz: —Maitaleok, oera guztiok; larri larri iratxo-aldi da. Biar goxean berandu lo egongo gara-la nik uste ,arrats onetan atzarrik beranduegi egon gara-ta. Antzerki baldar-baldar onek orduak bizkortu egin izan dauz.—Adiskide eztiok, oera.—Yaiok amabost egunean iraungo dabe, gaboroko yolas zaratatsu ta pozbide barriakaz (Alde dagie).

II AGERLEKU

OKER aurrera.

OKER'ek.—Orain leoi goseak orroaka dara-goio,

Eta otsoak iretargiari ausika bero:

Lugin unatuak lo-arantzaka

Lan gogorrez nekatu-nekatuta daragoion ar-tean.

Orain ilinti-mutxikinak argi dagie.

Mosollo oiolarriak, oio larriak eginaz,

Datzan zori txarrekoa ikarutzen dauela,

il-yantzian gomutea gogora eraginaz.

Gabeko garai onetan

Ilobiak, agoa zabalduta,

Gogo bana askatzen dabe

Elexa-bideetan aldarrai ibilteko:

Eta gutzako, Ekate iratxoaren

Burdi-aldamenetan arin egin, eta

Eguzkiari igesi ta ilunbearen yarrai

Liluraturik gabiltzan gu iratxoontzat

Orain da yolas-aldi; ez sarguk asaldauko

Etxe onetsi au; neuk latz aginduko:

Inarrez bidali nau bere aurretik

Autsak kentzeko atearen barru-aldetik.

OBERON eta TITANE aurrera, euren Yarraigoakin.

OBERON'ek.—Etxe oni su ez-ilgo-bai-ilgoak Begio argi, surtako morkolak; Maitagarri ta iratxo-gogo oro,

Yaazi arin, txoriak sasifik lez odol-bero:
Eta, niri yarraí, abestitxo au abestu
Ta egin yantzan oñai bizkor eraginaz.

TITANE'k.—Lenen, aldian batek abestu zelan
doan ikusteko,

Ots banari itz bana, ez aztu, ezarriozue ge-
ro,

Eskuz esku, iratxoai dagokien euren gatzá-
gaz,

Abestuko dogu, ta toki au gel gure ones-
penaz.

ABESTI ta YANTZA

OBERON'ek.—Orain, eguna argitu arte,

Etxe au zear iratxo bakoitza bebil,

Ezkonbarririk onenaren oera gu,

Guk bai a onetsiko, bai dogu:

Eta emen sortuko ondorengoak

Beti izango dira zori onekoak.

Ola, iru bikonde iru-irurak

Beti izango dira maitale zintzoak;

Eta izapidearen esku-utsik

Euren umeetan ez izango lekurik:

Ez orañen, lorratz, ez erbi-ezpanik

Ez yaiotzatiko beste lorratz agiririk,

Umerik mamu egiten dauenik ez ortik.

Euron seme-alaben soñetan tokirik.--

Basa-iñontz onetsi onegaz boá iratxo

Bana ate banatara ta yauregi onetako

Gelatxo bana bake ezitsuz onetsi:

Bego betiko galtzoretatik urrin urrin,

Eta yauregi-yabea betiko onetsirik.

Arin ibili, mutilak:

Azkar zuon zangoak:

Erdu ona egun-sentian.

(OBERON, TITANE ta Yarraigokoak alde).

OKER'ek.—Gu itzalok gogoko izan ezpa'gaiá-
tzuez,

Gogoratu au, --ta dana zuzendu dautzугue--,

Amesetan egin dozuela zuon oe gozoetan

Ikuskizunok ikusi izan dozuezanean.

Eta gei me-uts onek mami geiagorik

Emon-ezinik, ames utsa zuoi emonik,

Yaunak, ez egin guri akar-asarrerik:

Asketsi bai, ta guk zuzenduko okerririk.

Eta ni Oker zindo zindo nazan lez,

Guk zori onik irabazi ez beste askok lez,

Suge-minaren aginkadetatik zirrist eiteko,

Gure buruak zuritukuz ointxe beti betiko:

Ostean, Oker'i guzurti deitu:

Orrazkero, gau on zuoi guztioi.

Adisbide ba'zare, ekazuez eskuak,

Eta Robin'ek zurituko bere burua. (Alde

dagi).

AMAIA

ITZ GITXI EZAGUN BATZUK

ALLA-ITZ.—Antzokian antzeztua egiten dabenerarik bakotzak bere ingi edo papelean berak esan-bearrekoa bakarrik ikasten dau buruz, eta noz zer esan naiz egin gogoratzeko, berak esan naiz egin bear dauenaren aurretik bere aurrekoak esan dauan azkenengo itzak eukiten dauz. Ara ba, aurrekoaren azkenengo itzai deritxegu ta or deritxe "alla-itzak".

ALTXOR.—Itz onek esan gura dauena zer aldintsu edo balio andiko da.

APEN.—Inok okerren bat egin ba' dautzu ta zuk beste okerrez erantzun oker egin dautzunari, zuk apena edo ordeazkoa emoten dautsazu.

ARTZI.—Bizkaya'n ogia yagi egiten dala; esnea galdu egiten dala esan daroagu; beste euskeldun batzuk ogia artzi egiten dala ta esnea artzi egin dala esan daroe. Esnari artziatzoteko legarra ezarten dautsagu; ogi-oreari "azkarri", "orrantz" edo Bizkaya'n euskel-gaiztoz esaten dogun "labadura".

ASTAKIN.—Zeren astuntasuna neurtzeko erabilten dogun zera, "Pixuak", gizona.

BESTAL.—Lateraz "Vestalis virgo". Bestalak Besta (Vesta) etxe-yainko aizunaren otseintzarako euren gurasoak, naiz yauparirik nagusienak izentauriko neskak ziran erromarren artean. Bestalok guztiz be aldiko sei izaten ziran, eta yainko orren otseintzan sei urteik amarrera bitartean sartzen ziran; otseintzeak, barriz, 30 urte irauten eban, bein otseintza orretan sartuazkero, gero yarei gelditzeko. Otseintzeak irauan artean neskok ez eban izan bear gizonekin aragizko ar-emonik, eta izatekotan, erriak bizirik lurpean sartzeko zori larrian yarten ziran. Euren egikizunik nagusia Bestaren su deuna bizirik eta itzaltzeka eukitea zan.

EORTZI.—Gorpua naiz beste zerbaiz lurpean sartu.

ERALE.—Norbaiten iltzalle.

ERLAIN.—Erreal biko zidarrezko txanpona.

ERESKIDE.—Ots bi naiz geyago, alkarren lagun ba'dira, ereskide dira.

ILOTZ.—Bizkaya'n "gorpu" esan daroaguna.

KULATZ.—Euskal-gaiztoz "puntu" esaten yakon zertxoa.

NIL.—Yoa aditzetik "noa" egiten dogun le-

getxe, il aditzetik nil (ilten naz) sortu dot olerkiaren neurriagaitik.

ZALDI-GIZON.—Erdi gizon, erdi zaldi dan izakia. Olango izakirik egon eztago inon, baña beñolako erriak olango mamuak be asmau ebezan, beste asko legetxe.

MORRIS YOKOA.—Yoko-ari au gure Euskal-Erria'n ezaguna danik eztaikit. Nik neuk beintzat eztoz inoz yokatu, ezta besterik yokatzen ikusi be. Yoko au yokatzeko egizuz iru lauko etz-bardin eta erdiunekide ta ebagi bakotxaren lau ertzak be ardi-erditik; ori egindakoan, irudi au lortu izango dozu:

* * *

Dakusazunez, irudi anetako lerroak alkar 24 lekutan ebaten dabe. Bein irudia lurrean aitzoz naiz zotzez egindakoan, lagun bik egiten dabe yoko au. Orretarako txirrintolatxo naiz arri kozkor batzuk, naiz beste edozertzuk bear dabez; bosna, bederatzina, naiz amabina txirrintola, ta olan bosnako, bederatzinako, naiz amabinako "morrís" izango dogu. Txakur txikiak eta txakur andiak aukeraz eukiazkero, eurak onenak. Nire lagunak, yokatzeko, txakur txikiak artu ba'dagiz, nik txakur andiak artuko dodaz, zeintzuk zeñenak diran yakiteko. Txirrintolok irudian zenbakiak agiri diran tokietan iminiko duguz, aldian bana. Lenen iru txirrintola erreskadan iminten dauzanak irabazten dau yoko. Esaterako, nik nire txirrintolak nire lagunak olangorik egin baño lenago, 1-2-3'an; 1-9-17'an; 9-10-11'an; 17-18-19'an; 3-11-19'an; 1-8-7'an; 8-16-24'an, naiz orretara iru yarraian imini ba'dagidaz, yoko irabazi dot. Orregaitik, zure laguna asi ba'dadi yokatzen eta ak bere lenengo txirrintolea l'ean imini ba'dagi, zuk zure lenengo 2'an, 9'an, naiz 8'an imini bear dozu, ak bere iru txirrintola lerro artezean yarraian imini eztagizan. Yokalarik bere txirrintolarik toki batetik bestera aldatu gura izanazkero, ezta eroan bear bestearen txirrintolearen ganea zear, orretarako eragozpen bako bide artu baño. Onegaz, geiagoko barik, yoko au zelan yokatu aituko dozula nik uste, Emen Argentina'n mutikoak "TA-TE-TI" deretxoan yoko "morrís"en antz-antzeko da.

IZTEGI - ERASKIN

Zori txarrez, euskaldunok ez dogu oraindiño euskel-iztegirik, erdel-euskera ta euskera-erdera-iztegirik izanarren. Emen doatsu, irakurla, euskel-iztegi txikitxo bat, idazti au errazago aitu dagizun. Berau be bein-beinerako baño ez da.

ADAKI, zugatz-adar, ez lodi-lodirik, ez me-merik.

AGAKA, izki edo letra-izendegi, eraz yarrita.

ALAKA, kexa, intziri, mingulin. "Idiak ala-bearrez, burdia ala" esakunea.

ALAKATU, kexau, zinkurin egin.

AGINIK (B-a), ia; "Il-aginik dago", "Iltear dago", ia ilik dago.

ALASOKO (B-Arratia), ez andi, ez txiki, ez asko ez gitxi; "bidenabar esan daroe Oñati'n. "Alasoko arto-urte da aurtengoa".

AIZTO, kutxilo, labain, laban.

ALEGI (Azkue), ipuin.

ALETZ (B-Zean), uskeri; "aletz utsa da ori".

ALTXOR (G.), ondasun yori, bikain.

ALLEGRO (B-Zean.), eztabaida; "beti dabil ori allegoan", beti dabil ori eztabaidaka.

AMALAUKO, amalau bertsoke olerki, auzoko izkuntzaz "soneto".

ANITZ, asko, amaika.

APEN, txarkeriri txarkeriz erantzutea.

APENDU, txarkeriri txarkeriz erantzun.

APERTURI (B-Zean), zerbait egiten zoli-zoli baño zoliago ibiltea; "Aperturi andia darabil orrek etxea garbitzen", esan daroagu Zeanuri'n.

ARAKIN (B, G, L), okela edo aragi egin eta saldu daroana. "Arakina, erhak behia, eta indak kornado baten biria" (Oih., Esak.).

AREAN (B-Zean), zerbait, norbaitzuk. Azkue'k bere iztegian, beste esan-guren artean itz oneri "bat be ez, ezer bere ez" esanazoten dautso, baño ez dago olangozik. "artorik artu doze aurten? Arean bai, baño zer andirik ez", artorik artu doze aurten? Zerbait bai, baño zer andirik ez. Gure "arean" eta Ingelandarren "some" bardintsu dira. "Ogirik arean ba-dogu=We have some bread".

ARERIA (Oñati), areriotasun, etsaitasun. "Arieriaz esan ba'leu lez".

ARATINIK, ATINIK (B.), agoz gora. "Aratinik ezin dot lorik egin nik", agoz gora ezin dot lorik egin nik.

ARETO, etreko leku nasai, etrekoak an egoteko ta arrotzak an artzeko.

ARREN, otoi, otoi. Arren egin=otoitz egin.

ARTZI, garraztu, legarrak artu, azkarriak artu. Oraindio ez da artzi gure ogia=oraindio ez da yagi gure ogia.

ASARRE Zeanuri), iztegiatako beste esangurez ganera, itz onek, Zeanuri'n beintzat, "andi" be esan gura dau. "Gizon asarre da ori"=gizon andi da ori. Asketsi, parkatu.

ASTAKIN, zerbaitek ze zama edo pixu dauen neurtzeko lanabasa; "pixuak" euskel-gaiztoz.

ASURI (Zeanuri), bildots, arkume.

ATOMAU (Zean.), ausartu, azartu.

ATALAS, ATALASE, alartze, ate-zubi, atepe.

ATXILO (Oñati), oratu yakona, atxikia, eldu yakona.

ATXILOTU (Oñati), oratu, goatu, atxiki, eskua ezarri.

ATZ, ezaugarri, ezaupide. Zer bigunen baten, esaterako lur bigunean gure esku, oin, naiz beste edozer sakatuz imini ba'daigu, an gelditzen da zer orren antza; antz ori yatsu atz. Antz ori oñarena izanazkero, oñatz deretxogu.

ATZARRI (Zean.), loak arturik egon danak loa itxi. Atzarri adi lotatik! Gogaldi txarra izaten dabe umeak atzarbarritan, eta lo-atxarria dabela esan daroagu.

ATZIPETU, marro egin, ziria sartu, ederra sartu.

AUSI (Zean.), Azkue zoliak bere iztegian itz onetzaz dakazan beste esangureez ganera, yana ausi edo erderazko "digerir" be esan gura dau itz onek. "Yana ausi bagarik egoan, urrean", diñoгу Zeanuri'n.

AZARRI, ausarta, adoretu.

AZPIL, andik yaten dogun ontzi; baita "oramai" be.

BABAZORRO (Zean.) esku-lan gogorrean da-

bilenari eskuetako narruan sortzen yakon urez beteriko narru-zorrotxo.

BAITEGI (Zean.), espetxe edo kartzela.

BAKALDUN, al guztiak beragan dauzan agintari; "errege", euskel-gaiztoz.

BAKALDUNO, bakaldun eme. Gogoratu arako "No ta To".

BASO BEREZI, baso itxi, ertsi.

BAZKARERA, inõk ezarrita, naiz norbere kitetik norbaitek darabilen yan-bide.

BAZKATU, yan.

BARDA (Zean), abar, zugatz-adar me.

BIITEGI, garai, aletegi, mandio.

BIAO (Bizkaia), bazkalondoko lo-aldi.

BILDERR (Zean.), zer ze-ze; ogi-bilder, autsbilder.

BIUSTURI (Zean.), urdail. "Biusturi'ko mina dau orrek".

BURESTUN, "koro" euskel-gaiztoz; "eres-tun" aren antzera sortua da itz barri au.

BURUNTZI (Azku), burestun.

DAGONIL (Uda-goien-il?), "abustua" euskel-gaiztoz.

DEUN, DONE, "santu" euskel-gaiztoz.

DEUNORO, domusantu.

DITERA (Axular), erderaz "dados" deretxoan yoko.

EDEN, sikilikitu, zital, "bereno", "pozoi".

EDESTI, yazokunen barri damoskun liburu edo idazti.

EGOLATX, EDOLATX (BN), gaiztoai oñak lotzeko beñola erabilten eben zera.

ELTXAR (Zean.), okela edo aragiari egiten yakozan arretariko. "Eltxarrak eginda dako okela au" esan daroagu, okelea arrak eginda ba'dago. Agirian dago bere sorkuna: eltxo (euli)-arr.

ENTZIN, ENTZINDU (B, zarr), zerbaitetik uste onik izan. "Hordiaqanik entzindu zeeqik arean" diño esakune zarrak=mozkorragandik ez izan ezetariko uste onik.

EORTZI (AN, L.), lurperatu, gorpuri lurra emon.

EPIKURTARR, Epikur'en aldeko, atseginzale, lizunkelbera.

ERA-MERA, zurikeri, "kortesi" (kortako esirik ez gero). Andikien artean olango zerik asko erabilten dira ta erabili izan dira.

ERAGO, ERAGON (B.), yardun, ari izan. Azkue ixilik dago onetan, nik dakidala beintzat, Arratia'n ERAGOIO edo ERAGOION darabilgu, ostantxean zelan sortzeko ERAGO'lik aditz-erok: daragoiot, daragoiok, daragoioqu, daragoiozu, daragoiozue, daragoioe, neragoion, ea?

ERAUZI (AN.), urratuz naiz indarrez zerbaiteri zerbait kendu.

ERESI, ots atsegingarri, "musika" euskel-gaiztoz.

ERESKIDE, alkarren lagun edo adiskide diran otez esaten da ereskide dirala.

ERESKIDETASUN, "armoni" dalakoa; otsak alkarren lagun diranean esaten dogu, ereskidetasunik ba-dagola esan daroagu.

ERDI, umea egin.

ERKIDE (Eri-ide?), zerbaitetan lagun edo kide; "guztien" be esan gura dau, zerbaiten guztiak euren esku edo eskuetatiko eri edo atzak sartu daikiezalako-edo.

ESKUTI-OGI, "mani" edo "kakaues".

GARA, landarak gora emoten dauen zila ta bai zil orren buruko lorea bera be: azagara, arbi-gara, e. a.

GARBITU (Zean.), beste esangurez ganera, itz onek Bizkaia'n eran edo ilazo be esan gura dau, Azkue'k berak be ba-dakarrenez.

GARRATZ, beste esangurez ganera, Zeanuri'n beintzat, itz onek andi edo aundi be esan gura dau, esaterako, mutil garratza da ori=mutil andi da ori.

GARRAZTA (B-Zean.), tantai, inausi bagako zugatz.

GESU BATEN (B.), laster.

GEZNA, norbaiteri idatziz, naiz beren-beregi-ko bidariz bidalten yakon barri.

GEZNARI, geznea daroana, dana dala daroana.

GIBERRI (B.), auntz gazte; ardi gazte ba'da arkazta esan daroatsogu.

UMERRI (B-Zean.), auntz-ardiak Umerriak eta abelgorriak esan daroagu, erderaz "gana-go mayor y menor" esan daroenez.

GOATU (B-Zean.), oratu, eldu, atxiki, eskua ezarri, atxilotu.

IDAZKI, gutun, eskutitz, "karta".

IDAZNARRU, narruzko papel.

IDAZTI, "liburu" euskel-gaiztoz, edo erderatiko itzez.

IDAZTIÑO, idaztixu, idazti txiki.

IGIDIN, besteren laguntza bagarik ezin ebagi daiteken izki, esaterako b Gedin, berez, besteren laguntza bagarik ebagi daiteken izki, esaterako a Ikurdi, lenagoko iskillo, biribil-samar ta edez ezkerreko besoari eutsana; zurrezko naiz narruz estalitako esizko izaten zan.

IKURDIDUN, ikurdirik ba-darabilena.

IKUZI (B-G-AN-BN), urez, naiz beste lobebez zerbait garbitu.

ILUNTZE (B-G-AN), ilunkara, eguna iluntzen asten dan garai.

INGI (Eun-ki?), papel.

INARRA (B-G?), landaraz ganera, etxea-ta garbitzeko zera, inarrazkorik izan ezarren be.

INARRATXO, soñekoai autsak kentzeko zera. IRANSUGE, IRANSUBE (G.), ipuñetako egodun suge.

ISKILLO (B-beñ.), norbere burua yagoteko, naiz inori okerrrik egiteko, berezko naiz gizonak asmauriko edozer, esaterako ezpata. "Biotza ta zentzuna guduan dira bearrago, iskilluak baño", diño esakune zarrak.

ISPEL (Itxibera'tik?), ostra, txirla ta olango beste edozer.

IRUZKOL, euskarri.

ITSUTA (B-G.), biur edo bidurrezko ustai, naiz lokarri.

IZARO, urez inguratutako legor. Mundaka ta Bermeo-bitartean dago izen au daroan olango zer bat-eta, olangotzat artu ta darabilt.

ITZEBAGI, ITZEKARRO (B.), arrakaldu, brintzatu, bai lurra, bai eskuak be.

IZKORA, itsasoko uren gorakada.

IZPERA, itsasoko uren berakada. Ogetalau orduan itsasoak izpera ta izkora bi izaten dauz.

IZSTU (B-Zean.), argaldu, estutu.

KULATZ, "puntu" euskel-gaiztoz. Zerbait idazterakoan erabili doroagu olango zera.

LATA (B.), beste esangurez ganera, "cancilla, puerta de los campos" dakar Azkue'k bere iztegiari. Oñati'n erromara esaten dautsoe. Solorako ate da lata edo erromara au: taket sendo biri zuloak egin eta alkarren aurrez-aurre lurrean sartu, gero taket biotatiko baten zuloetatik bestearenetara abekat sartu, ta or dozu latea itxita.

LEGARR (B.), beste esangurez ganera, esne utsez bizi dan bildotsaren esnetegia esnez beterik. Mamituko ba'da, legarra ezarri bear dautsazu esneari.

LEKAIDE, Yaungoikoari oizko iru zinez bere burua opaturiko gizonezko.

LEKAIME, Yaungoikoari oizko iru zinez bere burua opaturiko emakume.

LEKARETXE, lekaideak bertan bizi diran etxe.

LEKARO, basamortu.

LENGEIAK, su, ur, egurats (aide) eta lurra, lenagokoak zer guztiak lau zerokaz osotzat ebezan-eta.

LEPO EGIN, burua moztu.

LATZINDARI, "notario" dalakoa.

LUPETZ (B-Zean.), lokatz, basa

MALLEGUZ, zorrean arturik.

MAMUKIO (B-Zean.), zigin, ziguin.

MANDIO, garai, aletegi, biitegi.

MARGO, "kolore" dalakoa.

MAZMARRO, armari.

MEIKI (N-Arbizu), "koxo", "erren".

MEIKITU (N-Arbizu), "koxotu", "errendu".

MORKOL (B-Zean.), mokorr, zugatzaren aldorr, naiz adapo.

MUKULU (Orixe), bizirik eta erarik bagako zera, gorputzen geia.

MUSKERR (B-G-L), lau oñeko pizti eguzkizale, bizkorr, artzuloetam bizi dana yatsu muskerra, ta bere margoari be muskerr detxoqu, euskel-gaiztoz "berde" dalakoren ordez.

MUSKILDU (B-Zean.), lorrindu, lardaskatu, laskitu.

MUTXIKA (B-Zean.), pinporta, pikorr, narrugarau.

MUTXIKIN (B.), ondakin, "sagar-mutxikin" esaterako.

NAGUSIAGOTZA, bakaldunai-ta emoten yake izengoitit au, erderazko "majestad" iragarteko.

NARRITA (AN-b), txantxa.

NO, emakume. Or dozuz arako "No ta To"

OINBIUR, gaizkileai oñak lotzeko tresna.

OKOLU (B-Zean.), baztarr. Okellu dakar Azkue'k

OLERKI, bertsoz egindako lan.

OLERTI, bertso-yakintzazko arlo.

ONINDAR, zer onak eragiteko indar, "birtute" euskel-gaiztoz.

ONTZA, ondasuntza.

ORROLLO (B-Zean.) Orrillo dakar Azkue'k, baña esangura bereziegiagaz. Orridun edozein zugatz-adar, zugatzetik erauzita, naiz ebagita. Orrolloz kentzen yakez ipuzterriai euliak udako beroetan, baita maira datozan euliak uxatu be leku agirian yaten danean.

ORTZI, gure buru-ganeko goi urdina, lañorik bagako gau-egunetan agiri izaten dana.

OTA-BEDAR (B-Zean), zain-gorri, erderazko "cuskuta" dalakoa. Inoren lepotik bizi dan bedar gorritzka onek sare egiten dau deusion landarearen ganean, esaterako ota, naiz, sekulebedar edo irustearen ganean.

OTU (B.), burura etorri bapatean.

OTUAL, irudimen, zerbait otuteko al.

OTURUNTZA, OTORONTZE, yaki, yataldi.

SIKILIKITU (B-Zean), eden, zitai, "pozoi". "Sikilikitua dau sapoak (kunkunak) narruan" esan daroe Zeanuri'n.

TERTZIO (B.), zerbaiterako aldi, garai, intera. beste esangurez ganera.

TUKU (B-b), txutxu, garramura, espa, susmo, alan be maiteen arteko izanazkero. Tuku-keriz eran eban Otel'ek bere emaztea.

TXAKIL (B.), makal, gexorik edo erdi-gexorik dabilena.

TXATARR (B.), txinparta, txingü, pindarr.

TXIBIZ (B.), bestek dauena gura leukena da txibiz.

TXIRGORA (B-Zean.), txingorr.

TXIRO (B.-Beñ.), ezeuki, beartsu. "Txiroak dirudi inxautü, guzliok arrika beti" diño esakune zarrak.

TXINGOTE (B.-Oñati), gizon trakets-barregarri.

TXITXARI (B-Zean.), gogargi ta berbatsu.

TXOTEN (B-Zean.), zotín, txopin.

TXUXO = txori-uxo?, txori-malo esaten dautsoe Oñati'n guk txuxo esaten dautsagun zera-ri.

UGIN, olatu, urutu.

UKARR, errukiz eskuz emote: dogun zera, "limosna" dalakoa. Azkue'k ez dakar itz au, baña asmau dauenak asmau dauela, bikain asmauta dago, eskarr'en antzera eginda dago-ta. Ugarr = uko (esku)-ar.

URUTU (B-Zean.), olatu; erreka azi.

USIGI, USEGI (B.), aginka egin.

USIKADA (B-Zean.), usigitea ta usigite batez zerbaiteri kentzen yakon zatia. "Usikada bat ekak" esaten geuntson guk alkarrí mutiko gintzazanean.

USIKARI (B-Zean.), aginkari, Txakur usikari = txakur aginkari.

URREAN (B.), agian, naski, noski.

XAKE-YOKO, erderazko "ajedrez" dalakoa.

YAINKONO, yainko eme.

YAKINKIDE, bestek dakiana berak be ba-dakiana.

YAKINKIDETZA, bestek dakiana berak be yakín izatea. 'Kontzenti' euskel-gaiztoz.

YANTZI-BESO, besa-zorro, soñekoaren beso.

YARE, YAREI (B.-Oñati), askatu

YARAUNTSI (B-beñ.), iñoren ondasunak, naiz beste zerbait legez norberagandu, esatera-ko, seme-alabak euren gurasoen ondasunak, bakal-semek bakalduntzea.

YASAN (AN-BN), eroan, baña ez zer atse-gingarririk, neke-lorrak baña.

YAUARRI (B-mu), zerbaiten, norbaiten, naiz norbaitzuen ardura izan. "Gobernau" euskel-gaiztoz.

YAURGO, yaurteko al eta eskubide.

YAURETSI (S), yauntzat etsi, men egin, uz-kurr egin Yaungoikoari naiz besteri.

YAURESPIDE, yauresteko bide; "erlejiño" euskel-gaiztoz.

YAUZI (AN-BN-L-S), oin biak batera eragita soña lekuz aldatu.

ZAMA (Guzt.), bizkarrean, naiz asto-mangoganean, naiz burdian eroaten dan zer astunago-arinagoa.

ZAMIL (B-Zean), zain zuri, zurda. Zan-il ez ete da gero? Dana dala, samil esan daroagu Zeanuri'n.

ZEARTAU (B-Zean.), yota lurrera egotzi.

ZERGA, arielak, petxu.

ZINKIDE, zerbait egiteko bestekin zinbidez alkartua.

ZINDIKETU, zerbait egiteko bestegaz zinbidez alkartu; baita euskel-gaiztozko "konjurau" be esan gura dau.

ZITAL (B-G), beste esangurez ganera, sikilikitü, "pozoi", eden be esan gura dau.

ZURUBI (BN-L-S), euskel-gaiztozko "eskillara" Nire ustez zubi bera be zur-ubi da.

UXATU (B-Zean.), bildurra sartuz igesiaz, batez be egaztiak.

YIAZO (B-Zean.), txakurra ezarri zerbaiteri, naiz norbaiteri, $\alpha\alpha$, $\alpha\alpha$ esanda.

IZPERR (B-Zean.), zer txiki-uts, ia ezer bere ez dana. "Gaztaerik ba-dozue?-Izperrik be ez gaztaerik", gaztaerik arean be, zelango danik be ez dabela esan gura dau. Izpi ta izper bardintu dira, ba.

KARDABERAZ BILDUMA

- 1.º KARDABERAZ AITARI OMENALDIA
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onaandia eta abar).
 - 2.º NEURRIZTIA
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).
 - 3.º SUGE GORRI
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.
 - 4.º ESPALAK
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.
 - 5.º AITONAREN IPIUAK
(Ramon Murua).
 - 6.º ERREKA-ZULOAN eta...
(Anastasio Albisu Ayerdi).
 - 7.º 1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE
(Larrakoetxea, Bedita).
 - 8.º LANDARE-JAKINTZA
(Larrañaga, Gillermo).
 - 9.º GARTZI-XIMENO eta...
(A. Albisu Ayerdi).
 - 10.º EUSKALERRIA ETA ERIOTZA
(Anastasio Arrinda Albisu).
 - 11.º 2 - KOMEDIAK
 - 12.º 3 - DRAMAK
 - 13.º 4 - DRAMAK
 - 14.º 5 - TRAJEDIAK
 - 15.º 6 - TRAJEDIAK
- } SHAKESPEARE

KARDABERAZ LIBURUXKAK

- 1.º KARDABERAZ
- 2.º UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
- 3.º EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK
(A. Arrinda).
- 4.º KARDABERAZ - 2.
- 5.º KARDABERAZ - 3.

KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan,
Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean

b) Kristau-pentsakera barruan
(ezi zabala) lan egiteko.

Bazkideak (gizon ala emakume) milla pta.
ordainduko dute sarrerako ta beste mi-
lla urtero. Diru oiekin ateratzen da
KARDABERAZ BILDUMA, bazki-
deentzako ezean.

Arpidedunak (bazkide nai ez dutenak) li-
buruak artzera beartzen dituzte beuren
buruak.

Bazkide nai arpidedun egiteko nora jo?
Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Tolosa'ra: Juan José Garmendia Arcelus
Técnicas de Difusión.

San Francisco, 1.

Apdo. 83.

